P. MENDI-

BURU.

ЭІЭІІІZ 3

2

upla

upna
Universidad Pública de Navarra

upna
Universidad Pública de Navarra

upna

upna

✠

JESUSEN AMORE-NEQUEEI DAGOZTEN CEMBAIT OTOITZGAI,

JESUSEN COMPAÑIACO

A. SEBASTIAN MENDIBURUC

EGUIÑAC.



I. Z.

1760.

BEHAR BEZALA.
Irañeco Libru-guille JUAN ANTONIO CASTILLA-ren ECHEAN.

upna

XXVIII-GARREN OTOIT-GAIA.

JESUSEN IGUES-EGUITEA, TA IGYT-ARTEraco videa.

JESUSen Presentacioco lana bucatu-horduco, edo, andic anitz luzatu gabe, adiraci cion, gure Jangoico maiteac, San JOSEPHri, ar citzala JESUS bera, ta JESUSen AMA; ta cidoala bí-equin EGYPTOra, ta iduqui citzala an biac berequin, Jangoico berac besteric adiraci artean; ceren HERODES cegoen, JESUS galdu naiez, ta, al ba-cezan, JESUS ill-erazteco. Eguin cen gucia, Jangoicoac adiraci zuen bezala; ta aldi onetan eracutsi cizquígun gure JESUSec anitz gauza; ta, besteen artean, bi guztiz on-zucenac; „ vide, ta „ lagun gaisto-etatic igues egui- „ tea, bata; ta bestea „ Jaunac „ nai dueño, emequi, ta eno- „ iatu gabe vicitzea, guertatzen „ diran, lan, ta nequeen ar- „ tean, latzac oriec, eta go- „ gorrac izana gatic. „ Lembicicoa da oraingo otoitz-gaiean guc ecusi behar duguna.

§. I.

JESUSEC GAUR ERACUSTEN DIGUNA DA LAGUN gaistoen artetic igues-eguitea.

ZOAZ IGUESI EGYPTOra, erran cion len San JOSEPHri gure Jangoico maita-garriac; eta IGUES-EGUIZUE zuec lagun gaistoen artetic, esaten digu guri gaur gure Jangoico berac. HERODES Erreguec, aditu ezquero, aditu zuen bezala, irur goiztar Erregueac ecarri cioten, Jesusen jaio-berria, joan behar zuquen (ta alic laster-ena) Jan-

goico-guizon jaio berriari bere ongui-etorriac, eta agur andiac eguitera, baña gaisto-eguia cen HERODES Erreguea, orrelaco lan on bat eguiteco. Oitua cegoen HERODES, gogoac ematen ciona, eguitera, ta bere Erreinuco gucien Jaun, ta Jabe izatera; ta ecin ecusi zuen nion ere, bera baño, gugueiagoric; eta orre gatic etzuen oñic iguitu, cegoen toquitic, JESUS billatzeco. Gaizqui eguiña cen, bai, HERODESen lan char, edo ego-era galdu hau; baña etzen hau, ez, HERODESec aldi artan eguin zuen, gauzaric gaistoena; gaistoagoa cen orain adituco dezun, bertze lan gaisto hau.

JESUSen Jaio berria ecarri cioten, Erregueei, erran izandu cien Erregue HERODESec, joan citecela berac beren videz, JESUSen billan, ta JESUS ecustera; ta berac, JESUS arquitu, ta ecusi-ondoan, cetozquiola, non arquitzen cen JESUS hari adiraztera; ni ere noan (cion), zuen eran, an bertan berari nere agurrac eguitera, Hau cen aldi artan HERODESec erran izandu zuena; baña etzen hau, ez, HERODES gaistoac bere gogoan cerabillena; HERODESec hordu-an bere gogoan cerabillena cen JESUS lembaitlen illc uztea: ta, JESUS ill-otza utzi naiez, illeraci cituen, andic anitz luzatu gabe, BELEN bereco, ta BELENgo bazter-etaco aur chiqui guciac.

BA-zuen JESUSec, aurra ba-cen ere HERODES gaistoac gogoan cerabillen, asmo galgarri onén berria, bein baño, gueiagotan len adiraci dugun bezala; baña prest-ba-cegoen ere, cegoen bezala, bertatic, edo noiz-nai bere vicia, ta bere barrenean zuen, odol gucia gure amorez emateco, hau, eman baño, len eracutsi, edo adi-raci nai izandu cizquigun, guc eguin behar ditugun, anitz gauza, ta eguiteco; ta orre gatic quendu cen, bere lan on, edo eracuste hau eragotzi nai ciqueon, HERODES galgarriaren begui-etatic, edo atzapar-etatic, eta artu cittnen EGYPTOco vide gaistoa, ta videco neque gogorrac; eracusten cigula bere igues-eguite necagarria-requin, era bereco aldietan guri dagoquiguna, edo guc eguin beharra.

I.

CEMBAT bere nequerequin eguin ote zuen gure JESUS maita-garriac, aldi-onetaco

ſaco eracuſte hau, edo cein andi gogorrac izandu ote ciran, EGYPTOco bere videan JESUSec ecuſi-ricaco, nequeac. Ori da gauza bat, Eſcritura Santac guri adirazten ez diguna; baña ganza da, guc gueroc, horduco bertze cembaitez oroitu ezquero, nol-erebait ezagu dezaqueguna,

Cer gauzac dira, orretaraco guc gueren gogoan artu, ta erabilli ditzaquegun, gauzac? Oriec dira, Jeſuſen horduco videaren ASIERA beinic-bein; bi-garren lecuan VIDE BERA, edo videaren ERA; irugarrenean urtearen horduco SASOIA; lau-garrenean AMAren adiña, ta bihotza; ta azquenean JESUS berarena. Ecuſ ditzagun bortzac banaca.

Beren eſcuz, ta nequez vici ciranac ciran, len ere adiraci zaicun bezala, JESUSen AMA maita-garria, ta onen Eſpoſo, ta viciquide on S. JOSEPH virturetſua, ta ba-daquizu zuc cerorrec ere, norañocoac izan oi diran, era onetan vici diranen ondaſunac, eta gauzac, beintzat erbeſtetuac vici diranean, EGYPTon JESUSen AMA, ta S. Joſeph vicitu ciran bezala. Cituzten gauza chiqui-etatic artu behar izandu zuten, beren ichetic, EGYPTOrañoco videan izandu zutena; bada, gavaz, ta lotan cegoela, adiraci cion gure Jangoico maiteac S. Joſephari, Ama-Semeac arturic, atera cedilla lembaitlen bere ichetic, eta igueſ-eguin cezala EGYPTOco Erreſumara, edo EGYPTOra; ta, urrengo eguna arguitu baño, len, ta, nior necatu bague, aracó videan arquitzen ciran irurac. Orra echetic EGYPTO-rañoco JESUSen videaren ASIERA! Orra cein preſtacio guticoa! Orra cein neca-garria!

Eta VIDE BERA? Cer nolacoa? Lucea beinic-bein; ta dembora berean mendiz, ſaſiz, lecu agorrez ongui betea. Eta ba-daquizu, era onetacò videetan eſcaz izan oi dirala, edo ura, edo hoſtatua, edo jatecoa, ta, behar diran, beſte gauzetatic cer, edo cer.

NOIZ ote, edo urtearen cein SASOI-ETAN artu zuten AMA-SEMEAC, eta S. JOSEPHec beren vide luce necagarri hau? Urtearen bi-garren illean, edo haren inguruan; ta dembora ori, daquizun bezala, izan oi da, otzez, izotzez, euriz, elurrez, aice gogorrez, ta eguraldi gaiſtoz ongui naſtua,

Norañocoac ote ciran vide

vide hau artu zutenean, JESUSen AMAren adiña, ta indar guciac? Ez andiac; oraindic alabaña urte gutizco DONCELLA cen horduan JESUSen Ama Virgina; ta Doncella, neque-etara orrembat ez oitua; bada bere aur-tasunetic asi, ta ezcondu arteco urte guciac eguin izandu cituen Ama Virginac JERUSALENgo Elizan, an emequi vici ciran, aurcho, ta Doncella gazteen artean; gazteric atera cen andic ezcontzaz; ta ezconduric etzuen orrembat dembora, IGYT-arteraco vide hau artu zuenean. Eta cer BIHOTZ ote cen AMA onén BIHOTZA? Amac izandu duen, bihotzic berachen, ta urricaltiena.

Ongui: ta JESUS beraren BIHOTZA, ta ADIÑA? JESUSen blhotza, Jangoico guizonaren bihotza cen; ta orre gatic cen bihotz maitari--ecin--maitariagoa; ta JESUSen adiña, ill bi bete baguecoa, edo beintzat anitz gueiago etzituen, aurrarena, Interprete, ta guizon Jaquintsuac aditzera ematen dutenaz.

Izanic bada, ciran bezalacoac, aditu dituzun, bost gauzac, ecusi zazu cerorrec, cein andic-gogorrac izan behar zuten JESUS aur-choac bere vide onetan ecusi, edo izandu cituen, nequeac! cein gogorrac horduco JESUSen otzicarac; eta aize-ucaldiac! bada bere Ama Virginac naia gatic, etzen erraz, vide, ain lucegaistoan gucietatic hura gordetzea, edo nequeric gabe ateratzea.

Onelaco bere nequeen arin-garritzat, eta vicitzan irauteco, vide gucian etzuen JESUSec artzen, Amaren bularra beste jan-edanic; ori da alabaña adin artaco aurren janedana; ta ecusten dezu, cer bular, edo cer esne izan citequen, otzez, ta nequez betea cebillen, ta emequi acia cegoen, Virgen gazte baten esnea, edo bularra!

Eta arere indar gutiagocoa izain cen, JESUSec artzen zuen, bular, edo esne hau, eguia ba-da, Interprete andi A. Maldonadoc adirazten duena; bada, onen ustez, oñez ibilli cen JESUSen Ama, herditzeco cegoela, joan cenean, bere erritic BELEN Erritañoco laur eguneco videan; ta, vide artaraco cena, cen JESUSen Ama beste vide luce onetaraco ere; edo guti-requin arquitzen cena cen, besteren oñez ibiltzeco.

Baña dena dela, edo ce-

cebillela bere oñez, edo astochoren batean JESUSen AMA maita-garria, bere Erritic EGYPTOra joan cenean, onec ceraman, videa, vide lucea cen, ta vide gaisto-gogor-neca-garria. Videra cen, prisaca bezala; ta videan ibilli cen urteco-sasoi ez-onean, videz dabillen edoceinen-daco: ta JESUSen AMA bezalaco, Amaren, era onetaco, ibillera, ez da orrembateco ibillera, aur jaio berriari behar bezalaco bularra emateco.

Andia ba-cen ere, etzen andiena, Ama-Semeac horduan izandu zuten, pena, ta nequea; andiagoa cen, beren bihotz-aldetic izandu zutena. Ba-cequien AMA Virginac nor cen, bere besoetan cerabillen, bere Semechoa. Bacequien Jangoico-guizona cela; ta Jangoico, gure amoreac gatic, guizon eguiña. Ecusten zuen videnabar vide gucian JESUSec ceramana. Ecusten zuen, gucia ceramala, jaquiundez betericaco Jangoico-guizonac bezala, ta ecusten zuen, ceraman gucia, ceramala humill-humill, ta behar bezala, bere Ait-Eternoaren icenean, ta munduco gucien amoreac gatic. Ecusi zazu, bada, nolacoac izan citezqueen, jaquite, ta ecuste onec AMAren bihotz elquerdun, urricalti maitariari ematen ciozcan, quezcac, eta aldarteac.

Hau berau ecusten zuen, JESUSec, bere amaren gañeraco nequeen artean; ta bere ecuste onec necatzen cion JESUSi bere bihotz ecin maitariagoa, vide gaistoco ibill-erac, aice otzac, era, ceramatzien, beste neque guciac baño, aguitz, eta aguitz gueiago; bere AMA zuen ala baña (ta AMA munduco guciac baño, maiteago zuena), bere amorez ain penaturic JESUSec ecusten zuena.

Nequeac, eta nequeac dira, gure JESUS maitea; ta, alde gucietatic estutzen zaituzten, nequeac, vide latz-gogor onetaco zure lagunac; eta al-ere gucien artean zabiltza zu Jangoico-guizonaren eran, edo ecin obequi; ta cere neque latz guciac artzen dituzula, cere Aita Jangoicoaren icenean; ta gure gucien oneraco; ta videnabar aguertzen diguzula, nola igues-eguiten den lagun gaistoen artetic.

II.

Bai; JESUSec, gaurco bere igueſi-neque-equin, ederqui eracusten digu, lagun gaistoen artetic igues-eguiten; bai, ta

bei-

besteric ere ; bada JESUSec gaur igues eguin du HERODES galgarriaren atzapar-etatic , bere gueroco vicitzan eguiteco, Aita Eternoac adirazten diozcan,gauza guciac ; eta bere igues-eguite onequin adirazten digu, guc ere gorde dezagula Ceruco graciaren vicitza , lagun galgarrien artetic igues-eguiten dugula ; ta eguin dezagula gueren vicitzan , gure Jangoicoari atseguin eguiñen dion , gucia. Hau gucia zuc eguiteco, eguin beharco dituzu , ta tricatu gabe , edo emen bertatic JESUSen gaurco igues-eguitearen eraco igues-eguiteac ; edo utzi beharco dituzu cere lagun galgarriac , eta becaturaco vide gaistoac. Ore daquizu zuc, cer lagunac diran , ta cer videac , vide-lagun galgarri oriec ? Adiracico derezquitzut nic , cembait beintzat.

Becatu-etara eraman oi zaitu , daquizun , àraco lagun ha-requin , edo bertzea-requin hitz-eguiteac , haren echeratzeac , edo hari beguira egoteac ? Orra bada , orra zure HERODES , edo zure lagun galgarria ; orra JESUSec gaur zuri utz-eraci nai dizun , laguna , ta becaturaco videa. Galdu nai-ez-pa-dezu , dezun gracia , ta Ceruco vicitza , igues-eguin beharco dezu eche orretatic ; bai,ta cere galgarri orren beguietatic ere ; ta , hau ez eguitera , eguiten ez dezu zuc, gure JESUSec gaur eracusten digun , igues-eguitea.

Becatura eraman oi zaitu , daquizun , aldietaco joco harc , edanac , danzac , jostatzeac , ego-erac , alferqueriac, ibill-erac, edo cerc , edo cerc ? ORRA ori ere , zu galdu nai zaituen , HERODES gaistoa ; edo orra zure animaco vicitz ederraren vide galgarria. Nai ez-pa-dezu bada , quen daquizun vicitz on ori , edo , cere Jangoicoac emaniç dezun, Ceruco gracia , utzi beharco dezu, dagoen, lecuan,ta billatu beharco dezu , naiz dela nequez beteric , eta negarra dariezula, beste lecuren bat , beste toquiren bat , eta bertze vicitza. Zuri ori eraguin naiez , da gaurco JESUSen igues eguitea , ta nequezco videa : ta eraguin naiez , cere lagun-etatic bat-ere zuc gaistatzen ez dezula.

III.

BAI ; gaurco JESUSen vide gogor , ta igues eguite nequezcoac eracusten dizu beste gauzaric ere ; bada eracusten dizu , nola gal-erazten diran besteen gal-vide gaistoac. ATOZEA;

ZEA; zurequin egoteac, zurequin joſtatzeac, zurequin edateac, edo zure danzac, hirzac, ſartu-atereac, edo bertze cerbaitec ematen dio norbaiti ſua, edo gaitzeraco vide-moduren bat? ORRA bada, vide hau ere zuri gal-eraci naiez da JESUSen gaurco igues--eguitea? bada, bere vicia ez-galtzeco ez-ecic, igues-eguiten du gaur JESUSec, quendu naiez, ſuturic arquitzen cen, HERODESi, gaitzeraco, ta Aurren eriotzez bazterrac betetzeco videa.

Ba-cequien alabaña JESUS maita-garriac, cer cen HERODESec bere gogoan cerabillena: edo nola cebillen HERODES, JESUS berari vicia quendu naiez, ta hau hari lembaitlen quentzeco, videen billan: ta orre gatic JESUS maiteac igues eguſin zuen IGYT-artera, arquitzen etzuenean, billatzen zuen, JESUS, palaca cequion HERODESi bere barren gaiſtoa; ta utz citzan, beren AMEquin, ta beren vicia quendu bague, Aur INOCENTEAC; edo beintzat eguin etzezan, JESUS berari vicia quentzea--requin eguiñen zuen, becatu arri-garria. Orra gaur JESUSec bere igues-eguite nequezcoa-requin etacuſten digun, icaſcarria! ta orra icaſcari, orain-dañocoan, zuc ongui beintzat, icaſi ez dezuna.

Ez eguiazqui, nere Jangoico maita-garria, ez! Nere icaſte eder onetan baño, pocic-ago ibilli naz ni, nere gogo gaiſtoari atſeguin eguiten cioten, beſte cembait vide galdutan; ta orre gatic ibilli naz ni vide galgarriz galgarri, ta becatuz becatu! Onic ez nuen nic, cembait demboraz beintzat, era onetan, edo gaizquiz gaizqui ez nembillenean; ta, ecuſten ba-nuen ere, vide galgarri onen buca-era dela SULECEA, ez nintzan lotſatzen, ez nintzan izutzen, ta aitziña nunjoan ni egun oro, ta, gaizqui nembillen, dembora gucian!

Baña bere galtzeari beguiratzen ez dionac, nola beguiratuco dio beſterenari? Nic beintzat orain-dañocoan, ez diot, ez anitz beguiratu; bada eguin izandu dut nic nere aragui gaiſtoac, eta gogo galduac eraguin didatena, bat ere beguiratu gabe, nerequin cebiltzanei, orretan nic ematen nien, behar ez bezalaco, ecuſcarira, edo exemplora, ta becaturaco videra!

Eta cembat ote dira, nere lan char onelacoac gatic, ecuſten nindutenac eguin di-

tuzten, becatuac, edo nic becatu-etaraco nere laguñei, ta ecusten nindutenei eman diezteñan, vide gaistoac? Ah nere Jangoico ecin-zucenagoa! ta era onetan nic eraguin ditudanez ere, nere becatuez bezala, artu behar zuc niri, norc daqui, nolaco contuac!

Ibill-eraren gaistoa, oraindañoco nere ibill-era, edo onela nembillen demboraco ibillera nerea! Barcatu ote derezquit nere Jangoico zucen justuac, ala nembillenean, nic neronec eguin nituen, ta, ecusten nindutenei, eraguin niezten becatuac? Baldin nic ori orain ba-nequi, ez nengoque, ez, ditudan, adiña ay-requin, naigabe-requin, ta quezca-requin! Barcatuac ez-pa-daude ere, barcatuco al dizquidatzu, zuc nere JESUS maita-garria, cere videco neque gogorrac gatic; eta emain al didazu, oraindañoco vide charrac utzi, ta zuc eracutsi didazuna zucen, ta arin artzeco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Escatzen dizut, gaizqui-eguiñen damua-requin, ta, vide zucenetan baieic, oñic ez sartzeco gogoz, ta naiez, beteric! Indazu bada; bai arren, bai.

1.

QUI AMAT PERICULUM, IN ILlo peribit. Eccli. 3. 27:

GAitz-videz-vide, edo vide gaistoz dabillena, bere gogoz andic ba-dabil, eta berac nai duela, becataria da, ta betico galdu beharra, esaten digu bere Escritura Santan gure Jangoico maita-garriac. BAI: becataria da, gaitz-videz-vide, edo, becatura eraman oi duen, videz dabillen guizona, ta beste edocein. Orre gatic bada, edo, gaitz-vide galgarri hau utzi baguez, becatura cen SANSON, becatura cen DAVID, bai, ta SALOMON ere; ta orre gatic bera gatic becatura ciran, norc daqui, cembat bertze guizon jaquintsu, andi, ta Santu. Orrelacoric zuri guerta ez daquizun, edo becatu videac zuri gal-erazteco, da gaurco JESUSen igues-eguitea.

ONGUI: ta noren ondoren ibilli nai dezu zuc, datocen, egun-etan, ta cere vicitza gucian? Vide galgarriz dabiltzanen, ta galtzen diranen ondoren; edo, vide charrac utzi, ta onac eracusten dizquitzun, cere JESUSen ondoren?

Zure ondoren, nere JESUS maita-garria: zure ondo-

doren nai dut nic ibilli azquen asnase-raño. Ay! hau eguin ba nu nic lendabicitic; eta bein ere becaturatzen ez nintzala! Besteric izain cen gaur, bai; ta oraiu arquituco nintzan ni, nagoen baño, aguitz zure aldeago, ta egoin nintzan graci andia-requin, ta; norc daqui, cembat irabaci, ta Ceruraco merecimentu nerequin nituela! Zure ondoren, edo, zuc eracusten didazun, eran ibilli gabez, galdu ditut nic; nere JESUS maita-garria, galdu ditudanac, eta galdu dut ascotan nere anima!

Eta, cer daquit nic, nola dagoen egungo egunean ere! Nere ero-eguia! nere galdu galgarria! Iraun ba-lezate azquen horduraño oraingo nere damu centzátuac, eta asmo zucénac! Baietz, uste dut, nere Jangoico maitea, bai, zuc laguntzen didazula! Lagun zaquizquit bada, bai arren, bai.

2.

EGREDERE DE TERRA TUA, ET de cognatione tua, & de domo Patris tui; & veni in terram, quam mostravero tibi. Genes. 12. 1.

ATERA zaitez cere Erritic, cere Aideen artetic, bai, ta cere Aitaren ichetic ere, ta atoz, nic eracutsico dizudan, Errira, edo bazter batera, erran cion aldi batez Jangoicoac ABRANí; ta cerbait orrelaco erran izandu dit nri-ere, nore daqui, cembat aldiz, ta cembat aldetara!

ABRANen Erria, Idoloz, ta becatu-videz beteric cegoen, Erria cen; vide oriez, idoloen ondoren, ta gaizqui cebiltzanac ciran ABRANen Aideac; bai, ta ABRANen Aita bera-ere; ta berèz, garbiro, behar bezala, ta Idoloric bagueco echean vici cediñ bere famili-utsa-requin, andic eramanzuen ABRAN bere Jangoicoac, artaraco ona cen, lecura. Eta deitzen nau ni ere, gauza beretaco, niri dagoquidan, toquira, ta vici-erara. Abranec eranzun cion bere Jangoicoari, ta artu zuen, tricatu, edo luzatu gabe, ta bere-bereala, Jangoico berac bereci cion, Erriraco, edo bazter-eraco videa. Eranzun diot nic ere; nere Jangoicoac deitu didanetan, edo artu izandu ditut nic ere, vide gaistoac utziric, nere Jauna gana daramaten, vide on garbi zucenac?

Ez nosqui, ta erdietan ere! Oitua nengoén, lecuan, edo, artua neducan, ibill-eran

vicitu naz ni, gueienean beintzat, edo dembora luce-etan. Maite nituen nic nere Idolo charrac, edo gogoeta loiac. Maite nituen nic nere atseguin lizunac, nere jostatze galduac, eta vide galgarriac; bai ta, nere Jaunaren gogaràcoac etziran, gauz-etatic beste cembait ere; ta, ez uztea gatic, utzi izandu dut nic, nere JESUS maitagarriac eracutsia daducan, Ceruraco, vide zucena.

Artuco al dut orain bada ere? Baldin bere, bai! galdua naz ni, nic orain ez aditu eguitera, deiez, ta lagundu-naiez dagoen, nere Jangoicoari, edo berac ez uquitzera guero nere bihotz char galdu hau.

Baña uquituco ote dit niri nere Jangoicoac demboraren batez, edo guero noiz, edo noiz? Ceri dagocala, erantzuten ez-pa-diot nic orain, deitzen didanean?

Ez, nere Jangoico maitea, ez! Ez dut nai, ez, dembora gueiagoz egon, nagoen bezala! Erantzun uste dizut, eta artuco dut nic gaur bertatic, eracusten didazun, cere vide zucen hau! Indazu arren, nagui-tasunac garaitzeco, ta vide onetan arin ibiltzeco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

34

ECCE ELONGAVI FUGIENS, E mansi in solitudine. Ps. 54. 8.

MUndu gucia bete du gure Etsai galgarriac bere laquioz, locatze galduz, ta pausu gaistoz. Eroaren eran nembillela, sartu izandu naz ni cembait aldiz araguiaren locatze galdu ciquin-garrian; era bereco cembait ibillera macurretan arquitu nau ni nere Etsai gogor amurratuac, eta ongui loturic iutzi nau becatuaren laquio sendorrez, edo lazoz; eta ascotan autsi ditut nic neronec, nere naiez nere animaco ezur guciac, sarturic orretaraco oben gaistoen malcorteguian, ta amil-lecuan; edo nic neronec nere culpaz, eta gogo gaistoari atseguin eguitea gatic, galdu dut nere anima, norc daqui, cembat bider, edo cembat becatu-requin! Baña ezaguturic noizbait-noizbait nere ibill-era galdu hau, ta, onetatic atera ditudan, calteac, idiqui ditut nere beguiac, eta ecusi dut, nondic dabillen, nere guidari on JESUS maita-garria; ta artu dut, ibillera galdu hau utziric, beraren ondotic zucen ibiltzeco asmoa.

Uzten ditut bada nic go-

gogoz, ta bihotzez, orain-dañocoan galduric ecarri nauten, nere vide gastoac! Ez dut gaurguero ecusi ere nai becaturaco videric bat ere. Beude aldebat, eta ni gandic urruti, edo bebiltza, nai duten, eran gañeraco ero galduac! Orien eran len ibilliaz dut nic damu; ta ciñez al-ere! Ez ditut berriz ez bazcatu nai, orain-dañocoan bezala, nere aztura, ta naicunde gaistoac! Ez diot eman nai, ez bati ere gaitz-eraco videric chiquiena, edo, ongui ez dagocan, ecustecoric bat ere! Asmo hau lenagotic ez artuaz dut orain damu, ta urriqui!

Nere jostatze charrac; gal-eraci nauzuten, orain-dañoco nere eraqueriac, utz nazazue gaur-guero baquetan, ta asaldatu gabe! Zuec, nerezat, izandu zarazte, Herodes JESUSendaco bezala, edo Etsaisto guztiz galgarriac! Zuen iguesi ibilli behar dut nic, bai, vici nazaño, ta autsi, ta urratu behar ditur, gaitzeraco, nere oitura macurrac! Obe nuquean nic nere lan hau eguin izandu ba-nu lenago, ta lenago ere, edo igues-eguin izandu ba-nu nic, orien escu-eraira eraman nauten, nere vide galgarri-etatic, JESUS maitagarriac, bere igues-eguite zucena-requin, eracutsi cidan bezala!

Ah, nere JESUS maitagarria! gaur-danic asico naz eguiten, bai segurqui, len bein ere, behar cen eran beintzat, eguin ez dudana! Len hau eguin baguez nago ni gaur, nagoen bezala, ta becatuz, ecusten dezun bezain galdubetea! Ez al zait vicitza gucian aituco niri gaur arturicaco, nere asmo onguille zucen hau! Ez nuque nai beintzat, JESUS maita-garria. Artuaz beraz ere zuri esquerrac; bada, zuc YGYT-arteraco cere ibill-era gogor nequezcoarequin eracutsi ez-pa-cenit, orain nic artu dudan, asmoraco vide hau, artzeco egoin cen egungo egunean ere, aspaldi gucian, edo orain dañoco demboran egondu den bezala! Artzen bezala, bada, lagun zaquizqut, nere Jangoicomaita-garria, asmo artuac diona zucen eguiten; bai, ta orain ciñez, ta damuz erraten ere: *NERE JESUCHRISTO, &c.*

XXIX.

upna

XXIX-GARREN OTOIT-GAIA.

JESUSEN IGYT-ARTECO NEQUEAC.

ESTO IBI USQUE DUM DICAM TIBI. *Math. 2. 15.*

§. I.

JESUSEN EGIPTOCO BEHARRA, TA ANGO BERE BEHARRA-REquin eracuſten diguna.

AITA ETERNOAC adiraci zuena-requin, atera zuten JESUS Nazaretco ichetic, eta eraman zuten Egyptora, otoitz-gai azquenecoan ecuſi dugun bezala. Joan cen Igytartera, naimen, edo voronda-te oſo-oſoa-requin: ta egondu cen an cembait urtez; ta egondu ba-cen ere, anitz nequeren artean, egondu cen, nequeric ecuſi ez-pa-lu bezala, ta ateranai bat eracuſten etzuela. JESUSen ango ogo-era hau cer den ba-da-qui, daquienac, an JESUSec eraman, ta ecuſi izandu zuen, neque-quezca, ta nai-gabe gucia. Nola-ere-bait hau guc ecuſi beharco dugu, ezagutuco ba dugu Jeſuſi coſtatu citzaiona guri eracuſtea, ENOIATU gabe nequeac eramaten, Jaunac nai duen arte GUCIAN.

EGYPTOn erbeſteturic, eguin cituen JESUSec cembait urte: ta urte ori-etan izandu cituen JESUSec bi neque modu, ongui gogorrac: bata cen BEHARRA, ta beſtea bere barreneco NAIGABEA.

Ongui gogorra izandu cen, bai, beinic-bein JESUSen Egiptoco BEHARRA. Goiztar Erregueac eſqueñi cióten, urretic, edo etzuen artu JESUSen AMAc batere, edo banatu zuen laſter, artu zuena, be-

behartsu cembaiten artean; bada, andic anitz luzatu gabe, Elizara cenean, JESUSen Presentacioan, eraman zuen, behartsu, ta gabe vici ciranen ofrenda; ta, oberen bat eraman izan al-ba-lu, etzen, ez horduan labur guelldituco bere Jangoicoa-requin.

JESUSen Presentacioan gabe arquitzen ciran, JESUSen AMA, ta San JOSEPH, andic laster, edo site atera ciran beren ichetic, IGYT-artera joateco; ta atera ciran, cerbait billatzeco, lecuric etzutela, edo artaraco hastiric gabe. Cer izain zuten bada, JESUSi emateco, utsic bezala, EGYPTON sartu ciranac?

Non sartu cirala, uste dezu, JESUSen AMA, ta S. JOSEPH, EGYPTOn JESUSequin sartu ciranean? Jangoicoaren berriric (behar cenic beintzat) etzen Erresuman, edo Erreinuan.

Emalle on anitz arquitu oi dira orrelaco lecu-etan, edo bazter-etan? Nola billa cezaqueen, nol-ere-bait an vicitzeco, behar zutena? Lanez, ta irabaciz, beren Errian bezala.

Eta beren Errian, Errico lan-irabaci guciequin, behartsu ciranac, ez ote ciran behar gueiago-requin arquitu izandu, erbestetuen eran, andic urruti, ta EGYPTON vicitu ciran demboran? Errazu, deritzazuna, edo gaûzac adirazten dutena: ta asma-zazu guero, baldin badaquizu, nolacoac izandu ote ciran EGYPTOn JESUSen Echea, Echoco gauzac, eta vicitza gucia.

Zuc, eta nic daquiguna da, behartsu jaio cela JESUS, behartsu vicitu cela non ere nai; ta, gabearen, ta beharrearen billan, ez sartzera IGYT-artean, etzela ez EGYPTOn sartuco JESUS maita-garria: bada ibilli ba-liz JESUS ondasun billan, ba-zoaquen, berara ecustera, berari agurrac eguitera, ta ondasunac ecartzera, etorri citzaizcan, goiztar Erregue-etara; ta izain zuen, oriec emanic, nai adiña, edo behar zuena, ta anitz gueiago.

Sartzen da bada JESUS Egipton berariazco gabearen-beharraren, ta nequearen billan; ta arquitzen du, nai bezalaco beharra, ta gabea; ta behar-gabe, munduaren contraco vide bat guri eracusteco behar bezalacoa.

CER vide da munduaren vide contraco, edo galgarri hau?

Hau da aisa vicitzea; gorputzari,

putzari, escatzen dituen, asetze, lo, ta contentu guciac ematea; ta, behar-tasun, ta gabe guci-etatic igues-eguiteco, Jauregui, edo Eche galantac eguitea; ardantze, ta masti, alor, ta bazter, al diranac, erostea; ta soñecoz, ta gauzon ederrez norc bere burua, ta toquiac apàintzea. Hau da, mundu eroac daraman, videa. Vide galgarri hau guri utzi-raci naiez, ta guc ar dezagun beste vide behar bezalaco bat, edo berac EGYPTOn artu zuenaren eracoa, etzuen JESUSec beretzat an artu nai izandu, ez-pa-cen beharra, gabea, ta biac dacarten, nequea; eta orietatic izandu zuen an JESUSec ecusi dugun, adiña.

Ah, gure JESUS maita-garria, ta zuc gu gatic EGYPTOn ecusten dezuna! Bai? Bada oraindic ecusico dugu gueiago ere. Cer ote? Bere baitan an JESUSec ecusi zuena; edo, ecusten cituen, gauza gaistoac ematen cioten, bere bihotzeco NAI-GABEA.

§. II.

JESUSEN EGYPTOCO NAIGABEAC; eta naigabe oriec eracusten digutena.

EGYPTOn sartu cenetic, ecusi zuen JESUSec, lendanic ongui asqui ciequiena, edo ecusi zuen IGYTOen itsu-tasuna, edo ibill-era centzu-gabeco galdua. Ecusi zuen, IGYtarrac ematen ciotela sulececo galgarriari, Jangoicoari baicic, eman behar etzaion, honra, ta adoracionea; ta ecusi cituen, orre-taraco cituzten, idolo ciquiñac; edo ecusi zuen IGYTOAC beren Jangoicotzat artzen zutela, edocein tipula, edocein egazti, sugue, ta gauza ciquin; ta gauza char oni eguiten ciotela, Jangoicoari zor zaiona; ta, ez-pa-liz baño, gueiago etziotela beguiratzen ere beren Jangoicoari. Ecusten dezu gauza cein arrigarria Jesus maitea-rendaco JESUSec Egypton ecusten zuena?

BEIN bacarric, edo aldi beingo batean hau ecustea gauza gogorra cen, dacusazun bezala, gure JESUS onaren-daco; cen alabaña, bere Aitaren honra, Etsai char galduaren oñetan ecustea; ta ecustea Etsai bera, IGYTOen gogoz, Aita Eternoaren, Seme beraren, ta Espiritu Santuaren Ceruco Tronuraño igana, edo goititua

Hau berau ecusten zuen, an sartu cenetic, atera arteco demboran, edo urte gucietan; ta ecusten zuen, urte orietaco-

egun gucietan ere, ta eguneco hordu, ta puntu oro. Bada bein hau ecustea ain gauza gogorra ba-da, ambat aldiz, ta ain maiz hau berau ecustea cer izain cela, uste dezu, gure Jesus maita-garriaren daco?

Eta cer izain cen videnabar JESUS berac ecustea, ecusten cituen, naigabezco beste cembait, eta anitz gauza ere? Bada, ori ecustean, ecusten cituen JESUS maita-garriac, ortic cetocen, sorguin-queriac, guezur-ezco juramentuac, ostutze, ta ebaste galgarriac, elcar-ecin-ecusiac, araguizco becatuac, eta gañeraco gogoeta galduac, eta loi-queriac.

Oriec bada, lenequin batean, bere beguietan, edo gogoan ceduzcala, vici cen, Jesusec, cer penac, cer quezcac, cer naigabeac izain cituen nái-ta-ez bere animan, edo bere bihotz--maitari--mimberean? Guztiz andiac, guztiz arri-garriac, eta, campoco beharra gandic cetozquionac baño, aguitz, eta aguitz gogorragoac!

Eta, guciac elcar artzen zutenean, certaraco zuten gure JESUSen BIHOTZA? Cer nolacoac izain ciran BIHOTZ maitari onen horduco penac, quezcac, eta nequeac? Asma beza, nai duen, edoceinec al duena; baña gueien asmatzen duenac ere, nai adin urtez, ta urtez asmatzen egona gatic, aitortuco du, nai ta-ez, azquen-eraco, asmacioric andienac asmal baño, aguitz, eta aguitz andiagoac cirala horduco JESUSen naigabe-pena-nequeac.

Ala ere ater-eraci ote cioten AY! bat, ba-cen ere gure JESUS maiteari? Idaroqui ote cioten, den quejaric chiquiena ere, orrembat nequetan iutzi zuen, bere Aita gana? Escaraci ote cioten bere Ata maita-garriari, atera cezala lembaitlen orrembat naigabe-pena-nequeren artetic, edo EGYPTO ciquin, galdu, gaistotic?

Ez, ez; eta bere bat guertatuco cen, eun urtez, ta gueiagotan iraun ba-lute JESUSen ango nequeac, eta penac: bada gucia ceraman gure JESUSec, guri eracusteco, guc eguin beharra, neque cembaiten artean, Jangoico berac uzten gaituen, aldietan; ta eracuste onèc, òna izateco, escatzen zuen ori gucia.

Ez arren zuc galdu becatari charra, cere JESUSen eracuste nequezco hau! Zaude contuan; zaude zai, ta zaude erne, zure oneraco diran, ne-

neque oriec datoceneco : ta, etortzen diranean, eguizu laster, ta zucen, aldi onetan JESUSec zuri eracusten dizuna,

Gutiena zuc uste dezunean, asaldatuco zaitzu cere Aidea, cere Auzocoa, edo nor edo nor. Erriertan emain dizu batac, obenic bague; bertzeac-emain dizu alque-quizuna, ateratzen dizquitzula cere uts lenagocoac, edo bein ere zuc eguin ez dituzun, gauzac. Onec gal-eracico dizu irabaz-videa; harc ucatuco dizu, zor dizuna, edo eguiñen du, norc daqui, cer, cerea ez itzultzea gatic, eta, ba-lizaque, artuco dituzun, uste etzenuena-gandic ere, cembait charqueri, vide-gabe, ta esquer gaisto.

Orrelacoric ez den aldietan ere, izain dezu aguian cerbaiten beharra, izango dezu cere eritasuna, edo buruco miña. Orrelacoric ez den, cembait aldiz necatuco zaituzte cere zorrac, cere auciac, edo echeco calteac; batetic ecarrico dizute berri char bat, bestetic bestea: ta, bacarric egona gatic zu, etzara, beti beintzat, egoin nequeric gabe: bada batzuetan nastuco dira zure humoreac, eta humore nastuac illunduco dizute cere barren gucia; ta best-etan gogoraco zaitzu lenagoco cere naigaberen bat, edo beste; ta horduan eguiñac bai-lira, bezain bortizqui sutan ezarrico dizue cere bihotza, len quenduac ciran, zure naigabeac. Eta besteric ez denean, izain dezu, bai, dituzun, gauz-etatic cerbait galtzeco, edo, eguiteco daudenac, macur eguiteco, beldurren bat, edo beste.

Nequezco aldi oriéc irabaz videac dira? ta, cembatere aldi bacoitzeco zure nequeac andigoac guertatzen diran, ambat irabaz-vide obean arquitzen, zara zu. Horduan zuc irabazteco, irabaz ala, edo aldian datorren irabaz-gai gucia, ez dezu, baicic ontzat artzea, gai orrequin datozquitzun, horduco nequéac; eta era orretan zuc oriec artuco dituzu, artu ezquero, enoiatu gabe, ta igortzen dizquitzun, cere Jangoicoaren icenean.

Oriec zuc era onetan artzeco, beguira eguiezu, ecusi ditugun, JESUSen Egyptoco nequeei, edo zuc, nequetan arquitzen zaranetan beguira egiozu, bere andien artean, asaldatu gabe, ta Aita Eternoari beguira cegoen, JESUS maita-garriari. Cembait aldiz zuc era onetan JESUSi beguiratzen ba-diozu, beratuco zai-

tzu, bai, cere bihotza, ta, cere neque gucien artean ere, errain diozu zuc cere JESUS maita-garriari.

Ah! nere JESUS maita-garria, aur jaio berria zu, edo urte guticoa; ta al-ere orrembat nequetan zu, orren behartsu zu, ta orrembat quezca, ta naigabe-requin zu! Nor gatic hau, nere JESUS maita-garria, edo ceri dagocala? Baña badaquit, bai, JESUS, maita-garria; ba-daquit, bai, nor gatic cen, ta ceri cegocala hau gucia; bada ba-daquit, gucia cela nere amoreac gatic; eta niri eracusi-naiez, aldi orrelacoetan nic neronec eguin behar dudana, edo ba-daquit, gucia cela, niri, enoiatu gabe, ta irabaci andi-equin ar-eraci naiez, izaten ditudan, neque, ta quezca guciac!

Hau daquidan ezquero bada, nere Jangoico maita-garria, ni gatic, daguitela, nai dutena, munduco nere Etsaiac, eta gañeraco guciac: gaur-guero artu nai ditut nic, zure icenean, ta JESUSen eran, orien charqueri guciac, eta, charqueriac ecarri ditzaqueen, naigabeac; eta, norc-nai eguina gatic niri munduco charqueriric andienac, hitz-eguin uste diot nic Etsaiari ez-bezala; ta prest egon uste dut nic, al dudan, ori gucia orri ordez eguiteco. Ori da, JESUS maita-garria, or zuc niri gaur EGYPTOn eracusten didazun, Ceruraco ibillidea: ori da zuc ni gatic bein, berriz, ta ascotan eguin izandu dezuna; ta ori nic ere gaur-guero zu gatic, edo zure icenean eguin uste dudana.

Bai, nere JESUS maita-garria, bai; zure ondoren ibilli nai dut nic, vici nazaño. Zureen eran, eguin nai ditut nic nere gauza guciac. Zuc cere nequeac ni gatic bezala, zu gatic artu nai ditut nic ere nere neque-pena, ta nai-gabe guciac. Eguin asmo dudan, lan on hau zucen eguiteco, behar dut nic zure laguntza, ta gracia. Escatzen dizut, EGYPTOco cere videetan, cere lanetan, ta cere neque gucietan lagundu cizun, cere Ama maitea gatic; eta biequin ibilli cen, zure Amaren Esposo S. JOSEPH gatic. Ez ucatu hau niri, nere JESUS maita-garria, ez arren, ez.

I.

EVANGELIZARE PAUPERIBUS misit me. Luc. 4. 18.

NERE Aitac igorri ninduen ni, edo vidaldu ninduen, be-

beharrean arquitzen diranei eracutsi onez laguntzera (erran zuen gueroco batean gure JESUS maita-garriac ; eta hitzic atera gabe, hau bera dio orain EGYPTOn ere). VIDALDU ninduen, bai, gabe-daudenei, beren beharra, behartsu vici diraño, emequi artu, ta ongui eramaten, eracustera: ta eracutsi diet nic beren-eguiteco hau, aldi onetan nic eguin dudanarequin ; bada guztiz behartsu arquitzen nintzan ni, IGYTarteraco vide nequezcoan nembillen, egunetan; bai, ta EGYPTOn egondu nintzan dembora gucian ere : ta al-ere ara nintzan ni, ta an bertan egondu nintzan, nere Aitari atseguineguitea besteric gogoan ez nuela, ta bat-ere quejaric bague; ta, ecusten nituen neque, lan, ta naigabe gucien artean egondu nintzan ni, atseguin-contentuz beteric egondu ba-nintz bezain, sosegu andi osoa-requin ; ba-nequien alabaña oricela, nere Aitac horduan ni gandic escatzen zuena : ta era hau bera da, gueroztic nic eraman izandu dudana.

Ori bera da, zu, ta ni, becatari char bioc gandic Aita berac escatzen duena, gu ere, JESUSen eran behartsu, ta gabe arquitzen garau aldietan; bada escantzen du, emequicho guc, isilchoric guc, eta, hitzic atera gabe, gueren gabe-behar hau jasotzea.

Eguin ote dugu hau zuc, eta nic bioc gueren orain-dañoco dembor-etan ? Artu ote ditugu guc gueren beharrac, eta gabea, gure on utseraco ciran, gauzac bezala? Oroitzen guiñan gu aldi orietan, jaio cenetic, eta EGYPTOco bere dembora gucian JESUS, ec eracutsi izandu cigunaz? Andiac dira, ala guc eguin izandu ba-dugu, eguin ditugun, irabaciac ; eta egunen batean emain diozcagu gueren Jangoico maita-garriari, norc daqui, cembat esquer, orien alde, edo ceren eman izandu cizquigun, orrẽbat gure on-etaraco ciran, behar-tasuna, ta nequezco irabazvidea.

Ez al dezu, zuc beintzat, becataria, galdu izandu, orrelaco aldi-etatic bat ere? Ay ene! Ez galdu nic aldi orietatic bat-ere ? Eta izandu ote da bat ere, nic galdu izandu ez dudanic? Ondasun-dunac, aisa vici ciranac, eta, nai adin, atseguin, ta gauza cituztenac ciran, nere gogoan, zori oneco gendeac ; eta beharrean, ta gabea-requin vici ciranac ciran nere uste galduan,

ZO-

ZORI charrecoac, eta urricarizco gendeac; eta, orien artean arquitzen nintzanèan ni ere, quezca cen, marmaria cen, ta naigabea cen, ni gan arquitzen cen, on gucia!

Orain ezagutzen dut nic aldi orietco nere centzu-gabea, ta nere esquer-gabeco eraqueria! Damuturic nago gaur, lenagotic ez ezagutuaz, aldi-orietaraco Jesusec, Egyptoco bere demboran, eracutsi izandu cidana; ta gaurguero zucen eguin naiez nago, era bereco, aldi guci-etan, JESUS berac eracusten didana, ta niri neroni ain ongui dagoquidana. Ah, banegui nic hau gucia; ta ba-negui, bat-ere utsegui bague! Lagun zaquizquit eguiten, eracusten bezala, nere JESUS onmaita-garria; bai arren, bai.

2.

IN LABORIBUS A IUVENTUTE mea. Psalm. 87. 16.

EZ nitzan ni etorri, ez, dio JESUS maita-garriac; ez nintzan etorri ni, atseguin, ta gustoz beteric emen vicitzera: nequezco vicitz on bat eguitera, etorria naz ni Cerutic lurrera; ta vide nequezcoa da nic nere aur-ta-sun-etic emen daramadan, videa. Vide hau berau artu behar dute nere ondoren dabiltzanac, nerequin guero nere Ceruan sartu nai ba-dute. Eta anitz escatzen etzaie, ez, escatzen zaienean, ar dezatela, Cerura nai dutenac, nere neque gogorrez nic, eta anitz icerdi-requin zabaldu diedan, hau bezalaco vide bat? Artzen ba-dute ere, ta ill arte gucian zucen ibillia gatic, nic eguiña baño, gutiago, ta aguitz guchiago eguinen dute beren ibillera gucia-requin; ta orien ibillera nequeric andienac ere arin laburrac izain dira, neque orrequin irabazten dituzten, atseguin contentu, ta betico gloriaren aldean. 2. Cor. 4. 17.

Ala ere vici nai dezu zuc, becatari char-galdua, arin, aisa, ta bat-ere necatu gabe? Utzi nai diozu zuc JESUS maita-garriari bere nequezco vide latz hau ta sartu nai dezu zuc cere gogáraco vide galgarri zabal-etan? Ez baldin-bere? Ez, nere JESUS maita-garria, ez! Zure vide zucenez ibilli nai dut nic, vici nazaño, ta beti-beti zu-requin batean eguiten ditudala, zure Ama maita-garriac, eta S. JOSEPHec eguin cituzten gauzac, edo ibilli nai dut nic, nequeren bat datorquidanean, zure, ta orien bien neque gogorrei be-

beguira-beguira nagoela. Zuri beguiratzea-requin cere videan, ta Egyptoco cere neque gogoretan, arinduco ciran nai-ta-ez zure Amaren, ta San Josephren nequeac; eta ba-dut uste, arinduco dirala nereac ere, orienen eran nic ere zuri beguiratzea-requin; ta, arintzen ez-pa-dira ere, nic jaso al baño, an diagoac izain ez dira nere nequeac; eta guciac eraman uste ditut, zure gracia-requin bateau. Indazu cerorrec, eramate orretaraco, nic behar adiñaco gracia. Bai, nere Jangoico maita-garria, bai arren, bai.

3.

NE AVERTAS FACIEM TUAM A puero tuo, quoniàm tribulor. Pſalm. 68. 18.

EGYPTOco bere neque, quezca, ta naigabe gucien artean errain cion Jesus maita-garriac bere Aita Eternoari, Davidec haren icenean lenagotic adiracia ceducana: JAUNA, errain cion, ecusten dezu aspaldi gucian, emen nic EGYPTOn daramadana. Emengo becatuac erdiratzen didate nere bihotz mimbere hau, edo damuz, ta illuntasunez beterzen didate gau, ta egun oro ere milla, ta milloi aldiz! Zuc nai dezu, nere Aita maita-garria, nagoen ni, deus aditzen etzaion, aurcho bat bezala, emenigo idolo-contu, emengo ciquinqueriac, eta ibillera gaisto gucac ecustē ditudala; eta ala nago; baña ecusten dezu, nola, ta cembat naigabe-requin arquitzen nazan ni; ta gucia daramadala, zuri ongui naiez, ta ceren zu nic maite-maite zaitudan! Ez da deus nic daramadan, gucia, zure icenean nic eraman nai dudanaren aldean. Nic orain berriro daguiquedana da, zuc nai dezun, gucia, ta zuc nai adiña demboraz emequi, ta zucen eguiteco, prest egotea. Ala nago; ni bai, ta egoin naz, beti, nere Aita maita-garria; baña beguira-eguiozu zuc ere nere aur-tasunari, ta lagun-eguiozu, daguiquezunac bezala.

Era onetaco cerbait erraten dut nic ere, Jaun berac ni nequetan naducan, demboretan? Eguraldiac, echécoac, edo beste cembaitec eguiten didaten aldietan naigaberen bat, edo beste, bere escuan muñeguiten diot nic nere Jangoicoari, ceren naducan, bere Semea EGYPTOn bezala, penen artean, ta nere paciencia-requin irabaci andiac eguiteco videan? Erraten diot nic aldi orietan, prest nagoela ni ere, berac nai duen, gañeraco gu-

ci-

ci-guciraco ; ta gueiago , ta gueiago ba-liz ere, ontzat artzeco nagoela beraren icenean, ta ori ala artzeac ecarrico dizquidan, ondasun andiac gatic?

Zori oneco-ta-onecoa ni, orretan egotera! Baña ez naz ni, ez , ascotan beintzat, orretan egondu ! Naigabe bat ecusi horduco , asaldatzen nintzan ni , eroa bezala , ta ez nuen eraman nai nere Jaunaren icenean, den , gauzaric chiquiena ere ; ta, edocein gauza char eguiten ba-cidaten , eguiten nion eguilleari suguearena , edo al nuena ; bada eguiten nion , izurriz, ortzez , ta lanez etzenean , gogoz , ta naiez ordeña , edo cer edo cer charqueri ; ta , cembat andiagoa cen , ortzezco, edo naiezco nere charqueria , ambat andiagoac ciran , horduco nere atseguin-contentuac.

Ah ! nere cenzu gabe-galdu-galgarria ! Ori da JESUSec EGYPTOn , ta bere vicico neque gucien artetic niri eracutsia? Orretaraco sartu nintzan ni nere naiez nere JESUSen Legue garbi neca-garrian ? Orretaraco aditu ditut nic , aditu dituidan, Sermoiac ? Orretaraco ciran lagunen erran onac , eta, libruz icasi dituidan , gauzac ? Nere eroeguia ! nere galgarria! Guisa berean eguin uste ditut gaurgueroco nere gauzac , edo eguitecoac ? Gaitz aldera , ta macur artzeco nago nere Jangoicoac onez niri igortzen dizquidan , otz-beroac , quezcac, eta nequeac ? Ez baldin bere ! Gañeracoan eguin du nereac; eta galdu naz ni beti-ta-betico!

Nere JESUS maita-garria! Nequetan , ta nequetan vicitu zaran , nere JESUS maitea ; lagun zaquizquit arren zuc , cerorrec eracutsi didazun , eran nere gauzac eguiten. Lagun zaquizquit arren , nequetan arquitzen nazanean , nere bihotz hau nere Jauna gana goititzen, isilchoric , eta emequi gucia daramadala , eraman dezadan zure videa , ta igan nadin egunen batean , zuc idiqui didazun , cere Cerura. Lenagotic hau ez eguinaz dut damu , ta ciñez al ere ; ta orre gatic diot orain , hitzez , ta bihotzez : *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XXX.

XXX-GARREN OTOITGAIA.

JESUS-EN BAZCOA.

§. I.

JESUSEN BEREZCO ELIZARATZEA; TA GURASO-HUMEEI AN harc horduan eracutsia.

EGYPTOtic itzuli, ta cerbait aci artean, ichean vicitu cen JESUS maita-garria: ta vicitu cen, cena becala, edo ecín -obequi, ta adin artaco gauzac, berac eguiten zuena-rejuin, guztiz ederqui eracusten cizquigula. Baña cerbait anditu ceneco, asi cen eguiten, andituise diranac, edo, cer eguiten duten daquiten, aurrac eguin har dutena; bada, bere ichea utziric, joan izandu cen bere Aita Jangoicoa bere eche berecian, edo bere JERUSALENgo Elizan billatzera: ta, ara ceneco, asi cen an, berari cegozcan, ta Aita Jangoico berac nai cituen, gauzac eguiten; ta eguin cituen guciac, eguin behar ciran, eran, ta ecin obequiago.

Beinic-bein bada billatu zuen JESUSec, behar bezala, bere Aita Jangoicoa, edo billatu zuen, alic lenena, edo adiñetan sartu horduco, ta Elizara, berez joan citequen, bezain laster, bada joan cen ara amabi urte citueneco (1); ta etzen erraz lenago JESUS Elizaraño joatea; bada JERUSALENen arquitzen cen, JESUSec billatu behar zuen, Eliza; ta JESUS vici cen, andic urruti, NAZARETH ceritzan, Galileaco Erri batean. Orra bada lembicico JESUSec gaur aur gazteei eracusten dien, ta, oriec ere eguin behar duten, gauza; lembaitlen bacoitzac bere Jauna billatzea;

bere eguilleari bezala, bere agurrac, eta, zor diozcan, gañeraco gauzac eguiteco.

Baña etzen JESUS aldi onetan bacarric joan bere icheric JERUSALENgo Elizaraño; joan izandu cen bere AMA-requin, ta San JOSEPH-requin batean. Etziran guidari, videeracusle, ta lagun onac, bere vide onetan JESUec izandu cituenac? Bai seguqui; bada oituac ceuden, bata, ta bestea, S. JOSEPH, ta JESUSen Ama-Virgina JERUSALENgo Eliza-videra, ta araco egunic ez utsf-eguitera. (2)

Orra bada, adiñ-etara diran, Aurrac eguin behar duten, bi-garren gauza; beren guraso onen ondoren ibiltzea, beren Jauna ganatzen diran, lendabicico egun-etic. Ori da orain JESUSec eracusten dien, bigarren gauza; ta ori, emen vicitz on batera, ta guero eternidade gucico atseguin-contenau-etara daraman, videa.

Joan cen bada JESUS JERUSALENA, araco garaiera ceneco; ta joan cen ara bere guraso-equin batean. Baña cein egunez? Joan citequen, egunic onenean; joan cen alabaña Legue zarreco BAZCOetan; ta BAZCOAc ciran, urte gucico egunic andienac. Ba-cituzten Israel-darrac urte oro irur Bazco-aldi; bacoitza, Jangoico berac bereci cien, eguiteco-raco. Jesusen oraingo Bazco hau cen, Jaunari esquerrac emateco, ceren atera cituen ISRAEL-darrac, beren Nagusi gaisto IGYTO gogorren atzapar-eratic, irur-eun urtez, ta gueiagoz, an orien menean anitz neque, quezca, ta naigabe, ecusi ezquero. Eta JESUSec ere ba-cituen cer eman Jangoico maita-garriari, era bereco bere esquerrac; bada JESUS ere, anitz dembora etzela, atera zuen Ait-Eternoac EGYPTO bereco Erreinu gaistotic, eta IGYT-artetic.

Beren IGYT-artetic ateratze onen icenean, bada, edo beren ateratze onetan Jangoicoac eguin cien, ontartearen esquerrac emātera, Bazcoz joan beharrac ciran JERUSALENgo Elizara, araño joan citezquen ISRAEL-tar guizaqui guciac (3); bada beste Bazco bi, edo Fest, andietan bezala, etzuen erdisten batec ere Bazco onetan, ez etortzeco, escuric, edo dispensaric (4).

Nai zuten, Israel-darrac eramaten cituzten bere-quin JERUSALENgo Elizara, horduco erdi zorituac arquitzen ciran, garagar-gari sortac, balac, edo mol-

molchoac. Artzen zuen, artaco cen, Eliz-guizonac, molcho, bal, edo sorta gucietatic bat, bere Jaunaren-daco (gañeracoac Eliz-guizonentzat ciran). Sort, edo bal ori Jaunari esqueñi, edo ofrecitu-ondoan, quisquiltzen cituen, edo su-aldean idortzen cituen gari-buruetaco bihi, edo ale eceac, edo erdi zorituac; ateratzen cituen guero beren azal, edo buruetatic ale berac; austen, edo lertzen cituen guciac; eta, ematen zutèn, iriñari ezartzen cion gañetic incenso, ta olio zati bat, eta erretzen zuen guero gucia Jaunaren icenean, ta beraren beguietan (5).

Lan hau gucia Eliz-guizonaren lana cen, edo eguitecoa: gañeracoen eguitecoa cen JERUSALENen vicitzea, edo BAZCO-etaco zazpi egunac an igarzotea (6); haltiz ecusteco beren Jaunari zor ciotena; zorren alde cerbait eguitea; hordu jaquin-etan ba-cen ere Elizaratzea; ta EGYPTOco egun latz-miñac gogoan arturic, an egotea; ta orretaraco, legamiric, orrantzic, edo orantzic bagueco oguia baicic, ez jatea, an arquitzen ciran, egunetan.

JESUSec eguin zuen an hau gucia, cegocan, eran, ta BAZCOAC Bazco ciranetic, eguin cen, edérquiena: bada Elizara cen beinic-bein bere adiuntzan, ta garai onean, edo egunic galdu bague. Elizara cen, behar cen eran, edo guztiz ederqui, ta zucen; edo Elizara cen, Jangoico guizona bezala, ta ecin obequago, edo ibiltzez, gogoz, ta naiez Elizara cen JESUS, cena bezala, ta, besteric ecin cidoaquen, eran.

Ala da, JESUS maitagarria, ala da, bai segurqui! Guc ecin uca dezaquegu, ISRAEL-darrac, eta munduco guciac elcar artua gatic, ecin daguique-gula guc, zure eran, ta zuc bezain ongui, ta zucen, munduan den, gauzaric chiquiena ere; zu alabaña guizona zara, bai; baña guizon-Jangoicoa, edo Jangoico-guizon, gucia daquizuna; Jangoico-guizon, nai dezun, guci-guciraco, behar den, escu gucia-requin arquitzen zarana; ta Jangoico-guizon, utsic bat ere ecin daguiquezuna; ta gu gucioc becatari char, utsez bereac gara; ta, zuc guri eracusten, ta laguntzen ez pa-diguzu, nola betazal bat goititu ere, ez daquigun, becataiac.

Zori onecoac gu, gueren gauzac eguiten ba ditugu, zureac bezain onac ez izan arren, zureei beguira gagoztela, ta

ta orien eran ; bada, guc ala gure gauzac eguitera, ateraco dira, zureen eracoaç ; eta, gureac izan dezaqueen , gauzaric onena da, zureen iduriçoac ateratzea. Ala eguiteco , eçusi nai ditut niç, aldi onetaco beste zure gauzac ere.

Egun onetaco gari berrien, ta garia requin Eliz-guizonac eguiten cituen, gauzetan aguertzen digu guri gure Jangoicoac, ispillu garbi eder batean bezala, gure JESUS; bai, ta JESUSec, gaur asi, ta guero gure Bazcoz bucatu zuen, gauz andi bat ere: bada Jangoiçoac ematen dio JESUSi Zachariasen ezpañez (7) gariaren icena.

Horduco Bazcoan gari berria cen oraindic , eta, gari zoritzen asia baiciç ez , gure JESUS maita-garria, edo guizatasun-aren adin betera baguecoa cen horduan gure JESUS maita-garria. Dembora berean Eliz-guizona cen , edo Saçerdotea gure JESUS (8); ta, JERUSALENgo Elizara ceneco, esqueñi, edo ofreçitu cion JESUSec Ait-Eternoari bere gari sort, edo bal[illegible]au ; edo ofrecitu cion horduan, garitan bezala, bere gorputza, guero bere demboran Juduen , ta gentil gogorren suan idorturic, eta orien beren tormentuz iriñ eguinic , eta bere otoitzen incensoa, ta amore andiaren olioa gañetic ematen ciola, gurutzeco Aldarean erreric uzteco (9), len Israel-darrei Ait-Eterno berac eguin cienaren alde, eta oriec, eta bera IGYT-artetic bezala, munduco guciac beren etsaiaren atzapar gaisto-etatic , eta becatuaren azpitic atera citzan.

Ecusi zazu cer ofrenda? Ecusi zazu non arqui citequen, JESUS aur gaztearen valioco gari berriric ? Ecusi zazu , ote cen JESUSec bezain ederqui Aitari ofrend hau eraman cezoquen Apaicic? Ecusi zazu, batec ez-ecic, horduan ciran, ta izandu-ticaco ISRAEL-dar guciac ere eguin citzaqueen hau, ta egun artaco beste gauzac, JESUSec bezain zucen, ta laster ? Eta videnabar icasi zazu, Jangoicoari dagozcan, gauzac eguiten.

JESUSec Jerusalenen eguin cituen, hau ez-ecic, gañeraco beste gauzac ere , ISRAEL-dar guciacbaño, aguitz obequi , ta hastiroago ; bada ISRAEL-darrac eguiten, cituzten, guizonen eran, ta zazpi ogunez beren BAZCOco gauzac; eta JESUSec eguin izandu cituen, Jangoico-guizonac bezala, ta , gañeracoac baño, egun gueiagoz ; bada , gañe-

ra-

racoac JERUSALENdic atera ezquero, ta oriequin batean bere AMA, ta San JOSEPH andic joan ondoan, JERUSALENen guelditu cen JESUS bere Aita Eterno maita-garria-requin (10); ta guelditu cen an, ez AMA, ta ez San JOSEPH oartzen cirala; bada etziran oartu, urrengo arratſ-eraño.

Egun gucian ez oartu ez bata, ta ez beſtea, berequin etzutela JESUS? Orren guti nai cioten JESUS maitagarriari bere AMA Virginac, eta S. JOSEPHec? Etzen orre gatic. Cer gatic bada? ceren joan ciran JESUSEN AMA, ta San JOSEPH vide banaz, edo berez; bada, BEDAC dionaz, videan cebiltzanean Iſrael-dar Guizonac, eta bazter aietaco, edo Legue zarreco Andreac, Andreac cebiltzan alde bat, eta Guizonac beſte: ta aurrac bazoazqueen, naiz guizon-artean, ta naiz Andreen videz, ta oriequin batean. Orre gatic bada S. JOSEPHec uſte zuen, bere Ama-requin cela JESUS; eta JESUSen Amac, uſte zuen S. JOSEPH-requin cijoala: ta, orien obenic gabeco bien uſte-cabeaz valiatu cen JESUS, eguin zuen, gauz hau eguiteco, edo JERUSALEN guelditzeco: ta guelditu cen an, gañeracoac joan ta, bere Aitari eſquerrac ematen, irur egunez beintzat, ta ango bere guelditze onequin eracutſi cien guraſo guciei cein contuz, ta cein erne ibilli behar duten beren humeac zaitzen, galdu nai ez-pa-dituzte hume berac egun-ta-betico, edo ſecula guciraco.

Eta cer nai ote zuen JESUSec adiraci, bere onembat eſquer emate, ta onea luzaro JERUSALENen egote onequin? Cer? Ecin ciñezago eguin ciola Aita Eternoari bere buruaren ofrenda; ta, Jangoicoa gana cen ezquero, Jaunaren gauzetan baicic, etzituquela eraman nai bere egunac, eta hordu guciac; eta, maite ba-zuen ere bere Ama Virgina, maiteago zuela bere Aita Jangoicoa; ta Jangoicoa gatic utzico cituela noiz-nai munduco gauza guciac. Eta videnabar adiraci cigun, Jaunarenac izan nai dutenac, edo, beren Jangoicoa maite dutenac eguin behar dutela beſte onem; beſte.

Adiraztearen ederra! Agueri da, bai, norena den; edo ez dela, dirudien bezalaco batena, edo mutilcho aur, utſarena! Ez, JESUS maitea, ez; zu-

zurea da; Jangoico-guizon jaquintsu ecin-obearena da zure gaurco adirazte, ta Elizan guelditzea; ta orre gatic da, zure Aitac, behar bezala, ta ecin gueiago-raño estimatu cizun, guelditzea, ta esquerrac ematea! Eguin ba-neza gaur-guero nic, onetan zuc gaur adirazten, ta eracusten didazun, guci-gucia!

§. II.

JESUSEC BEREZQUIRO ELIZAN eguiña, ta guri eracutsia.

EZ ote zuen JESUSec irur egun orietan Elizan eguin izandu, bere Aitari esquerrac ematea, beste gauzaric? Bai nosqui ta, gañeraco, Elizaratzen ciranac eguin oi cituzten, otoitz, eta gauz onac ere. Egun orietan Elizan egoincen beti, edo beintzat gueienean gure JESUS maita-garria; ta, bacarric an arquitzencenean, edo bereis an eguiten cituenean bère gauzac, hitz eguiñen zuen bere Aita Eternoa-requin; ta aguertucocion, ecin-gueiago-rañocoa cela, zuèn, damua, ta pena, ceren ain guti beguiratzen cioten guizonac, edo ceren guizonac, eta munduco gendeac eguiten ciozcaten ambat charqueri, ta vide-gabe; ta, oriec gal-eraztea gatic, eta, berari zor zaion, honra ematea gatic, prest-arquitzen zela, edocein gauz eguiteco; bai ta, zuèn, odola gurutze batean iltzez josiric, eta nequez beteric arquitzen cela, isurrzeco ere.

Hau gucia, ta beste era bereco anitz gauz on ere, eguiñen cituen gure JESUSec egun orietan; baña, gañeracoen artean, eguin izandu zuen bat, adin hurtan eguin zezaquen, onena.

Cer ote cen gauz andi hau? Ango Doctoreac, edo Elizaco Eracusleac cioten gucia contuz aditzea; ta oriei berei, jaquin behar ciran, gauzac guztiz ederqui gald-eguitea.

Irur egunen buruan orretan arquitu zuten JESUS maita-garria bere AMAc, eta San JOSEPHec; bada arquitu zuten, dio San Lucas Evangelariac, Elizan jarriric Doctore jaquinsuen artean, orien hitzac hastiz aditzen, bere galdeac oriei eguiten; ta, eguiten ciozcaten galdetzeei zucen, ederqui, ta, cenac bezala, eranzuten; ta, arrituen eran, ta atseguin contentuz erdi

li-

liluratuac, ceduzcala Doctore guciac. (11)

Orra JESUSec eguin izandu zuena, berez, edo bere oñez bere Jauna gana cenean, ta JERUSALENen bacarric arquitu cen irur egunetan. Lanaren ecustecoa; ta eracustearen ederra!

Eracutsi cien, bai, JESUSec gizteei, JERUSALENgo bere eguiteco lan eder onequin, oartzen diranean, edo cenzatu ezquero eguin behardutena. Ori da, bihotzez Jauna billatzea, ta ceren becatu etorquiaren Egypto gaistotic bere bataioz atera cituen, esquerrac ematea, ta, gañeraco gucia baño, gueiago beren Jauna maitatzea, ta onestea; ta, oneste, ta maitatze onec escatzen duen, eran gauza guciac gueroz eguitea; nola eguiten diran, JESUSi bere gaurco lanean ongui beguiratuz, lenic icasten dútela. Zori oneco humeac; eta hume JESUSen iduricoac, lan hau zucen eguiten duten, humeac!

Eguin ote cenuen zuc hau cere lendabicico asieratic? edo maitatu ote cenuen zuc hordutic cere Jangoico maitagarria? Ez ote cenuen galdu zuc cembait dembora, orretan asi ciñaceco? Bein maitatzen asi ciñanetic maitatu dezu beti zuc cere Jangoicoa; ta maitatu dezu ciñez, ta behar bezala? Cere Jauna maitatzea gatic, eta, Jangoicoari dagozcan, gauzac zucen eguin naiez, utzi ote diztuzu zuc cere gurasoac, eta, atseguin eguiten cizuten, beste gauzac? Elizara ote zara zu, al cenuen aldi gucietan? Entzun ote dituzu zuc, entzun al adiña Meza, ta Sermoi; bai ta, Elizan aditzen diran, gañeraco gauzac ere? Icasi ote cenituen zuc, garai onez, ta bere demboran, icasi behar diran, gauza guciac?

Ah! nere JESUS maita-garria; ta cein guti! Banuen nic, bai, behar etziran, gauz-etaraco, nai adiña aditze, ta adimentu; ta, adimenturic ez-pa-nu, bezala, vicitu nintzan ni nere gazte-tasunean, edo aur demboran, nere Jaunaren gauzei era orretan beguiratzeco! Ba nequien nic horduan, bai, behar etziran, gauzac maitatzen; ta maitatzen ez nuen nic, behar cen demboratic beintzat, nere Jaun on maita-garria!

Noiz Elizara nintzan ni nere gazte demboran? Adiñetan sartu horduco? edo ne

re Jaun ona ezagutzen asi nintzanetic? Nerez, edo, behar bezala beintzat, ez: ez eta gueroago, ta gueroago ere: bada, ni Elizara joana gatic noiz-edo-noiz, nerez, edo ceren vidaltzen ninduten, ara joan oi nintzan ni, eche eder bat ecustera bezala: ta, an guti bat egon ezquero, aspertzen nintzan ni nere Elizaco ego-eraz; ta laster nic Elizaco aldiac eguiten nituen; ta, an ni cembait dembor apur egoten nintzanetan ere, izan oi cen, ecin bestez, ta borchaz bezala.

Eta cer eguin oi nuen nic, Elizan nengoen gueienean beintzat? Nic eguin oi nuena cen gueldiric ez egotea; bazter-etara, ta sartu atera cebiltzanei beguiratzea, nere gogo gucia Elizaz campoan, ta nere mihi char galdu hau erau-sitan, berri-quetan an erabiltzea; Mezac gaizqui enzutea; (enzuten ba nuen bat ere); predicuaz, Sermoiaz, edo doctrinaz casoric ez eguitea; ta, noiz andic ateraco nintzan, asmatzen egotea!

Dembora artaco nere on gucia cen josta-queta, janedana, aller-queria, loa, ta, gogoac ematen cidan, edocein gauza char charqui eguitea. Cembat, eta cembat eguin ote nituen nic, alque-quizun utsa, ta, lots andi bat baicic, ez dacartenac? Cembat, eta cembat eguin nituen nic nere gaitzeraco ciranac? Cembat, nere anima hau guztiz loitzen zutenac? Eta cembat, eta cembat guerozco nere obenen sustrai, ta asiera gaisto izandu diranac? Eta ez ote datoz, nere adiñ artaco asiera beretic, oraingo nere utsac, eta charqueri guciac ere?

Cer asiera gure JESUS maita-garriaren asi-era; ta cer asi-era nerea! Orain ba-dere, asi ba--nendi ni, behar den, eraco damuz urratzen, JESUS nereac bere aur-demboratic aguertu, ta eracutsi cizquidan, gauzac zucen eguiteco! Billa ba-neza nic (eta ciñez maitatzeco) nere Jaun andi guztiz maita-garria! Utz ba-nintza nic nere al-eguin guciarequin, ori eragozten didaten, nere eguiteco, ta lan char guciac! Elizan nic gaur-guero eraman ba-nitza gauz onetan, nere Jaunaren hitzetan, ta, guero nic eguin behar ditudar, gauzac icasten, cembait hordu, edo dembora zati?

Orretara naia nago ni gaur, nere JESUS maita-garria; ta, lenago etorri gabeaz, ongui damutua! Betor arren le-

lenagoco nere utſ-gucien barcamentua, ta nere nai on, zuc cerorrec emanicaco, onec eſcatzen duen, zure laguntza, ta gracia. Eſcatzen dizut, cere lembicico Bazcoz eracutſi cenidana gatic, eta, niri eracutſi naiez, horduan zuc eguin cenuenaren icenean. Ez ucatu hau niri, nere JESUS maitagarria; ez arren, ez!

I.

OBTULERUNT MENTE PROMPTISSIMA, *atque devota primitias Domino.* Exod. 35. 21.

ISRAEL-darrei, EGYPTOtic atera, ta beren bazteraldera cijoacenean, adiraci cien MOYSESec, Jaunari, beraren manuz, eguin behar ciotela Tabernaculo, edo Elizamodu berri bat; eta, hura eguiteco, ta haren gauzac zucentzeco, ecar cezala nai zuenac nai zuena.

Hau aditu horduco angO Andreac, Guizonac, eta ciranac ecarri cituzten, cituzten gauzaric onenac; eta ecarri cituzten bihotzez, ta nai arrigarria-requin, ta eman ciozcaten, orrerarac, ta beren Jaunarentzat. Preſt ote zaude-zu, beraren icenean eſcatzen zaitzuna, cere Jangoicoari bertatic emateco? Emain ote diozu zuc orain gogoz, bihotzez, ta nai oſoa-requin?

Ori, bada; adi zazu zuc, zure Jangoicoac orain adiraci nai dizuna. Etortzeco nago ni, dio JESUS maita-garriac, zu comuniatzen zaran, aldietan, edo egunetan; ta horduan zuc cerorrec izan behar dezu nere Eliza, ta nere egon lecu. Baña nola arquitzen ote zara zu nere etor-aldi andi orietan, artzeco ni zuc, niri dagoquidan, eran? Bihotz, eta anima garbi-equin arquitzen zara zu, ta oben chiquien autſic ere bagne? Arquitzen ote zara zu Ceruco virtutez, ta doaiez ongui apaindua, ta nic nai bezala? Aſmo zucenac ote dira, zure gogoan gau, ta egun arquitzen diran, aſmoac? Agur andiac, amoriozco eſquenac, eta virtutezco gauzac ote dira, zuc, etortzen zaitzunean, cere JESUS maita-garriari eſqueñi uſte diozcatzun, preſentac? Preſent galant-onac dira, zuc dituzun, preſentac, baldin zuc er-orretaco preſentac ba--dituzu.

Bai, JESUS maita-garria; baña nondic nic gauz eder andi, ta preſent oriec, zuc cerorrec niri oriec ez ema tera,

nic

nic escatuz zuri, ta zu nitaz urricaltzen zarala? Escatzen dizquitzat bada, ta ciñez alere, izan dezadan nic, zuri cer-equin prestatu nere barren char Eliza chiqui erdi galdu hau, comunione santuan zu ni ganatzen zaran aldi-etaraco!

Lan hau, edo nere escatze humil ciñezcoa lendabicitic, eta guero ardura, ta maiz ez eguiñaz dut dama, ta urriqui. Ez al zait berriz era bereco uts-eguiteric aguituco, edo guertatuco? Ez arren, JESUS maitea, ez: ta, guerta ez dedin, ta, behar den, eran artzeco zu nic, ni ganatzen zaran, gucietan, indazu, orain dudan, asmoan beti iranteco, behar dudan, zure laguntza, ta gracia; bai ta, escatuco dizudan, beste guci gucia ere. Bai arren, JESUS maitea, bai.

2.

BONUM EST VIRO CUM PORTAverit iugum ab adolescentia.
Thren. 3. 27.

ZOri oneco humeac, JESUSen eran goiz-danic, edo beren gazte-tasunetic beren Jauna billatzen dutenac! Oriec eguiten dute, zucen dabiltzanac eguiten dutena; ta, ori ceren eguiten duten, irabazten dute, emen bertan, norc jaquin, cembat ondasun, ta Jaunaren amore; ta gueroraco Jaun beraren escu indartsua, edo gracia, ta laguntza. Laguntz onequin aisa garaitzen dira, bai, Etsai gaistoen alegnin guciac; guztiz garbiro, ta, behar den, eran gordetzen dira bihotz-animac; eta zucen eguiten dira, eguin behar diran, lanac, eta gauzac.

Zori oneco goiztar-etatic, edo Jauna goiz asqui, ta gazte-danic billatzen duten-etatic ote zara zu, nere Anima? Orietatic zu izatera, buca-era ona izan oi duten-etatic zara; bada, gaztetan artuticaco, videan oi dabill gaztea, zartzen denean ere, Espiritu Santuac erraten digunaz; edo ongui, ta zucen ibilli oi da zar-demboran, bai, ta bere sasoi onean ere, aur-danic, eta gaste-etan bere Jauna ganatzen ba-da, Jaun beiac nai bezala, edo guztiz, ciñez, ta osoro.

Utsac eguiten dituzu zuc, nere anima; macur zabiltza zu, ta becatuz becatu, cere gazte demboratic atera ciñan ezquero? Beldur naz, bada, datocen zure malhur

oriec

oriec zure gazte-tasun zoratu galgarritic, edo ceren garaiez itzuli etziñan zu cere Jauna gana, ta, gaztetan eréñi cenuen, orain cere animan biltzen dezun, oicura gaistoen bihi galdua. Ala delaric, izain dezu zuc neque, ta Ian, datocen, egunetan; bada lur ona da gure bihotza, sustrai gaistoac artzeco; ta ez da laster garbitzen, sustrai, érro, edo zain ciquiñez ingurutua, ta betea, dagoen, zurea bezalaco, bihotz-bat.

Neca zaitez bada cembait demboraz orain cere sustrai galgarri orien ateratzen, nai ba dezu vici guero aisa, ta gauz on anitz eguiten dituzula: ta, cembat ere lasterago ateratzen dituzun zuc cere sustrai galgarri oriec, eta cere animaco aztura gaistoac, ambat lenago sartuco zara cere baquezco vicitzan, ta Ceruco ondasun andien irabaz videan.

Garbitu behar dituzu orain, garbiac ez-pa-daude, damuz, ta urriquiz cere bihotz-animac; eta eguin behar dituzu, utzi cenituen, gazte-tasuneco gauz onen ordañac, eta gañeraco zure oraingo adiñari dagozcanaz. Eguin ditzaquezu, Jaunac laguntzen dizula; ta lagunduco dizu, escatu ezquero, ta zu cerori baldin artaratzen ba zara. Iguzu, gure Jaun maita-garria, lan on onetaraco behar dugun, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

3.

CUR DETESTATUS SUM DISCIplinam. & increpationibus non acquievit cor meum?... penè fui in omni malo. Prov. 5. 12.

CEr gatic cen, gazte-tasuneco nere gogor-quena? Cer gatic nic ez nituen zucén eguiten, horduco nere gauzac? Ongui naiez erraten cizquidaten hau, hura, ta, nic daquizquidan, beste gauzac; baña etziran gauz oriec nere gogo arin galduari atseguin eguiten ciotenac, eta ez aditu eguiten nien guciei, ta abrera ninjoan, edo artziña nembillen ni nere vide loi galdu galgarri-etan, ta gaizquitic gaizquira, bem ere, guztiz beintzat, guelditu gabe. I ta certan guelditu dira orain arteco nere gogor-erac, orain arteco nere muquer-queriac?

Ecusia cegoen! anitz oben-culpetan, edo, norc daqui, cembat becatutan, ta gaista-queritan! Nere Jaunaren

Le-

Legueco mandamentu zucenac urratzea, ta anitz lecutan nere anima nic neronec loituric uztea izandu da guerozco nere eguitecoa, edo lan andia! Bai nosqui, bai; erran dezaquegu zuc, eta nic, becatari char galdu bioc; ona certara gaituzten gueren lenagoco gogor-queriac, eta gure gaztetasuneco asiera gaistoac! Ez da bat-ere, edo guztiz guti dira, guc eguin ez ditugun, gaizquiac, eta lan-vide gaistoac! eta, batzuec beintzat, eguin izandu ditugu, bein ez ecic, berriz, ascoran, ta, norc jaquin, cembat aldiz, ta cembat eratara!

Hau da, gure JESUS maiteac bere aur-tasunetic zuri, ta niri eracutsi izandu cigun, ibillera? Hau gure JESUSec bere aur-tasunean, ta guerozco bere demboran eguin izandu zuena? Ez baicic, goiz asqui bere Jauna billatzea, bere Jauna maitatzea, ta, Jaun berac nai zuena, goiz-arrats, hordu oro, puntutic puntura, ta ill arte guci-gucian zucen eguitea. Hau da guri JESUSec eracutsi ciguna bere aur-tasunetic, eta ill arteco bere demboran osoosorò; ta hau da, guc ez len, ta ez guero, behar bezala beintzat, eguin izandu duguna! Eta guc, hau eguin lequan, eguin izandu ditugu, norc daqui, cembat lan gaisto, ta gaista-queri?

Eta al ere etzaicu damuz lertzen gueren bihotz char galdu hau? Ez ditugu guc negarrez urratzen gueren urrats, eta pausu galduac? Ez ditugu guc artu uste, gaur-danic badere, urrats, edo pausu berriac, lenic icasten dugula nondic asi, ta nondic ibilli?

Naiez gaude beintzat, gure Jangoico aur JESUS maita-garria. Adiraci zaguzu nondic asi, ta, zuc cerorrec nai dezuna; bada, uste dugún, zure laguntza-requin batean, prest arquitzen gara gu, edocein gauz-etaraco; ta, daguigun guc ariñago, ta obequi, zuc adirazten diguzun, gucia, ta guri dagoquiguna, quendu behar diguzu gueren becatu izu-garrien carga--tzar astun hau. Ori escatzen dizugu, hitzez, ta bihotzez erraten dizugula: *NERE JESU CHRISTO, &c.*

(1) *Cum factus esset annorum duodecim.* Luc. 2. 42. (2) *Ibant Parentes eius per omnes annos in Ierusalem in die solemni Paschæ.* Ibid. v. 41. (3) Exodi 23. 17. (4) Lyr. hic. (5) Alapide in Levit. 23. 10. (6) Exodi 23. 15. (7) 9. 17. iuxta Lyr. & Alapid. (8) Lyra in Ps. 109. 4. (9) Alap. in Exod. 23. 17. (10) *Remansit puer Jesus in Jerusalem.* Luc. 2. 43. (11) Ibid. v. 46.

XXXI.

XXXI-GARREN OTOIT-GAIA.

JESUS-EN HUMIL-TASUN HUMILLA, TA bere Echeco eracuſtea.

§. I.

ET *DESCENDIT CUM EIS, ET VENIT NAZARETH: ET ERAT ſubditus illis.* Luc. 2. 51.

OGuei, ta amar urte-taraño eguin, ta eracutſi zuen gure JESUSec, beſteren eſcu-pecoac eguin behar dutena. Ongui, ta, cegocan, eran arquitzen cen JESUS Jeruſalengo Elizan, AMA Virginac, eta San JOSEPHec an arquitu zutenean; ta, bere gogoz, pocic egoin cen an, andic atera gabe, vici cen artean; JERUSALENgo Eliza cen alabaña Legue zarreco eracuſlecua, ofrenda-teguia, ta Jaunaren echea; ta orre gatic cen, Jangoico guizonari, edo JESUS maita-garriari onguienonguien cegocan, toquia. Baña igan cen JESUS Jeruſalena, an eguitera, bere Aitac nai zuena; ta, hau eguin horduco, preſt cegoen, non-nai, ta cernai eguiteco; ta aſi cen eguiten Aita berac adiraci cionetic. Nola ote? Adi-zazu.

Irur eguren buruan arquitzen dute JESUS Jeruſalengo Elizan bere AMA maita-garriac, eta San JOSEPHec; eta Amac erraten dio: Semea, nola eguin diguzu, eguin dezun hau? Ona, zure Aita, ta ni zure billan ibilli gara, dolorez beteac, edo non arquitzen ciñan ere, ez guenequiela. Gurequin ez vici naiez, edo

ceri dagocala, guelditu ciñan emen, echeraco videa guc artu guenuenean? *Certaco cin zuec nere billan ibiltzea*, erantzuten dio JESUSec bere Ama maita-garriari; *eta enequien zuec, nic hart behar dudala, nere Aitari dagozcan, gauzetan*? Eta, hau erran horduco, ezaguturic, Aita Eternoac bera gandic horduan nai zuena, uzten du bereala JERUSALENgo Eliza; uzten du JERUSALEN ere: ta artzen du, ecarri zuen, videa, ta itzultzen da biequin bere NAZARETHco Errira, ta ichera.

Cer contentua JESUSen AMArena, osasuna-requin, ta Doctoreen artean arquitu zuenean bere Seme JESUS maita-garria! Eta cer contentua, harequin batean artu zuenean, beren echera ceraman, NAZARETHco videa!

Cer jolasac, AMASEMEAc, eta San JOSEPHec videan erabillico cituzten, jolasac! Gald-eguiñen cion Amac Semeari, JERUSALENen bacarric eguin cituen, egunean ecusi zuena, edo non egon oi cen gueienean? Non egunaz? Non gavaz? Jan zuen cerbait, edo edan egun orietan? Norc emanic, eta cer? Gald-eguiñen cion hau gucia; ta galdetuco ciozcan, videac cecartzien, beste gauzac ere; ta JESUS maita-garriac emain cion, galdetzen ciozcan, gauza gucien berri zucen behar bezalacoa; ta erra-in ciezten videnabar, bien videco nequeac arintzeco, ecinobeac ciran, beste anitz gauza ere; ta ibillico ciran irurac beren vide gucian, videz onguien--onguien dabiltzanac baño, milla vider onguiago, ta aguitz obequi.

Erriratzen dira guero niora baztertu bague, ta sartzen dira beren echean; ta sartzen dira, andic atera ciranetic itzuli artean eguin cituzten, gauzac, zucen eguin cituztelaco, atseguin, ta contentuz beteac.

Amabi urtetacoa cen horduan, ecusi dugun bezala, gure JESUS maita garria. Vicitu cen JESUS hordu-rañoco urte gucietan, deus etzequien, aurraren eran, edo, guti aditzen citzaion, gazte bat bailiz bezala: ta, gueto predicatzen asi cen artean, edo oguei, ta amar urte-taraño, ez daquigu cer gauzac ciran, JESUSec eguin cituenac; bada, daquigun, gucia da, eguin zuela bere AMAc, eta San JOSEPHec nai zutena; ta haritu cela,

cela, bere Ait-orde, San JOSEPHeren eguitecoan, edo zurguintzan. Marc. 6. 3.

Zurguintzan JESUS, Aita Eternoaren Seme bacar Jangoico-guizona! Languille behartſu San JOSEPHEren icaſle, aprendiz, edo lagun humil eguiñic JESUS; ta, erraten dion, edocein gauza bertatic eguiten duela, naiz gaitza dela, ta naiz lucea! Gauza gucien Jaun, ta Jabe JESUS alocairuan bezala, edo irabacian goizetic arratſ-eraño, ogui puſca bat beſtela biltzen ez daquienaren eran! Cer gatic ote, edo ceri dagocala?

Guri ongui naiez, JESUSen humeac, eta guri eracuſtea gatic, gueren horduetan guc gueroc eguin behar duguna. Alfer-queria, ta naguitaſuna dira, egun guciraco guc nai guenituqueen, lanac, eta eguitecoac; eta, cerbait eguiten dugunean ere, eguin nai guenuque guc, gueren gogo gaiſtoac, edo gaitzeraco macur-taſunac adiraci oi digina. Emendic etorri oi dira gure calteac, eta eche-etaco naſteac. Naſte oriec guri gal eraztea gatic bada, ta gu gueroc azquenean galdnac izan ez gaitecen, eguin du JESUSec, aldi luce onetan eguin duena; ta haritu da oguei, ta amar u.te-taraño, languille behartſuaren lanetan.

Amabi urte cituenetic, bai ta lenagotic ere, aſi citequen JESUS, bera nor cen Munduari adirazten; ta eguin citzaquen videnabar, guero eguin cituen, ecuſteco guciac, eta milagro andiac: bai ta, eguin cituenac baño, gueiago, ta gueiago, ta aguitz andiagoac ere; baña, gu ez guemblitzàn gueren gogára (naiz cela gauz-onetan), beſteren pean arquitzen guiñan demboran, utzi cituen JESUSec oriec gucioc, eta eguin zuen bere AMAc, eta San JOSEPHec nai zutena, naiz chiquia cela, ta naiz andia; naiz hondrazcoa izan cedilla, ta naiz lotſa-garria: ta eguin zuen guci-gucia bihotz oſoa-requin, nai zuela, ta bat ere tricatu gabe.

Cer errain zuen bihotzez JESUSen AMA Virginac, ecuſten zuenean JESUS cerrarequin, aizcoran, olac moldatzen, ta, eſcu-etan cecarren, eguitecoac eſcatzen cituen, gañeraco lanetan? Jangoico-guizon bat onelaco lan-etan (errian zuen, arrituric bezala, ta non arquitzen cen, etzequienaren eran)? Becatuen ar-

rigarriac! bada zuec gatic da Jangoico-guizon onen lan humil hau gucia! Artu zaituzte JESUSec bere gain, munducoen becatu galgarriac; eta zuen alde bere vici-odolac eman artean, vici nai du, ADANi Jangoicoac bota cion, maldicio pean: bada maldicioac cion, *nique nerdi equin billatu beharco dizu zuc cere jan-edaria*; ta ori da JESUSec eguiten duena, ta ni, ecin gueiago baño, arritzen naven, ecuscaria!

Guisa berean arrituco cen S. JOSEPH; ta, JESUSec gald-eguiten cionean, cer nai zuen, eguin cezan, edo cerbait orrelaco, guelldituco cenmutzturic bezala, edo adiracico cion humilqui, ta lotsaz, ta alquez cer dion, ez daquienaren eran: ta, JESUS gauzac eguiten asi horduco, beguiratuco cion S. JOSEPHec (an haren aldean arquitzen cenean) AMA Virginari, ta onec hari, arrituen eran; Lilduco cituzten guero beren beguiac, eta asico cen bacoitza bere eguitecoan, edo, escuetan cecarren, bere lana eguiten; baña cembat devocio-requin, cembat humil-tasunequin, ta cer nola! Norc adiraci?

Cer ote zuen JESUSec bere gogoan, AMAc, edo San JOSEPHec bereci ricaço, gauzaren bat eguiten hari cenean? Cer izan zuen? Bere Aita, ta gu! BERE AITA, bai, hari adirazteco, cer gatic cen haren lan hura, ta lan artaco haren nequea; edo adiracico cion, gucia cela, Aita berari cion, amorea gatic.

Eta gu ere horda berean bere gogoan guinduen, bai, gure JESUS maita-garriac; bada eguiten cituen JESUSec bere lan guciac, gure oneraco, ta guri eracusiea gatic, nola eguiten diran, gauzac, zucen eguiteco, ta, gauzac eguitean Jangoico maiteari atseguin eguiten zaiola. Ori cen, JESUSec aldi ori-etan, ta edocein horduz bere gogoan cerabillena. Lurreco bere lanac, eta eguiteco guciac etzioten, ez JESUSi eragotzi bein-ere gogoeta eder zucen hau: ta bi gauz oriec eguiten cituen batetan JESUSec, Machabeoen icena zuten, Soldaduac baño, aguitz obequi.

Soldadu oriec, Escritura Santac diosaz, escuz pelean cebiltzan, ta bihotzez Jauna-requin ciarducatela; ta era orretan garaitu cituzten beren etsaiac; eta Jesusec ere, guisa berean bere lanac eguitea-

tea-requin, garaitu cituen, ecin-obequi, bere Etsai gaciac; eta videnabar eracutsi cigun guri nola garaitzen diran alfer-quequeria, arro-tasuna, ta bere buruzco gogoeta.

§. II.

JESUS PROFICIEBAT SAPIENTIA, & ætate, & gratia apud Deum, & homines.

Ibid. v. 52.

DEMBORA BEREAM EGUITEN du Jesusec, icasle onac eguin behar dutena.

BAña nola eguiten ote cituen JESUSec horduco bere gauzac? Guciac era batean, ta Maisuac bezala? Ez, baicic, icasten dagoenaren, eran, ta egun oro iduri obecoac. Orietan asi ceneco, bai ta lendabicico puntutic ere, ba-cequíen JESUSec, azquenean adiña, ta al-ere, aldian etzuen aguertzen, gorputzari, edo bere adiñari cegocan, jaquiundea besteric; eta orre gatic, jaio berrian, ecer ez daquien, jaio berria cirudien, aur tasunean autra, ta adin oro adin artacoa. Orre gatic bada, JESUSec eguiten cituen, gauzetatic edoceñec, lenagocoac baño, obea cirudien; ta cirudien, gauzac eguinaz bezala, eguiten icasiz ejoala gure JESUS maita-garria.

JESUSen iceste iduri hau, etzen icaste utsa, ez; irabaci andizco eguitecoa cen, ta Aita Eternoari, ecin gueia goraño-co arteguin bat eguiten cion, eguitecoa; bada, guizon eguin cenetic, ill arte gucian JESUSec eguin cituén, gauzetatic chiquiena ere ecin obea cen, ta irabaz-al gucia, irabazten zuen, gauza; cen alabaña Jangoicoaren lana, ta gauza; cen Jangoicoari cegocan, irabacia; ta orre gatic cen irabaci, ecin-guenago-ranocoa: ta, al ere aur tasuneco JESUSen gauzac, edocein aurren gauzac ciruditen; gaztetasunecoac, edocein gaztec eguiten cituenac, bezalacoac; eta, guero eguin cituenac adin artaco guizonac eguiten cituztenen, iduriçoac.

Cer gatic hau onela, gure JESUS maita-garria? Niri nereac munducoen beguietatic al eguiñean gordetzen, eracustea gatic; edo eracustea gatic, eguin ditzaquedan, nere gauzaric on-enac ere deus ez bat bezala dirala, nic nere Jaunari zor diodanaren aldean; ta, hau ezaguturic, saia nadin ni egun oro, ta aldian obequi egui-

eguitera, eguiten ditudanac; eta eguitera, ceren Jaunari zor zaizcan, ta beraren amoreac gatic. Ala eguiten ba-ditut nic nere gauzac, egun oro acico dira nere irabaciac, eta Jaunari eguiñen diodan, atseguin contentua; ta andi-derra izain da, oriec gatic nic bere demboran nere Jaun bera gandic artuco dudan, betico gloria.

Ecusten dezu zuc, aldi onetan JESUSec guri eracutsi diguna; ta eracutsi digula, guri ongui naiez, ta ceren maite gaituen gu? Eracuste onen eracoac ote dira, edo oni dagozcanac, orain-dañoco gure ibill-erac, edo, guc orain-dañocoan eguin izandu ditugun, gauza guciac? Elizan egondu gara gu gueren Jaunarequin, Jaunac artaraco bereci dizquigun, horduetan, ta al guenuen, gucian? Ori da, gaur JESUSec lembici-lembicicoric guri eracutsi diguna, bera JERUSALENgo Elizaratzearequin. Elizaratzen ote ciñan zu, ecin bestez baicic? Eta, aratzen ciñanean ere, nola ote ceinden zu an? Cerorrec daquizu.

ELIZAz campoan, cere echean, ta zure lan guci-etan zu-requin, edo zure gogoan ote cen beti gure JESUSen AMA, Jesus-equin izandu cen, bezala? Noicean bein bad-ere eguin ote diozu zuc egun oro agur humillen bat, edo beste? Errezatu ote diozcatzu zuc cere AVE-MARIAC hordu-oro, echetic ateratzean, jan-horduetan, goizarratsetan, ta beste cembait aldiz, aldian escatzen ceniola, escu-tartean cenecartzen, gauzac zucen eguiteco, gracia?

Eguin izandu ote dituzu zuc cere gauzac, hume humillaren eran, ta zure Gurasoac, zu baño zarragocoac, edo zure-escu-dunac nai bezala? Orrela eguin izandu cituen JESUSec bereac; eta orre gatic zucen, ta gure Jaunaren beguietara citezqueen, eran. Etzenuen zuc cere barrenean nai-gaberic, edo muquer-queriric, eraguiten cizutenean, zuc nai etzenuen, lana, edo uztea nai-agoco cenuen, gauzaren bat? Ori da JESUSec eracutsi cizuna, bere lan chiqui-houdra-gabeco-etan hari cen aldian; bada hari cen, andienetan, bezain gustoz, ta bihotz leun humilla-requin.

Lanean hari ciñanean zu, gogoan cenuen beti zuc gure Jangoicoa? Eguiten cituen zuc çere gauzac, Jangoi-

gaicoari atseguin eguitea gatic, eta ceren nai zuen zure Jangoicoac horduan zuc oriec eguitea? Eguiten cenituen, gogoan cenuela, nola eguiten cituen zure JESUSec bereac, emen vicitu cen dembora gucian? Oroitzen ciñan zu, oriec eguiten hari ciñanean, beguira cegozquitzula, edo zure humeac, edo cere ichècoac, edo beste cembait; eta icaf-cezaquela oriec zure laneguitetic, ongui, edo gaizqui beren lanac eguiten; oroitzeonec eraguin ciezazun zucen, ta behar bezala, eguiten cenuen cere lana, edo gauza?

Egun oro cembiltzan zu centzu gueiago-requin cere lanetan, cere jolasetan, ta gañeraco cere gauzetan? Egun oro ciñan zu obea, ta virtutez-coagoa? Gueroago, ta maizago confessatzen ciñan zu? Gueroago, ta devocio, ta lan on gueiago eguiten cenituen zuc? Eta, cembat-eta urteetan sartuagoa zu, ambat ecuscari on, edo exemplo gueiago ematen cenien zuc, zurequin vici ciranei, edo ecusten cinduztenei? Ala bada, eguin dezu zuc, aldi onetan JESUSec eracutsi diguna: ta, orrela bazabiltza, ill artean, beraren escutic artuco dezu zuc, beraren guisaco eguilleari dagocan gloria.

Ah! nere JESUS maita-garria; baña nic ez eguin ori; ez eta laurdenic ere! Horduac joan dira; bai ta egun osoac ere, Jesusen AMAz sii bein ere oroitu gabe! Eta, oroitua gatic ni noiz, edo noiz, nola, edo cer eran oroitzen nintzan? Gañeracoan Echècoequico muquerqueria, ta gogoac ematen cidana, edo ecerez eguitea izandu da maiz asqui beintzat, nere lan andi, ta eguiteco gucia! Lanera ninjoan ni, ta lanean nembillen uztar-peco idia baño, gueiago, nere Jaunaz oroitzen ez nintzala! Eta, ondu beharrean, urte-oro nituen nic oben, ta culpa gueiago; ta eman diet, ecusi nautenei, ecusqueta gaistoa, ta gaitzeraco vide galgarria!

Utzico al dut, oraindañocoan ecarri dudan, nere vici-modu, edo ibillera galdu hau! Ta artuco al dut beste eraco bat, edo zuc, nere JESUS maita-garriac, gaur eracusten didazuna? Naiez nagos baña oitura gaistoz inguruetua! Oitur orien atzapar-etatic ateraco ba naz ni, beharco dut, bai zure laguntza, ta gracia! Escatzen dizut nere JESUS, nere

re nai, tá uste guci-gucia-requin; ta, lenago lan hau eguin bagueaz ongui damuturic! eta escatzen dizut gaurco cere amoriozco eracuste ederra gatic! Indazu bada, JESUS maitea; bai arren, bai.

I.

NUNC ERGO, FILI MI, AUSculta Sermones meos, & ne recedas à verbis oris mei. Prov. 5. 7.

ADitzen? dio gaur gure JESUS maita-garriac: aditzen dezu, nere Semechoa? Ez dezazula gaur aditu bague utzi, adiraztera noan, gauza guci-etatic bat ere. Aditu dezu, nere Ama Virginac JERUSALENgo Elizan arquitu ninduenean, nic eguin izandu nuena. Bera-requin batean, ta S. Josephe-requin atera nintzan ni JERUSALENgo Elizatic; eta, andic icherañoco vide gucian ez nituen utzi nic bein ere ez bata, ta ez bestea: beti bien aldean ibilli nintzan ni, ta biac nai bezala. Eguizu han berau zuc ere, galdu nai ez-pa dezu cere Ceruraco vide zucena. Zabiltza beti nere AMA-requin, edo hau gogoan dezula, ta onen gogára. Beràz vaia zaitez; bai ta onen Esposo maite, Santu andi, nere Ait-orde, San JOSEHez ere. Ez dizut ucatuco, ez, oriec escatzen didaten, gauzaric; eta, zucén eguitera zuc, nic orain adiraci dizudan, hau, erditlico dizute, biac, vide gucian ongui ibiltzeco, zuc behar dezuna, ta gueiago ere. eguin uste dezu?

Bai, nere JESUS maita-garria, bai; ta pocic al ere! Non arquituco ditut nic, zure AMA, ta San JOSEPH bezalaco Bitartecoac? Non lagun obeac? Baña oriec artu naico ote naute beren gana, edo beren contura ni? Ba-daquizu zuc, JESUS maita-garria, cein char-galdua nintzan ni leneco nere urte-etan; bai ta nola arquitzen den ere gaur nere bihotz hau, edo nere anima; ta beldur izan naiteque, izan nadin ni guero ere lenagocoa, ta ardi char, ta bildots beti!

Ez beguiratu zuc nere JESUSen Ama, ez zuc ere S. JOSEPH, onèn Esposo maita-garria, orain-dañoco nere char-queri-etara: beguira eguiezue oraingo nere asmoei, ta ondunaiari; ta ar nazazue ceren contura, ibilli nadin vici nazaño zuequin batean, edo zucén,

ta

ta, behar den, eran. JESUS maiteac didala zuen eſcuz, hau eguiteco, bere graciaren indar, ta laguntz andi bat. Bai arren, bai.

2.

STETIT ITAQUE SOL IN MEDIO Cœli.... Obediente Domino voci hominis. Joſué 10. 13.

JOSUE pelean cebillen batean, illuntzera cijoan harc nai baño len, ta bere Etſaiac, nai bezala, eſcura gabe. Hau ecuſtean, itzultzen da bere Jauna gana, ta otſ-eguiten dio Eguzquiari: *Ago bertan, Eguzquia, ta lagun eguiec Gabaon-darrei*, nic orien etſai gaiſtoac galdu ARTEAN: ta eguiten du Jangoicoac, JOSUEc manatzen duena, ta gueldi-razten du bere Eguzquia. Gauz arrigarria! Guelditic Eguzquia, ceren guizon batec aguintzen dion, gueldi dedila! Bai; baña aguitz arri-garriagoa da guc gaur ecuſten duguna!

Cer da guc gaur ecuſten duguna? Jangoico bera eguitenEguizquiaren eguin hau; bai ta aguitz gueiago ere: bada ecuſten dugu JESUS, len amabi urtez, ta guero beſte emezortziz, manatzen zaion gucia eguiten, bein ez-ecic, eun aldiz, milletan, eta cembatetan nai duten berarenAmac, eta San JOSEPHec. Eta cer dirala, uſte dezu, manatzen, ta aguintzen zaizcan, gauzac? Arguizco, ta ohorezco eder anduren batzuec? Ez, baicic zugarotz-eche batecoac. Hau bai, hau dela nor nai arritzeco lana?

Alquetuco naz ni gaurguero, edo lotſaric eracutſi uſte dut nic, aguintzen zaidana, edo manatzen, didatena zucen eguiteco? Ez, bururic baldin ba-dut, edo adimenturic nic izatera. Ez, oroitzen ba-naz ni nere JESUSen ibilleraz, ta JESUSen gauzez. Oroituco naz, nere Jesus maita-garria; bai, oroituco naz, orain-dañocoan ez bezala; ta maiz al ere; eta, zure iceneau, eguiñen ditut nic, zuc nai dituzun, ta zure ordecoac manatzen dizquidaten, gauza guciac, naiz lotſagarriac izan, ta naiz nequezcoac. Eta eſquergabe char galdu bat nintzaque ni gaur-danic beti nic hau ez eguitera!

3.

ET MATER EIUS CONSERVABAT omnia verba hæc in corde ſuo. Luc. 2. 51.

EGuiten ba-nu nic Jeſuſen AMArena, Jeſuſen AMAren

ren iduricoa nintzaque ni; ta onen Seme maita-garriaren eracoa. Ez ote lizaque hau, munduan diran, gauza gucien artean onguien legoquidana, ta nic beharren beharren dudana? Ez ote naz bada nere ona gatic bad-ere, arrara saiatuco? Orren gogor deritzat nic lan hau eguiteari? Ecus dezagun cer den, edo nolacoa.

Cer ote cen JESUSen AMAc JESUSen aur-tasunetic eguiten zuena? JESUSi beguiratzea; JESUSen hitzac aditzea; ta, aditzen, ta ecusten zuena, bere gogan beti contuz erabiltzea. Baña certaco? Harenen eran bere gauzac eguiteco. Ecusten zuen JESUSen AMAc gaur, ta bigar, ta beti bere Semearena. Ecusten zuen, cein zucenac ciran, ta cein behar bezalacoac JESUSen gauza guciac; hitzac ecin leunagoac, eta dembora berean ecin ederquiago, ta ecin zucenago atera citezque-enac. Ibillerac, eguitecoac, eta lanac guztiz onac, eta bacoitza bere garai-ecoa.

Bein bat ecusi ezquero, gogoan ceducan beti Jesusen AMA maita-garriac; eta beti cegoen hari beguira, haren eracoac, eguitera cijoanean, zucen eguiteco. JESUSen gauza bat ecuii horduco, sartzen cen Amaren bihotz-eraño; ecusi naiez, nondic cetorren hura; ceri cegocana cen, edo cer-taco, ta cer gatic eguiña.

Ecusten zuen AMA Virginac, bere Seme JESUSen gauza bacoitza cela, betico Aita bereari atseguin eguitea gatic, eta gure oneraco; eta, hau ecusi-horduco, artzen zuen AMAc, guisa berean bere gauza guciac eguiteco, asmoa; edo eguiten cituen gure Jangoicoaren ohoretan, ta gure gucien ona gatic, edo gure amorez, eta guri ongui naiez: ta eguiten cituen zucen ta, utsic eguiten etzuela.

Orra nic, ongui izatecotz, gaur-guero, ta beti eguin behar dudana. Orra, gaur niri nere Jesusen AMAc eracusten didan, eguitecoa. Eguiñen ote dut nic ere, vici-nazaño, harc niri eracutsi bezala? Oberic ecin daguiquet, den luzaroena vicitzen ba-naz ere. Ala nic hau eguitera, zori oneco humea ni, JESUSen AMAren iduricoa ni, JESUSen BIHOTZECOa ni; ta beti, ta beti glorian vici beharra! Lenagotic onetan ez asiaz dut damu; ta ciñez al-ere. Guisa berean dut damu, onetan asi gabez, eguin ditudan, nere becatuez:

ta

ta, Jaunac didan orien barcamentua, erratera noa, hitzez ta bihotzez: NFRE JESU-CHRISTO, &c.

IRUR-GARREN LIBRUA.

HITZEZCO JESUS-EN ERACUSTEA.

CœPIT JESUS FACERE, ET DOCERE. Act. 11.

JAngoico guizona ba-cen ere, besteren pean vicitu cen JESUS oguei, ta amar urte-taraño. Urte orietan eguin zuena-requin, ecin ederquiago eracutsi, edo aguertu cigun JESUSec, gui gucioi digun, amore bazterric gabecoa; ta dembora berean aguertu, edo eracutsi cigun, besteren pean vici diranac, eta orretan arquitzen diraño, eguin behar dutena.

Bere gain ibilli cen JESUS guerozco bere vicitza gucian; ta, lenaren aldean, laburra ba cen ere JESUSen guerozco vici dembora (etzuen iraun alabaña irur urtez baicic); lena bezain andia cen JESUSen horduco gu ganaco amorea; ta dembor orretan izandu cigun, bere amoreac ar-eraci ciozcan gure oneraco milla neque, ta pena; ta azquenean gurutze bateco erioz ecin gogorragoa.

Cigun, amorearen eracoa cen JESUS beraren horduco eracustea: ta bere azqueneco urte orietan, predicuz, hitzez, ta anitz aldetara eracutsi izandu zuen, len lanez, ta isil-isilchoric eracutsi zuenà. Ori eracusteco dembora berean, eracutsi cizquigun beste anitz gauz ere; ta besteen artean, Cerua irabazteco, ta araco

ingo Libruan ; ta lembicico aldian , lembiciric eguin zuena , edo JESUSen Bataioa , Garizuma, ta Pelea.



upna

XXXII-GARREN OTOITGAIA.

§. I.

BEHARRIC BAGUE ARTZEN DU JESUSec BERE BATAIOA: TA artzen du, lehar diragun, Animaco gueren garbi-erac gai eraguitea gatic.

JESUS maita-garriac, bere gain jarri baño, len, escatuco cion orretaraco bere AMA maiteari bere baimena, edo licencia; ta baimen hau Amari escatzean, errain cion, guztiz humilqui, ta era ecin-obeagoan.

Gogo osoz bihotzez, ta zucen-zuzen eguin dut nic, daquizun bezala, nere AMA maita-garria, igaro diran, oguei, ta amar urteeran, zuc nai izandu dezun, gucia, ta nere Aitorde San JOSEPHec aditazten cidan, edocein lan, edo gauza. Era berean, ta nere poz andia-requin eguiñen nuque nic cer nai, zure menetic atera gabe, vici nazaño, ala nai izatera beti betico nere Aita maita-garriac: baña ba-daquizu zuc cerorrec, nere Ama maite ecin maiteagoa, nor den nere Aita betico hau, edo cein den Aita Eternoa: ta, ba-daquizu, nere Aita onec nai duena, dela lenena, ta nic niola ere ecin iutzi dezaquedana. Ecin daguiquet nic, nere Aita onec nai duena, emen beti zu-requin arquitzen nazala ni. Etorri da bada nere Aitac ni gandic, ni nere gain nabillela, nai dituen, gauz-etan ni asteco, dembora; ta, onec eguitera, noa, bat-ere luzatu gabe; baña noa, zuc cerrorec ere nai dezula; nai dezu zuc al baña, Aitá Eterno-nere Aita maiteac NAI-DUENA.

Hau bere feme maite, JESUSi aditzean, beratuco cen (norc daqui cembat?) Virgin Ama-

Amaren hihotz guztiz maitaria; ta guelldituco ciran, negarra ceriela Ama beraren bi beguiac; bada ba-cequien, nor cen, ta cein maita-garria cen bere Seme-Jangoico-guizon JESUS hau; ta, berari cegocanaz, maite zuen ecin gueia-goraño bere Seme JESUS, ta miol ere nai etzuquen, gauza cen, egun batez ere, JESUS bague, ta bacarric guelditzea.

Baña, bere naia baño, naiago zuen Ama Virginac, Aita-Semeac nai zutena; ta hitzez, edo al bezala, ta guztiz humilqui, emain cion JESUS maita-garriari bere baimena; ta guelldituco cen illun asqui bere bacar-tasunean; ta guelldituco cen, etor-quizunaren beguira, ta lembautlen BERE Seme JESUS non-erebait ecusteco nai andia-requin.

Baimen hau artu horduco, artzen du JESUSec, S. JOAN BAPTISTA arquitzen cen, toquiraco videa; ta eguiten du an, gu gatic, edo guri eracusteco, eguin cezaquen, gauzaric onena, ta bere vici modu berriaren asi-eraric ederrena.

San JOAN Baptista cebillen, JORDAN deritzan, Ugalde, edo Ibai baten bazterrean. An, Missionista eguiñic, eracusten hari oi cen, billatzen zuten, Soldaduei, ta gañeraco becatariei, Cerura igan nai dutenac, eguin behar dutena. An oriei eracusten cien beren bataioa, edo Animen garbi-era; bai ta, berriz beren Animac ez loitzeco, eguin behar zutena ere, edo eracusten cien elcarri ongui beguiratzea, ta Jaunaren gauzac zucen eguiteco videa.

Artzen du bada JESUS maita-garriac, bere Amaren echetic atera ceneco, San JOAN Baptista ganaco vide hau; ta hura cegoen, toquira horduco, sartzen da zucen, San JOAN beraren Sermoiac aditzen cituzten, becatarien artean, orietatic bat bai-liz bezala, ta, haren erranac adituz centzatzen ciranen eran, eguiten du, becatariric andienac eguin oi zutena, ta escatzen dio San JOAN Baptistari, bataia dezala hura ere, Ibai artaco ura-requin, ta prestatzen da bertan bere BATAIOra.

Nora zoaz, JESUS maita-garria; nora zoaz zu, ta certara orren goiz, ta laster? Zaude-zaude guti bat, eta beguira zazu, cer eguiteco den, orain zu, cere gain artzera zoacen, cere eguiteco ori! Obe-

nez

nez loituac dauden, becatarien eguitecoa da, zuc orain eguin nai dezuna, edo orain zuc artu nai dezun, San JOANen BATAIOA, ta noiz ezquero loitua zu, edo becatu duna? Zaude bada, zaude gueldiric, Jangoico guizon JESUS maita-garria, ta utzazu or orco bataioa, bataio beharrean arquitzen diran, loitu galduendaco.

Ah, baña! Ez-etz dio JESUS maita-garriac; becatuz loituric arquitzen diranen, eran Ibaiera nai duela, dio, ta San JOANen bataiora.

Baña ceri dagocala ori, gure JESUS maita-garria?

Guri obequi eraguitea gatic, hitzez guero eracutsi uste diguna: guc, hau onela ecusi ondoan, ar dezagun gogo osoz, alqueric gabe, ta, behar den, humil-tasuna-requin gueren becatuen bataioa, edo animaco garbi-era: guri eraguitea gatic gueren becatuen confessione zucena, edo confessariaren oñetaco gueren aitormena; baña aitormen eguiazcoa, aitormen damuzcoa, ta behar bezalacoa.

Ba-cequien, bai JESUS maita-garriac norañocoa den gure antuste arroa, ta soberbia; ta soberbi, edo antuste one gatic, anitzec beintzat, izain zutela anitz alque, ta neque, beren confessariari beren oben-culpac, eta gaizqui eguiñac aitortzeco, edo zucen erateco: ta aldi orietaco beren alque-neque galgarri hau oriei arindu naiez, sartzen da gaur gure JESUS maita-garria becatari-tzar andien artean; ta, San JOANen predicuac escura balu bezala, escatzen du becatarien ura, ta bataioa.

San JOANnec etzuen aldi artaraño ecusi beiñ-ere gure JESUS maita-garria; ta al ere ezagutu zuen, ecusi horduco. Eta ecusi zuenean, JESUSec escatzen ciona, arritu cen, cen, gucia; ta, non arquitzen den, ez daquienaren eran, erraten dio: Jauna, zuc ni bataiatu behar, ta zu gaur nere escuetaco bataioa artzera? Etzara zu cere Aita eternoa palacatzera, ta munduco becatuac quentzera zatocen, bildots garbi Jangoico-guizona? Etzara zu, egunen batean mundu gucia biltzeco zauden, Jaun, ta Juez zucen ecin-zucenagoa? Zu etzara, egun hartan gaisto guciac on guciei artetic ater-eraci ondoan, dagocanari dagocana eman beharra zaran, edo on guciei beren betico gloria, ta gaisto-

ei,

ei, dagoten, betico neque suac emateco zauden, gure Jangoicoa? Eta etzara zu [illegible] bataio berri bat, eta bataio, graziaz, virtutez, ta caridadez beteric arquitzen dena, cerequin dacartzun, Salvatzallea? Ta al ere, urezco nere bataiora ZATOZ ZU?

Baietz, eranzuten, dio S. JOAN Baptistari JESUS maita-garriac. Eta, ezaguturic Santuac, certaraço, edo cer gatic cen JESUSen horduco bataioa, edo bataio-ratzea, bataiatzen du, becatariaren idurian ba-cegoen ere, bere Jangoico guizona bezala.

Hau cer ote da, gure JESUS on-egaia! gu bezain becatari char galdu batzuec gatic artuco cenuen zuc, bataio ori bezalaco, lan bat; eta lan, cere buruaren ain deshondragarria? Zor dizugun, amorearen andia! Norc oni, ta noiz, nol-ere-bait eranzun! Guc orretaraco daguiqueguna da, cere lan onequin zuc eragun nai digazun, gucia alic zucenen zucen-ena eguitea, edo garoiro, ta zucen, ta dembora berean damuz, ta negarrez beteric arquitzen garala, gueren culpac aitortzea, confessatzen garan aldietan; bai ta, beste edocein dembor-etan ere. Ala diguzula zuc, guc orretaraco behar dugun, zure lagun-tza, ta gracia.

§. II.

HONRA, TA GLORIA DA GURE Jaunaren iceneco humil-erac dacarrena.

BAtaiatu ceneco, atera cen gure JESUS maita-garria, JORDAN deritzan, Ibaietic, eta asi cen eguiten, ongui, ta humilqui confessatzen diranac, eta Jaunaren escutic edocein ondasun artzen dutenac eguin behar duten, gauz eder, ta guztiz zucen bat; bada asi izandu cen otoitz eguiten, Jaunari cegozcan, esquerrac emateco (Luc. 3. 23.): ta eman izandu ciozcan, ecin-humilquiago, ta bihotz esquer-dunagoa-requin; ta orre gatic an bertan izandu zuen, izandu den, honraric andiena.

Cer hondra? Cerutic larrera-ñocoa, ta AITAC, eta ESPIRITU Santuac an bertan emana: bada, ecusiric gure Jangoicoac JESUSen horduco humil-tasun ecin gueiagoraño-coa; ta, ecusiric, artara cela gure JESUS, guri becatariei obequi eracustea gatic guc ere gueren aldietan, eguin behar dugu

guna; ta artara cela JESUS, edo JESUS maita-garria sartu izandu cela JORDANgo Ibaican, bataio esque, becatuz bete bat bai-liz bezala; ta, bataiatu, ta andic atera horduco, bere Jangoico maiteac barcatu ba liozca bezala, norc daqui, cembat becatu, ta culpa, asi cela belaunicaturic, otoiz eguiten, ta bere Jaunari esquerrac ematen-ta ematen, bere-bereala an bertan aguertu zuen Jangoico berac, nor cen, ain humil, ta esquer-dun ecusten zuten, JESUS maita-garria.

Nola uste dezu? Idiqui ciran bat-batean gañeco Ceruac: aguertu cen an hordu berean argui-tasun eder guztizco bat; eta, harequin batean, uso idurian, ESPIRITU Santua; jaitsi cen hau, ta guelditu cen JESUSen buru gañean. Dembora berean ots-egun zuen, AITA Eternoac, eta Ceru beretic eman, edo adiraci zuen, lurrean adi citequen, eian:-

ORRA, or orren humil arquitzen den, bataiatu berri, JESUS ori-orise da, nere Seme maita-garria; orise da Trinitateco bi-garren Persona; ta Person, mundu galdua Salvatu naiez, guizon eguiñic, or arquitzen dena. Ez du orrec eguin, ez becaturic beñ-ere, ta ecin eguin ere dezaque. Beti maitatu dut nic ori, ta orrec maitatu nau ni beti; ta orrec beti eguin dit niri atseguin, ta contentu; ta eguiñen ere dit, vici den, artean, norc daqui, cembat aldiz, ta aldian eguiñen dit ecin-gueiago rañocoa.

Orra, JESUSen BATAIOA: orra, orretan JESUSec aguertu cigun, humil-tasuna, ta eguin-videa: ta orra, bere bataio, ta otoitz humilla gatic JESUSec izandu zuen, irabacia, ta pagua!

Ascotan beguiratu diozu zuc JESUSen humil-tasun ecin-andiago eder oni? Ascotan JESUSen hórduco otoitzari? Cere lan-etan asitzean, asitzen ciñan zu cere bataiotic, edo becatuen damuz cere bihotza garbitzetic? Garbitzen cenuen bihotza, cere Jaunari otoitz eguiteco?

Etzenuen zuc cembait aldiz derechic, edo hasti andiric confessatzera joateco; ala da; ba-daquit ori; baña norc eragozten ciz[illegible] zuri cere Jaunaren oñ-et[illegible]o cere obenen damuzco a[illegible]? Norc, orien barcamenetia gogoz, ta humilqui zuc cere Jaun onari maiz escatzea? Ta norc, or zuc erditsi ondoan, cere es-

querrac Jaun berari, behar cen, eran ematea? Cembat aldiz guisa onetan asi izandu zara zu cere eguiteco-etan? Gutitan nosqui, edo beñere! Ori da, JESUSec bere bataioa-requin, ta onen ondorengo otoitza-requin zuri eracutsi cizuna?

Maiz sartu ote zara zu, ta, hastia cenuen, aldi oro cere confessioco Ibaiean? Aldi oro, ta beti aratzen ciñan zu, cere gaizqui gucien urriquiz, ta damuz bihotza beteric ceneducala? Aratzen ciñan zu, alqueric gabe, edo cere lots gucia lenic garaitzen cenuela?

Beti an aitortu dezu zuc, zaran?, diñaco becataria zarala zu? Beti erran izandu dituzu zuc cere oben culpac, guertatu ciran eran, edo non, ta nola, ta cer eran, guertatu ciran, aguertzen cenuela? Ez dezu gorde bein ere, aguertzeco cen, gauzaric, edo gauzen saiets, edo alde gaisto-etatic bat ere? Zucen aguertu dituzu zuc, eguin, ta eraguin dituzun, gaista-queriac? Ori gucia zuri eraguitea gatic, cen gaurco JESUSen bataioa: ta videnabar zuri ar-erazteco, aitormen-gai berriric ez-eguiteco, asmoa, ta, becatu berriric ez eguiteco, gracia.

Ah! baña, ta cembat aldiz urbildu naz ni, bataiatzeco cegoen, edo bere absolucioz garbitu behar ninduen, nere Aita confessariaren oñetara, ceitara nindoan ara, ta an nola nere gauzac erran, ongui, ta zucen asmatu gabe? Cembat aldiz nic, asmatu nituenac ere, edo nere gogora ecarri nituenac erran oi nituen, erdizca bezala; edo alde gucietatic, eta, behar cen, eran aguertzen ez nituela?

Cer gatic, uste dezu? Ceren garaitu ninduen ni nere naguitatunac, nere antusteac, edo nere naicunde macurrac!

Eta aldi orretan, nola ateratzen nintzau ni nere confessioco Ibaietic? Andiac ba ciran, an ni sartu nintzanean, edo horduco nere culpac, audiago-equin, edo, an sartzean baño, aguitz loituagoa, ta confessio gaisto, ta sacrilegio bat nere gain nuela.

Nere eran ibilli zara zu ere, becatari-char galdua, edo ascotan artu dituzu zuc ere cere gain, edo cere animan, nereen eraco, sacrilegio-tzarren carg-astun galgarriac? Edo confessatzen ciñan, behar bezala; ta eguiten cenituela Ceru-

ruráco irabaci andiac ? Confeſſatzen ciñan-etan adirazten cizun cere Jangoicoac, barcatuac gueldizen cirala horduraño co zure oben culpa gaiac; eta emain cizula, bere horduetan, oben etorquizunac galerazteco, ta ganz on anitz eguiteco, bere laguntza, ta gracia ?

Ala bada, Sacrilegio, edo confeſsio gaiſtoco becaturic aldi orietan cere gain artu ez dezulaco ſiñu ona-requin arquitzen zara zu. Baña, era orretaco ſiñuric gabe dago, confeſſatu, ta ondoan bere barreneco illun-taſuna, gaitzeraco macur-era, ta erortze berriac-eta berriac bere barran arquitzen dituena!

Eta oriec dira, nere Jangoico maitea, aſcotan beintzat nic nere gan arquitu dituanac! Eta zori gaiſtocoa ni, ta guziz doncabea, era berran, ta, behar bezala, gaurguero ſartzen ez-pa-naz ni nere confeſsio-etaco Ibaian, edo Ugaldean! Bada, onela ez ſartzera ni, ez dit, ez nere Jangoicoac ill ondoan idiquico, JESUSi bezala, bere Ceruas; ez dit emain, ez, bere Seme maitearen icena; ta, icen naigarri onen ordez, emain dit bere Etſai ciquin galduaren icena; ta emain dit azquenean gaiſtoen pagua, edo beticco ſuleeca!

Ez arren, nere Jangoico maita garria, ez! Gau i-guero eguin nai dut nic (eta zucen al-ere), JESUSec eracutſi didan, BATAIOA, edo confeſſatze zuceneco garbiera. Confeſſatzen nazanetan garaituco ditut nic, bai, nere alque-lotſa guciac. Aitortuco ditut nic, eguin nituen, becatu guciac; eta aitorduco ditut eguin nituen, eran; aitortuco ditut, damu andia-requin, ta berriz alacoric ez eguiteco aſmoan; eta, erditſi ondoan nic orien barcamentua, ta, uſte dudan, zure gracia, emain dizquitzut, bai, eſquer humillac, eta maitatuco zaitut nic zu ciñez, vici nazaño. Ala guerta dédilla, nere Jangoico maita-garria! Bai arren, bai.

I.

MAGNA POTENTIA DEI SOLIUS & ab hominibus honoratur.
Eccl. 3. 21.

EZ du Jangoicoac, ez, eceren beharric bein-ere. Berac berez, ta laguinic bague, ha daguique nai duena. Jangoicoac adiña, ecin daguique, mun-

duan denèc bacarric ; ez eta munduco guciac, elcar artua gatic ere. Ala ere atseguin eguiten dio gure Jangoicoari lurrecoen gauza chiquicho batec.

Cer gauza ote da gauza chiqui-atseguin-garri hau? Ez daquizu? Humil-tasuna.

Bai; humillac dira, Jaunari atseguin andi bat eguiten diotenac: humillac dira, Jangoicoac bere aldean ecusi nai dituenac; humillac dira, gure Jangoicoac bere Cerutic ondasunez betetzen dituenac; eta, hau gucia guri adirazteco, Jaun berac eguiten diozca JESUS maita-garriari (ta eguiten diozca bere bataioco humil-tasun andia gatic), aditu dezun, bezalaco ontarte, ta favore andiac.

Cembat, eta cembat eguiñen lizquitzuquen zuri ere, zuc maiz eguitera humiltasunezco cere gauzac! Eta, centzuric zuc izatera, besteric bà-dagui-quezu? Oben culpac, eta utsac-eta utsac baicic, badira, zuc ascoran eguin oi dituzun, gauzac? Eta cer da, oriec, escatzen dutena? Cer? Baicic, zu beti humill vicitzea, ta damuz beteric, Jaunaren beguietan zu beti egotea?

Gauz on cembait eguiña gatic zuc, eguiten dezu bat ere, uts-bague-coric? Eta onenac ere, nolacoac izain liraque, cerez Jaun berac ez laguntzera zuri?

Ezagu zazu, bada, cerez zarana, ta daguique-zuna! Ezagu zazu izandu zarana, ta zuri cere Jangoicoac eguin dizuna; ta ecusico dezu, arrotzeco videtan arquitzen zaran, edo non!

Ah, nere JESUS maita-garria! ta ceri dagocala arrotu ni, edo antustetu! Erotu behar dut nic orretaraco, edo choil galdu behar dut nic nere buru hau, edo, dudan, adimentua; bada humil-videac, eta humil videac baicic ecusten ez dituzte nere beguiac, sortu nintzanetic orain arteco nere eguinetan, ta nere gauz-etan, nere eguinei, ta gauzei beguira-beguira egona gatic ni, nai adiña demboraz, ta nai bezain luzaro! Pocic humilduco naz ni, bai segurqui, nere Jaun on maita-garria, daquidan ezquero, gure humiltasunac zuri ematen dizun, atseguin contentua; ta guri irabazten dizquigun, zure escuco ondasunac! Lenagoco nere demboretan humilqui, ta behar cen, eran ez vicituaz dut damu, ta urriqui; ta c ñez ala ere. Indazu zuc cerorrec,

ala

ala vicitzeco, behar dudan, indar, ta laguntza gucia: bai arren, bai.

2.

HUMILIUM, ET MANSUETORUM semper tibi placuit oratio. Judith. 9. 19.

BEti bat zara zu, gure Jangoico maita-garria (erran dezaquet nic orain, len JUDITHec bezala); beti bat zara zu, ta beti zara zu, humillen otoitzac aditzen dituzun, gure Jangoicoa, ta laguntzalle ecin indar-suagoa. HOLOFERNES infernucoac, zuc ori hari utzi ezquero, ingurutu ci zaque bere lagun, ta gure etsai galdu galgarri gaisto-equin, indar gutizco gure anima gaisoac, baña cer dira haren, ta bere lagun gucien indarrac, eta cer orien al-eguin guciac, zu baldin ba-zaude, zauden bezala, nere alde; ta niri laguntzeco? Pits bat adiña, ta arere gutiago: zu zara alabaña gauz eguinen, ta eguin-quizunen Jauna, ta Jabea: zu sulececo guciac, queñu batequin ta aisago ere an ondatu cenituena: ta zu, gueroztic an berean oriec erretzen daduzcatzuna.

Angoac bezala, dira munduco guciac ere; ta ez da gucien artean bat, zuc nai ez dezula, betazal bat gora tu dezaquenic. Zurequin ongui datocenac dira, zu gandic erdisten, dutenac nai adiña, edo behar duten, edocein gauza, ta gracia. Zure gogâra dabiltzanac dira, zuri atteguin eguiten dizutenac, eta zure laguntza dutenac.

Hau daquidana bezala, nator-quizu ni gaur, nere Jesus maita-garria. Emen nator-quizu, al dudan, eraric humillen humill-enean; ta nator-quizu, zure graciaren Ibaieco ura-requin nere anima gaiso hau ongui batalatu, edo garbitu naiez. Ba-ditut, bai nic nere utsen loiac, ba-ditut obenac, ba-ditut culpac, eta anitz al-ere! Oriec dira ni gaur gueienic ingurutzen nauten, etsaiac; oriec orain ni gueien-gueiena beldurtzen nautenac! Autsi-eguizquitzu, dagui-quezunac bezala, nere JESUS maita-garria, ta quenitzazu orien loi guciac nere anima ciquin-galdu gaistotic. Hau eguiten dezun, eguna, egun eder esquer-garria da, ni bezalaco becataria-rentzat; eta da, nere viciac dirauen artean, beñere nic nere gogotic utzi behar ez dudan, eguna! Ez dut utzico, ez, nere

Jau-

Jangoico maitea, ta eguizu orain escatzen dizudana. Bai arren, bai.

3.

QUANTO MAGNUS ES, HUMILIA te in omnibus, & coram Deo invenies gratiam. Eccl. 3. 2.

MUnduan den, andiena izana gatic zu; izana gatic zu, munduan den, jaquintsuena, munduan den zucenena; ta, ecusten ba-cenu-ere zu zarala, munduan den, gueiena duten, guizona, humill-humill vici beharra ciñaque zu, nai ba-cenu cere zori-ona, ta Ceruco gracia; ta izanic zu, zaran bezalacoa, edo zaran bezain escu gutizcoa, ta jaquiunde laburrecoa; ta izanic zu, zaran bezala, cerez, edo Jaunac laguntzen ez dizula, ecer ecin daguiquezuna, nola vici beharra zara zu? Arro-tasunez, ta antustez betéa? Cere Jangoico eguilleari baguiatu ere bague, ta cerezco Jaun andi bat ba-ciña bezala?

Ori eguiten duten, arro-tzarrac arquitzén dute beren i abacia, arquitzen dute beren humilsera, ta arquitzen dute Jaun bat, berac behar bezalacoa, edo berei dagozten neque-penen emallea; bada Jangoicoac ematen die, macur dabiltzan, arroei, dagoquiena, edo ematen die damu guiltoco buca-era; ta ematen die betico alque-quizuna, betico sua, ta beti-betico negarra.

Bai, JESUSen hameac, bai; hau da lurreco arrotzar galduac beren antustezco exaqueri guci-equin irabazten dutena! Alferric da berdin! gogorrac gogor arquitzen dute beren azquen demboran beren Jangoico altsu-zucen ecinzucenagoa; ta oriec, eta munduco guciac eguiña gatic, edo horduan, edo edocein horduz beren al-eguiña, ecin garai dezaquee, ez, beren Jangoicoaren beso indartsua.

Hau nic, urriquiz beteric, aitortzen dut gaur; ta aitortu beharco dute beti, ta beti (lertuco ba-dira ere), leneco beren arro-tasunac gatic, orain sulecean arquitzen diranac; baña beren oraingo aitormen orrec ez ditu, ez, andic ateraco: an lertzen egon beharrac dira, Jangoicoa Jangoico den artean, edo secula gucian, ta an egon beharrac dira leneco beren antuste, ta arrotasun ero galduac gatic.

Hu-

Humilqui vici diranac dira, neque hau bein ere beren gain artzen ez dutenac, eta, onen ordez, artzen dutenac gure Jangoicoaren gracia, ta betico atseguin—contentua.

Nai dezu hau artu zuc ere, becatuz becatu ibilli izandi zaran, nere anima charra? Nai dezu zuc, dizun zuri cere Jangoico maita-garriac, emen, ecusten ez den, barrengo garbiera, ta bere laguntza, ta gracia? Zoazquio bada, ori gucia humilqui escatzera; ta esca zagozu, alic humilquiena, ta begui-gogoac lurrean daramatz-quitzala. Ala ba-zoaz zu cere Jangoicoaren oñ-etara izain dezu, bai, zuc, nai dezuna. Zoazi bada orain bertatic, eta batere luzatu bague; ta, cembat humilquiago joaten zaran zu, ambat obequiago eguiñen dezu zuc cere eguitecoa, ta ambat erraz quiago erditsico dezu zuc cere Jangoico maita-garria gandic, hari zuc escatzen diozun, edocein gauza.

Baña nola nentorque ni, nere JESUS maita-garria, era onetan ez etortzera? Izanic ni, daquizun bezala, becatuz beti betea burutic oñe-taraño, ta nere vicitza gucian, edo beintzat gueienean! Izanic ni, nazan bezala, ambat aldiz zu aserretu zaituen, zure etsai galgarri amurratua; ta izanic ni, zure ontasun andia gatic ez izatera, gaur sulecean erretzen arquitzen nintzan, becataria! Izanic, dada, ni era onetacoa, nola nentorque gaur zure begui ecusle-eder-etara, ez-pa-cen, damuz, humiltasunez, ta nequez ongui erdiratua. Ona, bada, ni ona non nazun gaur, nere JESUS maita-garria, zure oñetan damuz erdiratua, ta alic humillena! Ta ona non natorren zure laguntzaren, zure graciaren, ta nere orain-dañoco utsen barcamentu esque, hitzez, ta bihotzez erraten dizudala: *NERE JESUCHRISTO, &c.*

XXXIII.

XXXIII-GARREN OTOITZ-GAIA.

JESUSEN BARUR-OTOITZAC, EDO PELEAC.

IZaten dira munduan Lapurrac, videz dabiltzan gaiſoei, dacarten, ondaſuna quendu ondoan, beren vicia ere quendu oi dietenac. Lapur gaiſtoac dira, era orretaco Lapurrac! Baña ez dira oriec, ez, mundu one-taratzen diran, Lapurric gaiſtoenac: Lapur gaiſtoagoac (eta aguitz al-ere) dira, gure animaren videratzen diran, Lapurrac; quentzen dituzte alabaña Lapur oriec ondaſun, ta vicitza gorputzarenac ez bezalacoac; bada, quentzera ezquero, quentzen dituzte graciaren Ceruco vicitza, ta anima gaiſoaren irabaz-ondaſunac.

Urcabez, catez, preſondeguitz, edo nol-ere bait eſcuratzen dira munduco Lapurrac; eta animaco Lapurrac eſcuratzen dira, JESUSec gaur aguertzen digun, videz, ta eran. Nola bada, edo cer eran? Ongui preſtatuz animac, eta armac artuz garai onez, ta behar den, adiuntzan.

Animaco Lapurrac, eta bere Etſai galgarri guciac garaitzeco, etzuen preſtatze beharric bat-ere gure JESUS maita-garriac; cen alabaña, nai adiña arma-eſcu, ta indar bere baitan arquitzen zuen, Jangoico-guizon ecin altſuagoa: ta al-ere, guri eraguin naiez, guc eguin beharra, preſtatu cen JESUS, edo eguin izandu zuen, armen, ta indarren behar arquitu ba-liz, eguin cezaquena; ta, hau eguin artean, etzen atera Lapur-etſaien peleara.

Animaco gure Lapur-etſaiac dira, atſeguin-gúrac, eta hondra-gúrac, edo atſeguin charren, hondra galduen, ta ondaſun galgarrien naicunde macurrac dacazten, edo ecarri oi dituzten, TENTU gaiſtoac, edo naicunde, ta tentu oriequin guer-

guerra eguiten diguten, mundu galdua, aragui gaiſtatua, ta ſulececo galgarria. Ecuſi dezagun orain orien iruren contra gure JESUSec eguin izandu zuena; ta guc ere, oriec, berac garaitceco, lan onen aſitzetic beraren bucaera-raño eguin beharco duguna.

§. I.

SI FILIUS DEI ES, DIC, ut lapides iſti panes fiant.
Math. 4. 3.

BERE BARUZ ERACUSTEN DU JESUSec, nola garaitzen den jan-edan gùra, edo jan-edanen nai gaiſtoa.

SAn Joan Baptiſtac JESUS bataiatu horduco, Eſpiritu Santuac adiraci cion JESUS berari etorquizuna, edo adiraci cion, izain cituela, bai, ta laſter al-ere, edo anitz luzatu gabe, ſulececo bere Etſai galgarri gaiſtoa-requin bere tentupeleac, eta adiraci cion, ſar cedilla, artaraco preſtatzera bezala, Eſpiritu Santu berac bereci, edo aguertu cion, bazter artaco Eremu batera.

Hau hari Eſpiritu Santuac adiraci horduco, artzen du JESUSec bere Eremuraco videa. Sartzen da JESUS an, bat-ere tricatu gabe, ta ba-dago bere baſo, edo Eremu onetan, berroguei egunez beintzat.

Irur tenta-modu, edo pelea ciran, ſulececo bere Lapur-etsaiac JESUS maita-garriari aldi onetan eman behar ciozcanac, eta, gucia cequienac bezala, eguin zuen JESUSec egun orietan, eguin cezaquen, preſtatzeric onena, ta aldian, aldico tentà-erac eſcatzen zutena.

Cein izandu ote cen lembicico JESUSen, pelea, edo etſai-tentua?

Jan-edanetic, edo araguiaren aldetic cetorren bat.

Eta ori garaitzeco, edo guri ori garaitzen eracuſteco, cer izandu cen gure JESUS maita-garriac eguin izandu zuena?

Barur luce gargi batequin, edo berroguei egunez, bocadu bat artu gabe, ta ur tantaric ere edaten etzuela, bere gorputza necatzea.

Orra JESUSec eguin izandu zuena, bere lembicico peleara baño, len: ta orra nondic aſi beharrac diran, edo nola preſta ditezqueen becatari gaiſoac, beren etſaiac araguiaren aldetic eguiñen diezten, peleetan ongui guelditzeco.

Aragui gaistoac vicinai luque jan-edanez aseric, eta, ase-tasunac escatzen dituen, atseguin guciac eguiten zaizcala: ta beren buruaren, edo araguiaren nai galdu hau garaitu nai dutenac, eguin behar dute beinic bein, JESUSec bere Eremuan eguin izandu zuen, lembicico gauza, edo alde artatic al-dutena.

AL-DUTENA, diot; bada berroguei egunez barutzea, JESUSen eran, edo deus bat ere egun orietan artzen ez dutela, ori da lurrecoac, Jaunaren milagroric bague, ecin daguiqueen, gauza. Baña era onetaco barurac guc ecin eguin, edo aterea gatic, eguin, edo atera ditzaquegu gueren guisacoac; eta, ecin quendua gatic guc gueren buruari, anitz egunez beintzat, bere jan-edana, egun oro, ta eguneco otordu, edo otrontze gucietan quen dezoquegu cer, edo cer; eta dembora berean neca dezaquegu guc sillicioz, loa laburtuz, belaunicaturic iduquiz, edo beste cembait aldetara, edo era orietaco bertze cerbait neque-requiu: ta ori da, oraingo bere barur andia-requin guri gueren JESUSec eracusten diguna.

Hau eguiten duenác, prestatzen du bere anima, bere etsaiaren contra; ta, era onetan prestatzen den, onequin bere pelean asia gatic Lapur-etsaia; ta, asia gatic etsai galgarri hau, lenic bere laguntzat artzen dituela, behar ez diran, jan-edanac, atsedere esquer-gabecoac, alferqueri andiac, nagui-tasunac, eta atseguin loi-ciquin-galduac, aisa haren gandic aienatuco du, bai, bere lagun-equin batean JESUS maita-garriac, len aienatu izandu zuen, bezala. Nola ote? Ots-emazu; goazen ecustera.

Gosetu cen JESUS, ta aguitz al-ere, bere berroguei eguneco barur hau bucatu horduco; ta, an horduan aguitzen, edo guertatzen cena ezaguturic, aguertzen zaio JESUS maita-garriari sulececo Lapur-etsaia; ta asitzen zaio pelean bezala, edo tentatzen; ta erraten dio; *Jangoicoaren Semea bazara zu, errazu, eguin ditecela ogui, orraco arri oriec*; erraten ba-lio bezala; atozea; ta etzara zu, Aita Eternoaren Seme bacar Jangoico—guizona? Ez dituzu zuc, nai dituzun, gauzac eguiteco, behar dituzun, escu, ta indar guciac? Certan zaude, bada or orrela gosez iltzen? Orra non dituzun or arri batzuec: erraiezu, *arriac*

oguei

ogui biur zaitezte; ori zuc erran-horduco, bertan oriec ogni eguiñen dira, ta izain dezu horduan zuc, cere gosea garaitzeco diña, ogui; bai ta anitz gueiago ere. Eguizu bada; janezazu, ta etzaitecela gosez, ta beharrez ill.

Orra non Lapur-etsaiac, eraguin nai ciqueon JESUS maita-garriari, behar etzen, videzco, jate char-galdu errebes bat. Baña oitua cegoen gure JESUS ona egunac egunen ondo barutzera; ta prestaturic arquitzen cen, Jaunac nai etzuela, ez jateco bocadu bat ere; ta arquitzen cen, ala jan baño, len bere vicia milletan uzteco, asmoan; ta bere golpe, edo ucaldi hau galerazteco eranzun cion Escrituturaz bere etsai galdu-gal-garriari; ta videnabar adiraci cion guizona ez dela gorputz utsa; bai duela guizonac bere anima ere; ta, guizonaren gorputzac, bezain behar duela beraren animac bere janaria; gorputzarena baño, len dela animarena; ta animaren janaria dela Jangoicoaren hitza, ta Jaunac diona zucen egnitea: ta hau da (cion, edo adiraci zuen JESUS maita-garriac); hau da orain, ta beti nic eguin nai dudana; ez, zuc etsai galgarri orrec eraguin nai didazun, contraco jatea. Hau erran, edo adiraci horduco, garaitzen du JESUSec bere etsaia, ta uzten du, mututuric bezala, edo hitz bat ecin atera cezaquen, eran.

Oitzen ba zará zu, ecinsi ditugun, barur etara, edo JESUSen barur luceac adirazten dizquiguten, neque-etara, aisa zuc utzico dituzu, bai, zure anima galtzeco diran, janedanac, eta araguiaren atseguin char, ta placer galduac; ez daude alabaña, ez, cillegui ez diran, gauzac artzeco, cillegui diranac ere berariaz, ta bere Jauna gatic uzten dituztenac. Artzen ez pa-dituzu, bada zuc oriec, cere etsai galgarriac zuri ar-eraci naia gatic, garaituco dezu, zuc cere etsaia, JESUSen eran, ta aienatuco dezu zuc cere aldetic, eta vidalduco dezu hordu gaistoan bere sulecera

Ala garaitu, aienatu, ta vidaldu ote dezu zuc, tentatu zaituen, aldi gucietan? Ez dezu zuc, bein ere jan izandu, ez, eta edan ere, hordu jaquinetan bucic; eta horduan ere ez jaten, ta ez edaten cenuen, behar cenuena baño bat ere gueiago? Zure gogoac ez ote du noiz, edo noiz jan izandu, edo, bere naiez erabilli,

behar etzen, oroitzapen galgarriren bat, edo beste? Ezagutu horduco, aienatu ote dituzu zuc oroitzapen-era oriec, sulececo sugueac bezala?

Zure beguiac edan ez ote dute bein ere, behar etzen, edariric; edo ez ote dira beguira egondu etsaiac ecarri oi dituen, ta burua gogoracio gaistoz, ta bihotza naicunde lizunez betetzen duten, aurpegui-eder-etara, edo beste cerbait orrelaco gauz-etara?

Zuc cere escuz ez artu, ta ez uquitu izandu dezu besteren gauzaric, edo gogo galdura atseguin char lizunen bat ecarri oi duenic? Ala bada, ongui peleatu zara zu, ta ba-zabilzque JESUSen Soldadu onen artean; bada, era orrelaco-etan bezala, garai dezaquezu zuc cere etsaia, gañeraco bere-pelea, ta tentuetan ere. Orretaraco beguira eguiezu, JESUSec izandu cituenei, ta harc orietan eguin zuenari: ta lenenic orain ecusi behar dugun, bigarren aldicoari.

§. II.

SI FILIUS DEI ES, MITTE te deorsum. *Ibid. v. 6.*

BAZTERTUZ, OTOITZ-EGUITERA, eracusten du JESUSec antuste-tentuac garaitzen.

SUlececo etsai Lapur galgarriac, ecusi zuenean, erzuela JESUS ona gandic atera deus-ere bere lembicico pelean, edo jan edanaren, ta araguiaren atseguin-tentuan, eman cion arro tentu lausen-gari bat; eta sartu cen JESUS maita-garria-requin bere bigarren pelean.

Orretaraco, atera zuen JESUS basotic, edo bere Eremutic; eraman zuen Jerusalengo Errira, ta Eliza gañera; ta, an erran cion JESUS maita-garriari: *Jangoicoaren Semea bazara zu, salta zaitez-or-bera; bada letraz ezarria dago*: manatu cien bere Aingueruei zai-zaitzatela, ta artuco zaituzte emen erortzean beren escuetan, *oñean miñic ar ez dezazun zuc.*

Erran nai du: gosez iltzeco bezala zaude zu, edo, ecusten dezun, bezain indar guti-requin arquitzen zara zu gaur, ta ez dezu cer necatu emendic lur-erañoco escaleretan: baldin Aita Eternoaren Seme bacar, guizonac gatic guizon eguiña ba zara zu, eguizu, zauden, lecutic lur-erañoco salto bat, eta araco zara bat-ere calteric gabe, ta ne-

necatzen etzarala ; bada zure Ait-Eternoac vidalduco dizquitzu bere-bereala bere Aingueruac, Escriturac dionaz; ta Aingueruac eramain zaituzte emendic lur-eraño beren escuetan, azcazal batean ere miñic artzen ez dezula.

Ceri cegocala etsaiaren aldi artaco ambat arazo, ta hizqueta? Antustez, ta arroeraz JESUS garaitu naiez, edo nor cen JESUS ezagutzea gatic. Nai zuquen etsai-galgarriac, beharric ez izan arren, edo premiaric gabe, cebillen JESUS aice gañean, chori bat bezala, ala JESUS ecusten zutenac estima cezaten; ta beraren ondoren gueroz ibilliz, ta milla laudario-requin chora cezaten JESUS, ta zoratzen ez-pa-zuten, ta bere saltotic caltear guelditzen ez-pa cen, berac etzagutzeco, nor, edo cein ote cen gure JESUS maitagarria; etzequien alabaña etsai- tzar lapur galduac nor cen JESUS, Jangoico guizona celaco gogan--beharra ba-zuen ere.

Baña etsaiac barrundatzen zuena cen JESUS; ta, cenac bezala, garaitu zuen orain ere JESUSec bere etsaia, ta utzi zuen, len, bezain uts, eta otz. Cer videz, uste dezu?

Den zacenenaz, edo Escritura Santaz; ta erraten ciola: *Escribitua dago ez dezu tentatuco cere Jaun Jangoicoa*; edo gaizqui, ta garai gaistoan artu dituzu zuc, nere etsai-tzarra, cere Jaunaren Escrituraco hitzac; Escriturac diona da, ez dedilla sartu bat ere, sartu behar ez duen, eguiteco charetan, ta gal-vide-etan, zuc orain ni sar-eraci nai ninduquezun bezala; bada, cere gogo galduari atseguin eguin naiez, eraguin nai ceniquet niri esquer gabeco lan gaisto bat; nai cenuque alabaña, zuri nic, edo nere arro-tasunari atseguin eguitea gatic, billa nitzan, esquer-gabeco videac, edo behar ez diran, Jaunaren milagroac, eta Aingueruen laguntzac. Jaunaren Aingueruac ez daude orrelaco lan-etaraco; oriec daude, ecin bestezco, nequeetan arquitzen diranei laguntzeco.

Hau erran horduco issil-eraci zuen JESUSec Etsaia; ta bi-garren aldian utzi izandu zuen lotsaz, ta alquez cena betea, ta ongui mututua.

Non prestatu ote cen JESUS bere bi-garren lan hau onen ederqui eguiteco?

Espiritu Santuac bereci, edo eracutsi izandu cion, Eremuan.

Cer

Cer eguin zuen an JESUSec orre-taraco?

Humilleraz bete bere bihotza, ta anima gucia.

Egoquia cen, bai, orretaraco basoco JESUSen vicitza; bai ta baso, edo eremu bera ere. JESUSen ango vicitza cen gau, ta egun, berroguei egunez baruizea; hastiz, maiz, nai adiñetan, ta garbiro ecustea antuste arroaren itsusi-queria, ta humillera onaren maita-garri-tasuna; ta, orretan cegoeño, JESUSec basoan, edo bere eremuan izandu cituen, lagunac ciran, bacar-tasuna, ta cenzu gabeco cembait ganadu: *eratque cum bestiis*. Marc. 1. 13.

Orra JESUSec guri aldi onetan eracusten diguna. Orra JESUSec guri aguertzen digun, arro-tasunaren garai-videa: lagun-artetic igues-eguitea, gueren bacar-tasunean. Ceruco gogargui onac artzea, edo gure Jangoicoaren dei meac aditzeco, erne, ta contuz egotea; ta Jangoico berac bere deiez, edo bere gogargui-equin adirazten diguna hastiz, ta conzuz ecustea; ta videnabar ecustea, guizonen lausengac dacarten, ecer-eza, ta humil-tasunaren irabacia; ecer-ez artaz, ta humil tasun garbiaren irabaciaz oroitzen garala, garai dezagun guc gueren etsaia, bere tentu guciequin batean; ta azquenic ecustea, anitz aldetaracoac dirala gure etsaiaren tentuac, edo, eguiten dizquigun, becaturaco videaç.

Bein, ta berriz, ta ascotan zuc garaitzen ba-dezu ere, ez da ez tentuz, edo zu tentatzez aseco zure Lapur-etsaia: asmatuco ditu, bai, galgarri gaistoac tentu, ta tentu berriac, eta zu ganaco da berriz, ta berriz ere; ta, besteric ecin duenean, tentatuco zaitu, aisa garaitzen dezulaco, ta Santua, Santa, edo ona zaralaco asmo arroa-requin; ta aldi orrelacoetan oartua, edo ongui prestatua ez egotera zu, aisa, ta erraz garaituco zaitu; ta quenduco dizu cere leneco irabacia.

Garaitu ote dezu zuc beti, edo bere tentu aldi gucietan sulececo cere Lapur-etsaia?

Ah! ez nosqui, ta erdietan ere!

Baña prestatzen ciñan zu, peleara baño, len, artan sartzeco? Zure lagun ariñac sartzen ciranean, edo beren dantzan, edo joco-modu galgarriren batean, edo beste edocein gal-videtan, ibiltzen ciñan

zu

zu ere orien ondoren ? Ibiltzen ciñan zu ere orien gañeraco lan galgarrietan, ero char cembaiten apainqueta galdu arroetan, edo cere burua aguertu naiez, edo nondic, eta nola ecusico cenuen cere galgarri hau, edo hura ?

Ba cenituen zuc cere Jai-igande-etan hordu bereciac, haste gucico cere utsac zucentzeco, eguiteco ceneduzcan, gauzac eguiten icasteco; ta guciac, icasi bezain, zucen eguiteco? Eguiteco onelacoac ascotan, ta anitz necatu izandu zaituzte zu ? Edo, oriec aldebat utziric, ibilli izandu zara zu, gogo ariñac aguertzen dizquitzun, beste cembait errazagoetan ?

Ala dabillena, arro ibilli oi da, ta antustez betea, edo arquitu naiez bere buruaren aguer-videac, eta lurreco eraqueriac; eta onela dabillena, ez dabil, ez, behar bezala prestatua, bere etsai galgarri gogorra garaitzeco; aisa liluratzen dute era orretacoa bere etsai galgarriaren ichura-penac; aisa sar-erazten dute, perellez beteac arquitzen diran, ta sulecera eraman oi duten, videetan; ta vide beretan guelditu oi da, becatuz loitu-nahasi garaitua !

Ala guelditu izandu zara zu bein, berriz, edo aldiren batzuetan ? Ez ote zara bada noiz, edo noiz centzatu beharra ? Orrela zabiltzan artean, galduric arquitzen zara zu; ta zure Lapur-etsaiac escutic loturic zaduzca. Non guelditu uste dezu, bada, gaurguero zu era orretan ba-zabiltza ? Lapur-etsai orren echean? Sulecean ? Betiço neque-damu gogorretan ?

Ez arren, ez ! Ez dezazula eman pausu berriric cere etsai galgarri orren ondoren ! Quen zaitez, (eta lembait-len) cere etsai amurratu orren aldamenetic. Ez da gaur guero cer beguiratu guizon eroen erran arin-etara. Utzi behar dituzu cere al-eguiñean mundu arro-tzar galgarri hau, ta onen asmo, gogoeta, ta ibillera galdu guciac.

Eguizu zuc gaur-danic sartzera cere bihotzeco basoan, eremuan, edo bacar-tasunean; ta adi zazu zuc contuz or, cere Jangoico maita-garriac adiraci nai dizuna. Horduan harc zuri adirazten dizquitzun, gauzac zuc eguin ezquero, ez diozu zuc munduco eraqueriei beguitatuco ere; ta azquenean zuc cere etsai galgarria aisa, ta erraz garaituco dezu.

Ori

Ori da zucen zuc orain eguitea, len zuri JESUSec adiraci izandu dizuna; ta ori zu bera-requin bat-eguiñic, emen vicitzea, emendic atera ondoan, bera-requin vicitzen asitzeco, atseguin-contentuz betericaco, ta seculaco vicitza zori-onecoan.

Vicitzaren billa-garria! ta nor ez da saiatuco, zucen zu, ta gaur danic irabaztera! Ni beintzat bai, nere Jauna gandic uste dudan, graci indartsu onac laguntzen didala.

§. III.

HÆC OMNIA TIBI DABO, si cadens adoraveris me.
Ibidem v. 9.

LURRECO GAUZEN ECER-EZA aguertuz, eracusten digu gaur JESUSec gueren ondasungurac garantzen.

BEin, ta berriz guc gueren sulececo Lapur-etsaia garaitua gatic, ez dugu gueren baitan bat ere cer fiatu; bada berriz, ta berriz ere gueren gain izain dugu guc, gutien uste dugunean, etsai amurratua; ta aldi oro etorrico da arma-tentu berri-equin; ta, harc gu azquenean garaitu ezquero, galduac dira lenagoco gure irabaciac, edo merecimentu guciac; eta gu gueroc ere galduac gara, Jangoicoa Jangoico den arteraco, edo eternidade guci guciraco.

Orren caltear ez guelditzeco, ongui prestatuac, eta alic erne-ena vici beharrac gara gu, vici garaño. Ecusi ditugun, beste bere eracusteen gain, ori ere eracusti cigun guri gueren JESUS maita-garriac aldi onetaco bere peleetan. Nola ta cer videz, uste dezu? Goacen ecustera.

Bein, ta birretan JESUSec garaitua gatic, garaitu zuén, ta ecusi dugun bezala, sulececo Lapur-etsai amurratua, etzuen etsaiac etsi, ez JESUS garaitzeaz. Ateratzen du etsai berac JERUSALENdic JESUS maita-garria, an nai zuenic ecin eraguin ciola, ecusi ondoan; ta ba-darama mendi-gain guztiz goititu batera.

Mendi hartatic aguertzen diozca JESUSi, dezaquenac bezala (Jaunac hari bere lan ori eguiten utci ezquero) munduan arquitzen ciran, gauzaric ecusteco-enac. Aguertzen diozca munduco Erresumac, edo Erreinu, ta bazter guciac. Aguertzen diozca Erreinu guciaco edertasunac, indarrac, eta on-

ondasunac:eta agueitzen diozca ez bereciac, eta banaca bezala, baicic, S. Lucasec dionaz, *in momento temporis* batetan, ta gucien edertasuna-requin beinbeingoan bere beguietan JESUS maita-garriari ematen diola, liluratuari bezala ba-cen ere, eraguin naiez, esquer-gabeco lan galdu galgarri bat.

Cer lan modu ote cen, lan galdu etsai gaistoac JESUS maita-garriari eraguin nai ciqueon hau?

Etsai beraren hitzac diotena. ECUSTEN dezu zuc hau gucia (erraten dio etsaiac Jesus maita garriari)? Bada gucihau emain dizut ceretzat, edo nai dezuneraco, belaunicatzen ba-zara zu, niri, cere Jaunari bezala, agur eguiteco.

Anitz cen, bai, bere etsai Lapurrac JESUS maita-garriari aldi onetan esqueintzen ciona; ta etziran gaistoac, ez, esqueintzen ciozcan, gauzac, begui arin bat liluratzeco, ta lurreco gauza zale baten gogo char galdua naicunde macurrez betetzeco: bada esqueintzen ciozcan, munduaren laur zatietan arquitzen diran, Erri, Erreinu, urre, cillar, perla, diamante, oialeder, gende, ta ondasun guciac; eta esqueintzen ciozcan buru belaunen erabiltze bacar bate gatic, besteric bague: Baña esqueintzen ciozcan, haren esqueintze-escatze, ta gogo gaistoac ezagutzen cituen, Jangoico-guizonari, ta aicetan guelditu ciran etsai galgarriaren esqueintza, ta asmo guciac.

Nola bada? Ceren eranzun cion JESUS maita-garriac, ongui vici den, edocein guizonec, era bereco aldietan eranzun behar duen, gauz eder bat.

Cer ote? *Oa ortic, Satanas; escribitua cegoc.: adoratuco duc hic here Jangoico Jauna, ta hura baicic ez duc servitzatuco.* Erran nai du, oa ortic, sulececo Satanas gaistoa. Ceri dagocala hiri nic, edo den chiquienac ere, belaunicaturic agur eguitea? Ez daquic hic cer dion Escritura Santac, eguiteco onen gain hitz-eguiten duenean? Ez dio Escritura Santac argui-arguiro; agur eguiozu hitzez, belaunez, bihotzez, buruz, ta alde gucietara? (nori?) Cere Jaun, ta Jabe bacar Jangoico maita-garriari, ez besteri? Ez dio Escritura berac videnabar; eguizu zuc, cere Jangoico oni atseguin eguitea gatic, eguin be-

har dezun, guci-gucia; ta ez daguizula bein ere Jaun onen atse-caberaco den, gauzaric chiquiena?

Certan habil, bada, galgarri gaistoa, niri eraguin naiez, ecin dagui-quedana, ta bein-ere nic eguiñen ez dudana? Ez diet nic ondasun beharric, eta, cerbaiten beharrean ba-nengo ere, hire escutic artu baño, len behar, ta gabe guelditico ninduquec beti, edo nere vici guci gucian. Oa bada, oa ere toquira, etsai amurratua. Oa, oa, sutan beti-ta-beti lertzen, ta erretzen egotera; berdin ez diet nic eguiñen, tentatzalle guezurti gaistoa, hire erranic bat ere.

Hau JESUS maita-garria gandic aditu horduco, quendu cen andic etsai-tzar gaistoa, ta joan cen, manatu citzaion, toquira, JESUS maita-garriac garaitu zuelaco alquez, ta damuz erdi-urratua.

Ecusten dezu cein prest arquitzen cen gure JESUS maita-garria, non nai, ta edocein horduz bere etsai amurratua garaitzeco?

Non prestatu ote cen JESUS, ta nola hura onen aisa garaitzeco?

Ecusi dugun, eran, ta toquian, edo eremuco bere bacar-taiunean, ta ango otoitz soseguzcoa-requin. An ecusi cituen gure JESUS maita-garriac, nai bezain, hastiz, ongui, ta maiz, lendabicitic ederqui cequizquien, gauza guciac, eta, besteen artean, nolacoac diran, gure Jauna maitatzetic datocen, ondasunac; bai ta lurreco ondasunen aur-queriac ere: ta bere bi ecuste ori-equin guelditu cen JESUS, len cegoenean, edo eguin behar etzuela, bere Aitaren naia, ta vorondatea baicic: ez eta mundu gucia gatic ere: ta eguin zuen zucen, ta beti, ecusi dugun bezala, bere gain arturicaco eguiteco hau.

Eguiten ote dezu zuc ere beste orrem-beste, edo eguiten ote dezu zuc, JESUS maita-garriaren eguiteco andi zucen onec adirazten dizun, cere eguitecoa? Ez ote dituzu quentzen zuc bein ere cere Jauna gandic cere beguiac? Beti-beti ote zaude zu, cere asmo-gogo guciac Ceruan daduzcatzula, ta lurreco gauzei, behar den, eran, ta ecin bestez baicic, beguiratzen ez diezula?

Ezagutuac ote daduzcatzu zuc lurreco gauza gucien ecer-eza, ta naspilla? Ote dacusazu zuc cer lanac diran, lur-

lurreco naſpillac, eta gauz oriec eraguin oi dituzten, lanac? Ote daquizu zuc, behar bezala beintzat, cer eguiten ote duten, edo cembat arazo,ta eguitecotan ſartuac arquitzen diran, ondaſun orien ondoren dabiltzan, biltzalle anſiatuac, ondaſun orien maitatzalle andiac, eta ondaſun berac beren gogo ariñari, ematen diena, eguiten dutenac? Cembat vide-gabe eguin oi dituzte, era orretan vici diranac? Cembat dollor-queri? ta cembat, eta cembat oben, ta culpa?

Eta cer ote da ori gucia, edo cer ote da era onetan dabiltzan, guizonen eran ibiltzea?

Cer izan diteque, baicic agur andiac, eta eſcu-muñ humillac Etſai galgarriari pocic guc, eta gueren naiez egiitea, edo guc gueren etſai madaricatu gaiſtoari atſeguin eguitea gatic gueren buruac galduric erabiltzea.

Hau ecuſten dezu zuc, ta al-ere zuc bihotzez, ta nai izandu dituzun, bezain guztiz naico dituzu, zuri niola ere ez dagozquitzun, ondaſunac? Vide galduz, edo zucen ez datoz-quitzun, ondaſunac? Eguiteco char galduz, ta eun arazoz betetzen zaituzten, ondaſunac, cere Jaun on maita-garria ganaco gogo zucen onac gal-erazten dizquitzuten, ta anitz al-detara ciquintzen zaituzten, ondaſunac? Zure ero-eguia!

Zuc ez daquizu bérez, cer ondaſunac diran, emen arquitzen diran, ondaſunac; eta cer ondaſunac, beti-betiraco, zuc, eta nic, eta muhdu gucian arquitzen garanoc billatu behar guenituqueen, ondaſunac? Mundu onetaco ondaſun andi-chiqui guciac ſite guc, edo ill-horduco emen bertan utzi beharco ditugun, ondaſunac dira. Emen beti, vici garaño (ongui gu beti vicitzera), ta guero buca-eraric ez duen, Ceruco eternidade gucian guri laguntzeco dauden, ondaſunac dira, gure Jangoico maita-garriac ematen dituen, ondaſunac; baña agueri ez diran, ta ſiñiſte garbi onez baicic, emen ecuſten ez diran, ondaſunac dira; ta orre gatic dira, emen aguerian arquitzen diran, lurreco gauza charrac adiña anſia-requin billatu oi ez diran, ondaſunac.

Izan etzaitecen zu ere, eguiteco andi-ondaſundun onetan munduco anitz ber-

bertze eroren eracoa, artu-zazu, beti ez izan arren, noizean-bein bad-ere, cerbait hasti, ta lecu. Idiqui-izquitzu hordu, edo ar-aldi orietan cere animaco begui ecusleac; eta ecusico dezu, nor den, ta cer asmotan dabillena den, lurreco atseguin-contentu, ta gauza galgarri-equin zuri cere begui arñac, eta gogo charra arrapatú nai dizquitzun, etsai-tzar galgarria. Ecusico dezu, certaco den etsai onen eguitecoa, eta nora daramaten onen tenta-era, ta pelea guciac.

Hau ongui, ta, behar den, eran ecusi ondoan, goratzen ba-dituzu zuc cere beguiac, ecusico dezu, cer gauza den ongui vicitzea, cer gauza den, emen ciñez, ta zucen zuc cere Jauna maitatzea, ta atseguin contentuz beteric beti, ta beti Ceruan egotea. Lenac, eta ori zuc, ongui, ta behar den, eran ecusi ezquero, saiatuco zara zu, bai JESUSen ondoco peleac eguitera; ta JESUS beraren eran zuc ere cere etsaia garaituz, behar ez diran, lurreco, ta araguiaren gauzac utziz, ta cere Jauna zuc ciñez maitatzen, onesten, ta servitzatzen dezula, Ceruco ondasun garbi-ederrac irabaztera. Zori onecoa zu, orretan ba-zabiltza, ill arteco cere dembora gucian, edo vici zaraño! Indazu zuc, nere Eracusle on, JESUS maita-garria, orre-taraco behar den, zure laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

1.

SEDEBIT SOLITARIUS, ET TACEBIT, & levabit super se. Thren. 3. 28.

BIllatuco du bere bacar-tasuna: eserico, edo jarrico da berez, edo, lagunic arquitzen ez den, toquian, ta, an isillic dagoenean, gogoan artuco ditu, artu behar dituen, gauzac, eta ateraco da, ango bere ego-eratic, len-ez bezalacoa, ta escuz, ta indarrez dena betea; dio Jeremias Profetac.

Nor ote? JESUSen eran dabillen, edocein anima.

Cer ibillera da, aldi onetaco JESUSen ibillera? Humilleraz, bacar-tasunez, baruz, ta beguiratze zucenez baso batean, edo Eremuan bere etsai galgarriaren contra, behar cen, eran prestatzea.

Era berean prestatu zara zu ere noiz, edo bein? Bacartzen zara zu, lagun artean ceun-

ceun-dezqueen, aldiren bazuetan? Sartzen zara zu Elizan, edo cere guelan, gogoracio ero, ta, ecertaco ez diran, oroitzapen guciac utziric, hastiz ecustera, zuri onguien dagozquizun, gauzac, eta ecustera, nola garaitzen diran, aragui galduaren tentuac, eta, sulecetic datocen, peleac?

Eguiten dezu guero zuc, an ezagutzen dezuna? Barutzen zara? Laburtzen dituzu cere jan-edanac? Zaitzen dituzu zuc cere beguiac, eta cere animaren gañeraco lejoac, ori-etatic sar ez daquizun, atseguin lizunic, edo, cere Jaunaren gracia quenduco dizun, etsai gogor gaisto galgarriric?

Ah, nere JESUS maita-garria, ta cein guti! Behar etziran, anitz gauzaren zale, ta gura nintzan ni gueienean! Zaletu ezquero ni, saiatzen nintzan, nombait billatzera, gura nuena, nere billa-eran Jaunaren debecuari anitz beguiratu gabe! Nic neronec zabaltzen niozcan, nere beguietatic sartzen cen ascotan nere bihotz-eraño nere etsaia: ta sartzen cen, ecuste charrez jauntziric bezala, ta bere sartu aldietan niri quentzera, nic nuen, gracia, ta nere animaco irabaci gucia!

Etziran beti vide batecoac, ez, onen sartu-erac. Batzuetan sartzen cen, ecusi dugun, eran, nere beguietatic, eta bertze cembait aldiz nere eztarritic; eta, emendic sartzen cen, aldietan sartzen cen, nere gueieguizco janedan-equin batean.

Nere barrenera sartzen cen, aldietan uzten ninduen ni, nere etsai galgarri amurratuac erretzen, ta sutan bezala, edo gaitz-eraco macurtasunez, ta tirricacioz, nintzan hau betea; ta utzi oi ninduen, bera garaitzeco ciran, gauzac eguiteco, gogoric bague; ta guero eguiten zuen nitaz nai zuena, edo eraguiten cizquidan, norc daqui, cembat oben, charqueri, ta culpa!

Ez naz ni, ez, nere JESUS maita-garria, ez naz izandu mendico chori arrotz iguesca dabiltzan, gorde-etatic, edo ez naz izandu ni, etsai galgarriac ezarri oi dituen, laquio-etatic, eta becatu toquitic iguesi dabiltzan, Animetatic bat! Aurren beguietan beren cabiac eguiten dituzten, chorien, ta ecartzen diezren, laquio-etaco bazcaren ondoren dabiltzan chori-charrac bezalacoa izandu naz ni; edo

izandu naz ni nere etsaiac arrapa nintzaquen, ocasio char, ta toqui galduetan nembillen, anima. Orre gatic arrapatu ninduen ni goiz asqui nere etsaiac, eta gueroz, cembait demboraz beintzat, erabilli nau, aurrac ariz choria bezala, becatuz lotua, ta becatuz becatu!

Ez ote narabill orain ere era berean? Ala ba-narabill, atera nazazu haren atzapar-etatic, nere JESUS eracusle maita-garria, eta eraman nazazu cere mendira: eraman nazazu, etsairic ez den, toquira, edo cere Gloriara. Bai arren, bai.

2.

BONA EST ORATIO CUM IEIUnio. Tob. 12. 8.

RAfael ceritzan, Aingueru-aren escuz, eguin ciozcan gure Jangoicoac TOBIASonari, norc daqui, cembat óntarte; ta, esquerdun onri izan naiez, gald eguin cion TOBIASec Aingueru-berari: Cer eguin dezaquet nic, zucen ibiltzeco; edo nere Jaun onguillearen videtic ateratzen ez nazala, nere egunac bucatzeco? Barur-otoitzac lagun-tzat artu, eranzun cion Tobiasi Aingueru Sanuac.

Bai, lagun oriec arturic dabillen, animac, ecusten ditu Etsaiaren urrats galdu, ta pausu gaistoac; eta, oriec alde-bat utziric, ar dezaque aisa, artu behar den, aldetic, eta badabilque zucen, arin, ta erori ere gabe. Otoitzez, edo Ceruco beguiratzez beguiac garbitzen dituenac, ecusten ditu, antuste arroac dituen, amiltegui guciac; eta, andic erortzeco beldurrez, artzen du humil-tasunaren beitico videa.

Certaco dira (dio era orretaco animac); certaco dira andi-tasunez, bere buruzco asmoz, ta aicezco gogoracioz beteric ibiltzeac? Eroaren lanac eraguiteco, ta quea, bezain erraz, banatzen diran, ta Ceruraco pits bat valio ez duten, gauz-etaraco! Oriec dira nirí nere etsaiac eraguin nai dizquidanac, hondra videac, eguiteco, ta lecu andiac ar eraci, edo billa-raci nai dizquidanean: ta cembait aldiz eraguin ere derezquit. Cembat aldiz? Choraturic bezala, ta choriren-ondoren dabillen, aurraren eran, erabilli naven gucietan!

Eraguiñen ote derezquit berriz ere? Ez, baruzco trabequin, ta nequezco cabes-

beſtruz lotzen ba-ditut nic nere gogo char ariña, ta aragui galgarri-gaiſtoa. Ez, noicean bein beguiratzen ba diet nic, bein humil-taſunezco vide apal zucenari; ta guero, arro-querizco vide galduac duen, buca-era izu-garriari.

Daguigun bada, nere anima gaiſoa, beguiratze bata, ta beſtea, JESUSec eguin izandu cituenen, eran, haren ondoren guc ere gueren etſaia garaitzeco, arrotaſunezco tentuz, ta quez itſutu nai gaituenean. Guc hau ala eguiten baldin ba-dugu, eſquer-dunonac izain gara gu, ta TOBIAS onaren Ceruco lagunac beti, ta ſeculan. Ala guerta dedilla, nere JESUS maita-garria; bai arren bai.

3.

NON POTESTIS DEO SERVIRE, & Mammonæ. Math. 6. 24.

ECin ditequen, gauza da, dio JESUS maita-garriac, guc gueren Jaunari arſeguin eguitea, ta dembora berean atſeguin eguitea guc gueren etſai gaiſto, diruz, ondaſunez, ta lurreco gauz-equin biluratu, edo naſtu nai gaituenari. Lurreco gauzei gueiegui darraiquionac, alde bat uzten du bere Jauna, ta Jaunaren Leguea; ta, Legue hau utzi ezquero, ez da Jaunari atſeguin eguiteric, ez da Jauna ſervitzatzeric. EZAren galgarria!

Cere janac, cere edanac, edo cere ſoñecoac oraindañocoan eraguin ote dizquitzu zuri, era onetaco, cembait ibillera? Ibill-eren charrac! Ereintzen dute choriac? Jorratzen dituzte gariac? Aritzen dira trillan? Sartzen dituzte aleac gàmbaran, edo bil-teguian? Bein ere. Eta al-ere ez ditu Jangoicoac bazcatzen choriac? Ematen ez die behar adiña? Bai: ta uda, ta negu ere.

Beguira-eguiezu lurreco loreei ere. Necatzen dira loreac nioiz? Iruiten dute, beren buruac jaunzteco? Seculan! Eta al-ere arquitzen ez dira loreac, Salomon baño, ederquiago jauntziac, SALOMON izana gatic Munduco guizonic jaquintſuena, aberatſena, ta apaindurac, eta edertaſuna gueienic billatu cituena?

Cer bada? dio JESUS maita-garriac, hau gucia erran ondoan: Cer? Ongui dabillen, edocein ez du Jangoicoac, choriac, eta loreac baño, maiteago? Cer? Chori-lore-equin egui-

eguiten duena, eguiñen ez ote du, bere erara eguiñicaco guizona-requin? Maitatzen ba-du (ta ciñez) guizon-berac bere Jangoicoa, Jangoicoac utzico du guizona gabe, ta beharrez betea? Ez segurqui, ta mundu gucia gatic ere! Ez da, ez dio azquenean, ez da cer quezcatu lurreco gauzac gatic. Ceren aldetic al-eguiña zuec eguin ezquero, emain du nere Aitac batetic, edo bestetic, eguillearen beharrac escatzen duena.

Ah, nere JESUS maira-garria! hau nic len ezagutzera, ez nuen galduco, ez, lurreco gauzetan, galdu dudan, adiña dembora! Berecico nituen nic nere dembora zatiac, nere Jauna maitatzeco, ta nere Jaunari atseguin eguitea gatic! Ori eguin lecuan, eguin ditut nic, norc daqui, cembat lan char, ta culpa! Berriric eguiñen ez dudalaco hitza-requin, escatzen dizut orain orien barcamentua, hitzez, ta bihotzez esatzen dizudala: NERE JESU-CHRISTO, &c.

XXXIV-GARREN

OTOITZ-GAIA.

JESUSEN LEGUEA, TA LEGUECO NEQUEAC.

EZ da asqui, videco Lapurrac, edo bere etsai galgarriac batec garaitzea, Ceruan sartzeco. Ceruraco denac, ibilli behar du bere videz, ta neque andia-requin ala ere. Bai, dio Jesus maita-garriac, bai Gurutzezco videa da, nic daramadan, videa; ta, Gurutzea soñean duela etorri beharco du, nere ondoren, nerequin batean Ceruara nai duenac. Math. 16. 24.

Cer vide ote da Jesusen Ceruraco vide hau? Jesus berac aguertu cguin, bere Leguea. Eta videco Gurutzea? Legue berac dacarren, nequea. Gure Legueco neque hau, bada; ta, neque onequin eguiten diran, irabaciac dira, oraingo otoitz-gaiean, ta urrengo cembaitetan, ecusi behar ditugun, gauzac.

§. I.

AGUERTZEN DIGU GURE JESUS MAITA-GARRIAC BERE Legue berria, ta Legueco ibil-era.

BEin baño, gueiagotan ere aguertu cituen Jesus maita-garriac gure Legueari cegozcan, anitz gauza; baña beingo batean bildu cituen guciac, bi gauz-etara.

Jauna (gald-eguin cion batec bein), ta cer da gure Legueco gauzaric andiena, edo beharren den, gauza?

Jesusec erantzun cion gauz onen gain, gald-eguilleac, eta guc gucioc jaquin, ta eguin behar dugun, guci-gucia; erraten ciola: Ori; beharren-beharren den, gauza, ta, lembi-

bicico lecuan zuc eguin behar dezuna da cere Jangoicoa gogoz, bihotzez, ta alde gucitara guztiz-cinqui maitatzea. Onen iduricoa da (erran cion bertan, ta oni cichecola), zuc eguin behar dezun, bi-garren gauza; ta orise da, cere buruari bezala, zuc cere lagun urcoari, edo beste edoceini beguiratzea: ta bi gauz orietara biltzen dizquitzut nic, nere Profetac adiraci dizutena, ta, zure Jaunaren Legueac dion, guci-gucia: *In his duobus mandatis universa Lex pendet, & Prophetæ.* Math. 22. 40.

Eracustearen laburra, JESUSen aldi onetaco eracuste hau! Ah da; baña, cein ere laburra den, orretan or arquituco dezu zuc, eta nic bioc, eta munduco gucioc eguin behar duguna; ta, ori guc eguin ezquero, eguiten dugu, gure Jaunaren Legue guciac, eta Jaun beraren Profetac adirazten daguitena; bada Profetac diotena, ta gure Legueac eskatzen duen, gucia da, guc, gure Jangoicoari, gure lagun--urcoari, edo proximoari, ta guerẽ anima gaiscouri dagozten, gauzac zucen eguitea; ta ori gucia eguiñic uzten da, bere Jangoico maita-garria eskez onesten duenac, baldin dembora berean bere buruari, bezain garbiro, ta zucen beguiratzen ba die lagunurcoaren, edo besteren gauzei.

Baña aisa, ta erraz eguiten diran, gauzac dirala, uste dezu zuc, gure JESUSec gaur adiraci dizquigun, gauz oriec bioc?

Ez orren aisa ez! Badituzte, bai, gauz oriec, beren lan-eguitecoac, eta neque gogorrac. Neque gogor oriec dira, Ceruco videan dabiltzanen gurutzea eguiten duten, ne queac, eta gauzac.

Ceruraco gure gurutze hau, guri gueren JESUSec arerazten digun gurutzea da; ta gabiltzan gu, edo ibilli gaitecen gueren gurutze hau arturic, eta soñean daramagula; artzen du JESUSec berac berea, ta bere gurutze onequin, dabillela, eracusten digu guri gueren ibillera, edo ibill-videa ta eracusten digu, berac berea-requin neque luce-gogor-arri-garriac daramatziela.

Bai, Aita, maitea, bai, erran izandu cion bere Ait-Eternoari, gure JESUS maita-garriac (guiza-tasuna artu, ta vicitzen asi-horduco); bai Ait Eternoa, bai; ba-daquit nic eta ongui al-ere, cer gauza ta

ta lana'den, lembicico lecuan zuc orain ni gandic nai dezun, lana, ta gauza. Gauz hau da, nic zu ciñez, eguiñal igucian, ta ecin zucenago maitatzea; ta, ala nic zu maitatzen zaitudalaco siñutan, edo señalean, zuc nai dezun, gucia, bertatic asi nic, eta ill arte guci-gucian, behar den, eran eguitea. Orretan nago ni, bai, nere Aita maita-garria; ta orretaraco, onà non daducadan nic nere bihotzaren esdierdian zure Legue onac diona; ta emen daducat, Legue onec dion, eran, ta demboran nic eguiteco, dion, gucia, ta zuc ni gandic nai dezuna.

Nic ba-daquit, bai, nere Aita Eternoa (erraten dio JESUSec berac, aditu dugun, hau bucatu-horduco); nic ba-daquit, bai, ta ongui al-ere, certara natorren ni nere guizatasun hau arturic, mundura natorrenean. Mundura nator ni, munduco galduac zucentzera; mundura nator ni, munducoen zorrac ateratzera; ta mundura nator, munduco guizon-galduen, ta zure artean baqueac eraguitera: ta dembora berean nator, ciñez nai duten, munduco gauzei gure Ceruraco vide zucen garbi bat ateraztera; hitzez nic, eta lanez lenic aguertzen diedala, vide bereco sar-videa, ta videzco ibillera ón zucena.

Hau gucia, bada, beste anitz gauzaren artean, eguitera nator ni, nere Aita ecin-maiteagoa, ta nator, guci-gucia pozez beteric, eta atseguin andia-requin eguitera; maite zaitut alabaña zu, zuc cerorrec daquizun bezala, ta, zuri dizudan, amore andia gatic, maite ditut, eta aguitz urricari, zuc ongui-naiez eguiñac diran, munduco galdu gaisoac, eta ori da, orain ni gandic, nere bihotzeco amore bazter baguecoac escatzen duena. (2) Orra gure JESUSec lendabicitic ciona; ta orra zucen-zucen, ta utsi-eguin bague guero JESUSec eguin izandu zuena!

Baña cembat bere neque-requin eguin izandu ote zuen gure JESUSec hau gucia, ta guri eracustea gueren Legueco ibillera zucena?

Ez da erraz, ez hau guc nola ere-bait gaur ezagutzea. Hau guri eracusteco ciran, jaio cenetic, bere gain asi arteco JESUSen neque guciac; eta ecusi dugu, cein anitz izandu ciran oriec, cein andiac, eta cein arri-garriac!

Etziran izandu, ez, batere labur-agoac, guerozco irur ur-

urteetan JESUSec eraman cituen, gos-egarriac, neque-icerdiac, eta bere bihotzeco ayac, eta quezcac: ez eta, aditu cituen, baldan-queriac, hitz itsusiac, eta blasfemiac ere! ta orien artean ibilli cen JESUS, Legue berri bat eracusten, illac viztutzen, eriac sendatzen, ta eun milla ontarte, ta favore guciei eguiten; ezquer gaistoac, histac, eta irriac baicic, orien alde gueien-etatic beintzat, artzen etzuela; ta azquenean artu izandu zuen, bere ondasunez bete cituenen, escuetatic, ar cezaqueen traturic gogorrena, ta eriotzaric vide bagueco-ena!

Eta cer gatic hau gucia, ta JESUSen gañeraco lanac, eta gauzac? Adiraci duguna gatic, edo, bere Aitari cion, amore andia gatic, eta guri gucioi ongui naiez.

Bai, dio San JOAN Evangelariac; bai, beti maitatu izandu cituen gure JESUSec, munduco gaisoac; bai ta bere Passioneco tranceric gogorrenean ere, ta bere ill arte guci-gucian (3); ta maitatu cituen, bere Aitari cion, amore andia gatic.

Eta, bai, dio JESUS berac ere; bai, ezagu dezan mundu guciac, cein maite dudan nic nere Aita Eternoa, ta onen amoreác niri eraguiten didana, ors, emazue (erraten die bere Apostolu maiteei ostegun santu arratsez); ta goacen emendic (4).

Nora, uste dezu? Getsemanico baratzera. Certara ote? Aratzen denetic, ill-ótza guelditu arteco dembora gucian, odolezco icerdiz, neque gogorrez, ta era ascotaco-penaz, ta tormentuz beteric vicitzera.

Vicitzaren arri-garria; ta amorearen andia, JESUSec bere Aitari dion, amorea; ta amore one gatic daraman, vicitza! bada JESUSen vicitz onetaco penac, eta nequeac, neque, ta pena, guc adiraci alac baño, aguitz, eta aguitz andiagoac, eta arri-garriagoac izandu ciran; ciran alabaña, sulececo etsaiac, eta munduco gaistoac asmatu al cituzten, nequeric gogorren-gogorrenac; eta ciran neque-pena, beren gogoratze utsa-requin, JESUS maita-garri—Jangoico—guizona odolezco icerdi-tara, ta eriotzeco trance-raño eraman izandu zutenac; eta neque—pena, milla tormentu gogorren buruan, vicia galduric, eta odolic bague gure JESUS utzi zutenac! Eta guci guciac eraman

man cituen gure JESUSec, bere Aait Eternoaren, ta gure amoreac gatic; eta gure Legueco ibilera guri eracutsi naiez, edo guri ar-eraztea gatic gueren Legueco neque-penac, eta lagun-urcoen, ta gueren Jaunaren amorea. Ecusten dezu cer vicitza, gure JESUS maita-garriari, bere Aita ganaco, eta guri ere izandu cigun, amore bazter baguecoac ar-eraci izandu cion, vicitza!

Eta hau onela den ezquero, den bezala, norc ez ditu artuco JESUS beraren icenean, ta onen amore andiari erantzutea gatic, onen andiac ez-pa-dere, al dituen, neque, ta pena guciac? Artu behar guenituque, bai, ongui izatecotz, gure Eracusle on, nere JESUS maitagarria! Baña orain dañocoan beintzat, oriec ezecic, orien laurdenac ere artu izandu ez ditugu guc era orretan ta zure amore andiari erantzun naiez; ta, artu, edo eraman ditugunac ere, eraman, izandu ditugu, borchaz bezala, ta zu ganaco amore andiric hartan aguertu bague. Besteric izain al da, datozen dembor-etan? Nai guenuque beintzat, Jangoico maita-garria, zuc cerorrec hartan laguntzen didazula, nere JESUS maita-garria. Ala guerta dedilla, bada; bai, arren, bai.

§. II.

GORPUTZAREN NECAgarria da gure Jaunaren Legueco ibillera zucena.

GAistaturic utzi guinducen gu, ta gaitz-aldera guztiz macurtuac, lembicico guizon Adanen becatu loi-galgarriac. Orre gatic neque andizco lana da gu gueren Ceruco videan zucen ibiltzea. Hau guc arguiro ecusteco, asqui dugu gueren ibill-er oni cerbait contu-requin beguiratzea, naiz beguira daquiola gorputz necacor gaisoaren aldetic, naiz animarenetic. Eguin dezagun orain gueren lembicico beguir-aldia gorputzaren-etic, eta ecus ditzagun, Jangoicoaren Legueco ibillera zucenac, edocein guizonen gorputzari ar-erazten diozcan, nequeac.

Betor, nai ba-du, mundua mundu denetic mundura den, guizonic sendor-ena, ta osasunaric onena duena; betor, ta vici bedi, munduan den, bazterric, edo lecuric onenean, ta nai adiña ondasun, ta munduco gauza beti be-

berequin dituela; ta ala ere ez da vicico, ez, nai gaberic ez duela, ta nequeric gabe.

Ba-zabilzque, bada, nai dezun bezala, ta ba zoazque, gogoac ematen dizun, aldetara, edo toquira, baña, nequez beteric vici beharra zara zu, dio THOMAS KEMPIS deritzan, guizon andi-jaquintsu virtutezcoac. Eguin dezaquezu zuc, cere gogoac ematen dizun, gucia: zucen ditzaquetzu zuc cere gauzac, onguien-onguièn deritzazun, eran; izain dezu, ala ere, bai, neque, ta neque. Itzul zaitez, itzultzeco gogoa datorquizunean, gañeco aldera, itzul zaitez, guero azpico aldera, edo beiti, zoaz campora, far zaitez cere barrumbera, ta eguizu aldian cere al eguiña, cere buruari atseguin eguitea gatic; eta ala ere bazter gucietan arquituco dezu zuc cere nequea, ta cere gurutzea; ta non-nai beharco dezu zuc cere nequezco humiltasuna, ta baquea, vici nai ba dezu, asaldacioric gabe, ta irabazten dezula cere Ceruco Gloria. *lib.* 1. *c.* 22.

Bai eguiazqui, bai! ta, siñes dezazun, aditzen dezun, hau, beguira eguiozu goizetic arratseraño, ta cere vicitza gucian zuc daramazunari baña beguira eguiozu saiets gucietatic; eta beinic bein cere gorputzaren eritasunen aldetic.

Ill-beharra den, gorputzezcoac gara gu gueren becatu etorqui, edo originala gatic; eta ez da besteric behar, dio S. Agustinec, jaio guiñanetic mincorrac, eta eriac izateco gu gucioc. (5)

Jaio-horduco, negar, ta negar hari da aurric sendorena; ta hordu beretic bere burua ederqui necatzen duela dago aur gaisoa. Ez dira bucatzen, ez, beraren jaio-berrian, aurraren horduco negar-marrascac; negar, ta marrasca dago guerozco ill-eran, ta ill-etan ere, edo gau-egun, ta beti, edo beintzat anitz aldartez, ta demboraz. Aur beraren negarrac gogor-agoac dira ortz-aguiñen atera-hordu-etan: ta len, ta guero negarrez adirazten du aur-gaisoac, cer duen ez-pada ere, bai duela miñen bat, edo beste. Eta ez da hau, S. Agustinec dion bezala, jaiotzen deneco, bat eritzen abiatzea, edo astea?

Eta ez dirau, mundura dator enaren eritasun onec, beraren vicitzac adiña? Non arquituco dezu zuc, cer, edo cer gorputzez, emen vici den dem-

demboran, ez daramanic? Ez dautza guciac ſucarrez erretzen, edo tabardilluz erdi lertuac, ez. Ez dabiltza guciac, ez eta laurdenac ere, erdi uſtelduac, edo oñac ecin jaſo dituztela. Ez dabiltza beſoric gabe, ta zurezco oña-requin; ez eta beguiac galduric, edo arraſtan ere. Baña cembat guizon, edo emaſtequi arquituco dituzu zuc, noiz, edo noiz cerbait ez dutenic? Cembat; beren aldarte gaiſtoac ez-dituztenac? Cembat, cembait aldiz beintzat, gaizquitzen ez diranac? Cembat, buruco, ortz-etaco, aguiñetaco, edo, begui--etaco miñic gabecoac? Cembat, eztarrian, ſabelean, eſcuan, edo non-edo-non miñen bat, gaitzen bat, edo cerbait izan oi ez dutenac? Bada, buruco mincho bat ere ez dutela, erran oi dutenac berac, eritaſun andiric bague vicia gatic, izaten ez dira, cer, edo cer ecuſi gabe: ta orre gatic erran diteque, Senecac diona; *eritaſuna da gure vicitza.* (*Cein nequezcoa!*) *Hæc vita eſt morbus perpetuus.* Ep. 76

Ala ere ez da eritaſuna, guri gueren gorputzaren aldetic datorquigun, nequeric andiena: andiagoac dira beſte cembait, izan oi ditugun, gure neque; eta, orien artean, gàuzen beharra, ta gabea.

Gueien-gueiena dutenac berac ere ez dute, beti beintzat, ez, berac nai adiña; ta cembait aldiz, behar duten, edo nai luqueen, cer edo cer gabe dira; ta aldi orietan, nai luqueena erditſi naiez, bilatzen dituzte, berac ez diñacoac ere.

Orrembat ez dutenac, zor-pean dautza gueienean, edo, arraſtan bezala, dabiltza; ta, beren beharra eſtali naiez, janedan laburrac eguiten dituztela; ta ori eſtaltzeco, irabaci cerbait eguin naiez, ſartzen badira jocoan, tratuan, edo eguitecoren batzuetan, buruac autſiric doaz aſcotan beren ichera, edo caltear, ta, len baño ere, aguitz gutiago-requin, ta beren gorputz necatia ongui necaturic daramatela.

Gañeracoac, gau, ta egun ongui beren buruac necatua gatic, doi-doia biltzen dute, behar dutena; ta gueienac ſoñean eſcas dabiltza gueienean, ta zorrac ecin atereac, humeei vide onic ecin emanac, behar dutena, ecin arquituac, eta milla icerdic, eta quezcac egun oro urratzen dituztela. Orre gatic cion, *Diogenes* ceritzan guizon jaquintſuac: *ez da., ez eritaſun chiquia gauzen*

beharra, *ta gabea*; edo ori neque arrigarria da.

Ba ditu gorputzac beste nequeac ere; ta, orain dañocoac, bezain gogorrac. Orietatic dira, eguraldien, lagunurcoen, edo beste cembait gauzen aldetic artu oi dituenac. Otzác batzuetan, ta beroac cembait aldiz ematen diozca urtean gorputz necatiari, norc daqui, cembat neque, ta naigabe; ta, behar bada, eriotzeco hordu-raño daraman, eritasuna. Lagun urcoac, edo auzocoac, echecoac, edo erbestecoac eraguiten diozcate gutatic bacoitzari, nai ez lituqueen, cembait gauza, ta neque; ta gucia da gorputzezur, mimbereen gain.

Oriec ez-ecic, gañeraco gauzac ere gorputz neca-corraren contra, edo gain izaten dira. Batetic bertzera dabillenean, ez-pa-dabill gueldi, contuz, ta erne, urratzen du bein bere soñecoa, bein burua, odoltzen diozca oñac bere beatz-tópac, eta escua canibetac, edo nabalac; eta ez du, saietsic, ez du, burutic oñeraño, lecuric, miñ ar ez dezaquenic. Eta cembat dira, gorputz mimbereac artzen dituenac, eta cembat orien artu-aldiac?

Orra gorputzaren aldetic bati datorquion gurutzezatia, edo neque gogorra. Neque zati astun pisua; ta, gogoz artzen ez-pa-da, ta gure Jangoico niaita-garriaren icenean, aguitz pisuagoa, ta aguitz astunagoa! Eta, nolacoa nai dela, ontzat artu behar dute, ta JESUSen amoreac gatic, Jaunaren Leguean zuzen ibilli nai dutenac.

Zori onecoac gu gueren neque gucien artean bagabiltza JESUSi beguira, ta, JESUSen eran, guciac eraman naiez; ta, ala eramateco, JESUS berari bere laguntza escatzen diogula; bada, ori guc zuzen, ta beti eguitera, aisago eramain ditugu gueren nequeac; eta eramain ditugu, Cerúraco irabaci andiac eguiten ditugula.

Nere escuan dago, ori gucia, behar den, eran gaur bertatic nic eguitea: bada nori-nai eracusten dio JESUS maita-garriac, nola eraman dezaquen, anitz necatu gabe, bere gurutze zati hau, edo bere gorputzaren aldetic datozquion, neque guciac; eta, ongui escatu ezquero, ematen dio JESUSec, den errumes-enari, den charenari, ta edocein-edoceini ere, oriec, behar den,

eran

eran eramateco, behar duen, laguntza, ta gracia. Indazu arren niri ere, nere Jangoico maita-garria, ta ſaiatuco naz ala nic nereac eramatera. Indazu bada, bai arren, bai.

§. III.

ANIMAREN NECA-GARRIA DA gure Jaunaren Legueco ibillera zucena.

BA ditu, bai, Animac ere, Ceruco bere-ibillera zucenean bere neca-móduac; eta neca-modu, gorputzarenac, bezain gogorrac, bai ta aguitz-eta aguitz gogor-agoac ere. Neca-modu ori-etatic cembait anima necacor gaiſoari campotic ſartu oi zaizcan neca moduac dira; beſte cembait bere baitatic, edo barrendic datozquionac dira; eta guciac dira, anima gucia ongui naigabetzen duten, neca-moduac, artzalle gaiſoac guciac ez artzera, artu behar diran, aldetic, videz, ta eran.

Anitz alde taracoac dira Anima gaiſoari, campotic ſartzen zaizcan, nequeac. Necatzen dute Anima, ta penatzen dute, beinic-bein gorputzaren miñac, gorputzaren eri-taſunac, eta oñaceac berac; arquitzen da alabaña gorputza-requin bat eguiña anima gaiſoa; ta arquitzen da, den, gucia, gorputz gucian; bai ta gorputzaren edocein parte, zati, edo lecutan ere; ta, an arquitzen ez-pa-liz Anima, illa legoque, ta oñaceric ecin ar lezaquen, eran gorputzaren edocein zati, alde, ta lecu.

Eſcua ba-dabil batetic beſtera; emendic ara iguitzen ba-dira oñac, belaunac, beguiac, betazalac, eta gorputz gucia, gucien barrenean arquitzen den, Animac vizturic, eta beraren erabilliz, darabiltzanac dira; ta orre gatic Animari zor diote guciac beren ibill-era, ta beren vicitza.

Gorputzaren zati bacoitzari ongui-naiez dago, zati bacoitza-requin bat eguiñic arquitzen den, Anima; ta gucien ona nondic erditſico duen da-bill gau, ta egun, den gucia; ta ongui dabiltzanean, ta, nequeric gabe, gorputzaren aragui-ezurrac, zain-muñac, eta gañeraco gauzac, aiſa, ta pozez beteric arquitzen da Anima; baña ori-etatic edocein nequetan ecuſi horduco, necatzen da, den gucia, ta artzen du bere gain Animac gorputzac daraman, nequea, miñaz

ña, edo oñace-aldia.

Guisa berean artzen ditu bere gain Animac, edo necatzen dute Anima, gosetic, egarritic, gabetic, otzetic, berotic, elementatic, edo edocein beste ganz-etatic gorputz neca-corrari datozquion, lan gaistóac, edo nai-gàbeac; bada vizten duenetic, eriotzac biac banatu artean, guztiz maite du Animac gorputza, gorputza-requin bat eguiñic digo, diogun bezala, ta ecin eculi du, naigabetu, ta penatu gabe, gorputzaren nai-gaberic, edo penaric chuquiena ere. Orre gatic bada, Animari sartzen zaizcan, campoco neque-etatic dira, gorputzac izan oi dituen, neque guciac.

Neqne oriec ez-ecic, sartzen zaizca Anima gaisoari beste anitz ere: ta sartzen zaizca, sartzean beintzat, bat ere gorputza nai-gabetu bague; bada berri gaistoac ez diote calteric eguiten gorputzari, gorputzaren beharritic Animara sartzen diranean; ta al-ere, sartu-horduco damuz beteric uzten dute berri gaistoac Anima gaiso damucorra.

Aditzen ba-du batec, ill zaiola, maite zuen, bere Aita, bere Semea, edo bere Aidea, ez du miñic artzen, berri oni sar-toquia ematen dion, bere beharrian; baña nai-gabezco berri hau barrenera-horduco, illuntzen zaio bere bihotza, ta guelditzen da Animan tristuraz, ta nai-gabez ongui-ongui betea.

Berebat guertatzen zaio, aditzen duenean, ezurrac autiric datzala beraren beia, idia, edo ichecoren bat, edo beste. Orobat aguitzen zaio, icali ezquero, izotzac, arriac, aiceac, edo agorrac eraman diozcala bere zelai-aloretaco, bere sagardi-etaco, bere baratzeco, edo ardantze-etaco, ta masti-etaco gauzac; bai ta aditzen duenean ere, lapurrac eraman dituztela, gorderic ceduzcan, diruac; itsasoan ondatu dirala, Indietatic uste cituen, ondasunac, galdu duela, cecarren, aucia, edo pleitoa, humearen ezcontza, edo Aidearen hondra; erre zaiola eche gucia, icheco bere gauza guci-equin; ustu zaiola cupela, oartu-cabean, edo galdu duela, an ceducan, edari gucia; ill zaizcala onembat, edo ambat ardi, bei, edo ganadu; edo guertatu zaiola bertze edocein calte, ta malur. Berri orietatic bat, edo beste asqui da, aldian Anima quezcaz, ta nai-gabez beteric guelditzeco.

Ala

Ala ere, urrutitic datocen, berriac dira, berri oriec: eta, orrelacoac baño, gueiago necatzen dute Anima necacorra, bertan ecusten, ta aditzen dituen, naigabezco gauzac.

Eguiten ba-dizu batec, beguira zagozquiola, hista, ta burla, edo beguiratze zorrotz, edo gogorren bat, bere-bereala naigabetzen zaitzu cere barrena, edo cere Anima; ta naigabetzen zaitzu, urrutitic eguin dizula, aditzen bacenu baño, aguirz gueiago.

Aguertzen ba-dizu norc, edo norc, cere odoleco ciquin--tasuna, lenagoco cere char-queria, cere ebastea, cere lan gaistoa, edo ibiltze lizuna, cere gabea, cere zorra, cere guezurti-queria, edo beste cere cer-edo cer, alquetzen zara, zaran gucia; guelditzen zara, minduric bezala, ta sutan daducazula cere barrena, edo Anima; ta, Jangojcoac daqui, noiz quentzen den, horduco zure ecin-egona, ta mindura latz-gogorra.

Orra cembat penatzen duten Anima gaisoa, gorputzaren nequeac, campoco berriac, eta, eguiten zaizcan, edo erraten diozcaten, beste charqueriac. Baña ez dira oriec, ez, Animaren neque guciac; baditu gueiago, ta gueiago ere; ta ez bat ere, oriec baño, ariñagoac.

Orietatic cembait bere gogo arin nasiac ar-erazten diozca Anima neca-corrari. Gogoac ematen ba dio cerbait billatzea, ez du onic Animac, hura non-ere-bait arquitu artean; ta, arquitzen ez-pa-du, nai-gabez betecen zaio bere bihotza, ta, bere gogotic ecin iutziz dabill, horduco bere illun-tasuna.

Sartzen ba zaio bein bere gogoan Anima gaisoari, irri eguin naiez dabiltz-quiola cembait, eguin diotela videgabe hau, edo bertzeren bat quendu diotela, berez bezala, cetorquion, eguitecoa, gauza, edo honra, edo, nondic galduco duten, dabiltzquiolo hau, edo hura, edo besteren batzuec, alacoric ez izan-arren, damuz, tristuraz, ta vendecu-raco asmoz betetzen zaio bere burua; ta, norc daqui, nola dabillen asco demboraz; ta, bere barrena palacatu naia gatic, ecin burutuz ibilli oi da gauegun, ta anitz aldartez.

Gogoratzen zaionean etorquizuna, humeen aciera, edo ezcon-videa, zorten premia, irabaz-videaren labur-tasuna,

na, zordun-equico jarduquitzea, gau-ta-egun necatu beharra, edo betico lan-icerdineque, ta arrasta, nai-ta-ez quezcaz betetzen zaio bere Anima.

Bada cer izain da oroitzen denean bat, leneco bere ibilleraz, leneco bere urrats, edo pausu galduez, becatu ciquiñez, ta, oriei dagoten suleceaz? Ay ene! errain du horduan Animac (eta eguiaz ala-ere): ay nere ero-eguia! Ona certan naducan, centzu gabeco, nere vicitzac! Irriz, ta farraz galdu izandu ditut nic nere Jauna, ta Jaunaren gracia; ta galdu izandu ditut, norc daqui, cembatetan! Eguin dut, bai, nere gauza galduac bildu naiez, cer edo cer! Baña bildu ditut nic bein ere! Barcatuac arquitzen ote dira, orain-dañoco nere char-queriac, eta oben-culpac? Ez ote naz oriec gatic ni erre, ta quisquildu beharra beti, ta beti su-lecean?

Onelaco beldurrac, eta, adiraci ditugun, gogoracio-etatic datozen, quezcac, gañeraco neque-equin batean, ecusi zazu, cer nequeac diran, edo cein arri-garriac Anima neca-cor mimbere gaisoarendaco!

Ala ere ez dira, dituen, guciac; ba-ditu alabaña Anima becatariac beste nequeac, eta nequeac ere: ta neque, Legueac dion, eran ibiltzeco, emequi berac eraman beharrac. Orietatic batzuec, becatuen zor-etatic, datocenac, dira, ta beste cembait becatu beren aztura gaisto-etatic datocenac.

Bere becatuac Anima becatariac confesatua gatic, eta ongui confesatu arren, barcatu ez oi diozca Jangoicoac becatu-equin batean, becatu beren zor guciac. Eta bere becatu barcatuen zor oriec atera behar ditu Animac hilduraz, confesio berriz, nequez, baruz, negar andiac eguiñez, Mezaz, edo lan neca-garri cembait eguiten dituela: ta, ala ez ateratzera Animac, bere gorputzean vici den artean, erretzen, ta erretzen egon beharra da Purgatorioco su arrigarrian, zorrei dagoten, dembora gucian: ta, naiz bataz, ta naiz besteaz oroitze utsac ere, necatzen du, dacusazun bezala, Anima goisoa.

Baña emengo nequez, ta lanez aterea gatic Anima becatariac bere becatuen zorrac, ez ditu bucatzen bere neque guciac.

Er-

Erdoiturtic bezala uzten dute becátuac Anima, ta aztura gaiftoz cinquindua, edo, gauz one-taraco erdi trabatua bezala, ta, aztura oriec quendu artean, neque gueiago du Animac bere gauz onetan: ta, aztura berac quentzea néque andia da Anima gaifoa-rentzat: ez dira alabaña aztura gaiftoac, fuguearen gañeco larrua bezalaco foñecoac (alacoac izatera, beingoan utz litzaque Animac, fugueac arri-tartean bere larru zarra, bezain aifa); ADAÑen becatutic beren fuftraiac dacazten, elorri gaiftoac dira Animaren macur-erac, eta aztura gaiftoac; eta elorri, Anima ongui artua, edo ingurutua daducatenac. Ecufi zazu bada cembat coftatzen zaion Animari, oriec quendu, ta garbiric guelditzea: ta cembat, adiraci ditugun, neque ta naigabe guciac eramatea!

Bada, guciac daramatziela; bere Jauna maitatuz; ta, oneften duela, bere burua bezala, lagun-urcoa; ta, gauz oriec guciac efcatzen dituzten, nequeac bere gain artzen dituela, ibilli behar du Animac, zucen ibiltzeco bere Jaunaren Leguecо videan. Eta ecuften dezu, cein andiac diran orrelaco nequeac! Oriec dira bada, ta orrelacoac, Cerura nai duten, Anima gaifoac eraman behar dituzten, nequeac; eta neque oriec, gorputzaren neque-equin batean dira, JESUSen ondoren dabiltzanac eraman behar duten, gurutzea eguiten duten, nequeac. Neque, ta gurutze berez gogorrac; baña, JESUSen amorez, ta beraren ondoren eramaten dituztenen-daco anitz arintzen diran, neque-gurutzeac. Zabiltza bada, ori zuc cere foñean daramazula, ta ecufico dezu cein eguia den, orain aditzen dezun, hau.

Ala ibilli ote naz ni nere orain-dañoco demboran? Ez ote dut urratu nic bein ere nere Jaunaren Leguea, nere buru hau, era orretaco nequetan ez ecuftea gatic? Charqueriari charqueriz erantzutea gatic? nere gogo galduari arfeguin gaiftoren bat eguin naiez, edo neronec daquidan, beste videren batetic? Ala bada, artiqui dut nic, eta bota nere gurutze ona; utzi izandu dut nic Ceruco nere videa, ta JESUSen igueſi ibilli izandu naz ni, efquer-gabe galdu-galgarriaren eran!

Zaude bada, nere Anima, zaude, zauden lecuan;

itzul zaitez lembaitlen JESUS maita-garriaren nequezco, edo gurutzezco videra; ta artu zazu vide hau, berriz ez uzteco, ta videco lanac Jaunaren gogàra, ta, beraren Legueac dion, eran eguiteco, asmoan. Bai, arren, bai.

1.

INGREDIATUR PUTREDO IN ossibus meis, & subter me scateat, ut requiescam in die tribulationis, ut ascendam ad populum accinctum nostrum. Habac. 3. 16.

EZaguturic ABACUC Profetac gure Jaunaren iceneco nequeen ondasuna, betor, cion, betor, nai ba-du, eritasunic andiena; betor aldarteric gaistoena, ta sar bequit ezur-muñetaraño, ta gueldi bitez nere ezur-aragui-muñac materia, ta ustel-tasuna dariela; ta gueldi bitez dembora berean ar eguiñac nere gorputz gucico zañ-araguiac. Guis-orretan ecusten ba-ditut nic nere zañ-araguiac, eta nere buru gucia, laster-asqui-nic goratuco ditut, bai, nere bi beguiac; eta escatuco diot, onembat nequetan naducan, nere Jangoico maita-garriari bere laguntza, ta gracia; ta, nic nere Jangoicoaren laguntza-graciac erditsi ezquero, ais-asqui jasoco ditut, bai, nere nequegurutzeac, ais-asqui eramain ditut nic nere miñac, nere oñaceac, nere usai gaistoac; eta nere neque guciac; eta, era orretan arquitzen nazanean ni, izan uste dut nic nere atsedeteric onena; ta, emen gueroz niri, nai dena, aguitu, edo guertatua gatic, azquenean igan uste dut nic gure lagun onen, ta gure Jangoicoac nai duena zucen eguiteco, prestaturic arquitzen diran, Ceruco Aingueruen artera; an, quezcaric gabe, ta atseguin garbiz beteric eternidade gucian, nai bezain ongui, ta aguitz onguiago vicitzera.

Orra, JESUSen ondoren ibiltzea cer den, daquitenen mintzoa, ta hitz-queta: baña hitz-queta, ta mintzo, munduco eroac aditzen ez dutena.

Aditzen ote dugu, zuc, eta nic bioc badaere? Ote daquigu guc, gure gorputzaren eri-tasunac, gure begui-etaco miñac, gure oñen behatz-topac, eta gañeraco gure gaitzac dirala, gu centzarazteco, gu Ceruco gueren videan sarerazteco, edo, an sartuac arqui-

quitzen ba-gara gu, gueren arro-tasúnac utziric, ibilli gaitecen humil-humilqui, guztiz viciro, gure JESUSen eran, ta Jangoico maita garriac nai diruen, gauzac baicic, eguiten ez dugula? Eta ba-guenequien guc, era orretan dabiltzanac dirala, Ceruco Aingueruen lagun-eguiñic, guelditu behar dutenac, eta Ceru bereco atseguin contentuz beti-beti aseriç vicico diranac?

Nic ez daquit, nequien, edo ez orrelacoric! Oram nic daquidan, gucia, ta ecusten dudana da, vicitu nazala ni, gauz hau jaquin ez-panu bezala, lasai, ta, nere eritasun, ta neque guci-etatic, edo, cembai-etatic beintzat, izurri utsa, ta calteac baicic, ateratzen ez nituela!

Eroaren ibillera, ta nequeac artzea, orain-dañoco nere necatze, ta ibiltze galdua! Ez ote dut utzi behar gaur gueroco nere demboretan? Ez ote dut artuco ABACUC Profetaren ibillera, ta nere JESUSen videa? Bai baldin bere! Nai nuque beintzat; zuc, nere JESUS maita-garriac laguntzen didazula! Lagun zaquizquit bada, ta sendorqui ala ere: bai arren, bai.

2.

PER MULTAS TRIBULATIONES oportet nos intrare in Regnum Dei. Act. 14. 21.

ERitasunic bague gorputza dagonean ere, izain oi ditu bihotzac bere premiac, bere quezcac, eta bere naigabemoduac. Erbestetua, edo desterratua ez da, nequeric bague, bere erriratzen. Paradisutic erbestetu guinduen gu Adanen becatuac; eta ez gara gu Paradisu-raco, edo ez gara Ceruraço, necatzen ez garala! Gure leneco becatuac escatzen dute quezca, ta nequea; ta egun oroco gure zor berriei ba-dagote beren neque, ta quezca modu berria. Nequez beteric bada, ta vide gogoretatic igan behar dugu guc Ceruco atseguin-contentu toquira.

Necatzen zaituzte zu, nere Anima, tentuz etsaiac, charqueriz mundúcoac, eta cere gogoetac naicunde errebes macur-equin? Ori da bada zure zorrei zor zaiena; ta ori, Ceruco videan dabillenari, guertatu oi zaiona: bada guertatu citzaion Jangoico-guizon Christo Jaunari ere.

Bai, dio S. Pabloc; nequez

quez beteric dago Ceruco videa; ta emendic baicic, ecin Ceruraco da bat ere. Bai, cion Davidec ere, Jaunaren Leguean zucen vici diranen nequeac, eta quezcac, quezca-neque gogorrac dira. Estu-tasunaren, gabearen, ta premiaren suac erretzen guinduela batzuetan, ta beste cembait aldiz charquerien, naigabeen, ta calte arrigarrien urean erdi itoac ibilli gara, Jaunari atsecaberic ez eguin naiez. Orra San PABLOc, eta DAVIDec diotena,

Eta cer ote dio gure JESUS maita-garriac? Estrata meharra dela, dio, Ceruco videa. Bai, ta sasiz, arantzez, urrats, edo pausu gogorrez ere dena betea! Poliqui gabiltzalá bada, ta gure Jaunaren icenean artzen ditugulá emengo gueren odoltzeac, emengo miñac, eta emengo gaitzac, igan behar dugu guc, igatecotan gu, gure JESUS dagoen, toquira, edo igan behar dugu guc, emequi, ta paciencian artzen ditugula, gure etsaien aldetic datozquigun, nequac.

Orretan nago ni, nere JESUS maita-garria! baña lagun zaquizquit bortizqui zu, nere etsai galgarri gaistoac garaitzen, ta, jaso behar ditudan, neque guciac eramaten. Bai arren, bai!

3.

ATTENDITE, ET VIDETE, SI EST dolor, sicut dolor meus. Thren. 1. 11.

JESUS maiteac, gure Maisu eguñic, erraten digu bere vicitza gucian, ta, lenago baño, aguitz arguiroago azquen aldian, edo gurutze batean iltzatu zuten ezquero, odola ceriola, itlzeco cegoen, puntuan: BEGUIRA, erraten digu; beguira, nere ondoren etorri naiez, arquitzen zaraztenac: beguira niri; ta beguira burutic oñ-etaraño: ta beguira bein, ta berriz, ta gueiagotan ere; ta beguira niri aldian, hastiz baño ere, hastizago. Guis onetan beguiratzen ba didazue niri zuec, arquituco nazue, zauri, ta llaga eguiñic burutic on-etaraño, nazan guci-guci hau; arquituco dituzue batetic bestera burdiñez zulatuac, eta odol vicizco iturri eguiñac nere oñ-escuac: eta arquituco dituzue arantzez urratuac nere bi loac, nere copeta, ta inguru gucian nere burua!

Ecusten dezu, zuc, Anima nerea, cein andiac ciran, cein gogorrac ciran, eta cein arrigarriac, JESUSen aldi onetaco nequeac, eta oñace viciac?

ac? Ecusi uste dezu orien eracoric, orien iduricoric, edo orien pareric?

Nola arquitzen ote da gure JESUS orien artean? Nola ote darama gure JESUSec, oriec eguiten dioten, gurutze neca-garria?

Naiez, ta gogoz; guztiz emequi, ta bere Aitaren amoreac gatic, eta gure oneraco; ta videnabar bere eramate ederra-requin eracusten digula, nola guc eraman behar ditugun gueren neque-gurutzeac, edo gorputzaren aldetic, eta Animan izan oi ditugun, neque, ta naigabe guciac.

Eguin uste dezu, bada, zuc, nere Anima, JESUSec aldi onetan eracusten dizun, ta, ongui izatecotz, zuc eguin behar dezun, cere lan on hau gucia?

Baietz uste dut, JESUS berac laguntzen didala: ta, arin baño, ariñago ibillinaiez nere lan hau eguiten, ta nere Legueco vide neca-garri zucen onetan, utzi naiez nago nere oben-culpa gucien carga-tzar astuna; ta orretaraco, ta bertatic quen diezadan, daguiquenac bezala, alic cinquiena erratera noaquio nere JESUS maita-garriari: NERE JESU-CHRISTO, *&c.*

(1) *In capite libri scriptum est de me, ut facerem voluntatem tuam: Deus meus volui, & legem tuam in medio cordis mei.* Ps. 40. 9.

(2) *Veni, ut salvificem mundum.* Ioan. 12. 47.

(3) *Cum dilexisset suos, qui erant in mundo, in finem dilexit eos.* Ibid. c. 13. 1.

(4) *Ut cognoscat mundus, quia diligo Patrem; & sicut mandatum dedit Pater, sic facio, surgite, eamus hinc.* Idem. 14. 31.

(5) *Nasci hic in corpore mortali ægrotare est.* Aug. in Ps. 102.



XXXIV--GARREN OTOITZ-GAIA.

LEGUE-VIDERACO JESUS-EN DEIAC; ETA VIDECO onda-ſunac.

§. I.

LIGUECO NEQUEAC GURI AR-ERACI NAIEZ, EGUITEN DIZquigu guri gure JESUSec anitz amoriotzco deitze.

EZ da erraz, ongui beintzat, guc ezagutzea, cembat, eta cembat eguiten duen gure JESUS maita-garriac, guri nequezco gueren gurutze hau ar-eraci naiez, gu gueren gurutzea-requin haren ondoren gabiltzala, ta Legue gureac guri bereiſten dizquigun, gauzac eguiten ditugula, bere Ceruan guero ſar-erazteco. Onetaraco eguin guinducen gu gure Jangoicoac Bataio--errian. Onetaraco eman izandu cizquigun, ta ematen dizquigu gaur ere eracusle ònac, vide zucénac, eta Èlizaco Sacramentu guciac. Onetaraco eguiñac dira, orain-dañocoan Jesus berac eguin dizquigun, o ntarte, ta favore guciac; bai ta lurraren ondotic azquen Ceruaren erpin--erañoco gauza guziac ere.

Ez da hau (cembat ere den), gure JESUSec onetaraco eguin izandu zuen gauza gucia: egun oro, ta noiznai gure JESUS bere lan onetan hari da, edo eguiteco berean dabil gau-egun, ta beti; ta bein batetic, guero bertzetic, eta aſcotan anitz aldetatic deiez, ta deiez dagoquigu, vide hau guri ar-eraci naiez.

Ohar zaitez ezperen, ta ezagutuco dezu, bai, orain aditzen didazun, egui hau. Ohar zaitez orretaraco, goizetic arratſ-eraño, ta urte gucian

cian guertatzen zaitzunera.

Atozea, Predicariac erraten duenean, edo Confessariac adirazten dizunean, zure oneraco den, ta animaren zauriac uquitzen dituen, gauzachoa, ez dezu izan oi cere barrengo oñace modu bat? Atozea, libru onen bat iracurtzen hari zaranean, edo ango gauz onac aditzean, izan oi ez dezu zuc cere bihotzaren dardararen bat edo beste? Atozea, ezagunaren ill-berria aditu horduco, lotzen etzaitzu zuri cere icara-modua, edo beldur iduria? Atozea, gauzaren bat gaizqui eguin, edo guertatu ondoan, etzaitzu cere bihotza cerbait naigabetzen? Atozea, beguitarte illun bat ecusi horduco, edo ez-ustezco hitzen batzuec aditzen dituzunean, ez da tristatzen, ta nasten zure barren gucia? Etzaude zu horduan damuz beteric, eta zaputz bezala? Eta cer dirala, uste dezu, aldi orietaco zure illuntasun, ta tristura guciac? Guciac dira zure JESUSen deiac: guci-equin deitzen dizu, bai, zuri cere JESUSec, berac daraman, videra, ta Ceruco gurutze-pera.

Orrelaco gauzaric ez den horduetan ere ez dago ez isillic gure JESUS maitagarria. Cere Mezacoetan, cere otoitzac, edo esca-erac eguiten hari zaranean, ta gauz ónen bat (dena dela) zuc cere gogoan artu-horduco, an da bertan zure Jaunaren deia, ta adirazten. Adirazten dizu aldian, aldi hartan zuri onguien dagoquizuna, edo, ongui izateco, zuc horduan eguin behar dezuna.

Cere jostatze moduetan, edo cere atseguin-etan zabiltzanean ere ez dago, ez zure, Jangoicoa gueldiric, eta zuri hitz-eguin gabe. Hitz-eguiten dizu, bai, cere isill-aldietan, edo zu gueldiric, eta soseguz zauden, instante cembaitez ere; ta horduan zuc cere Jangoicoari ez aditu eguiña gatic, illuntzen dizu Jangoico maita-garriac cere bihotza, edo an bertan, edo andic atera ondoan; ta ezagun-erazten dizu horduco cere gaizquia, edo eraqueria.

Bacarric arquitzen zaranean, naiz gavaz dela, ta naiz egunaz; cere eguitecoren bat escu-tartean dacartzun aldietan; ta an, emen, edo nonnai zabiltzan demboran, an dezu zuc, edo cerequin dezu cere Jangoico maita-garria, ta an bertan hitz-eguiten dizu, adi dezaquezun, eran.

Al-

Aldi orietan cere gogoan ar-erazten dizu, bein vicitzaren laburtasuna, vicitza laburraren ondotic datorren erioa, ta biei aldetic darraiquen, contu arri-garria; cembait aldiz cere ibillera centzu gabebecoa, ta, oni dagocan, betico su-lecea; beste ascotan zuc cere Jaunari zor diozun, amore andia, ta gaizqui ibilliz, galtzen dezun, Ceruco gloria: ta bertze aldietan, era bereco cer, edo cer; ta aldi orietaco gogoracio guciac, eta, oriequin ibilli oi diran, nai onac, zuc cere Jangoico maiteari zor diozcatzun, urricarizco deiac dira.

Ez aditu zuc bein, berriz, ta norc-daqui cembat aldiz eguiña gatic, ez da isiltzen, ez, zure Jangoico maita-garria, cere burua zuc, eta cere animâ guztiz galdu artean.

Gure Jangoicoaren ona, ta maita-garria! Ni bezain gauza char baten ondoren, ta onembat videz nere vicitza gucian nere Jaun andia! Niri deiez, nere behar bai-liz bezala, nere Jangoico altsu ecinaberatsi-agoa! Niri deiez gau ta egun, ta egueneco hordu gucietan! Niri deiez, eraguitea gatic niri, nic nai-ta-ez eguin behar dudana, ni betico caltear ez guelditzeco! Eta niri deiez, atseguin contentuz beteric vici nadin ni, nere Jangoicoa Jangoico den arteco demboran, edo beti; ta beti, ta eternidade guci-gucian! Eta al-ere ez diot nic nere Jangoicoari erantzun behar, orain-dañocoan ez bezala, ta bertatic, edo bat ere tricatu gabe? Ezquer-gabe charra nintzaque ni; ta aguitz al-ere, ala nic ez eguitera, edo nic laster, ongui, ta zucen ez hari erantzutera!

§. II.

ONA, HONDRA-GARRIA, TA SOseguzco videa da gure Legueco videa.

LUrreco Erregue aberats, andi-onac artzen dituzten, videac, vide onac izan oi dira; ta vide, quezcaric gutiena eman oi dutenac. Orrelaco-etatic da gure Legueco videa (cein ere dirudien latza, ta nequezcoa); ta dembora berean da, anitz ondasun dituen, vide bat: eta orre gatic da vide ongui maita-garria.

Bai, beinic-bein Erregue videa da gure Legueco vide hau: da alabaña, Erregueen Erregue, Jangoico-guizon

zon JESUS maita-garriac beretzat arturicaco videa: ala dio JESUS berac, dionean: etzenequiten, nequezco videz cebillela, ta ibilli behar zuela JESUS maita-garriac; eta, nequetan ill ondoan, igan behar zuela JESUSec Cerura? (1) Eta, Erregueen videac vide onac ba dira, Erregueen Erreguearen videa cer nolacoa izain da? Nai--ta--ez guztiz ona, ta hondrazcoa!

Erregueen aldean dabiltzan, guizonac ez dute, Erregueen eran, ta Erregueen videz ibiltzea baño, naiago duten, gauzaric bat ere; ta ez da hondra gueiago dacarrenic ere. Orre gatic bada, besteric ez-pa-liz ere, nai andia-requin, ta gogo osoz artu, ta eraman behar cenuque zuc, guztiz nequezcoa dirudien, vide onetaco cere gurutze hau, edo ontzat zuc, eta cere Jangoiço maita-garriaren amorez artzen cenituela, pozic eraman behar cenituque, Jaun-berac igortzen dizquitzun, edo lurrecoen escutic etorri oi diran, neque-quezcac, eta naigabe guciac: ori da alabaña JESUSen videz zu, JESUSen ondoren, ta JESUS, Erregue gucien Erregueren, eran ibiltzea: ta ori, zabiltzquen onguiena, eta ederquiena zu ibiltzea: ta vedenabar ibiltzea zu, ibilli zaitezquen quezcaric gutiena-requin.

Nola ori? (diozu zuc, Ceruco gauz-en berri anditic ez dezun, becatari charra)? Nola da ori? Ori orrela da, baldin zuc ez-pa-daquizu, ceren JESUS maita-garriaren videa bacar-bacarric den, orrembat ondasun, ta nequeen aringarri dacarren, videa; bada gañeraco vide guci-etan arquitzen dira Jesusen vide onetan arquitzen ez diran, naigabeac, eta quezcac; eta arquitzen dira quezca, ta naigabe arintzalleric baguecoac. Eta vide ori-etatic edocein artzen duena gaizqui dabil, ta contraco videz; ta contraco videz, edo gaizqui dabillenari guertatzen zaiozuc cerorrec daquizun bezala, aldapaco videa, gogor iritziz, iutzi, ta azpico salitic artzen duenari guertatu oi zaiona, edo atsedetez beteric arquitzen den, vide bat ez-artunaiez, urraturic dena, ta dena odolturic laster, edo site guelditzea.

Ez da ala? Ecin uca dezaquezu; bada era onetaco videzcoari sasian sartu horduco, itsasten zaio buruco illetic adarren bat, edo beste.

Hura quentzera doanean, zulatzen du escuan, an arquitzen den, arantza zorrotzac; eta onen iguesi ba-darama, jotzen du bere escu bera-requin, edo hari laguntzera daraman, besteaequin, an arquitzen den, elorri punta, edo nasten, ta odoltzen zaizca biac ango lar-elorri-ta adar artean, ta guelditzen da den, gucia oñacez betea, ta vide, ta toqui ain gaistoan sartu delaco, damu andia-requin; ta ecusiric etorquitzuna, ta gaistoago izain dela aitziñatzea, edo gueiago ibiltzea, uzten du, artu duen, sasico vide zelaia, ta artzen du aldapacoa; ta ba doa aldapaz zucen, ambat necatu gabe, ta noizean bein atsedeten duela, bere lecura, edo bere atseguin toquira.

Ori bera guertatzen zaio, gaizqui dabillenari, edo becatariari; bada bein becatariac bere beguiac idiqui ezquero, ecusteco, non, ta nola dabillen, ez-ongui, edo gaizqui dabillenean, ecusten du, emengo atseguin contentu guciac, eta emengo oben-culpac, eta ibillera macurrac, arantzac dirala, ta vide gaistoco larrac; ecusten du alabaña, zulatzen diotela, uquitu-horduco bere bihotz mimberea; betetzen diotela ayez, ta quezcaz; ta uzten dutela bera, den guci-gucia, aitzina ba-doa, gaizqui ill, ta galduco delaco, beldur andia-requin.

Bere beldur hau berritzen, ta andirzen zaio maiz asqui, ta ascotan ere, edo bere Jangoicoac, bere eritasuna-requin, bere beharra-requin, bere naigabe equin, edo beste edocein videz, bere bihotzean crosçadac, ematen diozcan, aldi-etan, ta horduan harc ongui beguiratzera, laster ecusico du, ta claroqui al-ere, JESUSen videa dela, era orretaco, beldurric ez dacarren, videa; ta vide, cembait nequeren artean, anitz atseguin dacartziena. Hau ecusi ondoan, bururic ba-du, utzico du becatariac bere becatuen sasi gaistoco videa, ta artuco du JESUS maita-garria-rena, edo Cerura zucen daramana. Ori da; DAVIDec ere, berac dionaz, eguin izandu zuena.

BAI, dio DAVIDec, bai: gaizqui eguin nuen nic, eta becatu arri-garria, nere gogo gaistoari atseguin eguitea gatic, bertzeren emazte bat artu nuenean; bai ta, nere gaisqui hau estali naiez, onen Senarra ill-eraci nuenean ere; baña artu dut, bai segurqui, bi aldi

aldi ori-etaco nere irabacia, edo horduco nere gaizquiari cegocan, quezca-nequea: bada ez gau, ta ez egun uzten nau baquetan, nere Jaunaren escuac: eta nere Jaunaren escu onec eman izandu dizquidan, crocad-aldi-equin, ta Jaun beraren escu berac nere bizcarrera ecarri dituen, neque-equin sartu zait niri nere bihotzaren ondo-ondoraño nere becatu bien arantza zorrotza; ta ez dut atsedete onic izandu, arantz hau damuz, ta urriquiz nere bihotzetic atera dudan, artean. Ecusiric alabaña ez nuela, nai nuen nere atsedete onetaraco, hau beste videric, itzuli nintzan ni noizbait-noiz-bait nere Jangoico maita-garria gana: aguertu nion Jangoico berari nere neque gucia, ta obenculpa; aitortu nion, ar ganaco vide zucen hau utzi, ta nere atseguin loien, ta becatu ciquiñen sasian sartzetic cirala horduco nere quezcac, nere naigabeac, eta nere barreneco oñace guciac. Escatu nion cin-ciñez, ta, al nuen, indar gucia-requin, urricalria bezala, urrical cequidala, ta nere ibill-era ero galduez urricalduric, atera nintzala lembait len nere far-arteric; edo becatu-petic, eta sar nintzala bere Legueco vide zucen garbi ondasun-dunean: ta, denac bezala, adiru ninduen ni nere Jangoico maita-garriac; quendu cizquidan, urratzen ninduten, nere becatu galduen larrac; artu nau azquenean bere aldera, ta aienatu ditu nere leneco quezca, ta naigabe guciac. (2)

Orra len DAVIDi guertatu-ricaco gauza; ta orra nori nai, edocein demboraz, guertatzeco dagoen, gauza, leneco bere becatuen vide gaistoac utziric, becatariác artzera, Erregueen Erregue JESUS maitearena: hau da alabaña gure Jauna ganaco videa: hau da, Cerura zucen daraman, videa; ta hau, da, bere neque gucien artean, baquezco atsedeteac, eta aldarte onac dituen, videa. Eta orre gatic da, nere JESUS maita-garria, nic zure amorez arturic daducadana, ta, ill arte gucian, utzi bague, eraman uste dudan, videa. Indazu cerorrec, orretaraco behar dudan, zure laguntza, ta gracia gucia. Bai, arren, bai.

§. III.

ONDASUN, TA ATSEGUIN ANdizco videa da, gure Legueco videa.

JESUSec guri aguertu-ricaco Legueac ba ditu, bai, bere ne-

nequeac; baña neque, ecusi dugun bezala, gure Jangoicoac atseguingarbiz arintzen dituenac; eta neque, dembora berean, ondasun anitz aguertzen dizqui-gutenac; eta ondasun, aisa irabaz ditzaquegunac. Goacen oraiu ori-etatic cembait ba-dere ecustera.

Gure Legueco nequeen lembico ondasuna da, leneco gure gaizquien zorrac urratzea, ta videnabar Ceruraco irabaci andiac eguitea. Nola ote? Gueren zorren alde, ta humilqui guc artzen ditugula, guertatzen zaizquigun, videgabeac, eta ori-etatic datocen, lanac, eta nequeac. Asqui du orretaraco, JOSEPH ceritzan, Egiptoco Visorei-aren Anaiac eguin zutena eguitea. Oriec beren gazte-tasun arroan, gogo gaistoari atseguin eguitea gatic, edo haren peera, ta menera etortzeco beldurrez, bacarric ecusi zuten batean, saldu izandu cien beren Anaia JOSEPH hau, saldu-erosian cebiltzan, Ismaelita batzuei, eraman cezaten, orien beguiac ecusi etzezaquen, toquiren batera. Andic demboraren buruan arquitu ciran Josephen Anaia berac estu-tasun, ta neque guztiz arri-garrizco batean. Hordu berean oroitzen dira obenbagueco beren Anaiari eguiñicaco vide-gabeaz, ta ezaguturic, andic zutela, zuten beren neque hau, erran izandu zuten humiltasun andia-requin: bai, ongui eguin zaicu, bai! Neque hau etorri zaicu, guc len gueren Anaiari eguin guenion, vide-gabea gatic (3); eta artzen dute haren alde, ta beren Jangoico maita-garriaren icenean. Ongui; ta cer guertatzen zaie azquenean? Nequeric bague, ta atseguin guelditzea; bada barcatu cien Anaia JOSEPHec, cein ere arrigarria cen, beren saltze gaisto, ta gaizqui gucia; ta vidaldu, edo igorri cituen beren Aita gana, beguitarte onez, ta ondasunez beteac.

Zuc ere, gaizquiren bat eguiten dezun aldi-oro, saltzen dezu cere Anai, Jangoico-guizon JESUS maita-garria. Oroi zaitez bada, nequetan arquitzen zaranean, aldi orietaco cere saltze gaistoaz; ta, ezaguturic, ar gatic dirala horduco zure nequeac, erraztu, JOSEPHen Anaien eran: ONGUI irabaciac neduzcan nic, bai, daramaz-quidan oraingo nere nequeac! Ongui esquergabea izandu naz ni, bai, orain-dañoco dembor-etan nere Anai JESUS maita-garria-

re-

requin! Eguin diozcat nic, bai, orain-dañocoan nere JESUS maita-garriari, nic neronec daquidan, adiña charqueri, ta vide-gabe! Orre gatic dira oraingo nere nequeac! Izan ditecela, bada nere zorrac ateratzeco, ta nere oben gucien alde! Cein ere andiac diran, aldi onetaco nere nequeac, ez dira, ez, nere zorren diñacoac! Gueiago, ta gueiago necatzen ba nindu ere, ez ninduque necatuco, ez, nere Jaun on maita-garriac, behar den, laurdenic ere.

Jaun hau onembat-equin, ta gueiago bague content den ezquero, content naz ni ere: ta ojala quitatu ba nendi ni onen guti-requin, ta nere Jaun andiac, nic hau jasotzea gatic, gora ba-leza, ni gan duen, bere artzeco gucien escua! Eguiñen al du, denac bezala, ta, niri dagoquidan baño, aguitz obequi! Ala guertatu oi da; bada, zorrac barcatzean, eman oi ditu gure Jaun emalle maita-garriac bere gracia, bere laguntza, ta Ceruco doaien zati andiac; eta guero, emequi ta beraren amoreac gatic nequeac eramate orri dagocan, glori-gucia.

Confessio zucena-requin bateç bere zorrac aterea gatic, edo becatu-petic atera ondoan, erdoituric bezala, ta oneraco nagui-tasunez beteric, edo cinquin-queriac dituen, urrearen eran, guelditzen da becataria-ren anima. Suac, sua baldin ba-da, behar den, eracoá, quendu oi ditu urrearen ciquin-queriac; eta Ceruco videco nequac ere quendu oi ditu Animaren erdoiac, edo oneraco nagui-tasunac; eta ori da gure Legueco nequeen bigarren ondasuna.

Bai, dio San AGUSTINec (in Ps. 60.): bai, mundua da Animaren suteguia; Anima da, garbitu behar den, urrea; eritasunac, beharrac, eta naigabeac dira orretaraco sua, ta garra; ta Jangoico bera da cillar-guillea, edo su orretan Anima sartzen duena.

Urrea suteguian daduca cillar-guilleac, urrearen ciquin-queriac suz quendu artean; ta ni ba-nago nere suan, nere gurutze pean, edo nequeen artean, nere Jangoicoac nai duela, ta nere oneraco nago; bada nago, Jangoico beraren amoreac gatic, edo haren icenean, daramadala nere neque, ta nai-gabe gucia, oitu nadin, virtutezco gauz-etara, ta quen ditzadan nere Animatic becatuaren

er-

erdoiac, edo nere Animac dituen, oneraco nagui-tasunac, edo morel-tasun gaistoac, eta gueldi dedin nere Anima, Portugalco urreric garbi-eder-ena baño ere, aguitz garbiagoa, ta eder-ragoa; ta dembora berean gueldi dedin, gauz onac eguiteco, guztiz, ta ongui prestatua. Eta orra, gure Jangoicoaren icenean artu-ricaco, neque-etatic datorren, irur-garren ondasuna.

Laur-garrena da, becatu gaistòac gaitzeraco dacazten, griñac, eta macur-tasunac escuratzea. Zaldi gazte viciac, berez, aisa, ta gaizqui dabilleneau, eguiten ditu, eguin behar ez diran, anitz lasterca, ta salto; ta dembora berean oitzen da trotara, edo ibill-era neca-garri batera; baña cigor-pean, esproñequin, ta frenoz buru-aoac arturic, zaldun indartsu batec cembait egunez ba darabil, aisa dator escura, bai; ez du vici tasunic eracusten, zaldunac artaratzen ez duenean; ta, leneco trotac, eta ibill-era macurrac utziric, artzen du bestte leun, arin, eder guztizco bat.

Berebat guertatzen zaio, eritasunez, malurrez, naigabez, esquer gaistoz, quezcaz, ta nequez Jangoicoac ecitzen duen, emaztequi, edo guizon becatariari. Orre gatic dio Espiritu Santuac, eritasun andiác (eta orobat eguin oi du edocein beste neque gogorscotec ere) escura dacar Anima; ta ez dio gueroz ibiltzen utzi nai, aragui bero-indartsuac eraguin oi ciozcan, urratsetan, edo pausu, ta vide macurretan. (4)

Nequeac dacarten, bostgarren ondasuna da Animaren humil-tasuna. Nequeac beldurtzen dute, nequetan dabillen, edocein Anima; ta behartzen dute beren Jaunaren laguntza humilqui billatzera; guertatzen zaio alabaña, nequetan dabillen, Animari, videzco edoceini guertatu oi zaiona. Vide zabalean, edo lorezco baratze batean ba-dabil bat, aisa dabil, ta besteren beharric ez duela; baña, ohartu cabean, edo berariaz sartzen bada lar artean, ta sasi gaisto-etan, baldin asitzen bada aldapa gaistoz, edo malcor-tegui gogorren batean, erne ibilli oi da, ta beldur andia-requin; ta, al-ba-du, escatzen duela, norbaiten laguntza, ta escua.

Ori bera da guertatu oi zaiona, Cerurat, edo Ceruontz dabillen, edocen-guizoni. Ondasun-dun arquitzen denean gui-

guizonen bat, dembora berean arquitzen ba da osasuna-requin, ta berac nai bezala, ez du, ez anitz autsi oi bere burua, erne, ta viciro Ceruco videan ibiltzea gatic: baña Jangoicoac bere videa mintzen dionean, edo nequez, gurutzez, ta quezcaz betetzen ba dio bere bihotza, bertan emetzen da, bere Jauna gana beguiac goititzeco, ta erdisten du zucen, ta viciro escatzen duela, ango laguntza, ta gracia.

Bai: dio Espiritu Santuac; nai-gabezco hordu-etan, ta nequeric gueiena den demboran aguertzen du gure Jangoicoac bere gu ganaco urrical-tasuna, bere gu ganaco misericordia; ta, agortian odei onac urez bezala, betetzen du bere graciaz, ta laguntzaz, nequetan dabillen, Anima. (5)

Jangoicoaren iceneco nequeen sei--garren ondasuna da Etsaien contra ciñez, ta bortizqui lanac eraguitea. Mariñelac ecusten ba dute, urez betetzen asiric, beren ontzia, artzen dute bomba, ta ba-darabilte gau, ta egun, ta ez dute uzten bein-ere, nequez erdi lertuac egona gatic.

Cer gatic ote? Ceren dacusten, bombaz ez ateratzera, ol-artetic sartzen zaien, ur gacia, galduac dirala guciac, eta laster ondatuac, beren ondasun-equin, ta ontzi guciarequin, itsasoaren ur pean.

Guisa berean, tentuz, ta nequez ingurutua dagoen, Animac ba dacusà, non dabillen, ta cer eran; edo ba dacusá, bere tentu gaistoac ez garaitzera, ta, estutzen duten, bere nequeac artzen ez-pa-ditu emequi, ta bere Jaun onaren icenean, beteco zaiola ur galgarriz, edo becatu ciquiñez bere Anima, ta azquenean ondatuco dela, den gucia, sulececo Itsaso arri-garrian; ta, an ondatu nai ez-pa-du, eguin behar du al-eguiña, etsaien contra, ta orien tentu gaistoac garaitzeco; bai ta nequeen gurutzea alic zucenena erabiltzea gatic ere. Eta, ori eguiten dugula, orra non nequeac eraguiten diguten, eguin behar duguna.

Baña, nola eraguiten ote digute gueren lan on ori? Irabaci andiequin. Bai, dio S. Agustinec (ser. 29.), Christo Jaunaren gurutzea, ta guc gueroc daramaguna, ondasun andiac dacazten, gurutzeac dira. Bai, ondasun andiac dacazten gurutzeac; badá gure Jaunaren Adisquideac, edo onguici daranac, Jaun beraren icenean

nean eguin oi dituzten, gauza chiqui-errazac ere valio andizco gauzac ba-dira, diran bezala, ta seculaco glori zatiren bat irabazten dutenac, cembat irabacizco gauzac izain dira, era bereco gauz andiac, eta gaitzac?

Eta cembat ondasun irabacico dute vicitza gucico neque andi onac? Norc hau adiraci? Orra bada cer irabaz-videa den, gure Legueco nequeen vide hau! Eta norc ez du artu naico, icasi ezquero, nora daraman, ta cein aberatsztzalle ondasun-duna den? Norc ez ditu pocic eramain Jesusen ondoren, onequin batean, ta seculaco pagu; ta pagu, onen andia gatic, emengo nequeric gogorrenac ere?

Baña ichozu: ba-dute oraindic ondasun gueiago ere emengo gure gurutzeác, eta Jaunaren Legueco nequeac. Ba-daquizu cer? Virtuteen aciera, ta Anmaren azquen apaintza.

Esquerrac zor diozcagu, guc, eta esquer andiac gure Jangoico maita-garriari, (erraten digu Santiagoc) Jangoico berac nequetan gaduzcanean, ta gurutzez jauntziac; bada irauten ba dugu, oriec erauntzi gabe, ta Jaun beraren icenean daramaz-quigula, aguitz anditzen, ta edertzen da gure paciencia; ta pacienciac ongui laguntzen die virtute guciei beren beharra, ta eguiteco zucena zucen, ta, behar den, eran eguiten; ta, virtuteac ori eguin ezquero, eguiñen gara gu, gure Jangoicoac nai duen, eracoac, edo utsic bagueco gauzac; eta guelldituco gara virtutez aguitz apainduac (6).

Orretaraco eguiten du gu-requin gure Jangoicoac, Santu guilleac arria-requin, zura-requin, urrea-requin, edo cillarra-requin eguin oi dutena. Eguiñen ba-du Santu-guilleac urrezco, edo beste edocein gaiezco Santuren bat, edo Santuaren imagina, eman behar diozca gaiari, norc daqui, cembat golpe; erabilli behar du urrea, edo gaia batetic bestera; ta, ematen diozcan, tundequin, vicia ba liz gaia, quenduco lioque eun aldiz, ta aguitz gueiagoran ere bere vicia.

Gai ori imaginaraco baño, aguitz baldanagoac gara gu, virtuteraco; ta, moldatuco ba gaitu gu gure Jangoicoac, eguin behar dizquigu, nai-ez guenituquen, anitz gauza; ta eman behar dizquigu anitz ucaldi, edo golpe-modu, ta neque: ta al-ere mol-

datu

datu gabe guelldituco gara gu, guc oriec ontzat ez artzera.

Gu virtuterſu eguñic guelditzeco, ez da aſqui, ez Jangoicoaren eſcutic datocen, nequeac guc bein, ta berriz ontzat artzea; artu beharco ditugu, vici garaño; ez gara alabaña gu, zura, ta cillarra bezalacoac; bada zur--cillarrac guelditzen dira beti, bein arturicaco moldura-requin; baña gu gaitzera macurtuac gara gueren aur-taſunetic; eta, gure Jangoicoac gu bein moldatua gatic, moldura berriac, eta berriac behar ditugu guc, lenac ez galtzeco: ta, cembat ere gueiago ditugun, ambat obeago gu, ambat Santuago. Eta orra Jangoicoaren iceneco nequeac dacarten zazpigarren ondaſuna; edo orra non nequeac diran, ongui daramatziena, virtuteen edertzez, ta Santu-taſunez beteric uzten duten, gauzac.

Ecuſten dezu cembat diran, JESUSen ondoren dabiltzanac, beren neque-etatic atera dirzaqueen, ondaſunac?

Baña zuc uſteco dezu, neque oriec, beren ondaſun guci-equin ere, neque latzgogorrac dirala? Utſ-eguiten dezu zuc, uſte orretan baldin ba--zaude. JESUSen ondotic dabiltzanen nequeac, neque ondaſun-dunac ez ecic, atſeguin andiac dacazten, requiac dira; bai ta, beſte mundu-raco bezala, emen berara-co ere.

Ala diote, gauz onen berria dutenac. *Ah! ta cein andia den* (dio Davidec) *gure Jangoico maitagarriac, beraren beldur diran, Animen daco gorderic daduzcan, atſeguin-contentuac!*

NERE JAUNAren iceneco nere neque, ta naigabe gucietan atſeguin utſez bete zait, dio San Pabloc, nere bihotz hau gucia, ta pozac eraguin ere DIO GAñEZ (8). Era berean mintzatzen dira, gauza beraren berria duten, gañeracoac.

Hau onela den ezquero, den bezala, aditu-horduco nic nere JESUSen hitzac, edo JESUSec diona, erraten digunean: *Nai duenac etorri nere ondoren, autſ-beza bere gogoeta gaiſtoa, ar-beza bere guruizeta, ta bebil, ni nabillen eran*, norc ez dio erran behar bere-bereala hitzez, ta bihotzez, ona non nazun ni, nere JESUS maitagarria. Eraman nazazu ni, zuc cerrorec nai dezun, videz, ta toquitic. Den nequezcoena izana gatic hau, ez nau, ez izutuco bat ere, nequeen eracoac

coac diran ezquero zure atseguin-contentuac, eta, aditu dudan bezalacoac, era onetan dabillen, edoceinec eguiten dituen, gueroraco irabaciac. Ar nazazu gaur-danic ni cere aldean, nere JESUS maita-garria, ta lagun zaquizquit vide gucian ecusico ditugun, pausu gogor-etan. Ori diozu zuc ere nere eraco becataria? Bai? Bada zori onecoa zu, zuc, diozun, gucia zucen eguitera!

I.

REGNUM CŒLORUM VIM PATITUR, & violenti rapiunt illud.
Matth. 11. 12.

EZ dut ucatzen (dio Jesus maita-garriac) ez dut ucatzen nic, ez, nequezco lana dela, Ceruco vide zucena artu duten, ónen ibillera, ta, emendic nere ondoren dabiltzanac dacarten, gurutzea. Ez dira alabaña, Cerura nai dutenac, Ceruraco, beren aztura, ta costumbre gaistoac galduz, gogoeta macurrac garaituz, passione sutuac escura ecarriz, eta anitz gauz on beren buruei eraguiñez, zucen dabiltzanac baicic, eta era onetan beti bat emen ibiltzea, edo era onetaco ibillera batec escatzen dituen, gauzac eguitea, nequezco lana, ta gurutze gogorra da, dacusaz in bezala. Baña era orretan necatzen diranac, eta nere Legueco vide onean irauten dutenac dira zori onecco nere humeac, eta nic nere aldera, dembora datorren horduco, artuco ditudan, humeac. Ongui necatzen diran, nere humeac, ez dute vide onetan deus galduco, ez, nere iceneco beren neque guciac gatic ere. Beren lan-nequeen alde emain diet nic, bai, dezaquedanac bezala, naundu guciac baño, gueiago valio duen, gauza, ta, irabacia; bada emain diet, eternidade gucian irauteco dagoen, Ceru nereco Erreinua.

Hau eman naiez, bada, (dio JESUS maita-garriac), hau eman naiez deitzen zaituztec nic nere Ceruco vide neca-garrira, ta ceren gurutzepera, edo ceren Legueco gauzac zucen eguitera. Eta ala-ere ez dezue zuec nere ondoren ibilli nai? Zuen cenzugabeac! Zuen ero-eguiac!

ORIE; dió oraindic gure Jesus maita-garriac: orie; nere vide onetaco nequeac itzutzen ba zaituzte zuec, edo nequez, quezcaz, ta illuntasunec beteac vici beharco dezu-

zutela, ba-deritza zue zuec, nere Legueco lanetan, edo eguiteco etan sartu ezquero, ezdenac izutzen zaituzte: artu zazue ceren guin ceren eguiteco hau, ta ecusico dezue; ta, noiz, edo noiz ceren bihotzac illuntzen ba-zaiz quitzue, atozte ni gana, horduric galtzen ez dezutela; aguer zazue, guertatzen zaitzuena; esca zazue nere laguntza, ta gracia, ta izain dezue behardezutena, ta guelditico zara zte arintasunez, ta pozez beteac: *Venite ad me omnes, qui laboratis, & onerati estis, & ego reficiam vos. Ibid. v. 28.* Ongui da bada, gure Jesus maita-garria; ongui da; ta, ori orrela den ezquero, zu ganaco gara gu, ta pocic al-ere. Iguzu cerorrec orretaraco ere behar dugun, zure laguntz ori, ta zure gracia. Bai arren, bai!

2.

JUGUM ENIM MEUM SUAVE est, & onus meum leve. Matth. 11. 30.

SIñes nazazue, bai, dio JESUS maita-garriac; siñis nazazue, bihotz berach humill manso onguille batequin arquitzen nazan, Jangoico-guizona naz ni, ta, zucena, ona, ta behar bezalacoa ez den, videric, ecin ar dezaquedan, Jangoico-guizona. Nic, nere ondoren dabiltzanac nequeran ta penaz beteac ecusi ezquero, ez daquit egoten, onei eracutii bague iolleranic erazena; ez eta lagundu gabe ere beren gurutze-nequeac, eta quezcac eramaten. Orre gatic, era orretan, edò nere ondoren dabiltzanen gurutzea, biren artean dacargun gurutzea, ta uztarria da; ta uztarri, ta gurutze, gogo onez, ta nere icenean artzen dutenentzat guztiz leun-ariña, ta guztiz hondra-garria; ecusten dezu, alabaña, nerequin dabillela, era orretan dabillena, ta anitz bere hondra-requin dabillela, nerequin dabillen, edocein, nola-nai hau horduan ibillia gatic.

Hau onela den ezquero, den bezala, nere JESUS maita-garria, ero-eroeguia nintzaque ni, bertatic nic ez artzera, zuc eracusten didazun, nequezco zure vide hau, ta nic pocic, edo beintzat gogo osoz ez eramatera, vide onetaco nequeen gurutzea, ta, zure Legueac escatzen dituen, gauza guziac, izan ditecela oriec berez, edo latzac, edo gogor-

rac, edo edocein eracoac. Lenago ni nere lan onetan, behar cen, eran ez asiaz dut orain damu; ta pena; ta ciñez al-ere. Indazu zuc cerrorrec, nere JESUS maita-garria, damu hau galdu gabe, ta, oraingo nere asmo on onetan irauten dudala, nere egunac bucatzeco gracia. Bai arren, bai

3.

ID, QUOD IN PRÆSENTI EST momentaneum, & leve tribulationis... Æternum Gloriæ pondus operatur in nobis. 2. Cor. 4. 17.

EZ da cer izutu, dio San PABLOc, emengo gueren nequeac gatic. Emengo gure neque gogor, ta gurutze guciac gurutze, ta neque laburrac dira; bada, gueienaz ere, gure vicitzac adiña, ez gueiago, iraunen dutenac dira. Eta cer da, gueien-gueiena irauten duenaren vicitza ere? goicean aguertzen den, ta arratseraco igarturic arquitzen dugun, lorearen eracoa. Orra bada norañocoac diran gure nequeric andienac ere!

Eta norañocoa ote da, neque-oriec dacarten, ondasuna? Eternidade guci-guciracoa: beri, ta beti iraunen duen, Ceruco Gloria.

Glori hau zuri emateco dago zure Jangoicoa, Jangoicoaren icenean zuc emen artzera, emengo cere neque zati guciac, edo zati oriec emen eguiten dizuten, cere gurutzea.

Ez ote zara bada bertatic hau artzera saiatuco? Mariñelez, ta Mercatariz betetzen dira beti, batetic bestera dabitzan, ontziac, naiz atera ditecela urte oro amar millataraño.

Mariñelac izaten dituzte, beren ontzietan dabiltzan, demboran, gau, ta egun aguitz illunac; eta, ori-etatic anitzec beintzat, itsasoan izan oi dute beren buca-era, ceren itotzen diran beren ontzia-requin, edo ceren garbitzen dituen onci berean beren erioac, edo eritasunac.

Baña cer gatic ote dira Mariñel-Mercaterien orrembat perell-neque, ta gal-vide?

Ogui zati bat irabaci naiez. Eta zuc, irabaz dezaquezula, ta orrembat neque ta laurdenic ere gabe, eternidade guci-gucico atseguincontentua, ta cere Jangoicoaren Ceruco gloria, gueldiric egon naico dezu, ta necatzen etzarala cere Jaunaren gauzetan?

Sol-

Soldadu gaiſoac ez dute beguiratzen, nora daramatzien beren manatzalleac, naiz eraman ditzala milla, ta milla tiroren artera; ta, igueſiari ez ematea gatic, utzico dituzte beren buruac Etſaien atzaparretan, edo guelduco dira an bertan erdi lertuac, illotzac, edo beſoric bague.

Cer gatic hau onela? Soñeco zuri-tzar, urdin, edo ori bate gatic, eta goiez iltzceo beldurrez bezala.

Eta eternidadeco goſe-egarritic igueſ-equiteco, ta ſeculaco atſeguin contentu guciac irabaztea gatic, eramain ez dituzu zuc, cere Jangoicoac laguntzen dizula, aiſa ta emequi eraman ditezqueen, vicitza labur bateco cembait neque, ta gurutze?

Necatzen da Languille gaiſoa goizetiç arratſ-eraño. Gaur eguiten du lan bat, bigar beſtea; ta biac ongui neca-garriac. Maneatzen du, artaraco garnia datorrenean, bere lur gogorra; betetzen du hau, haren beharrez dagoenean, galciñez, edo carez; ta, gañeracoan al duen, ongarri gucia-requin. Era onetan bere lurra preſtatu ondoan eguiten ditu Languille berac bere erreintzac, bere jorrac, eta bere gañeraco lanac.

Hau gucia certaco? Gari-zati bat, edo cembait alé bildu naiez; ta aſcotan, ereñi zuenic ere, biltzen ez duela.

Eta, laurdenic coſtatu gabe, eguin ditzaquezula zuc, urtearen buruan ez-ecic, egunoro ere biltze arrigarriac, eta Languille gucien gariac, eta Indietaco bazter-etan arquitzen diran, ondaſunac baño, gueiago valio duten, irabaciac, ſartu naico ez dezu zuc cere eguiteco orretan, jaquiñic ere, daquizun bezala, nor dagoen zuri laguntzeco, edo JESUSec lagundu nai dizula, ori gucia, behar den, eran zuc bucatu artean?

Baldin ba cenequi zuc, ez dizula manatuco lurreco Erreguec, ecin dagui-quezunic; lagunduco liquezula, zu bein Erregueren gauz-etan aſi ezquero, bai ta aſitzen ere; ta zuc haren gauz oriec eguin hor duco, emain liquezula Erreguberac, ecin aſm-al adiñaco pagua, edo ondaſuna, etziñaque zu bertan, ta pocic alere, Erregueren gauzac eguiten aviatuco?

Ba-daquizu zuc hau gucia cere JESUS maita-garria gandic; eta al-ere ez dezu zuc artu nai, JESUSec ematen dizun, cere gurutzea, edo JESUS-

SUben iceneco cerbait neque ta, quezca; ez eta (JESUSi orretan atseguin eguiten diozulà) eternidadeco ondasunac irabaztea gatic ere? Ongui nombait liluratua zaduzcate lurreco cere eraqueriac, eta gauza charrac!

Idiqui izquitzu orain bad-ere cere beguiac, eta artu zazu, lenago hau ez eguiñaz, ta, orre gatic eguin dituzun, uti arri-garrien damu ciñezco bat; eta, berriz bat ez eguiteco asmoa-requin, errazu hitzez, ta bihotzez: NERE JESU-CHRISTO, *&c.*

(1) *Nonne oportuit pati Christum, & ita intrare in gloriam suam?* Luc. 24. 26.

(2) *Tu es refugium meum à tribulatione, quæ circundedit me.* Ps. 31

(3) *Idcirco venit super nos ista tribulatio.* Genes. 42. 21.

(4) *Infirmitas gravis sobriam facit animam.* Eccli. 31. 2.

(5) *Speciosa misericordia Dei in tempore tribulationis, quasi nubis pluvi in tempore siccitatis* Eccl. 35. 26.

(6) *Scientes, quod probatio fidei vestræ patientiam operatur, patientia autem opus perfectum habeat.* Iacob. 1. 3.

(7) *Quan magna multitudo dulcedinis tuæ, Domine, quam abscondisti timentibus te.* Ps. 30.20.

(8) *Repletus sum consolatione; superabundo gaudio in omni tribulatione nostra.* 2. Cor. 7. 4.



upna

XXXVI--GARREN OTOITZ-GAIA.

GURE LEGUECO NEQUEAC, BEHAR BEZALA, DAramaztenen DOATASUNAC.

VIdez dabiltzan, guizonac, ez dabiltza guciac era batean. Batzuec, besteac baño, ariñago dabiltza, ta quezca, ta naigabe gutiagorequin: ta, neque, ta naigabe gutiago dutenac, eta ariñago dabiltzan, guizonac dira, videzcoric onenac.

Berebat guertatzen zaie gureLeguez dabiltzanei. Orietatic batzuec arin, ta aisa dabiltza, edo errez asqui daramazte gure Legueco neque guciac; baña ez dira gueienac, ez orren aisa dabiltzanac; gueienac, dira Legue bereco videan anitz aldiz beintzat behatz--topaca, edo erorca, ta becatuz becatu dabiltzanac; eta noizbait oriec becatura bague ibillia gatic, illunsco dabiltza, Ceruco eztitasunic bague dabiltza, ta chiqui-etatic cembait uts (eta maizcote al-ere) eguiten dituztela, dabiltza.

Era onetan dabiltzanac, ez-dute, ez ateratzen lenagoac adiña ondasun, ta irabazte beren Legueco neque-etatic; eta ez dira, ez ongui dabiltzan-ean ere, oriec bezain zori onecoac, eta doatsuac; oriec dira alabaña lembicicoric, eta barren-ena sartu oi diranac, Mendico bere predicuan JESUS maita-garriac bereci cituen, DOATSUen artean.

Ba-daquizu zuc cein ote diran, zori oneco doatsu oriec? Baldin ez-pa-daquizu, oain icasico dezu JESUS maita-garri bera gandic. ZORI onecoac, dio JESUS maita-garriac, gogoz behartsu vici diranac: ZORI oneco doatsuac, mansо asaldatzen ez diranac: ZORI onecoac, behar den, eraco negartiac: ZORI one-

onecoac, zucen-tasunaren, edo Justiciaren gos-egarri diranac: ZORI onecoac, beharrean daudenez urricaltzen diranac: ZORI onecoac, bihotz garbiac dituztenac: ZORI onecoac, baquean vici diranac: eta ZORI onecoac, beren vicitza zucen ona gatic, nequetan vici diranac.

Orra cein diran, zori oneco doatsu, beren Leguecco nequeac, behar den, eran daramaztela, ondasun anitz Ceruraco biltzen dituztenac. Orietatic bat izan zaitecen zu ere, baldin ezpazara orain-dañocoan, ecusi behar dezu haztiz, ta contuz, ZORI oneco doatsu bacoitzac eguiten duena; edo ecusi behar dezu, ori oriei eraguiteco, JESUS maita-garriac eguin izandu zuena.

§. I.

LEMBICICO DOATASUNA: *JAUNAREN AMOREZCO BEHARRA.*

BEATI PAUPERES SPIRITU, QUONIAM IPSORUM est Regnum Cœlorum. *Matth.* 5. 3.

DOATSUAC, ETA ZORI ONECOAC DIRA GOGOZCO BEHARtsuac; bada oriena da Ceruco gloria.

CEIN ote dira, JESUSen ondoren dabiltzan, zori oneco behartsu oriec? ECER ez duten errumesac? ESQUEAN dabiltzan, behartsuac? GAIZQUI jauntziac arquitzen diranac? Eta jan-edan charrac eguin oi dituztenac?

EZ beintzat guciac.

CEIN bada?

BEREN beharra, ta gabe gucia Jangoico maita-garriaren icenean emequi daramatenac. ZORI oneco doatsuac dira, aberasteco naicunderic ez dutenac, vide gaistoz beintzat, eta cillegui ez diran, irabacieguin: ta, ezagutu ezquero, beren oneraco, ez dagozquiela lurreco ondasunac, ondasun gabe, ta behartsu vici nai dutenac; eta nai dutenac hau, beren Jangoicoari atseguin eguitea gatic, eta Ceruan sartu naiez.

ONELA behartsu diranac, gogozco behartsuac dira, JESUS behar-tsuaren ondoren dabiltzan, zori oneco behartsuac dira: Cerua irabazten dutenac

ten, behartſuac dira; ta behartſu doatſuac, eta zori oneco JESUSen humeac. ALA dio S BERNARDOc: *Non paupertas virtus, ſed paupertatis amor.*

ZORI oneco behartſu ori-etatic ote zara zu ere? CERE gabea-requin, cere behar-ra-requin ongui arquitzen ote zara zu, behar ori, ta, izan oi dezun, gabea zuri cere Jangoicoac bidaltzen dizquitzun, aldi-etan? Zure Jangoicoac betico zuri emana gatic behar hau, edo beſteren bat, artuco ote cenuque zuc, bere eſcuan apa, ta mañ cere Jangoico, orien emalleari eguiten ceniola? ALA bada, JESUSen ondoren dabiltzan, zori oneco doatſu behartſu-etatic zara zu; ta zuc orreran irautera, zurea da, era orretaco behartſuen-daco Jangoicoac daducan, betico atſeguin-contentua, ta Ceruco gloria.

BAñA behar utſetan, gabez beteric, eta arraſtan bezala vicia gatic zu, vici zaraño, ala arquitzen zaran, demboran atſecabetan bezala, ba-zabiltza zu, gogoaren borchan ba-zabiltza; edo, baldin ba-zabiltza zu, cere Jangoicoaz oroitu ere gabe edo Jangoicoaren icenean artzen ez dituzula zuc cere neque-gurutzeac, borchazco behar-tſua zara zu, ez zori onecoa.

BEGUIROZU bada; guztiz gaizqui zabiltza, orrela bazabiltza; ta, necatzen zaran ezquero, neca zaitez arren, cere oneraco, ta zori oneco behartſuen doataſunac erdiſten dituzula; ta, cere Jangoicoaren icenean cere neque, ta naigabe guciac artuz, Ceruco atſeguin-contentu andiac irabazten dituzula. Era orretan necatzen dira, munduan cituzten, gauzac, edo gauzen uſteac alde-bat utziric, munduz campoan, edo RELIGIOren batean, behar den, eran, vici diranac. ORIEC dira gogozco behartſu guztiz doatſuac, eta Ceruco videan Jeſuſen ondoren arin dabiltzanac.

I.

ALA da; diozu. BAñA ondaſun-dunac? ABERATSAC? BEHAR den, gucia-requin, ta behar dutena baño, gueiago, ta gueiago-requin arquitzen diranac? BA-dabilzquoriec ere JESUSen ondoren, ta gogozco behartſu-doatſuen artean?

NAI ba dute, bai; ta arin al-ere. NOLA bada?

PRESTATUZ batzuetan, diruzten, ondaſun-etatic,

escatzen dieztenei; ta, behar denean, emanez gabeari, onèa beharrac, eta premiac ori escatzen duenean; ta gañeracoan eguiten dutela, dutena tequin, eguin behar duten, gastua, ta eguiteco a, bai, baña ez besteric; eta, beren ondasun gucien artean, arquitzen dirala, ondasun bat ez pa lute, bezain bihotz garbi sosegueuzco-equin; ta, Jaunac ala nai duela, duten, gucia, edo gucitic edocein zati uzteco, asmoan.

BAñA erraz ote da ondasun-dunac gauz hau eguitea? EZetz, dio JESUS maita garriac; bada dio: AY aberatsac! Emen dituzue zuec ceren atseguiñac; baña atseguin, ceren Jauna gandic urruntzen zaituztenac, eta atseguin, Ceruco atseguin garbi ederren galgarriac!

CER gatic ote, JESUS maita-garria?

NIC errain dizut ori, JESUSen ordez. AISA vicitzen dira Lurreco ondasun--dun aberatsac. IZATEn dituzten, diru, ta, dituzten, ondasun-equin erraz arquitzen dituzte Lurreco aberatsac, beren sabelac betetzeco, beren gogo gaistoac aspertzeco, ta; berac nai dituzten, gauza guciac eguiteco videac, eta era macurrac.

AUR--danic aberatsac guei-egui oitzen dira ibill-era guztiz eme batera, edo beren soleco gauz-etan, beren oñeco-etan, beren jan-edan-etan, lotaratzen diranean, ta gañeraco beren gauza gucietan, beren buruei atseguin, ta gusto eguitera.

HORDUtic aberatsac, eta guerozco dembor-etan ere beren ezpañetara beguira-beguira daduzquee, echeco guciac ez ecic, beren erri-etaco, ta bazter-etaco beartsuac, edo gabe arquitzen diranac ere; ta, cer-nai aberatsac oriei adiraci horduco, edo oriec guciac, edo guci-etatic cembait beintzat prest-egui arquitzen dira, aberatsac adirazten diena bertan eguiteco. ETA, oriec ala ori an ez eguitera, an dira, bai, ta bat-ere luzatu gabe, aberatsen escambillac, aberatsen erriertac, aberatsen hordugaistoac, eta meachuac; bai, ta, cembait aldiz beintzat, aberatsen escucac ere: ta al-ere muquer guelditzen dira aberats galduac; eta dembora luce-etan beren begui-etara beguiratu ere ecin daquiqueen eran.

ATZO baño, gaur, edo egun oro arquitzen dira gogorrago eguiñac aberats galduac.

duac. BERAC baño, guei-agoric ecusi nai ez dute Lurreco ondasun-dun aberatsac. BERENA gora, be-rena bera dabiltza beti aberats berac. BERENA-requin atera naiez dabiltzan, aldi-etan aberatsac, hau ez galtzea gatic, galdu oi dituzte beren animac, eta beren Jangoico maita-garria.

ABERATS beren muquer erac, eta aser-aldiac, aser-aldi muquer luceac dira. HONRA, ta antustea dira aberatsen bihotzac guei-enic erretzen dituzten, icatz, eta egur sutuac, edo irazaquiac.

GALDURIC utzi dituzten, nescach eroen, edo emacume gaisoen negar-equin; be-rena orien escu-etatic ecin atera duten, beartsuen quezca-requin, ta be-ren eguia ecin adiraci dutenen, atsecabea-requin asetzen dira, necatzen ez diran, alser aberatsac.

ERA bereco aberatsac dira, gauz onac eguitez, aditzez, ta ecustez lenen-lenenic aspertzen diranac, eta gauza be-rez, ez bein, irri ere eguiten dutenac.

ORIEC berac dira, urte anitzez, edo dembora luceetan golderic, aitzurric, eta laiaren, edo arearen ortz bat ecusi ez duten, alorrac, edo celaiac bezala; bada, hur oriec osiñez, belar gaistoz, larrez, satiz, ta arantzez beterzen diran bezala, bete oi dira, becatuz, muquer-tasunez, ta aztura gaistoz aberats alserrac.

ALOR galduetan sartu oi dira Cecenac, sartu oi dira ganadu beltzac, bai-ta, oriec, bezain ortz gaistoac diruzten, beste cembait ere; ta aberats alserren gogo zabal-etan ere sartu oi dira oroitzapen lizunac, naicunde loiac, arro-tasun eroac, eta vendecuraco sriac; eta oriec eguiten dute aberatsen barren etan, esiric bagueco, alor ereñi-etan ganadu gaistoac eguin oi dutena; bada galdu oi dituzte ganadu galgarriac alor-etaco maizac, oguiac, sagarrac, arbiac, illarrac, edo, orien ordez, an arquitzen diran, era edo einetaco gauzac; eta bere-bat eguiten dute aberatsen animetaco frut on, leneco merecimentu, ta irabaci-gai berri guci equin, aberats beren barren-eratzen diran, tentu, tirricacio, su-gar, ta etsai gaistoac.

BAY, dio San PABLOc, bai, ondasunen zale diranac, izan oi diran bezala aberatsalserrac, ber-en etsai isteri galgarriaren laquiora doaz, ta

etsai beraren escu indartsu-etara, cate gogor-etara, ta presondegui beltz-illun madaricatura (1). AH, ta cein gutiguti diran, dio S. BERNARDOc, Apostoluac aguertzen digun, lazo, edo laquio galgarri hau urratzen duten aberatsac! (2).

CER aberats ote dira, ondasunen bazca duen, laquio madaricatu hau urratzen duten, edo artara urbiltzen ez diran, zori oneco aberatsac?

ORIEC dira, ondasunen artean vicia gatic, zucen, ongui, ta garbiro vici diranac. ORIEC dira, ongui aciac, obequi eciac, eta beren Jaun onaren gauzac, behar den, aduintzan, behar den, eran, ta guztiz contuz eguiten dituzten, aberatsac. ORIEC dira, nori berea bere demboran ematen diotenac. ORIEC dira, ELIZA Guizonei, ta gañeraco, artan dabiltzan, guciei gauzac zucentzen laguntzeco, noiznai, ta beti prest arquitzen diranac. ORIec dira, eguiten zaizten, vide-gabeei beguiratzen ere ez dienac; eta orien Jangoicoac ala nai izatera, dituzten, ondasunac uztico lituzquenac, eta edocein gauza Jangoico bera gatic eguiñen luqueenac.

ERA onetaco aberatsac dira, ondasunezco laquio galgarri-etan erortzen ez diran, aberatsac; bada, izatez, ta ondasunez ongui diranac izan-arren, naiez, ta gogoz behartsu utsen eran dira; ta orre gatic dira, Cerua irabazten duten, gogozco behartsuac, eta JESUSen ondoren dabiltzan, gabe doatsu zori onecoac.

II.

ECUS dezagun orain nola ibilli izandu ote cen gure JESUS maita-garria, gogozco behartsu ondasun-dunei, ta gañeraco guciei, zori oneco behar-tasun oneta-raco videa aguertu cienean.

IBILLI cen JESUS (baldin ez-pa-daquizu) munduan izandu den, behartsuric behartsuena baño, agutz behar-ago; ta ala ibilli cen, berac berariaz artu-ricaco, behar-tasunarequin: ba-cituquen alabaña JESUS maita-garriac, nai izatera, nai adiña ondasun, ta gauza; ta guciac, nai bezalacoac; baña, guciac utziric, artu izandu cituen, artu citzaquen char-enac, eta behar-tasunez beteac; bada artu cituen, daquigun bezala, Am aberats baten lecuan, Ama guztiz behartsu bat. Eta era berecoac izandu ziran JESUSen echea,

JE-

JESUSen jaiteguia, ta JESUSec, jaio-berrian, artu izandu cituen, gauza guciac.

JESUSec bere gazte-tasunean, ta oguei, ta amar urte-tarañoco demdoran jan-edaizandu zuen, bere escuz, bere nequez, ta icerdiz irabazten zuena. PREDICATZEN ibilli cén, guerozco irur urte-etan, artu oi zuen, onguinaiez, ematen ciotena; ta gañeracoan garagar-oguia cen JESUSen janaria.

DEMBORA onetan etzuen JESUS maita-garriac nora bildu, lo eguitera; ta, choriac, eta aiseriac ere baño, gutiago zuela, vicitu cen JESUS, munduco bere demboran: ta, gurutze batean josiric utzi zutenean Judu gogorrac, etcioten soñeco pits bat ere utzi gure JESUS maita-garriari. Eta ori çen JESUS maita-garriac beretzat beti nai izandu zuena; bada bere naiez, ta gogoz lendabicitic utziac ceduzcan JESUSec bere soñecoac ez-ecic, munduan arquitzen ciran, ta Jangoico berac ceguizqueen, gañetaco gauza guciac ere; ta, beharrez artu izandu cituen, charrac ere, artu cituen, ecin bestez, ta videnabar guri eracustea gatic, nola artu guc, artu behar ditugun, gueren beharrac, gabeac, eta premiac.

ORAIN ba-daquit, nic, bai, nere JESUS maita-garria, nola dabiltzan, zure ondoren dabiltzan, behartsu doatsuac, naiz aberatsac izan, ta naiz ondasun gabeac. GUCIAC dabiltza alabaña, zuri beguira, ta gogoz beintzat, uzten dituztela, zure Legueco videa galerazten duten, lurreco gauzac. EZ dute nai oriec bein ere, zu-requin ibiltzeco, ongui dagoquiena, ta zuc cerorrec nai dezuna, bai, ta besteric bat ere: ta, dituzten, ondasunac, edo gauza charrac dituzte, zuc nai dezuna, zucen eguiteco.

ORRETA-ratzen diran, Lurreco guciac, munduan naiz behartsu utsac izan, naiz aberatsac, doatsuac dira, ta zori onecoac: bada berequin dute, S. PABLOc dionaz, beren Jaunaren Erreinua, edo zucentasuna, baquea, ta Espiritu Santuaren atseguin garbia; baita Ceruco gloriaren ustea, ta escua-ere, edo araco derecha. (3)

EZ ote naz saia-tuco ni ere, hau gucia daquidan ezquero, zori oneco doatsu oriequin batean, zure ondoren ibiltzera, nere JESUS maita-garria? NERE gogoan, orain-daño-

ñoco demboran, bezain sartuac egon behar ote dute, zure Legueac debecatzen dituen, atseguin loiac, emengo irabaci charrac, eta gañeraco, lurrean arquitzen diran, gauza galgarriac?

EZ arren, JESUS maita-garria, ez! Ustu nai dut nic (eta be tatic ala ere) nere bihotz char hau, era orretaco ecer-ez, edo gauza galgarri guci-etatic, zure amorez dena guero beteric uzteco. Ori da, bai, orain, ta beti niri dagoquidana.

EMENGO gauza char guciac emen aitu beharrac dira; ta lenic nic oriec, nere gogotic ez uztera, ustelduco didate nere bihotz hau, ta galduco naute fecula guciraco.

Bi-doaz bada, ta bidoaz lembaitlen, nai duten, lecura. Ez diet nic, ez gaur-guero nere gogoan toquiric eman uste. Zuc izan behar dezu, bai, gaur-guero, zuc, ez bestec, nere JESUS maita-garria, nere bihotz onen, ta nere nai guciaren Jaun, ta jabe uts bacar-bacarra. Zu ba-zaitut nic, vici-nazaño, etzait ecer, ez, mundu gucico beharra, ta gabe gucia nere gain edocein horduz etorria gatic.

ZUC laguntzen didazula, (ta lagunduco didazu, nic ciñez zuri escatu ezquero), pozic eramain dut nic, ori gucia, bai ta gueiago, ta gueiago ba-liz ere; ta, cembat ere gogozago ori nic daramadan, ambat doatsuagoa ni, ambat zori obecoa ni; ta egunen batean atseguin contentu gueiagoz betea! INDAzu bada, indazu zuc nere JESUS maita-garria, onembat doa-tasuneraco, behar dudan, gabea, videa, ta zure laguntza: Bai, arren, bai.

I.

PAUPER SUM EGO, ET IN LAboribus à iuventute mea, &c. Ps. 87. 16.

BEHARTSU vici naz ni, daquizun bezala (erraten dio gaur JESUS maitari, onac bere Aita maita-garriari; ta erraten dio, guri eracutsi naiez, nola hitz-eguin guc Aita berari, behartsu gu, ta gabe arquitzen garan, aldietan): behartsu vici naz ni, nere Aita maita-garria, ta nequepe gogor-etan, jaio nintzan ezquero.

JANGOICO-guizona naz ni, daquizun bezala, ta, guztiz zuc maite nazun, zure Seme lembicico bacarra; ta alere

ere ona non arquitzen nazan ni nequez, ta beharrez ongui urratu-macurtua, ta erdi-auts eguiña!

EZ-pa-nequi nic, daquidan bezain ongui cein maite nazun zuc ni, ta nic ez-pa-nequi, nor zaran zu, ustéco nuque nic, beguſtan arturic naducazula zuc, eta arquitzen zarala zu ni ganaco iraz, ta ſuz betea, ta aſmatzen bide zaudela zu, nondic obequi, ta gogor-quiago galdu dezaquezun nere vicitza.

BAñA ba-daquit, bai, Aita maita-garria, ba-daquit, nondic datorren, hau gucia, edo ba-daquit, gucia datorquidala, niri didazun, cere ongui naietic; eta orre gatic artzen dut nic ere zure icenean, zuri aſeguin eguitea gatic, nai oſoa-requiſn, ta guztiz emequi; ta berebat eguiñen nuque, gaur danic aſi, ta nere azquen horduraño, dena baño, andiagoa, ta andiagoa baliz ere, zuc ematen didazun, nequezco, ta beharrezco nere gurutze hau.

ORRA JESUSec, DAVIDen ez-pañez aldi onetan erraten, edo adirazten duena; ta orra zuc ere cere neque behar-etan cere Jangoicoari erran dezoquezuna. Zuc o ri ciñez cere Jangoicoari erraten ba diozu, ſegurqui maitatuco zaitu zu cere Jangoico beraç; eta maitatuco zaitu, zuc ez uſte, adiña; lagunduco dizu videnabar indar andia-requin, ta zu bertatic izain zara JESUS maita-garriaren zori oneco lagun, behartsu doatſu bat. ALA guerta dedilla; bai arren bai.

2.

DOMINUS DEDIT, DOMINUS abſtulit; ſicut Domino placuit, ita factum eſt: ſit nomen Domini benedictum. Iob. 1. 20.

GOGOZ batec, eta bere Jaunaren icenean daraman, behar-taſuna da, San AMBROSIOc dionaz, virtute gucien Ama, ta ſuſtraia, *parens, generatioque virtutum.* BAcenequien hau zuc, behartſu gaiſoa, neque-pean, ta icerdia ceriezula vici ciñanean, ta alere cere burua, ta cere gain cenituenac ſuſtentatzeco diña, ecin bilduz cembiltzanean? HAU zuc jaquitera, eta hartara zu óhartu izandu ba ciña, eguiñen etzenituen, ez, eguin dituzun, utſac; eta necatu ondoan zu, billatzen cenuen, gauza gabe, ta behartſu arquitzen ciñanean, eguiñen cenuen-

en zuc, JOB Santuac eguin oi zuena.

HONRA-dun abetats andi bat izandu cen bere demboran JOB, guizon Santua; baña, gutien uste zuenean, gabe guelditu cen, ta edocein behartsu, bezain behartsu.

ASALDATU cen orre gatic JOB Santua?

BAT-ere. BETAZAL bat eimurtu gabe, ta, belaunicaturic, agur andi bat bere Jaunari eguiten ciola, erran izandu zuen (cer uste dezu?): sen JANGOICOac emanac ciran, orain Jangoico berac quendu dizquidan, nere hume, ta ondasun guciac! Cezaquenac bezala, eguin du gaur nerequin eguin izandu duena; ta eguin du, gogo zuena, bai, baña dembora berean niri oram onguien dagoquidana: bedeica daquiola bada bere icena, nerequin eguin duena gatic!

ORRA JOB Santuac, cituen, gauza guciac galduac ecustean, erran izandu zuena: ta orra, zori oneco behartsu guciac, era bereco aldietan, gogoz ba-da ere esan behar dutena.

ERRAZU bada zuc ere, behartsu becataria; edo, beharrac, eta gabeac estutzen zaitazten-etan, oroi-zaitez zu ere, Job onac, bere estu-tasun, edo nec-aldi arri-garrian eguin izandu zuenaz; ta, ezaguturic, ala Jangoicoac naiez dotozquitzula cere gabe--beharrac, eta neque guciac, eta orien artean zu arquitzen zaranean, zure Jangoicoac zu gandic nai duena dela, zuc oriec, Jangoico bera gatic, eta JESUSec zure oneraco eraman cituenen alde artzea, artu izquitzu era orretan, ta alic emequiena.

HORDU orietan ori zuc zucen eguitera, eguiten dezu, ederqui len Job onac eguin izandu zuena, cere JESUS maita-garriaren ondotic zabiltza, ta beharti doatsu on-etatic zara, ta zori onean jaioa. Cete Jangoico maiteac dizula, era orretan zuc cere neque-modu guciac eramateco, behar dezun, beraren laguntza, ta gracia: bai arren, bai.

3.

FACILIUS EST, CAMELUM PER foramen acus transire, quam divitem intrare in regnum Cœlorum. Matt. 19. 14.

GAITZ da, ta guztiz gaitz, dio CHRISTO Jaunac, guizon aberats, edo aisa vicidea

den, bat Ceruco Erremu andi eder onean ſartzea, ta Gamelu bat joſt-orratzaren begui, edo cirritu chiquitic igarotzea, bezain gaitz, edo gaitzago.

GAMELUA, eun milla zatitan ceetu, urratu, edo zaticatu, ta baicic, ecin ſar diteque orratzaren begui char chiquian; ta guizon ondaſun-dun aberatſac, Ceruan ſartuco ba-da, eman beharco ditu, dituen, gauzac Jangoico maiteac nai duen, gauz-etaraco, edo zatica, edo nol-erebait; edo Jangoico berac ori ar gandic nai ez duenean, vici beharco du, deus ez-paſu, bezain garbiro, humill, ta mear. ALA ez izatera, arrotuco da, den gucia; loditucо da arazoz, obenez, ta ciquinqueriz; ta ecin ſartuco da Ceruco ate mear, garbi eſtu-eſtutic; erorico da ſulececo putzu arri-garrian, ta an erreco da Jangoicoa Jangoico den artean, edo eternidade guci-gucian.

ERRETze zori gaiſtocoa era onetaco ondaſun-dun gaiſtoaren erretzea! Zori gaiſtoco ibillera, vide macurrez ondaſunen billan dabillenaren ibill-era!

IBILLI ote naz ni-ere noiz, edo noiz, era onetaco paſtu, ta urrats galdu-galgarrietan? ERAGUIN ote didate niri ere, nic neronec nituen, gauzac, eguin behar ez nuquen, lanen bat, edo beſte? ONGUI oartzen ba-naz, ecuſico dut dena, den bezala.

Eta ondaſun-zaleac erortegui limuri gaiſto-etan baldin badabiltza, edo tentacioz tentacio, ta laquioz laquio, San PABLOc dionaz, ta lenago ere guc aditu dugun bezala, ondaſun-dun aberatſac non ibillico dira? Ecuſten dezu.

GAL-ez gaitecen bada gu ere gueren vide-etan, gaur-guero ibilli beharco dugu guc contuz, edo ongui oartuac, eta guztiz ernequi: utzi beharco ditugu gogoz badere, behar ez ditugun, lurreco gauzac, eta, gauz oriec eraguin oi dituzten, obenac, edo culpac. LENAGO ori ez eguinaz; ta, orren lecuan eguinaraco nere oben-culpez dut damu, ta urriqui, ta orain, berriz alacoric ez eguiteco, aſmoan, hitzez, ta bihotzez erratera noa: *NERE JESU CHRISTO, &c.*

(1) *Qui volunt divites fieri, incidunt in tentationem, & in laqueum diaboli.* 1. Tim. 6. 9.

(2) *Heu, quam paucos invenies, qui*

qui ab hoc laqueo, exuirent, se liberari.

(3) *Non est enim Regnum Dei esca, & potus, sed iustitia, & pax, & gaudium in Spiritu Sancto.* Rom. 14. 17.

XXXVII-GARREN OTOITZ-GAIA.

BIGARREN DOATASUNA : *MANSO-TASUN HUMILLA.*

BEATI MITES, QUONIAM IPSI POSSIDEBUNT TERRAM. Ibid. v. 4.

DOATSUAC, ETA ZORI ONECOAC, ASALDATCEN ez diran, mansoac ; oriec dira alabaña lurraren Jaunac, eta Jabeac.

I.

BI-garren doatasun hau guri gal-erazteco, ta JESUSen ondoren ez gabiltzan gu, vici garaño, gogortzen digu gueren etsaiac, eta astuntzen digu, al duen, eran, ta bere indar-modu gucia-requin gure Legueco nequeac ezartzen diguten, gueren gurutzea. BILLATZEN ditu, bere lan gaisto hau laster-ago eraguin naiez, al-dituen, tentatzalleac ; eta, oriequin bere bat eguiñic, ematen digu, norc daqui, cembat aldetatic sua, ta guerra ; ta cembaiten hitzez batzuetan, bertze-etan beste cembaiten charquiz, ta, al duen, gucian, al duen, eran asaldatzen gaitu galgarri gaistoac, bein gañez eraguitea gatic gure animaco eme-tasunari, edo pacienciari, guero guc ar-ditzagun, uzteco obeac diran, lurreco asmoac ; cembait aldiz guri idaroquitzea gatic, behar ez diran, hitzac, edo jolasac ; eta beti, eraguitea gatic, norc daqui, cembat charqueri, ta, lan gaisto, oben, ta culpa. BA-

BAñA eraguiten ote digu etsai madaricatuac bere tent-aldi oriequin berac nai duena?

ASCOTAN beintzat, bai; ta gure malhur andia-requin al-ere! bada anitz dira, aldi-orietan hitzez, asmoz, edo nol erebait asaldatzen diranac, eta etsai gaistoac nai duena eguiten dutenac.

ETA ez ote naz ni ere orietatic bat? NAI ez-nuquen, gauzaren bat aditu, edo ecusi-horduco, ez ote naz asaldatzen ni noiz, edo noiz? Ez ote naz ni aldi orietan cerbait erretzen? EZ ote ditut nic asmatzen noizbait cembait gogoeta lizun, naicunde macur, ta desir gaisto?

EZ ote zait, cembait aldartez, esquer gabeco eran berotzen niri nere mihi galdu hau, al ditudan charqueriac, edo al ditudan-etatic cembait ba-dere norbaiti, edo maldicionen barzuec, eta marmariac eguiteco?

CONTENT guelditu ote naz ni onembat-equin, edo cembait gogoracio uts, edo hitzqueta char-equin? EZ ote diot nic nere etsai galgarriaren tent aldi gaisto-etan gaizquiric eguin izandu oni, hari, edo besteren bati? Ez ote diot nic ucotu izandu niori, etcatzen ciaun, gauza, edo, zor nion, agur, ta hatz-eguite gure Legueco a? Ez ote dut nic, hau, edo hura aucitau sar-eraci, vendecuz, eta cerbait bad-ere gast erázrea gatic?

ETA cer ote da hau gucia?

CER, baicic, JESUSen ondoren dabiltzan, doátsu mansoen videtic atera ondoan, aldebat aurtiquitzea nic, edo botatzea nere Legueco gurutze ona, ta, nere etsai galgarri gaistòac nai dituzten gauzac eguitea?

CER, baicic, CAIN gogor, ta LAMECH vendecari gaistoen lagun eguiñic ni gueroztic guelditzea; oriequin len eguin izandu zuenà, daguien egunen batez nerequin ere nere Jangoico zucenac, eta, orien eran, gal nazan ni ere beti, ta betiraco? ORI da alabaña, ni bezalaco doacabeen ibillerari dagocan, buca-era!

II.

ORREN bucaera gaistotic gu, ta munduco beste guciac atera naiez, deitzen digu guri gure JESUS maitagarriac, doacunde garbia dacarren, bere hume humill mansoen videra; ta, vide onetan

gure Maisu eguiñic, eracusten digu, guc gueren etsaiaren, ta lagun gaistoen tent-alietan eguin behar duguna.

CER eracuste ote da, gure JESUSen eracuste onèn eder ondasun-dun hau? Hau da baquetan gu, ta, elcar onesten dugula, emen emequi vicitzea. ALA vicitu cen JESUS maita-garria, jaio cen, egunetic, ill-arteco bere dembora gucian.

BERE tentatzalleac, eta etsai gaistoac gutitan utzi cioten gueldiric, eta baquetan gure JESUS maita-garria; baña orien ibillerac, orien arazo, ta tentu guciac etzuten asaldatu bein-ere gure JESUSen manso-tasuna, baquea, ta aldarte behar bezalacoa.

GARROCHEZ minduricaco, cecènac bezala, ingurutzen zuten JESUS bere etsa amurratu gaistoac; eta al-ere, iltzera daramaten, ardi bat bezain, issill, mutu, ta manso cegoen JESUS maita-garria, orien adar, atzapar, orro, ta izurri gucien artean! ASERREturic bazter guciac ondatu naiez dabillen, itsasoaren ubeldeac, edo vagac bezain, gaci andiac ciran bere etsai galgarrien escutic JESUSec izandu cituen, nequeac, eta bere Passioneco oñace icerdi-tormentac; eta al-ere orien gucien azpian cegoen gure JESUS maita-garria, alacoric ecusi ez-pa-lu, bezain humil-manso, ta sosegu osoa-requin.

ETA, ala bera egotea guti bai-liz bezala, horduco bere neque-behar-naigabe, ta tormenta gucien artetic, otsegueiten digu guri gure JESUS maita-garriac, eta erraten digu gucioi: NI GANDIC icasi behar dezutena, nere humeac, ez da, ez itsuac arguitzea, macurrac zucentzea, eriac sendatzea, ta gañeraco, nic eguin izandu ditudan, gauz-andiac eguitea, baicic zuec ere nere eran gogoz, ta bihotzez mansoac, eta humillac izatea. Hau da, bai, ni gandic, eta nere Escolan, ta Leguean nere hume onac icasi behar dutena; ta hau, berau da, niri atseguiñic andiena eguiten didan, gauza, ta virtutea. HAU eguiten dutenac, ederqui dacarte, nere eran, beren gurutzea. HAU eguiten dutenac, dira nere ondoren, ta, nic eracutsi diedan bezala, dabiltzanac; eta hau eguiten dutenac dira, zori oneco hume doatsuac, eta lurraren jabe-onac. ADITZEN dezu?

III.

III.

BAñA cer lur ote da gure Jangoico maita-garriac, humil-manſoei, beren manſotaſun virtutetſua gatic ematen dien, lur eder hau? HAU da beinic-bein manſo-humill--beren baitan arquitzen den, bihotza.

NOLA jabetzen dira JESUSen hume humill--manſoac beren baitaco, eta berequin duten, beren bihotzaz? ESCURATZEN dituztela onen naicunde, deſir, ta aztur guciac.

ETA certaco da beren bihotz hau era onetan oriec eſcuratzea? Ondaſun andiac andic ateratzeco, ta Ceruco irabaciac irabacien gain beren vicitzan beti biltzeco.

CER ote da oriec orretaraco eguiten dutena? GARBITZEN dituzte beinic-bein beren bihotz-barrenac, paſsione gaiſto-etatic atera ciran, arantza gogor, ta belar galdu-etatic. MANEATZEN dute guero beren lur hau hilduraz, nequez, mortificacionez, otoiz onez, ta al duten, beſte cembait eraz.

BEREN lan on hau bucatu horduco, ereintzen dituzte virtuteen bihiac, eta ale galantac. Gordetzen dituzte orien loreac, eta buruac becatuaren izotz-etatic, lagun gaiſtoen ortz-etatic, eta ſulececo etſaien atzapar galgarri-etatic; eta Eguzqui eder, JESUS maita-garriaren amorearen beroa-requin, Sacramentu-etatic ateratzen duten, graciaren ezataſuna-requin, ta beren otoitz-etaco jorra--requin zoritzen diranean, biltzen dituzte, ta gordetzen beren animaco gambar-etan, eternidade gucico gloriaren gai-onac bezala.

Beren bihotzen lur hau ez-ecic, ba-dute JESUSen hume manſo humill--doatſuac beſte lurric ere. HUMIL-manſo doatſuen bigarren lurra da, oriequin vici diranen bihotza, naia, naimendua, edo vorondatea.

BAI; manſo humillac beren beguitarte ona--requin beſteen videgabei, ta charqueriei onguiz eranzutea-requin, ta nori nai al-duten, ona eguiten diela, irabazten dituzte gañeraco gucien bihotzac, eta naimendu gucia.

BAI, dio Eſpiritu Santuac, bai, JESUSen eſcolan thumil-taſuna icaſi duten, bihotzac ez dute obenic batere, ez eta char-queriric ere; ta beren ibillera zucena requin egui-

eguiten dute, nai dutena gañeracoen naimenduaz, edo vorondateaz; ta orien, ta beren bihotzez jabeturic guelditzen dira; ta dembora berean jabetzeco daude (onetan irauten dutela) Ceruco gloriaz ere; bada Jangoicoa vici da manso-humillen bihotzetan, ta oriec dira Jangoicoac Cerura daramatzienac; eta beti ondasunez beteac daduzcanac. (1)

ZORI onean jaioa ni, aratzen ba-naz ni-ere, araco nere dembora datorqui-danetic; eta, aratzen ba-naz ni, irabaci ónez, ta Jaunaren ondasunez ongui apaindu betea! Bada ni aratzen nazanetic, atzenduco dira emengo nere nequeac, emen nic, obenic bague, ecusten ditudan, videgabeac, eta charqueri guciac; ez da alabaña atseguin, ta contentua besteric, arquitzen an. An, ara ezquero, guciac dira bat, edo guciac dira elcarren adisquide, ta maitatzalle onac. ARATzen diran, doatsu guciac artzeco daude emengo beren nequeen, ta Jaunaren icenean humilqui eraman cituzten, charqueri gucien irabacia, edo pagu ederra, ta atseguin-glori ecin eztitsuagoa.

AN ez da, ez, emengo negarren damuric bat ere. Emengo gure gurutzeac, emengo gure negarrac, emengo gure icerdi-nequeac, izain dira, an poz andiz gure bihotzac beteco dituzten, gauzac, edo bete-gaiac. Eta emen bertan ere ecin arqui-dezaquegu guc, era orretaco gauzac, behar bezala, ta gure Jaunaren icenean humilqui artzea bezalaco, gauzaric bat ere; bada oriec orrela artzeac artzalle bérac betetzen ditu beren Jaun maita-garriaren amore ónez, ta Ceruco graciaz; ta videnabar eguiten ditu beren buruen Jaun, ta lagunen bihotzen jabe. ECUSTEN dezu cer jabe-cundea, ta cer doatasuna den hau! ta cein billa-garria?

HAU, bada, hau berau da; vendecari char asaldatuac, beren naiez, galtzen dutena; bada gure Jangoico baquezco mansuac amorez, ta graciaz vici nai-ez du, orienac arquitzen diran bezain bihotz erre-nasi sutu-etan; ta Jangoicoaren amoreric, eta graciaric bagueco bihotzac, bihotz, eta lur ciquin galduac dira: Ceruraco onac diran, ondasunic ez dacarten, bihotz-lurrac dira; ta, ondasun orien lecuan, doaqueri andiac, eta malhaur gaistoac, edo oben culpac dacazten, bihotz-lurrac.

ERA

ERA onetaco bihotzac dituzten, galduei cer eran beguiratzen ote die gure Jangoico zucen maita-garriac ? Eta cer ote da oriei eguin oi diena ?

BEGUIRATZE amoriozcoric ez dagote, era orretacoei; ta al-ere, oriez urricalduric, centzaraci naiez dabill gure Jangoico maita-garria, ta deitzen die, bein gogarguiz, bein Predicariz, bein quezcaz, bein alde batetic, bein beftetic; baña, al-ere centzatzen ez-pa-dira, deitzen ditu bere Tribunalera; artzen ditu an ecin gogor-quiago; ta andic azquenean aurtiquitzen ditu fulececo etfai erte arrituen artera, an, fu, ta gar eguiñic, lertzen egotera, Jangoico bera, Jangoico den artean, edo fecula guci gucian. Vicitzaren gaiftoa ! BUCA—eraren charra ! EGO-eraren arri-garria !

EZ JESUS maita-garria, ez arren, neretzat ez orrelacoric! Nere buru--bihotzez jabeturic, eta ondafun andiac irabazten ditudala, ibilli nai dut nic, vici nazaño. IL nadin artean, oñgui nai dut nic etorri lagun guci-equin. Emequi artuco ditut nic, eta zuc cerorrec nai dezun, eran gaurgueroco nere nequeac, eta munauco gucien videgabeac, artan niri zuc laguntzen didazula, nere Jangoico maita-garria.

Oraindañocoan beti nic hau ez eguiñaz dut damu, ta ciñez al-ere; bada ceren hau eguiten eznuen nic, galtzear nituen, nere bihotzaren baque-ondafun-equin batean, zure emengo laguntza, ta nere feculaco gloria. ORAIN, zuc emanic, dudan, afmoan buca ditzadala nic nere egunac, orien ondoren guero, fartzeco ni zure gurutzearen maitatzalle manfo doatfuen artean, ta atfeguin contentuz beteric dagoen, zute Ceruan. BAI arren, nere Jangoico maita-garria, bai.

I.

MELIUS EST HUMILIARI CUM mitibus, quam dividere fpolia cum fuperbis. Prov. 16. 19.

OBE da, bai (dio Efpiritu Santuac); obe da, baquezco humillequin humil vicitzea, arro-tzar-aberatfen ondafun-zatiac artzea baño.

CER dela, deritzazu, arro-rafunezco ondafunac eraguin oi dutena?

ERACUIN oi dituzte JESUS humillaren Legueac debecatzen dituen, anitz gauza.

ETA

ETA, humilqui, ta manso vici diranac, certan ote dabiltza?

HUMILLen lan-etan, ta, JESUSi atseguin eguiten dioten, gauz-etan.

BAñA cer on, edo ondasun ote dacarte humillen lanac, humillen eguitecoac, edo gauzac?

ORIEC dacazte, emen berac vici diran arteco baquea, ta eternidade guci-guciraco gloria.

ETA arro-tzar galduen eguitecoac certan bucatzen dira?

ETERNIDADE bereco erretze, neque, ta pena gogor-etan!

ECUSTEN dezu? ETA ez da obe, ondasundun arrotzar galduen lagun baño, humil on Ceruraco daudenen, lagun izatea?

BAI nere Jangoico maita-garria, bai seguirqui: ta orre gatic artu nai dut nic (eta luzatu gabe) humill-on mansu orien videa, ta nere JESUSen legueco gurutzea. GURUTZE onequin nic orain ibilli nai dut, nere JESUS necatuaren ondoren, atseguin contentuz betericaco, JESUS bera requin egoteco guero beragen aldean, edo Ceruco gloria. ALA guerta dedilla, nere JESUS humil-manso maita-garria, bai arren bai.

2.

CUM MALEDICERETUR, NON maledicebat, cum pateretur, non comminabatur, tradebat autem iudicanti se iniuste. 1. Petr. 2.23.

CERTACO bataiatu ciñan zu, baldin badaquizu, becatari charra?

JESUSen eran emen vicitzeco.

NOLA vicitu cen JESUS, emen gendjartean vicitu cen demboran?

GUZTIZ-zucen, isil, humil, ta manso.

ETZUEN JESUSec aditu bein-ere, etzegocan, hitzen bat, edo beste?

Bai, ta maldicione arri-garriac ere,

CER eguin oi zuen gure JESUSec aldi orietan?

EZ aditu, ta ez erantzun.

ETA ez ote cioten JESUS berari eguin izandu bein ere videgaberic? EZ ote zuten penatu noiz-bait JESUS maita-garria bere etsaiac?

BAI, ta ascotan, ta anitz aldiz ere.

CER eguin oi zuen JESUSec aldi orietan? Hitz gogorrez, errierta mindariz, edo char-

charqueriz bete bere gaizqui guilleac?

EZ-eguiaqui!

CER bada?

San PEDROc diona; ifilchoric, eta guztiz emequi eraman, eguiten cioten, edocein gaiftaqueri; ta bere burua gueldiric iutzi, afmatu, ta eguin nai ciozcaten videgabe, ta neque-modu gucien artean.

ORRA bada batamatu garan, gucioc gure JESUS humil manfoaren efcolan icafi behar duguna. ORRA guc ere era bereco aldietan eguin behar duguna. HAU eguiten dutenac, JESUS maita-garriaren zori oneco hume humil manfoac dira; ta hume, beren bihotzen jabeac; eta Ceruco lur onaz, edo atfeguin gloriaz egunen batez jabetuco diranac.

SAIA gaitecen bada gu ere, orrembat doatafun irabaztea gatic, eta gueren Jangoicoari atfeguin eguiteco, alic emequiena, ta gure JESUS maita-garriaren eran vicitzera.

BAI, JESUS maitea, bai (ta pozic af-ere), zuc cororrec onetan laguntzen diguzula. LAGUN zaquizquigu bada dagui-quezunac bezala; ta lagun zaquizquigu indar andia-requin. Bai arren, bai.

3.

DESINE AB IRA, ET DERELINQUE FAVOREM; NOLI AEMULARI, UT MALIGNERIS; QUONIAM QUI MALIGNANTUR, EXTERMINABUNTUR. Pfal. 36. 7.

VTZ bitez alde bat irac, eta fuac, dio DAVIDec. Certaco da, dio, aferretzea bat, eta eroen eran ibiltzea? BEUDE bada eraqueriac, beude aferretzeac, aurren, to eoren, edo cecenen arteraco.

EZ daquite aurrac, ez daquite eroac, ez eta cecenac ere certan diarduten, aferreturic dabiltzanean; eta orregatic obenic ez-da orien, era orretaco, ibiltzean; baña adimentua duten, guizon-andreac (eta Christioac ba-dira, aguitz obequi) ecus dezaque, cengauza char ittufia den, aurren, eroen, ta cecenen eran, edo erriertan, ta fua, ta garra, ta hitz gaiftoac dan eztela ibiltzea. EZ da ez, era onetacoa, gure JESUS maita-garriac eracuften digun, ibillera. CHURA daraman, humil rafuna galeratzen duen, ibiller eroa da; ta ibiller, fulecera zucen-zucen daramana.

EZ, ez, dio, DAVIDec diona-requin batean, San

PEDRO Apostoluac: ez daguizula zuc, ez, era orretaco char---queriric. VENDECUz eguiten diran, gauzac dira, era orretaco gauza char oriec; eta, vendecuz dabillena, galdua dabill, edo galdu beharra da len, edo guero; ta galdu beharra beti-betiraco.

ETA cer? Emen ez artzea gatic zuc, cere Jaun onaren icenean, ta zure oneraco, naigabe cembait, naigabez beteric vici nai dezu zuc betibeti, ta secula gucian?

AICEAC daraman, hitz gaisto bati erantzutea gatic, gogo gaistoac nai duen eran, nai dezu zuc galdu emengo doa-tasuna, ta baquea, ta, baque-doatsu onequin batean cere Jaunaren eternidade bateco gloria? CENZU gabetu zara zu? GALDU dezu zuc cere ezagumentua, edo cer guertatu zaitzu?

AY ene! guerta cequiquedan, malhurric andiena! NERE barreneco suac, nere irain char galduac, nere colerac gal eraci dizquidate nere Jaunaren gracia, nere Ceruco videa, ta nere irabacia; ta denbora berean eraguin dizquidate, eguin nitzaquen, gauzaric gaistoenac, edo culpac, eta becatuac!

ILTZEN ba-naz ni, oriec nic nere gandic quendu baño, len, nora beharra naz ni?

SULECEra! an beti ta beti erretzen, ta urratzen egotera?

ZORI gaistoan jaioa ni, orren neque arri-garritic ez iguesi-eguitera!

BAñA nola nic andic iguesi-eguin daguiquet?

JESUSen Legueco videratzen nazala.

NOLA ni vide orretara naiteque?

DAMUZ, ta negarrez, ta urriquiz.

ONA bada ni, nere Jangoico maita-garria; ona ni, orain dañoco nere eraquiriequin eguin ditudan, utsac gatic, damuz, ta urriquiz ongui betea; ta ona videnabar ni, berriz era bereco, edo beste utsi-egaiteric ez eguiteco, asmoan, zuc laguntzen didazula, nere asmo onec escatzen dituen, gauzac eguiten. DAMU dut, bai, nere Jaun on maita-garria orain arteco nere oben-culpequin zu aserretuaz; ta, oben-culpa berriric eguiñen ez dudalaco, ta humilmanso vicitzeco hitza-requin, escatzen dizut, eguiñen barcamentua, hitzez, ta biohtzez esa-

esaten dizudala: NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.

(1) *Sapiens cor, & intelligibile abstinebit se à peccatis, & in operibus iustitiæ successus habebit.* Eccl. 3. 32.

XXXIX-GARREN OTOITZ-GAIA.

IRUR-GARREN DOATASUNA: NEGAR ATSEGUIN-DUNA.

BEATI, QUI LUGENT; QUONIAM IPSI CONSOLABUNTUR. Math. 5. 5.

ZORI ONECOAC NEGARREZ DAUDENAC; ORIEC izain dituzte atseguin andiac.

CER negarti ote dira JESUS maita--garriac gaur aguertzen disquigun, zori oneco negarti oriec? MUNDUco negarti guciac?

EZ ori.

CEIN bada?

BEHAR den videz dabiltzan, penatuac, eta Ceruco beren gurutze-pean negar eguiten dutenac.

ERA orretan negar eguiten ote dute, beren deshondraz, beren calteren batez, eta beren beharraz, edo gabez negar eguiten dutenac?

EZ, orretara baicic, oriec beguiratzen ez pa-dute.

CER gatic ez? Ceren orien negar oriec, lurreco negarrac diran, ta gure Jangoicoa urrical-erazten ez duten, negarrac ATSEGUIN andiac irabazten dituzten, negarrac, eta negarti berac zori oneratzen dituzten, negarrac dira, gure Jangoico maita-garriari beguira dauden, negarrac; oriec dira alabaña JESUSen ondoren dabiltzanen gurutze-peco negarrac.

VIDE onetaz, ta Ce-

ruco gurutze-pean dabiltzan, gucien negarrac ote dira vide batezcoac, eta era bereco negarrac?

EZ: irur videzco, ta eraco negarrac dira, aldi onetaco doatsu zori onecoen negarrac; eta orietatic ere batzuec, besteac baño, berez gueiago valio duten, negarrac dira.

BAñA cer vide-modu dira, zori oneco negar orien videac? Oriec dira *Damua*, *urrical-tasuna*, *ta ongui-naia*, edo *amorea*. IRURAC dira Ceruraco vide onac; eta irur-etatic edoceñez dabillenaren negarrac, zori oneco negarrac dira, atseguin-contentu on garbiac irabazten dituztuen, negarrac dira; ta, jorradaric galdu gabe, bein bata, ta bein bertzea ar ditezqueen, negarrac.

ORI-etatic batez, edo bestez gabiltzan beti, ta zucen ibiltzeco, goacen guciac banaca ecustera: ta ecus dezagun bein zori oneco negar-vide damuzcoa, edo cein ote diran, ortic dabiltzan, zori oneco negarti doatsuac.

ZORI oneco negarti, DAMUZ negar eguiten dutenac dira, beren obenac, edo culpac beguitan ongui, ta ciñez artzen dituztenac, eta beren calteen gain negar garbiro eguiten dutenac. ORIEC dira, ongui damuturic, ecusten dutenac, beren obenez, edo culpaz galdu dutela, beren Jangoicoac emanic, zuten, Ceco gracia, ta graciaren edertasuna, ta biequin batean, galdu dituztela Jangoico beraren amorea, Ceruraco escua, ta derecha, ta seculaco gloria; ta dembora berean ecusten dutenac, guztiz aserretu dutela beren Jangoico onguille maitagarria, ta irabaci dutela, beti, ta beti sulecean, galduric, eta nequetan erre-lertuac egoteco gaia; ta, gai hau ez urratzera, edo bere-gain ez-artzera, gure becatarien, ta, guc aserreturic daducagun, bere Aita-eternoaren arteco baqueac eguitea Jangoico-guizon JESUS maita-garriac, galduac garala gu, edo Cerutic betico erbestaturic, sulecean beti, ta beti erretzen egon beharrac.

ONEMBAT beren calte, ta JESUSen neque ecusiondoan, negarrez daudenac dira, bada, zori-oneco damuz negar eguiten duten, negarti doatsuac; eta vide-nabar dira, gueroraco atseguin andiac irabazten dituzten, lendabicico negartiac.

ZORI oneco atseguin orien

orien zale ba-zara zu, eguizu zuc ere negar, ta negar, bihotzez ba-dere, oraindañoco cere oben-culpez, edo zuc cere oben culp oriequin cere Jangoico maita-garriari eguin diozun, atſecabea gatic, eta oben-culpa berequin zuc cere animan ar-eraci diozun, calte arrigarria-gatic; baña eguizu negar, negar demboran artzen dezula zuc, oben-culpa berriac, mundu onetan arquitzen zaraño, ez eguiteco, aſmoa, ta, oben-culpa berriren batera macur centzaqueen, ſartuatera, hirzqueta, joſtatze, edo era orretaco, beſt-edocein gauzetatic, igueſ-eguiteco aſmoa.

AH! nere JESUS maita-garria! pozic eguiñen dut nic nere al-eguiña, damuzco negar ondaſun-dun oriec lembait-len erdiſtea gatic, eta negar oriec eſcatzen dituzten, aſmoac orain bertan artzea gatic. LENAGOTIC orretan ez aſiaz dut damu; ta ciñez alere; bada, hau lenagotic, nic eguitera, lenago utzico, nituen nic, gueroztic eguin ditudan, obenac, eta culpac.

URRA alba-nintza nic, oraindañoco nere demboran eguin izandu ditudan, guciac? URRA al-ba-nintza nic, diran guciac, edo negarrez, edo odolez ba-dere! ODOLA behar ba-liz orretaraco, bertatic emain nuque nic, nere zañetan arquitzen den, guci hau, zuc ala nai-izatera.

BAÑA obea da onetaraco, JESUS maita-garria, zuc iſuri cenuena; ta orrequin urratu behar dituzu, diranac, edo jautu, ta garbitu behar didazu nere anima, orain-dañocoan nic eguin ditudan, oben culpa gucien loi galdutic; eta, berriz loitara ez nadin ni, eman behar didazu zuc cere eſcua, ta laguntza; ta eraman behar gaituzu damuzco vide negarti on eder onetatic. EZ dugu gutiago uſte zure piedadetic! EZ JESUS maita-garria, ez.

II.

ERA onetaco damuac idaroquitzen dituen, negarrac negar onac dira, ecuſi dugun bezala; baña obeac dira, urricarizco bigarren negarrac.

BEREN obenac damuzco negarrez ongui quendua gatic, ez dira cembait on negarrez aſetzen; negar, ta negar daude gueroz, ta gueroz ere, ta beren vicitza gucian.

CERI gatic ote dira orien quezca-negarrac?

Negar oriec dira, gañeraco becatari gaiſoac beren obenez dituzten, damu, ta cal-

calte arri-garriac gatic, eta ceren becatari berac, beren obenculp-equin naigabetzen diten beren Jangoico guztiz maitagarria. ETA orre gatic dira urricarizco negarrac.

BEREN Jangoico maita-garria maite dutenac, ez luquee nai, niorc leguion Jangoicoari videgaberic bat-ere; ez eta, bere videgabeac gatic, nior gal-ledin ere. ETA ecusten datenean, galduac arquitzen dirala, becatupean arquitzen diran, guciac; eta beren becatuac gatic aguitz aserretua daducatela beren Jangoico zucen maita-garria, beren cargape gaistotic atera naiez becatari gaisoac, eta videnabar orien Jaun aserretua palacatzea gatic, asitzen dira negar, ta negar, beguiz, ta bihotzez, edo bihotzez ba-dere; ta escatzen diote beren Jangoico, gaistoen charqueriz aserretua-ai, ez duela cer bere aserretzalleei beguiratu; beguira dezola bere prestu-tasunari; ta, ecusiric, ecusten duen bezala, bere gaista-guiñen ecer-eza, eracus diezatela beren becatu beltz arri-garrien itsusi tasuna; uqui ditzala graciaz (baña bortizqui) beren bihotzetan, damu daquien gaizqui eguiñaz, ta esca, ta erdits dezaten beren, hordu-rañoco, gaista-querien barcamentua, ta, gaizqui ibilliz, galdu ciruzten, Jangoico beraren gracia, ta beren Ceruco videa.

ONETAN hari diranen negarrac, lagun-urcoei, edo proximoari ongui naiez itsurtzen diran, negarrac dira; ta negar, becatuen damuzco negar-equin garbituac arquitzen diran, begui-etatic datocenac, edo ongui-naiezco negarrac; eta orre gatic dira, urricarizco negarrac; eta damuzco negarren gain, cerbait on dacarten, negarrac.

ZORI oneco negartia ni, negar eguiten ba-dut nic ere, nereac gatic ez-ecic, besteren becatuac gatic ere, edo, beste becatariac Jangoicoari eguinen dioten, atsecabeen alde; bada era orretaco nere negarrac urrunduco naute ni becatu berri etatic; arinduco naute ni nere Ceruco videan, viciro, ta erraz ibiltzeco, ta egun oro itabacico derezquidate atseguin contentu garbi andiac, eta glori-zati berriac HAU ez galtzea gatic ba-dere, saiatuco al-naz ni, era onetan ere negar eguitera, ta nere urricarizco gurutzea-equin JESUSi jarrai-quitzera!

III.

III-

DAMUZCO, ta urricarizco negarrac baño-ere, aguitz obeac dira, irur-garren negarti doatsu, Ceruco videan dabilzanen negarrac; dira alabaña, gueiago, ta gueiago gure Jangoicoa maitatu naiezco negarrac, edo dira negar amorezcoac; eta Jangoicoaren amorea da, virtute gucien artean, oberena.

ECUSIRIC bada anima garbi virtutezcoac, emen vici diran artean, beren loac, beren nequeac, beren lan-eguin-beharrac, eta beren beste anitz gauzac quentzen dietela, behar bezala, beren Jauna maitatzea; ta ezaguturic maitatze era onetacoaren ondasuna, ta valioa, asitzen dira negar ta negar, emendic atera naiez; ta escatzen diote bein, berriz, ta ascotan ere beren Jangoico maita-garriari, urra ditzala lembaitlen emengo orien vicitza charraren cateac, eta eraman ditzala maitatze utsaren toquira, edo bere Cerura; maitatu nai dutela Jaun bera gau, ta egun, ta eternidade gucian ere; ta maitatu nai dutela, beren maitatzetic bein ere guelditu gabe: ecin daguiqueela hau, nai bezala beintzat, usteldu beharra den, beren gorputzetic atera artean: ta atera ditzala lembaitlen, ta tricatu gabe. ETA, hau erditsi artean, gucia da negar, nai, ta suspirio orien vicitza.

AH cer negarrac, lan onetan hari denaren, negarac! AH cein urrats, eta pausu arin-luceac, JESUSen ondoren era onetan dabiltzanen urrats pausuac! CEIN ederqui daramaten beren negarrezco nequeen gurutzea, era onetaco asmo-etan dabiltzan, animac! CEIN atseguin goisoac, noicean bein beren bihotz-etan JESUSec oriei sartzen diezten, atseguiñac!

NOIZ izan behar ote ditut nic ere nere negar era berecoac? BAñA izain ote ditut nic oriec bein ere? BEIN ere, orain-dañocoan baño, gogoticago maitatzen ez-pa-ditut nic nere atsecabeac, nere deshondrac, nere hildurac, eta nequeac! BEIN-ere, uzten ez-pa-ditut nic lurreco nere asmoac, lurreco nere hitzqueta macurrac, jostatze lizunac, eror-toquiac, eta becatuac!

ORAIN dañocoan bezala, utsez-uts nabillen bitartean, quezca utsac, eta naigabeac arquituco ditut nic nere bihotz char galgarri onetan. ETA zori onecoa ni, nere ne-

neque--naigabe oriec idiquicerazten ba-dituzte nere beguiac; ecusiric nic horduan badere orain-dañoco nere ibillera gaistóac, atera nadin ni nere contraco vide-etatic, eta sar nadin ni, bein nere be catuen damuzco vide zuceneau, guero urricarizco obean, ta azquenean nere Jaunaren amorezco on-enean. Jaun berac didala, artaraco behar dudan, bere arguia, indarra, ta laguntza. Bari arren, bai.

I.

VÆ VOBIS, QUI RIDETIS NUNC; quia lugebitis, & flebitis.
Luc. 6. 25.

ZORI gaistoan jaioac, dio JESUS maita--garriac, emen lurrean irriz, ta contentuz vici diranac; bada negar, ta negar egon beharrac dira eternidade gucico demboran. ORIEN emengo farirriac; orein emengo atseguin char lizun galduac, quezcac, ta naigabaec, emen bertan ere nastu oi diran, gauzac dira; ta ala nastuac ez izan arren, orien azquen atseguinari darraico berico dolua, berico negarra, ta tormenta.

GAISTOEN emengo irriac aguer-erazten ditu orien órtzac: eta orien ortz berac carrascadaca, ta elcarren ersai--eguiñic egon beharrac dira sulececo pena gogorretan. Emen atseguin adiña, ta anitz, eta anitz neque, ta negar gueiago eraman beharrac diran sulecean emengo atro-tzar arineroac.

BEREN gogara, ta irri-atseguin anitzen artean vici uste zuten oriec anitz demboraz; baña, uste ez duten, egun batean artuco ditu beren eriotzac; eta artuco dituzte oni darraizcon, seculaco goseac, seculaco negarrac, eta seculaco suac; eta artuco dituzte, berriz ez uzteco beren atzapar gaistoen artetic.

EGUN beltz illun, egun arri-garria, onembat negar-penazco eguna! ETZAITZATELA, ez arren, ecusi, ez egun; ta ez seculan nere beguiac! ZU ez ecustea gatic, pozic egoin nintzaque ni negar, ta negar, edo nere culpen damuz beteric, vici nazaño! Betorquit emen edocein gurutze, ta neque gogor: ta, pozic ni, nere neque gurutze guci-equin ibillico naz JESUSen ondoren gaur-danic asi, ta nere azquen horduraño, ala badere niri didan, nere Jangoico maita-garriac, gañeraco or-

re-

netan dabiltzanei eman oi dien, doatasuna, ta gloria. Didala BADA; bai arren, bai.

2.

VIDENS CIVITATEM, FLEVIT super illam, dicens, &c. Luc. 19. 41.

ETZUEN gure JESUS maitagarriac farraric, edo irriric eguin beñ ere, guc daquigunaz, beintzat, dio San BASILIOc, jaio cenetic ill arteco bere dembora gucian; baña ba-daquigu guc, eguin izandu zuela negar ascotan, ta anitz aldetara ere; ta beín beintzat urricariz, JERUSALENi beguira cegocala, ta, dembora berean erraten zuela: AY, nere erri maitea, ta ay! ezagutzen ba-cenu zuc, araguiz jauntziric emen orain aguertzen zaitzun, cere Jangoico hau, etzenituque zuc onequin eguiñen, ez eguin uste dituzan vide-gabe, lan gogor, ta charqueri gaistoac!

ITSUTU zara cerez, edo zuc cerorrec nai dezula, ni bezain, argui eder hau ez ecusteco; ta ez dituzu zuc cere beguiac idiquico, Erromaco gendeac etorri direcen artean, zure murruac, zure dorreac, eta zure icheac, eta bazterrac ingurutzera, ta estutzera, ta urratzera!

URRATUCO dizquitzute, bai, diran guciac; eta urratuco dizquitzute, arri bat arri gain uzten ez dizutela; ta era orretan oriec orrela urratuhorduco, illen derezquitzute millaca, ta gun milaca ere; or horduan arquituco diran, zure HUMEAC! Orra JESUSen horduco hitzac, eta urricarizco negarrac.

BAñA nor gatic, edo noren gain ote ciran, JESUSen horduco negar-hitzac? EZ ote ciran, ni gatic, edo nere gain ere! EZ ote naz ni, nere JESUSez azturic vicitu den, JERUSALEN bat, edo anima? Eta nola vici ote naz ni egungo egun berean ere? AISA, quezcaric gabe, ta etorqui zunaren beldurric ez dudala?

ETA onetan ni nagoela, ni ganatzen ba-dira nere eriotza, nere etsaiac, eta nere contu galgarriac, certan, edo non guelditu beharra ote naz ni? GEK guerta ere; goacen, nere anima, goacen gure JESUS maita-garriari escumuñ behar bezalacoac, eta agur andiac eguitera.

BAI, nere JESUS maita-garria, bai, ta pozic ere. ATSEGUIN dut nic, bai, zu orrela orain ecusteaz! NEGAR-

REz zaude zu, nere JESUS maita-garria; negarrez zaude zu, ta dembora berean zaude niri beguira!

EGUIZU negar, bai; ba-dezu cer gatic; bada cere gain artuac daduzcatzu nere becatu guciac; eta becatu oriec escatzen dituzte, zureac bezalaco, negar eder batzuec!

EGUIZU negar, bai, nere JESUS maita-garria, oraindañoco nere eraqueriez, ta nere oben-culpa guciez. ZU negarrez ecusteac bigu-induco du aguian nere blhotz, arri bat baño, gogor-ago hau, ta ar-eracico dio, orien behar bezalaco damu-urriquia.

ALA guerta dedilla, JESUS maita-garria, ta guerta dedilla videnabar, ni negar, ta negar nere, ta munduco becatu guciez beti vicitzea, vicitzeco guero ni, zu-requin batean, zure Erresuman, edo Erreinuan; ta vicitzeco an, atseguin-contentuz bete betea: bai arren, bai.

3.

FUERUNT MIHI LACRYMÆ meæ panes die, ac nocte, dum dicitur mihi quotidie, ubi est Deus tuus? Ps. 41. 4.

NEQUEtan nabill ni goizarrats, eta egun gucietan; ta, era onetan ni ecusten nautenac, diote, dio DAVIDec, non ote daoil, non arquitzen ote da, edo cer eguiten hari ote da zure Jangoicoa? HAU nic aditze onec lurreco nere neque gogorrac, eta, nere Jangoicoa ecustera, ecin ni bertatic, edo lembaitlen iganac, erdiratzen didate niri nere bihotz hau gucia; ta dembora berean uzten naute ni, deus-bat eguiteco, gogoric ez dudala; ta bitarte gucian nic eguiten dudan, jan-edana da negar-ta negar eguitea, ta Jaun onaren billan ibiltzea; ta ibiltzea, nere Jaun on hau ecin arquituz, berand-etsiric bezala.

AY! cion DAVIDec berac bertze batez, ta AY ENE cion! ta cein luce gogor-nequezcoa den, emengo nere vicitza! Erbestaturic, edo desterraturic arquitzen naz ni emen, lurreco nere vicitza negarti neca-garrian! Nere Jangoicoaren Cerua da nere erria, edo nere vici toquia! Andic urruti vici naz ni, aspaldi gucian! Anitz galgarri gaistoren artean vici naz ni, ta nequez, nazan, hau beteric ambat demboraz! BAñA, ditudan, gucien artean nere nequeric andiena da bertatic nic ecin ecusia nere Jangoico maita

ta-garria ! NOIZ artean iraun behar ote dute, bada, emengo nere nequeac, emengo nere vicitzac, eta nere Jangoicoa nic beguiz begui ecin ecusi onec ?

ONELA hitz-eguiten zuen DAVIDec, negarrez beguiac ederqui bereac ceduzcatziela. GUISA berean ciarducaten beste Santuac, eta gañeraco Jaunaren cuñezco maitatzalleac, emen vici-ciraño.

EZ naz arritzen, bacequiten alabaña oriec guciac, cein vicitza charra den emengo gure vicitza, ta cein oneder-maita-garria Ceruco a!

BA-nequi hau berau nic ere, berebat naico nuque; ta, ara artean, beti-beti egoin nintzaque negar, ta negar, orien eran, ni ere.

AH ! zori oneco negar goisoac ! NARAGO cinduz quec nic zuec, munduco far-irri, ta atseguin guciac baño ! Zuec zaraste alabaña JESUSen ondasunac; eta ondasun, indietaco perlac, eta urre cillarac baño, aguitz gueiago valio dezutenac ! NOR zuez jabetu litequen, edo bertatic, edo beintzat anitz luzatu gabe!

NOR ? Edocein baldin berac bertatic beguitan artu nai ba-ditu lurreco atseguin lizunac, eta videgabeac.

BAI ? Ona bada ni, orretaraco prest, Ceruco negar ondasun-dun oriec gatic. ONA ni ongui damuturic, lenago beguitan ez artuaz gauza, nere animaren galgarri guciac, hitzez, ta bihotzez erraten dudala : *NERE JESU CHRISTO, &c.*

XXXIX-GARREN OTOITZ-GAIA.

LAURGARREN DOATASUNA : *ZUCEN-TASUNAREN GOS-egarria.*

BEATI, QUI ESURIUNT, ET SITIUNT IUSTITIAM, QUONIAM ipsi saturabuntur. Math. 5. 6.

ZORI-ONECOAC JUSTICIAREN GOS-EGARRIZ, TA ansiaz daudenac: bada aseac izan behar dute oriec guciac.

CEr dela, deritzazu zuc, Ceruco Justici, Jangoicoaren lau-garren doai onen ecarle hau? Eta cein dirala Justici onen gose-egarri diranac?

JUSTICI hau da Ceruco ZUCEN-TASUNA, ta VIRTUTEA; ta Justici onèz ase nai dutenac dira, zucen ibilli nai duten guciac, eta virtutez virtute dabiltzanac. Eta era onetan ibilli nai dutenei (baldin ciñez hau oriec nai badute) eman oi die beren Jangoico maita-garriac, beren jan-edana; ta jan-edan onequin asetzen dira, berac nai bezala.

BAñA janari on onen billan dabiltzanac, gurutze-pean dabiltza, ta JESUSen ondoren; ta, sartu nai ba-dezu zuc ere orien artean, atoz, nor diran oriec, eta nola dabiltzan, ecustera.

ZORI oneco, gose, ta egarri onelacoz beteric daudenetatic dira, BEINICBEIN beren Jauna-requico, ta elcarren arteco zucen-tasuna billarzen dutenac; edo eguiten dutenac, beren Jaunac bere Leguean manatzen diena, naiz Jangoico berari dagocana dela, oriec eguiten dutena, naiz dela lagun-urcoari dagocan, eguitecoa.

ZORI oneco ori-etatic izain zara zu ere, zu ere cere Jaunaren gauzetan, ta lagun guci-equin zucen ba-zabiltza; edo

edo zuc ere zucen eguiten ba-dituzu cere Jaunaren gauzac, bai-ta gañeracoac ere. Eta, ala eguiten ba-dituzu zuc oriec, zuri emain dizquitzu, bai, cere Jangoico maita-garriac, zure gose-egarri ónac escatzen dituzten, ondasunac; eta aseco zara zu ere, Ceruco Justiciaren, edo zucen-tasuuaren goseti onac ase oi diran bezala.

GOSETI on-ase orietatic beretatic DIRA, egunez egun, edo, atzo baño, gaur obequi beren gauzac eguin naiez arquitzen diranac; eta, al-ere, beldur diranac, onguien-onguiena, beren ustez eguiten dituztenac ere, utsez beteac arquitzen dirala, edo ez beintzat behar den, eran eguiñac.

ECUSI zazu orain zuc, onembat contu-requin, ta onen zucen eguiten dituzun zuc cere gauzac; eta al-ere iduritzen zaitzun, ez dezula zuc bat bacarra eguiten ongui, zucen, ta, behar den eran, ta orre gatic egun oro arquitzen zarala zu virtute, ta zucen-tasun aguitz gutiago-requin. ORREtan ba-zaude zu, ta leneco cere utsac atera naiez, zori-oneco bigarren goseti, ta egarti-etatic zara, ta beren gutuze ona-raquin JESUSen ondoren zucen dabiltzan etatic.

IRURgarren gose-egarti doatsu on-etatic dira, nai luqueenac, berac ez-ecic, gañeraco guciac ere leguiten betita bein ere, utsi-eguiten ez-dutela, beren Jaunaren Legueac manatzen, ta aguertzen diena.

ORI-etatic zara zu ere, hitzez zuc, eracutsiz zuc, emanez, exemploz, ta, al dezun, aldetic laguntzen ba-diezu, zuc, ori bera eguiten, zu-requin dabiltzanei, ta ecusten zaituzten, guciei; ta, zuc hau eguiten ba-dezu, etzara zu sartuco an, ez, bacarric, eta lagunic bague, cere Ceruan zu sartzen zaranean: ta, an sartu ondoan, esquer onac artuco dituzu, bai, cere lan on, ta irabaci andiac gatic ez-ecic, zuc ondu cenituenen, edo zu gatic ondu ciran, lagunac gatic ere.

LAURgarren gose-egarti doatsu on-etatic dira, Jangoicoac escatzen diena baño, gueiago, ta gueiago ere eguin nai dutenac, edo hastel-egun-etan ere, al dituzten, mezac enzuten hari diranac; maiz, eta contuz confessatzen diranac garbiro; ederqui, ta humil-tasunez beteric Aldareco Jaun andia artzen dutenac; eta, egun ori-etan,

ta

ta al-duten, beste gucietan ere Elizara, Jaun hau an ecustera, agur andiac au oni eguitera, urbiltzen diranac;eta era bereco, edo beste devociozco gauz-etatic, eguin bague, bat ere, al duqueela, uzten ez dutenac.

EGUITEN dezu zuc ere hau gucia? Eguiten dezu zuc eguiteco onen laurdenic ere? Ez? Zure galgarri alfer naguia! EGUNEN batean damutuco zaitzu, garai onez zu ez artaratzera; edo zuc, ori gucia ez-pa-dere, Ceruraco behar den, adiña ez eguitera.

BA-dira, gose onez, ta egarriz bereac dauden, BESTE CEMBA[illegible] ere. ORIEC dira, lurra bere gauz-equin beren oin nera ecarri dutenac. ORIEC dira lembaitlen Jangoicoaren Ceruco maiera, edo ango atseguin---contentu---etara igan nai luqueenac; eta beren araco igate hau erditsi naiez, ta bertatic, eta beti beren Jangoico berari atseguin eguitea gatic, egun oro beren gauzac obequi eguiten dituztenac.

II.

ZORI oneco gos-egarriac dira, ecusi ditugun, bost gende modu oriec dituztenac. NAI-ta-ez neque andiac dacazte, era ori-etan dabiltzan, gendeen gos-egarriac; baña dacazte neque, JESUS maita-garriac aguitz arintzen dituenac.

NOLA arintzen dituela, deritzazu zuc, gure JESUS maita-garriac, zori oneco gos-egarri oriec dacazten nequeac?

ARINTZEN ditu, beinic-bein, arguiro eracutsiz, nola ar ditezqueen, artu, edo eraman beharrac diran, aldietan.

ARINTZEN ditu, bai, JESUS maita-garriac, Justiciaren gos-egarrizco neque onac, JESUSec berac eracusten diguna-requin; bada arintzen dira nequeac, oriec nola eraman, norbait eracusten hari denean; ta bere lan, edo eracuste on onetan haritu cen JESUS, jajo-cen, hordutic azqueneco bere asnase-rañoco demboran; bada bere dembora gucian eguin cituen JESUS maita-grrriac bere gauzac, naiz errazac izan, ta naiz nequezcoac, deusetan ere utseguiten etzuela, ta dembora berean eraman cituen, ecin-emequiago, berac baicic, ecin eraman citzaqueen, nequeac, eta penac: eta hau gucia cen guri eracustea, nola guc eraman, era bereco gueren nequeac.

BAI; gure eracusle eder.

eder JESUS maita-garria jaio cen, daquizun bezala, otzez, icaraz, bere bihotzeco naigabez, ta beharrez betea. ODOLTU zuten andic lafter, edo zortzi-garren eguneco, bere Circunci-fioco canibeta-requin. ERAMAN zuten negu-erdian, mendiz mendi, Igyt-artera. ANDIC itzuli horduco, edo bere aur demboran JERUSALENen ibilli cen JESUS cembait egunez, galduaren eran; ta bére predicuco azquen urte-etaraño neque, ta icerdi vicitu cen beti JESUS maita-garria.

BERE predicuco demboran aguertu zuen JESUS maita-garriac, vicitz on bat-eraco guztiz ederra den, Legue berri bat; baña Legue, ESCRIBAC, eta FARISEO tzarrac ecin ecusi zutena; ta orre gatic artu zuten beguitan JESUS guiza-tzar oriec; asmatu cituzten, JESUS gal-erazteco, norc daqui, cembat guezur, ta gauza; ta milla ista, irri, tormentu, ta nequeren buruan, eman cioten JESUSi gurutzeco eriotz guztiz arri-garri bat.

ORRA, bada, cembat den, gure JESUSec, bere Aita jaungoicoac nai duena, zucen eguitea gatic, izandu zuen gos-egarria, ta gurutze neca-garria; eta orra videnabat guri JESUS berac eracutsi izandu ciguna, beraren iceneco gos-egarriac gurutze astunac, edo nec-aldiac aguertzen diran, hordu--etaraco. ZORI onean jaioac gu, guc hordu orietan eguitera, JESUSen eracuste eder oni, ta guri gueroi dagoquiguna!

AISAGO guri gueren lan hau eraguin naiez, nola eguiten den, eracutsi ez-ecic, eguite berean ere laguntzen digu guri gure JESUS maita-garriac; eta laguntzen digu, idiác idiari uztarrian adiña, ta aguitz gueiago; ta orre-gatic uztarri leuna da, dio berac (eta ecin esan dezaque JESUSec eguia baicic), eta neque ariña, nere ondoren dabiltzan, gòs-egartiac artzen duten, neque-uztarria.

OTE daquizu zuc nola leuntzen, ta arintzen digun guri gure JESUSec gueren Legueco uztarri, edo neque hau!

LEUNTZEN, ta arintzen digu BEINIC-bein graciaren indar andiac ematen dizquigula, indar ori-equin bateau guc errazqui, ta aisa daramagun hau, aur batec ere eraman oi duen bezala, aurrari dagoçan, edocein gauza,

gauz

gauz hau daramanean, ez bacarric, baicic guizon indartsuren bat-equin batean.

BI-garren lecuân leuntzen, ta arintzen digu guri gure JESUS maita-garriac gueren. Legueco neque--uztarri hau, Ceruco ondasunez, irabaciz, ta merecimentuz betetzen gaituela gu gueren ani meran.

IRUR-garren lecuan leuntzen, ta arintzen digu guri uztarri bera, Animaco poz ederrac, eta atseguin andiac noizean--bein ematen dizquigula.

LAUR--garren lecuan leuntzen digu, deitzen gaituela bere Comunioco maiera, an emateco guri, guc artu-al, adiña gracia, contentu, ta gusto. Eta aldi-orietan, ta beste cembaitez ere, adirazten die JESUS maita-garriac, beraren hitz emea aditu nai dutenei, bere Ceruraco daducatziela, gloriaz aseric, eta nequeric gabe, an, bèra berá den artean, edo secula guci--gucian iduquitzeco, era orretan, edo JESUS beraren eran emen oriec vicitzera, vici diraño.

EZ dezu ecusten, cein ederqui aseac uzten dituen gure JESUSec, beren gurutzearequin, ta Ceruco Justiciaren gos-egarri-equin haren ondoren dabiltzanac? EZ dute, ez era orretaco asetzeric emengo beren Nagusi-etatic, itsasoan dabiltzan, Mariñelac, Lurreco Soldaduac, alor-etaco languilleac, eche-etaco necazariac, eta, besteren pean dabiltzan, gañeraco guizon-emacumeac; bada, andiena duenac ere, vici den demboracoa du, ta lurrecoa, emengo bere ase-era, edo asetza; ta orre gatic du atsecabez, ta quezcaz betericaco asetza; baña, JESUSec bereei ematen den, asee-era, edo asetze garbia da, naigaberic bagueco asetzea da, ta beti, ta betico asetzea.

OTE cenequien zuc hau, orain-dañoco, cere dembor-etan?

ONGUI beintzat, ez segurqui! bada, zuc hau lenagotic ongui jaquitera, eguin izandu dezunetic, beste vicitza eguiñen cenuen, bai; ibilli zaranetic, beste guisaz ibico ciñan zu; ibillico ciñan alabaña, cere gogoa gueroco gauzetan ongui sartua cenerabillela, ta, bere gogoa ala daducanac, eguin oi dituen, eran cere gauzac eguiten cenituela.

ORAIN ba-dere idiquitzatzu zuc cere beguiac. BEGU-

GUIRA eguiozu, bere gurutzea-requin aitziñean doaquizun, cere JESUS maita-garri, ta ecusico dezu, bere Aitaren ¡gauzac ongui eguin naiez, ta munduco guciac zúcen-eraztea gatic, gosèac dabillela JESUS, ta egarriz, edo nequez, ta nequez betea.

JESUSen eran necatzen denac, noicean-bein ba-dere, ba-ditu, bai, bere animaco atseguin andiac, eta oriec baño ere, andiagoac dira, gueroraco beràc uste dituennac; bada gueroco Justiciazco gosegarri onaren atseguin oriec iraun behar-dutè beti, ta beti: baña ez, orain oriec dituen aren nequeac, eta gos--egarriac; emengo gos-egarri, ta neque guciac laster bucatu beharrac dira alabaña; bada, luceenaz ere, bucatuco dira emengo gure vicitza-requin batean.

EGUIZU bada gaurguero zuc aldi-onetan zuri cere JESUSec eracusten dizuna. Zabiltza beti cere burua ontzen--ta ontzen, ta lan orretan lagun eguiezu, al-dezun, lagun-urco guciei, baldin nai ba-dezu zuc, eman daquizun emen atseguin andi-garbi--eder bat; eta guero eternidade gucian bucatzen ez den, ta aguitz andi-ederragoa den, Ceruco gloria.

ZORI onecoa ni, ni orretan ibiltzera! IBILLI naiez nago, bai; ta ibilli nai dut, vici-nazaño. JESUS maita-garriac didala, nere oraingo asmo hau galtzen ez dudala, nere egunac bucatzeco gracia. Bai arren, bai.

I.

ANIMA ESURIENS ETIAM AMARum pro dulci sumet. Prov. 27. 7.

BERE burua ondu--naiez dabillen, anima, JESUS necatuari beguira dagocan, anima da, edo, nequez beteric, eta bere gurutze-pean JESUS ecusten duen, anima, ta nai--ecuste onequin, ta, era onetan dabillen, anima, nola nai izuzten ez den, anima da; ecusten du alabaña onelaco animac, nor den JESUS necatu maita-garria, ta nor gatic den JESUSen ibillera; edo ecusten du, JESUS maita-garria dela Jangoico-guizon ecin andiagoa; ta Jangoico-guizon, gure anima gaisoen amorez milla nequetan sarturic arquitzen dena; ta bere Jangoico guizona, era onetan ecusi-ezquero, cer anima ez da saiatuco, al duen, eran erantzutera, onèn amore ecin andiagoari; ta Jangoico--guizon be-

rac daraman, videz berari jarrait-quitzera, naiz dela, den gogorrena, Jangoico-guizonac daraman, videa?

ORRE gatic dio Espiritu Santuac, ondu naiez, ta bere Jaunaren ondoren dabillen, animac ez duela min-tasinic arquitzen, gauzaric miñen-etan ere, edo eguiten duela laster, ta tricatu gabe edocein gauza, naiz dela den, gogorrena, bere Jaunac nai duela hau, ezgutu sezqueto.

ORRELA eguiten ote dituzu zuc ere cere gauza guciac? Eta eguiten ote dituzu bein, ta berriz, ta beti?

EZ eguiaqui, nere Jangoico maita-garria! EZ eta erdietan ere! ORRE gatic nabil ni, nabillen etan, edo ondu gabe, ta utsez uts.

ETA orain certan guelditzen gara gu, nere anima? Ondu naiean? JESUSi zucen, ta guelditu gabe jarraiqui naiean? Bai? BAñA beguira: beste guisaz ibilli, beharco dugu guc, ala izatecotz.

BA-daquit, bai hau gucia, nere Jangoico maita-garria; ta al-ere nai ditut eguin (ta contuz, ta beti), nere ibillera berri on onec escatzen dituen, gauza guciac; eta, oriec era orretan eguitea gatic, eguin uste dut nic, nere JESUSec nai duena. ALA didala berac (eta emain dit nic ciñez escatu ezquero) orretaraco behar den, bere laguntz andia, ta anitz gracia: bai arren, bai,

2.

SICUT VESTIMENTUM, SIC COmedet eos vermis... Salus autem mea in sempiternum erit, & justitia mea in generationes generationum. Isai. 51. 8.

EMEN goseric ecusten ez dutenac; emen, nai adiña, jan, ta edan eguiten dituztenac: emen aisa, ta aseric vici diranac: emen gogoác ematen diena, eguin oi dutenac, eta, nequetan dabillen, JESUSi beguiratzen ere ez diotenac, nola vici behar ote dute, urrengo vicitzan, ta eternidadean?

AH gaisoac! Beren barreneco errac, edo ar ozcari amurratuac, emengo ar charrac, soñecoa urratu oi dueten bezala, beren bihotzac urratzen-ta-urratzen dieztela! Ah gaisoac! quezcaz, ta quezcaz beteac, sutan erreac, eta, neque, ta pena baicic, ez dirala! VICITZAren galgarri madaricatua! ZOAZ, hordu gaisto an,

toan, nai dezun lecura, edo, seculan nere beguiac ecusico etzaituzten, toquira.

Eta zucen-tasuna, edo Ceruco Justicia, ta gure Jaunaren Legueac diona billatzen, ta eguiten dutenac, emen nola vicitzen ote dira?

VIRTUTEZ aseac, eta gueroraco irabaci andiac, eta guztiz ecuscariac eguiten dituztela.

Eta guero, edo emendic atera ondoan certan guelditu beharrac ote dira, era orretan vici diranac?

ZORI-oneco doa-tasunean, edo atseguin utsezco, ta gloriaz betericaco, vicitzan, ta eternidade gucico laurdario, ta benedicione ecin obe-etan. Hau da Jangoicoac berac bere Profeta ISAIAsen ezpañez, orain adiraci digun, eguia.

BUCA-eraren, ta ego-eraren gaistoa, gaistoen bucaera, ta, adiraci zaicun, seculaco orien ego-era! ETA vicitzaren ederra, ta eternidade-co doa-tasunaren zori onecoa, zucen dabiltzanen vicitza, ta orien-daco Jangoicoac gorderic daducan, seculaco doa-tasuna, ta beti-berico gloria!

BA-dut orain, bai, badut nic ere zuen bien, behar den, eraco berria; ta eroeguia. nintzaqne-ni, nic bertatic ez artzera, azquenecoen, edo, behar bezala, dabiltzenen vicitza, videa, ta gos-egarria.

ARTU nai dut, bai; ta ciñez, ta gogoz al-ere, nere JESUS maita-garria! NAIAGO ditut nic gaur guero zure Legueco gos-egarri neca-garriac, mundu eroaren asetze, ta atseguin guciac baño. ZUC emana da, bai segurqui, orain nic nere baitan arquitzen dudan, ongui vici nai hau ere; ta, gal ez dezadan, beste, lenago zuc emanicaco, cembait bezala, eman behar didazu anitz laguntza, ta gracia: Bai arren, JESUS maitea, bai.

3.

VÆ VOBIS, QUI SATURATI ESTIS; quia esuietis. Luc. 6.25.

AY! emen ongui aseac, aisa, ta ceren gogàra vici zaraztenac; bada egunen batean, (ta anitz luzatu gabe) bucatuco da zuen emengo aisa-tasuna, ta jàn-edana; ta asico da, buca-eraric b gueco, zuen gos-egarri amurratua. Orra orain JESUS maita-garriac guri aguertzen digun, egui izugarria! Cer gatic hau onelà, baldin badaquizu? Ceren lurreco janari meez, ta atseguin

guitoz asetzen diranac, oiticoz ematen dioten, beren Jangoicoaren Ceruco eztiari, edo, ango atseguin andiac irabazten dituen, vicitza zucenari: *Anima saturata calcabit favum* (Prov. 27. 7.); ta, ori eguin ezquero, cer ichedan dezaque, bere aldia datorquionean? JESUS maiteac diona, edo betico gos-egarria, betico nequea, ta beti betico sulecea, ta besteric ez.

ORAIN an datza, bai, bere mai mee batean len ongui asetzen cen, Evangelioco Aberatsa. MILLA urte, ta gueiago da ango sutartean, duen, egarria-requin ecin burutuz dagoela; ta, cembat ere billatu duen, ecin arquitu izandu du urtanta bat, bere egarri amurra-garri hau iltzeco; ta ez du arquituco ere haren billan ibillia gatic Jangoicoa Jangoico den artean, edo seculaco eternidade guci-gucian. AH cer egarria, orain daramana! ta secula gucian aberatsi-tzar jal-edale onec eraman beharra,

JAQUIN ba-lu aberats onéc, onetan guelditu beharco zutela, horduco haren janedan galant-ederrac, ez ote cituen utzico demboraz, oriec gatic guero ez aratzea gatic, ara cen bezala? ORIETAN galdu cituèn, ondasunac emain ez ote ciezten, beharrean arquitzen ciran, gosoti gaisoei?

ORI horduan, edo demboraz ez eguiñaz du orain, duen, adiña damu; ta izain ere du eternidade gucian, edo beti-ta beti. BAñA haren oraingo damu hau damu alferra da, ta damu, damutzen denaren, gal-garria, edo penatzallea!

ABERATSAC, bada, ta aisa vici zarazten gendeac, edo jan-edanaz, ta sabela betetzeaz contu andia dezuten, guizonac, beguira ongui, ta beguira ceren buruei! ECUSI zazue nora beharrac ote zarazten, ta cer eguitera, era orretan vici ba-zarazte, gaurgueroco ceren egun-etan.

ZUEN eran dabiltzan, guizonac ez dabiltza, ez segurqui, JESUSec guri bere ibill-erarequin aguertu cigun, Ceruraco videz, ta haraco gauz onac eguiten dituztela. Justiciaren gos-egarria da gure JESUSec aguertu cigun, videco janaria.

NEQUEAC, hildurac, eta gurutzeac dira vide onetaco lagun ederrac. Gure Jaunaren gauzac zucen eguitea; nori berea bere horduz ematea, ta, goizetic arratserañoco gauza guci-etan ongui, zucen

ten, ta behar den, eran ibiltzea da emengo ibiller onèn lana, ta eguitecoa. Eguiteco zucen, edo lan hau eguiñaz, lagun oriequin ongui zatocela, ta JESUS maita-garriaren eran ibiltzen zarala, sartu beharco dezu zuc, gos--egarriric ez den, toquian, edo Ceruco glorian.

ONGUI da, bada, nere JESUS maita-garria, ongui da; seculaco neque izu-garriac baño, naiago ditut nic, zure Legueac escatzen dituen, emengo gos-egarri, ta gurutze guciac.

EMENGO nequeac, eta emengo gurutze guciac, arseguin andizco, neque-gurutzeac dira, zure icenean, ta zuc laguntzen dezula artzen diranean. ERA orretan artu nai nituque nic gaur, nere Jangoico maita-garria. Indazu orretaraco cere laguntza, ta gracia; bai, ta, lenago lan hau eguin baguez, eguin ditudan, uts, eta becatu gucien barcamentua ere. ORAIN, hau erditsi naiez, erratera noa nere gogo, ta nai gucia-requin; *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XL-GARREN OTOITZ-GAIA.

BOSTGARREN DOATASUNA: *URRICAL-TASUNA.*

BEATI MISERICORDES, QUONIAM IPSI MISERICORDIAM consequentur. Math. 5. 7.

ZORI ONECOAC URRICALTIAC; BADA ORIEI urricalduco zaie beren Jangoico maita-garria.

URrical-tasuna da lagun-urcoari, edo próximoari beguira dagocan, gauza, ta virtutea. GAUZ, edo virtute onec bi aldetatic beguiratzen dio lagun-urcoari, edo proximoa-

moari; bada beguiratzen dio, al duen, ongui gucia eguin naiez; ta ongui eguin daguioque lagun urcoari bi aldetara.

BA-daquizu cein alde diran, bi alde oriec;

Oriec dira anima, ta gorputza. GORPUTZ aldetic alabaña, edo animaren aldetic dira lagun-urcoaren beharrac, eta premia guciac; eta oriec dituenaz urricaltzeco bat asqui da beharrean, dagoen lagun-urcoari bere bi alde ori-etatic beguiratzea. Asi guitacen gorputz-aldeco beguiratzetic.

§. I.

GORPUTZAren aldetic proximoari, edo lagun urcoari datozcan premiac, eta beharrac dira, edo beraren vicitzacoac, edo berari, berere ll-ondoan, darraizconac.

LAGUN-urcoaren ill-ondoco beharrac, ez dira, ez, behar andiac; bada, illaren gorputza ortzitu ezquero, bucatu dira, onec behar dituen, gauza guciac: eta ill bat ortzitzea da orrembat arazo, ta neque ez dacarren, ta noi bereac eguin oi dioten, gauza, edo eguitecoa.

GORPUTZAren vicitzaco beharrac, behar andiagoac dira; bada dira gosi-egarriac, soñeco-gabea, eche-gabea, edo, behar den, beste cembait gauzaren beharra, ta gabea, ta, gauz orien beharra, edo gabea duenari cerbait ematea da, al dutenac eguin behar dutena, baldin nai badute, guerta daquien, zori oneco urricalti-emalle on-etatic izatea.

BAñA zori oneco emalle on-etatic izateco, ez da asqui, ez, nola-nai batec behartsu gaisoari behar duen, gauza ematea; eman behar dio, ematen diona, TOBIAS zarrac bere seme TOBIASi adiraci cion, eran.

ADI zazu (erran cion bein TOBIASec bere semeari) adi zazu, nere semea, orain nic zuri erran nai dizudan, gaizacho bat. ILTZEN garanean, ortzitu behar dituzu nere gorputz hau, ta nere emazte, ta zure Ama maitearena. Vicizaitez zu, gure hordu hau etorri artean, bai ta guero, ta guero ere, utlic bein ere eguiten ez dezula, ta cere Jangoico maita-garriaren Leguea zucen gordetzen dezula.

Bai, nere Semea, bai; bi gauz, oriec zuc zucen-zucen eguitera, behartua zaude zu, zu ceren zaran gure semea, ta ceren zaran Jangoico maita-garriaren Legue-zuceneean ongui acia.

ORIEC

ORIEC ez-ecic, eguizquitzu zuc, nere semea, lagun-urcoequin urricarizco, alditizun, gauza guciac ere; ta, besteen artean, emaiezu beharrean arquitzen diran, gaisoei, eman dezaquezuna; ta emaiezu, orietatic bat ere bague uzten ez dezula; ta eman aldian emazu, anitz-equin arquitzen zaranean; anitz; eta, guti-requin arquitzen ba-zara aldi hartan eman dezaquezuna: ta emazu beti, ematen dezun, gucia bihotz osoz, ta artzen duenaren beharraz urricalduric.

ORRA guizon santu harc bere semeari aldi artan erran izandu, edo adiraci ciona; ta orra zuri ere cere Jangoicoac gaur, TOBIAS beraren ez-pañez adirazten dizun, eguitecoa. Baña ote daquizu zuc cer erran nai duen TOBIAS zarraren hitzcuntz eder onec?

ERRAN nai ditu irur gauza: LENDABICICOA da: cerbait zu ematera zoacen aldian, ez dezazula beguiratu, adisquidea den, edo ez-adisquidea beharrean arquitzen den, lagun-urcoa: beguira dezazula, arindu nai dezun, artzalle necatu gaisoaren beharrera; ta eman dezazula, eman behar dezuna, haren behar hau arintzea gatic, eta norena den (etsaiaren beharra denean ere) beguiratu bague.

BI-garrena da; ematen asi ezquero, eman dezazula cere escu biac ongui ongui zabalduric, eta labur-queriric bague. TOBIASen hizcuntz ederrac adirazten duen IRUR-garren gauza da, ematen asi ezquero, eguin dezazula zuc, cere ematea, zure Jangoico maita-garriac ontzat artuco dizun, eran, edo arpegui, ta bihotz ongarbia-requin, ta urricarizco escu-equin.

IRUR gauz oriec eguiten dituztenac, cerbait ematen duten aldi gucietan, izain dute, bai, TOBIAS gazteari bere Aitac an adiraci cion, ondasuna; edo izain dituzte beren alde Jangoico maitagarriaren amoriozco beguiac (*ita enim fiet, ut nec à te avertatur facies Domini.* TOBIAS 4.7.) bai ta Jangoico beraren urrical-tasuna, piedadea, ta misericordia ere: *misericordiam consequentur.*

OTE cenequien zuc, orain artean onelacoric? ZURE orain dañoco ibillerac, eta lan guciac ezetz diote; bada beharrean arquitzen den, gaisoari ematen zaiona, gauza gal-

duren bat bai liz bezala, ertsi, edo guiltzatu izandu dituzu zuc cere cuchac, cere faldriquerac, cere saquelac, eta cere escuac; eta bere gabean, edo bere beharra-requin utzi izandu dituzu zuc, beharrean arquitzen ciran, guciac, oriec etziranean zure gogaracoac: edo zure adisquideac.

Eta cerbait eman badezu, era orretaco aldiren batean, edo bestean eman izandu dezu, erdizca bezala, edo aldian guti, aldian berandu, edo bein, ta berriz, ta gueiagotan ucatu ezquero, ta ez bein ere arpegui ona-requin, nai onez, ta amoriozco escuz.

AH gogor charra! Eta naico cenuen, zuc, eguin cezaten zurequin besteac beste orrembeste, zu arquitzera, oriec aldi orietan bezain, behartsu, ta gabe? AH cere galgarri galdu eguia! galdu dezu zuc aldi orietaco cere laburtasuna-requin cere Jangoicoaren urrical-tasuna, ta, norc daqui, cembat Jangoico beraren ondasun, laguntza, ta gracia!

ETZEN, ez orrela caltear guelditu TOBIAS gaztea, era bereco ez-dun behartsu gaiso-equin ciarduquen, aldietan. Esquerrac, harc horduan ez eguiñari, zuc eguin oi dituzun, labur-tasun-etatic bat ere.

URRICAL-tasuna gogoan bere Aita TOBIASec sartu cionean, behar andian arquitzen ciran Aita-Semeac, eta echeco guciac, eta, jaten zuten, ogui zatia ere, icerdiz, ta beren nequea-requin irabazten zutela; baña gueroz beren urricarizco lan onac gatic izandu cituzten bazter, ta ondasun andiac.

TOBIAS Aitac ecusi zuen icheco laugarren aldia, edo generacioa; ta Semeac bostgarrena; eta bèrac, beren humeac, eta Aide guciac vicitu ciran, Santuac bezala, Jangoicoac escatzen zuen eran, ta, ezagutzen cituzten, gucien gogàra. ALA dio Escritura Santac (Tob. 14.). ORRA, gorputz-aldetic den, besteren gabeaz, behar den, eran urricaltzen diranen emengo ona, ta ondasuna! BAñA ez gucia.

ZORI oneco urricaltiac urricaltzen dira lagun-urcoen animaco beharraz ere. ANIMAren beharrac, gorputzaren beharrac baño, aguitz andiagoac dira; ta dira animaco itsutasunetic, edo animac jaquin behar dituen, gauzac ez ezagutzetic, gaitzeraco bere macur-tasunetic, ecuste, ta adi-

tze

tze gaisto-etatic, eta, etiai gaistoac billatzen diozcan, anitz aldetatic datozen becaturaco videac, eta perillac: eta perill, edo vide ori-etatic edoceinetan arquitzen den, animaz urricaltzea da, anima bera bere perill, ta vide gaist-ori-etatic ateratzea, ori-etatic urruntzea, ta Ceruco videan zucen, ta viciro erabil-eraztea, edo vide orretan ibiltzen laguntzea. ORI eguiten dute, eguiten dutenac, TOBIAS berac bere semeari, ta onen humeei aguindu, edo manatu ciena.

ADI zazue (erraten die, TOBIASec, zartu, ta beste munduraco avian cegoela); adi zazue, nere semeac, ceren Aitac, zuei ongui naiez, orain erraten dizutena: servi zazue ceroc zucen, ta ciñez ceren Jangoico maita-garria. Zaudezte beti alic ernena Jangoico berac adiraci nai dizuten, gucia zucen aditzeco; ta eguizue bertatic, eta luzatu gabe, adirazten dizutena, beraren gogaracoac, eta onac zuec izateco. Baña beguira; ez da asqui, ez zuec ceroc onac izatea, edo zuec ori gucia zucen eguitea; eguin-eraci behar diezue ori bera ceren humeei ere: manatu behar diezue, dabiltzala erne, ta zucen Ceruco beren videan, ta Jaunaren gauzetan; ta, videac dacarrenean, eguin dezatela oriec ere, al duten, on gucia.

MANATU behar diezue, ez dezatela bein ere iurtzi beren gogotic beren Jangoico maita-garria, oroi ditecen beti, oni zor diotenaz; ta oroitze onec behartu ditzan, beti, edo maiz beintzat, bihotzez bad-ere, Jangoico berari agurrac eguitera, ta, berei dagozten, gauz onetara, eta onetaco beren vicitza requin, ta virtutez virtute dabiltzala, eguin ditzaten irabaci andiac; eta oriequin igan ditecen bere demboran beren Cerura.

ORREtaraco, nere humeac, atera behar dezue zuec lembaitlen, NINIVE deritzan, erri gaisto onetatic, emen galdu etzaitezten, galtzeco dauden, emengo erritar gaisto galgarri guciequin batean. Cap. 14.

ORRA, erioa bere begui-etan ceducala, ta eguiac errateco den, horduric onenean TOBIAS zar ona bere ondorengoei adiraci ciena; ta orra besteren animac urricarii dituzten, onac eguin behar dutena, anima oriec beharreani arquitzen diran, aldietan: toqui ez onetatic lembaitlen orrela-

 coac

coac quen-eraztea : beguiz , ta gogoz lurrean farturic dabiltzanean ar-eraztea beren Jangoico maita-garriaren ontasuna , ta oni zor dioten , ontarte , ta favore gucia ; ongui-ongui ezaguturic beren zor andi hau , erantzun dezoten oni , al duten , eran , ta alic ere onguien onguiena.

HAU ez-ecic urricaltionac eguin behar dute gueiago ere anima behartsu gaisoequin ; bada dembora berean oriei aguertu behar die beren Jangoicoaren zorrotz-tasuna,ta indardia , edo , gaistoac galduric uzteco , ta sulecean erretzen , ta urratzen beti ta beti oriec iduquitzeco , gure Jangoicoac duen , ecin besteco,escua , onác escuratzen ez-pa-ditu orien gaista-queriac , escura ditzan onembat neque gogorren beldurrac ; eta nol-ere bait mugui ditecen gaistoac eguitera, beren oneraco , eguin behar dutena.

ORREtan haritu ote zara zu cere echeco-equin, zure auzoco equin , zure contura ceuden guci-equin , ta, zucendu cenitzaqueen, gañeraco Anim-equin ?

CEIN guti ! EZ naz arritzen orretaz , ez : bada, zuc cere Animaz ere izan izandu deza , daquizun bezain , contu laburra , ta ecer-eza ; ta, ascotan beintzat , ibilli zara zu loiez loi , edo gaizquiz gaizqui , ta becatuz becatu. ETA certan ote zabiltza gaur ere?

NOLA arquitzen ote zara zu gaur , eta cer eratan? Cer contuac emain ceniozque zuc orain , orain zu cere Jangoicoac deitzera bere Tribunalera ?

URRICAL zaitez bada orain bad-ere cere buru gaisoaz ! ZUCEN itquitzu , gueiago luzatu bague , ta bertan gaur-danic , Jangoico berari emateco zauden , cere contuac. ARTU zazu , artu behar dezun , cere Ceruco vide zucena. ZABILTZA gueroz , ibilli behar dezun eran ; ta cerori ondu-ondoan , urricalduco zara gañeracoen Animez ere ; ta etzara izanen ez , Ceruan bacarric sartuco zaran anima.

ALA guerta daquizula, gure Jangoico urracalti maitearen amorez , ta , bera gandic uste dezun , laguntzaz valiatzen zarala. Bai arren, bai.



1. PA-

I.

PANEM TUUM CUM ESURIENTIBUS, & sitientibus comede, & de vestimentis tuis nudos tege. Tob. 4. 17.

GOSEZ, ta egarriz arquitzen diran, gaisoei eman behar diezu zuc ceronit beti, cere maieraco eguin cenuen, ogui onetic, eta, predatzen dezun, edaritic; bada ez da, ongui dirudien, gauza, zure eraco batec anitz izatea, eta besteren batzuec, behar dutenic ere, ez. GUCIEN-daco zabaltzen du gure Jangoico maita-garriac bere escua, escua zabaltzen asi ezquero. GOSEZ, ta egarriz arquitzen diranac, Jangoico maita-garriaren humeac dira, zu ta ni bioc bezala; ta orre gatic elcarren senideac, edo aurrideac gara, Aita maitearen hume gucioc; eta ecusten dezu, gure Jangoico maita-garriac, bezain Aita, edo Guraso onac ez duela ontzat artuco seculan, senideen elcarren arteco, gogortasuna, edo senide ondasun-dunac, ez duten, gaisoei eman baguez, oriec, gosez, egarriz, beharrez iltzen uztea.

Beguitan ar-etzaitzan bada zu cere Jangoico Aita maita-garriac; eta galduric utz etzaitzan eternidade guciraco, oriequico cere gogor-tasunac; emazu, dezunetic al dezuna, ta arin zazu cere aurrideen, ta Jangoico beraren humeen beharra, ta gabea. ORRA bein JOB Santuac bere Semeari adiraci izandu ciona. Eta orra, duten, guciequin hitz-eguiten duen, gauza.

BEREN buruac, beren humeac, beren zorrac estaltzeco diña ez dutenac, otzicara ibilli oi dira, ta edocein soñeco zacar, erdi urratu, edo zarturen billan bezala. Dutenen, escu-etatic uste dute cerbait orrelaco gaisoac. Ba-dezu zuc, oriei emateco, cerori gabe guelditzen etzarala? ETA cer? Alere ez-ecusi eguin uste diezu behartsu gaisoei?

ALdatuco dira egunen batean, dio JESUSec, zuen aldiac. Graciazco, ta virtutezco soñecotic bague, ta gosez, ta egarriz egoin zara zu, emendic atera ondoan. HORDUan arquituco dezu zuc JESUS, bere behartsu onac escoi aldeti daduzcala; ta, zu au, ecusteau, begui zorro zez beguiratzen dizula, errain dizu; ONACO nere behartsu oien gosez, egarriz, ta gabeaz etziñan urricaldu zu bat ere; ta, behartsu gaisoez urricaltzen ez diranac,

nac, ez dira nere hume onac; ez dira nere ezagunac; ez dira nere Ceruracoac. ZOAZ, zoaz ortic cere toquira: zoaz gogor galduen artera. ZOAZ, beharrez, nequez, ſuz, ta quez beteric beti ta beti vicitzera. HAU da zuc JESUSen aotic aditu beharra; hau zuri len, edo guero, ta anitz luzatu bague guertatuco zaitzun damugarria, bague, ta beharrean daudenei gaurguero zuc ez laguntzera, orain-dañocoan ez bezala.

2.

DISCITE, QUID EST: MISERICORDIAM VOLO, & NON SACRIFICIUM. Matth. 9. 13.

BA-dira munduan, bai, beharrean dagoen gaiſoari ardit bat eman nai-ez diotenac, eta dembora berean-Elizac, eta Aldareac, eta orrelaco gauz andiac, beren diruz eguiten hari diranac. AY eroac! AH, centzu gabeac! URRICAL-taſuna da, gure Jangoico urricalti maita--garriac nai duena, ta ez zúen arrotaſuna, ta antuſtea.

ANTUSTEZ, arro--taſunez, ta zuen icenac guero guiz-artean iraun dezaten, uſturzen dituzue zuec ceren diru-zorroac, eta ceren diruarequin hui zarazte zuec, zuen antuſteac aſmatzen dituen, eguiteco, ta lan andi orietan. Zuen lan eguiteco guciac, behartſu gaiſoez dembora berean urricaltzen ez-pa-zarazte zuec, ſareac dira; ta ſare, armiarmac eguin oi dituen, ſare cirtzillen eracoac, edo antuſte arroaren aice-aldiac urratzen dituenac.

NAI ba-dezue bada zuec, iraun dezaten luzaro zuen gañeraco lanac, edo, eguin uſte dituzuen, gauz onac, eguizquitzue len-danic urrical-taſunaren cimendu ſendoac; edo emaiezue bein beharrean arquitzen diranei, orien gabeac eſcatzen duena, ta guero eguizue, nai dezuten, on gucia.

BESTE gauz onac ere nai ditu, bai, gure Jangoico maita-garriac, eguiten ba-dira oriec urrical-taſunac eſcatzen dituen, guciac eguin ezquero. ZORI onecoac zuec batac, eta beſteac zucen eguitera. Iguzu zuc, gure JESUS maita-garria, ala guciac guc eguiteco, behar dugun, zure laguntza, ta gracai. Bai arren, bai.

3.

ESTOTE ERGO MISERICORDES, *sicut & Pater vester misericors est.* Luc. 6. 36.

URRICALTI onac dirudite beren emate batzuetan munduco cembait emallecharrec ere; baña orien emate guciac, lapur galgarri gaistoen emate galduac dira; bada, ematen dutena, ematen dute, ematen diena baño, aguitz gueiago artzalle gaisoei quendu naiez, edo artzalle gaisoac beren pean beti, ta beren menean iduquitzea gatic. GENTILAC, Turco galduac, Juduac, eta lurreco gaistoenac ere era orretan úrricaltzen dira behartsu gaisoez; baña orien era orretaco urricaltze gucia, esquer gabeco, urricaltzea da, ta beste munduraco, deusbat valio ez duen, urricaltzea.

EZ, dio JESUS maitagarriac, ez da ori, ez, nic escatzen dudan, eran behartsu gaisoez urricaltzea: nic escatzen dudan, urricaltzea, ongui-naiezco, edo emate garbizco utricaltzea da, ta zuen AITA urricaltiaren urricaltzea dirudien, urricaltzea, edo behartsuari ematen naizcan, gauzac, doairic bezala, ta artzallearen beharra arindu naiez ematea.

BAI; gure Aita eterno urricalti-maita-garriac ez daqui ucatzen behartsu-escatzalleari, haren beharrac escatzen dituen, ta ongui dagozcan, gauz-etatic bat-ere; ta, ematen diozcan, guciac ematen diozca, beraren oneraco, edo behartsu bera, behar den, eran, edo ongui ecusi naiez: ta: ucatzen ba-dio cer, edo cer, ucatzen dio, ceren aldi hartan ez dagocan, harc bere Jangoicoari escatzen dion, emaera, edo gauza; ta dembora berean ematen dio, escatu duen, gauzaren ordeña, ta, harc horduan escatzen duen, gauza baño, aguitz obequiago dagocan, gauza.

HAU ez-ecic, gueiago, ta gueiago ere eguiten du gurequin gure AITA urricaltimaita-garriac; bada guc hari ez escatua gatic, gure beharrac, eta gabeac escatzen duen laguntza, ta gracia, ematen digu beti, gure beharrac behar adiña; ta gu, harc emanicaco, gracia, ta laguntza onarequin ateratzen ez-pa-gara gueren behar-premien, ta gabe gucien artetic, eta videnabar guc eguiten ez-pa-dugu, Ceruraco behar den, ondasun-

ira-

erabacia, guc ori ez eguin naigz, izain da, ez guc izan baeuez, ez, hartaraco behar den, ſcu indarſu, edo indar gucia.

LAN on hau guri eraguin naiez, ematen digu Jaun urricalti berac, edo gueren buruac galtzeco beldur-taſuna, edo Ceruco ondaſun andi-ederrac irabaci-naia, edo, berac, hartaraco ona dela, daquien, gogoeta moduren bat, edo bertze. ETA, nola-nai gu gueroo ibillia gatic, ez gaitu bacarric iuzten gure Jangoico maita-garriac gueren vide galgarri galduetan; an da beti, an gurequin preſt, bere laguntza, ta eſcu indarſua guri noiz-nai emateco; ta gu gueroc gueren naiez galdu arte gucian urricari izain gaitu gu gure Jangoico maita-garriac; eta doairic emain dizquigu, guc, gueren buruac ontzeco behar ditugun, ganza guciac.

Ah gure Jangoico urricalti guztiz maita-garria! Beti-beti bat zu; ta beti gure urricari, ta onguille ecin andiagoa, guc gueroc, gueren naiez gueren buruac ez galtzera! Noiz ezagutuco dugu guc zuri cere urrical-taſun ecin-obeago one gatic zor dizigun, onguinaia, ta amore bazterric baguecoa! ta noiz vallarzen aſico gara gu zure urrical-taſun, ta miſericordiari zor diogun, laguntz onaz, ta graciaz? Noiz utico ote ditugu guc, orain-dañoco gueren aur-queriac? Noiz gueren vide macur-galgarriac? Noiz Ceruco gauz-etaraco gueren nagui-taſuna? Eta noiz aſi beharrac ote gara gu, gueren laguntco beharſu gaiſoei, al dugun, eran laguntzen, ta eſcua ematen? Izan dedilla gaur beretic, bat ere luzatu bague, nere Jaun on maita-garria. Eſcatzen dizut, cere urrical-taſun bazter-baguecoa gatic; eta orain-dañocoan, ori eguin baguez, eguin ditudan, becatu gucién damuz beteric, erraten dizudala: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XLI.

XLI-GARREN OTOITZ-GAIA.

SEI-GARREN DOATASUNA: BIHOTZAREN GARBI tasun zucena.

BEATI MUNDO CORDE, QUONIAM IPSI DEUM VIDEBUNT. Math. 7. 8.

ZORI ONECOAC BIHOTZ GARBIZCOAC; BADA oriec dira Jangoicoa ecusi behar dutenac.

CERtaco eguiñac ote gara gu, edo certaco jaioac, mundu onetan arquitzen garanoc?

GUEREN Jangoico ecinobe-maita-garria cinqui, ta zucen onesteco. HAU da, bai, hau, orain mundu onetan arquitzen garanon eguitecoa; ta eguiteco ber-berera etorrico dira, jaio-quizun arquitzen diran, ta, gure ondoren etortzeco dauden, andi, ta chiqui guciac.

EGUITECO zucen-onesgarri hau guri gucioi eraguin naiez da, gure Jangoico berac guri emanicaco, Legue, ta manu guci gucia: *finis autem præcepti est charitas.* Tim. 1. 5.

BAñA cein ote dira gure gucien artean, eguiteco eder amoriozco hau ongui, ta zucen; edo, behar den, eran eguiten dutenac?

ORIEC dira, batean ere utsegui bague, eguiten dituztenac, gure Jangoicoaren Legue berac bereisten dizquigun, gauz andi, ta chiqui guciac.

ZORI oneco eguille zucenac, era orretan gauz oriec eguiten dituzten, gendeac; bada egunen batez oriec, mundu galgarri hau emen uzten dutela, igan beharrac dira, atseguin-contentuz beteric arquitzen den, Jangoico gurearen jaureguira, ta Ceruco doatsa

tsu gucien artera, ta, orien eran, an Jangoico berari arpeguiz arpegui beguira egotera. Ori da, bai, guri gure JESUS maita-garriac, seigarren doatasuna aguertu cigunean, aguindu izandu cigun, ondasuna.

DOAtasun maita-garri ondasun-dun onec escatzen ditu, bertze cembaiten artean, irur gauza. LEMBICICOA da, becatuaren loiric bagueco Anima bat; bigarrena, oroitzapen onez betericaco ADIMENTUA; ta irur-garrena, naicunde onac, eta asmo zucenac dituen, BIHOTZA, edo NAIMENTUA.

I.

BAI, lembicico lecuan doatasun onec escatzen duen, gauza da ANIMA garbi-becatu gabeco bat. Bada garbiric arquitzen ez den, Animac ez du maitatzen bere Jangoico maita-garria.

Eta aisa, ta erraz erdisten den, gauza ote da Animen garbier hau? Ez, anitzec uste duten baño, neque, ta arazo, edo eguiteco gueiago dacarren, lana da, zori oneco doatasun onec escatzen duen, garbi-era. Cer gatic uste dezu?

CEREN gure Anima gaisoac, Adanec hordu gaistoan eguin-icaco, becatua-requin guelditu ciran guztiz loituac, eta dembora berean becatu gaistoen locatze-etara, ta vide lizun-etara guztiz macurtuac.

GURE Anima gaisoen macur-era hau acitzen, ta anditzen da, guc, gueren naiez, eguiten ditugun, becatu berri-equin; ta, cembat eta gueiago, ta andiagoac guertatzen diran gure becatu gaistoac, ambat andiagoa da gure Animen gaitz-eraco macur-era, ta ambat errazquiago sartzen zaizte Anima gaisoei oroitzapen lizunac, gogoeta charrac, eta naicunde galgarri-loituac: eta oriec guciac beren baitatic aienatzea, ta Animac berac beren macur-erac zucenduz ibiltzea, ta garbiac beti vicitzea, anitz neque, ta eguiteco dacarren, lan andia, edo gurutzea da; aienatze ori alabaña, ta bere betico garbi-era erdisten dute Anima gaisoac, iguesca, ta iguesca dabiltzala beguiratze arin-etatic, aditze eroetatic, hitzqueta lizun-etatic, eta lagun galgarri gaisto gucietatic; eta videnabar ongui oartuac, erne, ta contuz dabiltzala beren pausu, ta eguiteco gucietan.

ETA hau guciazuc ongui-

gui--ongui ecuſtera, ecuſico dezu, bai ſegurqui, ongui andia den, edo ez, Anima gaiſoac beren bihotzac ongui garbitzea; ta garbiro beti, ta beren Jangoicoa ciñez maitatzeco, behar den, eran beti vicitzea. ZORI onecoa ni, onembat neque-requin ba-dere, garbiera eder hau nic noizbait erdiſtera!

II.

DOAtaſun ecuſle billa-garri onec eſcatzen duen, bi-garren gauza da, Anima garbiac beren adimentua oroitzapen onez, ta, beren Jangoicoa gana zucenduco dituzten, penſamentuz beteric iduquitzea; oroitzapen onac alabaña, ta penſamentu, edo gogoracio behar bezalacoac dira gure bihotzari, onetſi, edo maitatu behar dituen, gauzac aguertzen dieſten, izarrac, edo Jangoicoaren arguiac, ibilli dedin, amorez dabillenean, zucen-zucen, ta bat ere utſ-eguiten ez duela.

OROI zaitez, bada, noizean bein ba-dere, nere Anima, beldurrezco cembait etorquizunez; ta, beſteen artean, oroi zaitez batzuetan, aſmogaldu-gal-garriari, gogoeta ciquiñari, ta, edocein lan char, lizun loiri dagocan, gauza dela ſulececo erretzea, ta lertze arri-garria; ta ecuſico dezu, era orretaco etor-quizunaren beldurrac cein aiſa quentzen dizquitzun, oroitzapen, ta gogoracio char ori-etaraco naia, ta gogoa.

Oroi zaitez beſte batzuetan bertze videzco etor-quizunez ere, edo oroi zaitez, ongui vici diran, Anima garbien ondaſun andiez, edo beren Jangoico maita-garriac oriei ematen diezten, virtuteez, irabaz-videz, ta atſeguin garbiez; ta, ori gucia zuc contuz ecuſi ezquero, zu ſaiatuco zara, bai laſter aſqui cere baitatic aienatzera edocein oroitzapen loi, naiz dela, den chiquiena.

OROI zaitez orren ondoren, anima garbi-on-virtutetſuac baicic, ecin ſar ditezquela Aingueruen artera, Ceruco gloriara, ta Jaunari, an atieguiu ta contentuz beteric beguira, ta beguira beti, eternidade guci gucian egotera; ta, ecuſico dezu, nola era orietaco oroitzapen garbi-etatic datorquizun, ongui, ta zucen vicitzeco, ta vicitza garbi on batec eſcatzen dituen, gauza guciac zucen eguiteco, gogoa

BESTE cembait aldiz

oroi-zaitezque zuc cere Jangoico maita-garriari zor diozun, bizter-bagueco amoreaz: oroi zaitezque Jangoico beraren maita-garri-tasunaz: oroi zaitezque Jangoico berac zu gatic eguin izandu dituen, ambat ondasunez, gauzaz, ta ontartez; ta zuc maiz, usu, edo anitz aldiz izaten ba-dituzu, era orietaco oroitzapen onac, izain dezu, bai, zori oneco Jangoicoaren ecusle garbiac behar duten, bi-garren gauza, edo oroitzapen, pensamentu, ta gogoracio behar bezalacoz apainduricaco adimentua. Ala gueldi dedilla nere hau ere, nic guero noizbait arquitzeco, zori oneco Jangoicoaren ecusle garbi orien artean cerbait lecu. Bai arren, bai.

III.

ZOri oneco ecusle orien doa-tasunac escatzen duen IRUR-garren gauza da, tolesturic ez duen, bihotz on zucen, bere Jangoicoaren maitari bat; maita dezan maiz, eta cin-cinqui bere Jangoico maita-garria; ta maita ditzan, bere Jangoico berari atseguin eguitea gatic, bere lagun-urcoac, edo proximoac ere; ta maita ditzan, berac bera maita lezaten naico luquen, videz, ta eran.

ECUSTEN dezu cembat eguiteco dacarren, ta cein gurutze ona vicitza gucian daraman, bere bi gauza-modu oriec eguiten, dituen, edocein Animac! eguiten ditu alabaña, bi gauz oriec eguiteco, bere Jangoicoaren Legue guciac manatzen diozcan, eguiteco, ta lan guci-guciac; eta guci-guciac eguiten ditu bere Jangoico berari atseguin, ta gusto eguitea gatic, eta bere lagun urcoari beguitan eman dezoquen gauzaric chiquiena ere eguiten ez duela.

ERNE ibilli beharco dezu, bada, ta contuz, bai, goizetic arratseraño, hau gucia, utseguin bague, zuc, eta zucen-zucen eguiteco.

HAU eguiteco zuc, lenic billatu beharco dituzu, otoitz-gai onetan ecusi ditugun, Anima garbi becatu bagueco bat, oroitzapen on zucenez apainduricaco, adimentua; ta bihotz, gaitz-eraco macur-tasunac utziric, edocein gauz on eguiteco, ta bere Jauna ciñez maitatzeco, ederqui prestaturicaco bat. Irur gauz oriec billaturic, zucen eguiten dituenac, ecusi ditugun, bertze biac, eguiten du ecusten hari garan,

ran, doatasunac escatzen duen, gucia.

ZORI oneco humea ni ere, nic era orretan oriec eguitera, emen vici nazaño, bada ala nic oriec eguitera, nic ecusico, ta maitatuco dut beti-beti, zori oneco bihotz garbidun gucien artetic nere Jangoico ecuscari ecin maita-garriagoa. Ala guerta dedilla. Bai arren, bai.

IV.

HAU gucia guc eguiña gatic, eguiñen ez dugu bem ere, gurigure JESUS maita-garriac, hitzez ez-ecic eguitez ere eracutsi bagueco gauzaric bat ere.

Bada JESUS maita-garriac, vicitu cen, dembora gucian beti-beti iduqui izandu zuen ecin garbiroago bere BIHOTZ eder guztiz maitaria; etzuen alabaña eguin bein ere uts andi, edo chiquiric bat-ere, ta ecin eguin ere cezaquèn, Jangoico-guizona cen JESUS maita-garria. Eta orra non bere eguitez guri gure JESUSec eracutsi izandu cigun, doatasun onec escatzen duen, lembicico gauza.

ERA berean eracusi cigun BIGARRENA; bada etzituen JESUSec quendu beñere bere Aita gandic bere animaco beguiac. ORAIN daducan bezam gogoan, ta vistan iduqui zuen beti bere Aita eternoa gure Jesus maita-garriac.

ECUSTEN citzen JESUSec, bai, lurreco gendeac; bai ta berac eguiten cituen, ta berberi eraguiten ciozcan gauzac ere; baña bere beguiac bein-ere quendu gabe bere Jauna gandic; era guertatzen citzaion JESUS maita-garriari, Mariñel on bati bere oncian dabillen, demboran guertatu oi zaiona.

BA-dabill Mariñela bein soquetara, bein maiera, bein onara, bein alde artara: baña, edo dabillela batetic bestera, bere oncian Mariñela, edo egon dedilla gueldiric, eta nai duen bezala, bein ere guelditu bague dabill, onciac daraman, vide gucian. ERA onetan bada (baña milla, ta milloi bider ederquiago) ibilli cen JESUS, emen vicitu cen, egun gucietan, bada puntu, ta puntu oro, ta beti-ta-beti bere Aita maita garria gana cijoan JESUS, beste edocein gauz-etan hari cen demboretan ere.

ERACUSTEAren ederra, aldi onetaco JESUSen eracustea Ikasten ba-dugu guc ere; ta guc, icasten dugun, hau

emen eguitera, zori oneco ecuſle onen videa daramugu, ta JESUSen ondoren dabiltzanetatic gara.

Hau da, hau gucicaſi behar dugun, ibillera; ta hau guri guztiz ongui dagoquigun, gauza.

Hau, ta', lenago guc ecuſi dugun, gauza ez-ecic, eracuſten digu guri gure JESUS eracuſle on maita-garriac, vide onetan dabiltzanac, eguiten duten, IRUR-garren gauza ere; bada eracuſten digu Jangoicoa gana beguira dagoen bihotz garbi-zucen batequin gauza guciac eguitea; ceren JESUSec eguin izandu cituen bere vicitza guci-gucian, ecin zucenago, ecin ederquiago, ta ecin obequi bere gauza guciac; bere gauza gucietan billatu izandu zuen JESUS maita--garriac bere Aita Jangoicoari atſeguin eguitea; ta eguin ere cion bein ere utſ-eguin bague; ta bere gauza gucietan JESUSec billatu zuē bere Aitaren honra, ta gure ona: ta billatu zuen, Jangoico-guizonac bezala, ta, billa citequen, ederquien-ederquiena.

AH, Eracuſle-eguilleon, Maiſu eder-Jeſus maita-garria! ta cein aiſa icas dezaquegun guc gueroc nai dugula, nola, ta nondic ibilli, zucen ibiltzeco zure ondoren. EZ dugu orre taraco guc, zuri bein, ta beriz, ta maiz beguiratzea baicic; bada zu bat zara beti: zu beti zabiltza vide batez; ta beti zabiltza ecin-zucenago!

ITSUAC bezala ibilli gara gu orain--dañoco gueren demboran, ta gutitan ibilli gara, zuri beguiratzen guenizula. ALA atera dira orain arteco gure ibillerac! URTE anitzen buruan, bataiatu ondoan baño, aguitz, eta aguitz urrutiago gueunden gu, nai guenuquen, zure Cerutic; eta gueunden gueren obenez, edo gueren becatu ciquiñac gatic ſulececo atarian, ta ſutan erretzen daudenen artera erortzeo puntuan! ta an erori ba-guiña? GALDUAc gu ſecula guciraco!

ESQUERRAC zuri Jeſus maita-garria, gu an aſpaldi aſco ez eroriaz! Eta eſquerrac zuri gu-requin gueroz eguin dezunaz ere; bada urricalduric zu, gu bezain errumes galdu char errebeſez, idiq-eraci dizquigutzu guri gueren beguiac, ecus guenezan guc non guembiltzan, ta cembat amil-teguiren, ta galtzeco perillen artean, perill oriec izutzen guinduztela ba-cen ere ar-

artu guenezan gueren gaizquien dam-urriquia, ta gaur-guero zure ondoren ongui, zucen, ta viciro ibiltzeco gogoa, pozic guc artu dugun bezala. ONEtan iraun dezagula guc, gu gueroc illic guelditu arte guci gucian. Bai arren, JESUS maitea, bai.

I

NON INTRABIT IN EAM ALIquod coinquinatum, aut abominationem faciens. Apoc. 21. 27.

CERU eder, JERUSALEN Santa arquitzen da, dio S. JOAN Evangelariac, sartzetoqui, edo bere atari guciac AINGUERUZ gordeac, edo ingurutuac daduzcala. JERUSALEN artaco eder-tasuna ecin ederragoa da: ta ango arguia ecin andiagoa, ecin buca ditequena, ta Jangoico berarena bezalacoa.

JERUSALEN artan sartzen diranac illen ez dira beinere: ez dute negar-videric ecusico, bein an sartu ezquero; ez eta quezcaric, carraisiric, edo beste neque-moduric ere: nequeac bucatzen dira, an bein sartzen diran-entzat emengo beren vicitza-requin. An ez da, atseguin-contentua, Jauna bein berac, eta guero elcar maitatzea, ta betico gloria-ta-gloria, besteric. Emen-ez bezalacoac dira, ango, edo Ceruco gauza guciac; eta guciac dira ecin obeac.

ONGUI da; baña norenac ote dira, gauz, orren nai-garri eder oriec? Edo cein ote dira, zori-oneco doatsu, gauz oriez betico jabetzera, Ceru orretan sartzeco dauden oriec? EMEN aisa, emen beren gogara, ta, nai duten eran vici diranac? EMEN atseguin andiz, ta contentu luzez beteric beti arquitzen diranac? EMEN, berac vici diraño, beren gogoac ematen diezten, gauzac baicic, eguiten ez-dituztenac?

EZ; ez, dio S. Joan Evangelariac; oriec ciquiñac dira, dio, ta gauz ez-onac eguiten dituztenac; eta, era orretaco guizon andreac Ceru garbi artan ecin sar ditezquen gendeac dira.

CEIN-etatic ote dira, bada, araco diran gendeac?

NEGARTI garbi onetatic. BAI; damuz, ta negarrez beren bihotzac garbitzen dituztenac dira, araco diran, emaztequi-guizonac. ORIEI, bai oriei an sartzean, garbituco diezte Jangoico maita-garriac beren beguietaco negar guciac, eta, beren horduraño-co, negar garbiac gatic emain

diez-

diezte eternidade gucico atseguin contentuac.

ZORI oneco negar-damu-garbiac, orrembat ondasun, ta atseguin irabazten dezuten, damu-negarrac! NEREAC gaur--guero zuec izatera, nere doatsu zori onecoa ni! LENAGO nic zuec artu baguetic dira, nere orain-dañoco negar-vide gal-garriac, eta becatu ciquin guciac. ORIEC nic nere barrendic bein aienatzera, edo aienatu ezquero, ez dute berriz, ez sar-vide berriric emen arquituco. ZORI gaistoan ez nien nic lenago, ta lenago ere, len zutena galeraci! NIC len ori oriei galeraci ba-nie, gaur ez nintzan arquitzen ni, arquitzen nazan, eran edo arquitzen nazan bezain, garbitu beharra; ta gaur arquitzen nintzan ni nere Jangoico maita-garriaren gogo-bihotzean ongui-ongui sartua! SAR ba-nendi gaurdanic ba--dere! Eta sar ba-nendi, seculan, edo bein ere andic ez ateratzeco! ALA guerta dedilla: bai arren, bai,

2.

IN TIMORE DOMINI ESTO TOTA die; quia habebis spem in novissimo. Prov. 23. 17.

ARTU zazu zuc, emen vici zaran arteco, ongui dago quizun, ta guero raco usste onez beteco zaituen, vide zucen ondasun--dun bat.

CER vide da, etorquizun onez beteric dagoen, ta emen bertaric ere onen ongui dagoquigun, vide zucen hau? Vide hau ote da, lurreco ondasunez, ta urre-cillarez beteric arquitzen den, videren bat?

EZ bada, ez: Ceruraco videa da, zori-oneco vide hau; ta, Ceruta igateco, ez dira lagunic on-enac diru--ondasunac; astunac dira alabaña, edo guztiz pisuac.

CER bada? Vide ori ote da jan-edan galantezco videren bat?

EZ ta ori ere: arin ibilli behar du alabaña, Ceruraco videan dabillen, edocein guizonec; eta era orretan ecin dabilque sabela bete, ta alferqueri naguian gau-egun arquitzen den, guizona, edo sabel betetic datocen, lan loietan ibilli oi dena.

OTE da vide on ori araguiaren atseguin--contentuz beteric dagoen, videa? EZ eta ori ere.

CER gatic ote? Ceren atseguin-contentu char oriec usteltzen duten orien ondoren dabillen edocein, ta cereu ori quendu oi dioten, Ceruco gauzac

gauzac ecusteco behar luquen, argui gucia, edo argui beraren pusca, ta zati anitz; ta, arguric bague, edo argui guti-requin dabillen bat ibilli oi den, ondatzera doan, omtzi urratuan lo datzan, Marillenaren eran.

CER vide da, bada, Cerura zucen daraman, gure Jaunaren vide on ori?

ORI da, dio Espiritu Santuac, egun gucian icara bat, eta bere Jaunaren beldurrez beteric egotea. ERA orretaco beldurtiac dira, Ceruco videan viciro dabiltzanac. Oriec dira, vide orretatic atera nai dituenaren chistuari, edo oiuari ez aditu eguiten diotenac; eta etsaiaren sare-etan, edo tentuetan sartu nai ez dutenac. Oriec dira beren Jaunari emateco dauden, contuac alic onguiena zucenduric daramaztenac. Oriec dira Jaun berac nai dituen, present onac berequin daramaztenac, edo al dituzten, lan on guciac eguin oi dituztenac: eta orre gatic dira, beren contu guciac ongui eman ondoan, Ceruan sartu uste dutenac; eta sartuco diranac ango atseguin, ta contentu gucien Jaun, ta Jabe izatera. Zori onecoac era onetaco beldurrez beteac arquitzen diranac; bada oriec dira, utsegui bague, ta guztiz segurqui erditico dutenac beren Jaunaren Cerua, ta Ceru bereco atseguin-contentu-gloria. SAIA ba nendi ni ere, orien eran emen vicitzera, orien vide beraz guero sartzeco orien beren artera. Nere Jangoico maita-garriac didada ibill-era oriec escatzen duten, laguntza, ta gracia; bai arren, bai.

3.

QUIS ASCENDET IN MONTEM Domini, aut quis stabit in loco Sancto eius? Innocens manibus, & mundo corde. Ps. 23. 3.

CEin ote da, gure Jangoicoaren mendira igateco prest arquitzen den, zori-oneco Anima? CEIN ote da, Jangoico beraren toqui eder, Ceru garbi-garbian beti egon beharra? CEIN, eternidade gucian Aingueru gucien lagun izateco dagoen, Anima? CEIN Ceruco Santu-santequin bateau gure Jangoico maita-garriari beguira-beguira, ta gloriaz beteric egon ditequena? CEIN? baicic, escuz, ta bihotzez garbiro dabillen, guizona, dio Davidec.

BAñA cein ote da guizon

zon ebille garbi bihotz onezco hau? Hau da (baldin ezpa-daquizu) bati ere bere gauzaric quentzen ez diona. HAU da berac, eta besteren gauza guciac, behar den, eran zucentzen dituena; edo berari ez dagocanic artzen ez duena, ez eta ucatzen ere, besteri dagozcan-etatic batere. HAU da goicetic arratſ-erañoco bere gauzac, bai-ta vicitza gucicoac ere alic onguiena eguin oi dituena; ta utſen bat cerbait--etan eguin horduco, damuz, ta urriquiz, ta aldatuz zucendu oi duena. HAU da, utſeguiteco videric bati-ere eman nai ez liqueona; hau, al duen, ona edoceni eguiten diona: hau, norinai vide zucen--etan, edo gauz onac zucen eguiten laguntzeco, preſt dagoena.

CERURAco dagoen, hau da, eſcuz bezain, garbiro, ta zucen bihotzez dabillen, guizona. HAU da beré amore onéz Jaunaren amore bazter baguecoari eranzun oi diona: hau da, gogoeta, ta aſmo char, zucen ez--dabilzanac, lembaitlen bere baitatic, edo bere gandic quendu oi dituen, guizona; ta, hau da, bera gorputzez lurrean egona gatic, bere gogoz, bihotzez, ta naiez beti, edo muiz beintzat Ceruan ſarturic arquitzen dena; ta hau, araco uſtean, bere gauza guciac, behar den, eran eguiten, eraguiten, ta zucentzen dituena. Orra nolacoa den, Ceruraco dagoen, Anima.

ERA orretacoac ote gara zu ta ni-bioc? Anima orienac, bezain zucenac, eta garbiac ote dira gure bien aſmoac, gure hitzac, gure lanac, eta beſte gure eguiteco lan, ta neque guciac?

EZ beintzat nereac, ez! Emengo gogoetac, eta aſmo char arin galduac arrastatu nautte ni, ta eraguin izandu dizquidate (norc daqui) cembat lan gaiſto, oben, ta culpa. ETA cer daquit nic, urratu ote ditudan, behar den, eran beintzat, damuz, naigabez, ta ciñezco urriquiz onen cate aſtun-piſu-arri-garriac! EDO cer daquit nic, barcatu ote dizquidan, ni taz urricalduric, nere Jangoico maita-garriac, beraren contra nic eguiñ-icaco utſac, obenac, eta culpa guciac?

ETA harc oriec niri barcatu ba-dizquit ere, cer daquit nic, cer eran, ta nola vicico nazan ni, datozen, demboretan!

BAñA cer eguin uſte de-

dezu zuc orain, orain bezala?

NIC orain eguin uste dudana da ciñezco damuz, ta, Jangoico berac escatzen duen, urriquiz nere leneco zor guciac ateratzea; ta emendic aitziña, al duquedan, vicitzaric onen bat eguitea. ETA zori onecoa ni, nic hau eguitera, orain nic uste dudan, eran, ta irauten dudala oraingo nere almoan, ill arte gucian, edo vici nazaño! Cer guerta--ere, asi nadin ni, orain daguiquedan-etic, eta esca dezodan nere Jangoico maita garriari leneco nere utsen, ta becatu gucien barcamentua, hitzez, ta bihotzez erratên diodala: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XLII-GARREN OTOITZGAIA.

ZAZPI-GARREN DOATASUNA: *BAQUEDIA.*

BEATI PACIFICI; QUONIAM FILII DEI VOCABUNTUR. Ibid. v. 9.

DOATSUAC, ETA ZORI ONECOAC BAQUETIAC bada oriei emain zaie Jangoicoaren humeen icena.

JANGOICOAREN HUMEen icena icen andia da, anitz valio duen, icena da, ta, neque andi-equin irabazten denean ere, aisa, ta merque asqui irabazten den, icena. Ala irabazten dute; berac anditu-ondoan, Jaunaren manuac zucen-zucen, ta behar den eran eguiten dituztenac; eta besteen artean, BAQUETIAC.

AUR bataiatu--berriac ere ba-dute Jangoicoaren humeen icena; baña orien icen ori, Jangoico berac doiaric ematen dien, icena da; ez icen oriec berac irabacia. GUC orain billatzen dugun, ta, ecuste-

ra goacen, Jangoicoaren HUMEEN icen hau, adiñ-etara diran; bataiatuen icena da, ta icen, oriec beren lan on-equin irabacia.

Jangoicoaren HUMEEN icen hau irabacico dutenac, garaitu beharco dituzte beren Etsaiac; guerra da alabaña, JOB Santuac dionaz, lurreco gure gucien vicitza; ta Apostoluac dio, guer onetan garaitzen ez-pa-dituzte, edo galduac ez-pa-darabilzte, ta azpian bezala, beren Etsaiac, ez dutela iñola ere irabacico guizonac Jangoicoaren HUME, Ceruaren irabazleen icen hau, ta, icen onen ondotic datorren, Ceruco gloria.

Irabaz ditzagun, bada, guc, icen on eder hau, ta icen berari darraicon, beti--betico Ceruco gloria, saia gaitecen, icen onec escatzen dituen gauzac eguitera, ta guerra vicira; ta ecus dezagun, cer guerra den, guerra-modu hau; ta nola eguiten diran, guer onetan, etsaiac garaituric, icen andi hau irabazteco, eguiten diran, eguitecoac.

LAUR--etsai-aldi dira, Jangoicoaren HUMEEN icena erditsico dutenac, garaitu beharco dituzten, etsaiac; BEREQUICOAC batzuec, edo betibeti berequin dituztenac; eta gañeraco guciac CAMPOCOAC.

ANIMA bacoitzac berequin dituen, Etsaiac dira, bere gorputza beinic bein, edo bere zain--ecur--aragui, becatu etorquitic dena nasia; ta, aragui beraren nasi-eratic datocen, gaitzeraco macur-tasuna, ta tirricacioa. ANIMA beraren berequico Etsaiac dira, tirricacioz suturicaco pasione-etatic datocen, azturac. Etsai oriec dira, anima gaisoac, beren gorputz-etan arquitzen diran demboran, bat-batean ez izan-arren, gutica gutica ba-dere garaitu, ta escura ecarri behar dituzten, Etsaiac; eraguiten diela, niola ere berac nai ez luqueena, baña adimentuac, edo buru onezco ecuste garbiac aguertzen diena, ta gure Jangoico maita-garriac bere Legue, ecin-zucen-agoan aguintzen, edo manatzen diena. ORI oriei eraguiten dienac (naiz eraguin daquiela, borchaz bezala, edo beren gogo gaistoaren, edo macur-eraren contra) eguiten dute alde onetatic, eguin behar dutena; garaitzen dituzte beren lembico etsaiac; eta Jangoicoaren hume baquetien icenaren ondoren ongui, ta zucen dabiltzanetatic dira.

ICEN

ICEN hau irabaci naiez dabiltzan, Animen Etsai bigarrenac dira, beren lagun artetic etortzen zaizten, edo letozquien, naigabeac, eta charqueriac.

BA-daquizue zuec cer eguin Etsai-era oriec aisa garaitzeco? Bai: S. PABLOc gucioi arguiro asqui adi-razten digun.

BAñA cer adirazten digu guri gueren Apostoliac, Etsai oriec guc aisa garaitzeco? ASERRE gaudenean, baqueac eguitea; baquetan arquitzen garan, demboran batiere errierta raco videric ez ematea; naigaberaco videric ez oni, ez hari, ta ez besteri ezartzea: norbaitec guri ematen digunean, ez dagoquigun, bazterren batetic, eta, uste ez guenuen, char-queria--requin, ez-pa-liz baño, gueiago, orri ez-beguiratzea; guertatzen zaizquigun, besteren urs eguite, ta vide-gabe guciac, gueren Jaunaren icenean, ta gure oneraco datocen; ondasunac bezala pozic artzea, oriec eguiten dizquigutenei, ta nori ere nai begui onez beguiratzea; ta eguin, al ditugun, on guciac guciei eguitea. HAU eguiten dutenac aisa garaitzen dituzte beren bi-garren etsaiac, eta Jangoicoaren baquezco humeen icen ederrac erdisten dabiltza. ALA ote zabiltza zu ere? Bai? Bada ez da cer guelditu, ta erdistico dezu zuc ere Jangoicoaren hume baquetiaren icen billa-garria.

ICEN hau guri gal-eraci nai diguten irur-garren eta saiac ere gueren lagunen aldetic datozquigunac dira; bada dira lagunen erriertac, lagunen aser-aldiac, lagunen elcar ecin ecusiac, lagunen auciac, lagunen vendecuac, lagunen char-queriac, oriec ematen dituzten, erran-videac, eta orien beren macur ibillerac.

ORIEC guciac, eta era bereco beste gaistaqueriac ere zure etsaiac dira.

BA-daquizu cer gatic? Ceren quendu oi duten lagunurcoen artèco baquea, ta gracia; ta ceren zuri ere, beren al-eguiñean, quentzen derozquitzuten Ceruco videco cere lagunac, eta JESUSen videtic ateraric, eraman nai zaituzten sulececo gastoen vide zabal loi galgarri etara.

CER eguin ote guenezaque guc, Etsai-galgarri oriec garaitzeco, ta gueren senide gaisoac, edo gueren videco lagunac Ceruco videra zucenerazteco, ta gure JESUS maita-garriaren aldera eracartzeco?

ORIEI berei], elcar ongui artzen ez dutenean, non dabiltzan, ta nora doacen arguiro, ta zucen adiraztea: ta videnabar adiraztea, galduac dirala, beren Jaunaren amoreac gatic, eta, JESUSec eguin zuena, eguin naiez, elcarri barcatzen ez-pa-diote, elcarri eguiten dioten, edocein uts, charqueri, gaizqui, ta vide gabe; ta, hau adirazten diezun, dembora berean, zuc oriei berei adiraztea, orain adiraçi zaien, ori eguiten dutenean, barcatzen dieztela JESUSec beren obenac, beren culpac, eta beren becatu guciac; ori oriec eguiten ba-dute JESUS beraren amore onez, ta elcarri ere Jangoico bera gatic ongui naiez; ta adiraztea, oriec guciac barcatu ondoan, Jangoico berac ematen diela Ceruco bere gracia, ta, andic aitziña berac zucen ibiltzera, Ceru bereco bere gloria.

Hau gucia zuc oriei adirazten diezula, ta cere palacuz, edo nol ere bait elcarganatzen ba-dituzu zuc cere lagun-urcoac, edo len aserre cebiltzanac, garaituco dituzu zuc cere irur-garren Etsaiac; eta, berebat eguiten dezula zuc azqueneco cere Etsai-equin ere, Anima baqueti-etatic zara zu, edo Jangoico maita-garriaren zori oneco hume baquetien icen-ecoetatic. Ez ote dezu zuc izan nai ori-etatic bat? Saia zaitez, bada, len aguertu ditugun-equin batean, Etsai char oriec ere lembait-len lertuac uztera.

Gure LAURGARREN, ta azqueneco Etsai char oriec dira Anima gaistoen charqueriac, eta gure Jangoicoa guztiz aserretzen duten, orien becatuac; eta oriec dira gure Etsairic gaistoenac; dira alabaña, guc, gueren buruac, eta mundu gucia baño, gueiago, ta gueiago maitatu behar dugun, gure Jangoicoaren contra, beren naiez, edo Anima berac nai dutela, dabiltzan Etsaiac.

Nola garaitzen dira gure Etsai, orren galgarri oriec? GARAITZEN dira, becatariei berei guc lagunduz beren culpen barcamentua erdisten, orren aserretua daducaten, beren Jangoicoa gandic.

BAñA nola laguntzen zaie orretan oriei?

Laguntzen zaie escatuz, ta eracutsiz.

ESCATUZ, bai, beinicbein. NORI ote? Jangoico maita-garriari. CER? Urrical daquiela becatari gaisoei, cein ere diran beraren Etsai gaistoac,

ac, ematen diela beren gaizquí gucien ciñezco urriquimentua, ta hordu beretic ontzeco gogoa lan berean laguntzen zaie becatari berei, eracutſic ere, edo aguertuz, bein beren becatu ciqu in-galduen itſuſtaſuna, ta oriei dagoten, beti-betico ſulecea; guero becatu berac quentzen diezten Jangoicoaren graciaren edertaſuna, ta Ceruco gloria; dembora berean eracuſten zaiela, beren becatu-pe-loi--galdutic beren buruac ateratzeco, ta Jangoicoaren graci eder hau irabazteco eguin behar dutena; bai ta eguin behar dutena ere, berriz berriro ez-becatu-ratzeco; ta, irabazvide garbi zucenez dabiltzala, Ceruco merecimentu andiac eguiteco.

Hau eguiten dutenac, edo era onetan becatari gaiſoei aguertzen dieztenac oriec icaſi, edo jaquín behar dituzten, gauzac, zori oneco baquetiac dira, ta Jangoicoaren HUMEEN icen ederra erditſi, edo irabaci dutenac; eguiten dute alabaña, gure JESUS maita-garriac manatu cien, guerra, ta Etſai-pelea; bai ta gure JESUS berac, ori nola eguiten den, guri eracuſtea gatic, bere vizitza gucian eguin izandu zuena ere.

CER lan-modu ote cen JESUSec bere vicitza gucian eguin izandu zuen, lan eracuſle zucen ori? LAN-modu ori izandu cen, beinic-bein JESUSec ez eguitea beiñere bere Aita Jangoico maita-garriac nai cituen, gauzac baicic; eta eguin, ta eraman izandu cituen orretaraco, bere gorputz mimbere ona anitz aldiz, ta bortizqui necatu ciotenac.

LAN-modu berean haritu cen videnabar gure JESUS maita-garria, munduan ceni vide-gaberic eguiten etziola; ta dembora berean eguin izandu cituen, mundu beraren, edo munduco gucien oneraco ciran, gauza guciac. LAN-modu berean haritu cen gure JESUS maita garria, vendecuz bezala, Cerutic ſua ecar--eraciric bazterrac erre nai cituzten, Apoſtuluac palacatzen haritu cenean: bai ta munduco gucien artean, baquea ſar-erazteco videac hitzez, ta lanez eguiten haritu cenean ere: ta, orretan haritu cen bere vicitza guci-gucian. LAN-modu berean haritu cen JESUS, munduco becatu guciac urratu naiez, ta munduco guciac bere Aita-maita--garriaren adiſquidetaſunera!, ta bere Cerura zucentzea gatic, eraman cituenean ere milla neque, ta pe-

na,

na, ta, gurutze batean, ilzez josiric, eman zuenean bere vicia, ta bere zañ-etan arquitzen citzaion, odol guci-gucia.

ORRA JESUSec, guc gueren Etsaiac garaitzeco, baquetan gu beti vicitzeco, ta Jangoicoaren hume onen icena guc irabazteco, hirzez, lanez, ta nequez eguin izandu cigun, eracustea.

BAñA eguin izandu dut nic, orain-dañoco nere demboran, JESUSec niri bere vicitzan aguertu cidan, lan eder hau? EGUIN izandu dut nic, bein ere úts bat nic eguiten ez nuela? EZ ote dut nic eguin bein-ere, nere aragui gaistoac nai cituen, vide-gabe-etatic bat ere? Escura ote dut nic beti-beti; ito, ta garaitu ote ditut aldi guci-etan nere aragui sutuàc izan oi cituen, naicunde macurrac, eta gogoeta lizun guciac? EZ ote naz ni aserretu bein ere, norc-nai niri edocein char-queri eguiña gatic? Eguin ote diet nic, nerequin cebiltzan, guciei, al nuen, on, ta ontarte gucia; ta bati ere vide-gaberic eguiten ez niola?

ELCARREN escura ote ditut nic, len elcar ecin ecusi zutenac; zucendu ote ditut nic gaizqui, ta macur zebiltzanac? URRATU ote ditut nic orien becaturaco videac? PALACATU ote dut nic, nere aleguin gucian, aserre cegoeen, nere Jangoico maita-garria? ETA ongui, ta zucen ote nabil ni nere Jaunaren Leguean, ta mandaico gucien begui-etan? Zori oneco baqueti dontsua ni, ni ala izatera; ta ni Jangoicoaren humen icen onet-garria duten-etatic bat!

AH! baña ez izandu ni orain-dañoco nere vicitzan, era orretan beren lanac, edo guerrac eguin izandu dituzten-etatic bat! Nic ascotan, ta ascotan utseguin izandu, nere lanic chiquien-etan ere! Nic, nere etsaiac garaitu beharrean, oriec ni ascotan beintzat garaitu, ta urratu izandu! Eta gaur berean ere nola arquitzen ote naz ni? ETSAI beren mene gal-garrian? Orien escupean? EDO nola ote?

AH, nere JESUS maita-maita-garria! lagun zaquizquit arren, oriec garaitzen gaur, ta beti! Eguin uste dut nic ere lan orretan, al duquedan, guci-gucia. Ori lenago ez eguiñaz, ta zure hume onaren icena irabaci gabeaz dut orain damu, ta urriqui; ta ciñez alere. Indazu, arren zuc, damu onetan nic, eta nere pelean nere azquen asnase-raño irau-

te-

teco gracia. Bai JESUS maitea, bai, arren, bai.

1.

NOLITE CONFORMARI HUIC ſæculo, ſed reformamini in novitate ſenſus veſtri. Ad Rom. 12. 2.

EZ da cer vici, ez (dio S. Pabloc), mundu eroac nai duen, eran. MUNDU eroac nai du, gabiltzan gu gucioc, onen gogara, ta araguiaren naicundez naicunde: baña era orretaco ibill-era ero ori debecatua daduca JESUSec bere Legueco Mandamentu garbi etan; ta ecin ar dezaque, Ceruco vide zucenez ibilli nai duenac.

Vide zucen onez Cerura nai dutenac, garbitu beharco dituzte beren beguiac, beren beharriac, beren eſcuoñac, ezpain-mihiac, eta burutic oñe-taroñoco beren gauza guciac; edo eguin beharco ez dute, beren gorputzeco zatiric chiquienaz ere, eguin behar ez den, gauzaric bat ere: ta beren paſsione macurrac, beren aztura gaiſtoac, edo gaitzeraco beren tirricacioac, gaizquiren bat oriei eraguin nai dietenean, artu beharco dituzte, dagozten bezala, edo aldian eman beharco die aldarte gogorren bat, edo beſte; eta iutzi beharco dituzte eſcura ecarriac, edo beren oin-pean lertuac bezala.

ORI ez-ecic, eguin beharco dute gueiago, ta gueiago ere; bada eguin beharco dute, vicitza berri on batec eſcatzen duen, edocein gauza: ta ibilli beharco dute gau, egun, ta beti ecin-contuz-ago, edo contuz, ta erne; alaldatzen ba zaizte ere barreneco beren etſaiac, eta araguiaren lagunac, gal-eraci ez dezoten animaco beren baquea, ta, eguiñic daducaten, beren irabacia. ORI da, orain S. PABLOz gure Jangoico maita--garriac guri gucioi eracuſten diguna; ta ori ber-bera guc, ongui izatecotz eguin beharco duguna. Daguigun bada gure Jaunac laguntzen digula. Bai arren, bai.

2.

NOLI VINCI A MALO, SED VINce in bono malum. Ibid. v. 21

GAISTOAc gaiſtoarena du bere gogoan, gaiſtoric arquitzen den artean; ta gaiſto gal-garria ibilli oi da bere gaiſta demboran, onaren ona ecin eramanez, ta on gaiſoari gaitzeraco videac ezartzen di-

oz-

ozcala. EGUITEN diozca gaistoac on gaisoari bere videgabeac; eguiten diozca charqueriac ere charquerien gain; ta on gaisoari gaizquiric gueiena eguiten dion, eguna da gaistoaren-daco, izan oi duen, egunic andiena. ORRA gaistoaren lana, ta eguiteco gucia.

ETA ona-rena? ETA baquetia-rena? EDO JESUSen humearena?

Onen eguitecoa da, Apostolu S. PABLOc dionaz, gaistoaren lan galduac, eta vide macurrac urratzea; baña urratzea, ez vide galduz, lan gaistoz, vendecuz, ta videbaguez, baicic onez, ta ondasunez; edo onaren lana da, gaista-guiñari ongui eguitea; gaistoaren hitz gogor-galduei hitz on leunequin erantzutea, ta beguitarte garbi--on--zucenez gaisto beraren beguiratze gordin-gogor-cimel--galduei. Ori da, bai, onac gaistoa onguiz garaitzea: ori onaren eguitecoa; ta ori bera, bere vicitza gucian gure JESUS maitagarriac, hitzez, ta lanez guri eracutsia.

ZORI-onecoac gu, ta JESUSen hume-doatsuac, ori guc, emen vicitcen garan artean, zucen eguitera! Ori da, nic beintzat, nere JESUSec niri laguntzen didala, gaur-danic eguin uste dudan, eguitecoa. Lagun--zaquizquit, bada, JESUS maita--garria, beti nic hau ongui eguiten: bai arren, bai.

3.

PROVIDENTES BONA, NON tantum coram Deo, sed etiam coram omnibus hominibus. Ibid. v. 17.

ZORI oneco baquean vici diran, Jesusen hume doatsuac, ongui artuac daduzquee beren neurri guciac: eta eguiten dituzte beren gauzac, gure Jangoicoari dagozcan bezala, ta guiz-artean ere ongui idurico duten, eran.

Baqueti berac ongui datoz beti beren lagun guciequin; ta, oriec ecusi-horduco beren lagunen artean naigaberen bat, edo beste, edo ezda bai-daren batzuec, Aingueruen eran, dabiltza, baquea sor-eraci naiez orien artean; ta, hau oriec erdisten ez-padute, ez onic izaten dute, ta ez ondasunic beren bihotzetan. Ambat nai diere zori oneco baqueti onac beren lagun-urcoei! Ain ongui derizte oriec gure Legue garbian vici diranen baqueari, ta oriec elcar on-

ongui ecusi-naiari.

Onela ote deritzat nic ere orri berari? Anitz alditan lagundu ote diet nic, baque on hau billatzen, baque bera galdu zutenei? Eta, ori nic eguin lecuan, ez ote diet nic, cembaiti beintzat gal--era--ci len, berac zutena; orre--ta----raco aguertzen ni eztela gaista----queriz nic, baitzuen utsac besteei, edo cembaiti erraten niela oriec jaquin ere behar etzuquen, cer edo cer? Ah! baquearen galgarti-char dollorra ni, era orretaco gauzaric eguin izandu ba-dut nic bein ere!

Berriz ez daguidan nic, edo berriz bati ere nic asserre-vide berriric ez emateco, centzuz, ta ongui oharturic vici beharra naz ni, ta eguin beharco dut nic, al eguiña, nere lagun gucien artean baque on bat sar-erazteco, oriec, eta nic gucioc elcar ongui artzen dugula, maita dezagun, vici garaño, gueren Jangoico maita-garria. Ala guerta dedilla, zuc bortizqui gure lan onetan, guri lagunduz, gure Jangoico guztiz onguillea. Bai arren, bai.



4.

SOLICITUDINE NON PIGRI: spiritu ferventes; Domino servientes. Ibid, v. 11.

ORIE, JESUSen humebaqueti onac, irauteco zuec ceren vide on orretan, utzi beharco dezue ceren alferqueria, edo nagui-tasuna, ta erne ibilli beharco dezue ceren gauzetan, dio S. PABLOc. BAñA beguira; era orretan zuec ibiltzeco, viciro eguin uste dezuten, zuen ibillerac beguiratu beharco dio, (ta zucen al ere) zuen Jangoico maita-garriari; edo, zuec viciro eguin uste dituzuen, ceren gauzetan billatu beharco dezue ceren Jangoico maita-garria. Zuec ceren Jaunari atseguin eguitea, ceren Jauna bera servitzatzea; ta ciñez maitatzea da zuen gaisoen, ta munduco gucien eguiBAñA beguira beren Jaun hau maite dutenac, eguiten ez dute bein ere, eguin behar ez duten, gauzaric chiquiena ere; ta beren al-eguin gucian eragozten dituzte lagun-urcoen oben guciac, utsac, eta culpac. ORREtan beti ba zabiltza zu, zuc maite dezu cere Jangoico maita-garria; ta zori oneco anima baquetietatic

tic zara zu, ta Jaunaren hume onen icenecoa.

BAñA beti lan eder orretan hari izandu ote zara zu? CIñEZ, ta gogoz utzi ote dituzu zuc cere orain-dañoco obenac, eta culpa guciac? Eragozten ote dituzu, eragotzi alean, besteren oben-culpac ere? EZ ote diezu zuc noiz, edo noiz cerbait baque ematen JESUSen etsai gaistoei, becatuei, edo becatuaren videei? Cerorrec alde onetan ecin daguiquezuna, eguiten ote dezu, eguin dezaquen, norbaitez zu cerori valiatzen zarala? Echean, carrican, videan, lanean, ta non-nai ote zaude beti zu, oben culpa orien contra, ta oriec gal-eratzen?

AY ene, ta cein guti! EZ dut nic, ez orretara orain-dañocoan orrembat beguiratu izandu! Ariñ-egui nic, ta aisasco artu izandu dizut, nere Jangoico maite-maita--garriari cegozcan, gauzac, eta nere Anima gaisoarenac ere! NI baño, lenagoco eroen eran vicitzen nintzan ni, ta aisa beti, ta nere gogara! EZ dut nic nere orain-dañoco demboran casoric eguin izandu besteren becatuez: ta nereac ere ez didate, ez atsecabe andiric eman izandu.

NOLA vicitu naz bada ni: nere sortu-hordutic egungo egun-eraño? ERO char-galdu bat bezala! ALA da, bai, nere JESUS maita-garria! ala da! BARCATU arren nere orain arteco eraqueria, ta ibillera galdua bada hau barcatzen ba-didazu zuc, eta zuc laguntzen didazula, saiatuco naz, gaur-guero zuc nai dezun, eran vicitzera. ORREtan lenago ni ez asiaz dut damu; ta orre gatic diot orain: *NERE JESUCHRISTO, &c.*

XLIII-GARREN OTOITZGAIA.

ZORTZI-GARREN DOATASUNA: VIDE ONEZCO NEQUEA.

BEATI QUI PERSECUTIONEM PATIUNTUR PROPTER IUSTITIAM, quoniam ipsorum est regnum Cœlorum. Matth. 5. 10.

ZORI ONECOAC VIDE ONEZCO NEQUETAN DABILTZANAC: bada oriena da Ceruco gloria.

EZ dira vide onezco nequeac, lurreco neque guciac: becatuz becatu dabiltzanac ere ba-dituzte, lurrean vici diraño beren nequeac: bada nequez irabazten, edo erdiften dituzte (ascotan beintzat) lapurrac berac ere besteren diruac, edo, ebasten dituzten, beste gauzac: anitz nequeren burian, ta, dituzten diru-etatic cerbait zati galtzen dutela, izan oi dituzte araguizco loiquerietan dabiltzan ciquiñac, beren atseguin lizunac; eta, gañeraco gaizquitan dabiltzanac ere, edo beren gaistaqueriac eguin baño len, edo orien eguite berean, edo gaista-queriac eguin ezquero izaten dituzte beren nai gabeac; eta cembait aldiz anitz neque gogor, ta pena; baña orien naigabeac, eta orien nequepenac ez dira, ez, orain ecusten gabiltzan, zori oneco naigabe-neque penac.

BA-dira bai, gure mundu necadi galdu onetan beste neque-moduac ere; eta orietatic cembait berez onac. ORIetatic dira beren becatuac gatic, len gaizqui vicitu diranei etortzen zaiztenac; baldin oriec beren becatu beren alde, ongui, ta garbiro artzen ba dituz-

tuzte: baña neque oriec ere neque onac, eta neque, Ceruaren irabazleac izan-arren, ez dira, ez, vide-gabeco nequeac; ez eta oraingo aldian guc billatzen ditugun, zori oneco doatsu onen vide onezco nequeac ere; bada orain guc billatzen ditugun, nequeac dira, ongui vici diranen nequeac; eta neque, onac ori-etaraco videric ematen ez dutela, izaten dituztenac, eta eme-emequi eraman oi dituztenac: *si benefacientes patienter sustinetis; hæc est gratia apud Deum.* Ep. 1. Petr. 2. 20.

ZORI oneco neque oriec, ez dira guciac, ez vide batezco nequeac; izaten dira irur videtatic batez datocen, nequeac; bada etortzen dira, ontzat artzen dituen, zori oneco doatsua gana, edo ceren hau dabillen, bere Legueco gauza guciac, batean ere utseguiten ez duela, ta behar den, eran eguinnaiez; edo ceren dabillen zucen-eraci-naiez, gaizqui, ta macur ibiltzen diranac, edo ceren eguin nai dituen, bere Legueco gauzequin batean, beste anitz ere; ta eguin nai duen ori gucia, ona baño, obea izatea gatic, edo JESUSen ondoren, ta eran ibilli naiez.

ZURI bacan, edo maiz etortzen zaizquitzun, nequeac etortzen ba-zaizquitzu, era onetaco gauzac gatic, vide onez datoz-quitzun, nequeac dituzu; ta, zuc ongui oriec, eta, behar den, eran artzera, zori oneco doatsu necatia zara; ta doatsu-necati, cere onezco neque-equin Erreinu bat irabazten dezuna; ta ori irabazten dezuna, gure JESUS maita-garriac nai duen, videz, ta eran; ori da alabaña justiciazco videz, edo vide zucen-zucenez, ta onezco neque garbi-equin gure Jangoicoaren Ceruco Erreinua zuc irabaztea; ta Erreinu ori bera, vide berez, ta era berean irabaci izandu zuen gure JESUS maita-garriac ere.

ORI da, bai, dio San PABLO Apostoluac; ori da, ori, ez besteric!, ongui vicinai dutenac eraman behar duten, videa, ta ibillera: *omnes, qui piè volunt vivere in Christo Iesu, persecutionem patientur.* 2. Tim. 3. 12.

ZAUDE bada zu, zaude beti orretan; ta eguizu zuc cere eguitecoa, jaquiteco eder zucen hau daquizunac bezala; edo vici zaitez zu, bati ere gaitzic eguiten ez diozula, charqueriz betetzen ba-zaituzte

te ere zurequin vici diranac. EZ da cer zu aferretu zure esiac, edo fasiac urratu, ta besteren ganaduac zure baratzean, zure zelai-etan, edo zure alorrean fartzen diranean: ez eta zure ichean, zure ganaduetan, edo beste zure gauzaren batean vide-gaberen bat ecusten dezunean ere.

Guezurrez, ebatsiz, edo nola-nai cere gauzaren bat quentzen dizutenean; edo zuri cere gauzac gal-eraci naiez dabiltzala, ohartzen zaran aldietan, gora zazu zuc cere burua cere Jangoicoa gana; ta, ezaguturic (horduan zuc ezagutuco dezun bezala), nequetan vici beharrac dirala, ongui ta zucen vici nai dutenac, eta ala vicitu izandu cela gure JESUS maita-garria ere, errazu, hitzez, nai ba-dezu, edo bihotzez ba-dere, aldi orietaraco JOB Santuac, era bereco aldi batean eracutsi izandu ciguna; edo errazu: nere Jangoico onguille maita-garriac emana da, edocein gauza, ta nic dudan, guci-gucia, ta ecin niri niorc quendu:o dit, den zatiric chiqui-enic ere, nere Jangoico berac hartaraco escuric ematen ez diola, edo hari ori eguiten ez iuztera. Quentzen ba-didate bada noizbait niri cerbait, edo galtzen baditut nic gauzaren batzuec, quentze, ta galtze oriec izain dira, aldi hartan niri dagozquidan, gauzac: agui dedilla bada, edo guerta dedilla, nere oneraco dela, nere Jangoico maita garri berac daquien gucia.

HAU zuc erran ondoan eguiten ba-dezu, dago-quizuna, edo eguiten ba dituzu zuc cere gauzac, vide onez, ta asaldatzen etzarala, zu izain zara, bai, vide onezco nequetan dabiltzan, zori oneco Ceruaren irabazle-etatic bat.

ECUSTEN ba-dezu noizbait zuc, zu gueldi-gueldi egona gatic, eta bati-ere gaitzic eguin gabe, ez daudela gueldiric, ez, zurequin jarduqui nai dutenac: ECUSTEN badezu zuc, esqueca dagoquizula emendic bata, ta andic bestea, bati ere zuc ecer zor ez izan arren: ECUSTEN ba dituzu zuc, lagun onen videric bagueco aucia, edo pleitoa, ta beste haren marmarioa: ECUSTEN ba-dezu zuc, guizon batec batetic, eta besteac bestetic ematen dizquitzula anitz naigabe, neque ta pena, ta gucien artean laburtzen dutela zure osasuna, bai ta ondasuna ere, sar zai-

tez zu naiez, ta gogoz cere bihotz-eraño; ta, an ezaguturic, beguira dagoquizula zuri cere Jangoico ecusle maita-garria, errazu alic emequiena: AH JAUNA; ta cer daquit nic cer den niri aldi onetan onguien dagoquidana! Aisa vicitzera ni, ta naigaberic bat ere bague, aguian galdua nintzaque ni! Zuc ba-dacusazu, bai, orain nic daramadan, gurutze-neque-quezcagucia! Zuc ala nai ez izatera, ez nuque nic, era onetaco nequeric orain eramain: baña zuc, nere Jangoico maitea, ala nai dezun ezquero, nai dut nic neronec ere; ta, eraman dezadan nic hau, zuc cerorrec nai dezun, eran, escatzen dizut nic orre-taraco beharco dudan, LAGUNTZA, ta GRACI-guci-gucia.

Hau zuc eguin ondoan asitzen ba-dira (bati ere zuc artaraco videric eman bague) BATA zuri beguitan ematen, eguin ez dituzun, charqueriequi, BESTEA zuri asmatzen, zuri bein ere gogora etzaizquitzun, eraqueriac; erraten HAU, zu zarala zaran ez-bezalacoa; HURA, ez daquizula zuc non dezun cere burua; eta beste ANITZ. gogo gaistoac eman al-adiña asmacio, ta guezur: ONELA edo beste edocein VIDEZ urratzen dizutenean zuri cere hondra, icen ona, ta opionea, errazu zuc eme-emequi cere baitan, ta cere Jangoico maita-garriaz onoitzen zarala:

EZ DUT nic, orain-dañocoan, ez, era onetaco gauzaric eguin izandu; eguia dasbaña nori ezquerrac? EGUIN ez nitzaque nic, oriec guciac baño, aguitz gaistoagoac, eta gaistoagoac ere: ETA nerez ni ez nago beti, edo gueienean beintzat, artaraco prest, eta prestegui ere?

CERtaraco ote da bada, oriec nic, nic eguintzat aditzea? EGUIN ez ditzadan nic bein ere; ta, ez eguiteco, presta nadin ni, emen bertatic nic nere Jaun maita-garriari bere gracia, ta laguntzac escatzen diozcadala. ESCATZEN dizquitzut, bai, nere Jangoico maita-garria; ta escatzen dizquitzut humill--humilqui, ta guztiz ciñez. EZ daguidala nic, nere Jangoico maita-garria, gauz orrelacoric bein ere, ta darausala mundu eroac, nai *duena.*

Ah, cer mintzo-era, era onetaco mintzo-era! Ah cein hitzcuntz-ederra, era onetan mintzatzen diranen hitz-

cun-

cuntza! Hau ote da, nic nere orain-dañoco demboran erabilli izandu dudan, mintzo-era, edo hitzcuntza? Hau ala dela, justiciazco zucen-tatunezco, edo vide on-onezco nequeac daramazten zori-oneco doatsu-etatic, beren gurutze ona--requin JESUSen ondoren dabiltzan-etatic, eta Cerua ederqui, ta anitz ondasun--equin irabazten duten-etatic bat izandu naz ni; ta, era bereco, darocen, aldietan, hau berau nic eguiten dudala, irabazten dut nic beti-betico nere Jaunaren Cerua bera; ta irabazten dut nic hau, nere JESUS maita-garriac irabaci izandu zuen era berean; bada JESUSec hau irabaci izandu zuen, anitz, neque-modu ar-erazten ciozcatela, ez ceren eguiten cituen gaitz, edo gaizquiren batzuec, baicic bere vicitza zucena gatic, eta ceren eguiten zuen, beraren Aita eternoac nai zuena; ta ala ere berac artzen cituela guciac, ecin emequiago, ta paciencia ecin-obean.

Hau gucia, ba-daqui, onela dela, daquienac, cer eran arquitu oi cen gure JESUS maita-garria, emen munduan vicitu cen, demboran; eta daquienac, JESUSec emen ecusi, aditu, ta eraman izandu zuena bere erritar esquer-gabe etatic, Fariseo gaisto, ta Judu gogor-etatic, eta beste gende modu gucietatic, PILATOS-en manuz gurutze batean josiric illa iurzi zuten artean.

BAñA gure JESUSen eran, ta, adiraci ditugun bezala, artu ote dituzu beti zuc, cere onezco, edo justiciazco neque guciac? EZ ote diezu zuc gaitzic eguin bein ere; ez ote diezu zuc erantzun cerbait, gaizquiren bat eguin izandu dizutenei?

ONTZAT beti artu ote dituzu zuc, eta cere Jaun onaren icenean, lagun onac zuri eguin dizquitzuten, charqueri guciac? Gaisto gucien videgabei beguiratu ote diezu zuc beti, cere Jaunaren escutic cetozquitzun, irabaz-videei bezala? Esquerrac beti ematen ote ceniozcan zuc cere Jangoico maita-garriari, era onetaco bere irabaz-vide guciac gatic?

EZ-ez, nere Jangoico maita-garriac, ez, ascotan beintzat, ez! bada aguitz minduric uzten ninduten ni, anitz aldiz beintzat, noizean-bein izan oi nituen, nere, era orretaco, nequeac; eta aldi orietan ibilli oi nintzan ni, tiratu dioten, arriaren on---

doren ortzca dabillen, zacur sutua bezala; ta, dembora berean, erraten nuela, necatu ninduena gatic, norc daqui, cer; oroitu beharrean ni, nere nequeac niri nere onera-co bidaltzen cizquidan, nere Jangoico maita-garriaz!

AH nere eroeguia! Ah! ta cein andiac ciran, aldi orietatic edoceñ-etan nic galdu izandu ditudan, ondasunac! BALDIN ba-neduzca orain nic oriec guciac, cein aberatsa ni gaur, ta cein zori-oneco neque-eramallea! Orain nic dagui-quedana da, leneco utsez damuturic, utsberriric ez eguiteco, asmo on bat arztea.

ARTZEN dut bada, bai gaur bertatic; eta pozic al-ere; ta, lenago hau ez artuaz ongui damuturic, arquitzen naz ni gaur. NERE Jangoico maita-garriac didala niri, oraingo nere asmo on onetan irauteco, ta artu behar diran, eran, gaur-gueroco nere neque guciac artzeco; ta videnabar irabaci andiac eguiteco gracia. Bai arren, bai.

I.

OPORTET CONTRISTARI (VOS) in variis tentationibus, ut probatio vestræ fidei, multo pretiosior auro (quod per ignem probatur) inveniatur. 1. Petr. 1. 6.

ECIN Ceruraco dira, garbi garbiac arquitzen ez diran, Animac. AN sartuco diran, Animac, ara baño, len iutzi behar dituzte beren obenpitsac, eta loi-queriric chiquienac ere. Oben-loi-pits oriec iuzten dituzte Anima ez garbiac quezquen, nai-gabeen, tentuen, ta era bereco anitz nequeren arri-tartean; bada, S. PEDROc dionaz, Animac garbitzen dira, urrearen eran; ta urrea ez da garbitzen, sutan urtuz, ta urtuz baicic.

ETA nic, oben chiquien pitsac ez-ecic, becatu andien loiqueriac ere nere Animan sartu izandu ditudanac; nic, obenez oben, ta culpaz-culpa nembillela, aztura gaistoen locarri ciquiñez nere anima lotu ric daducadanac, cembat nequeren, su cembat naigaberen egur, ta cembat urriquiren, ta damuren ur beharco dut, nere hau ongui garbitzeco? HAU norc adiraci! GOGORAtzeac berac icara iutzi lezaque, ni bezain centzu

gu-

gutizcoa ez den, edocein Anima!

BAñA anitz icaratu ote naute ni, orain-dañocoan, nere ez-garbi-erac, edo nere Anima gaiso onetaco ciquin-tasunac? ZORI onecoa ni, orrelaco cerbait icararia sartu izandu ba-litzait niri, nere lembicico becatura nintzanetic! EZ nuen aguian becatu berriric eguiñen nic, onec bein ni beldurtu ezquero; ta gaurcotz nere Animatic quenduac ceuden nere becatu char onen zorrac, eta loi-pits guciac; eta gueroz nic artuco nituen, nequeac izain ciran justiciazco, vide onezco, ta anitz irabacizco nequeac.

BAñA ez naz, ez icaratu ni, ori ecustez ez-ecic, becatu berriac, eta berriac eguiña gatic ere: ta arquitzen naz ni gaur culpaz, zorrez, ta loiez ongui betea! JANGOIcoac didala, berriric ez eguiteco, ta lenen atzapar-etatic, eta orien zor-etatic datocen, loiqueri-etatic, edo itsus-tasun-etatic lembaitlen irteteco, gracia: bai arren, bai.

2.

CONIUNGERE DEO, ET SUSTINE, *ut crescat in novissimo Vita tua.* Eccl. 2. 3.

ZUC cerez, eta cere Jaunac laguntzen ez dizula, ecin daguiquezu gauzaric bat ere; baña zuri ere Jaunac lagundu ezquero, ba-daguiquezu zuc edocein gauza, ta, cerorrec nai dezun, guci-gucia; bada indar, guticoa izana gatic zure besoa, indar guciac dituena da zure Jangoico-arena; ta bien artean ba-da, edocein gauz-etaraco behar den, guci-gucia.

Zabiltza bada zu beti bat eguiñic cere Jangoicoa requin, ta acico dira zure indarrac, edocein gauz on eguiteco, ta Jaunaren Legue onac ecarri oi dituen, neque guciac eramateco; ta oriec zuc ontzat artzera, cere Jaun beraren iudarraz valiatzen zarala, eguiñen dituzu zuc, emen vici za raño, Ceruco irabaci anitz, eta aguitz andiac; eta erditsico dituzu guero Ceru beran atseguin-contentu andiac, eta Jangoico beraren gloria. ALA erraten dizu Jangoico berac Escritura Santaz.

ONGUI: baña artu naico nazu zuc zu gana ni, nere Jangoico maita--garria? EMAN naico ote derez-quidatzu zuc niri cere indar andiac, eta laguntza? Lagundu naico ote didazu zuc niri nere neque onac eramaten, ta nere lan zucen oriec eguiten?

Ni

Ni bat zu-requin eguin ezquero, bai, nere Jangoico maita-garria, bai; edo bai, nic zucen eguitera nere gauzac, edo nic, zuc nai dezun, eran eguitera, zuc cerorrec erraten, manatzen, ta adirazten dizquidatzun, guciac.

Nai dezu zuc hau, nere Anima, cere Jaunaren laguntza--indartsu--zori--oneco one gatic?

BAI, nai dut, bai, nere nai on onetan ere nere Jangoico berac laguntzen didala. PREST nago, bai, nere Jangoico maita-garria, zuc nai dezun, gucia zucen eguiteco. ORI gucia bertatic eguiten, asi-naiez nago; ta orretaraco zure beguira nago, edo zure laguntz-indartsuaren beguira, ta uste. Escatzen dizut nic alic cinquiena; ta ez hau, ez gaur zuc niri ucatu, nere Jangoico maita-garria; ez arren, ez. oriec zuei beguira-tzecotan, izain lizaque, beguitan zuec artzeco, ta histaz, ta irriz, ta asm-al adina gaistaqueriz zuec ciquintzeco. CIQUINTZEN ezpa-zaituzte; ta, ciqrindu beharrean, elcarren ezagunen, ta adisquideen guisan mintzatzen ba-dizue, gaisoac zuec! bada orien eracoac bide zarazte zuec ere, edo oriec bezain gaistoac; eta gaistoac, daquizuen bezala, zori gaistocoac dira; galdu beharrac dira, ta erre beharrac dira beti ta beti, ta Jangoicoa Jangoico den artean!

AH nere Jesus maita-garria! Ez dut nic nai, ez gaistoen lausenga galduen zatiric bat-ere! DAVIDec beinciona (Ps. 140.) diot orain nic, eta errain dut beti, vici-nazaño:: IZAN bitez (niri zaidana gatic) gaistoac, diran aberatsenac, diran andienac, eta diran escu-emalleenac; ez dut nai nic ori-etatic batequin ere joan-etorriric; ez dut sartu nai nic orien jolas ero etan; iguesi-eguin nai dut nic orien vide-etatic; bada orien vide guciac beteac arquitzen dira beatz-topez, eror-toquiz, laquioz, edo lazoz; ta, era orretaco videz dabiltzan, Animac errotzez errortze dabiltza;

3.

V. Æ. CUM BENEDIXERINT VOBIS omnes homines! Luc. 6. 26.

AH gaisoac, gaistoen lausengaz beteric vici zaraztenac! GAISTOen eran zuec ez vicitzera, ez liquezue oriec, ez beguiratuco ere, edo

tza; ta, diran, guciac loituac beltztuac, eta galduac.

ZORI gaiſtoan nembillen ni, lenagoco nere demboretan, vide galgarri ori-etaco nere atſeguin char galduen ondoren; bada orien ondoren nembillela ni, guelditu nintzan, Anima ciquindu orien eran; ta ba-ditut nic orain-dic, bai noſqui, horduco nere erortze-etaco carramiſtac, eta calteac ERE!

DARAUStela bada, nai-dutena, nere gauz-en, ta ibillera berrien gain lenagoco nere lagun gaiſtoac; ez dut berriz, ez, nic orien artera itzuli uſte. Berriz aratzen ba-nintz ni, berriz ere oriec galduco ninduquee ni, beren eguiteco, ta ibill-era ciquin galgarri gaiſtoequin, ta azquenean eramain ninduquee beren betico ſulecera.

EZ dut nic nai, ez, erretzen egon an oriequin batean; ez eta bacarric ere. CERUra nai dut nic, Aingueru gucien, ta ango onen lagunezatera. ARAco ba-naz ni, ſartu beharco dut, bai, bein, ta berriz ez-ecic, aſcotan, ta aſcotan ere lurreco gaiſtoen maldiciozco, ta milla nequezco gurutze-pean: baña ara nai dut nic, onela ba-dere; ta orretaraco, nai dut nic, pauſuren batean nic utſeguin-horduco, te behar ez-den, gauzaren bat eguitera noan, dembora berean, hitzez, ojuz, ta alde gucietara izu nazaten onac, eta, nere Jangoico maita-garriac orre-taraco daduzcan, guizon guciac; eta horduan nic ori-etara aſerretu lecuan, eſquerrac eſquerren gain emain dieztet beren mintzo-era, ta hitz-eguite gogorra gatic.

NERE JESUS maita-garria! CERE gurutze-pean ni gatic zabiltzan, nere Jangoico guizon ecin onagoa! zurea da, bai, edo zuc emana, nere barren onetan nic arquitzen dudan, oraingo nere aſmoa, ta zure ondoren ibilli-naia! ESQUERRAC zuri ondaſun one gatic ere, gañeraco guciac gatic bezala! INDAZU arren, beſte anitz bezala, hau ez galtzeco behar dudan, zure laguntza, ta gracia. Eta ariñago ibilli nadin ni, ta viciroago zure gurutze videan, ta zu bein ere nere beguietatic galtzen etzaitzudala, quendu behar didazu, orain-dañoco nere utſen, nere obenen, ta culpa gucien carga gucia. Ori eſcatzen dizut, damuz, ta urriquiz beteric erraten dudala: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XLIV.

XLIV-GARREN OTOITZGAIA.

BECATUAN DAUDENAC EGUIN BEHAR DUTENA, beren Doatasunac, eta Cerua irabazteco.

BEre LEGUEA, Legueco DOA-tasunac, eta Ceruraco vide zucen hau aguertu cituenean, gucien-daco aguertu cituen gure JESUS maitagarriac: *Dicebat autem ad omnes.* Luc. 9. 23.

Baña cer? Cerura ditezque becatu-pean arquitzen diran, gaisoac ere? Bai, berac nai dutela.

Nola ordêa?

Beren gurutzea-requin; ta Ceruco DOA-tasunac irabazten, dituztela.

Baña nola ori oriec eguin dezaquee, eri ba-dautza gaisoac, edo becatuz illac?

Lenic erdisten dutela Ceruco graciaren viztu-era, edo vicitza.

Ah, baña nola ill batzuec erdits dezaquee beren vicitza?

Norc berea, orre-taraco eguiten duela.

Batzuec baño i, besteac illagoac dautza, edo batzuec, besteac baño, becatari andiagoac dira, edo gaistoagoac; eta gaistoenac ez dira vizten, edo ez dira gaistoenac, gañeraco becatariac bezain, erraz beren becatu petic ateratzen. Baña guciac ateraco dira, beren aldetic eguin ezquero, eguin dezaqueena.

BA-dira becatariac, oarcabean bezala becaturatzen diranac; ba-dira becatariac, pasionez becaturatzen diranac; bai ta oituraz becaturatzen diranac ere. Orien viztea, edo becatutic irtetea da, oraingoan, ta urrengo bi otoitz-gaietan ecusi behar dugura; ecusiz videnabar JESUSen irur milagro, edo irur illèn viztutze; ceren, aldi orietan guertatuac, arguertzen duen, irur becatari aldi-etatic bacoitzac eguin

eguin behar duena, bere Jaunaren gracia erditsi, ta JESUSen ondoren bere gurutzea-requin zucen ibiltzeco.

§. I.

AUR ILL--BERRI BATEN viztea; ta indar gutizco becatarien gracia-raztea.

BEcatari-etatic batzuec becaturatzen dira, oartu cabean bezala, edo ceren ezagutzen ez dituzten, onguibeintzat, eta viciro becatuaren ITSUS-TASUNA, beren Jaunari beren becatu-equin ematen dioten, ASER-VIDEA, beren becatua-requin galtzen duten, Cerua, becatuari dagocan, betico SULECEA, edo beste cerbait orrelaco gauza, ta eguia: edo becaturatzen dira, ceren, len hau gucia ezagutu ba-zuten ere, becaturaco tentua etortzen zaienean, orrembat oartzen ez diran, eraorretaco gauz-etara, ta aisa garaitzen dituen, indar gutizcoac bezala, beren Etsai amurratúac.

ERA onetaco becatariac dira, becatariric ez gaistoenac, eta urrical-garrienac: eta orre gatic dira, becatari, gañeracoac baño, errazago JESUSen gracia erditsi-dezaquenac. Hau guri adiraci cigun gure JESUS maita-garriac, ill berri baten viztu-era errazarequin, edo errazqui berac eguiña-requin.

GURE JESUS maitagarriari, predicatzen arquitzen cen batean, joaten zaio, JAIRO ceritzan, guizon andi, Sinagogaco Nagusi-bat; eta, an bertan belaunicaturic, erraten dio; Jauna, orainche il da, amabi urteco nere alabacho bat; atoz arren, cere escuz hura uquitzera, ta bertan vizturic uztera.

Jaiquitzen da, luzatu gabe, JESUS, cegoen, toquitic, eta ba-doa nescach illaren Aita-requin onen ech--aldera. Illaren ichean sartu--horduco, arquitzen ditu anitz, doluz, ta negarrez ara joanac. Ba-doa gucien artetic illaren guelara. Artzen du an escutic aur illa, ta erraten dio: JAIQUI ZAITEZ, AURRA. Eta hau Jesusec erran-horduco, jaiquitzen da viciric aurra; ta ba-dabill, eritu ere ez-pa-liz, bezain sendo, ta zucen. Manatzen du JESUSec, eman daquiola jatera; ta arritzen dira, hau gucia ecusten dutenac.

Ecusten dezu zuc, cein aisa, ta erraz itzul-erazten duen JESUSec aur illaren gor-

putzera, andic atera cen, Anima; ta nola uzten duen aur illa vizturic, eta eritasunic gabe, beguiac iste-idiquitze batean bezala?

ETA hau eguiten daquienac, ez ote du jaquiñen nola bere graciaren vicitza itzuleraci, hura bere naiez, ta becatuz galdu izandu zuen, Animara, ta nola Anima bera iutzi, bat-ere becaturic gabe, ta Ceruco graciaren vicitza ederra-requin?

Aitor zazu, bada, orain zuc, hau ecusi, ta ba-dere, bai daquiela, gure JESUS maita-garriac, becatuz illac arquitzen diran, Animac vizten; ta aisa al-ere; ta viztuco dituela, viztu nai dutenac, beraren ondoren guero, ta beren gurutzea-requin, edo gure Legueco gauzac zucen eguiten dituztela, bertatic atitzeco.

Aitortzen dut, bai, nic hau gucia, nere JESUS maita-garria; ta aitortzen dut nere atseguin andia requin al-ere. Eta nic hau onela ezagutu ondoan escatzen dizudana da, ez nazazula becatuz berriz iltzen iutzi: ta, berriz ill ez nadin ni, bete nazazula zuc cere graciaren indarrez, ta laguntzaz.

Baña cer gatic viztu ote zuen JESUSec onen laster, ta aisa aur Necasch ill berri hau? Hitz bi aditu-horduco aur beraren Aita gandic, ba-doa JESUS, illa viztera; ta gorputz illaren alderatzen deneco, artzen du escutic; eta jaiqui dedilla errate batequin itzultzen dio bere vicitza, ta osasun osoa. Cer gatic hau, edo ceri dagocala?

Guri adirazteco, cein errazqui, ta laster urricaltzen den JESUS maita-garria becatari gaisoez, becatari berac becaturatzen diranean, ez Jangoicoari gaizqui naiez, ez eta pasionez, edo aztura gaistoz ere, baicic oartu cabean bezala, ta indar guti izanez, beren etsaiac garaitzeco, edo ceren diran, Ceruco videraco, ta, beren etsaiac garaitzeco, indar guticoac, eta aguitzen, edo guertatzen zaien Cerura daraman, mendico videan, ta beren etsai tentu-equin, JAIROren alaba aurrari, bere oatzean izandu zuen, eri-tasuna-requin guertatu izandu citzaiona, edo humore gaistoz, edo oicura galgarriz beteac ez egonarren, eritasun char, edo tentu-aldi ez andian, indar guticoac bezala, becatuaren ortzetan illac guelditzea, aur hura bere eri-tasuna-renetan bezala.

Or-

Orrela becaturatzen diran Animac cer egum behar ote dute, beren becatuaren atzapar etatic lembaitlen atera, ta Ceruco graciaren vicitza, ta olatuna erdisteco?

Beren becatura horduco mandatari-onac, era becatutic atera-nai beroac igoitzea, edo vidaltzea JESUS ona gana, ta JESUS maita-garriari negarrez, ta humilqui escatzea: ta al ba---du, Jairoc bezala, belaunicaturic. CER ote? datorquiola arren, escua ematera, ta becatuaren atzapar gaisto-etatic bere anima ero-galdua ateratzera, ta indarrez, ta arguiz beteric uztera, utzi oi duen bezala confessio damutsu on zucen garbi batean; baña bidaldu bere nai, gogo on, ta desir oriec, guerozcoan ongui vicitzeco hitarequin; ta, aguertzen zaizcan, etsai, ta tentu galduac garaitzeco, asmoan; oriec garaituz, ta, behar diran, gauzac eguiñez, dabillen bere videan, bein ere berriz becatura bague.

Baña cer gauzac ote dira, oarmen, ta indar gutizco becatariac eguin behar dituen, gauzac, becatutic bein jaiqui ezquero, ez berriz becaturatzeco?

Aur gazte viztuac eguin cituenac bezalaco bi. Cein dira aur harc eguin izandu cituenac?

IBILTZea, ta JATEA. Bai: oartze andric ez dezun, becataria, ibilli behar dezu zuc cere gauzac eguite-racoan, lalecceco etsaiaren, mundu eroaren, ta cere araguiaren deiei, chistuei, ta tentuei ez-adituegiten diezula; ceren, ori gu, cia era orretan eguin lecuan alferquerian arquitzen ba-ciñazu, ta JESUS maita-garriaren, ta cere buruaren etsai galgarri-equin cener--ducala, nola oriec diran anitz daquitenac, atseguin char gal-garriac zuri esqueñiz aisa liluratuco, edo engañatuco cinduzque, aurrac goisoz, inchaurrez, madariz, edo nola-nai engañatuco oi diran, bezala. Orra aur viztuac eguinicaco, ta zuc ere eguin behar dezun lembicico gauza; contuz, ta zucen ibiltzea.

Aur berac eguin zuten, ta zuc ere eguin behar dezun, bigarren gauza da jatea, edo ongui comuniatzea.

INDAR gutizcoa zara cerez, daquizun bezala, ta artu beharco dezu zuc noizean bein Comunione Santaco janari indartsua; bestela azpiraco zaituzte cere irur etsaiac gal-garri-

ac,edo ori-etatic batac, edo beſteac; eta quenduco dizute Ceruco graciaren vicitza, edo Ceruraco illa bezala utzico zaituzte oben--culpen ezpata zorrotz-galgarria-requin.

ORRA bada, oarmen, ta indar gutizco becatariac eguin behar dutena, JESUSen ondoren beren gurutzearequin zuçen ibiltzeco. Erortzen ba-dira nóizbait gaiſoac, eta ciquintzen ba-dituzte beren Animac, berac eguin-icaco becatu gaiſtoen loi galduan,garbitu behar dituzte lembaitlen Confeſſione bateco iturrian; ta, era orretan viztu, ta garbitu ondoan, igan behar dute Comunione Santaco maiera; mai berera behar dute andic atziña noizean bein ba-dere, aldian andic indar berriac ateratzeco: ta jan behar dute bereala Comunioco maiean; ibilli behar dute guero, guelditu gabe, beren gauzetan: baña ibilli behar dute, ongui oarturic, toqui loitietan, ta pauſu gaiſtoetan oñic ez ezartzeco.

Hau gucia eguiten duten, becatariei pozic ematen die, bai, JESUS maita-garriac, berac, ongüi vicitzeco, behar duten, gracia, ta laguntza; ta eramaten ditu guero berequin batean bere Ceruraño, araco orien hordua etorri-horduco; ta eramaten ditu, graciaz, doaiez, ta virtutez ongui beteac.

ERA onetaco becatari-etatic izandu ote zara zu ere, adizten nazun, Anima?

Becaturatzen nintzanean beintzat, bai; bai, nere damuraco!

Eta egüiten ote cenuen zuc guero, era orretaco becatariac eguin behar dutena? Edo aur ero baten eran becaturatzen ciñanean zu, damutzen ote cequizun zuri andic laſter, ta confeſſatzen ote ciñan zu, bat ere luzatu gabe.

AY ene, ta cein guti! Nere gaizqui-eguiñác bere-berealacoan erretzen ninduen cerbait ni, ta illuntzen cidan nere bihotz char mimbere hau; baña aurrarenac ciruditen, horduco nere erretze, ta illuntze guciac; bada andic laſter nere aurqueri-etan nembillen ni, ta, gaizquiric eguin-ezpa-nu, bezain arin, ta aiſa; ta guero ere nembillen ni, batzuetan, nerequin cebiltzan, lagunac gaiſtatzen, ta gutienean gaizquiz gaizqui, becatuz becatu, ta charqueriz charqueri: ta egun oro nembillen ni, naigabe, ta min gutiago-requin;

quin; ta egun oro nuen nic nere bihotz hau ez mimbereagoa.

ANDIC cetorren guero, nic egun-etic egunera luzatzea nere oben culpen aitormen ona, edo nere confesſionea. Eta, noizbait ni confeſſatua gatic, nola confeſſatzen nintzan? Erditzca noſqui, edo nere lotſa charrac, edo alque galduác garaituric, edo nere gaizquien contuac zucen atera gabez, nere gaizqui berac, edo becatuac oſoro aguertzen ez nituela; edo, oriec nic an oſoro, ta, eguin nituen, eran aguertua gatic, oriec uzteco, ta ontzeco aſmoric gabe? ta orre gatic confeſſatzen nintzan ni gaizqui; ta guelditzen nintzan, confeſſatu ere ez--pa--nintz baño, aguitz gaizquiago; ta bihotz char galduagoa-requin, ta gaiſtoagoa-requin.

Ah nere galdu char galgarria! ta ah nere centzu gabea! Lembicico becatura nintzanean ni, ta becatura, ta laſter confeſſatu ba-nintz ni; ta ni confeſſatzera, behar cen eran, emain cizquidan niri nere JESUS maita-garriac, bere eſcu indartſu ederra, ta bere laguntza; ateraco ninduen ni nere becatu gaiſtoen atzaparetatic, eta utzico ninduen oa-gui ſendatua, ta lenago nere Animan nuen, oſaſuna-requin ta gracia-requin; ta, len nuena baño ere andiagoa-requin: baña ez nuen nic orrelacoric eguin nai izandu; ta guelditu nintzan ni Jangoico berac daquien bezala!

ORAIN bad-ere ar banitza nic, artu behar diran, neurriac! ASI ba-nendi ni, nere gauzac zucentzen! ESCA ba-neza nic, eſcatu behar dudan, eran nere Jaunaren eſcua, nere Jaunaren laguntza ta gracia!

NERE lanean aſico naz ni, gaur-danic ba-dere, ori nic oraín eguitera: ta, eguiten ez-pa-dut, galdua naz ni beti, ta betiraco! Ez arren era orretaco galtzeric! Ez, nere JESUS maitagarria, ez!

1.

CONFRINGENTUR RAMI INconſummati, & fructus illorum inutiles. Sap. 4. 5.

AUtſico ditu Jangoicoac adarrac, ſendortu gabe, ta orien frutac loretacoac bezala, ta ecer-eztaracoac! Ori bera guertatzen zaie, edo, ori baño ere, gauza bat aguitz gaiſtoagoa, aur danic gaizqui dabil-

biltzan, becatari gaisoai, horduan oriec beren Jangoicoac emendic quentzera, edo oriec era orretan dabiltzan, demboran, illac guelditzera: becatari oriec alabaña dira, era orretan vici diraño, gure JESUS-aien-eder-onaren adar berri-gaistoac; eta aien, matsonen ordez, izurrizco fruta galduac, edo oben-culpac dacaztenac; eta, hordu hartan oriec autsiac guertatzera, edo beren gaista-demboran oriec mundutic ateratzera, erretzen, ta lertzen oriec betico sulecean egon beharrac dira.

ILL ba-nintz ni ere nere adar demboran, edo adin hartaco bertze gaista-guin anitz bezala, gaur non arqui-tzen nintzan ni, ta cer lecutan? gaur uola nengoen ni; ta nola egon beharra nintzan ni, nere Jangoico maita-garria Jangoico den artean, edo datorren secula guci-guician?

ORAIN guc adiraci dugun, toqui gaistoan, ta era gaistoagoan.

EGOERAren gogoreguia! EGOERAren zori gaistocoa!

EZ ninduen ni horduan Jangoico maita-garriac autsi, ta atera bere aien-artetic, eta mundu onetaco ardantzeetatic: ez ninduen horduan ni bota, ez, ala niri ba-cegoquidan ere, damu arri-garrizco bere sulecera.

BAñA atera ote ninduen ni, horduco nere becatu galgarrien atzapar gaistoetatic? ITZULI ote cidan niri, nere becatu berac nic confessatu nituen aldian bere graciaren vicitza, ta nere Anima-gaisoaren osasuna? VICTIZ, eta osasun onequin arquitzen ote naz ni egungo egunetan ere?

EZ bata daquit, eta ez bestea!

CER ote da bada nic orain dudan, nere jaquite gucia?

Nic orin daquidan, gucia da, nere Jangoico maitagarriac ez barcatzera niri nere aur-tasuneco, ta guerozco nere becatuac, ni nazala adar, edo egur igartu, betico sulecean erretzen, ta erretzen, egoteco dagoen bat! AH cer egoera! Cein damuzcoa! Cein zori gaistocoa! Etzaitzatela, ez ecusi bein ere nere beguiac! Ez arren, nere Jangoico maita-garria, ez!

2.

EXIBIT HOMO AD OPUS SUUM, *& ad operationem suam usque ad vesperam.* Ps. 103. 23.

EZ da, ez guizona (dio DAVIDec), nagui egoteco, ta, alferquerian vici dela, bere egunac bucatzeco, jaioa. JANGOICOAC eguin izandu ditu gauza guciac; eta eguin du bacoitza bere eguiteco-raco, edo bere lan-eraco; ta ba-du guizonac ere bere lana, edo bere eguitecoa: ta beraren vicitza guciraco da guizonaren lan, edo eguiteco hau.

GUEREN oin-pean dacargun, lur hau Jangoicoac eguiña da, ogui-ardoac emateco; ta egaztiac, laur-oñecoac, eta, guizonac behar dituen, gañeraco gauza guciac bazcatzeco. JANGOICO berac eguiñac dira ur-itsasocoac; eta eguiñac dira, arraiac acitzeco, ta, ontziz dabiltzan, guizonei ibil-videa emateco. JANGOICO berac eguiña da aicea ere; ta eguiña, bere bizcar sendorrean odeiac batetic bestera eramateco, ta orien ura requin bazterrac ezatzeco. JANGOICO berac eguiña da sua ere; ta eguiña, otza garaitzeco, ta, guizonac behar dituen, erre egost-etaraco; ta Jangoicoac eguin cituén, hordu beretic, asi cen bacoitza, ta gueroztic hari da, bein ere guelditu gabe, bere Eguilleac emanicaco bere lanean, edo eguitecoan.

Bada cer gatic ez du hari behar guizon eguiñac ere, Eguille berac emanic duen, lanean, edo eguitecoan? GUIZONAren eguiteco hau da, daquizun bezala, Jangoico maita-garriac bere Mandamentuetan bereci diozcan, gauzac zucen eguitea. ONGUI; baña guizon eguiñac eguiten ez-paditu oriec, naguiz, alferrez, gaizta-queriz, edo edocein beste videz, cer guertatuco zaio?

TENTACIOZ eritzea; becatuz iltzea, tabetico galtzea.

NAGUI-tasunaren galgarria! EZ Jesus maitea, ez; ez diot nic ez, gaurguero nagui-tasun-galgarri oni nere baitan lecuric eguin uste. IBILLI uste dut nic, guelditu gabe, ongui necatuco ba-naz ere, zure ondoren, ta ibilli naidut nic, eguiten ditudala, ni gandic zuc escatzen dituzun gauzac; ori da alabaña, zure escu-etatic atera diran, gauza guci-guciac, berac eguiten

ten dutena-requin niri eracusten didaten, gauza; ta oriec guciac baño, ederquiago zuc cerorrec niri, nere Jangoico maita-garriac beti—beti eracutsia; eta ori bera da, orain, ta beti niri dagoquidana. Indazu zuc orretan nic beti haritzeco beharco dudan, zure escua, ta laguntza. Bai arren, Jangoico maita-garria, bai.

3.

IDEO INTER VOS MULTI INfirmi, & imbecilles, & dormiunt multi. 1. Cor. 11. 30.

ZUen artean anitz arquitzen dira eri, dio San Pabloc; anitz arquitzen dira indar guti-requin: ta anitz illac, edo Jangoicoaren gracia gabe.

CER gatic ote?

CEREN ez dituzten eguiten beren jan-edanac, beren aldietan, edo, behar den, eran; ta ceren ez diran comuniatzen behar den, horduetan, edo behar den bezala.

Jaten aviatu ote ciñan zu, becatari charra, edo urbildu ote ciñan zu cere comunioneco maiera adiñetan sartu horduco; ta urbildu ote ciñan zu, ara baño, len cere Legueco gauzac icasi ezquero, gauz onac eguiten asi ondoan, ta ongui-ongui confessatu, ta bereala? Maiz guerozco comunioneco mai berera zara zu, ta beti zu mai orretara zara, ongui prestaturic, eta behar cen eran?

AY ene! ORI nic eguitera, edo nic ori gucia eguin izandu, ba-nu, ez nintzan erituco ni, eritu nazan bezambatetan! EZ nintzan, indarric ez nuela, ta becatuz ill otza guelduituco, guelditu nazan bezala! ALA guelditu naz ni, bai; ta guelditu naz, bein ezecic ascotan ere! ETZEN nornai arritzeco, niri guertatu-ricaco gauza! Goseac nengoen ni, anitz horduz beintzat, eta indarric gabe; PRESTATUA cegoen nerentzat nere Comunioneco maia! Ba-cen an, nic nere indarrac artzeco, behar nuena; bai; ta anitz, eta anitz gueiago ere: baña ara ez urbiltzea gatic ni, edo ceren gaizqui urbiltzen nintzan, urbiltzen nintzan-etan, niri guertatu zait, eticaz dagoenari guertatu oi zaiona.

ETICAZco gaitza duten, guizonac jaten, ta edaten dute beren horduetan; baña beren jan-edan guci-equin oriec eguiten dutena da, beren sucarrac, edo calenturac egun oro, ta beti bazcatzea; ta cembat ere gueiago bazcatzen di-

tuz-

tuzten, edo cembat, eta guerragotan jaten duten oriec, ambat lenago beren buruac bucatzen dituzte, edo ambat lenago illac guelditzen dira.

GAITZEZ, becatuz, ta gosez iltzeco dauden, Animac ez billatzera, beren etsai galgarrien tentuac aienatzeco, beharco dituzten, indarrac; edo Anima oriec ori eguin lecuan; alfer, ta nagui guelditzera, gosez, ta beharrez ill beharrac dira.

ETSAIen tentu oriec aienatzeco indarrac atera ditezque Comunioneco maietic, adiuntz, edo garai onean mai orreta--ratzera, comuniatzen diran, Animac; baña aratzen ez-pa-dira, etican sartu artean, edo alferqueriz beren buruac galdu arteraño, izurri galgarria, ta eriotz-gaistoa izain da, Anima beren comunioneco jatea.

ONELAcoac izandu ote dira, nere orain-dañoco mai bereco jateac, edo orain arteco nere comuniatzeac? ORI da nic neronec nere vicitzan, bestetara beguiratu bagüe, ecus dezaque dan, gauza, edo ecuscaria. ONGUI vici ba-naz ni, edo viciro, ta zucen eguiten ba-ditut nic nere gauzac, ongui comuniatzen nazalaco siñura da; comunionetic indar onac ateratzen ditudalaco señalea da. Baña gaizqui comuniatzen nazalaco señalea, comuniatu-ondoan arquitzen ba-naz ni len bezain nagui nere gauz-on-etaraco. ONELA arquitzen ote naz ni? Beldur naz baietz! Baña dembora berean arquitzen naz ni, nere arquiera gaistoaz ongui damuturic; eta erraten dudala: *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*

XLV--GARREN OTOITZGAIA.

GAZTE ILL--OBIRA CERAMATEN BATEN VIZTEA; ta pasſionezco becatariaren gracia-ratzea.

NAIM-go erriratzean, batzen du JESUS maita-garriac, ortzitzera ceramaten, ill gazte, alargun baten, ſeme bacar bat. NEGARREZ cijoan, anitz genderen artean, ſeme illaren Ama alargun ongui naigabetu hau: ta, hartaz urricalduric, erraten dio Jeſus maita-garriac. ZAUDE: EZ DAGUIZULA NEGARRIC BAT ERE.

URBILtzen da guero JESUS and-etara; uquitzen ditu andac; eta guelditzen dira, beren and-etan mutil illaren gorputza ceramatenac. HORDUan erraten dio JESUSec ill berari: Ah MUTIL: JAIQUI ADI. Jartzen da bertan, illic cegoen mutilla; ta aſitzen da hizquetan: ta ematen dio JESUSec vizturicaco ſemea bere Amari; ta, ecuſten duten, guciac arritzen dira. Luc. 7. 11.

Arritzecoa cen, bai ecuſi zutena; ta Jangoicoaren gauza: bada, Jangoicoac baicic, ecin viztu dezaque, illic dagoen, bat.

Baña ez ote da, hau bezain, gauz arri-garria, ill onen vizteac adiraci nai digunа; edo Animen vizte, maiz aſqui gueroztic JESUSec eguin oi duena; eguiten ba-du ere eſtalpean bezala, ta iñor anitz-oartzen etzaiola?

Bai, ta arri-garriagoa ere; bada, gorputzac baño, aguitz gueiago valio du Animac: eta, gorputza-rena baño, Animaren viztea gauz aguitz andiagoa da: ta, andiagoa ere baño, andiagoa, egungo mutillaren vizteac adirazten duen, Animaco viztea.

Cer vizte modu da, bada, ill onen vizteac adirazten digun, Animen viztea?

Paſ-

Pasionez, edo naicunde gaistoac garaitu gabez, becaturatzen den, Animaren viztea. Onela becaturatzen diranac, becatari gaistoac dira; ta, ohartu cabean, ta indar gabez bezala, betacuratzen diranac baño, aguitz gaistoagoac.

Hau zuc ezagutzeco, ez dezu ecustea bestenic, bein, nola cegoen, len JESUSec viztu zuen, amabi urteco aur illa, ta nola oraingo mutill hau; ta guero JESUSec, hura vizteco egun zuena; ta nola orain viztu duen hau.

Amabi urteco aur ill berria, ill cen, guela berean arquitzen cen oraindic, JESUS maita-garria ara cenean: baña mutil hau, ill ondoan, illen soñecoz jauntziric, echetic atera, ta ceramaten cembait guizonec bere obira, edo sepulturara, guztiz etsiric illaren vizteaz; ta ceramaten, vizte beraren igueſi bezala. Ecusten dezu?

ECUSI zazu bada orain JESUSec hau vizteco, ta leneco aurra viztean eguin izandu zuena.

AUR ill berri hau vizteco, etzuen JESUSec eguin izandu, escutic artu, ta hitz bi erratea, beste gauzaric, baña, mutil lengo illa viztico, beguiratu cion lenic, negarrez cetorren, onen Amari: ta Amaren negarraz urricalduric, artu zuen JESUSec, onen seme illa viztecO, asmoa. Urbiltzen da guero seme beraren golputz illa gana: esc-ucaldiz, edo golpez gueldi-razten ditu, hura obira ceramatenac: aguintzen, edo manatzen dio ill berari, jaiqui dedilla beitan vicitic: vizten da hau; ta, bere and-etan jarriric, edo eteiriric asten da hitzquetan; ta era onetan, edo viztua, ta olasun oso osoan itzultzen dio JESUSec, negarrez cegoen, bere Amari.

ECUSTEN dezu cein labur erraza izandu cen lembicico viztea, ta cein lucea, ta cembat, arazotacoa bigarrena.

AUR ill berria bezain erraz, ta laster viztu cezaquen JESUSec mutill hau ere; baña etzuen ala viztu nai izandu.

Cer gatic, uste dezu?

Guri adraci raiez, cembat ere gaistoagoa den becatuia, ambat hau gueiago necatzen dela bere Animaren viztean, edo ambat nequezago erdisten duela onec JESUS ona gandic bere becatuen barcamentua, ta Ceruco gracia.

Cer gatic hau?

Ceren trabatuagoa dagoen bera; ta aferreago daducan bere Jangoicoa.

Bai; cembat ere gaistoagoa becatari bat, ambat traba-tuagoa, bere Jauna billatzeco: bada becatuen cate gueiago-requin, ta aguitz andiago-equin loturic arquitzen da becatari gaistoagoa: ta videnabar arquitzen da, gaistaqueri andigoac eguiñic bere Jangoicoari; ta orre gatic arquitzen da, beste becatariac baño, aguitz aferreago daducala bere Jangoico muita-garria. ETA, dacusazun bezala, cate andiac uratzea, chiqui batzuec urratzea baño, neque gueiago dacarren, lana, ta eguitecoa da; ta, aferreago dagoen, Jaun bat palacatzea, orren aferre-ez dagoen, bat palacatzea baño, cer-eguin gueiago-requin arquitzen den, eguitecoa da.

EGUITECO andi gogor onequin arquitzen dira, pasione viciac, eta naicunde asaldatuac dituzten, becatari gaisoac. Hau guri adirazteco da, mutil illa obira ceramatenequin gure JESUSec eguin izandu zuena.

ILL hau bere obira ceramatea, gaizonac gueld-iraci cituen gure JESUSec, illa vizteco: ta becatuz illa dagoenac, eta passione vici, ta naicunde galduen atzapar-etan arquitzen denac, viztuco ba-da, edo erdisico ba-du bere Jaunaren graci ona, edo vicitza, ta bere becatuen barcamentua, gogortu beharco du, gaitzeraco bere macur-tasunen, edo passione galduen contra; ta oriec harc ez gueldi-ratzera, becatuaren obiraco da azquenean, ta ondatuco da guero betico bere sulecean.

ANIMA gaiso bat, obi beltz-sutu, izugarri onetara daramaten, lagunac, edo passione galgarriac, cer passione dira?

ORIEC dira LUXURIA edo araguiaren naicunde lizuna; ANTUSTEA, arrotasuna, edo gucien gain ibilli naia: CUTICIA, edo edocein videz aberastu naia; ta IRA, edo vendecua, ta bati ere deus bat ez-barcatu naia. ORIEC dira, becatu berrien obira, ta sulecera anima becataria daramaten, lagun gaistoac, edo passioneac. PASIONE oriec gueldiraci artean, ez dio JESUSec emain becatu-pean arquitzen den, anima gaisoari bere graciaren Ceruco vicitza.

NOLA gueldirazten ote dira

dira laur lagun gaisto, edo passione sutu oriec?

Guri gure JESUS maita-garriac laguntzen digula.

BAñA nola guc lagun-eracico diogu, gueren becatuz aferretua daducagun, gure JESUS maita-garriari?

NAINgo mutil illaren Amac bezala, edo negarrez, suspirioz, ta naiez.

BECATUZ ill-eraci zaituzte zu cere possione sutuac, edo cere araguiaren, ceren hondraren, cere ondasunen, edo cere vendecu macurren naicunde galduac? BECATU galdu beeren vide gaistoz zaramazte zu berriz, ta berriz ere cere naicunde berac: eta zaramazte zu, sulececo obi-beltz sutu arri-garrian lembaitlen ortziraci naiez? AH gaisoa!

NAI dezu galdu zuc, edo naico dezu gaur berea urraturic iutzi, becatu gaisto-etaraco cere vide galgarri hau? NAI dezu zuc dembora berean irabaci cere oben-culpen barcamentua, edo barcacioa? Nai dezu zuc Ceruco graciaren vicitza, ta cere Jangoico maita-garriaren hume-tasuna? Sartu nai dezu zuc orain badere Ceruco vide zucen garbi-ondasun-dunean, emendic berriz atera gabe, zabiltzala zucen-zucen, gure JESUS ibilli cen, eran JESUS bera-requin guero beraren glorian atseguin contentuz beteric vicitzeco?

NAI dut bai; ta ciñez al-ere!

BAI? BAñA ongui damuturic arquitzen zara zu cere leneco gaizqui eguiñaz?

BAI, bai: ta era orretaco lan bat eguin baño, len nere bihotz hau lettu ba-litzait, naiago nuquela.

URRICAL zaitut, bada, leneco cere damu-videaz, edo ceren erori ciñan len cere lan gaisto becatu galgarrietan: baña atseguin andi bat artzen dut orain, era orretan zu ta orren ciñez damuturic ecustean; bada ba-dut, uste viztuco dizun cere Anima, orreta-raño-co lan orretan lagundu dizun, cere Jangoico maita-garriac; edo cinqui uste dut, barcatuco dizquitzula orain-dañoco cere utsac, eta becatu guciac; emain dizula escu ongui zabalaz bere gracia; ta lagunduco dizula cere gurutze ona eramaten; edo cere Legueco gauza guciac zucen eguiten.

BAñA ori gucia harc zuri, ta zu-requin eguiteco, escatu beharco diozu, gueldiraci ditzala, zure naicunde macur galduac, eta passione sutuac,

tuac, eraman etzaitzaten becatu berrien obi beltz-lot-illun gaiston. ORI egiin dezaque, bai, zure Jangoico maita-garriac uquitaz zuri cere bihotza, emanez zuri gauz on-etaraco nai vici zacen bat, eta quenduz videnabar zure pasione galgarriei beren sua, edo vicitasuna.

DAGUIELA bada hordu onean ori gacia nere Jangoico maita-garriac; daguiela, bai; ta daguiela emen bertatic, eta bat ere luzatu gabe: escatzen diot hau bertatic nic, berandutu ez daquidan, ta bitartean eraman ez nizaten nere naicunde galduac nere sulececo obi galgarrira.

NON cembiltzan zu, nere JESUS maita-garria, orain baño len, ta ni becatura nintzan hordu ber-etic nitaz zu ez urricaltzeco? CER gatic etziñan zu nere videra atera, becatuz becatu nembillenean ni, ta, nere pasione galduac, gogo gaistoac ematen cien, videz-vide ni neramantenean? ORREN guti zuc nai izandu didazu niri, nere JESUS maita-garria? ORREN aisa galtzen, utzico nindizun zuc, eta nere pasione, ta Etsai gaistoen atzaparretan?

BAÑA cer darausazu zuc, ero-galdu, cere buruaren cenza gabeco, Anima galgarriegiin? NOIZ etzaitu billatu zu, cere Jangoico JESUS on maita-garriac? NOIZ etzaitu zu oneraci nai izandu cere JESUS oneguiac? NOIZ ez diza oja egiin predicariz, edo libruz, edo Confesorez, edo ill-ezquillez, edo gogarguiz, edo oroitzapen onez, edo oneraco naicundez, ta beti-ean aldetara ere?

BAÑA zuc, cere passione galgarrien soñ gaistoan, edo beso lizun-etan ibilli naiez, eta, gogo eroac ematen cizuna, eguitea gatic, ez-aditu eguiin izandu diozu cere JESUS maita-garriari, ta ibilli zara, daquizun eran, ta becatuz becatu.

BEGUIRA zazu, bada, orain bad-ere, nora zoacen! adi zazu (ta hitzic ere galtzen ez dezula) len, ta beti, ta orain-orain ere, cere JESUSec adiraci nai dizuna. JESUSec zuri orain adi-razten dizuna da, gaur-danic zuc, berac laguntzen dizula, cere naicunde galduac escuratzea; ta hau zuc lenago, ta lenago ere ez eguiñaz orain ciñez negar eguitea.

Eguizu bada negar zuc, nere Anima; ta esca zagozu

cere

cere JESUS onguille maita-garriari, orain dañoco cere uts gucien barcamentua, ta uts berriric ez eguiteco gracia; ta ecusico dezu, nola ematen dizun ori guci-gucia; bai, ta Ceruco videco zure nequeac escatzen duten, indarra, ta lagüntza ere. Ala guerta dedilla, nere JESUS maita-garria: bai arren bai.

I.

CLAMAVERUNT AD DOMINUM cum tribularentur, & de necessitatibus eorum eripuit eos. Ps. 106. 6.

BEren becatuac gatic ascotan ceatu oi cituen gure Jangoico maita-garriac bere Israel-darrac; eta Israel-dar, beren Jangoicoaren ceatze onequin iratzartzen etziranac, Jangoico berari, ciñezco damuz, ta urriquiz beteric, bere barcamentua gald--eguiteco, edo, behar cen, eran escatzeco, atera oi cituen Jangoico maita-garriac, beren emengo vicitzatic, eta bestean ematen oi cien beren irabacia. BAñA ezagutzen zutenei, cer gatic cen, ta certaraco beren Jaunaren ceatze, ta penatze hau; ta, hau ezagutu ondoan, beren gaizqui guciez ongui damuturic, eta, ontzeco asmoan, escatzen ciotenei gaizqui beren barcamentua, urricaltzen citzaien beren Jangoico urricaltia; ta atera oi cituen beren nequepetic, eta behar-artetic; eta eraman oi cituen, bere humeen vicitzara, ta ibiltze aisazcora. ALA dio DAVIDec; eta, cer cion cequien, guizona cen DAVID Erregue Santua.

Eta zuc, nere Anima, cer ote diozu?

Cer erran dezaquet nic, becatari char, norc-daqui cembatetan nere Jaun maita-garria aferreturic daducadan, galduac! Nic orain erran dezaque-dana da, nere Jaunaren orain-dañoco ceatzeac, eta, nere gain etorri diran, neque guciac, deus-ez-bat bezala, dirala, nere gaista-queriei beguiratzen ba-zaie; ta ill, ta sulecean ondatu ba-nindu ere (ta aspaldi dela), etzuela nere Jangoico maita-garriac eguiñen, ez bein, berriz, ta ascotan ere nic ongui irabacia neducana baicic.

BAñA, DAVIDec adirazten duen bezain, urricaltia den ezquero, (den bezala) nere Jangoico maita-garria, nic orain diodana da, gaur daníc nic, eta bertan escatzen diodala Jangoico berari; ta escatzen

tzen diodala nere bihotzeco indar gucia-requin, leneco nere uts gucien barcamentua, ta gaur-guero ontzen, ta ontzen haritzeco, beharco dudan, Jangoico beraren escua, gracia, ta laguntza; ta, escatzen diodala, ucatuco ez didalaco, uste osoan. ALA guerta dedilla, nere Jangoico maitea, bai, arren, bai.

2.

SI PRÆSTES ANIMÆ TUÆ concupiscentias eius, faciet te in gaudium inimicis tuis. Eccli. 18. 31.

CERE buruari eguiten badiozcatzu zuc, zure buruac, edo aragui gal-garriac naico dituen, atseguin loiac; baldin ba-zabiltza zu, datocen, dembor-etan, cer nai macurren videz, ta, zure passione galgarriac escatzen duten, eran, eguiñen dituzu zuc, zure etsaiac nai dituzten, anitz gauza, ta uts; atseguin andiac emain dieztezu zuc cere etsaiei; ta galduco zaituzte zu etsai gaistaguin berac. SIñES dezaquezu, bai, orain zuc aditzen didazun, hau; bada gucia da, Espiritu Santuac guri Escrituraz aspaldi adiracia.

Araguiaren naicundez naicunde ba-zabiltza zu, laburtuco dituzu zuc cerorrec cere vicitzaco egunac, galduco dezu zuc cere osasuna, ustelduco zara zu, ta ortzituco zaituzte, zuc uste baño, len suzco, ta sufrezco obi arrigarrian.

GAUZA gucien gañeraño igan oi den, olioa egosten da zartanean, eltzean, edo era orretaco ontziren batean, erretzen ez-pa-da crisselluan, Elizaco lamparan, edo, arguieguiteco den, beste gauzaren batean: ta emen garaitzen ez-pa-dezu zuc cere antustea, ta arro-tasun ariña, cere hondracnaia, ta cere beti-ta-beti igannai galdu-gal-garria, orrec berac, ondatuco zaitu zu sulececo putzu izu-garrian; ta erretzen, ta egosten iduquico zaitu an eternidade, ta secula gucian.

DIRU-zalea zara zu, ta ondasunen ondoren zabiltzan, guizon estecatua; ta, orien ondoren zabiltzanean, nondic zabiltzan zu orrembat beguiratzen ez-dezuna? Cere salduerosietan ceri beguiratzen diozu zuc? Cere irabaciari, bai; baña ez, dacartzun, tratuaren berdin-tasunari? ALA ba-da, cere ondasunac zu, ta cere irabaciac itsutua zaduzca, nora zoacen zu, edo cein toqui izu-

gar-

garriz zoacen, ez ecuiteco; gortua zaduzca (ta aguitz al-ere) adi ez-dezazun zuc cere Jaunac erraten dizun, gauz onic bat-ere; ta orre gatic erio gaistoaren arzapar-etan zaduzca zu.

SUTU galduren bat ote zara zu? NAI gabe bat cere Jauna gatic emequi artzen ez daquizun, guizona ote zara zu? IRAZ, ta vendecuz beteric ote zabiltza zu, sangaca dagoen, chacur char ero bat bezala? ILLen zaituzte bada zu azquenean cere becatuac; eta eramain zaituzte, quez, ta garrez beteric dagoen, obira; ta an egon beharco dezu zuc beti-ta-beti cere escuz zuc cerorrec cere mihia, ta cere errai guciac urratzen dituzula.

ORRA nora zoacen zu, cere passione gaistoen, ta cere naicunde galduen sofiean zabiltzan, Anima! BECATUZ illa zaude zu cere Jaunaren beguietan; ta, sulececo obi galduan guelditu nai ez-pa-dezu zuc, gueldi zaitez, emen bertan gaur, ta beti, cere JESUSen deiac aditzeco. EGUIZU zuc ciñez negar, orain-dañoco cere eraqueriez. ESCURA izquitzu cere passione asaldatu galgarriac. JAIQUI zaitez lembaitlen cere becatuaren oatzetic; eta zoaz, cere Ama on, Eliza billa-garrira; an negar damuzco, ta Confessione zuceneco ur ederrez cere burua, behar den, eran garbitzera, guero zucen eguiteco, gure Jangoico maita-garriac manatzen dituen, gauza guciac, gurutze-pean, ta nequez beteric ibillico ba-zara ere, emen vicico zaran, cere demboran. JESUS orretan zuri laguntzeco dago; ta lagunduco dizu, bai, zuc ala nai dezula, cere azquen horduraño. ALA guerta dedilla bada; bai arren, bai.

3.

DERELIQUERUNT LEGEM MEAM, quam dedi eis; & non audierunt vocem meam, & non ambulaverunt in ea, & abierunt post pravitatem cordis. Ier. 9. 13.

BEGUIRAtzen die JESUSec, bere videra deitu dienei; ta, ecusiric anitzec eguiten dutena, erraten du JEREMIASen hitzequin: ez aditu eguin diote oriec guciac nere deiari; ez dute ibilli nai izandu, ez, oriec nere vide zucenez, ta, ni noan, lecutic. AUTSI dituzte oriec nere Legueco cate guciac. IGUES-eguin dute oriec, gogoac eman dien, alde gaisto-

etara; ta an dabiltza gaizquiz gaizqui, ta becatuz becatu. CER daguiquet bada nic, nic hau ecusi ondoan?

CER daquit bada nic, nere JESUS maita-garria! ANITZ da, bai orien eraqueriac escatzen duena; ill dituzte alabaña beren becatuz, beren Anima gaisoac! NAICUNDE macurren, ta passione vici-galgarrien soñean doaz oriec, berac nai duten aldera!

ZURE hitzac, nere JESUS maita-garria, hitz meac dira; ta, adi ez ditzaten gure Anima gaisoac, ojuz, ta ojuz daude gure passione galgarriac; soñuz soñu daramazte, beren al-eguin gucian, gure Anima gaisoac, edo daramazte marmarioz marmario, jan-edanez jan-edan, aserretzez aserretze, antustez antuste, ta loiez loi! Eta ez daude, ez, zure hitzac aditzeco, orien ojuac, orien escambillac, eta ibillera macurrac gal-erazten ez dituzten, Animac; eta gutiago daude, negarrez ongui beren buruac garbitzeco!

ZUC dagui-quezuna da, gure JESUS maita-garria, era onetaco Animac aserretzen dizuten, cere Aitari beguira zaudela, zuc cere leneco negarrac oni aguertzea; oriec gatic badere urrical daquien, bere laguntz ona-requin oriec centzarazteco, ta atera ditzan, beren becatuen lo, ta vide gaistoetatic!

BAI arren: eguizu zuc orrembeste, nere JESUS maita-garria. AGUER egui-ozcatzu cere Aita berari, leneco cere negarrac; eta aguer egui-ozcatzu, Anima oriec gatic ez-ecic, ni becatari char one gatic ere: bada, zuc ori eguitera, ba-dut uste, emain didan niri ere, orain-dañoco laguntzac baño, laguntza andiagoren bat, ta laguntz, onequin batean asico nazala ni ere negarrez, orain-dañoco nere becatuac gatic; eta erditsico dudala orien barcamentua, ta, berriz berriric ez eguiteco gracia!

HAU orain nic zure Aita gandic erdistera, artuco dut zure nequezco, ta gurutzezco vide zucena, edo, zure Legue Santa contuz gordezco, asmoa. Hau ar dezadan orain nic, uts-eguin bague, indazu bein nere orain-dañoco uts, eta becatu gucien ciñezco damu bat, erateco guero nic behar den, eran: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

XLVI

XLVI-GARREN OTOITZGAIA.

§. I.

ILL-ORTZITU, USTELTZEN ASIAREN VIZTEA; ta aztura gaiſtozco becatariaren graciaratzea.

OHARTU-cabeán bezala, ta indar andiric izan gabez becaturatzea ere gauza gaiſtoa da; bada behartuac arquitzen gara gucioc, certan gabiltzan gu gueroc, ongui ecuſtera; ta, gure Jangoico maita-gartiac emanic ditugun, indar guciez valiatzen garala ba-dere, gauza gaiſtoric ez eguitera: ba-gaudeque alá-baña gu, gauza gaiſtoric eguiten ez dugula, gueren Jangoicoaren eſcuaz, ta laguntzaz valiatzen garala: ta preſt dago beti gure Jangoicoa, noiznar, ta nonnai gure laguntzeco: ta guc, gueren Jangoicoa-requin batean daguiqueguna ez eguin naiez, gaizquiren bat eguiten ba-dugu, eguiten dugu gauz eſquer-gabe guztizco gaiſto bat.

GURE gauza gaiſto hau baño, gaiſtoagoa da, certan gabiltzan gu, guc gueroc ezagutzen dugula, gaitzeraco gueren macurtaſunac, eta naicunde galduac ez eſcuratzea gatic gu becaturatzea: da alabaña, gaizqui eguiten dugulaco ezagumentu guenago-requin guc gueren Jangoico maita-garria guztiz naigabetzea, aſerretzea, edo ofenditzea.

BAñA bigarren eraco gure becaturatze hau baño ere, becaturatze aguitz gaiſtoagoa da becatuz becatu bat ibiltzea, gaitzera oituric bat vicitzea, ta egun-oroco, edo maiz batec eguiten dituen, bere becatu-equin, bere paſsione gaiſtoei ſua, ta bazca ematea; ta guero, lotan bezala, bere becatu gaiſtoen ohatze galduan haſtiz egotea.

ALA ere ez da zucen videric ez duen, becaturatzea, era onetaco becaturatze hau; ta viztu nai ba-dute, era onetaco becatuz ill diran, Animac ere, viztuco ditu, lenagoco bi becatari-erac bezala, gure JESUS maita-garriac; eta artuco ditu, berac daraman, gaiutzezco bere vide zucen garbira. Hau ala dela, guc ezagutzeco, asqui da, JESUSec berac eguiñicaco itur-garren vizte-modu bat ecustea.

MARIA MAGDALENAc, eta, MARTA ceritzan, onen Aizpac gazti-gatzen diote bein JESUS maita-garriari, eri arquitzen dela, ta guztiz gaizqui bien Anaia LAZARO.

ARTZEN du JESUSec, oriec arquitzen ciran, erritic aguitz urruti, Aizpa bien mandatu hau; ta ala ere ez da bereala videratzen: ez eta aratzen ere, LAZARO ill, ta ortzitu, ta laur egun igaro artean. JESUS aratzean, ateratzen zaio videra MARTA, ta erraten dio; AH Jauna, garai onez etorzera zu, ta emen arquitzera, etzen illtzen, ez, nere Anaia LAZARO; baña ba-daquit nic, ez dizula cere Aitac uçatuco zuri, escatzen diozun, gauzaric bat ere; edo ba-daquit, bai, ez dela berandu, gauden, hordu berean ere, nic nai nueneraco, edo nic nere Anaia viciric, edo zuc vizturic, ecusteco.

HAU JESUSi esan, ta bere bereala deitzen dio bere Aizpa MARIA MAGDALENAri: ta onec ere, JESUS ecusi-horduco, an bertan belaunicaturic, esaten dio; JAUNA, zu emen izatera, viciric egoin cen gaur nere Anaia LAZARO.

HAU errate berean, ta gueroz, ta gueroz ere negar, ta negar cegoen MARIA MADALENA; ta, hura ala ecusteaz negarrez ceuden, dolura etorriric, an arquitzen ciran gendeac ere.

ORIEC onela negarrez ecustean, nasten da JESUSen barren gucia; asitzen da, orroz bezala, bere Animan; ta galdetzen die, non sartu duten, LAZARO illaren gorputza.

ERACUSTEN diote onen obia; ta, hara urbildu horduco, aviatzen da negarrez JESUS maita-garria: berritzen zaizca barreneco bere orroac, edo deadarrac, eta icarariac; eta manatzen du, quen dezotela LAZAROren gorputz illari gañeco bere arria.

HAU aditzen duenean illaren Arreba MARTAC, erraten dio JESUSi; Jauna, laur

egun

egun da or datzala, ta uſteldunic dago, ta nai-ta ez uſai gaiſtoa-requin nere Anaia LAZARO. AL-ere quen--erazten du JESUSec obi-arria.

GOITITZEN ditu guero bere Aita gana bere beguiac: ematen diozca Aita berari eſquer andiac, ceren beti eguiten duen, berac eſcatzen dion, guci-gucia.

BEITITZEN ditu guero beguiac gorputz illa gana; ta erraten dio indar andia-requin, ta ojuca: ATOZ ONA, LAZARO. Eta bertan ateratzen da viciric LAZARO; baña ateratzen da, eſcu-oñac lotuac, eta arpegui gucia ill-oialez eſtaliric dacartziela. Erraten die JESUSec, be-requin cituenei: quen bequiotza bere locarriac, trabaric gabe dabillen Lazaro: ta eguiten dute oriec, JESUS maita-garriac manatzen diena; ta ba-dabill berez Lazaro, ta ba-doa, JESUS bera-requin mai batean jatera.

ECUSTEN dezu nola cegoen Lazaro, JESUS ar gana cenean? ECUSTEN dituzu JESUSen arazoac, JESUSen ibillerac, JESUSen lanac, JESUSen negarrac, orroac, deiac, eta gañeraco gauzac, Lazaro ill-ortzitua vizteco? HAU gucia cer gatic ote da, edo cer-taraco?

HAU gucia da, gure JESUSec guri adiraci naiez, cein gauza gaitza den, becatuco obian uſteltzen datzan, guizon, edo emaztequi bat, andic ateraric graciazco vicitzara itzultzea.

CER becatari ote da, guiſa onetan uſteltzen dagoen, becataria?

GAIZQUIZ gaizqui, loiez loi, ta galduz galdu dabillen, edocein Anima.

ONELA dabiltzan, becatariac ere mimbereac izandu ciran lenda-bician, ta guztiz izucorrac; eta, becatu larri bat eguin--horduco, arritzen ciran guciac. Becatu-etara oitzen aſi ciran-etic etziran ambat izutzen. ANDIC fite, ta laſter aſetzen ciran becatuz, urez egartiac bezala; ta, becatuac becatuen gain eguiña gatic, etziran guero anitz anſiatzen. AZQUENEAN azpian artu cituen beren becatuen obi-arri-tzar andi batec, edo Jauna ganaco bihotzaren gogortaſunac: ta aſi ciran an uſteltzen, ta beren vicitza galduaren uſai gaiſtoa banatzen, ecuſten cituztenen, calte andia-requin.

CEMBAT uſtel-tzar onelaco arquitzen ote dira egungo egunean ere gure Errietan!

ETA

ETA ez ote naz ni ere ustel-galdu orietatic bat? NOLA vicitu izandu ote nintzan ni, gaztechoa nintzaneco nere demboran? NOLA gueroiseago? NOLA anditu, ta? ta nola gueroz? ta nola egungo egunetan?

ANITZ izutzen ote naute ni gaur, len icaraz uzten ninduten, nere oben--culpac, eta gaista-queriac? BELDURtzen ote naute ni gaur sulececo neque gogorrac, egunen batean adiña, ta laurdenic ere?

CONFESSARIAren hitzac, edo PREDICARI onaren erranac dardaraz beteric, eta icara iuzten ote dute nere bihotza, edo iuzren ote dute, noizbait len iutzi oi zuten, eran? EDO orien erran, ta mehachu guciac aditu, ta ere guelditzen ote naz ni, alacoric aditu ez-pa-nu bezain otz; edo, aditzen nituen, gauzac nion ere uquitzen ez-pa-nindute bezain, sosegu andia-requin?

HAU onela ba-da, nere galdu-eguia! GOGORtu dira gueroz nere erraiac virtute-raco! AZPIAN naduca gueroz ni nere becatu-gal-garrien obiariac! LOTUric naducate gueroz ni nere aztura gaistoac! ITSUTUAC daude gueroz, ta ill-oiatez estaliac nere adimentuco beguiac! ETA, hau onela dela, ez dut nic ecusten, ta ez dut ecusi ere nai, non nabillen ni, ta non atquitzen nazan ni; ez eta ni nora noan ere!

USAI gaistozco ustel-tasunac dira guerozco nere utsac; eta dira, nerequin dabiltzan, Anima gaisoen galgarriac! EZ naz ni Anima gaiso oriez urricaltzen; ez eta nereaz ere!

NI, nora beharra naz bada, edo certaco jaioa? NABILLEN, eran ni ibiltzeco; ta beste videric nic ez artzera, eternidade gucico su-leceraco jaio naz ni!

BUca-eraren zori gaistozcoa!

HAU nai ez duen, Animac eguin beharco ditu, Lazaro illa vizteco, JESUS maitagarriac eguin izandu cituen, gauzen idurico, edo aintzuraco gauzac. JESUS maita-garriac hura vizteco, eguin-icaco gauzac cer gauzac dira? ORIEC dira ondu-naiac: Jauna ganaco mandatuac: eta bitartecoen negar onac.

EZ ditu Jangoicoac osticoz ateratzen, ez, becatuaren loi-petic, beren becatuen loiean gogoz, ta nai dutela dautzan, gaistoac: ANDIC atera; ta ondu-nai dutenei ematen die JESUSec bere escu indar-

dartſua, ta laguntza. ONDUnaia da bada, onduco den, becatariaren aſiera.

Baña ondu-nai, behar bezalaco, vici bat nequez izaten du, obenez, ta gaiſtaqueriz uſteltzen dagoen, becatariac, bitarteco cembaitec erdiſten ez-pa-diote hau bere Jaun maita-garria gandic; eta billatu beharco ditu, alic onenac, onduco den, becatari char galduac, edo eſcatu beharco die, behar bezala, vici diranei, lagun eguin dezotela beren Jauna-requico, beren otoitz, eta negar on-equin, ta erditſi dezotela beren Jaun bera gandic onez-damu, edo contricione vici bero bat; onequin batean, ta beren Jaunaren gracia-requin vizturic guelditzeco, edo onez-damu onen ordez erditſi dezotela izu-damua, edo atricionea; ta onequin batean aitormen garbi, ta Confesſione zucen bat eguiteco zoria.

BITARTECO berecíric ez dutenac, eſca dezoque hau, bere Jangoico maita-garriari, Eliza gucian arquitzen diran, onen otoitzac, eta negarrac aguertzen diozcala: bada onac negar eguiten dute, ta otoitz, gaiſtoen alde, ta eſcatzen diote beren Jangoicoari, urrical daquiela lembaitlen, ta atera ditzala beren becatupetic, eta erio gaiſtoaren uſtel-taſunetic. ORI adirazten digu, MARTAc, eta MADALENAc JESUSi igorri cioten, mandatuac, beren Anaia Lazaro miñez aguitz gaizquituric ecuſi zutenean; bai; ta Lazaro ill-ondoco, beraren Arreba bien negarrac ere.

BECATARI charra, bada, naiz-izan zaitecela zu mundu gucian arquitzen den, guizonic galduena, zuc eracutſi ezquero cere Jangoico maita-garriari ondu-nai ciñezco bero bat, ori zuc eracuſten badiozu, ongui vici diran, gucien otoitzac, eta negarrac cere alde artzen dituzula, cere ganaco dezu zuc, bai, cere JESUS maita-garria, ta cere alde izain dituzu zuc JESUSen begſtiac, JESUSen negarrac, eta JESUSen eſcuac, edo JESUSen laguntza indartſu andia.

BEIN, berriz-ta, berriz ere, eſcatu ezquero zuc hau JESUS maita-garriari eſcatzen diozula zuc hau, behar den, garai oneau, adiuntzan, ta eran, zu ganaco da, bai, JESUS maita-garria; quenduco dizu, cere gañetic, lertzen zaduzcan, becatu gaiſtoen obico arria;

arria : dembora berean itzulico dizu , cere becatuz zuc galduricaco, graciaren vicitza, ta emain dizu norc quendu zuri , cere becatu galgarriac utzi dizquituten , aztura gaiftoen locarri fendorrac ; bada emain dizquitzu , hartaraco diran , Confeffariac , eta bertze lagun onac ; eta utzico zaitu, aifa , ta arin zabilzquen , eran, zuc virtutez virtute , ta Ceruco videz ibilli nai izatera.

HAU onela den ezquero, den bezala , nere JESUS maita-garria , atoz arren , atoz, zuc hau gucia , edo nere beharrac efcatzen duena bertan eguitera : ta atoz , ni gatic ez izan-arren,ceren hau efcatzen dizuten Elizaco cere hume on fervitzari garbiac.

ATOZ bada , atoz ecuftera , nola naducaten ni nere becatu galduac. CEIN loitu-ufteldua , barcatu ez-pa-cenituen zuc, nitaz urricalduric : eta, baldin barcatuac ba-daude ere , cein macurtua ni becatu beretara , ta leneco nere uftel-tafun-etara.

BEGUI onez beguiratzen badidazu zuc niri gaur , nere JESUS maita-garria , urricalduco zara , bai , nere oraingo egoera char galduaz : ain char-galdu-izugarrian nago ni gaur !

ZURE beguiratze on hau irabaci-naiez , artzen dut nic gaur emen bertatic , len zu nic afer-eraciaz , edo orain-dañoco gucian nic eguin ditudan, nere becatu guciez , al dudan damuric andiena.

ZORI gaiftoan eguin dut nic orietatic bat ere ; bada, eguin ez-pa-nu , gaur ez nintzan arquitzen ni , arquitzen nazan , bezain aztura gaiftoz , ta coftumbre loituz galdua ; ta ez nintzan arquitzen ni , ez , nere oben-culpen obian , ta becatuz erdi-ufteldua !

ATOZ , bada , atoz ni gana , nere JESUS maita-garria ; ta atoz cere ojuz , ta oju andiz ba-dere , emendic nic lembait-len ateraztera ; niri nere becatuen ufteltafun loi hau barrendic quentzera ; ni cere graciaz , ta Ceruco indarrez betetzeric uztera : niri nere begui-etatic mundu eroaren oial char galduac quen--eraztera ; ecus dezadan nic horduan garbi-garbiro oraindoco nere ibíllera guztiz galdua ; bai ta, zuc eraman dezun , vide zucena, ta vide onen bucaera ona-ere; leneco nere gal-videac utziric nic, eta nere naiez , ta gogo ofoz gaur-danic artzen dudala (ta bein ere ez uzteco) zure vide zucen onef-garri hau , afi nadin

din ni zure ondoren, nere Legueco gauzen gurutzea nere ſoñean daramadala; ſartzeco guero ni zurequin batean, edo zure eran zure zori oneco Erreſuma orretan. Ala guerta dedilla, JESUS maita-garria; bai arren, bai.

1.

IACTA SUPER DOMINUM CUram tuam, & ipſe te enutriet: non dabit in æternum fluctuationem iuſto. Pſ. 54. 23.

ONGUI vici zara zu (galdetzen dizu DAVIDec), eta al ere cere burua galtzeco beldurrez zaude? ICARAZTEN zara zu cere etſai amurratu gaiſtoen ojuac aditzean, ta illuntzen zaitzu zuri horduan cere bihotza? DARDARAZ ote dago zure barren ori, ta quezcaz den gucia beteric, jaquin gabez nondic artu, erio gaiſtoaren, edo becatuaren atzapar-etan ez erortzeco?

Ah! norc lituquen (diozu noſqui), onen beguietatic, uſo baten eran igueſ-eguiteco, viciro eraman nintzaquen, egoac, eta luma ariñac! Igueſ-eguiñea nuque nic, bai, badaquit nic neronec, noraño! NERE amorez idiquiric arquitzen den, JESUSen bihotzeraño; ta an atſedenen nuque neronec nai adiña, galtzeco beldurric bat ere bague!

ECUSTEN dezu zuc cere gal-videa edocein toquitan, ta non ere nai? GALERACI nai zaituzte zu, gaizqui dabiltzan, lagunac beren lan macur-galgarri-equin, beren hitz eroequin, beren hiſtequin, beren jan-edan luce-egui-equin, ta alduten alde gucietara? ORRETAN berean dabil, ſulececo gure etſai galgarri madaricatua? ta orretan dabiltza zure paſſione, ta aztura gaiſtoac ere? ETA orre gatic arquitzen zara zu aguitz eri, edo guztiz tentatua, ta becatuz iltzeco beldur ta beldur.

BELDURTzeco gauza da, bai, zu zauden, trancean, edocein arquitzea. BAñA beldur zaitez zu (dio DAVIDec berac), becatuz, edo, becatuan illen etzaralaco, uſtea galtzen ez dezula. AGUER-eguiozcatzu zuc cere JESUS maita-garriari cere beldurrac, eta quezca guciac. GALDE-eguiozu, cer eguin behar dezun zuc, cere etſaiac garaitzeco. OTS-eguiozu maiz, edo ardura, datorquizula arren, nola zuc cere gauzac eguin, eracuſtera, ta eguiten laguntzera: ta, zuc hau gucia zucen egui-

tera, ateraco zaitu, bai, zu cere JESUS maita-garriac seculaco erio gaistoaren ortzetatic; eta eramain zaitu berequin batean bere Ceruco Santu, ta Santen artera. Ala guerta daquidala, nere JESUS maita-garria; bai arren, bai.

2.

JUSTIFICATIONES TUAS CUSTODIAM, non me derelinquas usquequaque. Ps. 118. 8.

GARAItu zaitu noiz-bait zu cere etsai amurratu galgarriac? Garaitu zaituzte zu cere gaitz-eraco macurrerac; eta passione sutuac? ILL ote zara zu cere becatuz, ta galdu ote dituzu zuc cere Jangoicoaren arpegui ederra ecusteco Escua, edo derecha, cere Jangoicoaren escutic zuc arturicaco onac, ondasunac, eta gracia?

AH gaisoa! ta zure galgarria! bada galdu dezu orretan, munduco izate, ta ondasun guciac baño aguitz gueiago valio duen, ondasun bat.

BAñA ez orre gatic etsi, ez; ondasun ori bera zuc arqui dezaquezu, zucen, ta contuz billatzera. ARQUI-videa da Santa MARTAC, eta Santa Marii MADALENAc beren Anaiaren vicitza billatzeco artu zutena, edo JESUS maita-garriaren, oñetaratzea. Billazazu JESUSen oñetansta billazazu negarrez, edo, galdu dezulaco damuz, ta ciñezco urriquiz. Era orretan zu negarrez ecusten ba-zaitu gure JESUS maita-garriac, bere oñetan; edo ecusten ba zaitu zu, eguin dituzun, becatuen gain ciñez damuturic; eta becatu berriric ez eguiteco asmoan, urricalduco zaitzu batere luzatu gabe; emain dizu bere graci onaren vicitza (onesdamua-requin zu horduan arquitzen ba-zara), edo lagunduco dizu, graci beraren vicitza erdisteco, eguin beharco dituzun, cere gauzac eguiten; ta oriec zuc eguinhorduco cerequin izain dezu zuc, billatzen dezun, vicitza.

DAQUIGUN ezquero bada onen arqui--videa, ots, nere Anima; goacen laster, negar ta negar, edo damuz bihotza beteric JESUSen oñetara; ta asi gaquiozcan erraten an, LAZAROren Arrebac bezala: AH! Jauna, emen arquitu ba-cina zu nere tenta aldietan, ez ninduen ez garaituco ni nere Etsaiac: ez nuen galduco, ez, zure graciaren vicitza, ta ez ninduen becatuz

il-

illen, ez, nere Etsáiac, ill naven bezala!

BAñA cer ote diot nic, edo cer ote daraufat nere oraingo hitzontzi-querian? DEITU nion nic nere JESUS maita garriari, JESUS maita-garria nerequin arquitzeco nere tent--aldietan? EZ dago beti JESUS maita-garria prest, deitzen dion, edoceiñi non-nai laguntzeco, baldin deitzen bai dio, bere Animaco gauzetan lagun-eguitera?

Lagundu ez-pa-dit bada niri nere JESUS maita-garriac nere tent-aldietan, lagundu didan baño, gueiago, nic orihari escatu gabez izandu cen; ta, ill ba-naz, neronec eguinicaco becatuz, nere naiez ill naz ni, ta nere culpaz.

ALA da, bai, nere Jangoico maita-garria. BAñA ongui damuturic nago ni gaur; ta orrelaco lanic berriz ez eguiteco asmoan. Indazu nere asmo on berean irauteco, nic behar dudan, cere laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

3.

QUID QUÆRIS, ET *QUID VIS discere à nobis? parati sumus mori magis, quam patrias Dei leges prævaricari.* 2. Machab. 7. 2.

CEren billan zabiltza orrembat eguiteco, ta arazo-requin? erran izandu cion Erregue Antiocori, bere Amarequin ill eraci cituen, zazpi Anai-etatic batac. JAQUIN naiez ba-zabiltza zu, certan arquitzen garan gu, zazpi Anaioc, emen zuc ecusten dezun, gueren Ama maitea-requin, ez dezu zuc bat ere cer necatu eguiteco onen gain, edo gauz hau icasten: bertatic adiracico dizut nic, den gucia gucien icenean.

PREST gaude gu Amaseme gucioc gueren viciac noiz nai emateco, gure Legue zucenac debecatzen duen, gauzaric ez eguitea gatic. SIñIS nazazu; ta ez dezazula bururic autsi, guri gueren asmo, ta gogo hau galeraci naiez. HAU galdu baño, len utzico ditugu guc gueren larru-ezurrac, oin--escuac, eta, gueren zañetan dugun, odol gucia.

HORDUAN harc atera zuen bere hitz onetan egondu cen guizon gazte hau bere azquen asnaseraño, Erregue gaistoac quen-eraci ba-ciozcan ere, bein bere mihia, andic laster buruco larrua, ta guero escuac, eta oñac; eta ill árte gucian iduqui ba-zuen ere guti bana, edo gueldi-gueldi frisitzen, artaraco? cen, zarraguin batean. ETA hau berau eguin zuten, beren torment ari-

ri-gueietan, aren sei semideac, bai, ta gucien Amac ere.

ASMO berean arquitzen ciñan zu, oraindañoco cere urre, ta demboretan? GUTIAGO gatic ere autsi ez ote dituzu zuc cere Legue garbia, ta cere Jaunaren mandamentuac?

Cere buruari atseguin char bat eguitea gatic, ez ote dezu zuc bein, ta betriz, ta ascotan, ta ascotan ere loituric iutzi cere Legueco seigarren Mandamentua?

Vendecuz zuc, besterenaren cupidez zuc, eta, zuc daquizun, adiña videz ez ote dituzu autsi, ta urratu zuc Legue bereco beste Mandamentuac ere?

ETA videnabar ez ote zara bete zu oitura gaistoz, ta costumbrez? Lotuen eran ez, ote daude gueroz, gauz on etaraco, zure oin-escuac, edo zure ezagu-era, ta zure naimendua, edo vorondatea? Becatuz illic arquitzen ba-zara zu; ta zu gaur arquitzera vicitza galdu baten obian ortzitua, edo lurtatua bezala, non guelditu-co da zure Anima becatari char gaiscoa, zu ill ondoan? Hau lenic zuri JESUSec ez vizztera, eternidade gucico sulecean!

NERE Arreb-onac; garbiro vici zarazten, Anima bataiatuac, nitaz ongui urricalduric, otsi-eguiozue JESUS maita-gàrriari nere alde; ta esca zagozue, al dezuten, indar gucia-requin, urrical daquidala nini ere bere ontasuna gatic: asi daquidala oju, ta oju, ta ez ditzala bere ojuac iutzi ni vizturic, eta ongui iratzaririe iutzi artean: ta videnabar quen ditzaquidala nere aztura galduen locarri gal-garriac; ibilli nadin ni gueroco nere demboran, nere gauzen eguiten, ta nere Legueco vide zucen-etic oñic atera gabe.

POZIC ibillico naz ni, hartara ezquero, era onetan, ta nere Jangoicoaren gogara; ta orain orretan nagoelaco siñu bat ematera noa, ojuz, ta bihotzez erraten dudala: *NERE JESU CHRISTO*, &c.



XLVII.

XLVII--GARREN OTOITZGAIA.

MAIZCO OTOITZA.

ERacutſi dizquigu gure JESUSec, orain-dañoco cembait otoitz-gaietan ecuſi dugun bezala, cein den, Cerura nai dutenac artu behar duten, Leguea, ta cein Legue onetaco ibill-era; bai-ta cer neque-gurutze diran ere ibillera bereco gurutze-nequeac; eta cein andiac diran, gurutze-neque ber-equin irabazten diran, doataſunac, eta graciac; eta eracutſi dizquigu onembat icaſcari eder, hitzez ez ecic, nequetan bera, ta gurutze-pean ibilliz ere; ta berac lenic eguiten duela, guri guero eraguin nai diguna.

BAñA cembat ere denguc orain-dañocoan ecuſi dugun, gure JESUSen hitzezco, ta lanezco eracuſte hau, ez da, ez, ecuſcari chiquiagoa, urrengo Libruan guc JESUS bera gandic icaſi behar duguna, ecuſico dugun bezala, ecuſi ondoan, bein, JESUSec, nequetan gabiltzaneco, iutzi digun, atſeden-toqui bat; ta atſeden-toqui, anitz lecutan arqui dezaqueguna; bái ta gueren baitan ere; ta togui gueren neque-etaraco, ta etſaiac garaitzeco indar andiac dacartziena: ta GUERO, era onetaco nequeen igueſi dabiltzanen calteac. GOACEN orain lembicicora.

§. I.

GURE LEGUECO NEQUEetan, dabill-enaren atſeden-toqui, ta indar-vide guztiz ona da Elizan otoitz--eguitea.

GU' guerez beti gaitzera macurtuac arquitzen gara. Gaitz berera bulcatzen gaituzte gu gueren etſaiac; eta etſai bortitzac dira gure etſai oriec; eta elcar arturic dabil-

tzan etsaiac dira; ta ala dabiltza, guri, Ceruco gueren gracia gal-eraci naiez; ta orretaraco, becatuac becatuen gain guri eraguin naiez, dabiltza.

Guc, oriec nai dutenic ez eguiteco, billatu beharco ditugu indar andiac. Gure Jangoico maita-garria-renac dira, lan onetaraco, diran indarrac; eta, Jangoico-berac erranic daduca, emain dizquigula, guc hari oriec ongui, ta maiz, edo, behar den, eran escatu ezquero: *petite, & dabitur vobis.* (Mat. 7. 7.)

Orre gatic bada, becatutic atera den, Animac, baldin iraun nai ba-du bere Jangoicoaren gracian, ta berriz becatura gabe; ta eraman nai ba ditu, bere Legueco neque guciac, eta, JESUSen ondoren dabiltzanac daramaten, gurutze nequezcoa egun beharco du, oriec ere eguiten duten, gauzacho bat, edo eguin beharco du bere Jangoicoari ongui, ta maiz ototz eguitea. Ori da JESUSen ondoren dabiltzanen atseden toquia, ta indar andiz beteric arquitzen den, lecua.

Baña cer ote da, batec bere Jangoicoari ongui, ta behar den, eran ototiz eguitea? Ori da orrec bere Jangoicoari, dagocan, eran mintzatzea, escatzen diola, bera servitzatzeco, ta escallearen oneraco den, gauzaren bat, edo beste, lenda-biritic adiraci gnenuen bezala.

MINtzo escaera on onetaraco billatu beharco dezu zuc, al dezun, toquiric onena; ta, al dezunean, cere erricoa, edo beste edocein Eliza: hau da alabaña Jangoicoaren munduco Jaureguia, edo Palacioa; ta hau, bere Ceruco ondasun andiac, eta graciac emateco, Jangoico berac bereci duen, toquia.

NON nai eman ditzaque, bai, gure Jangoicoac bere ondasun oriec, eta ematen ere ditu maiz asqui, ta egun oro, oriec guc an escatu ezquero, esca ditezqueen bezala, baña, al ditequenean, naiago du, esca daquiozcan bere eman toquian, bere Jaureguian, edo bere Elizan.

OROBAT guertatzen zaie lurreco ERREGUEei ere; bada oriec ere, beste edocein lecutan baño, naiago dute, esca daquien, eman nai dutena, beren toquian, edo beren Jaureguian, edo beren Palacio berean.

ELIZARAtzen zaranean zu, cere Jaunari zuc an cere

cere otoitz on oriec eguitera, far zaitez Elizan, ta zaude an, Erregue andien guelan fartu, ta egon oi diran, guizonen eran, Erregue-etara cerbaiten esque fartzen diran-etan.

NOLA doazela, uste dezu zuc, eta cer moduz, edo eran, an egon oi diran, guizon oriec?

ARA doaz oriec, beinic-bein ongui jaunciac, eta guztiz garbiac. AN fartzen dira oriec agur andi-equin; ta, certara doazen ongui ohartuac; eta an daude oriec, an dauden, dembora gucian humill humill; ta an berean eguiten dituzte beren escaerac alic onguien-onguiena; ta, beren escaerac baicic, gogoan artzen ez dituztela.

CERE Elizaco fartze-egote oriec eguin nai ba-dituzu zuc, eta orretan, edo behar bezala, zoaz zu ara, guisa berean, edo bihotz behar bezalacoa-requin, edo lenic zuc cere bihotza garbitzen dezula (becatuz loituric arquitzen denean) onez-damuz, edo contricionez ba-dere.

ZOAZ bada beinic bein bihotz garbi-garbia-requin, ta bihotz bera graciaz, humiltasunez, ta, cere Jangoicoari escatzera zoacen, ondasuna, Jangoico bera gandic erdisteco, uste otoz beteric, edo jauntzi apaindduric daramazula: ta, guero Elizan fartzen zaranean, ta, an arquitzen zaran, dembora gucian, zaude zu, non arquitzen zaran, daquizuna bezala: edo zaude humill-humilqui cere Jangoicoari begira, edo cere Jangoicoa gandic gogoa bein ere quentzen ez dezula.

HAU gucia guri eracusteco, ciran, bere chiqui-cituric, edo chiqui-danetic ill arteco, JESUSen Elizaratze guciac, eta JESUS beraren ango egoeraz; bai-ta Eliza berean JESUSec eguiten cituen, gauzac ere, ta besté gucien artean bat.

Cer gauza ote cen JESUSen Elizaco gauza berecigarri hau?

Hau cen Eliza zaitzea. JERUSALENgo Elizara igan cenetatic barean ecusi zuen JESUSec Eliz-guizonac etziran gendeac, edo Levit, edo Apez etziranac, otoitz-eguitera cijoacenac guelditu oi ciran, toquian, saltzen cendela barrengo Aldareraco behar ciran, ardiac, beiac, eta usoac; eta beren diru ceac, edo chiquiac maigañean ceduzcatela, andiac trucatzeco, Aldareraco gauzen

erosleei: ta hau an ecusten, aserretzen da JESUS maita-garria; eguiten du socazco azote bat; eta ateratzen ditu azotucaldica ango ardi, ta bei guciac, beren saltzalle guci-equin batean: botatzen ditu batera, ta bestera, ango diru mai-guciac: eta uso saltzalleei erraten die; atera emendic uso oriec; eta ez daguizuela berriz seculan contratacioco, edo saldu-erosle-etaco eche, nere Aitaren eche hau. Ioan. 2. à v. 14.

BERE Passioneco egunac baño, lencheago arquitzen ditu berriz JESUS maitagarriac lecu, ta guisa berean saltzall-erosle, ta trucalari berac, edo beste cembait, eta eguiten du horduan ere (baña azoteric bague) leneco aldian eguin izandu zuena; ta, bere lan hau eguin ondoan, erraten die, hartan hari ciranei: nere ichea otoitz-ichea da mundu guciaren-daco, eta zuec cere eguiteco ori-equin eguin didazue lapur eche. Eta gueroz etzion bati ere utzi-nai, andic carguerian ibiltzen.

ECUSTEN dezu, bein, ta berriz ere JESUSec, JERUSALENgo Elizan eguin izandu zuen? ECIN ote leguiqué gaur zure-equin ere gure JESUS maita-garriac, aldi orietan JERUSALEN-dar ori-equin eguin izandu zuena?

ATOZEA ezperen: etzaude zu anitz aldiz beintzat, Elizan egona gatic, eta otoitz eguiten dago-enaren eran, andic urruti daduzca-tzula cere asmo gucia, ta cere gogoetac? Edo etzaude zu Elizan, cere gogoz, ta pensamentuz zaitzen, saltzen, ta erosten ardiac, beiac, edo lurreco cer, edo cer? ETZAUDE zu, Elizan, andic usoac bazcatzen bezala, edo, behar ez diran, gauzei beguira, ta oroitzapen lizunloi anitz cere gogoan darabiltzquitzula? Edo, Elizan zu gorputzez egona gatic, asmoz, gogoz, ta buruz etzaude zu ascotan beintzat, diru contuetan, saldu-erosietan, eun milla escambill-etan, cargueri loi etan, eta, norc daqui, cembat eraqueritan? ETA guisa onetan zu Elizan egotea otoitz eguitea da?

EZ baicic Eliza loitzea; Eliza nastea, Eliza zuc cere gogoeta, ta oroitzapen lapurrez betetzea; ta Elizan zuc, onguiac onguien gain eguiteco dagoen, zure Jangoicoa otoitz onez palacatu beharrean, aserreturic uztea.

NAI ba-dezu bada, dizun zuri zure Jangoico mai-

ta-

ta-garriac, becatu berriac ez eguiteco, ta cere nequeen gurutze ona-requin zucen ibiltzeco, behar dezun, indar gucia, ta laguntza, far zaitez zu cere Jangoicoaren Jaureguian, edo Elizan ongui prestatu apaindua; ta eguizquitzu zuc ango eguitecoac, guztiz humilqui, ongui oharturic, eta, an arquitzen zaran, aldian, norequin diarducazun, daquizunac bezala. Zuc ori, era orretan eguitera, Eliza izain da (izan dedilla hau zure Erricoa, edo edocein beste toquitacoa), zure atseden-toqui, ta irabaz-vide guztiz egoquia; bada zure Jangoico maita-garriac bere gracia-requin, ta escu ona-requin leunduco ditu zure neque-gurutze guciac; eta dembora berean emain dizquitzu anitz ondasun, ta ontarte.

§. II.

ERA BERECO VIDEA, NORCberac bere baitan, edo barrenean otoitz-eguitea.

ELIZARA ecin zoazquen, aldi-etaraco eguizu zuc cere bihotz berean gogozco Eliza chiqui, ta Aldarecho bat; eta or Aldare orretan eguizu guero, Elizan eguiñen cenquen, otoitza; ta eguizu or zuc cere otoitz ori, S. PABLOc adirazten dizun, eran, onec erraten dizunean: nai dut nic, guizonac otoitz daguiten bazter, ta toqui gucietan, beren Jauna gana escu garbiac goitituz, irañic bagueco bihotza-requin, ta asaldacioric bat-ere artzen ez dutela. 1. Tim. 2.

GARBI zazu bada zuc orre-taraco cere bihotz chargaldu ori. Quen--eguizquitzu zuc cere bihotz beretic lurreco naicunde loi--macur--beroac, edo, behar ez diran, cere naicunde guciac. APAIN zazu zuc cere bihotz bera humil-tasunez, uste viciz, edo esperantzaz, ta cere Jauna zuc maitatu nai andi-zucenez.

SAR zaitez guero zu, gogozco cere oñ ariñez, ta videz, cere bihotzeco Eliza chiqui orretan; ta, agur andiac or eguiñic, or bertan arquitzen den, zure Jangoico onguille maita-garriari, asi zaitez escatzen: ta esca zagozu, nai dezuna.

ALA eguiten zuen, beste amtzen artean, Senaco Santa CATALINAc; bada bere gogoz eguin zuen Santa onec bere bihotz berean Aldarecho bat bere Santo-Christoa-requin; ta lur-

lurreco bertze edocein eguitecotan oñez, ta escuz ibillia gatic, naiez, ta gogoz an arquitzen cen beti bere Jangoicoa-requin; ta an eguiten cituen, Elizan eguin citzaquen, otoitzac, eta gauzac; eta era orretaco bere otoitz-equin erditsi cituen, bere burua Santa-tasunez beteric uzteco, behar cituen, Ceruco indarrac, eta gauza guciac; bai-ta Ceru bereco virtute, ta ondasun andiac ere.

BAñA cembat aldiz egun oro, ta cer horduz sartu behar ote du batec bere Jaunaren Elizan, edo bere bihotzecoan, an arquitzen dituen, indar-andi-equin ongui vicitzeco, ta becatu berriric eguiten ez duela, irabaci andiac eguiteco? EDO cembatetan otoitz eguin dezaque batec goizetic arratsi-eraño, behar den, eran, ta orrembat irabaci-requin vicitzeco?

Era orretan vicico da, bai, harc ori, San PABLOc eracusten duen, adiñetan, ta zucen eguiten duela. Ez dezazuela (dio S. PABLOc): ez dezazuela zuec ceren gogotic inzi ceren Jaunari zuec ceren otoitzac eguitea: *Sine intermissione orate.* (1. Thesal. 5. 17.)

ALA eguiten du, bai (ta edequi al ere), itsasoz ondoa zucen darabillenac eguin oi duena, eguin ezquero. EZ da, ez, era orretan oncia darabillen PILOTOA, lotaraco, Nort-izarrari bein beguiratu bague, ta, izar harc adirazten dion, eran ontzia zucendu artean. Lotatic jaiqui-horduco beguiratzen dio berriz izar berari; ta izarrac aguertzen dioii, vide zucenez ez pa-doa, daraman, ontzia, vide artaratzen du, tricatu gabe; edo demboraric galtzen ez duela; ta guero egun gucia darama, noizean bein ontzi-izarrei beguira, aice gaistoac, edo ubeldeac galeraci ez dezoten onci berari, eraman behar duen, bere videa. BAñA bere beguiratze, ta contu-artze oriec ez diote Piloto berari quendu oi bere jan-edanac, bere loac, eta gañeraco bere gauza guciac, behar den, eran eguitea.

EGUIN ditzaquetzu, bada, zuc ere cere gauzac, cere Jauna zuc bein ere cere gogotic uzten ez dezula, edo cere Jaunari zuc, eguin behar diozun, aldietan, otoitza-eguiten diozula: ta, ala zuc ori beti eguitera, eguiten dezu zuc, zuri Apostoluz cere Jangoicoac aditaci dizun; otoitza: ta ori zuc eguiñen dezu, eguin ezquero zucen, ta contuz goiz-arratsi-era-

etaco cere otoitzac, jan-hordu-etaracoac, eta Elizara zaitezquen, aldi-etacoac: eta noizean bein egunaz zu, ta, iratzarriric arquitzen zaran, gabazco horduetan ere lartzen ba-zara, cere bihotzeco Aldareraño, edo, arquitzen zaran, toquitic, cere Jauna gana zuc cere gogo asmoac goititzen dituzula, ematen ba-diozcatzu, laburqui ba-dere, eguin dizquitzun, gucien esquerrac; escatzen ba diozu zuc videnabar, BEIN, leneco cere utsen barcamentua, BERRIZ bere laguntza, cere gauzac zucen eguiteco; GUERO bere beldur santua, utsi-berri-etatic, eta orien vide galdu--etatic igues eguiteco: BATZUetan bere amore maita-garria; BESTE--etan bera bere Ceruan ecusi naia; ta orrelaco cer edo cer: baña utzi bague bein-ere JESUSen Amaren egun--oroco ERROSARIOA, cere MEZA entzutea: ta egun oro, edo al dezunetan, LIBRU onetan cerbait iracurtzea, emen arquituco dituzun, gauz onac eguiteco asmoan.

EGUIN ote dezu zuc ori gucia orain--dañoco cere demboran?

EGUIN ote dezu zuc orren laurdanic ere?

EZ eguiaqui, diozu, ori eguin bagueac ematen dizun, damu andia-requin!

ORRE gatic eguin dituzu zuc, zuc ceronec daquizun, adiña uts, eta becatu.

GALTZEZ galdua dago Mundua, dio JEREMIAS Profetac (cap. 12. 11.), ceren ez den Mundu berean bere beharrari, behar den, eran, ta adiña beguiratu nai dionic; eta, bere beharra ecusten ez duenac, ez dio, ez, bere Jangoicoari escatzen, beharretic ateratzeco, behar oi den, laguntza, ta gracia; ta, behar duena billatzen ez duena, beharri gueldirzen da beti, bera guero gosez ill-artean.

HAIJ guertatu zait niri, becatura nazan, gucietan; ta, guertatu zait, bai, nic ongui beguiratu gabez nere gabera, edo nere behar-etara.

ETSAIEZ inguratua nembillen ni gau; ta egun, ta beti. NERE aztura, ta passione galduac elcar arturic cebiltzan, ta nere etsai-equin bat eguiñac; eta, oriec garaitzeco, nic naita ez behar nuen, laguntza, bein, ta berriz, nere Jaun maita-garriari escatu beharrean, nerau sartzen nintzan ni nere galvide-etan, ta nere etsai amurratuaren atzapar-etan; ta guel-

di-

ditzen nintzan gueroztic ni, nere oñ-etatic buru-rañocoan nazan, hau oben-culpaz erdiratua.

ETA sendatu ote naz ni, horduco nere erdiratze gaisto, ta eritasun-etatic? BARCATUAC ote daude orain-dañoco nere utsac, eta becatu guciac? EGUIN behar ote dut nic uts, edo culpa berriric gaur-guero bein ere?

NERE escuan dago orrelacoric batere bague beti ni vicitzea. EZ dut orretaraco, behar nic, contuz ibiltzea, ta ongui, ta maiz nic nere Jaunari otoitz eguitea besteric. BAdaquit orain, bai, hau nola, ta cer eran eguiten den. EGUIN naigabez, betetzen ba-ditut nic nere uts--galgarrien neurriac, ondatuco naz ni betico sulecean, ta galdua naz ni an, eternidade guci-guciraco. ALA ni an azquenean galduric guelditzera, nere zori gaistoan jaioa!

I.

ZELUS DOMUS TUAE COMEDIT me, & opprobria exprobrantium tibi ceciderunt super me. Ps. 68. 10.

ZURE echea, zure Eliza, zure Jaureguia ecusi nai nuquean nic, cegocan eran, ta gende humil, beguiratu garbiz cena betea, baña cer guertatu da (dio JESUS maita-garriac, bere Aita-eternoa-requin hitz eguiten duela)? CONTATUAC dira, ta ongui ezagunac, era orretan onaratzen diranac! GAñERACOAC datoz, edo certara datocen, ez daquitela, edo ausardiz beteac, eta Ech-Jaunen eran; ta, emen cembait demboraz egon, ta ondoan emendic doaz, emen zuri, nere Aita maitea, deus escatu gabe; ta, berac behar dituzten, gauza guciequin arquitzen ba-lira bezain, buru zucena-requin, ta gogor, ta tieso: ta orre gatic onara etortzen diranean, datoz beren gaitzeraco bezala, ta atsecabe galantez zu, ta ni bioc ongui beteac uztera; bada datoz, gogoz, beguiz, bihotzez, ta mihiz norc daquit cembat charqueri emen bertan eguitera.

EGUIN dut, dio JESUS maita-garriac; eguin dut nic zuc, nere betico Aitac daquizun, adiña, oriec centzaraci naiez, ta oriei eracustea gatic, certaraco den zure icheratzea, edo certara etorri beharrac diran, zure ichera, edo Elizara etortzen diran, aldietan baña ez-aditu eguiten didate niri oriec; eta onara etorri oi dira oriec, eroen eran, ta beren

ren buruen galtzera bezala; bada orien emengo escaerac, eta otoitzac izaten dira, emen bertaco becatu berriz beren buruac loitzea.

AH, era orretan onara datocenen etortze galgarriac! UZTEN ez-pa--zaituzte zuec, Eliza-ratzen diranac; eta, zuen lecuan, artzen ez--pa-dituzte Elizaratze obeac, emendic aienatuac izain dira etorle berac, berac ori gutien uste dutenean; ta, orain oriec beren Salva-tzallearen gaiffera bota dituzten, era orretaco, ta gañeraco oben culpac, horduan artu beharco dituzte berac beren gain, orien astun-tasun neca-garriarequn lerturic vicitzeco eternidade guci-gucian, ta seculan!

Ez arren, nere Jangoico maita-garria, ez! Gaur-danic eguin nai ditut nic, zuc cerorrec nai dezun, eran nere Elizaratze guciac, eta nere ango otoitzac. Indazu zuc orretaraco cere escua, ta laguntza! bai arren, bai.

2.

SI PATREM INVOCATIS EUM, qui sine acceptione personarum iudicat secundum uniuscuiusque opus, in timore incolatus vestri tempore conversamini. 1. Petr. 1. 17.

ITAren icena ematen diozue zuec ceren Jangoicoari; ta ongui eguiten dezue, dio S. PEDROc; baña beguira (dio berac): beguira; ez die Jangoicoac, mintzatzen diranen, hitzei beguiratzen, beguiratzen dio, oriec berac eguiten dutenari; ta, eguiten dutenean, duten, barreneco beguiratzeari.

ORRE gatic bada, alferric ibillico zara zu, andic onara, ta, nai dezun bezala; baldin ez-pa-zabiltza zu, ibilli behar den, videz, ta eran, galdua zara zu egun, ta secula guciraco; bada gure Jangoico, zucen maita-garriac ez du, ez, gure ezpañ etara beguiratuco: ezpañac batetic, eta bihotza beste videz dabiltzan aldietan: ta hitzez, ta bihotzez zucen dabiltzanac dira, gure Jangoicoaren beguitarte ora, ta Ceruraco sentencia erdisten duten ibilleac.

CERUTIc urruti arquitzen ote zara zu? ANDIC erbestatu ote zaituzte, ta desterratu cere orain-dañoco oben culpac? ARA naiez arquitzen zara, ala ere zu? BAÑA ara ecin zoazque zu, cere Jangoico maita-garriac zuri laguntzen ez dizula. ETA nai ote dezu zuc cere Jangoicoaren laguntza? Bai?

Bada emain dizu (ta gogo osoz alere, zuc ori ongui, ta ongui, ta mugaz cere Jangoicoari escatu ezquero.

OTE daquizu zuc, cer eraz eguiten den, mugazco escaera zucen hau?

Eguiten da bada Errumes, behartsu baten eran, hitz-eguiten zaiola, edo gure Jangoico maita-garriari escatuz ciñez, humilqui, ta garairic utseguin bague, erditsi uste duguna.

LURREco Humil-beldurtiac dira, beren Jauna lenenic urricarazten dutenac. Oriei, bai, gure Jangoico maita-garriac ematen die, nai osoz, ta luzatu gabe, bèrac escatzen diotena.

Zori oneco ibille zucena ni, ni orien eran ibiltzera, emen vici nazaño! Ni era orretan beti emen ibiltzera, ni izain naz nere Jaunaren hume maite-etatic bat; eta, nic nere Jaun oni escatu ezquero, bere hume on oriec escatzen dioten, eran bere escu indartsuaren laguntza, ta gracia, izain dut nic hau-, bein ere utsseguin bague; ta izain dut guero bere demboran-seculaco gloria. Ala guerta dedilla, nere Jangoico maita-garria: bai arren, bai.

3.

DEUS MEUS MISIT ANGELUM suum, & conclusit ora leonum & non nocuerunt mihi. Dan. 6. 22.

GUztiz maite zuen, DANIEL centzan, Profeta Erregue DARIOc; eta orre gatic eguin ere zuen, bere Erreinuco irur guizon andien-etatic bat.

DANIELen on hau ecin eramanez, Babiloniaco beste guizon andiac, eguin izandu cioten, beren ustez, amill-tegui, edo gal-vide bat guztiz egoquia.

Ba-cequiten guizon errebes oriec, oitua cegoela DANIEL Profeta goitz-arratsetaco, ta egunezco bertze cembait otoitz-etara; ta trampiaz atera cioten Erregue DARIOri, oguei ta amar egunez, Erregue berari baieic, otoitzic ez eguiteco, manua; ta manu hau austen zuena, bota cedilla, an BABILONIAN gosez arquitzen ciran, leoi izu-garri batzuen lecera.

ADITU cituen DANIELec, Erregueren manu hau ta, hau austen zuenac ecusi beharco zuen pena; baña, aditu ez pa-litu baño, gueiago etzuten izutu Profeta; ta urrengo egunean (gueiago luzatu bague) eguin

eguin cituen DANIELec, len bezain haſtiz, ta contuz bere otoitz guciac: eta orre gatic aurtiqui zuten leoi goſeti gogorren artera, izan cedin an orien bazca, ta janari.

BAñA cer guertatzen da?

Otoitz onarena. Igortzen du bertan gure Jangoico maita-garriac bere Ainguerú indartſu on-etatic bat; eta lotzen ditu onec ango leoien muturrac: eta an dago DANIEL leoien artean, bertze ambeſte bildotsen artean arquitzen baliz, bezain ongui, ta ſeguru; ta ateratzen da guero, ater-hordua etorri cenean, ara aurtiqui, edo bota zutenean bezain, oſo, ta oſaſun ona requin.

Banatzen du Erregue DARIOc DANIELi aldi onetan guertatuaren berria, ta gure Jaunaren icena; ta guelditzen da DANIEL leneco bere lecuan, ta Erreguec, len-ere baño, aguitz gueiago nai diola.

NAI dezu izan zuc ere lecu eder bat, gure Erregue andi, Jangoicoaren Ceruco Erreinuan? NAI dezu zuc, gaitzic ez daguizuten ſulececo leoiac, lurreco gaiſtoac, eta cere paſſione viciac!

EGUIZ-quitzu, bada, egun-oroco artuac daduzcatzun cere otoitzac, eta, zuri dagozquitzun, gañeraco gauzac. EZ da cer utzi guci-etatic bat bera bein ere, zure etſaiac ori, zure eguitecoac, zure lagun gaiſtoac, edo cerc edo cerc eragotzi naia gatic.

ZABILTza zu zucenzucen cere Jangoicoa-requin, ta cere begui-etatic bein ere cere JESUS maita-garria galdu bigue. Eguiz-quitzu zuc, alic eta conturic on-enean, zure Jangoicoari dagozcan, gauzac, eta, edocein nequetan ecuſia gatic guero zuc cere burua, ez da bat ere cer beldurtu.

GURE Jaun ecin obea da, ta gure Jabe ecin-maita-garriagoa, gure Jangoicoa; ta, era onetaco Jaun; eta Jabe batec ez-ecic, ez daqui, den chiquienac ere galcera iuzten, bere lan guciac ongui eguiten diozcan, bere ſervitzaria.

GURE Jaun hau, gure Jaun, ta Jabe ez-ecic, gure Eguille ere da; bada Jangoicoaren eſcucoac gara gu guciac, eta berac eguiñac; eta norcnai maite ditu, berac eguiñicaco bere gauzac, ganz onac diranean oriec, eta behar bezalacoac. DEMBORA berean gure Aita ecin-maita-lleagoa da gure Jangoico eguille hau; ta edocein Aitac maite ba-ditu be-

re humeac,dituen bezala, cembat maitatuco ez ditu, era onetaco Aita batec, bere humeonac?

ECIN gueiagorañocoa da gure Jaun onen escua, edo, asm-al ditezqueen, gauza guciac daguizquiena da Jaun and-eguille maitari onen ahala, ta escua; ta bere escu gucia-requin laguntzeco dago Jaun hau bere humeei, bere gauzei; ta bere servitzariei, oriec escatu ezquero humilqui, ta behar den, eran bere laguntza.

ONA bada ni, nere Jaugoico eguille-on-indartsu-maitatzallea, ona ni prest, zucnai dezun, guci-gucia eguiteco.

ETSAIEZ ingurutua nago ni, ta oriec garaitzeco indarren, ta indarren esque. EZemen daquizquitzu ucatzen zuc, ciñez, ta ongui escatzen dizquitzunari. CiñEZ escatzen dizquitzuc, bada, nic, eta behartsu-errumesac bezala, edo czaguturic nere beharra, nere ecer-eza, ta zure izate ecin obea.

ZURE beharrean nago ni, ta egoin ere naz, vicinazaño: ta, hau daquidan ezquero, daquidan bezala, beti-ta beti, edo alic maizena escatuco dizut nic zuri cere laguntza; ta escatuco dizut, emain didazulaco ustean.

HAU lenagotic ez eguiñaz, ta orre gatic eguin ditudan, utsez dut nic orain damu; ta, damu hau zuri nic, eta mundu guciari adiraci naiez, erratera noa, al dudan, cintasun guci-gucia-requin: *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*



XLVIII.

upna

XLVIII-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN ONDOREN GURUTZEA-REQUIN IBILLI nai ez dutenen calteac.

ON utſez, ta amorioz ecin eraguin diguna guri, eraguin nai liguque gure JESUS maita-garriac, lenic beldurtzen gaituela, ta izutuz ba-dere, ta orre-taraco, eracutſi cizquigun, bere Legueco videan zucen dabiltzanen doa-taſunac, eta ondaſunac bezala, Legue beretic urrunduz, galtzen diranen calte arri-garriac ere. CALTE oriei ere eguin behar diegu guc beren beguiraldia, aldi onetaco otoitz-gai onetan; baña ecuſi ondoan, cein diran, orien pera beren naiez doacen, caltear gaiſoac.

§. I.

CEIN DIRAN JESUSEN LEgueco videtic, edo gurutzetic igues-eguiten dutenac?

GURE Chriſto Jaunaren deiac aditu-horduco, eguiten dizquigu bere deiac gure Etſai gaiſtoac ere; ta videnabar eguiten du gure Etſai amurratu berac bere al-eguiña, JESUSen ondotic quendu, ta bere aldera gu gucioc eraman naiez: ta, ar gana ba-goaz gu dio, emain dizquigula anitz atſeguin, ta guſto, anitz ontarte on, honra, ta eſtimacio; bai ta irabaz-vide berriac ere; vici gaitecen gu gueroz erraz, aiſa, ta nai dugun, eran.

BERE dei oni, ta eſcaintze gaiſtoari indar gueiago eman naiez, ematen dizquigu gure Etſai amurratuac milla ſu, ta tirricacio; eramaten gaitu bere perell, ta vide galgarri-etara, ta, armez, ta laquioz beteric dautzan, bere toquietara; ta, an atſeguin char, ta irabaci galduen edaria-requin, naſtu oi die anitzi beren burua, eguin dezoten ez-aditu, be-

behar den, vide, ta nequeraco, JESUSec eguiten dien, dei eme-eder-onari.

BA-daquizu zuc, cein ote diran itsu-gor-galdu oriec?

ORIEC dira beinic bein, JESUSen ondoren ibilli nai luqueenac, baña batere necatu gabe. ORIEC dira, Cerura nai luqueenac, baña vide gogorric ecusi gabe. ORIEC dira, beren JESUS maitatu nai luqueenac, baña gogotic, edo bihotzez utzi gabe lurreco beren atseguin char--galgarriac: eta oriec dira, Ceruco videz ibilli nai dutenac; baña su-leceracotic beren oñac atera gabe: ta era orretaco Cerura naia, arazez-naia diña, da; edo, centzu gabeco Eriaren naia bezalaco, naia.

CENTZUric ez duen, Eriac ere, sendatu nai duela, dio: baña erraten ba zaio, orre-taraço urratu behar diotela bere besoco zaña, ta andic atera, gaistaturican arquitzen den, odol zatia; quendu behar diotela, usteltzen asi zaion, aragui zatia; atera behar zaiola aguin bat, ezur pusca bat, eman behar zaiola edari miñ bat; edo eguin behar duela, nai ez luqueen, gauzaren bat, edo beste, ez duela nai, dio, orrelacoric; baicic sendatu. EROAren hitzqueta! ETA norena da zurea?

SENDATU nai dezula, diozu zuc ere: baña odoltu gabe, edo itzultzen ez diozula zuc nori berea: ondu nai dezula, diozu zuç, eta garbiro vici; baña quentzen ez dituzula jostatze lizunac, jan-edan galduac, behar ez diran, sartu-atereac, eta luza-videac.

SENDATU nai dezula, diozu zuc ere; baña necatu gabe, cere oroitzapen galduac cere gogo-bihotz-etatic iuzten ez dituzula; ta cere araguiaren naicunde loiac hilduraz, nequez, ta mortificacioz, ito, edo lertu gabe.

CERUra nai dezula, diozu zuc; baña aisa, ta gurutzeric gabe, edo JESUS maita-garriac eguin, ta eracutsi cizquitzun, gauzac eguiten ez dituzula.

CER nai da, bada, zure nai char galgarri hau?

ERI naguiarena!

CER erantzute da, zure erantzute-modu hau, JESUSec zuri deitzen dizuenean Ceruco bere videra, ta cere nequezco gurutzea-requin haren ondoren ibiltzera?

ECIN charragoa! EZ aditu eguin adiñacoa!

ONEN gaitzqui ez izan-

ar-

arten, ez-aditu eguiten diote JESUS maita-garriari beste anitzec ere. BA-daquizu cein diran oriec?

ORIEC dira, Cerua irabazteco, gauz onac eguiten dituztenac: baña ez, behar diran, adiña, behar diran, aldietan, edo behar bezala.

ADIRAZten die beren Jangoicoac, edo berez, edo Confessariz, edo Predicatzallez, edo libruz, edo nol-ere bait, Ceruraco eguin behar dutena; bai ta, noiz, ta nola eguiñ ere: baña ez dute oriec zucen eguiten, beintzat beren Jangoicoac adirazten dien, gucia; ta orre gatic ez dira sendatzen, edo sendortzen, behar bezala, guero JESUri darraizcola, virtutezco aldapac iganez, Ceruan sartzeco.

BA-dira eriac, ciñez sendatu nai dutenac, eta orre-taraco gauz anitz on eguiña gatic, len bezain eri guelditzen diranac. BA-daquizu cer gatic?

CEREN dabiltzan eri oriec beren buruz; ta, onac izana gatic, artzen dituzten, autsi-edari, ta gañeraco gauzac, ez diran oriec, orien gaitzaridagozcanac; eta orre gatic diran autsi-edari, indarren galgarriac, ez emalleac.

Jesusec utzi cizquigun guri gueren senda-videac, eta aldi-oroco gauzac; baña Anima eriac ez dira, oriec bereisteco, onac: eguiteco ori utzi cien JESUSec Animen Medicuei, ta Confessari aditu-onei.

SENDATU nai duenac, eta osasunan vici, vici deño; ta, nai duenac ibilli guero Jesusen ondoren, billatu beharco du Medicu orietatic bat, eta icasi beharco du Medicu bera gandic, cer gauzac utzi, gaitzic eguin ez dezagoten, ta cer eguin goizetic arratseraño, hasteco egunetan, ill oro, ta urte guci-gucian; ta, icasten ba du ar gandic, eguin behar duena, ta eguiten ba-du guero, icasten duena, izain du osasuna, bai, bai-ta, beharden, adiña indar ere, bere nequezco gurutze ona jasotzeco; ta, hura soñean duela, ta berari dagozcan, gauz onac eguinaz, ibillico da gueroz JESUSen ondoren, ta sartuco da, beraren Jangoicoac orrelacoei prestatu cien, toquian, edo Ceruco glorian.

BAñA cembat ote dira, ori eguiten dutenac? CEMBAT ote, orretan beren buruac beti, (ta zucen) erabilli oi dituztenac? ERRAN dezatela Munduco gueienen ibillerac, eta erran dezala, gueienac eguin oi

oi duten vicitza-moduac.

CEñ etatic ote zara zu, hau aditzen dezun, becataria? Gure Jaunac nai duena, ta beren Confessari onac adirazten diena baicic, eguiten ez duten etatic, eta ori ere zucen-zucen eguin-naiez, orretaraco eguin behar diran, gauzac eguiteco, prest arquitzen diran-etatic? EDO ote zara zu, JESUSen gurutzearen iguesi dabiltzan alfer-nagui-etatic, edo ote zara zu, JESUSen gurutze hau aldebat utziric, aisa, lasai, ta beren gogara dabiltzan, itsu-etatic? EDO, ote zara zu, gure Legue garbi zucenac dacazquien, gauzac, eta nequeac bein artu, bein utzi ibilli oi diran-etatic, eta, orre gatic, dabiltzan-etatic ez ongui, ta ez behar bezala? Azqueneco ori-etatic zu izatera, zure galdua! Ay zure caltearra! Cembateraño ote? Goacen ecustera.

§. II.

CEIN CALTEARRAC DIRAN, Jesusen guretzea, edo beren Legueco videa eraman nai ez-dutenac?

NOl-ere-bait ezagutzeco guc gure Legueco gurutzearen iguesi dabillenaren calteac, ecus dezagun orain beguiraldi batez, len Lazaro, ta hastiz adiraci dugun, gucia; edo ecus dezagun, cembat nai dien gure JESUS maita-garriac, beraren ondoren, beren gurutze hau, edo gure Legueco nequea soñean dutela, dabiltzanei. Nai duenac (dio JESUSec. Matth. 16. 25. &c.) bere burua su-lececo videtic atera, ta bere Jaunaren videra, edo Cerucora eraman, ez dezala izan emen bere buru bera baere cupide; auts vitza bertatic bere naicunde macur guciac; utz vitza alic len-ena, leneco bere pausu ariñac: eta ar vitza bihotz ona-requin, ta Jesusen icenean lurrecoen charqueriac, gogor-tasunac, eta esquer gaistoac; eta ar vitza guisa bereean bere quezcac, bere eri-tasunac, bere gabeac, beharrac, eta beste edocein uts, eta tristura; bai ta, al dituen, edo Confessari jaquintsuac bereisten diozcan, hildurac, eta mortificacioneac ere.

ORI eguitera batec, artan hari dela, galduco ba-lu ere bere vicitza, bucatuco ditu ongui, ta zucen bere nequeac, iguesi-eguin du betico nequeetatic, eta izain du guero bere demboran seculaco bere vicitza, ta gloria.

[OR-

ORRA JESUSec zuri escaintzen dizun, ondasuna, berac daramanaren guisaco gurutze bat zuri ar-eraci nai dizunean. ESCAñIAren naigarria! VICItza labur bateco cembait neque chiqui gatic, beti-betico atseguin contentua; ta atseguin contentu, nequeric ez duena!

ECUS dezagun orain, cer calteac diran, bere JESUSen gurutze hau alde bat uztiric, bere gogara dabillenaren calteac.

ERA onetan dabillenac galtzen ditu beinic-bein, orain adí-raci ditugun, ondasun guciac; eta dembora berean artzen ditu bere gain beti-betico suac, beti-betico ay ha, beti-betico nai gabeac, beti-betico damuac, eta beti-betico sulecea!

ORRA cer calteac, Jesusen gurutzearen iguesi, ta beren gogara dabiltzanen calteac.

ONEN caltepe arri-garritic atera naiez gu gure JESUS maita-garriac, edo an sartuac gu ez ecustea gatic, erraten digu, bere gana deitzen gaituen, aldi gucietan: ATOZEA zu, nere Anima, ta certaco du batec, Mundu guci-gucia ere, bere atseguin, ta contentu guci-equin; bere urre-cillar, ta ondasun-equin, bere manu, hondra, ta escu gucia-requin, galtzen ba du azquenean, (galduco duen bezala) hau guci-gucia, eta onequin batean, graciaren ondasun, ta Ceruco atseguin-contentu-gloria: ta, galtze hau bere obenez eguiten duenean, erosten ba du seculaco leitzea, ta seculaco su-lecea? ASMA diteque, calte hau baño, calte, andia-goric? HAU da bada sulecean datzan, edoceñena: ta hau berau, Etsai galgarriaren videtic quentzen ez den, edocein mundu-corena!

AH, sulececo gaiso-negarti erre--necatuac; eta cer eguin ote ciran zuen emengo atsedete gaistoac, eta lenagoco zuen nagui-tasun alferrac? CER eguin ote ciran zuen edari beroac, zuen atseguin lizunac, zuen gusto loiac, eta zuen ibiltze galdu-macurrac? NON arquitzen ote dira orain zuen ondasunac? NON zuen irabaciac? NON gañeraco, zuen lur gañeco gauzac?

ETA cer eguin ote ciran emen zuec cenituzten, agur andiac, eta ohorezco escu-muñac, eta begui-tarte onac? Cer zuen antuste arro-tzarra? CER zuen vendecu iraquiña? ETA cer, zuec gueien-gueienic emen maitatzen cenuzten, araco gauza

za ciar gal-garri hura!

AITU cen hau; ta aitu ciran zuen-daco, zuec emen izauda cenituzten, andi-ta chiqui guciac; eta guci-guciac aitu ciran beti-ta betiraco!

BAñA bein-ere galduco ez diranac dira, zuen orco negar erreac, zuen orco carraisi, ta orro amurratuac, eta zuen orco erretze, urratze, ta lertze zori gaistocoac. EZ da hau ala? CER diozue? BAIETZ? EGUIA diozue. BAI: ala da: ecin uca daiteque.

ONGUI da, bada, nere Anima: ta zuc hau daquizun ezquero, ez ote dituzu utzi uste cere orain-dañoco era-quriac, eta vide galduac? Izan behar ote dezu zuc, emen vici zaraño, zori-gaistoco negarti orien eracoa, ill ondoan guero zu izateco, orien beren laguñ-erre-urratu madaricatua; ta ala izateco beti-ta beti, ta secula gucian? BETI zu ala izatera, alquequizun onac, eta nequeac ecusteco jaioa zara zu, ta zori gaisto-gaistoco humea!

BAI, dio JESUS maitagarriac, bai, etorrico da egun bat (ori da azquen Juiciocoa becatari gaisoen-daco ongui lotsa-garria. EGUN artan aguertuco naz ni, dio, nic nere Aita eternoa gandic dudan, escu, ta indar gucia-requin: ta aguertuco naz, nazan hau Aingueruz ingurutua.

EGUN artan aguertuco diet nic munduco guciei, nic bacoitza gatic nere vicitza gucian, edo nic, jaio nintzanetic ill arteco nere demboran eraman izándu nuen, gurutze gogorra, ta neque-tormentu gucia; bai ta cein ta cein diran ere, nere ondoren ibilli izandu nai etzutenac, aisa beti, ta beren gogara vicitzea gatic,

DEMBORA berean aguertuco ditut nic gaisto gucien lan galduac, eta asmo macur guciac; etá aguertuco ditut, an arquitzen diran, Aingueru guciac, an arquitzen diran, sulececo Etsai amurratuac, eta gañeraco ango onac, eta gaistoac eguin dezoten hista, ta hista; orien irri-histac, eta erran ariñac aditzean, gueldi ditecen gaistoac, lotsaz, ta alquez erdi-illac, eta seculaco damuz ta urriquiz beteac, eta lotsaldi hau eman ondoan, aurtiquico ditut nic gaisto guciac, beren Etsai galdu-equin batean, beren sulecera, eternidade guci-gucian urratzen, erretzen, ta lertzen an egotera.

ORRA cein caltearrac, beren gurutze ona-requin JESUSen ondoren ez ibiltzea gatic,

tic, becatuz becatu dabiltzanac. ORIEN lagun gaiſtoa nai ote dut izan nic ere, vici nazaño, oriec bezain caltear izateco guero, ſulececo ſecula gucian? EDO lagun eguin nai ote diot nic nere JESUS maita-garriari, emengo bere nequezco videan; JESUS berarequin atſeguin, ta contentuz beteric vicitzeco guero beraren eternidade gucico glorian?

BALDIN arquitzen ezpa-naz ni nere burutic iraucia, pozic artu behar dut nic, JESUSec niri eracutſi izandu cidan, Ceruraco bere vide zucen garbi hau, vide hau baliz ere, den baño, aguitz-eta aguitz latzagoa, luceagoa, ta gogorragoa.

Ala da, bai, nere JESUS maita-garria! ERO batec baicic, ecin ar dezaque, gaiſtoac daramaten, ta nic ere eraman izandu dudan, vide galgarria! EROAren pauſtiac dira, vide orretan, oriec, eta nic orain-dañoco demboran eman izandu, ditugunac. Emanac, emateco ba-leude gaur, eman-quizun guelldituco liraque, bai ſegurqui, nere aldetic beintzat, eun milla-milloi urtez vicico ba-nintz ere ni emengo lur gañean, ta edocein toquitan: ori da beintzat oraingo nere aſmoa!

INDAZU zuc, nere JESUS maite-maita-garria, aſmo berean nere egunac bucatzeco gracia: indazu videnabar orain dañoco nere utſen barcamentua; ta zu gandic niri dator-quidan, nere gurutze hau ain eramateco, eſcatzen dizudan, cere laguntza, ta gracia: bai arren, bai.

1.

IMPIUS, CUM IN PROFUNDUM venerit peccatorum, contemnit; ſed ſequitur eum ignominia, & opprobrium. Prov. 18. 3.

EGUIN detzocala becatariari gure Jangoico maita-garriac, nai adiña oju, ta dei; baña becatari charra, bere becatuen ond raño bezala ſarturic arquitzen denean, ez aditu eguiten dio bere Jangoicoari, dio Eſcritura Santac.

Aditu dituzu zuc, nere anima, bein ez-ecic, berriz-ta berriz, ta aſcotan, ta aſcotan ere cere Jangoicoaren dei onac, eta barreneco ojuac: baña iguitu zara zu orre gatic, eta artu izandu ote dezu zuc cere Jangoico bera ganaco videa? CEER? Izutzen zaituzte zu cere Jaunaren videco gurutze-nequeac? EDO arquitzen

ore zara zu anitz becaturen itsaso, ta olin arri-garrian, ta nagui-tasunez galdu-usteldua?

ALA zu gaur arquitzera, edo azquenean zu era char orre-taratzen ba-zara, suleceraco zara zu bere demboran; ta aratzen zaran hordu beretic histaz, ta irriz lertuco zaituzte, zu ango cere lagun gaistoac; eta beteco dezu zuc seculaco damuz, ta urriquiz cere bihotza; baña horduco zure damu-urriquiac urriqui damu ustelac izain dira; ta esquer-gabeco damu-urriquiac!

IZUTZEN zaituzte zu cere Jaunaren Legueco nequeac, edo erne ta contuz vici beharrac? ORI da alfer-naguien beldurra; ta beldur, gosetiz betea.

BAI eguiazqui! Bihotz charresco gendeac, gose, ta gose dabiltza, vici diraño. EZ dute ortec, ez necatu nai beren Jaunaren lanetan; ez dute sartu nai ez, oriec, zucen beintzat, edo, behar den, adiña, beren Ceruco eguitecoetan; ta orre gatic ez dute irabazten, ez, berac behar duten Ceruco janaria, edo Jaunaren gracia; ta, bere Jaunaren graci hau ez duen, Animac ez du, ez ecusico bein ere beriico beharra, ta bere gosea besteric. ESCRITURA Santac diona da, aditzen dezun, hau gucia: *Pigrum dejicit timor: animæ autem effeminatorum esurient.* Prov. 18. 8.

GOS-egarriac ez ecic, ba-ditu alfer-naguiac beste anitz neque-era ere: bada hondraric bague dabil, ta alquez, ta lotsaz betea, era orretan dabillen demboran: ez dacar alabaña, alque-quizuna, ta lotsa gal-garri bat besteric, era orretaco ibillera nagui-alfer macur-galduac.

ETA nere orain-dañoco ibillerac, cer erataco ibillerac izandu ote dira?

ZUC cerorrec daquizun, bezain char galduac, nere Jangoico guztiz maitaria; ta utsez, ta becatuz beteac, eta guztiz lotsa-garriac!

ITSUTU naute ni, bai; ta ongui-ongui al-ere nere obenculpa gal garriac; eta, ala ez izatera, ecin vici nindequean ni, vicitu nazan, bezain gaizqui, nere orain-dañoco demboran!

GALDU nai ote dut, bada, nic nere buru hau, ta vici behar dut nic, emen nazaño, beguitan naducatela ni nere Jangoico maita-garriac, eta, Jangoico beraren alde arquitzen diran, on guciac?

EZ

EZ nere Jangoico maitea, ez! UTZI nai dut nic, eta bertatic ala ere, nere orain-dañoco nagui-tasuna; artzeco guero nic, zu gana daraman, nere Legueco vide zucena. INDAZU zuc, orre-taraco behar den, arguia, laguntza, ta gracia. Bai arren, Jangoico maitea, bai.

2.

DESIDERIA OCCIDUNT PIGRUM. Prov. 19. 24.

GOS-egarriac, eta deshondrac ez dira naguiaren neque guciac. NAGUIAC eguin nai luque, bere Jangoico maita-garriac manatzen dion, eguiteco, ta lan gucia; baña bat ere necatu gabe. ONDU nai luque, bai, baña uzten ez dituela bere cembait atseguin, gauza, ta jostatze galdu; edo ondu nai luque, bai, baña gaistaqueriz gaistaqueri dabillela; ta, onduco denac, eguin behar dituen, gauzetan bat-ere bururic austen ez duela; ta, era onetan dabillen artean, urratzen diote bihotza bere ondu-nai-eznaiac, eta dembora bereco bere nai galduac.

BERE ondu-nai zucenen batzuec aguertzen diozcaten, nequeen igueſi dabil bere naguitasunac galdua daducan, becataria; ta cembat ere gueiago igues--eguiten duen, bere lembicico nai zucen eta tic, ambat gueiago necatzen ta urratzen du becatariac bere burua.

BAI, dio Espiritu Santuac, bai: aranzez beteac daude nagui-alferraren vide guciac; bada gucietan arquitzen ditu alfer--naguiac bere quezcac, eta nai-gabe beltz illun gogorrac; bere videa galduric dabill alabaña, ta utsez-uts, ta becatu neca-tzalleen sasiz-sasi.

ALFERRIC ibillico zara, bada zabiltzan bezala, edo zabiltzan, videz, aisa--tasunen ondoren, ta lasai-tasunen billan; bada vide char orretaz, edo alfer, ta nagui dabillen gaisoac, ez du sosegu onic arquitzen bein ere, noizean bein arquitua gatic cerbait ezti-aintzura, edo atseguin iduri; bada Ceruco videz ez datocenac, izurriz beteac dira, ta guztiz naigabetiac; atseguin videa, Jangoicoaren gauzetan erne, ta zucen dabillenaren videa da, bacar-bacarric: *Iter pigrorum quasi sepes spinarum: Via Justorum absque offendiculo.* Prov. 15. 19.

AH, nere JESUS maita-garria! ta cembat nequeren

ar-

artetic ateraco nuen nic nere buru hau, lenagotic nic ezaguntzera, orain aditzen dudan, eguia! UTZICO ditut nic, bai; ta pozic al-ere, nere orain-dañoco nagui-tasunac! ERNE vicico naz ni gaur-guero, bai, zure dei leun-meac aditzeco: ta an izain nazu ni zuc, zuc niri chistu mee, edo deitzecho bat eguin horduco; ta an izain nazu, zuc cerorrec nai dezun, guci-gucia zucen eguiteco, ta nere gurutzea-requin ni zure ondoren arin ibiltzeco! ZUREA da, bai, oraingo nere asmo on hau ere; ta, bein ere nic hau gal ezdezadan, indazu zuc cere escu indartsua, cere gracia, ta cere laguntza. Bai arren, JESUS maitea, bai.

3.

INIQUITAS CALCANEI MEI CIRcundabit me. Ps. 48. 6.

BA-nabilque, bai, dio DAVIDec, vici nazaño ni, nere gogara; ba-nabilqui, bai, ni, nic neronec nai bezala, ta nere Legueco gurutzea, ta vicitza garbia alde-bat utziric: eguin ditzaquet nic bitartean, bai, nere gogo gaistoac escatzen dituen, guiza guciac, eta nere aragui loicor onec escatzen dituen, lizunqueriac; baña egunen batean aguerico da nere lan hau gucia, ta ecusico dut nic, eta ecusico naute munduco guci-guciac ere nere becatu galduen sare gaistoan burutic oñetaraño ongui bildua, ta lotua. AH cer ecusgarria!

EMEN ba-nabil ni ondasun-videz; emen ibiltzera ni atseguin videz, ta nere Jaunaren videtic urrun, Jaun beraren igueli ba-nembil bezala, eguiñen ditut nic, bai, nere gogoeta galduac nai dituzten, cembait gauza, ta becatu: baña ez naz ni, ez beti emen vici beharra: aguertu behar dut nic egunen batean (ta egun hau, nic uste dudan baño, aguitz alderago dago), guztiz gogorra den, contu-artzalle Jangoico baten beguietan. CER quezcac, horduco nere quezcac! CER urriquiac, cer damuac! baña damu, ta urriqui guztiz beran-corrac!

HORDUAn nic naia gatic, ecin daguiquet nic, nic neronec naico dudanic; ecin palaca dezaquet nic, nic nere vicitzan aserretua daducadan, nere Jangoico maita-garria: *Non dabit Deo placationem.* Etzait horduan niri valiatuco, nere nole-

nolere-baiteco Jaun hau palacatu-naia, edo nere JESUS maita-garriac ni gatic, eta bere Aita palacatzeco eguin izandu zuena: *pretium Redemptionis*; eta hordu beretic asico da betico nere nai-gabea, betico nere pena, betico nere sua, nere erretzéa, nere urratzea, nere ay-ah! ta carrasi madaricatua: *et laborabit in æternum.*

BAñA nai ba-dut nic orain bertatic centzatu (dio DAVIDec berac), eta artu nai ba-dut nic, artu behar den, JESUSen gurutzezco videa, edo nere Jaunaren Leguecoa, ez dut ecusico nic, era ometaco ecus-cariric; lagunduco dit niri nere Jangoico maita-garriac nere vicitzan; ta, nere vicitz hau nic ongui bucatzen dudala, libratuco nau ni nere Jangoico berac guero-co nere neque gucietatic, *redimet animam meam de manu inferi*; ta eramain ere nau ni, atleguin utsac baicic, ez dituen, bere gloriara.

ADITZEN dezu? BAI? ETA cer vide da orain zuc artu behar dezuna? MUNDU eroarena? ARAGUI gaistoarena? CERE etsai galgarriac eracusten dizutena?

EZ, ez, nere JESUS maita-garria? Ez orrelacoric, ez! ZURE videzucena da, gaur-guero nic eraman nai dudana, naiz dela, den gucia, gurutzez, ta nequez eguiña. ZUREA nai dut izan nic nere vicitza gucian, ta betico eternidadean.

LENAGO asmo on hau ez artuaz dut damu, ta cinqui al-ere; ta, hau artu gabez, eguin ditudan, charqueri gucien damuz beteric arquitzen naz ni gaur; ta charqueri orien barcamentua erditsi naiez diot orain nic hitzez, ta bihotzez: *NERE JESU CHRISTO, &c.*



LAUR-

upna

LAUR-GARREN LIBRUA.

JESUSEN NEQUE GOGORRAC, ETA ERIOTZA.

ORAIN-dañocoan guc ecusi ditugun, gauzac ongui-asco adirazten digute, andia dela, bai, ta bazterric baguecoa gure JESUSen ontasuna, ta JESUS beraren gu ganaco ongui-naia, edo amorea: baña gure JESUSen ontasun hau bera, ta JESUSen guri ongui nai-amore hau obequi baicic JESUSec aguertzen ez digu guri bere PASSIOneco egun neca-garri-etan, edo egun ori-etan, gure oneraco, berac eguin, ecusi, ta eraman izandu zuena-requin.

ORRE gatic bada, ta guri gueroi, bera ganaco esquer-vide berri on bat aguertzeco, eguin behar diezteegu cembait beguiraldi, ta hastizco ecuste JESUS necatu-maita-garriaren Pasione Santaco gauzei ere; oriec ongui, ta contuz ecusiz, ezagu dezagun, orain-dañoco gucian baño ere, aguitz obequi, guc JESUS berari diogun zor andiaren zatiren bat, edo beste; ta horduco gure ezagu-era onec eraman gaitzan, JESUSen amore andi oni gueren amorez nolere-bait erantzutera. ASI gaitecen Judas galduaren esquergabe-tasun arri-garriaren ecustetic.

XLIX-GARREN OTOIT-GAIA.

§. I.

SALTZEN DIE JUDASEC ECER-EZ BATEAN JESUSen Etsaiei JESUS maita-garria.

SALtzen du Judasec JESUS? SALtzen die Judasec JESUS, JESUSen Etsaiei? ETA saltzen die ecer-ez batean Judasec

ec JESUS JESUSen Etsaiei? Gauza arri-garria!

Nor ote da Judas JESUSen saltzalle gaisto arri-garri hau? Nor ote da, Judas gaistoac, orren aisa saldu izandu zuen, JESUS maita-garria? Eta nor ote dira JESUSen Etsai JESUS beraren erosle oriec?

JUDAS da JESUSen amabi Apostolu-etatic bat.

CEIN ote dira JESUSen Apostolu oriec? Oriec dira, bataiatu diran, gucien arteco Santuric andienac, eta, Elizaco toquiric onen-onenean arquitzen diran, guizonac.

NORC eman ote cion Judasi JESUSen Apostoluen arteco toqui hau? JESUS maita-garriac? ETA cer gatic ote? BERE nai utsez, ta bat ere zor etziola.

ONGUI zordun uzten du JESUSec Judas onembat ondasun-equin, ta onen toqui, ta lecu eder andia-requin! BELAUnicaturic, eta arrastan dabilla ere, bera vici den artean, ez luque Judasec eguiñen, JESUS onari zor dion laurdenic ere.

CER eguin ote zuen Judasec bere zor andi onen alde?

Ceer? Aditzen dezuna; ta, ? munduan den, guizonic charrena gandic onguille batec uiteco etzuen, esquer-gabe-queria: bere onguille andi Jangoico-guizon JESUS saltzea! Ecusten dezu?

Nor ote da gure JESUS maita-garria? JESUS da, baldin zuc hau ez-pa-daquizu, AITA eternoaren Seme bacar-Jainco guizona. JESUS da, Ceruan, ta Lurrean arquitzen diran, gauza gucien Jauna, ta jabea. JESUS da, mundu galdua erosi, edo zucendu naiez, Lurrera, guiz on eguiñic, etorri cen Jangoicoa, ta orretaraco, milla nequeren buruan, bere odola, ta vicia gurutze batean eman izandu cituena. JESUS da Ceruraco vide bat mundu berari eguin izandu dion, Jangoico-guizona, ta Cerura ciñez nai duten, guciei araco vide hau zabaldu diena. JESUS da, bere graciazco ondasunez munduco guciac bete nai dituen, guizon-Jangoicoa, ta JESUS da, eternidade bateco gloriara igan nai dutenei, escua luzatzen diena?

Eta Jangoico-guizon, onen onguille hau da Judasec onen aisa saldu izandu duena.

Hau berau: ez besteric; eta Jangoico guizon, onen onguille hau saldu du Judasec ecusi dugun, ontarte ain an-

dia

dia beraren escutic artu ezquero.

ETA nori saldu dio Jangoico-guizon on onguille JESUS hau Judas esquer-gabeac?

JESUS Etsairic gogorren-galduen-gaistoenei.

Cein ote dira JESUSen etsai oriec?

Oriec dira Juduen arteco Apez Nagusiac, eta Sacerdoteric andienac. APEZ oriec ciran, JESUS ecin ecusi zuten, guizon, amurratuen eraco batzuec. ORIEC ciran, JESUS beguitan arturic ceducaten, guizon galduac; eta oriec ciran, JESUS galtzeco, videen billan cebiltzan, guizonac.

BAñA cer gatic ote, edo ceri cegocala?

CEREN ongui nai cien: besteric bague. Ceren aguertzen cien Ceruco vide zucena, ta Legue berri ondasun-dun, guztiz eder bat. CEREN debecatzen, ta eragozten ciezten, ongui etziran, cembait gauza, ta eguiteco: ta ceren adirazten cien, berac, nai-taez eguin behar zuten, emen onac izateco, ta guero JESUS beraren Ceruan sartzeco.

OTE zuen Judasec JESUSen etsai orien cerbait berri?

BAI-ta anitz ere: bada ba-cequien, arazo andietan cebiltzala, JESUS ill-eraci naiez; eta ori cequienac bezala, billatzen ditu JESUSen etsai berac; eta, aguerturic nosqui, JESUSen etziran, anitz gauza; ta, besteen artean, JESUS cela usantza zarren galtzalle gaisto bat; JESUS cela MOYSESen Legueari beguiratzen ez cion, guizon bat; JESUS cela ezteiez eztei, ta jale-edale andien artean cebillen guizona; ta JESUS cela, behar ez ciran, anitz gastu, galtze, ta gauza eguiten, ta eraguiten, edo ontzat ematen cituen, bat; eta, orre gatic asperturic arquitzen cela bera ere (errain cien guero) JESUS-equin egotez, ta ibiltzez; eta, icasiric, certaiñ cebiltzan berac, an cetorquiela, JESUS saltzera, ta erosle berei videnabar erratera, beren escuraco zuela, bere iguala eguin ta laster, edo berac nai zutenean.

ECUSI dezu zuc oraindic onelacoric? Usteco cenuen zuc, guerta ere citequela, hau bezain gauz arrigarriric?

CERTAN guelditu ote ciran JESUSen etsai-Apezac, eta Judas? CER iguala eguin ote zuten elcarren artean? EDO cer eman ote cioten Judu-Apaizac Judasi, Judasec berei

saldu cien, Jesus ona gatic?

BERAC nai zutena. ETZIEN, ori ber-bera baicic, escatu Judasec, JESUS oriei saltzean; bada horduan harc oriei erran izandu ciena cen: cer eman nai didazue zuec, nic zuei JESUS salduz emateco? ETA, oriec erantzun-horduco, emain ciozcatela, dembora artaco, oguei ta amar diru, iguala eguiñic guelditu cen, Judas saltzallearen, ta orien artean: ta joan cen Judas, JESUS bere etsai erosleen ecuratzeco, aldarte on baten billara.

ECIN eguin cezaquen Judasec, eguin zuena baño, iguala charra-goric: bada orremisat eman behar zuen, corradu bat ere ez gutiago, Juduen arteco edoceiñec, esclavo, edo cautivo ill bate gatic ere (Exod. 21.): ta cautivo ac, edo esclavoac ciran, vici ciranean ere, Juduen, ta Israeldarren arteco guizonic ecerezenac.

AH Judas, Judas! demboraren batez ongui maitatzen cenuen, bada, zuc ere, cere onguille-on-Jesus maitagarria! CER eguin zaio, bada, gueroz JESUS maita-garriari, JESUS maita-garria zuc orren ciñez, viciro, ta gogorqui beguitan artzeco?

AZTU, edo atzendu zaitzu zuri cembat zor diozun zuc cere JESUS maitagarriari, JESUSec bere Apostolutaco artu izandu cinduenetic? QUENDU ote dizu JESUSec gueroz, horduan zuri JESUSec emanicaco lecua, edo, lecu andi orrec dacarren, escua? EGUIN ote dizu Jesusec zuri videgaberen bat, edo beste?

CERTAN zabiltza, bada, orren macur, ta certan cere buruaren orrembat arazo galgarri-requin? ZUC JESUSi zor diozun adiña, zor cionac, salduco zuen bada Jangoico-guizon-JESUS maita-garria? ETA, saltzecotan ere, salduco cenien, JESUS beraren erosleric gaistoenei, ta Judu gogor galgarriei? eta salduco cenien ecer-ez batean?

CER gatic etzenion saldu (saltzecotan) bere Ama, beraren ongui maitariari Santa Maria MADALENAri, edo, ongui nai cion, besteren bati? ORI-etatic edoceiñec emain cizun zuri JESUS maita-garria gatic Juduac eman dizuten adiña, ta, anitz gueiago; bai ta, zuen, guci-gucia ere. IZAN zu bada, zaran bezain diru-zalea, ta al-ere galtzen dezu zuc, galdu dezun adiña diru

ta

ta irabaci! ONGUI nombait itsutu zaituzte zu cere obenculpac, edo gaizqui galgarriac; eta ongui al-ere!

§. II.

ECER-EZ BATETIC ASI CEN Judasen itsuera, ta lan gaisto hau.

JUDASen ondotic dabillē gaistoa da becataria; ta, haren ondora nai ez duen, anima gaisoac, ecusi behar du, nondic asi cen Judasen sal-vide galgarri madaricatua; bada garbiro, zucen, ta behar den, eran ibilli nai duen, animac ez du sartuco, ez oñic bein ere bere buruaren gal-videan, alacoa dela vide bat bein berac ongui ezagutzera.

ASI cen bada (baldin ez-pa-daquizu) Judas galduaren gal-vide gaisto hau, utseguite cembait chiquitatic, eta gutica-gutica ebaste gaistora oitzetic. IGORTZEN ciozcaten JESUS maita-garaiari, edo ematen ciozcaten, ongui nai ciotenac, JESUSec berac, eta beraren Apostoluac behar cituzten, gauzac; eta, besteen artean, cerbait diru.

DIRU hau, beintzat (eta aguian Jesusen gañeraco gauz-equin batean) Judasen escuetan cebillen; ta hau ecusiz harc, eta batetic bestera bere escu--tartean cerabillela, diru-zaletu cen Judas betico galdua; ta asi cen JESUSen dirutic gordetzen, gogoac ematen cion bere gauz-etaraco; ta eguin cen lapur gaisto, ta ebasle galgarri. Ioan. 12. 6.

GAISTOARENA! Onela gaistatu cenetic Judas, etzion Judasec ongui beguiratzen gure JESUS maita--garriari. ALDIAN gueiago erretzen zuten Judas Jesusen hitzac, JESUSec ciarducanean beintzat ebasle gaistoen gain, edo contra: ta JESUSen hitz onac aditu, ta bere lapurreriac utci, ta ondu beharrean, egun oro cen Judas ebasleago, naiez, ta gogoz beintzat; egun oro cen gaistoagoa, ta egun oro beguiratzen cion JESUSi Judasec gaizqui baño gaizquiago; ta orre gatic, eta gure Jangoicoac, artaraco behar cen, escua emāten ciola, sartu cen Satanas Judasen bihotz-eraño, ta ar-eraci cion Satanasec Judasi, JESUS maita-garria arras gal-erazteco, asmoa: ta saldu-raci cion JESUS Judu gogorrei, ecusi dugun, bezain merque, ta diru gutitan; ta, cembat ere diru-zalea cen Judas galdua, na-

naiago izandu zuen Judasec, cerbait galtcen zuela ba-cen ere, galduric ecusi JESUS, ecen-ez bere AMAren, Maria MADALENAren, edo, diru anitz emain cion, edocein besteren baitan, edo mene onean.

ORRA nola daraman, sulececo gure Etsai amurratuac, gutica gustatuz, ta itsutuz, gaizqui dabillen, Anima.

Gutiren bat ar-eracico cion lendabician Etsaiac Judasi JESUSen gauzetatic. URRENGO aldian cerbait gueiseago. ANdic laster, ta site becatu andi bat eguiteco, diña. GUERO sartuco cion bere gogoan, gueiago, ta gueiago izannai bat, naiz cela, nai-cen videz, ta eran; ta bere gueiago izan-nai one gatic sal-eraci cion azqueneco, ta sal-eraci cion, ecer-ez batean bezala bere onguille Maisu-Jangoico-guizon-Jesus maita-garria; ta sal-eraci cion milla ta milla neque-taraco, ta eriotz ecin-gogorrago bateraco.

GAUZ-arrigarria! Zucen erabiltzera Judasec JESUSen gauzac; eta Judasec garaitu izandu ba-litu, garai citzaquen bezala, bere diru-zalea, ta diruaren naicunde macurrac, Judas arquitzen cen egun, ta beti Ceruco eratic bat eguiña; ta JESUSen Apostolu maiteen artean gloriaz betea; ta, ceren ori Judasec eguin izandu etzuen, eguin cituen Judasec, eguin ditezqueen, gauzaric gaistoenac, edo gaistoen-eratic anitz, eta asco: ta arquitzen da gaur Judas; ta arquituco da Judas, Jangoicoa Jangoico deu, denbora gucian, edo beti ta beti, ta, buca-eratic ez duen, eternidadean, guc gucioc daquigun toquian, edo beti-betico sulecean.

JUDASen urratsac, edo pausu galduac ote daramazquitzu zuc ere? DIRU-gurac ondasun-naiac, edo cerc, edo cerc macurtzen ote dizu zuri ere, Judasi bezala, cere gogoa, cere bihotza, ta cere Anima?

Beguira zazu, bada, nola, ta non zabiltzan; beguira zazu, nora zoacen zu, ta non guelditzen diran, zu zabiltzan-eran, ta Judasen ondoren dabiltzan, animac! GUELditzen dira, zori gaistoan jaio-ricaco, ibille gaisto Judas guelditu cen, toquian, edo eternidade gucico sulecean.

ORRA nora daraman, bere guti banacaco ebaste galduac, eta besteren diru naiac Judasi areraci cion, bere vide macurrac! vide macur berez zu ere ba zabitza, zuc ematen dezun,

pau-

paufu oro, edo becatu eguin aldi guci--etan eguiten dezu (cer uste dezu?) Judasen lan ber-bera, edo zuc ere cere JESUS saltzea.

BAI: dio S. PABLOc bai, saltzen du JESUS gaistaguin edoceiñec, gaizqui larriren bat eguin-aldietan.

CER gatic ote? Gaizquiac dacarren, atseguin char galdua gatic.

Nori saltzen dio bere JESUS gaistaguin buru-gabecoac?

ATSEGUIN char hau nai duen, passione galgarriari.

CERTACO? Nai duen guci-guciraco. BADA becatari charrac, becatuan arquitzen duena gatic galtzen du, berez, betico bere JESUS, ta uzten du JESUS bere passione asaldatuen atzaparretan, JESUSez daguiten oriec berac nai dutena; ta saia ditecen, S. PABLOc dionaz, beren gurutze gogorrean JESUS bera becatuz jostera: *Rursum sibimetipsis crucifigentes Filium Dei.* Hebr. 6. 6.

ETA hau gucia nequiela nic, ibilli izandu naz ni, nembillen, eran? HAU gucia nequiela; eguin izandu ditut nic, onen saltze gaistoac? HAU gucia nequiela, eguin izandu ditut nic, eguin ditudan, adiña gaizqui, ta becatu?

GAIZQUI neritzan nic Iudas saltzalle gaistoaren igualalari, edo ogei-ta-amar dirutan Iudasec JESUS saltzeari; ta al ere saldu dut nic neronec JESUS bera, aguitz gutiagotan; bada saldu dut nic JESUS bera atseguin ciquin, asmo lizun, ebaste galdu, nai galgarri, edo beste cerbait orrelacotan: ta saldu dut nic nere JESUS, bein ez ecic, orrelaco gauzaren bat eguin izandu dudan aldi gucietan?

ETA ez naz al-ere ni nerequin affrretzen? EZ naz arritzen ni nere JESUSen egoeraz? Bada JESUS, nic hura onela saldu-ta ere, dago, gaizqui bat nic eguin ez-pa-nio, bezain issill, ta gueldi: ta dembora berean, niri nere oben-culpa guciac, nere salduera galduac, eta gañeraco nere eraqueriac barcatu- naiez, eta ori gucia nerequin eguiteco, nere naiaren, ta damuaren beguira dago!

ECUSI zazu bada damutzen zaitzun cere JESUSen damuzco saltzeaz, eta gañeraco cere gaizqui guciez: eta ecusi zazu, nai dezun zuc cere JESUS ona gandic orien gucien barcamentua?

1.

INGLORIUS ERIT INTER VIVOS. Isai. 52. 14.

ONA non ecusten dugun, ISAIASec urrutitic eracusi cigu ia, erran zuenean *honraric gabe arquituco da guiz-artean*: bada ala ecusten dugu guc gure JESUS; eta ala baño ere, aguitz gaizquiago ecusten dugu; ecusten dugu alabaña, den gucia deshondratua; ta gaistaguin arri-garri bati bezala, vicia quendu dezoten, ecer-ez batean bere etsai amurratuei saldua!

BAñA nor gatic ote dira, gure JESUSen onembat deshondra, edo noren oneraco?

ZURE, ta nere bion oneraco; zuc, eta nic bioc ala nai izatera; baita mundu guciaren oneraco ere, munduco guciac ori nai dutela.

Onetaraco eguin cen gurizon, ta ibilli cen JESUS guiz-artean, lurreco bere vicitza gucian. ONetaraco ciran Judasec Jesus saltzea; ta JESUSec ecusi citu n, gañeraco videgabe, ta neque tormentu guciac.

CER bada? ta, nere oneraco etorria dela JESUS galtzen dut nic nere JESUS maita-garria, ta saltzen dut Judas gal-galgarriaren eran?

EMEN ondasunez, ta Ceruan hondraz ni bete naiez nere JESUS; eta ni nere naiez Jesusen desondrari-tzar bat eguiñic, nere becatu-etaco dembora gucian? HAU ezagutu dut nic; eta ala ere, ezait damuz lertzen niri nere bihotz char galdu hau? EZ diot nic negarrez escatzen nere JESUS maita-garriarri nere orain-dañoco eraquerien, nere oraindañoco esquer-gabetasun-en, ta nere oben gucien barcamentua?

Ongui beharturic arquitzen naz ni, bein, berriz, ta, nere ill arte gucian ori nic maiz eguitera. Indazu zuc cerorrec, nere JESUS maita-garria, lan on orretan asteco, anitz laguntza, ta gracia. Bai arren, bai.

2.

SI FORTIOR EO (forti armato) *superveniens vicerit eum, universa arma eius auferet, in quibus confidebat.* Luc. 11. 22.

ARMAZ beteric dagoen, indartsu batec, eche bat zaitzen duenean, zaitzallearen pean arquitzen dira echeco gauzac: baña bera baño indartsu-go-

goren batec hura garaitu-ezquero, quentzen aiozca bere arma guciac, eta uzten du andic aienatua.

ZU zara, bai, gure JESUS maita-garria, hau guriaguertu diguzun, eracuslea. ARMAZ, ta tentuz garaitu gaitu gueren Etsaiac. ASPALDI da, jabetu cela gure etsai sendor gure garalle madaricatua gure bihotzaz, ta gure passione guciez. GUCIAC egondu dira guero etsai beraren pean, ta berac eraguiten diela, berac nai adiña gaista-queri.

ALA da, bai, nere JESUS maita-garria; ta etsai berac, gaista-queri berriren batzuec eraguin ditzaquidan beldurrez nago, ecustiric orain-dañoco nere ecer-eza, ta indar labur-gutia. ZUC nai ba cenu nere JESUS maita-garria, aisa aiena cenezaque etsai nere galgarri hau emengo bazter-etatic; bada, hau, ta onen lagun guciac baño, milletan, ta milletan ere indartsuagoa zara zu; zu zara alabaña, ceroirec nai dezun, guci-gucia dagui-quezun, Jangoico guizona.

AIOZ bada, JESUS maita-garria; aioz arren; ta atera nazazu ni nere etsai galgarri onen petic, eta escu-tartetic, eta lagun zaquizquit guerozco nere dembora guciau, nere passione sartuac escuratzen. ZUC hau, nerequin, nitaz urricalduric, ez eguitera, eguiñen dute nitaz nere etsai galgarriac, eta passione berac, gogoac ematen diena; ta salduco zaitut nic zu berriz, ta berriz ere, edo becaturatzen nazan, gucietan: ta ecusten dezu, cein gauza-itsusia den hau, ta cein izu-garria.

EZ dedilla, era onetaco asmoric berriz sar nere gogo arin, ta bihotz char galdu galgarri onetan! AIENA ditecela bihotz beretic, zori gaistoan len emen sartu ciranac ere.

ALA guertatuco da, bai, nere JESUS maita-garria, zuc, nitaz urricalduric, barcatzen ba-dituzu nere orain-dañoco obeu-culpa guciac. ORI escatzen dizut nic gaur, damuz ta negarrez, ta zu gandic ambat erditico dudalaco uste osoan. ALA guerta dedilla, bai aiten JESUS maita-garria, bai.

3

DECORUM PRETIUM, QUO APpretiatus sum ab his. Zachar. 11. 13.

ORra, guizonac; orra cembat ematen duten Juduac

JESUS ona gatic ! OGUEI, ta amar diru char ; gueiago ez, corradu bat-ere ! ta pagu ori, orren pagu-charra izanic ere, pagu ona deritza , JESUSen saltzalle, Judas itsu char galduac ; eta pagu char ori artzea gatic, artzen ditu Judasec, norc daqui, cembat ibillera, ta arazo!

Pagu ederra ; ta aguitz al ere, Jangoicoari esquerrac ! dio ZACHARIAS Profetac , arrituric bezala , Juduen ta Judasen ausardi itsu ciquiñaz, ta iguala cirtzillaz. Eta ederqui dio; izanic alabaña (cen bezala) gure JESUS maita-garria , Aita eternoaren seme bacar Jangoico-guizon ecin paga ditequena ; ta al-ere ecultea , Zacharias Santuac , Profeten beguiz ecusi zuen , eran JESUS ezer-ez cirtzill batean Judasec Judu gogorrei saldua , Zachariasen eraco Profeta jaquintsu santu bat ez-ecic , nornai arritzecoa den, gauza itsusi, izu-garria da.

Atozea , zu ere , nere guisaco becatari charra ; atozea , zu ere , Judasen idurico, JESUSen saltzallea ; ta ez dezu saldu izandu zuc ere berriz, ta berriz, ta ascotan , ta anitz aldiz cere JESUS bera oguei ta amar cillarrezco diru baño , aguitz gutiagoan ere ? Ez dezu saldu izandu zuc cere JESUS maita-garria laur erreal-etan, edo, anitz audiagoa etzen , irabaci ciquiñen batean ? Ez dezu saldu izandu zuc cere JESUS maita-garria quezca , ta damua baicic utzi ez dizun , atseguin char loi batean ? SALDU izandu ez dezu zuc JESUS maita-garri bera vendecatu-nai sutu batean; edo , debecatua cegoen, janedan char , edo era orretaco beste gauza cirtzil batean , edo bertzean ? PAGU char galdu cirtzilla , ba-cen bada, Judasec JESUSen bere saltzetic aterariсaco diruzco pagua , cer pagu da zuc cere JESUS beraren saltze-etatic artera izandu dezun , pagu charra ? GUZTIZ ederra ! Guztiz andia ! Bai segurqui !

AH , gure , gueren buruen gal-garriac ! SALTZE orietan galdu izandu dugu guc; eta galdu izandu dugu , ecer-ez bat ordañez artu naiez gure Jangoico guizon JESUS maita-garria !

BAñA ez dugu , ez, guc, ori bacarric , galdu izandu: galdu izandu ditugu guc gueren saltze orietan gueren buruac, gueren Animac , gueren Ceruraco derecha , ta gure Jangoico maita-garriaren gracia! GALTZEAREN izugarria !

Gure JESUSec erosi guin-

guinduen gu, gure oneraco; ta erosi guinduen bere odol issurtze, bere neque, ta illarteco bere pena guci-equin; ba-cequien, bai, cer eguiten zuen gure JESUS maita-garriac, onembat neque-requin gu erosten hari cenean; ta, orretan JESUSec ecusia ecusi, ta emana emunic ere, content arquitzen cē bere gauz erosia-requin.

ECUSTEN dezu zuc cein tratu char galdua cen, zuc eguiten cenuen ttatua, cere gogo ciquiñari atseguin eguitea gatic, saltzen cenuenean zuc cere JESUS maita-garria; ta, JESUS maita-garriac, ambat neque-pena, ta odol-issurtze-requin erosi zuen, zure Anima?

EGUITECO ba-leude gaur-guero eguiñen cenituque zuc orren tratu gaistoac? GALTZECO ba-leude gaur, galduco cenituque zuc, mundu gucia gatic ere, cere JESUS maita-garria, ta cere Anima?

EZ nere Jangoico maitea, ez! ETA bertatic nic nere naiez, ta gogoz urratzen ditut orain-dañoco nere tratu galgarriac. EZ dute valio behar, ez: ez nequien alabaña nic, cer eguiten nuen, oriec nic itsu-itsuan bezala, eguin izandu nituenean. GAIZQUI eguiñac dira guciac; eta damuz urratu beharrac: eta, oriec guciac orain urratu naiez esatera noa hitzez, ta bihotz osoz, zuc orretan niri gaur laguntzen didazula: *NERE JESU CHRISTO JAUNA, &c.*

L-GARREN OTOITZGAIA.

OSTEGUN SANTU ARRATSECO AFAL-TEGUIAN JESUSec Judas-equin eguin izandu zuena.

§. I.

AFALTZEN DU JESUSec JUDAS-EQUIN; ERRATENdio centza-razteco diña: baña alferric.

ISRAEL-darrac egondu ciran anitz urtez Igytoen pean, Igytar beren bazter-etan, edo Egyptoco Erresuman; ta, egondu

du ciran baño, urte gueiagoz ere an egon beharrac ciran, Jangoico maita-garriac, Israel-dar beerez urrical-duric, andic oriec ez ateratzera, norc-daqui, cembat gauz-arrigarri artaraco an berean, ta andic Israeldarren bazter-eraco videan eguiten cituela

BEREN andic ateratze, ta era onetaco ateratze one gatic, anitz zor cioten Israeldar gaisoac beren Jangoicoari; ta beren horduco zor andi hau beren gogotic joan etzequien, iutzi izandu cien Jangoico maita-garriac Israel-darrei berei, BAZCOA ceritzan, ta, zazpi egunez irauten zuen, Fest andi bat.

FEST onen lembicico arratsean jan behar zuten eche bacoitzeco Israel--darrac humerri, edo bildots erre bat, lechuga miñequin, ta legamiric, edo orantzic bague eguiñicaco oguia-requin; ta eche bacoitz-ecoac asqui ez-pa-ciran, hura bucatzeco, eraman behar cituzten auzoco echeetatic, humerri bera jateco, ta bucatzeco, behárco ciran, lagunac.

ERA' onetan Bazcoco Fest hau eguiteco, ba-cituen JESUS maita-garriac Fest hau etorri cenean, behar adiña jale, ta lagun; ba-cituen alabaña amabi Apostolu, bere saltzalle gaisto Judas galdnarequin batean; ta gutiago ere arqui izan oi dira, humerri bat bucatzeco.

BERE azqueneco urtean, sartu cen JESUS maita-garria JERUSALENen bere Apostolu maite-equin batean bildots, edo humerri hau jatera, ta jan zuten gucien artean, artaraco an Jerusalenen JESUSec bereci zuen eche batean.

JAN hordua etorri horduco, prestatu ciran guciac, Legueac cion, eran mai-eara urbiltzeco. JAN behar zuten, bildots beraren odolez busti zuten echeco sar toquia. ERRE zuten guero bildots bera, edo humerria: artu cituzten beren oñetacoac: lotu cituzten, edo guerri, edo guerrinzira bildu cituzten beren soñecoac, videz dabiltzanen eran.

ARTZEN du guero bacoitzac escuan bere videco baculloa. BA-daude zutic guciac, maiaren inguruan; ta, ala daudela, jaten dute prisaca, edo viciro beren humerrin, len adiraci ditugun, beste gauz-equin batean; ta jaten dute gucia, videz aviatzeco dauden, guizonen eran.

JESUSec, eta' JESUSen Apso-

Apostoluac jan izandu zutèn, bildots hau, Jesus maita-garriaren Imagina cen; ta, jaten cegoen, bildotsa ecustean, náita ez gogoratzen cequion JESUS maita-garriari, andic dembora gutira bere buruan ecusteco cegoen, neque, ta pena gucia.

BILDOTS HAU (errain zuen, bai, JESUS maita-garriac horduan berequico): BILDOTS HAU illic arquitzen da emen gure mai gañean; ta, illa ez-ecic, larruturic arquitzen da, den, gucia; ta, guerren, edo burruntzi batean sarturic errea.

ETA oni gaur guertatua da, bigarco nere gauzen aintzura, traza, edo imagina; bada ni ere bigarco egunean ecusico naute, beguiratu nai didaten guciac, bein soñecoric bague, ta azot-ucáldiz, ta golpez nazan hau guztiz larrutua, ta, nere baitan arquitzen den, odol gucia dariedala; guero gurutzeco maian zabal--zabal--ezarria, ta iltzez josi-urratua; ta len, ta guero naigabez, nequez, ta tormentuz errea; ta azqueneco illotza, ta lurraren sabeleraco ederqui prestatua.

BILDOTS HAU errain zuen berriz ere, era berean, (edo bere gogoan) gure JESUS maita-garriac; bildots hau lembaitlen bucatu naiez daude nere Apostoluac; eta, ala bucatzeco, jaten, ta jaten hari dira guztiz viciro, bat--ere guelditu bague. Eta emendic laster, ta sire asico dira nere billan, niri gaizqui nai didaten, Judu gogorrac; eta laster asqui, edo amasei horduren buruco bucaturic iduquico dute, orain ni erratera noan, hau gucia: artuco naute preso GETSEMANIco baratzean eguiñen dituzte, ni beren escura-horduco, beren batzarreac; emain didate niri beren auciera, edo pleitu-modua: bucatuco dute nere auci gucia, edo procesoa; emain didate eriotzeco nere sentencia; eramain naute beren azqueneco batzarretic, eta sentenci hau nere gain daramadala, Gentilen Erromaco Juez PILATOS ganaz adiracico diote PILATOS Juezari, berac nai dutena; ezagutuco du PILATOsec Judu gogorren ni ganaco tirria; baita nere oben-gabea ere; ta alere, cerbait guerta daquion beldurrez, errain du PILATOSec, oriec nai dutena: ta emain du, Judu berac nere gain emanicaco sentencia ber-bera; ta, buru guci hau arantzez be-

beberic daramadala, ta nere gorputz hau odol aguitz-gutrequin, ta oñac nequez darabilziala, gurutze pilu bat nere soñean, edo solbardan dudala, igorrico nau Pilatosec Calvarioco mendira, ta an illeraçico nau lapur biren artean, orien lagun gaisto bat bainintz bezala.

HAU gucia gogoan cerabillela, noizean-bein beguiratuco cion JESUSec Judasi; ta nola cequien JESUSec, JEJESUS ecer-ez batean horduco salduric ceducala Judasec, ta gau hartan berean Judu gogor beerei ar-eracico ciela preso; ta Judas beraren escutic asico cirala onembat naste, ta pena, izain cituen, bai, JESUSec bere bihotz maita-garrian anitz urricaltasun, quezca, ta naigabe.

Ah nere JESUS maitagarria; ta, cein latz miñac izain ciran, zure bihotz mimbere urrical-tiaren-daco era onetaco zure ecusteac, eta gogora-penac! Baña al ere jaten cituen zuc, edo artzen cituen gogo osoz, ta nai, andia-requin; ta artzen zuc, eta jaten cituen, ni cere ondoren cere Ceruco maiera eraman naiez. Zuri zor dizudan; nai-amorearen andia!

Cembat ere latzac ciran, orain guc ecusi ditugun, JESUSen naigabe, ta neque guciac, JESUS beraren aldi hartaco neque, ta naigaberic andiena izandu cen bere Apostolu Judas beti-betiraco galduric ecusteac hordu berean emaiten ciona: ta Judasi suituaren galtze hau galeraci naiez, ta Judasi urric-eraztea gatic, horduraño co bere becatu itsusi esquer-gabeco ciquiñez, Judas berari ar erazteco guero, ontzeco asmoa, erran izandu cion, hitz guztiz eme-leunez, ta alque-quizunic bat-ere ematen etziola: HAU LANA, nere Apostolu maiteac! Siñistuco cenuquee? Zuetatic batec narama ni gaur nere etsaien escu galgarri-etara, etsai berac eraman nazaten ni guero gurutzeco erioz gogor batera.

HAU aditzean, aguitz illundu ciran Apostolu gucien bihotzac; beguiratu cion batat besteari; ta bacoitzac bere barrenari; ezagutu naiez, bera ote cen, edo cein saltzalle gaisto gal--garri hau.

JUDAS ez besteac ecin arquitu zuten saltze galdu errebes onen arrastoric; eta norc bere burua quezcatic atera naiez, asi ciran guciac JESUSi gald-eguiten, ote naz, Jauna, ni,

ni, guiza char galdu zure faltzalle ori?

Etzuen JESUSec cein cen faltzalle hau aguertu nai izandu, alque-quizun gueiegui ez eman naiez Judasi; ta beguitan ar ez-cezaten Judas gañeraco bere lagun Apostoluac: baña Judas berari adiraci cion JESUS maita-garriac, bai cequizquiela, bai, haren vide galgarriac; eta, onetaraco, ta gueienac beintzat beren quezcatic atera naiez, erran izandu zuen claro-claroqui: NI GALDU nai naven, faltzalle gaisto hau, ta ni plater batean jaten hari gara orain (janen zuten irurca, edo launaca plater batetic JESUSec, eta JESUSen Apostoluac).

EGUIA da (erran zuen an bertan JESUSec): onen escuz ba-noa ere ni nere eriotzara, ez noa ni hara, oni atseguin hau eguitea gatic: nere Aita eternoac nai duena eguitea gatic, noa ni orain nere eriotzaren ortz gogor-etara; bada nere Aita eternoac nai du ill nadin ni munduco becatuen alde, ta gucien oneraco; ta ori bera da, nic orain nai dudana. BAñA zori gaistoan jaioa, nere faltzalle colcodun gaistoa, bada onec feculaco neque-negar-etara darama vide orrez bere buru gaisoa.

HORDUAN Judasec, edo hau gucia JESUsi adirzean, bere burua nol-ere-bart garbitu naiez, JAUNA (erran izandu cion JESUS maita-garriari) eta ote naz ni, zuc adirazten dezun, zure faltzalle ori? Eta JESUSec eranzun cion, berac baicic aditzen etzuela: CERORREC DIOZU.

ETA al ere, cein urricari zuen Judas, Judasi adirazteco; ta an bertan, Judas berera naiez, artu zuen bereala JESUSec ogui zati bat nahietic, eta plater-falsan busti, ta eman izandu cion JESUS berac bere escuz Judasi.

ETA hau gucia JESUSec Judas-equin eguin, ta ere etzen beratu Judas?

BAT-ere: ta beratu beharrean, len baño ere aguitz gogorrago guelditu cen Judas, ta barrendic su-ta su Satanasec ematen ciola, lembaitlen Apez Juduen escuetan utz erazteco bere Maisu JESUS, onen emequi tratatzen zuena.

ORRA becatuz becatu dabillen-arena! Orra lendabicitic bere Jaunaren deiaz casoric eguin gabe, ta, gogo gaistoac nai duen, eran, ibilli oi denarena! gogortzez gogortze igatea, ta Jaunaren deia, ta

deiac ez aditu eguitea.

EZ al da izandu era berecoa, nere orain--dañoco ibillera? Izain ez al da beintzat etorquizuna? Ez baldinbere, Jangoico maita-garria.

§. II.

GARBITZEN DIOZCA JUdasi JESUSec bere oñac. Garbitu nai dio bere bihotza ere: baña ez du Judasec nai JESUSen garbi-eraric.

JUDASez etsi ote zuen JESUS maita-garriac, oraingo aldi onetan eguin izandu zuena-requin? EZ ote zuen cerbait gueiago eguin izandu JESUS maita-garriac, Judas escuratzeco, edo Judasen gogortasuna beratzeco?

EGUIN zuen, bai; ta anitz al-ere; bada JESUSec, Judasen oneraco eguin cituen beste anitz gauzaren artean, eguin izandu zuen bat, nor-nai arritzeco diñacoa. Jaiquitzen da JESUS bere maietic, quentzen ditu gañeco bere soñecoac; lotzen du bere guerrian, edo guerrintzian escu-oial bat: artzen du, behar den, ura-requin, bere pacia; ta asitzen da garbitzen banaca bere Apostolu guciei beren oñac; eta idortzen diezte bere guerrico trapua-requin beren oñac berac.

AN arquitzen cen horduan, JESUSen beste Apostolu guci-equin Judas ere; ta oni ere garbitzen, ta idortzen diozca JESUSec bere oñac, besteei bezala.

NORC lequiquen, JESUSec hordu hartan, edo bere oñ lizunac garbitu bitartean, Judas bere saltzalleari bihotzez bihotz adiracia! ANITZ gauz on-eder errain ciozcan, bai seguru ere, gure JESUS maita-garriac, bere lan humill-on hau eguin bitartean; ta, orien artean, errain cion: *Ah Judas, Judas*, nic nere Apostolu maitetaco artu ditudan, amabietatic bata! CER gatic niri zuc orain orren gaizqui nai didazu? CER gatic artu nazu ni zuc beguitan, artu nazun, eran, ta bezala? CER gatic zaude ni gana zu, zauden, bezain gorrotu amurratua-requin?

ECUSTEN dezu zuc ni baitan, edo ni gan cere contrato gauzaric bat ere? Eguin izandu dizut nic zuri bein-ere, dẽ vide-gaberic chiquiena? Ohartu ciñan zu noizbait, eguiten nizula nic, zuri behar etzen, begui-tarteric? CERI dagocala bada orrembat zure ibillera macur, arazo galdu, ta eguiteco gais-

gaisto? ETA ceri dagocala zuc ni, saltzen nazun, eran saltzea; ta gal-eraci nai nazun, eran gal-eraçi naia?

AH Judas, Judas, berriz, ta berriz ere! ETZAUDE zu, ez, cere lagun, emengo nere Apostolu on oriec bezala! ARTZERA doaz zure lagun on oriec, beren lendabicico communionea; ta oriec, ongui, ta garbiro ori artzeco, ez dute behar, beren oñac garbitzea, edo beren becatu chiquien loi--pitsac quentzea besteric; bada becatu larrien loi galdu-etatic urrun arquitzen dira, edo becatu andi-etatic bat ere bague daude: baña becatu larri berez ongui loituric arquitzen zara zu; ta nic orain zuri cere oñac bezala, zuc cere bihotz--arima oriec damuz, ta urriquiz, edo, urriqui-damu on-equin erdisten den graciaren ur ederrez ez garbitzera, etzaude zu ez ongui, orien eraco comunione on bat eguiteco; ez eta nere Ceruraco ere.

Zure oñac garbitzen hari naz ni, zuc cerorrec orain ecusten dezun bezala: ta, zure oñac, bezain gogo osoz, berez, ta oso---beteagoa-requin ere garbitu naiez nago ni zure bihotz---barrenac, eta zure anima guci-gucia ere; ta, bertatic nic hau garbituco niquezu zuri, zu cere gaizqui gucien damuz beteric ecustera, ta ori ciñez zuc nai izatera.

BAñA, zuc ori ez eguin nai erdizca, ta laurdenca ere! ta oso-osoro, ta anitz luzatzen ez dezula, eguin nai zuc, cere barren sutu orretan sartu zaitzun, SATANAS madaricatuac orain eraguin nai dizuu, charquèria, ta ni zuc nere etsai gal-garri gogorrei salduric uztea.

EZ dezu zuc ecusten, Judas, ortic datorquizun, cere gal--videa? ETA al--ere naiago dezu zuc, cere gogo galduac nai duena emen eguitea gatic, Satanasen betico lagun sutan izatea, ecen ez, ongui dagoquizon, cerbait orain eguitea, ta guero nerequin nere Ceru berean betico sartzea?

AH Judas, Judas, cere buru gaiso orren galgarri, zori gaistoan jaioa!

HAU JESUSec Judas gogortuari errate berean, erorico ciran aguian Jesusen cembait negar malco; ta erorico ciran Judasen oñetara.

Baña bere negar oriequin, bere escu leunez emeemequi igortziz bere oñac, eta

eta beste eun aldetara eracutti ba-cion ere JESUS maita-garriac bere Apostolu Judati, cein ciñez nai zuen haren ez-galtzea; bere asmo, ta gaizqui gaistoan gogortu cen Judas, ta ez aditu eguin izandu cion JESUS maita-garriaren mintzoera ecin-obeari.

ECUSTEN dezu norañocoa den JESUS maita-garriaren ongui-naia; ta norañocoa dembora berean Judas itsu galduaren gogor----tasuna? EGUIN cezaquen JESUS maita-garriac, ecusten dezun, hau baño, gueiago, Judas beratzeco? ta egon citequen Judas, egondu cen baño, gogorrago?

JESUS maita-garriari eguin ciozcan Judasec, guizonac eguin ditzaquen videgaberic andienetatic ez guti; ta, onguiac, eta agir andiac eguin ba-liozca, bezain ongui beguiratzen dio JESUS maita-garriac Judasi.

JUDAS gogor gaistaguiñari ez dio JESUS maita-garriac eguin izandu seculan, munduan den, gaizquiric chiquiena ere: ta JESUS maita-garria bere vicita gucian gaizquica Judasi haritu ba-litzaio, bezain muquer, ta gaisto arquitzen da Judas JESUS ona ganaco.

HAU cer ote da, nere JESUS maita-maita-garria? Cer izan diteque, nic neronec daquidan, gauza, baicic? HAU da, bada, guri gure JESUSec arguiro asqui aguertzea, cein on-berach, urricalti maita-garria den, gaizquiz-ta gaizquiz betetzen dutenean ere, gure JESUS guztiz ongui-guillea.

ETA cer ote da Judas saltzalle gogorra-ena?

CER izan diteque! DENA, bezain gauza itsusi ecin-gaistagoa; edo gauza bat guztiz egoquia, nori-nai ederqui adi-razteco cein gaitz den Anima bat bere Jauna ganatzea, bere pasione gaistoen escuetan, ta Satanasen ondoren ibilli ezquero!

Ala ibilli ote zara zu ere, cembait demboraz beintzat? Beguira bada: ez daquizula zuri ere, Judati guertatua, guerta: ta nai ez-pa-dezu, hau zuri guertatzea, atera zaitez lembaitlen, orain-dañoco cere vide gaisto-etatic. AIENA zazu zuc cere aldaca guci-etatic, Satanas madaricatua, bere asseguin claar grezarti-labur-loi-equin batean.

NAIGABEZ bete behar dituzu zuc cere passione galgarriac, edo ez diezu zuc gueroz-gueiago, eguiten utzi be-

behar bere gogo, edo macurera gaiſtoac eſcatzen dienic.

DEMBORA berean zuc cere gaizqui gucien damuzco negarrez, ta JESUSen ura-requin garbi zazu cere bihotza, ta barren guci gucia.

Ori gucia zuc eguitera, galduco dezu zuc, bai, Judaſen videa, edo becaturacoa: ta artuco dezu Apoſtoluena, edo Ceruracoa; ta igain zara zu garbiro, Apoſtolu beren eran, emen comunioneco maiera, ta guero Ceruco atſeguin contentu gucien artera. Ala guerta dedilla: bai arren, bai.

I.

TURBATUS EST SPIRITU, ET proteſtatus eſt, & dixit: amen amen dico vobis; quia unus ex vobis tradet me. Ioan. 13.21.

JANGOICOA da, bai, gure JESUS maita-garria; ta Jangoico-guizon guztiz mimberea, ta necacorra: ta orre gatic, Judaſen ſaltzea, ta, haren ſaltzetic uſte cituen, neque gogorrac, eta gurutzeco eriotza, gauza izugarriac ciran JESUS maita-garriaren-daco.

Neque-gurutze oriec JESUSen gain erortzeco ceuden, ecuſi dugun, aſal-ondotic, eta oſtegun Santu arratſberetic. Hau gucia ba-cequien bai gure JESUS maita-garriac; eta etorquizun onen gogoracioac, eta Judas galgarria an bertan, edo bere aldamenean ecuſteac naſtu izandu cion JESUS maita-garriari bere barren gucia; ta idaroqui cion, Apoſtolu guciac aditzen zutela; „bai, bai; ta, daquidanac bezala diot nic; zuetatic batec nere etſaien eſcuetara narama ni „: ta JESUSec hau erran zuen eran, erratea-requin, arrituac guelditu ciran, Judaſ-ez beſte Apoſtolu guciac. Ain nai-gabetua ceducan Judas ſalzalleac gure JESUS maita-garria; ta ambateco bere naigabe hau aguertu zuen JESUS maita-garriac, Judas bere ſaltzalle bera centzaraci-naiez.

ONGUI da, JESUS maita-garria; ongui; baña cere naſtu ote cizun zuri guelenic, cere oraingo naigabealdian, cere barren necacor mimbere ori? JUDASec ſaltzen cinduelaco oroitza-penac, eta harc orretan eguiten zuen, becatu izugarriac?

BAI, noſquiro, bai! Ez da beintzat, becatuac baño, gueiago beguitan zuri ematen dizun, gauzaric bat ere.

BA-

BAñA Judas-equin batean etzaitu saltzen zu, nere JESUS maita-garria, gaizqui dabillen, edocein becataric ere?

BAI, eguiazqui; ta gogoz ala ere! ta orre gatic, nere becatu gal-garri-equin nastu nituen nic ere, ta nequez, ta naigabez aguitz bete nituen, ostegun Santu arratsez zure bihotz barren guciac; bada zuc arrats-hartan berean ecusi ninduzun ni, guerozco nere becatu galgarriac gatic, zure saltzalle, ta Judasen lagun eguiña!

ETA nere azquen horduraco gogortu beharra ote naz ni ere Judas gaisto gal-garriaren eran? ZURE beguiratze onac ez ote nau beratuco ni, nere JESUS maita-garria? ta ez ote nau beteco ni damuz, ta urriquiz, ta, nere becatu ciquiñac escatzen dituzten, ciñezco negarrez?

NAI nuque nic beintzat nere Jangoico maita-garria. ALA guerta dedilla bada, ni gatic ez-pa-dere, zure bihotz berach, eta zure urrical-tasun andia gatic. BAI arren, bai.

2.

SCIO, UBI HABITAS: UBI SEDES est Satanæ. Apoc. 2. 13.

JESUSen saltzalle gal-garri Judasec bere lan gaisto guciac eguin, ta opione onean nai zuen egon bere lagunen, edo Apostolu gucien artean; bai-ta JESUS maita--garria--requin ere: ta orre gatic, bere lan gaistoac, bere erara ezarri ondoan sartu cen Judas gucien artean, ta jaten haritu cen JESUSen maiean.

HORDUAN JESUSec Judas bera zucendu naiez, aguertu cion Judasi, Judasec bere bihotz berean ceducan izurria, edo cerabillen, asmo madaricatua: ta, berari ongui naiez aguertzen ciolaco sinutan, eman izandu cion JESUSec Judasi, JESUS bera jaten hari cen plater ber-ber etic, besteri ez bezala, bocadu on ongui-naiezco bat; eta, hura hari ematean, erran izandu cion JESUSec Judasi (baña Judasec berac baicic aditzen etzuela): *ah Judas, Judas!* ba-daquit, bai, nic certan zabilbiltzan zu, ta cembat arazo galdu, ta eguiteco gal-garritan! BA daquit nic, bai, non vici oi zaran zu cere bihotzez, ta gogoz aspaldico demborcetan.

etan. EZ nere aldean, ez! EZ nere APOSTOLU-equin, ez! SATANAsen echean vici zara zu dembora orietan, edo SATANAS beraren lan-guille gaiſtoac arquitzen diran, bazter-etan.

BEGUIRA zazu arren, era, ta toqui orrelacoan arquitzen denaren etor-quizunera, edo buca-erara.

ZUREAC bezalaco, eche, ta lan, ta lagun oriec zuc, ez uztera, cere gain izan behar dituzu zuc (eta anitz luzatu gabe) nere juſticiazco ezpata zucen zorrotz bat, eta cere condenacioa.

AL-ere utzi nai ez dituzu zuc cere eche galgarri, ta SATANESen lan oriec? AH zori gaiſtoan jaioa zu, edo jaio ez-paciña, obe cenuquen, guizon beti-betico galdu--beharra!

ORRA hordu hartan Judaſi JESUSec adi-racia; ta noiz-nai, ta beti JESUS berac becatariari adiraci nai diona.

ONGUI: ta cer lanac ote dira, nic, becataria izanic ere ni, nere uſtez, Ceruraco nazan, humeac, an guero ni ſartzeco, eguiten ditudan, lanac? NERE Jaunaren lanac, edo Satanaſen echeco lanac?

ATOZEA zu, nere Anima, ontzat artzen dezu zuc, cere Jaunaren aldez erran oi zaitzun, edocein gauza? ZUcen-zucen zuc, eta bat--ere utſ-eguin bague, eguin oi dituzu cere Jaunaren Legueco gauza guciac? CERE gogarguiari beguira zaude beti zu, edo zure Jangoico maita-garriac cer nai ote duen, aditu naiez, zaude zu, ta cere Jangoico beraren gogara, ta lembaitlen, aditzen dezun, gucia zucen eguiteço, aſmoan? CERE Jaunaren lanetan zabiltza zu, ta JESUSen Apoſtolu on garbien eran.

AH baña; ori zuc eguin lecuan, eguiten ba-dituzu, Satanas galduac zuri berezten dizquitzun, lanac, edo becatuac, Satanaſen eche-tiarra zara zu; ta lan oriec zuc ez uztera, Judaſen laguna zara zu, ta JESUS maita-garriaren ſaltzalle, ſeculaco galdu beharra. ALA izatera zu, zu ere, Judas gal-garriaren eran, zori gaiſtoan jaioa!

3.

SI INIMICUS MEUS MALEDIXiſſet mihi, ſuſtinuiſſem utique:.. tu vero ... qui ſimul mecum dulces capiebas cibos. Pſ. 54. 13.

CERTAN zabiltza zu, nere Apoſtolu Judas, errain cion bere bihotzera JESUS

SUS maita-garriac, bere oñac garbitzen ciozcan dembora berean: certan zabiltza zu, zabiltzan, eran? ta, ceri dagocala, dira, zure oraindañoco ibillera nastu-macurrac?

EGUIN ba-nizquitzu nic zuri gaizqui cembait, edo videgaberen batzuec, eh! errain nuen horduan nic; nic neronec eman izandu diot Judasi, bere lan char orieraraco cerbait escu, ta vide; ta nic neronec dut, Judasec eguiten dituen oben--culpetan cerbait oben, ta culpa: baña ba-daquizu zuc cerorrec, Judas, onguiric baicic, ez dizudala eguin izandu nic bein ere.

CERTAN zabiltza, bada, zabiltzan, eran, edo, ni salduric, ni galdu naiez, ta orrembat asmo gogor galdu cere buru orretan darabiltzquitzula?

ORI nerequin eguiten ba-lute nere etsairen batzuec, beren etsai-tasuneraco nic oriei era emanicaco cerbait naigaberen alde, ta ordez, orien hordu gaistoac gatic, issillic egoin nintzaque horduan ni: baña nola, nai dezu zuc, Judas, nagoen issillic ni, ta nic zuri nere naigabeac aguertu gabe, ecusten zaitudanean nic zu, len nere adisquide maitea; len nic nere onguiz, ta ondasunez guztiz betea; len nic nere Apostolutaco, ta munduaren oneraco berecia, orain nere etsai gogor, nere saltzalle, nere galgarri amurratu bat eguiña?

Hau da, Judas zuc niri orain ematen didazun, erantzutea, ta pagua? HAU da, ambat aldiz len, ta orain araistian nerequin mai batean, ta plater batetic afaldu duen, guizonaren lana, ta eguitecoa?

EZ dezu utzi behar, orain bad-ere, cere lan gaisto gal-garri hau? HAU ez uztea gatic, utzi nai dituzu zuc nere APOSTOLU baten lan guciac; eta utzi nai dezu zuc cere Anima bera SATANASen escuetan, ta suleceraco marcaren pean?

URRICAL zaquiozca cere buruari, besteri ez pa-da ere, ta ez daguizula zuc gaur, ez eta seculan ere, orain gogoan darabiltz-quitzun, ganza gaistoetatic, bat ere.

HAU gucia, ta beste gauz eder anitz gueiago adiracico ciozcan aldi hartan JESUSec Judasi. BAñA etzen orre gatic Judas trucatu, edo mudatu bat ere: guelditu cen Judas, leneco bere gogor-tatasunean; ta eguin izandu zu-

en Judasec bere lan--eguiteco galgarri gaistoa.

ATOZEA, ta ez dezu zuc ere eguin izandu bein, ta berriz, ta ascotan ere, gure JESUSec nai etzuen, lana, ta ibillera?

ATOZEA; ta cembat aldiz adiraci dizu zuri JESUSec berac, edo berez, edo bere gogarguiz, edo libru onez, edo Predicariz, edo alde onetara, edo bestera, utz dezazula zuc, zuc cerorrec daquizun, sartu-arterea, danza charra, egote ciquiña, joco galgarria, hitz-queta gaistoa, edo cer, edo cer?

BAñA cer eguin diozu zuc aldi otietan cere JESUS adirazle on maita-garriari?

EZ-aditu, ta aitiña tira!

Ah zu Judasen lagun gaisto galgarria! Ah zu JESUSen etsai gogor amurratua! ta ah zu cere buruaren galgarri galdua!

AY nere Jesus maitagarria! era onetan nabill ni, ta ero bat bezala, certan nabillen, ta nora noan, ohartu gabe! Iristen ba-nau ni, nere sulececo etsai madaricatuac? Galdua ni gueroz secula guciraco! EZ, ez! Ay! *NERE JESUCHRISTO JAUNA, &c.*

LI-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN ODOL ICERDIA; TA NONDIC CEN ONelaco JESUSEN icertzea?

§. I.

GETSAMANICO BARATZEAN ILLUTZEN DA Jesusen BIHOTZA odolezco icerdi-taraño.

OStegun Santu arratsean eguin cituen JESUSec, azqueneco bere asal-teguian, adiraci ditugun, gauza guciac; bai ta beste cembait ec; eta, bat beintzat, guziz andia (Guelditzen da hau urrengo Libruraco).

ARRATS hartaco bere gauzac bucatu cituen JESUSec, bere Aitari esquerrac luzaro ematea-requin.

ESQUERRAC emate hau eguin ondoan, ateratzen da JESUS maita-garria bere asaltegutic; baita JERUSALENgo Erriric ere; ta ba doa zucen-zucen bere Amaica Apostolu---equin GETSAMANICO baratzera: Judas, amabi-garrena, joana cen horduco Jesusen etsai-etara, JESUS nola oriec an artu, ta loturic ecarri JERUSALENa, Judu, JESUSen erosle galduei adiraztera.

JERUSALEN-dic atera, ta laster, edo bereala arquitzen cen, GETSAMANI ceritzan lecu-aran, edo valle bat, eta lecu celai, edo valle berean Hortu, edo Baratze-moduren bat.

EMENGO Baratze onetan sartu cen JESUS arrats hartan, len ascotan bezala, otoitz-eguitera.

AN sartu, ta laster, edo ango sar-teguitic anitz urrundu bague, utzi cituen, irurez, beste bere Apostoluac; eta irurei, irur-equin cerbait gueiseago barren-duric arquitu cenean, eran izandu cieu, bere barreneco asai-tasunen baten billan dabill-enaren, eran, aguitz aguitz illundu zait nere bihotz hau, ta nere barren, ta Anima gucia. ILtzeco dagoenaren tristur-equin arquitzen naz ni, arquitzen garan, toquian, ta demboran! ZAUDEZTE zuec emen bertan; ni barrenaiseago oraciora edo otoiz eguitera noa: baña beguira, bitartean, erne, ta contuz otoitz-eguiten egon bear dezue zuec ere.

HAU irurei JESUSec erran ondoan, sartzen da JESUS, andic cerbait barrenago; ta, an humilqui belaun-icaturic, eta bere burua-requin lurra uquitzen duela, asten da JESUS otoi, ta otoi bere Aita maita-garriari; ta escatzen dio, baldin al ba-dedi, quen dezola bere bihotzeco tristura, ta illun-tasuna; bai-ta, orien ondoren, berac uste zuen, bere PASSIONEco neque arrigarria ere.

ORREN andia cen, bada, horduco JESUSen tristura, ta illun-tasuna?

ORREN andia, bai; ta ecin andiagoa.

HAU zuc cerorrec ere aitortuco dezu, bai, aditu ezquero, bein, non, ta nola cegoen hordu hartan JESUS maita-garria; ta guero horduan, JESUSec eguiñac eguiñic ere,

JE-

JESUS berari guertatu-ricacoa.

LUR otzean cegoen hordu hartan JESUS maita-garria: hordu hartan cegoen Jesus otoitz eguiten; ta, belaun-escuac, eta arpegui gucia lurrean celuzcala cegoen JESUS maita-garria.

OSTEGUN Santu gauerdico dembor otza cen, JESUSen aldi hartaco otoitz hordua. Tellaturic, eta estalquiric etzuen, Baratze bat cen, JESUSen horduco, otoitz-teguia. BEIN, ta berriz, ta irutan ere haritu cen JESUS bere Aita maita-garriari otoitz eguiten; ta aldian eguin izandu cion dembor anitzez, hastiz, ta gustiz luzaro; ta al-ere, otzez icara egon behar zuela, ciudienean, arquitzen cen JESUS maita-garria burutic oñetaraño icerdi utsegui ña; ta, cerion, icerdia-requin lur gucia bustitzen zuela.

BAñA cer icerdi-requin, uste dezu? GAñERACOen icerdiaren aintzuraco, edo idurico icerdiren bat equin?

Ez, baicic odolezco icerdi arri-garria-requin: ta lurreraño tantaca ceri on odolezco icerdia-requin.

HAU zuc ecusi ezquero, errazqui ezagu dezaquezu, cer tristurac ciran, ta cer illuntasunac, Jesusen bihotzac aldi hartan ecusi cituen, tristur-illunac.

ETA ez ote ciozcan Aita eterno maita-garriac arindu izandu bere Seme maitebacar Jesus odolez icerdituari bere bihotzeco tristura illunac, onembat otoitz, eta otoitz, onen luce-onac JESUSi ecusi, ta ba-cen ere?

CERBAIT, bai, artaraco berariaz igortzen ciola bere Aingueru--etatic bat; eta, aldi hartan Aita eternoac hau ez-eguitera, au bertan ill beharra cen nosqui JESUS maita-garria.

BAñA Aingueru onac eguin ba-zuen ere guztiz ederqui, bere lan hau, edo, Aita eternoac emanicaco, guitecoa, Aingueruaren arintza gucia-requin ere, aguitz gogor-pisuarri-garriac guelditu ciran JESUSen horduco neque-penac, eta tristura illunac: eta orienpean illic ez guelditzeaz gure JESUS maita-garria, Aita eternoaren laguntz onari esquerrac, eta JESUSec berac guri cigun, bazterric bagueco, bere amoreari; bada JESUSen amorea gatic, eta bere Aitaren milagroz ez izatera, horduco bere tristurac, illun--tasunac, odol-icerdiac, eta bihotzeco

nequeac ill-otza utzico zuten JESUS maita-garria GETSEMANIco baratzean: ain andiac ciran oriec, eta ain izu-garriac!

§. II.

NONDIC CEN JESUSEN odo--icerdi hau?

NONDIC cirala, uste dezu zuc, GETSEMANIco Baratzean JESUSec izandu cituen neque gogorrac?

BERE gogoan ceduzcan, gauz-izugarri cembaitetatic.

CER gauzac ote ciran hordu--hartan JESUSec bere gogoan ceduzcan, gauzac?

GOGOAN ceduzcan, JESUS maita-garriac, munduan mundu cenetic hordu hartarañoco gaizquiac, eta becatu guciac; bai ta munduco gaistoac, hordu beretic asi, ta mundu beraren azqueneco punturaño eguiñen cituzten, guciac ere; ta orien artean zureac eta nereac.

GUCI-guciac ecusten cituen, bai, guc gueroc argui andi bat ecusten dugun, bezain garbiro, ta claroqui; ta ambat, eta ambat, eta contal-baño casi gueiago izan--arren oriec, guci-guciac ecusten cituen JESUS maita-garriac, banaca bezala; ta dembora berean ecusten zuela, norañocoa den bacoitzaren itsusitasuna, macur-era, ta malicia.

ETA nola becatu bacoitzaren itsusi-tasun hau casi bazter baguecoa den, ez da erraz guc ezagutzea, nolacoa, ta norañocoa den orien gucien itsusi-tasun, arrigarria baño, arrigarriago hau: ta hau gucia cen, hordu hartan JESUSec lembicico lecuan, bere gogoan, edo animaco bere beguietan, ceducan, gauza.

BAñA nola ote ceducan gure becatu sall orren cargueri izu-garri hau gure JESUS maita-garriac?

Hau gucia ceducan, gure JESUSec, bere gain artua; JESUS alabaña eguin cen guizon, bere Passione Santaco neque guciequin, ta gurutze bateco eriotz gogorra--requin Aita eternoari emateco, gure becatu guciac escatzen zuten, pagua, ta satisfacionea.

Cargaren arri--garria, onembat becatuc; eta becatu, onen izu-garri latzac JESUSi eguiten ciotena! Orra bada nolacoa, JESUSec GETSEMANIco Baratzean ecusi cituen, gauzetatic bata.

BI-garrena cen JESUS be-

beraren neque---tormentuen, ta eriotz gogor-miñaren otoitza-pena.

OROITU cen JESUS GETSEMANIco bere otoitz-neca-garrian bere buruaren gau hartaco arrapatzeaz. Oroitu cen ſocaz loturic bera Juduac arraſtan, ta oſticoca bareric beſtera eramateaz. OROITU cen Judu berac, eta Gentil arroac arrats berean berari eguiñen ciozcaten, hiſta, irri, zaplada, ille-tiraca, carcaiſez arpegui-beguien ciquintze, ta gañeraco charqueri guciez. Oroitu cen JESUS, bere etſai berac, eta oriei laguntzen cieten, Gentilac utzico ciotela bere buru gucia arantzezco coro arri-garri batez cena joſia, ta bere loetatic, eta buru bereco inguru gucitic odola ceriola.

OROITU cen JESUS GETSEMANIco otoitz arri-garri berean bigaramun goizean artzeco cegoela bere etſai ber-etatic milla, ta ambat azotz-ucaldi, edo golpe gogor; bai ta, gurutze batean illic guelditu arteco bere neque-pena, ta agonia guciez ere: oroitzapen oriec, jaquinic JESUSec berac (cequien bezala) cein mimberea cen, zuen, gorputza, nai--ta--ez aguitz illundu cioten JESUS maita-garriari bere bihotz onmaitari neca-corra.

Irur garren gauza, JESUSen bihotz necacor maitari hau aguitz illundu zuena cen, ISRAEL-darren berariazco galtzea.

ECUSI zuen an gure JESUS maita-garriac, Judu gogorren artean bera, guizon eguiñic, aguertu ba-cen ere; ta Judu gogor berei irur urtez bere Legue garbi zucena hitzetz, predicuz, ta milagroz eracutſi ondoan, cembait bacoch atera, ta gañeraco Judu guciac etziotela beguiratzen ere; edo beguirátzen cioten, guciac beguiratzen ciotela, bera beti beguitan arturic iduquitzeco: eta gucien artean guizonic jaquintsuenac, eta gauzac erraz-quiena ezagu citzaqueenac cirala, JESUS berariez ecuſi, ta ez aditu eguiten ciotenac; eta oriec cirala, ceren JESUSec gauzac aguertu ciezten, JESUS gueienic beguitan artu zutenac; eta guizatzar eſquer-gabe orien artean arquitzen cela Judas, JESUS beraren Apoſtolua ere; ta Apoſtolu, ISRAEL dar-etatic batec ere baño, anitz gueiago JESUSi zor ciona.

ECUSIric bada gure JE-

JESUS maita-garriac aldi, ain neca-garrian, hau gucia; ta ecusiric dembora berean, ISRAEL-darren artecoa cela, JESUSec berac berequin zuen, odol gucia, ta al-ere ISRAEL-darrac izan behar zutela lenenic, eta a murratu-quiena, berabere Legueca--requin gal eraci naico zutenac, eta urrengo egu-erdiraco gurutze batean josiric, eta andic irur horduraco illic utzico zuten, guizonac, cer tristurac, eta cer illun-tasunac, izan behar etzituen aldi hartan JESUSen BIHOTZ guztiz mimbere-maita-garriac?

LAUR--garren gauza, Jesusen GETSEMANIco illuntasun, ta tristura berera anitz-eta anitz lagundu izandu zuena, cen, munducoen, JESUS bera ganaco, esquer-eza, ta oztasuna.

ECUSTEN zuen JESUSec, bere GETSEMANIco otoitzean, bera mundu guciaren oneraco iltzeco cegoela; ta iltzeco, asmal-adiña baño, neque gueiagoren artean; ta al-ere Munduco guizonen zatiric andienac, ez-pa-liz baño, gueiago etziola JESUSi beguiratuco ere: bada TURCOAC, GENTILAC, eta JUDUAC bataiatuac baño, aguitz, eta aguitz gueiago dira; ta oriec ez dira JESUSen Leguecoac, edo JESUSi beguiratzen dioten, guizonac.

ECUSTEN cegoen JESUS, bataiatu-etatic ere gueienac, edo beintzat anitz, eta asco vicico cirala cismaz, ta heregiaz galduac.

ECUSTEN zuen, gure Legueco-etatic ere anitz--eta anitz vicico cirala, HEREGEAC, GENTILAC, eta TURCOAC ere baño, aguitz gaizquiago: ta, orren gaistoac ez izan-arren, beste bataiatu anitz, eta asco, ibillico cirala gaistaquerien artean, ta beren becatuz ongui loituac.

ECUSTEN zuen, JESUSec videnabar, beren horduco tristura--neque--criotzaz etzutela eguiñen caso andiric, gueienean beintzat, gueienac.

ECUSTEN zuen, utzi cigun, Aldareco Sacramentua-requin bere-bat eguiñen zutela oriec guciac, eta beste anitzec ere.

ETA (ori baño ere, gaistoago dena) ecusten zuen, Sacramentu onequin Heregeac, eta beste anitz guizon gaistoc eguiñen cituztela gauza arrigarri-itsusi-lizunac; eta, comunia-

niatuco ciran, guizaqui, ta emacume-etatic anitzec artuco zutela Sacramentu hau, JUDASen bihotza bezalaco, bihotz galdu-equin, edo ceren joain ciran Confesorearen oñetara, ontzeco asmoric gabe, edo ceren garbiro aguertuco ez cituzten beren aitormenean, edo Confessionean beren becatuac, edo becatuaren erac; eta orre gatic artuco zutela JESUS bera beren Comunionean guztiz gaizqui, ta beren Comunione gaistoac gatic, seculaco sutara noiz-bait berac aurtiquitzeco escua JESUSi ematen ciotela.

ECUSTEN zuen, JESUSec horduco bere otoitz demboran, becatu larri-etatic quenduric vici diranetan ere, arquituco cirana (ta ez guti) urbilduco ciranac beren oztasuna-requiu, edo amore andiric bague, beren amoreac gatic Sacramentaturic arquitzen den, Jangoico bera gana.

ETA onembat ecustec, ecusten dezu, naiz-ta ez, anitz illundu behar zutela JESUS maita-garriaren BIHOTZ nimbere maitaria.

Hau gucia ecusten zuen, dembora berean, ecusten cituen JESUS maita--garriac bere Ama-maitearen barreneco illun tasunac, eta bihotzeco nequeac (cein andiac oriec, eta cein arri--garriac!): eta bere Amaren neque oriec, bere guciac baño ere, aguitz gueiago illuntzen cioten JESUS maita-garriari bere BIHOTZA; maite zuen alabaña ecin gueiagoraño, bere Ama maita-garria, ta ba-cequien, beraren Seme JESUSec, Seme beraren urricariz izain cirala Amaren horduco neque-pena guciac.

HORDU berean ecusi cituen JESUS maita--garriac, beraren Apostoluen, beraren Martiren, Santu Confessarien, ta gañeraco on gucien neque, tormentu, ta videgabeco pena guciac; eta, nola oriec eraman behar cituzten, JESUS berari ongui naiez, JESUS beraren amorea gatic, eta beraren Leguea zucen baño ere, zucenago gorde naiez, orrembat neque, ta pena: ta hau gucia JESUSec ecustean, orien gucien ganaco urrical-tasunez, ta neque-penaz beteric guelditu cen JESUSen BIHOTZ maitari--maita-garria.

ORRA GETSEMANIco bere otoitz demboran JESUSen gogora ciran, ganza neca-garri illun-etatic cembait. CUCIAC artu cioten JESUSi bere BIHOTZA, dolareco ardatzac

ol-peco sagarrac, edo matsac artu oi dituen, eran; ta, ardo ordez, edo ur lecuan, atera cioten odolezco icerdia, ta icerdia.

AH tristurac, tristur-arrigarriac, onembat-eraño gure JESUS maita-garriaren BIHOTZA illundu cenuzten, tristurac! AH tristurac, nere oben culpa gaistoac nere JESUSi ar-eraciac!

Bai; nere oben-culpac JESUSi ar-eraciac ciran, GETSEMANIco bere otoitz demboran JESUSec izandu cituen tristurac; bada ni nere oben-culpa guci-equin horduan arquitu nintzan an, nere JESUS maita-garriaren gogoan, edo beraren Animaco beguietan; ta arquitu nintzan ni an, ni besteric an arquitu ez-paliz bezain, aguerian; ta, ecin claro-quiago ni nere char--queri guci-equin nere JESUSec ecusten ninduela: ta horduco bere ecuste onec ematen ciozcan Jesus maita-garriari, nere oben-culpei, nere esquer gabe-tasunari, ta nere ar ganaco molde-cabeari cegozcan, tristura guciac: eta neque-pena, ta tristura, ecin andiagoac JESUSi emateco, asqui cen, ta sobera, nere oben-culpa guci-etatic bat.

BAñA gucia gatic ere ichedan dezaquet nic, ez navela JESUSec alde-bat utzico ni; ta valiatuco zaizquidala nere zorren alde, horduco Jesusen tristurac berac. ALA guertatuco da, leneco gaizquiez ni ongui damuturic, ori nic berari ciñez escatzera. Cuerta dedilla bada, nere JESUS maita-gartia; bai arren, bai.

I.

CIRCUNDEDERUNT ME VITULI multi: tauri pingues obsederunt me, aperuerunt super me os suum, sicut leo rapiens, & rugiens. Ps. 21. 13.

CER quezcac, cer ay-ahc, cer naigabeac leoi aferre baten atzaparretã arquitzen den, guizonaren naigabeac, ay-ahc, eta quezcac! ERA berecoac izandu ciran, ta aguitz latzagoac, eta arri-garriagoac, gure JESUS maita-garriac bere Bihotzean izandu cituenac GETSEMANIco bere azquen otoitz demboran.

NOLA-ere-bait bere neque gogor, naigabe illun, ta ay oriec guri adiraci naiez erraten digu DAVIDec, JESUSen ordez, ta lecuan: INGUrutu naute ni bazter guci-etatic, norc-daqui, cembat cecorrec, edo cecencoc. CECEN

sutu

ſutu guizenac ere beren erdian arturic naducate ni; ta, nic igueſ-eguin naia gatic ere, igueſ-eguiteco videric bague naducate ni oriec.

Ez dira oriec content, ez, nola-nai niri nere vici hau quentzea-requin. BEREN avac, edo ahoac ongui zabalduric datoz oriec ni gana; ta, eguiten dituzten, orroz bazterrac urratzen dituztela; ta, era orretan datoz viciric ni, edo, al duten eran, iritſi-naiez; ta datoz, leoi jale aſerretu orro-lariaren eran.

CEIN ote dira cecen, ta cecor oriec?

CEIN, baicic zu, ta ni bioc; eta gu bien eraco becatari chir-gaiſtoac? GUC guci-oc gueren gaizqui gal-garri-equin; guc gueren oben-culpequin; ta, guc gueroc eguin oi ditugun, gueren vide-gabe, ta charqueri guci-equin ingurutu izandu guenuen, GETSEMANIco bere otoitz demboran gure JESUSen BIHOTZ mimbere maitaria; ta guc gueroc, horduco Judu gogor, ta Gentil gaiſto-equin batean, eman izandu gueniozcan BIHOTZ mimbere maitari oni, eguin ditugun, becatu adiña, necucaldi, golpe, ta naigabe: ta gueren onembateco naigabe-arri-garri-equin odol-icerditan utzi izandu guenuen guc gueren JESUS bere burutic oñetarañoco guci-gucian; ta, bera ez ecic, bere-peco lur gucia buſtitzeco diña odol ceriola.

Ah gure galduac gu, guc gueren JESUS maita-garria gandic ez erdiſtera, gure becatu gogorrac JESUS berari atera cioten odol-icerdiaren laguntza! bada ori guc ez erdiſtera, galduac gara gu ſecula guci-guciraco!

EZ arren, JESUS maita-garria, ez datorrela gure gain orrembat malhur, ez! ZUC bein cere icerdi odolezcoa-requin garbitu ezquero gure Anima, becatuz loitu gaiſoac, ez ditugu loituco guc berriz gueren gaizquiz, ta culpaz; ta, zuri zor bezala, eſquerrac emanaz guc, eta garbiro maitatuz zu, gure JESUS maitagarria, eguiñen dugu guc ongui bucatzera gueren egunac, Ceruan guero gu zu maitatzen egoteco beti ta beti, edo eternidade guci-gucian. ALA guerta dedilla, gure JESUS maitagarria, bai arren, bai.

2.

SICUT AQUA EFFUSUS SUM & dispersa sunt omnia ossa mea: factum est cor meum tanquam cera liquescens in medio ventris mei. Ps. 21. 15.

NERE gorputzeco ezur guciac (dio DAVIDen ezpañez, gure JESUS maita-garriac): nere gorputzeco ezur guciac elcar utziac dirudite, ta, niri laguntzeco, indarric bat-ere bague arquitzen diran, ezurrac: bada nere azquen arrats onetan, nazan, guci-hau nago ni agoniez, ta agoniez bete betea; ta, illtzeco dagoen, guizon baten eran. DEMBORA berean arquitzen naz gaur ni, ſull, edo gurbil bat urratu, ta, banatzen, ta galtzen den, ura bezala: edo bere ibillera, ta oſaſuna galduric dagoen baten, eran; bada arquitzen naz gaur ni, guztiz triſte, ta illun, ta icaraz, cer eguin, ez-pa-nequi bezala.

ETA al-ere, ez da hau, ez, oraingo nere lanic gogorena: gogorragoa da nere BIHOTZAren aldetic datorquidana. SU baten bazterrean arquitzen den, arguizagia dirudi gaur nere BIHOTZAC; bada, ſuaren bazterrean arguizaguia bezala, urtuz doaquit niri nere BIHOTZ gucia, ta icerditan ateratzen zait, an arquitzen den, nere odola: ta ni gaur nere Jangoico-taſunaz ez valiatzera, nere bihotzeco, ta barrengo cerbait odol guelditazteco, azotatzen, edo zeatzen nauten, aldiraco, ta lantzaz nere bular hau urratzen didateneco, bertan illa guelditu-co nintzaque, ni emen GETSEMANICO baratzean.

ORRA, dagoeneco ere, certara naven ni, nic manduari diodan, ongui-naiac, eta guizonen amoreac! ORRA cembat-erañocoa den, oriec niri nere icerdi-odolezcoa gatic didaten, zor arri-garria!

ORIEN zorraz oroitzeac, edo orien zorrac gatic nic gaur daramadan, ta emendic aſi, ta, ni illic guelditu artean, nic eraman behar ditudan, nequeen oroitzapenac, eta, gucien gain, guizonen ni ganaco eſquer-gabe-taſunac onetara ditu gaur nere gorputz-animac, eta nere bihotz guztiz maitari hau!

GURI ongui-naiac, eta gure amoreac orretara zaituzte zu, gure JESUS maita-garria? ETA ceer? etzenequien zuc, cere guiza-taſuna gure artean artu cenueneco, gu bezain becatari char galdu batzu-

eta-

etatic ichedan citequena ? Bada certaco eguin ciñan zu guizon , ta certaco ſartu ciñan onembat arazo, onembat neque, ta onembat triſtura, illuntaſun, ta agonia cecarren, eguiteco gogor onetan ?

GURI ongui eguitea gatic, nere eraco becatari charra ! BETI-betico gu gal-ez-guindecen , ta gu , ambat berac gu gatic eguin ta ba-cen ere, centza-raci naiez !

EUN milla milloi-aldiz bedeica dedilla zure ontaſun maita-garria , zure gu ganaco urrical-taſuna , zure ongui-naia, ta amorea , gure JESUS, orren necatu-odoltua !

ZURE amore oni nolaere-bait erantzutea gatic badere , ſaia ba-nendi ni , lengo nere ibillera gaiſto gal-garriac utziric, vicitz-on bat artzera !

NAI nuque bada, nic bertatic nere lan onetan aſi, nere JESUS maita-garria ! INDAZU zuc arren, orre-taraco, behar den, cere laguntza , ta gracia : bai arren , bai.

3.

VIDE , DOMINE , AFLICTIONEM meam , quoniam erectus eſt inimicus. Thren. 1. 9.

BEGUIRA , Jauna, beguira, erraten dio JESUSec bere betico Aita maita-garriari , len JEREMIASec JESUS beraren icenean erranic ceducan bezala. BEGUIRA, Jauna, beguira , non , ta nola nagoen ni , orain zurequin emen Getſemanin hitz-eguiten hari nazanean !

BEIN , ta berriz aguertu dizquitzut nic , nere oraingo trance , ta egoera guztiz arrigarriac : eta ona non natorquitzun orain irur-garren aldian , ori bera eguitera ; ta, len eſcatu dudan , gauza bera berriz eſcatzera.

ESTUTU nau ni oraingo aldian ; ta eſtutu nau , ecin-gueiago-raño , nere etſai galdu amurratuac : bada nequez , ta naigabez nere vici hau galerazteco puntu-puntuan naduca !

ORRE-tara baño , len anitz da, ta guztiz gogorra , etſai berac Judu gogorren eſcuz neretzat preſtaturic daducan , neque-tormentuzco PASIONEA. PASIONE neca-garri onen oroitzapenac berac, ez daquit, certara duen gaur nere BIHOTZA : ta PASIONE necagarriaren oroitzapen utſac hau eguiten duenean , cer ez daguiquee Paſsione bereco nequetormentuac berac ?

ORIETAN ni ſartu baño,

ño, len, bada, ecin gueiagoraño muite nazun, nere Aita maita-garria, baldin ba-daiteque, quen-ezadaza zuc nere caliz latz, edo edari miñ hau; ta indazu beste videren bat, munduco gaitoen zorrac nic ateratzeco.

BA-daguiquezu zuc hau, zuc nai izatera; ta ba-daquizu zuc dembora berean, atera ditzaquedala, nic bertze eun milla aldetara, nere gain nic artuac daduzcadan munducoen zorrac; bada ba-daquizu zuc, asqui dela, zor oriec nic ateratzeco, nere negar malco, edo suspirio bat, edo beste edocein nere gauza, edo lan.

BAñA nic hau jorain nai gatic, baldin artuac ba-daude neurri guciac, seta nai ba-dezu zuc, nere Aita maita-garria, nic ar dezadan nere PASSIONECO edari latz hau, edain dut nic zure icenean, tantaric uzten ez dudala; ta emain dut nic, nere gain artuac daduzcadan, munduco zorren alde, gurutze batean iltzez josiric, ala zuc nai izatera, nere odol, asinase, ta vici gacia: AMBAT da, nic zuri nai dizudana nere Aita maita-garria; ta ambat nic munduari diodan, amorea! *Verumtamen non mea voluntas, sed tua fiat.* Luc.22.42.

ECUSTEN dezu, bere neque---penen, ta odolezco icerdi gucien artean gure JESUSec diona? ERRAN lezaque JESUSec orrelacoric, ecin andiagoa, ez izatera, guri JESUSec digun, nai-amorea!

BERE vicitza maita-garria baño, maiteago gaitu gu gure JESUSec; bada, gu gal ez gaitecen, pozic galduco duela, dio JESUSec, bere vicitza; ta galduco duela, dio, milla nequeren artean, ta lapurren eran, arantzez beteric, eta gurutze batean iltzez josten dutela!

GALDU nai dezu zuc, JESUS maita-garria, orrembat valio duen, cere vicitza; ta galdu nai dezu, lenic zuc cere gorputz mimbere orretan artzen dituzula orrembat neque, ta pena; ta nai dezu galdu, gu bezain, gauza errebesgaldu-charra gatic?

CER da, ni gan zuc ecusten dezuna, siñes litequeana baño, andiagoa dirudien zure ni ganaco nai orre-taraco?

CER izain da, baicic, ni gan arquitzen den, edo nic nerequin dudan, nere Jaunaren imagina, ta aintzura, edo iduria; baña iduri, edo aintzura, nic neronec nere gaistaqueriz, ta becatuz, guztiz galduric daducadana! OR-

ORREMBAT valio du, bada, nere Jaunaren aintzurac, iduriac, edo imaginac? ETA ala ere becatuz ciquindu dut nic, eta galdu, edo urratu bein, ta berriz, ta ambat, eta ambat aldiz ere?

ZUC hau niri garbitu naiez, ta nere oneraco da, nere JESUS maita-garria, zuc oraiu, orrembat neque-requin, eguin nai dezuna?

ETA ez dut nic ere eguin uste, nere al-eguiña nere Anima onen loiqueriac nere gandic quentzeco, ta nere bihotz hau ongui garbitu ondoan, nola-ere-bait nere amorez guero erantzuteco, zor dizudan, cere bihotzeco amore andi-eguiari?

BAI baldin bere, nere JESUS maita-garria! Orretan asi naiez nago ni, ta lenago hau ez eguiñaz ongui damuturic; eta, ala delaco siñutan, erratera noa, zure laguntza-requin batean: NERE JESUCHRISTO JAUNA, &c.

LII-GARREN OTOITZGAIA.

JUDASEC BATETIC, ETA BESTETIC GAñERACO Apostoluac GETSAMANIN eguin izandu zutena.

§. I.

SARTZEN DA JUDAS GETSEMANIco BARATZEAN JESUS preso ar-eraztera.

ETZUEN JUDASec galdu demboraric JESUSen, asal--teguitic atera, ta JESUS bera preso ar-eraci artean; bada, beste Apostoluac GETSEMANIco Baratzean lo ceutzan demboran, erne asqui, ta arin ibilli ceu Judas, hartaraco onac ciran, lagunac billatzen: ta bere lan gaistoa lembaitlen bucatu

na-

naiez, GETSEMANIco Baratze berean arquitzen cen Judas, an JESUSec bere otoitzac eguin, ta adiraci nai ciena bere Apostoluei, lotatic oriec ater-eraci ondoan, adi-raci-horduco; ta an arquitzen cen, oguei ta amar diruac artu naiez, bere hitzez aguindu zuena, lanez eguitera, edo JESUS preso ar-eraztera, etorria.

BERE lan gaisto hau zucenago eguitea gatic, JESUSec ostegun Santu arratsc--eco gauzac JERUSALENen bucatu, ta GETSEMANIco otoitzac eguin horduco, bildu cituen Judasec eun Soldadu, ta gueiago; ta, oriec asqui ez-pa-hra bezala, bat preso artu, ta loturic nora--nai eramate---co, APEZ---nagusiac, eta Fariseo-tzar JESUSen gal-garriac eman ciozcaten, Judas berari, beren-peco-etatic, nai cituen, adiña guizon; ta oriequin, ta bildu cituen, soldu-equin batean, an cituen Judasec Apez Nagusi beeretatic beste cembait ere; bai ta Elizaco cargudun-etatic ere, ezdaquit, cembat: eta guciac cijoacen, beren laneraco era egoquian, edo bacoitza cijoan, berari cegozcan, arm-equin; ta, an ciran, gucien artean ba-ciran, behar adiña, argui, ta farol.

ORIEN gucien NAGUSI, ta CAPITAN eguiñic, atera cen JERUSALENdic Judas, JESUSen billara, ta loturic, eta preso JESUS eramatera.

BA-cequien Judasec, bai, non arquituco zuen, billatzen zuen, JESUS maita-garria. BA-cequien, oi zuen, lecuan, ta otoitz-eguiten arquitzen cela garai hartan, Judas beraren, ta gure Maisu, JESUS maita-garria. BAñA gorde cequion beldurrez bezala, arguiz, ta arguiz beteric cijoan Judas; ta berequin cituen, guizon, cargu-dun, Apez Nagusi, soldadu gentil, ta gañeraco guciei erraten ciela: BEguira; zuetatic cembaitec ez dute ezagutuco, orain guc preso artu behar dugun, hau; EZAgutzen dut nic, eta ba-daquizquit bai, haren ibill-erac, eta mañac. NIC neronec adi-racico dizutet, artu--hordua etortzen deneco, cein den hura. EZ dezue zuec orre-taraco, niri beguiratzea baicic. NIC hura ecusi horduco, ar ganaco naz ni, ta eguiñen diot, Adisquide onac eguin oi dutena; bere arpeguian nic hura ezpañez uquitzea.

NIC era onetan uquitzen dudana da, zuec orain billatzen dezutena. ARTU zazue zuec hura bertan preso; ta ecar-

ecartzue contuz, ta ongui loturic; eta beguira cer eguiten dezuten.

ECUSTEN dezu zuc, nere Anima, cein erne dabillen gaur Judas, JESUS galdu naiez? AFALDU, ta lotara lecuan, gau-otz--illuna ba-cen ere, oftegun fantu gau hura, calez cale dabil Judas, ta echez eche, bildu artean, berac, bere Maifu JESUS maita-garria loturic ecartzeco daraman, foldadefca, ta gendea.

Bere guiza-guiro oriec, eta foldaduac bildu cituen-eric JESUS GETSEmanico Baratzean arquitu artean, ez da gueldirzen bat-ere Judas. BATEAN videa eracusten dabil, berequin dituen, gundeei, beftean bere genda--guiro berac eguin behar dutena.

Noizean-bein buru-beguiac lizatzen ditu, non arquitzen den JESUS, ecusteco; ta JESUS ecusi, edo arquitu artean, ez onic du Judafec, eta ez fofeguric bat ere.

ECUSTEN dezu Judafen ibillera erne galgarri hau?

ETA Apoftoluena? Lo, ta lo eguitea!

Erraten die Jefufec Apoftoluei Getfemanico Baratzerahorduco; beguira dutela: daudela contuz, ta erne, ta otoitz-eguiten diotela beren Jangoicoari, nai ez pa dute, guerta daquien, ufte ez dutena, ta calteren bat.

UZTEN ditu JESUSec orretan, ta ba-doa bera barrenago, bacarric an otoitz eguitera.

BERE otoitz hau eguin ondoan, itzultzen da JESUS Apoftolu ber-etara; ta arquitzen ditu lo-ta lo: ta ori-etatic bati, befteac aditzen zutela: cer, PEDRO (erraten dio baña guztiz emequi, ta cenac bezala); ori da zure ni ganaco amorea, eta zuc niri nai didazun gucia? DAquizun, eran orain ni, ta trifturaz, nazan hau guztiz betea! Etcatu nic zuri, ta zure lagunei, iratzarriac, eta otoitz onean nere eran, oriec, eta zu emen egoteco; ta ala ere, hordu bat baño, len loac garaituac oriec, eta zu? ALDE bat bada zuen loac; eta erne, ta contuz otoitz-eta otoitz gucioc, nai ez-pa-dezue zuec garai zaitzaten ceren etfaiac.

HAU oriei efan ondoan, ba-doa JESUS bera berriz, otoitz eguitera: ta, bere bigarren otoitz hau eguin, ta andic itzultzean, arquitzen ditu Apoftolu berac, len bezain bortizqui beren loac garaituac;

eta berac berriro JESUSec iratzartzean, guelditzen dira lotsaz, ta alquez guztiz beteac: eta gucia gatic ere, berebat guertatzen zaie irur--garren aldian.

HAU cer da, gure JESUS maita-garria? CERizain da? LURRECO gauz-ena!

Bai eguiaqui! ERNE dabiltza, ta contuz Lurrecoac lurreco beren gauzen ondoren! Gau-ta egun, ta hastez, ta urtez dabiltza, ibiltzez aspertu bague, Lurrecoac, lurreco ondasun charrari, edo irabaciari oñez, escuz, ta gogoz beti darraizcola.

ASMATZEN dituzte, norc-daqui, cembat vida-guiro, irabaz-tegui, ta eguiteco, ondasun oriec beren escura naiez.

GALTZEN dituzte gavac, eta dutena, gogo gaistoari bein, edo berriz atseguin eguitea gatic; eta ascotan ibilli oi dira asmari gaisoac zoratuen eran, ta, bururic ez dutenac baicic, ecin leguizqueen, jan--edanetan, jostatze lizun-etan, joco galgarrietan, ta era orretaco beste gauzetan.

BAñA beren animacoetan?

LO ta lo; prisa, ta prisa, ecin-bestez, bacan, ta ecin gaizquiago.

Orietatic zara zu ere? Erran dezatela, berandutic berandurac, edo ontzeric bagueco, zure confessioneac: eta, certan zauden, ez daquizulaco, zure Meza-enzuteac, Errosarioac, eta gañeraco gauzac! ETA, oriec zuc ecusiondoan, ecusi zazu, noren eran zabiltzan zu; Apostoluen eran, edo Judas-enean?

BERE arazo, erne-tasun, ta ibiller-equin arquitu zuen laster Judasec JESUS maita-garria; ta Judasec JESUS ecusi horduco, ar gana cen Judas, bat ere alqueric gabe, ta eraman ciozcan JESUSi, lenago berac be-requin cituenei adiraci cien bezala, bere besoac lepora, ta ezpain ciquiñac arpeguira.

BAñA, ba-cequien JESUS maita-garriac, certaraco ciran, adisquide-tasuneco Judasen sinu-guezurtiac; eta, hura centza-raci naiez; Judas, erran izandu cion: Judas, ta zuc ni ezpainca? Judas, ta apaca ni eraman nai nazu zuc nere ersai Judu gogor galduen atzapar-etara? JUDAS, Judas, aldireñ batez, ta dembora lucean ere, ongui niri nai cenidan, nere Apostolua, uorc sartu du zure gogoan zure ni ganaco gorrotu, ta aserre-tasun, orren andi amurratua? NI

NI ganaco aferrez cere bihotza zuc erretzèn daducazu; ta emen zatozquit orain, adisquide onaren eran, preso ni ar eraci, ta lembarien niri nere vici hau gal-eraztera.

GORTU zara zu, nere hitz onac zuc ez aditzeco! Ez diozu zuc beguiratu nai cere zucen--videari! EZ dezu zuc ni gana nai, ni gal-erazteco videac eguitera baicic! Baña alferric zabiltza zu, ta seculaco cere buruaren calte arri-garrien billan.

ARTUCO naute, bai, ni preso, orain zurequin datocen, arma-dunac, eta genda-guiro-gaistoac, eta erama-in naute, bai, eriotz gogor baten atzapar-etara: baña nic neronec nai dudala, ta nic nere Aita maita--garriaren naia orretan eguitea gatic da, nic lan char ori, zuri ta oriei eguiten uztea: bada nic neronec hau nai ez-pa-nu, ez zu, ta ez oriec, eta ez munduco gucietatic bat urbil liteque, ez orain, ta ez guero, ta ez bein ere, ni arquitzen nazan, toquira. OTS-emazu: goacen ecustera.

ITZULTZEN da JESUS, hau hitz bitan Judasi erran, edo adiraci ondoan, Judasi-equin cetocen, Soldadu, ta guizon guci-etara; ta erraten die guciei: NOR billatzen dezue zuec?

ERANTZUTEN diote, NAZARETHCO JESUS.

EARATEN die JESUSec: *NI NAZ ORI*: ta, hau aditzean, ba-doaz guciac atzeco aldera, errotzen dira, cer guertatzen zaien ez daquitela, ta an dautza guciac, ill otzen eran: ta, JESUSec nai izatera, etziran jaiquico, ceutzan, toquitic, azquen juicioco egun-eraño.

ETA, oriec orrela ceduzcan demboran, norc eragotzico cion JESUS maita--garriari, GETSEMAMICO Baratzetic ateratzea, ta nai zuen, toquian sartzea? Guelditu bacen, bada, gure JESUS, cegoen, toquian, ta artu ba-zuten preso, Judas gaistoac berequin cituen, guizonac, JESUSec berac nazaela izandu cen, ta ez judaien gogoz, ta borchaz.

ERA berean erazagotz lezaque JESUS maita-garriac, zuc hura cere ezpañez, cere gogoz, edo cere escuz cere passione gaistoen atzapar-etaratzea, cere becatuz zuc hura aratzen dezun, aldietan: bada ez luque JESUSec orre-taraco, zure escuac, zure ez-

pañac, edo zure bihotz ori igar-eraztea baicic, bat-ere beharco: ta ori gucia JESUSec ba-leguique hordu, ta puntuoro, edo berac nai duen aldi gucietan.

UZTEN du bada, ori gucia eguiteco, zuri ez quendu naiez, zuc cere gauzac, cere naiez, eguiteco escua; escu onez zu valiatzen zarala, irabaz ditzazun anitz atseguin, contentu, ta gloria.

BAñA beguira, becatari charra! hau zuc eguin beharrean, eguiten ba-dituzu, eguin behar ez dituzun, gauzaren batzuec, edo ar-erazten ba-diezu zuc JESUS, preso bezala, cere passione gaistoei, eguiñen dezu zuc, bai, cerorrec nai dezuna; aspertuco dezu zuc cembait demboraz cere gogo charra; irabacico dezu zuc cerbait diru: certan, edo artan autsico dezu zuc cere Jaunaren Legue zucen garbia: ta far-eracico dezu zuc JESUS maita-garria, lan char ori eraguiten dizun, cere passione sutuaren atzapar-etan: baña, orretan zu guelditzera, guelditzuco zara zu Judasen eran: ta beldur naz, izan dezazun zuc ere Judas beraren bucaera, edo harenaren eracoa, ta guero haren aldamenean beti-betico sulecea.

§. II.

JESUS UTZIRIC, IGUESeguiten dute Apostoluac.

GURE JESUSec aguertu ondoan, berac nai--ez izatera, etzela, ez Judu galduen escu-etaraco, iutzi cien Judasi, Judasen lagunei, ta orien artean cetocen, Soldadu guciei jaiquitzen, ceutzan toquitic.

JAIQUI horduco galdetu cien berriz ere, noren billan etortiac ciran, ambat argui, ambat arma, ta ambat arazo-requin? ERANTZUN cioten, lendabician erran zutena, edo NAZARETHco JESUS billatzen zutela.

AGUERTZEN die JESUSec cein den bera, edo bera dela berac billatzen dutena; ta ematen die, behar duten, indar, ta escu gucia, nai bezala, bera loturic preso eramateco: baña erraten diela; ORIE; ni billatzen ba nauzue zuec, utzi gueldiric, nerequin daudenei, guciac doacen, berac nai duten lecura: *Si ergo me quæritis, sinite hos abire.* Ioan. 18. 8.

ORIEI hau JESUSec erran-horduco, ba-doaz, zacur amurratuen, eran JESUSi it-

itsastera: itsasten zaizca, (ta batetan) al duten, guciac; eta guelditzen da JESUS maita-garria orien beren escuetan loturic, eta preso.

CER guertatzen dela, deritzazu zuc, era onetan JESUS guelditzen denean?

S. Marcos Evangelariac adiraci digun, ta, nornai arrituric uzteco, den, gauza bat: JESUS ecusi-horduco bere etsaien escuetan, harequin an arquitzen ciran, guciac iguesiari ematea; *Tunc Discipuli eius, relinquentes eum, omnes fugerunt.* Cap. 14. 50.

ECUSTEN dezu guizonaren ecer-eza, ta char-queria? AMBAT demboraz Jesus maira-garria-requin vicitu diran, guizonac: Munduco beste guciac utzi, ta bere Apostolutaco, JESUSec artu dituen, guizonac: JESUSec berac berei aguertu dien, Legue berriaren alde ambat, eta ambat miracullu ecusi dituzten, guizonac: oraingo ecuscari andi hau berau ecusi beharco zutela, JESUS beraren ahotic aditu zuten, guizonac: gau hartan berean JESUS ona-requin afaldu zuten, guizonac: bere afal ondoan bere escuz JESUSec berac beren oñac garbitu ciezten, guizonac; afaltegui berean JESUS bera gandic comuniatu ciran, ta Apez eguiñac guelditu ciran, guizonac, eta, norc daqui, cembat beste ontarte JESUSi zor diozcaten, guizonac eguin cezaqueen, eguin zutena? UTZI cezaqueen JESUS, utzi zuten eran, berac beren iguesiari emateco? EGUIN cezaqueen, era orretaco guizonac, eguin zutena baño, gueiago, JESUS izan ba-liz ere, guizon arrotzen bat, edo gaizquiren batzuec eguin izanduricaco guizonen bat?

GAUZ arri-garria da, bai, gañeraco JESUSen Apostoluac arrats hartan eguin izandu zutena; baña arri-garriagoa da, gauza hau bera San PEDROc ere, eguin zuen bezala, eguitea; bada San Pedroc ere, iguef-eguin zuen JESUS ona gandic, beste gucien eran (*Omnes fugerunt*), GETSEMANIra baño lencheago erran bacion ere bere JESUS maita-garriari: Jauna, nerequin datozen, beste guciac zu utzia gatic, etzaitut nic utzico bein ere, ez segurqui. ETA San PEDROren lan char hau ecusi ezquero, nor ez da, bere Jangoicoa galtzeco beldurrez icara guelditucо? S. PEDRO Apostoluac, eta gañeraco Apostoluen eraco, guizonac, ongui

co-

comuniatu ondoan, comuniatu ciran bezala oftegun Santu arrats hartan, hau eguin dutenean, cer gaiftaqueri da, guc bezain gauz-ecer-ez char galgarriac eguin ez dezaque-guna, gu gueren etsai sutu amurratuac cerbait tentatzera?

HAU nic ba daquit gaur, eta nic, onelacoric ez-panequi, bezain arin, ta choratu ibillico naz ni gaiz-videz-gaiz-vide, ta non-nai atera-sartu! HAU ba-daquit nic gaur, eta jaquin onen gañean ibillia gatic ni, gaur-gueroco nere demboran, ez ote naz ni, aratzen nazan baño, maizago nere comunioneco maieraco?

GOSEAC ba-nabil ni, ta etsai indartsu amurratuen artean, nabillen bezala, izanic ni nerez indar gutizcoa, aisa asqui eraguiñen didate niri oriec, berac nai dutena; ta, berac nai bezain erraz gal-eracico didate niri nere JESUS maita-garria.

ORI da niri oriec orain-dañocoan maiz asqui, ta usuro eraguin didaten, lana, ta eguitecoa; ta, bertze videren bat beratic nic ez artzera, beldur naz ni, maizagotan, ta errazago eraguin dezadaten niri, urtearen, illaren, edo hastearen buruan; bai-ta egun-oro ere; bada egun oro arquituco naz ni indar, ta gozo gutiago-requin nere gauz onetaraco; ta nere etsai indartsuac nere gain indar, edo escu gueiago dutela.

GABILTZAN, bada, nere Anima, gaur-guero beti, ongui ohartuac; gabiltzan beti zucen-zucen, ta gabiltzan gueren Jangoicoaren beldur-tasunez ongui prestatuac, JESUSen ondotic quen ez gaitzan gu gueren etsaiac, Judasen zori gaistozco lanetan guero erabiltzeco gu.

I.

CONTURBATUS SUM A VOCE inimici, & à tribulatione peccatoris. Ps. 54. 4.

JERUSALENdic atera, ta GETSAMANIco Baratzean besaunicatu-horduco, ecuñ cituen gure JESUS maita-garriac anitz gauza, ta neca-guiro, ta orien artean, andic asi, ta bere ill-horduraño bera penaturic utzi behar zutenac; bai ta bere etsai gaistoen eransiac ere.

BELAUN--icaturic cegoen, toqui beretic ecuñ zuen JESUS maita-garriac, bere Apostolu galdu Judas, bai ta Judasec, berequin cecazquienei,

nei, erraten ciela ere: ZUEC orain preso artu, ta ecarri behar dezuten, guizona da lembicicoric nic zuen beguietan ezpañez bere arpeguian uquitu behar dudana: nic hau eguinhorduco, haren gain zuec gucioc, irfatsi laster, ta lotu, ta contuz ecarri hau zuec JERUSALENgo Juez-etara.

HAU ecustean JESUSec, ecusi zuen eran, edo bere animaren beguiz hau JESUSec ecustean, guertatuco citzaion JESUS maita-garriari, DAVIDec diona; ta errain cion bere betico Aita eternoari: nastu nau ni, nazan hau gucia, aldi onetaco nere etsai gal-garriaren, edo Judasen hitzquetac! JUDAS gal-garria emen niri ap-ematera, edo muñ-eguitera? SATANAS berequin duen, Judas, eguin dituen gauza gaistoac eguin, ta ere, alqueric gabe onara ni gana?

CERUCO Aingueru guciac arrituac, arquitzen dira, ecusi nautenetic ni, orain ni arquitzen nazan, eran: ta Judas, deus-ez bat bailiz bezala, beraren orain-dañoco ibillera madaricatua, ni gana naiez, ni apaz, ta palacuz, ero bat bai-nintz bezala ni, preso artzera?

GAUZ arri-garria, nere Aita maitea; ta, zuc cerorrec dacusazun bezala, nere PASSIONEco caliza, edo edaria aguitz, ta aguitz minduric uzten didana! BAñA edari, bere mindura gucia-requin, pozic, edo gogoz, ta bihotzez ni artzeco nagoena, zuri orretan cerbait atseguin eguitea GATIC!

A TOZEA zu, becatari charra; ta ez ote cenion zuc ere cerbait mindu, cere comunione galdu-etaco apa, edo musu loituequin? EZ ote zara zu urbildu izandu bein ere comunioneco maiera, zuc cere becatuac confessariaren oñetan ongui claratu gabe, edo cer edo cer gorde-estali, edo nastu ondoan?

EZ ote zara zu, comuniatu, ta guero guelditu, Judas, bere ostegun santuco comunione, edo asal-ondoan, bezala, edo len bezain otz, gogor, ta gaisto cere Jaun maita-garria-requico?

ETA ez ote da ori zuc ezpañez, mihiz, ta bularrez JESUS uquitu ondoan, JESUS uztea bere etsai amurratuen, edo cere aztura, ta passione macurren atzapar-etan? AH JESUSen saltzalle galdu, Judasen lagun gaistoa, lan-guiro galdu hau eguiten duen, Anima!

2.

CONSIDERABAM AD DEXTE*ram, & videbam, & non erat qui cognosceret me.* Ps. 141. 5.

DEMBORA cen, Judu-tzar gogor gaistoac cebiltzala JESUSen ondoren, ta nondic JESUSi quenduco cioten, zuen, odol, ta vicitza gucia; baña Juduen ibillerac ibillera alferrac ciran, orre-taraco hordua cetorren artean. HORDUA cen Ostegun Santu arratsa, JESUSec berac bereei lenagotic adiracia ceducan bezala.

HORDU hau etorri horduco, utzi zuten JESUS, berequin ceduzcan, bere lagun guciac; eta batetan arquitu cen JESUS maita-garria, lagunic bat ere bague; ta bere etsai gogor amurratuen atzapar-etan. BEGUIRATU zuen contuz JESUSec alde gucietara, ta etzuen ecusi nion ezagunic bat ere!

JESUSen Apostolu maiteac, orain utzico ceauzten zuec, eta, loturic daducaten, guiza-tzar gaistoen escuetan, ceren Maisu on JESUS maita-garria? CER contu emain diozue zuec ceren JESUS maita-garriaz Jesusen AMA maitariari?

SEME maita-garria gatic ez-pa-cen ere, AMAren icenean etzinazten guelituco zuec ceren JESUS ona-requin? GUTI nombait nai diozue zuec, ceren onguille andi JESUS maitariari, ta guti urricari dezute zuec, nequez, ta naigabez beteric arquitzen den, JESUSen Virgen AMA Andrea?

Ez da, ez guizon prestuena, zuec orain eguin dezutena, edo JESUS ona gandic, iguef-eguin dezuten, eran zuec iguef-eguitea. EZ da ez esquer-dun on-ena; ez eta, beguiratze onac dituzten, guizonena ere, zuec aldi-onetan Ama-Seme-equin eguin izandu dezutena!

EGUIA diozu, Anima becataria: ta, nolacoaren iguef-eguitea ote da, zuc eguin oi dezuna, cere Jaunaren Legueco manuren bat austen dezunean? Apostolu gaisoac JESUS utziric, iguef-eguin bazuten, anitz Soldaduc, eta armazco gendec izuturic, iguesi joan izandu ciran: baña zuc iguef-eguiten dezu, JESUS bera gandic cere passione charloitu ciquin, edo suturen bati atseguin eguitea gatic; gaizqui bat bati erratea gatic; begui zuri-gordin-zorrotz--equin norbaiti beguiratzea gatic; hitz bat JESUSen icenean ez-eraman naiez: norbaiten gauza char

bat

bat arrapatzea gatic; gaitzera macuitzen zituen, joſtatzea, jolaſa, edo aldamena ez utzi naiez: ta aſcotan beguiratze arin galgarri bat ez uztea gatic!

ERA onetan JESUS uztea; JESUSen AMAri ongui naia da?

EZ baicic bere bacartaſunean Ama ſemeac utzi, ta norc bere pasſione lapurti galdu-equin iguef-eguitea. AH cer ibillera! AH cein eſquertia!

3.

ORATE, NE INTRETIS IN TENtationem. Marc. 22. 40.

NONdic etorri ote cen, Apoſtolu onac ain laſter, JESUS utzi, ta iguef-eguitea?

JESUSen erran bat ez eguitetic. ERRAN cien JESUSec bere Apoſtoluei, egon citecela erne otoitz-eguiten; ta beren Jaunari bere laguntzac eſcatzen, cer guerta ere: baña beren buruez gueiegui fidatzen Apoſtoluac! EZ uſte Apoſtoluac, etorquitzun cela, andic laſter etorriric ecuſi zutena! LOTAN egondu Apoſtoluac, otoitzeco dembo-ran! TENTUAC arrapatu Apoſtoluac erdi lo, ta armaric gabe bezala, ta orrequin aiſa garaitu!

ETA cer gatic garaitu ote zaitu zu ere cere Etſaiac garaitu zituen, adiñetan, ta garaitu zituen, bezain aiſa, tá erraz?

Ceren eguin ez oi cenuen zuc ere JESUSen erran hau berau! CEREN eſcatzen etzenion zuc cere Jangoicoari, eſcatu behar cenion aldi gucietan, edo eſcatu behar cizaion eran, ta ciñez bere laguntza, ta gracia! CEREN lotan bezala cembiltzan zu cere Jaunaren gauzetan, orietan zu cembiltzanean ere! ta ceren zu cerori ſartu oi ciñan aiſola cabean, ta, beldurric bague bezala, cere etſaiaren atzapar-etan, cere vide--malcor-etan, ta edocein ocaſionetan! AH ni nere buruaren galgarri eroa!

EGUIA diozu: ala da, bai.

NAI dezu zuc, nere Anima, gaur-danic bad-ere JESUSen aldean ſarturic gueldi-tu? NAI dezu zuc cere JESUS ona-requin ill, ta vici, edo vici nai dezu zuc, cere Jaunaren gracia bein ere galtzen ez dezula?

ZAUDE, bada, cere Jaun hau galtzeco beldur andia--requin. ZAUDE beti zu, cere Jauna gogotic uzten ez

dezula. ZAUDE zu cere Jaunari irlatsiric bezala, edo noicean bein bere laguntzatea esque, ta esque.

IGUES-eguizu zuc, orain-dañoco cere vide galgarrietatic, edo ocasione char-etatic.

EZ dezazula zuc iutzi cere goiz-arratsetaco otoitza: ez eta, egunaz egun oi dituzun, gauz onetatic bat ere. ETA eica zagozu zuc orain cere Jangoico maita-garriari leneco cere becatu gucien barcamentua, damuz, ta negarrez erraten diozula: *NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.*

LIII-GARREN OTOITZGAIA.

GETSEMANITIC JERUSALENA, TA CAIFASEN echeco Apez--batzarrean, ta guero *JESUSi* guertatua.

§. I.

LOTURIC, ETA ECIN GOGORQUIAGO DARAMATE Judu gogorrac *JESUS* Getsemanitic Jerusalena.

GURE JESUS maira-garria beti cen bat; eta beti onguille guztiz maita garria. S. PEDROC, bere Maisu JESUSen alda-meneric iguesi-egun baño len, tiratu cion ezpata batez bere burura, JESUS lotzera cetocen, guiza char galdu-etatic batari; ta, burua saietsi-eguiric artu, edo utsi-eguin, ta quendu izandu cion, alde hartaco bere beharria.

HAU ecusi horduco gueldiraci zuen JESUS maita-garriac San PEDRO: artu izandu zuen, San PEDROc ezpataz quenduricaco, beharria; ta an bertan ezarri cion milagroz bere toqui berean, galdu zuen, guiza char berari.

JESUSec hau eguin horduco, hitz-eguin cien, lan hau

hau ecuſtean, an, artituen eran arquitzen ciran, guciei; ta berez-quiena Apez--Naguſi, ta Cargu-dunei; erraten ciela: Ongui; ta cer ote da, zuec orain hordu, ta garai onetan orrembat Soldadu-requin, ta gendere-quin onara zacazten, eguitecoa? GAISTAguin andiren baten billan, etorrico zarazte zuec? NORBAITEC eguin bide ditu JERUSALENnen lapur-eriaren batzuec, cembait eriotza, edo beſte cembait videgabe?

NERE billan zatozte zuec gucioc, eta ni arrapatu, ta loturic eraman naiez? EZ ninduzuen ecuſten zuec ni egun oro, edo maiz arqui beintzat, zuen artean, ta ceren ELIZA berean ere? ESCU-utſean nembillen ni beti, ta armaric gabe, zuec ceroc daquizuen bezala: ta ez nizuen nic zuei, ez eta ni aditzen ninduten, guci-etatic bati ere, Ceruraco vide garbia eracuſtea, beſte gaizquinic eguiten.

BAÑA al-ere zuec nirri, gaizqui nai ba-cenidaten; eta nai ba ninduzuen zuec artu ni preſo, nola ez ninduzuen artu izandu, ta loturic eraman, ceren gogoac ematen cizuten, preſon--deguira? HORDUAN hau zuec eguitera, etzenuzten cer ibilli, zabilzten bezala, gau illun onelacoan, armaz, arguiz, otzez, ta ſuſtoz beteac.

EZ ninduzuen zuec horduan ni artu izandu, ez zuec nai gabez, ez, baicic ceren nic uzten ez nizuen zuei lan char ori eguiten; ta gaur ere, ni gabe zuec itzulico ciñazquee ceren eche--etara, ni zuec emen, arquitu nazuten, eran arquitua garic, nic neronec zuei nerau artzen, ta lotzen ez iuztera.

ETORRI da, bai, zuen lan char galdu itſuſi onen eguin hordua; ematen dizuet nic, zuec, ori orain eguiteço, behar dezuten, eſcua, ta nere baimena. BA-zatozquee bada orain bertatic ni gana, ni preſo artzera, ta ni, zuec ceroc nai, dezuten eran erabiltzera.

HAU JESUS ona gandic aditu horduco, an ciran, JESUS bera--requin, zacur amurratuen eran, Juduac berac, eta Juduac cecazten, Soldaduac,

BATETAN ambat, edo guci-etatic anitz JESUS ona ganatzean, botaco zuten JESUS, ta erabillico zuten batzuec oin-pean, beſteac oſticoca, ta, ichura guztiz charrean,

ar ganatzen ciran, guciac; eta guciien artean, an arquitzen ciran, Cargu-dunac, eta Elizaguizon Nagusiac; oriec ciran beintzat, JESUS maita-garria guei-enic beguitan arturic ceducatenac.

ORREtaraco, edo beren lan itsusi gaistoan beste guciei, sutuz, edo, berac daquiten, eran oriei lagintzera sulecetic atereac, an arquitzen ciran JESUSen, ta gure etsai amurratu gal-garriac; bada bazuten oriec ere, hordu, edo aldi hartan orre-taraco, behar zuten, escua, ta baimena: *hæc est hora vestra, & potestas tenebrarum.* Luc. 22. 53.

AH nere JESUS maita-garria! Ezagun da, bai, arquitzen dirala gaur sulececo galdu-gal-garriac zure baimen osoosoa-requin, eraguin-al gucia zure gain eraguiteco Judu gal-garriei: bada, ori ala ez izatera, ecin asi citequen, asi den, eran, edo asi den, bezain viciro, lazqui, ta gogor zure PASSIONE Santaco lana, ta neque arri-garria!

ASIEraren eracoa baldin izaten bada zure neque latz, edo lan gogor onen ibillera, ta bucaera, neque-lan ona dago, bai zure beguira!

NORC ar-erazten ote dizu hau zuri, nere Jangoico maita-garria?

NIC, nic nere oben-culpa gaisto gal-garri-equin.

BAñA cer gatic artzen ote dezu zuc, JESUS maita-garria, onembat neque, ta eguiteco?

NIRI ongui naiez; nere zorrac ateratzea gatic; eta niri, nola nic guero nere gauzac eguin, eracusteco.

Jangoico--guizonaren gauzac! eta nic zuri nere JESUS maita--garria eternidade guci-gucian zorco dizudan, ontartea, ta ondasuna!

AGUITZ gaizqui cerabilten JESUS Juduac beren lembicico itsatsi-aldian; baña etziran asetzen, ez Judu gogorrac bere aldi hartaco ibillera gaistoez; ta nol-ere-bait ase naiez, ta, gaizqui baño, gaizqui gueiago JESUS maita-garriari eguitea gatic, zuti-racico zuten JESUS, tiraca, ta maquil-ucaldica: ta, beren escu-etatic JESUSec iguesi-eguin cezan beldurrez bezala, edo alquequizun, ta lotsa gueiago JESUS maita--garriari ar-eraci naiez, lotu izandu zuten an bertan berē gogara JESUS (escu-etatic nosqui; bai-ta bere lepotic ere): *ligaverunt eum.* Ioan. 18. 12.

LOTURIC gaur, lotu

tu gucien aſcatzalle indartſu JESUS maita-garria ! LOTUric gaur JESUS, Limboco ateen, ta Ceruco gucien idiquitzallea !

Baña norc loturic ?

Judu gogor JESUS beraren etſai galduac, eta zuc, eta nic ! CER--equin ote, edo nolaco locarri-equin ?

ZUC, eta nic bioc beintzat gueren becatu ciquiñen locarri gaiſto-equin.

AH locarri-tzar galdu, nere gal-garriac; eta zori gaiſtoan guretzat aguertu ciñazten locarriac ! II L ba-guiña, zu, ta ni bioc, bataiatu gu, ta locarri-tzar orien eguiten aſi ere bague !

ERA onetan JESUS maita-garria lotu-horduco, artzen dute, an arquitzen ciran, Judu-etatic batzuec JESUSen lepoco ſoca, ta beſteac JESUS bera bere ille-etatic, bere beſoetatic, beſteac bere locarrietatic, edo bere ſoñeco-etatic; eta, gañeraco guciac ingurutzen dutela, artzen dute guciac, JERUSALENdic Getſemani--raño eraman izandu zuten, vide bera; ta itzultzen dira JERUSALENA.

NOLA ote zoaz, zu gure JESUS maita-garria orrembat etſaien, ta etſai orren gogorren artean ?

NOLA doaque ? ECIN gaizquiago : nequez, ta penaz, den, gucia bete-betea ! GOGOR-eguiac ciran, JESUS preſo ceramaten, Judu galduac; eta gueiegui beguitan arturic ceducaten gure JESUS maita-garria aſpaldico dembor--etan, gutien-gutienere oriec JESUSez urricaltzeco; ta orre gatic eramain zuten, Juduac JESUS maita-garria, ille-tiraca, eſc-ucaldica, jaiqui-erori, ta erdi arraſtan bezala : ori da alabaña, gavaz, loturic, eta priſaca dabillenari dagocan, ibillera; ta priſaca, edo erdi-laſterca eramain zuten, bai bere etſai gogorrac JESUS maita-garria.

BAñA nora, ta certara ote daramate Judu gogorrac gure JESUS maita-garria?

Gaizqui nai dioten, cembait Juez gaiſtoren peera; ta, oriec aſmatzen dituzten, neque-penac artzera.

OTE daqui hau gucia gure JESUS maita-garriac ?

Garbi-garbiro, ta guztiz claroqui.

ETA al-ere ba-doa JESUS orrembat Judu gogorren artean ?

BAI : ta gogoz al-ere, ta nai andia-requin : ara darama alabaña JESUS maita-garria guri ongui-naiac; eta JESUS

SUS maita-garriaren gu ganaco ongui-nai hau ecin--andiagoa da.

JESUS! ta guc zurizor dizuguna! Orain bad-ere asten ba-guiña gu gueren zor-era andi oni nol-ere-bait erantzuten?

§. II.

CAIFASEN ECHECO APEZbatzarrea; ta an batec JESUSi emanicaco esc-ucaldi arri-garria.

LAsterca, edo prisaca, ta ibillera gogor andia-requin eramain zuten JESUS bere etsaiac, bein ANAS ceritzan Eliza-guizon andiaren echera, eta guero, urte hartaco Apez-Nagusi CAIFAS-enera: ta emen iduqui zuten JESUS maita garria urrengo goizeraño.

Gau-erdia cen, guti gorabera, Judu Etsaiac GETSEMANICO Baratzetic JESUS ecarri, ta JERUSALENa, ta Apez-Nagusiaren echera ciraneco; ta hordu berean an arquitzen ciran, dio S. MARCOS Evangelariac, APEZ guciac, ESCRIBAC, edo GUIZON jaquintsuac, eta, Legueco gauzen berria zuten, Zarrac: *Et convenerunt omnes Sacerdotes, & Scribæ, & Seniores.* Marc. 14. 53.

APEZ Jaunac! GUIZON adituac! arrituric bezala guelditzen naz ni gaur, orain nic ecusten, edo aditzen dudana-requin! ZU-etatic gueienac, edo, beintzat anitz, adiñ andi-etaco guizonac, dira. IZAIN dira, bai, zuen artean, erisco, ta erdi-gaizqui dabiltzan, cembait, gurien-gurienean. GAU otza da gaurco gau hau. Gauerdia da dagoeneco ere, edo izain da beintzat gure JESUS, zuen batzarrera horduco.

NORA zoazte, bada zuec, orain, aduintza, edo garai onetan ceren eche-etatic?

GUEREN Legueco Aita-santu, edo Apez-nagusia gana.

CERtara?

BAtzarre char bat, edo Concilia--guiro gausto bat, an beraren echean eguitera?

NOIZ bucatuco da zueu Concilio char, era batzarre nas-garri galdu ori? Eta noiz guero, ori bucatu, ta zuec ceren eche-etaraco zarazte? Ez dituzue zuec cere buruac cupideago? Nombait lan andia da, zuec escu tartean dacartzuen, oraingo lana, ta eguitecoa!

NOLA ere! Jangoicoguizon-JESUS maita-garria galeraci-naia!

OR-

ORRA certara doacen, orrembat, era orretaco, guizon andiren ibillera galgarri, arazo nasi, edo nastu, ta eguiteco!

ZORI onecoac guizon oriec berac, egunen barez oriec eguitera, oraingo beren eguiteco char onez ongui damuturic, bertze orrembertze Jesus bera palacarzea gatic; berarea gogara guero bere gauzac eguiten dituztela, beren gloria, ta Cerua irabazteco: bada, oriec orretan asi horduco, urricalduco zaie berei JESUS maita-garria, ta an bertan emain die beren Cerua zucen irabazteco beharco duten laguntza, ta gracia.

ETA, ori bera zuc ere eguitera, berebat guertatuco zaitzu zuri ere cere JESUS maita-garria-requin; bada, zu len izandu ba-zara ere orien guisan ibilli zaran, Anima charra, edo JESUSen Legue zucena austen, ta urratzen ibilli oi ciñana, cere leneco gaizquiez zuri damutu-horduco, cere alde arquituco dezu zuc cere Jangoico maita-garria.

JANGOICO JESUS maita-garri hau gal-erazteco, billatzen zuten Apez-nagusiac, eta beren Batzarreco beste guciac, cerbait aitzaqui.

Baña gaitz cen, edo ecin guerta citequen, gauza cen, oriec orre-taraco, ongui cirudien, gauzaric arquitzea; etzuen alabaña JESUS maita-garriac eguin izandu bein-ere, onguiac onguien gain, ta ontarte andiac eguitea beste gauzaric.

ALA ere asi ciran cembait gauza char, naspilla, edo batzarre galgarri onetan berac asmatu zutena, erraten; baña, erraten cituzten, gauzac, oriec berac asmatu-ricaco guezurrac ciran; eta guezur, elcarri etzegozcanac, edo elcar galtzen zutenac.

HAU ecusi--horduco, ezagutu zuen Apez-Nagusiac, berac, nai zuenic etzuela emendic ateraco; ta artzen du berac, berez beste vide bat.

GALDETZEN dio JESUS maita-garriari, cer Legue den, JERUSALENen, ta JERUSALENgo bazter-etan eracutsiric utzi duen, Leguea?

BA-cequien, bai, JESUS maita-garriac, certaraco cen, Apez-Nagusiaren galdetze tolestatu hau; bai, ta bere eranzu-era zucenac JESUSi berari ecarrico cion, neque-deshondra ere: baña prest cegoen gure JESUS, gure oneraco behar cen, guci-guciraco; ta erantzun cion Apez-Na-

Nagusi galduari : EZ naz ni ez, zocoz zoco dabiltzan, guiza char ori-etatic.

ELIZAN, aguerian, Judu guciac biltzen ciran, lecuetan, ta, nai zuten, guciac aditzen nindutela, eracutsi dut nic, eracutsi dudan, nere Legue berria; ta, jaquin nai ba-dezu zuc, cer Legue den, nere Legue hau, gald-eguiezu zuc cerorrec, aditu nautenei; ta oriec errain dizute zuri, orain zuc niri galdetzen didazuna.

ECUSTEN dezu cer den, orain JESUSec Apez-Nagusiari erantzuten diona? BAI? BADA ori hari JESUSec erran-horduco, an arquitzen ciran, Mutil, edo Ministro lausen--gari-etatic batec, goititu zuen bere beso tzarra; ta, zuen, indar gucia-requin eman izandu cion Jesus maita-garriari bere arpeguian esc-ucaldi gogor arri-garri bat; hau harc ematean JESUSi berari erraten ciola; ORrela mintzatzen zaquiozca zu, ta era orretan erantzuten diozu zuc, Moysesen Legueco Apez Nagusiari?

GAU onaren beguira zaude zu, JESUS maita--garria, orain zu sartu zaran, eche onetaco sartze berean eguin zaitzun ezquero, guisa ontaco agur bat, edo ongui-etorria!

ITZULTZEN da bertan JESUS, baña bat ere berotu, edo asaldatu gabe, guiza-char ocabil-cari one gana; ta erraten dio: ATOZEA; ta, behar ez den, hitzen bat aditu didazu zuc niri, oraingo nere hitzeguin aldian? LOTSA-gabetu naquio ni, zure Legueco Apez Nagusiari? EDO cer du nere oraingo erantzu-erac, emen arquitzen diranen artean, ez aguertzeco? ETA, aguer diteque-na baldin ba-da hau, edo, nic ez-pa-diot erantzun izandu zure Legueco Apez-Nagusiari, behar ez bezala, cer gatic da, eraonetan orain niri zuc eman didazun ucaldia?

JESUSec hau hari erran-horduco, eguin behar zuquen, Apez-Nagusiac, aldi hartan berari cegocana; ta, gutienean, igorri behar zuquen guiza char hura preson-deguico zocoric illun-enera.

BAñA etzegoen orretaraco, ez, Apez-Nagusia; ez cegoen, ez, JESUS maita-garriari, gaizqui quentzen cioten, hondra, ta ohorea itzul-erazteco. JESUSec zuen, hondra gucia, bere odol gucia-requin batean lemhait-len quendu-naiez cebillen Apez-Nagusia; ta ez-ecusi eguiten cien, orretaraco etziran, gauza guciei, naiz izan citecela, ciran, vide-

videgaberic andienac; eta orrequin guelditu cen JESUS maita-garria aldi artaco bere deshondra-requin; ta deshondra, Apez-Nagusia, ta Jerusalengo Apezen Batzarre, edo Concilio gucia beguira cegozcala, artu izandu zuena-requin.

ETZEN, ez orre gatic mindu batere gure JESUS maita-garria Apaiz-Nagusia gana. BA-cequien, bai JESUSec, nondic cetorquion, guiza-char haren esc-ucaldia; edo ba-cequien gure becatuen aldetic cetorquiola: ta, becatu beren alde, prest arquitzen cen gure JESUS maita-garria, bere arpeguian ezecic, gorputz gucian ere onez artzeco, eman nai ciozcaten, hondra-ez, ta neque guciac.

Erran ciona JESUSec guiza char--ucalcariari, etzen izandu, ez, artu zuen, bere hondra-eza gatic: izandu cen hau gure Legue zucen--garbionaren alde, ta norbaiti iduri etzequion, etzuela bere Legueaz contu ona eman izandu JESUS mai-garriac, contu ori escatu cioneanLegue zarreco Apez Nagusiac.

SIñISTEN dut nic hau, bai, nere JESUS maita-garria; bada orain ere zuc isill-isill daramazquitzu, ta hitzic ere atera gabe, nic, eta nere eraco becatari char galduac ematen dizquitzugun, cere arpeguico gure oben-culpen ucaldiac, edo guc, zu cerori beguira zagozquigula eguiten dizquitzugun, vide gabeac, eta charqueri guciac.

BAñA ez ditecela, ez arren JESUS maita-garria, orrotan guelditu zure oraingo issillerac, eta ema-tasun leunac; edo,nic orain-dañoco nere charqueriez behar den, eran damuturic, vicitz on bat artu gabez, ez nazazula ni zuc cere tribunalean, Leoi baten eraco orroz icaraturic iutzi. EZ, (berriz ere diot) ez arren, ez, JESUS maita-garria, ez.

I.

DIXIT DOMINUS AD SATAN; ecce in manu tua est (Job): *verumtamen animam illius serva.* Job. 2. 6.

JOB Santua galdu-naiez cebillen bein gure etsai galdu amurratua. ECIN eguin cezoquen ecer etsaiac Job Santuari, bere Jangoicoac harran iuzten etzioka: ta gure Jangoico maita-garriac, munducoac ecus cezaten, nondicoa den, Jangoico berac laguntzen diela, guizonac daguiquecna; TO, erraten dio etsai amurratuari; TO, ez dioc vicia cer quendu hic JOB, nere servitzariari, baña

ganeracoan emoc nai duen, edo decan gusian, ta erara; ta ecusico duc nor den JOB; ta JOB onac ni gatic eguiten duena.,

JESUS, ta cer escua Jangoicoac gaur etsai amurratuari ematen diona! Ta cer langarria, etsai gaistoac aldi onetan JOB onaren gain eguin dezaquen, lan-era!

BAI? BADA etsai galduaren aldi artaco lan char guciac, eta, eguin cituen, eguinalac, ecer-ez bat bezala dira, JESUS maita-garriac gaur-danic bere gain arturic daduzcan, lan gogorren, eta neque izu-garrien aldean: artuac daduzca alabaña, Judu gogorrac eguin-ala, ta, sulececo etsai batec ez-ecic, ango guciac eraguin ditzaqueenac ere; bada oriei guciei eman izandu cien gure JESUS maita-garriac, beren lan hau eguiteco, ta, bere vicia JESUSec utzi artean, eraman citzaquen, neque guciac ar-erazteco, escua, ta baimena; ta etsai amurratuac, artaraco zuten, beren escuz valiatu ciran, vali-alean, ta ecin gueiagoraño.

HAU cer da, gure JESUS maita-garria! CERE etsai amurratu galduei emain cenien zuc cere gain, ta contra onembat escu, ta era onetaco baimena? ORREN guti nai diozu zuc cere burtuari JESUS maita-garria? ORREN guchi valio du, zu zaran bezalaco, Jangoico-guizon batec?

BAÑA, ah nere eroeguia! EZ da orre gatic, ez, orain guc ecusten dugun, hau! BERE Aita palacatzea gatic, eta zu, ta ni gal-ez gaitecen da, gure JESUSec aldi onetan eguiten, ta iuzten, duena. HAU gucia, aguitz-egui guri, edo gueiegui naiez bezala, da. ECIN gueiagoraño maite du JESUSec bere Aita maita-garria: ta elcar ongui artzen dugula, edo elcarren maitatzalle onac eguiñic ecusi nai guinduzque bere Aita maita-garria, ta gu naiz dela milla bere nequeren buruan, ta bere vicia emanic ba-dere: ta lan orretaraco da, Jesusen etsaiac duten, aldi onetaco escu gucia.

ECUSTEN dezu? ETA noiz zuc pagatu Jesusi, zor diozun, onembateco bere amorea? ONGUI beintzat, beinere: Ain andia da alabaña JESUS maita-garriaren amorea; ta ain bazterric gabecoa, gure JESUSen gu ganacoamore hau!



2.

2.

FUNES PECCATORUM CIRCUMplexi sunt me, & legem tuam non sum oblitus. Ps. 118. 61.

BECATUen 'socaz loturic arquitzen naz ni gaur, erran cezaquen JESUSec Oftegun santu gau-erdian, ta errain cion bere Aita maita garriari, hitzez ez-pa-cen ere, gogoz, ta bihotzez.

BAI, nere Aita maitea, bai, errain cion; nere Etsaiac asiac dira nitaz eguiten, beren gogo gaistoac adirazten diena! EGUIN dituzte, ni gana etorri-horduco beren becatuzco soca luceac: luzatu dituzte soca berac, orien ondoren mundu onetara etorrico diranen gaista--queriequin: ta emen etorri dira, ni loturic artu, ta JERUSALENgo calez cale, ta Juezez Juez erabilli ondoan, lembaitlen gaista guiñen eran, ta lapur galgarri biren artean ni ill-eraztera. Ori da, bai, orien oraingo asmoa; ori orien oraingo eguitecoa!

BAÑA nere asmo-eguitecoa da, zuc nai dezuna, nere Aita maita--garria, zucen eguitea: ta, ori nic orain eguitea gatic, pozic utzico diet nic nere etsaiei, berac nai dutena nitaz eguiten.

SANSONec bezain aisa; ta aguitz aisago ere urratzaque nic nere etsai gucien locarri guciac; eta ba-nindoaque ni, nic neronec nai dudan, toquira. Baña zuc nai dezuna nic eguin naiez, nere Aita maita-garria, lotu-gueldiric nago ni; ta ni noa, nere Etsai locarri dunen ydez, zuc cerorrec nai dezun, lanera, edo, nere neque-eriotzequin, silececo Etsaien cateac urratzera; ta noa, becatari gaisoen, ta zure artean baque onac oriei era-eguitera; becatari berac ori nai dutela.

ETA nai ote dezu zuc, nere Anima, zure JESUSec, bera loturic dagoela, autí-ditzan zure becatu galduen locarri sendorrac? NAI ote dezu zuc, daguitzan JESUSec, zure, ta, zuc aserre daducazun bere Aitaren arteco baqueac?

AH nere JESUS maita-garria; ta cer naico dut nic, ori nic nai-ez izatera? NAI dut bai, nere JESUS maitea; ta ciñez al ere.

EGUIZU zuc orrembat, nic zuri zor dizudan, cere amore andia gatic; eta ori zuc gaur nerequin eguitera, ematen dizut hitz osoa, ez dudala nic berriz becatu berrien

mM so-

ſocac, edo locarriac eguiten hari behar. LEN ni orretan haritu izanduaz dut orain damu, ta urriqui; ta eſcatzen dizut, len nic zu gandic artu ditudan, ambat ontarteren gain oraingo hau ere; edo nic nere becatuen ſocaz zu lotu zaitu-dalaco damu andi bat, eta ciñezco urriquia; ta eſcatzen dizut, hau ucatuco ez didazulaco uſtean. Ez ucatu, bada, nere JESUS máita-garria; ez arren, ez.

3.

PROTECTOR NOSTER, ASPICE, Deus, & reſpice in faciem Chriſtitui. Pſ. 83. 10.

AITA Eternoa! ta cértan zaude zu Oſtegun ſantu gau onetan ecuſiac ecuſiric ere, JESUSen alde deus bat eguiten ez dezula? ECUSI dezu zuc JESUS maita-garriari Judu gogorrac gau onetan eguiten diotena? ECUSI dezu zuc, JESUS maita-garriari, GETSEMANIco Baratzetic aſi, ta JERUSALENgo Eliza-guizon andiaren eche-rañocoan Judu gogorrac ar-eraci dioten, pena, ta naigabea, ta al-ere ez diozu zuc eſcuric ematen, edo iuzten dezu zuc bere nai-gabe, ta neque gucien artean! BAñA (ah nere JESUS maita-garria!), eche orre-tarañocoac deuſ-ez bat bezala dirudite, eche berean zuc arquitzen dezun, vide-gabe char guztiz itſuſi baten aldean.

ERANZUTEN diozu zuc Eliz-guizon andi onen galdetze bati, Jangoico-guizonac bezala, edo ecin-zucenago, ecin-ederquiago, ta ecin-obequi: ta al-ere, hitzquetan ez daquien, guiza char motel-alque-gabeco baten eran eranzun ba-cenio bezain gaizqui, ta gaizqniago zarabilzte zu orco guizon andi gucien beguietan: bada, or arquitzen diran, guizon andietara bat-ere beguiratu gabe, urbiltzen zaitzu, zuc hari era orretan erantzutean, an bertan arquitzen diran-etatic guiza-tzar, edo mutil lotſaric gabeco bat: eta ematen dizu bere eman-alean zaplada gogor arri garri bat cere arpegui Jangoico-guizona-renean.

EZ dezu zuc ecuſten hau gucia, JESUSen maitari on, ta Aita maita-garria? BEGUIRA; beguira eguiozu ongui; ta contuz Jeſuſen arpeguiari! AGUERI zaio, bai, nola emau dioten oraingo eſc-ucaldi guztiz arri-garri hau, ta cein aldetan! ECUSTEN dezu? BADA, cein ere andia den, guiza-tzar onen oraingo eſc-ucaldia,

dia, esc-ucaldiac ar-eraci dion gaitza, ta miña, ta oñace gucia baño, aguitz-eta aguitz andiagoa da, JESUSec aldi onetan dacusan, alque-quizuna, ta bere barreneco nai-gabea: ecusten du alabaña hondra-ez ecin andiago hau, JERUSALENgo Concilioco guizon andiac beguira dagozcala, ta orien placer, ta atseguin andia-requin.

ETA al-ere etzara ateratzen zu, gure Aita eternoa, cere Seme-on-eder-Jangoicoguizon JESUS matia-garriaren alde? ETA al-ere uzten diozu zuc, Aita eternoa, dagoela JESUS, daraman, adiña lotsarequin, ta bere etsaien atzapar-etan?

GAUZ-arri-garria? BAI izandu ba-da bat, Ceru-lurrac zuc cerorrec eguin cenituen ezquerozco dembor-etan!

NORC onembat gogortu ote cituen JESUSen Etsaiac? Norc eman ote cion ambat indar guiza-tzar haren escu ciquin-beltz-itsusuari?

NORC, baicic zure, ta nere gal-garri bion becatuac! HAU onela ez izatera, edo JESUSec artu ez-pa-lu bere gain gure becatu-tzar galduen zor gucia, nola utzico zuen Aita eternoac bere Seme JESUS guiza-tzar ocabil-cari haren escupean, ta Judu gogorren gogara?

EZ dut bada nic, ez cer queisatu, nic, nere naiez eguin ditudan, nere becatu ciquiñez baicic. ORIEC dira alabaña oraingo bere nec-aldi andi-alquetsu hau JESUSi areraci diotenac; eta zori onecoa ni, secula gucian oriec berac necarazten ez--pa-naute ni, lurraren erdico sulecean!

EZ naute necatuco an ez, nic ciñez, ta behar den, eran escatu ezquero nere JESUS maita-garriari, nic nere becatu oriequin eman diodan, alque-quizunaren, ta nere vicico charqueri gucien barcamentua; bada, hau nori--nai harc emateco, ez du Jesusec ori besteric escatzen; ta ciñez, ta behar den, eran escutuco diot nic, era berean hitzez, ta bihotzez erran ezquero: *NERE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.*

LIV.

LIV-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSen GAIN EMAN CEN, LEMBICICO SENTENcia; ta sentenciari dichezcon, JESUS beraren neque andiac.

§. I.

ECIN MACURRAGOA CEN, JUDUAC JESUSen gain eman izandu zuten, lembicico sentencia.

CAIFAS-Apez Nagusiac, eta gañeracoac etzuten arquitu beren testigu cirtzillguezurtien hitzetan, JESUS ill-erazteco videric bat-ere.

VIDE hau idiro naiez, izandu cen orien Batzarrea, edo Concilioa; ta, alderdi hartatic ecin zuenean, besteren batez ba-cen ere, vide bera arquitu naiez, erraten dio CAIFASec JESUS maita--garriari: JAUNAren lecuan nagoenac bezala galdetzen dizut nic gaur, ta errazu zuc emen, emen bertan arquitzen diran, guciac aditzen zaituztela, zu zaran, edo ez, Christo, Jangoicoaren seme bedeicatua.

BAI; erantzun cion JESUSec CAIFASi: bai; zuc diozun, ori bera naz ni.

BAñA, cequienac bezala, certaraco cen, CAIFASen era hartaco galdetzea; ta adiraztea gatic JESUSec CAIFAS berari, ta gañeraco an arquitzen ciran, guciei, JESUS beraren horduco aitormena gatic, eman ynai zuten, sentencia gaistoaz eman beharco zutela contu munduco gucien beguietan, aitormen oni cichecola erran izandu cion JESUSec berac: NAzanac bezala diot, eta egui garbia: ECUSICO dezue bere demboran zuec, guizon hau jarriric Aitaren escoieco aldean, ta nola datorren Ceruco odei etan; edo ecu-

ecusico dezue, dagoen, eran orain egona gatic, zuen arte-an arquitzen den, ta guizon utsa dirudien, hau, nola etorrico den odei gañean, Aitaren escoteric arquitzen dena bezala, Jangoico-guizonaren escu gucia-requin, zuen, ta gañeraco gucien contuac artzera. Maldonad. in Matth. 26. 64.

HAU cen aldi artan JESUSec CAIFASi, ta bere lagunei erran izandu ciena. BAñA etzeuden JESUSen erran onac aditzeco CAIFAS, ta gañeraco Judu gogorrac: eta, guerocoari bat ere beguiratu bague, lotu cequizquion JESUSen erantzute utsari; ta, atseguin andia-requin guelditu cen CAIFAS, ceren idaroqui cion JESUSi, cena cela, edo Aita Eternoaren seme bacar-Jangoico-guizona; eta dembora berean, damuz erdiratzeco, eran arquitzen bai-liz bezala, urratu zuen bere soñecoa, ta erran izandu cien bere Batzarreco, edo Concilioco lagun guciei: aditu dezue, guizon onec diona. ADITU dezue onec orain, guc gucioc aditzen dugula, eguin, edo bota duen, blasfemi arri-garria! Cer da bada orain guc, aditu hau aditu ondoan dagui-quegunia? Vicia quendu, eranzun cioten, an arquitzen ciran, guciac: *qui omnes condemnaverunt, eum esse reum mortis.* Marc. 14. 64.

ORRA cer sentencia, gure JESUS maita-garria, cere etsaiac orain cere eguia gatic eman dizutena! BECATU andia deritzate zure etsai, guezurrez dabiltzanac, zuc diozun, eguiari. GURE Jangoicoa zarala zu, ta Jangoicoaren Seme, gure gucien oneraco, guizon eguiñ izandua, ecin siñistatu dute, edo ez dute siñistu nai niola ere Judu gaistoac.

BERAC ala nai izatera, erraz asqui, ta aisa ecus lezaquee, orain oriec zure ahotic aditu dutena dela eguizucen garbia, ta ez besteric; bada asqui luquee oriec orretaraco, zuc, beren beguietan, eguin dituzun, gauzei zucen beguiratzea: zu zara alabaña itsuei ecustea, eriei osasuna, ta illei vicitza eman oi ceniena, ta era onetaco beste anitz gauza on eguiten cenituena; ta eguiten cenituen zuc cere gauza, ta eguiteco andi oriec Juduen beguietan, edo Juduac berac cequitela: ta oriec, oriei ongui beguiratzera, ezagutuco zuten, Jangoico-guizonaren

ren gauzac cirala zure gauza guciac; eta zu ciñala, CAIFASec cion, Christo bedeiçatua, ta zuc cerorrec aitortzen cenuen, Aita Eternoaren Seme-Jangoico--guizon eguiazcoa.

BAñA itsutu cituzten Judu gogor--tzarrac beguiac, zuri gaizqui naiez, ta zure gauzei ez ongui beguiratzea gatic: eta guciac diote; ta guciac batean: Blasfemaria da guizon hau, ta ill beharra, naita ez: *reus est mortis.*

ECUSTEN dezu zuc hau, gure JESUS maita-garria? ECUSTEN dezu, cer den, zure gauz onac ez ecusteco, itsucor eguiten diran, Judu gogorrac diotena? ORI, badabeldur naz ni, ez dirala oriec guelduco, ez, berac erraten dutena bucatu artean, ta urzico zaituztela zu (ta laster al-ere) beren sentencia macurgalduac erran duen eran, edo ill-otza, ta viciric bague.

AH! nere Jesus maita-garria, ta zu cere eriotz gogor orren ortzetan guelditu baño, len zure beguira dauden, gauzac! CEIN arri-garriac, gau onetan berean zuc ecusi behar dituzunac! UQUITUZ bad-ere, goacen ecusteta oietatic bat, edo beste.

§. II.

SENTENCI HAU EMAN-HORduco, asten zaizca JESUSi listuca; ta lotzen diozcate bere beguiac.

ERIOtzeco sentenci-gogor zucen-ez hau eman-horduco, asi cequiozcan JESUSi bere etsai gaisto galgarriac, eta ango guiza-charrac, norc daqui, cembat charqueri-requin.

LENDA--bicico, etsai oriec JESUSi eguiñ-icaco, charqueria cen, S. MATTHEO Evangelariac dionaz, etsai beren listuca ciquiñ bat; *Tunc expuerunt in faciem eius.*

CINQUINTZEA bati bere aurpeguia tuz, ta listuz, nonnai, ta edocein bazterretan alque-quizumezco charqueri loilizuna da; baña Juduen, ta Israel-darren artean (horduan beintzat), beste bazter-etan ere baño charqueri loiagoa cen, ta aguitz lizunagoa; ta, gueiago baño, gueiago JESUS alqueraci naiez, asi cequiozcan Judu gaistoac, (eta aguian Apezetatic ere cembait badere-bai) JESUSi listuca; ta listucari gucien artean laster listuz beteco cioten Jesusi bere arpeguia: ta JESUS maita-garriaren arpeguia ichura char harran ecusi horduco, aviatuco ciran lis-

listu-lariac berac, eta orien lan char hau ecusten zutenac igiajaz, ta irriz, ta hista, ta burla.

ECUSTEN dezue zuec, Jangoicoaren Aingueruac, certara duten gure JESUS, JESUSen etsai--Judu--gogorrac? ORRA, bada, orra, cer eran iutzi dizuten, bere eder-tasun andi bazter--baguecoa--requin zuec liluratzen zaituzten, JESUSen aurpeguia! ORRA zuec beti ta beti ecusi nai dezuten Jangoico-tasun guci-guciaren ispillu ecin-ederragoa!

CER deritzazue zuec, Aingueru onac; cer deritzazue? Utzi ote diote Judu gogorrac, JESUS maita--garriari, cegocan eran, bere ispiliu eder arpeguia?

EZ, baicic ecin ciquinduagoa, ta ecin era, ta ichura char-agoan. ONGUI, Aingueru onac; ongui, ta ecin garbi cenezoque zuec ceroc ceren escu leun-zuri-eder-equin?

EZ ote da mundu gucian arquituco, zuec ceren lan orre-taraco beharco dezuten, adiña ur, ta escu-oial, eun mee, olanda, ta ruan?

BA-dira, bai zuec lan hau, eguin litequen era zucen batez eguiteco beharco liran, ur, ta oial guztiz egoquiac; eta pozic zuec billatuco cenituzquee, Jangoicoaren Aingueru onac, eta, oriez zuec valiatuz, edo orrelacoric bat ere bague, ta aisa asqui, site, ta laster quenduco ceniozquee gure JESUS maita-garriari Juduen listu, ta carcais ciquiñac, JESUSec ori, ta JESUSen Aita eternoac ala nai izatera.

Baña Aita eternoac ora-in bere Aingueru on-etatic nai duena da, arrituen eran, oriec JESUSi beguira-beguira egotea, guc becatari gaisooc ecusi dezagun hastiz, ongui, ta contuz, norenac ote diran carcais, eta listu oriec, edo oriec adirazten duten, loia, ta ciquinqueria; gureac dirala, guc gueroc ezagutu ondoan, gueren bi begui--etaco negar beroequin, ta damu onezco oial zuriz JESUSi bere arpeguitic quentzera eguiteco.

BAñA cer loi ote da loi ciquin, JESUSen arpeguia onembat lizuntzen duen, loi liquits hau?

CER loiac, edo nondic datocen loi-erac ote dira gure JESUS maita-garriaren arpeguia, era onetan lizuntzen duten, loi liquitsac? GURE hitz arin-etatic, gure canta, behar ez bezalaco galgarri-etatic, gure lausenga, ta ele ero-etatic,

gure marmaria muquer-etatic, gure errierta ſutu-bero-etatic, gure ciñ, eta juramentu guezurti-etatic, gure maldicione, otoitz gaiſto, ta erregu errebeſ-etatic, eta, behar ez diran, gure erauſi-ero galdu guci-etatic datocenac.

ERA onetaco, ta beſte gure becatu guciac dira, bai, gure JESUS maita-garriaren arpegui ederra loitu zuten, carcais ciquin, ta liſtu galduac: eta gure becatu berac dira, guc gueren ciñezco damuz, ta urriquiz, ta JESUS maita-garriari eſcatuz, gu gueroc guero galduac ez izateco, quendu beharco ditugun, carcais-liſtuac.

ETA ori da gaur bertan gu gandic Aita eternoac nai duen, JESUSen arpeguiaren garbi-era.

ETA oraingo bere nai onetan nai ote du gueiegui, bere ſeme JESUSen Aita maita-garriac?

GARBI-era onetaco lanera zu ſaiatzeco, beguiraeguiozu zuc cere JESUS maita-garriari; ta ongui ohartuz, ta haſtiz ecuſi zazu, orrembat carcais, ta liſturen artean JESUS maita-garriac eguiten duena; edo ecuſi zazu, carcaiſac carcaiſen gain bere arpeguira JESUSi Judu gogorrac aurtiquia gatic, ez duela JESUSec bere aurpeguia bat ere baztertzen.

ECUSI zazu, era onetaco JESUSen egoerac nai-taez lotſatzen cituela liſtulari, ta carcaiſguin Judu gaiſtoac; eta oriec, bere alque-quizun, ta lots hau ez ecuſi naiez; ta, berac nai bezala, ta alquequizunic bague JESUSi eguitea gatic, era bereco, ta beſte berac aſma-al adiña hiſta, ta charqueri, trapu-tzarrez, edo berac cequiten, eran, eſtali ciozcaten Jeſuſi bere beguiac, *ET cæperunt quidam conſpuere eum, & velare faciem eius.* Marc. 14 65.

AH Juduac, ah Judutzar ero-itſuac! ZUEN liſtu, ta carcais ciquiñac eſtaliac da duzcate, bai (ta ongui al-ere JESUSen begui ederrac. BESTELA ere lurrera beguira dago JESUS, ta bere betazal bat ere illuntzen ez dizutela; ta al-ere lotſatſen zaituzte zuec JESUSen begui ederrac; eta, lotſaric bat-ere, bague eguin naiez gogo-gaiſtoac ematen dizutena quendu nai dituzte zuec ceren beguietatic JESUSen beguiac, eta ezartzen diezue, gogoac ematen dizuten, edo zuec ceren eſcu-tartean ar-

arquiten dezuten, estalquia!

GALDU zoratuac zuec; eta aguitz al ere! Jangoico-guizona da JESUS maita-garria; ta zuec orain, ceroc nai dezuten, eran estali arren, guizon-Jangoico onen beguiac, berequin ditu JESUSec Jangoicoaren beguiac, eta Jangoico beguiz beguira dagoca, zuec eguiten dezuten guci-guciari; ta, zuec nai, edo ez, ecusico du JESUS maita-garriac, zuec eguiten dezutena; ta orain issillic ba-dago ere, emain dezue bai, JESUS orrec berac bere demboran, zuen gaizquiei dagoten, pagua: ta ah cer pagua!

ETA ona nic nere JESUS maita-garria; ona non dacusadan nere orain-dañoco, ta Juduenaren eraco, itsumentu nere galgarri ber-bera!

ZOCOAC billatzen nituen nic, ni gaizqui nembillen, demboran, nic nere ciquin-queriac nere gogara, ta lotsaric bague eguiteco. GAVAren beguira nengoen ni, nic neronec daquidan eche hartan sartzeco, nic daquidan, ha-requin an hitzquetan, ta, behar ez den, eran egoteco: ta, nic emengo gendeen beguietatic nere ebasteac, nere lapureriac, eta beste nere gauza gaistoac gorde, edo estali ezquero, ez nuen beldurric batere: lotuac ceudela, neritzan nic, zure begui guciac; eta ecin ecuscezaquela hordu hartan nere Jangoico begui--dun ecusle ederrac ere, aldi artan nic eguiten nuen, gauzarie bat ere.

AH, baña! ah, ta nere galdu-eguia, nere leneco gauza gaistoac, confessatuz, urratu ondoan, eguiten ez-pa-ditut nic nere gaur-gueroco gauzac, daquidanac bezala, etzaiola nere Jangoicoari gordeco bat ere, diran gucietatic, eta ori-etatic bacoitzari beguira dagocala, mundu gucian besteric ez-pa-liz bezala, ta ecin arguiroago.

§. III.

EMATEN DIOZCATE JESUSi bere arpeguian esc-ucaldi gogorrac; eta eguiten diozcate hista, ta burla izugarriac.

BERE bi beguiac JESUSi Judiac estali--horduco, aviatu ciran JESUSen Borreroac: *COLAPHIS EUM CÆDERE* (ibid.) escucaldica JESUSen aurpeguian; edo aviatu ciran batac baretic, eta besteac besteric behar-ondococa, ocabilca, zapladaca, ta, sulececo-

ac, JESUSen ettai berei adirazten cien, alde gucietara JESUSen arpeguia cera-biltela.

ONGUI; ta, nola guelditucо ote cen urrengo bigaramuneco JESUSen aurpeguia? CEIN anditua? CEIN ustel-iduria? Ta cembat oñacerequin?

EGUNEN batean hau gucia guri adiracico zaicu. ETA vide-nabar egun hartan berean adiracico zaicu, etzirala izandu ez Juduen escu utsac lan orretan haritu ciran, escuac; edo, Juduen escu gogor-equin batean, an haritu cirala, bai, zureac ere-

BAI, bai; an haritu *ciran zure escuac ere*, becatari char, JESUSen neca-garria, ta cere buruaren gal garri gaistoa! AN cebiltzan, bai, zure escuac ere, edo zure becatu loi-tzar ciquiñac, gure JESUSen begui-etan, ta beraren arpeguian; bada zuc gueroz eguin izandu dituzun, escuca ciquiñac, uquitze loiac, erabiltze lizunac, eta, zuc cerorrec daquizquitzun, lan liquits-itsusiac, ebaste gaistoac, eta gañeraco zure vide-gabeac, ecusten cituen aldi hartan JESUS maita-garriac, Juduen, ta Gentil arroen escuca gogorrac, bezain ongui, ta nai-gabe andia-requin; eta oriec guciac Judu gogorren escu-equien batean naigabez aguitz betetzen cioten JESUS maita-garriari bere BIHOTZ gucia.

CEREN lan gaisto hau eguin baño, len erreac guelditu behar cenuzten, Animaco nere escuac, orra cer eguin dezuten zuec ceren lan macur gal-garri gaisto-equin! EGUNEN batean ecusico dezue, bai, zuec, ceren cein galgarriac ciran, era orretaco zuen ibillera gaistoac! JANGOICOac barca ditzaquidala guci-guciac niri, an oriec nere alquequizun-eraco guertatu gabe!

ARRATS onetaco JESUSen anitz nequetatic bat izandu cen, orain-dañocoan guc ecusi ditugunac bezain gogorra, eta arrigarria; izandu cen alabaña, JESUSec eraman cezaquen, saietsic mimbere-eneean ceraman nequea, edo neque hondraren contracoa.

ECUSI ditugun, charqueriac, eta beste beren lan gaistoac eguitean, erraten cioten JESUSi Judu gogorrac: ORAIN ecusi behar diegu, nor hazan hi; ta, guc hiri here beguiac ongui lotu, ta estali, ta ere, ote daquien hic, guertatzen zaiena: edo ezagutzen ote duen hic, nondic dator-

quien

quien hiri here naigabea: EA, erra-guc, Christo, erra-guc, norc ematen dien oraingo nere esc-ucaldia: *Prophetiza nobis, Christe, quis te percussit?*

ETA, errate ciquin oni guti eritziric, erraten ciozcaten, dio San LUCAS Evangelariac, beste anitz hitz gaisto, ta blasfemia ere: *et alia multa blasphemantes dicebant in eum.*

CER blasfemiac ote ciran, aldi hartan JESUSec aditu cituenac?

EZ aditzeco obeac? JESUSen etsai gogor-Judu gaistoen ez-pañ-eratic; eta ezpaiñ, sulececo amurratuac suturic ceduzcaten batzu etatic atera citezqueen, bezalacoac; iraz, ta izurriz, ciranac beteac; eta aditzen cituen, edocein icara, ta arrituric utzi cezaqueenac; baña, an arquitzen ciran, guciei atseguin andi bat, eguiten cietenac.

ORRA bada, JESUS maita-garria; orra cer opioneean zaduzcaten zu, cere Erritar, edo Erreinutar Judu gogorrac! ORRA oriequico zuc cere miracullu, ta orien beren on-eraco eguin izandu dituzun, gauz--andi--chiqui guciequin, eguin dezun, irabacia!

GUIZON ori-equico guezurti andi bat zara zu, ta, cere eicuetan dacartzuna ere, ezagutzen ez dezun, guizona.

BLASFEMARI arri-garri bat zarala zu, diote orien arteco Apezac; eta orre gatic, viciric ecin gueldi zaitezquen, guizona.

ORREtan berean daude orien lagunac; eta, lembaitlen gucien artean ill-nai zaituztela, dirudi; ta, berac nai luqueen, lan char itsusi galdu hau eguin artean, or zarabiltzte carcaisca, listuca, ocabilca, golpeca, ta hista, ta hista.

NONBAIT gauza char guztiz galdua zara zu orien beguietan, gure JESUS maita-garria?

ETA nereetan nolacoa izandu ote zara orain-dañocoan, nere JESUS maita-garria? JANGOICO-guizon guzriz erresperatua? ONGUI, zucen, bihotzez, ta behar bezala beti nic maitatu-ricacoa?

EZ ote naz gorde ni bein ere zure beguietatic, nere gauza char cembait eguitera?

EZ ote dizut queñatu nic noiz, edo noiz nere escu loi galdu-ciquiña-requin? ETZEN nic zuri escuz queñatzea nere escu-tzar loi ciquiñez urratzea, urratu dudan, eran zure seigarren Mandamentua, edo zure Legueco-etatic

tic beste edocein Mandamentu?

QUEñATU ez-ecic, escuca ere eman dizut nic zuri, bein baño, gueiagotan, ta becatu larriren bat eguiten nuen aldi-oro!

Ez nuen nic horduan erraten, ez, erran cenezala zuc baldin ba-cenequien, norena cen, horduco nere becat-ucaldia: ba-nequien nic, bai, bai cenequiela zuc, norc emana cen, zuc horduan artzen cenuen, nere ucaldia, edo golpe lotsa-garria; ta ar gatic, zuc nai izatera, onda nintzaquezula ni beti-ta-betico sulecean.

BAñA ez nuen orretara beguiratu nai nic; eta estaltzen nituen nic nere beguiac, zureac ecin estal-nitzaquela, nequienac bezala; ta, ecusten ez duen, itsu bat ba-cina baño, gueiago zuri beguiratu gabe, ematen nizun nic zuri, eman alean, edo eguiten nuen nic, nere gogoac eman oi cidana, naiz cela ori, zuc nai etzenuen, gauzaren bat, edo naiz cela izan citequen, gauzaric itsusiena, naiz cela nolacoa nai.

ETA ai ere ifsillic beti zu, nere JESUS maita-garria: ta al-ere beti niri ongui naiez zu, ta nondic niri, emeemequi zu nerequin ibilliz bacen ere, ar--eracico cenidan nere gaizqui gucien urriquimentua, ta vicitza berri on bat eguiteco asmoa!

AH! eun-etan, ta nic ecin asm al adiñ-aldiz bedeica daquiola zure BIHOTZ humill on-maita-riari!

NORI etzaio damutuco, zu bezalaco bati, nic nere naiez eguin dizquitzu-danen, eraco charqueriac eguin ez--quero?

NIRI beintzat nereez damutu zait; eta ciñez al-ere: ta berriz, era bereco, edo beste char-queri-etara baño, len eguin nezaque nic, ez-daquit, cer; ta eguiñen dut gaur bertatic, len eguiñen alde, zuc ni gandic nai dezun, edocein gauza.

ERRAZU zuc orretaraco, cer gauza den, nic eguin beharra; ta lagun zaquizquit eguiten, lenic ematen didazula, leneco nere utsen barcamentua, ta cere gracia: bai arren, bai.

I.

POSUI ORI MEO CUSTODIAM, cum consisteret peccator adversum me: obmutui, & humiliatus sum, & silui à bonis. Ps. 38. 3.

GAUZ-arrigarria gaur guri gure JESUSec DAVID-

VIDen ezpañez erraten, edo adirazten diguna! GUILTZAtuac ba-leude bezala, daude gaur, dio JESUS maita-garriac, nere bi ezpañac, nerequin gaur, gogoac ematen diena nere etsai gogorrac eguin, ta ere!

ORRA cembat listu, ta loiqueri ditudan nic gaur nere aurpeguian! Judu-tzar gogorren bat ez izatera, ecin beguiratuco dit niri gaur, ni nagoen eran, alquez bera, lotsaz, ta negarrez beteric guelditu gabe Judu-tzar gogorrac; eta Judu, ni beren ahoz, ezpañez, ta mihi lizunez era onetan iutzi nautenac dira, niri beguiratzetic atseguin andi bat artzen dutenac: eta, atseguin berriac, eta andiagoac artu naiez, listu, ta listu niri hari zaiz quidanac!

DAGUITELA ni gatic, berac nai dutena. NERE naiez, ni mututuric bezala, ta issill-issill arquitzen naz, oriec beren lan lizun onetan asi ciran ezquero; ta, nai duten, horduraño haria gatic oriec, ez dut hitz-eguin uste orien gain ez eta nere alde ere. HUMILLhumill egoteco asmoan arquitzen naz ni, ta hitz bat atera gabe, nere neque loi natsgarri onec irauten dueño: hau datorquit alabaña munduco becatuac gatic; eta orien alde nai dut eraman nic nere betico Aitaren icenean, hau gucia, ta gañeraco, nere Aitac nai duena.

Ay JESUS maita-garria; ta zuc ni gatic daramazun, nequea! ETA cein isillic! ETA cein emequi! ETA cein bihotz leun-garbi-maitatzallea-requin!

HAU gucia zuc, (eta era onetan) nere becatu ciquin galduac gatic daramazu; eta al-ere becatu berrietan ni!

NOIZ utzico ote ditut nic betico, ta arras nere becatu guciac? NOIZ artuco ote dut nic vici-era berri on garbiren bat, edo beste? ETA noiz asico ote naz ni, nere Jesus maita-garria, zure ondoren, ta, gueroz nic, izaten ditudan, nere nai-gabeei begui onez beguiratzen diedala?

EZ ditut artuco nic ere nere obenen alde, ta zure icenean, JESUS maita-garria, nere lagunen beguitarte gogorrac, esquer-gabeco lanac, eta gañeraco charqueriac?

BAI JESUS maitea, bai, nere lan on onetan zuc viciro laguntzen ba-didazu. LAGUN zaquizquit bada vici-viciro, guztiz bortizqui, ta cere indar andia-requin. Bai arren, bai.

2.

2.

OCULI DOMINI MULTO PLUS lucidiores super Solem, circunspicientes omnes vias hominum.

EGUZquiaren beguiac begui arguiac dira: baña gure Jaunarenac aguirz arguiagoac.

EGUZquiac ez du ecusten, edo bere arguiz uquitzen ez du Eguzquiac, gordeac dauden, gauz-etatic bat ere; ta gauaz, ez-pa-liz bezala, da Ceruco Eguzquia: baña, egunaz, bezain ongui ecusten du gure Jangoicoac gavaz ere; eta lurpean, edo non nai gordeac dauden, gauzac ere ecusten ditu lur gañean, ta toqui aguerian arquitzen diranac bezain ederqui, zucen, ta claro: bai, ta, nere gogoratzen diran asmo, ta oroitzapen, edo pensamentu guciac ere.

EZ da Ceruan, ez; ez da lurrean, ez; ez da nion ere, ez, gure Jangoicoac ez dacusan, gauzaric bat ere, den chiquiena izan dedilla, edo edocein eratacoa Ceruco erpin-etic lurraren ondorañocoan arquitzen den, gauz hau. ETA gauza guciac ecusten ditu batean, ta bein ere bere beguietatic iutzi bague, gure Jangoico maita-garriac.

HAU gucia ba-daquit, nic, nere fedeac niri, edo nere siñiste onac eracutsiric; eta onelacoric ez-pa-nequi, bezain arin ibilli naz ni nere Jangoicoaren iguesca, gordeca, ta ciquinqueri-etan, ta, gogo galduac niri eraguin dizquidan, nere lan gaistoetan; edo ibilli naz ni, orain--dañoco nere oben-culpetan, niri nere Jauna beguira cegoquidala, oroitu gabe bezala: ta dembora berean ibilli naz ni, ongui oharturic, eta norbaitec ni nere lan gaistoetan ecus nintzan, beldur andia-requin!

AH ni, JESUS maita-garriaren begui-ederrac estali cituzten, Judu galduen laguntzar eroa! ALQUEtzen, ta lotsatzen uaute noiz-nai lurreco guizonen beguiac ni, gauza char gaisto bat eguiteco, gogoac niri eman horduco; ta eguiten ditut nic, era bereco anitz gauza ere, nere Jangoico ecusle andia beguira dagoquidala; ta orre gatic batere lotsatzen, ta alquetzen ez nazala!

EGUNnen batean aguertuco dira, bai, munduco gucien beguietan, orain oriei gordea gatic nic, nere Jangoico maita-garriac ecusten dituela, nic neronec eguiten ditudan, ciquin-queriac!

AH

AH cer lotſac! AH cer alqueac, hordu hartan nic orien beguietan ecuſi beharrac, orain nic damuz, ta negarrez ez garbitzera, ciquin-queri berac niri ambat, eta ambat loitu didaten, anima, guero hau garbitu ondoan, ni vicitzeco, nere Jauna beti beguira dago-quidala, daquida-naren eran!

3.

DABIT PERCUTIENTI SE MAxillam: ſaturabitur opprobrijs. Thren. 3. 30.

ARRIturic bezala, beguira cegocan JEREMIAS Profeta, Oſtegun Santu gauaz JESUS necacor--maita--garriac cemanari. BAñA cein ere arrigarriac ciran, aldi hartaco JESUSen nequeac, nequeac berac baño ere, aguitz gueiago arritu zuen Profeta, JESUSec, bere neque-etan zuen, nequeen eraman-erac; eta, hau guri nola-ere-bait adiraci naiez, ta eguin gaitecen gu gueren JESUS ona-requico eſquer-dau onac, erraten digu Profeta berac:

ECUSTEN dezue zuec ceren JESUS maita--gurria? ECUSTEN dezue, cembaten artean arquitzen den gaur zuen JESUS; eta nolaco guizonen eſcu-gogor-galdu-ciquiñetan?

BEGUIRA; beguira, dio Profetac; nola darabilten! ESCUCA Juduac, eta ocabilca lertzear diote JESUS maita-garriari bere aurpeguia! ETA al-ere matrall bata zaplatzen diotenean, ez du eſtaltzen beſtea; ez-eta hura bera ere. Preſt-daduzca JESUSec biac, eman nai diozcaten, ucaldi guciac artzeco: ta artzen ditu, norcdaqui, cembat, hitz bat atera gabe, ta naigaberic eracuſten ez dueſa!

HAU ecuſteco, dembora berean ecuſten ditu Profetac, JESUSi bere eſſaiac erraten diozcaten, hitz gaiſtoac, eleac, baldanqueri dongueac, eta blasſemiac: bai, ta oriec guciac nola, ta cer eran JESUSec artzen dituen ere, ta hau gucia guri harc adiraci naiez:

ARA, dio, ara cembat gauz-loi-arri-garri aditzen dagoen, Jangoico-guizon JESUS maita-garria. ARA iſsillisillic dago JESUS; ta dembora berean dago guztiz erne, ta aguitz ohartua, eguiten zaizcan, ambat vide-gabetaric bat, edo bertze gal-daquion beldurrez bezala, ta egarti, edariz aſetzen dagoenaren, eraiain vorondatez, ta ambat bere naicunde-requin artzen ditu JESUSec gure zorren alde,

pagu-gai oriec guciac; diranac dirala, izanic ere, Ceru-lur-etaco guciac asm-alac, bezain izngarriac, eta aguitz ere izugarriagoac.

ORRA guizonac (erran nai digu JEREMIAS Profetac, ecusten duenaz arritzen denaren hitzqueta-requin); Orra guc, eta mundaco guciac JESUSi zor diogun, amore bazterric baguecoa! GURE zortzar andien alde dira, ta bere Aita gu gana palacatzeco JESUSen oraingo naigabe, ta neque guciac!

CEIN andia den, guc onetan gure JESUSi zor diogun, ongui-naia! GU bezain gauza char erreges galdu bazuec gatic onembat JESUSen neque-ta-neque!

OSTEGUN Santu gau gucian gure JESUS maita-garria bein Apostolnen oñac garbitzen, bein, ta berriz, ta irur--garren aldian oracioan, otoitz luceetan, ta odolez icerdituric!

ANDIC laster, Soldadu gogor, ta Judu gaistoen milla ucaldi, ta golperen artean, ta orien beren ostico pean, soquetan, ta arrastan!

URRENGO eguna arguitu artean batetic beitera JESUS bera, beraren etsai gaistoei gogoac ematen dien, eran, ta bezala; ta JESUSi berac lecu gucietan hista, ta listu, escualdi, ille-tira, ta ecin contal adiña gaizqui, ta blasfemia!

HAU gucia darama gau hartan JESUS maita-garriac guri ongui naiez. HAU gucia darama, gure zorren alde, ta guri berac eracustea gatic, ordañez guc gure JESUSen amoreac gatic eguin behar duguna, nequetan gu, ta gueroc nai ez bezala arquitzen garan, aldietan.

EGUITEN ba-dugu guc edo issil-issillic, asaldatu gabe, ta gure JESUSen icenean artzen ba-ditugu guc, guri andic, edo emendic datozquigun, nequeac, izan dugu guc JESUSen irabaci andi-etatic gueren zorrac ateratzeco diña, ta secula gucico gloria.

ALA guc oriec artzeco, goacen berari gaur humilqui escatzera lenagoco gure utsen barcamentua, ta uts berriric ez eguiteco gracia, hitzez, ta bihotzez erraten diogula: *NERE JESU-CHISTO, &c.*

LV.

LV-GARREN OTOITZGAIA.

OSTIRAL SANTUZ LEMBICICORIC JESUSi guertatua, ta Judasen urca-era.

§. I.

ILTZECO SENTENCIA BI-GARREN ALDIAN EMANIC, ba-daramate Juduac JESUS Pilatosen escura.

JUDU gogorrac erne cebiltzan, bai, JESUS maitagarriari lembaitlen bere vicia quenerac naiez. APEZ Nagusiaren echeco Batzarrean arquitzen ciran Ostegun Santu gau-erdian JERUSALENgo gañeraco Apezac, Escribac, eta guizon Zar jaquintsu-adituac; eta, andic, beren eche-etaraco berandu atera baciran ere, bigaramunean, eguna arguitu-horduco, bilduac arquitzen ciran berriz, beren bi-garren Batzarrean, edo Concilio eran.

AN bildu-horduco, eracartzen dute JESUS bere presondeguitic, beren aitzeñera; ta, JESUS bera, bere hitzetan nol-ere-bait nastu naiez, galdatzen diote bertiz ere, leneco Batzarrean galdetu cioten, gauza ber-bera; ta erraten diote; ERrazu orain ere zuc, zu zaran CHRISTO, edo ez.

BA-cecusan, bai, JESUS maita-garriac, (eta aguerquial-ere), nora cijoan, ta certataco cen Judu gogorren aldi hartaco galdetze tolestatua, ta asmo ez-zucena; ta, hau berau Judu berei adiraci naiez, ta beren buruei galdaguin gaistoac beguira cezoten, eranzun izandu cien gure JESUS maita-garriac, cenac bezala, edo behar cen, eran, ta bat-ere bera-tasun beldurtiric bague, erraten ciela: bai-etz errana gatic zuei nic, ez nazue zuec

Ooz ez

ez ſiñiſtuco ni: nor nazan ni nic zuei aguertuco ba-nizue ere, naiz aguer nezala Escritura Santaz, ez aditu zuec orain eguiteco eran arquitzen zarazte; ta alferric da gauz onen gainean aldi onetan nic bat-ere zuequin jardu quitzea: ala ere ez dut errateco utzico, ez, egunen batean zuei ceren urriqui arrigarria-requin gogoratuco zaitzuena: ORIe, bada, aditzen nazuten, guciac, zuen Jangoicoaren-Seme, emen arquitzen den, guizon hau, Jangoico beraren escoietic, (eta auitz dembora bague) jarri beharra da; andic gueio nori berea emateco, edo onei emateco teculaco Cerua, ta zuec bezalaco gaiſto, gaiſtoric iltzen diranei beti-betico ſuiecea.

ORRA cein arrigarria cen, JESUSec, beren bigarren Batzarreco Judu gogorrei aguertu izandu cien, eguia!

BAñA Juduac, gogortuac baño ere, gogorrago eguiñac arquitzen, JESUSen hitz onac aditzeco, ta ez eguin nai oriec, eguin behar zutenic! JESUS maita-garriac bertatic ecuſten guiza-tzar orien gogo galgarria, ta aſmo amurratua; ta eguiac atera, JESUSec oriei aguertu ciezten, gauza guciac!

ORIEC ez beguiratzen bat-ere beren etorquizunari: ta beren gogoan ez artu ere izandu oriec JESUS maita garriaren gal-videac, eta gal-videac, beſteric bat ere!

ETA orre gatic, aldebat utziric oriec; aditzen ciozcaten, gañeraco gauza guciac, erraten diote JESUS maita-garriari: ZUC diozunaz, zu Jangoicoaren Semea zara?

Eta JESUSec, ecuſiric oriena, ta bere Aitari beguiratzen ciola, erantzuten die; NI nazala diozue zuec, Jangoicoaren Seme ori; ta eguia DIOzue.

HAU oriec JESUSen ahotic aditzean, betetzen dira guciac pozez, ta pozez, ta erraten diote elcarri, aſeguin andia-requin; GAURguero ez dugu teſtigu beharric, ez: orra orain berac bere ezpañez aguertu digu guri guc gueroc nai guenuen, adiña; ta orrec aguertu diguna aſqui da, ori guc vidaltzeco, hordu gaiſtozco eriotz baten ortz-etara.

ECUSTEN dezu gaur zuc Judu gogorena? BEREN JESUS ona ganaco tirria-requin atera-naiez, ez diote Juduac beguiratzen beren oſaſunari; ez eta beren animei ere.

LOA galduz, ta ſenten-

tencia gaisto bat emanez badere, ill-eraci nai dute Judu gogorrac Jangoico--guizon, oben-bagueco, JESUS maita-garria: ta al-ere nai dute Juduac, munduco guizon guciac siñes dezaten, beren Jangoicoari ongui naiez dirala, ta Jangoico beraren contraco blasfemiac mundutic quentzea gatic, aldi onetaco, orien Ianibill-era guciac: baña guciac dira Judu gogor beren irabacia gatic; edo oriei beren irabaz-videac JESUS maita-garriaren Legue garbia-requin urra daquizten, beldurra gatic.

ORRA certaraño daraman bat, macur dabillen, bere pasioneac, edo naicunde gaistoac! GAL-erazten dio gaisoari bere Jangoico maita-garria, edo bere Jangoicoaren gracia, bere Jangoicoaren adisquide-tasuna, ta azquenean, bere Jangoicoac, bera, behar den, eran vicitzera, emain liqueon, Ceruco gloria.

ZORI onecoa zu, zuc escuratzen ba-dituzu cere passione guciac; bada hordutic zuc ongui naico diozu cere Jangoicoari; ta zuc izain dezu, emen Jangoico beraren gracia, ta, emendic atera ondoan, beraren Ceruco gloria.

BERen bigarren Batzarrean Juduac berriro JESUSen gain emanicaco sentenciac ciona lembait-len eraguin naiez, loturaci zuten JESUS bera, Batzarre bereco guizonac, edo Concilioco Apezac, Escribac, eta gañeraco gendeac; eta eraman cioten, Erromaco Emperadoreen icenean an JERUSALENen arquitzen cen, Presidente, ta Juez PILATOsi, eguin cezan onec orien sentenciac ciona, edo quen cezon lembaitlen Jesus maita-garriari bere vicia.

BAÑA nola ote cijoan JESUS maita-garria genda-guiro orien artean?

OTZEZ icara; bere aurpegui gucia listuz ciquindua, esc-ucaldiz anditua, ta ustel-idurian ceramala; ta beharbada, bere ortzetatic, edo sudur-etatic atera cioten, odolez betea.

An cijoan JESUS maita-garria, bere buruco ille, edo billo gucia naspilla bat eguiñic ceramala; escuac loturic; cembait guiza-tzar galduren artean, ta, munduco gaistaguiñic andiena zoaquen, eran.

ORRA nola cijoan gure JESUS maita-garria, Jerusalengo Conciliotic, edo, Satanasec bild--eracia cirudien, Batzarretic atera, ta PILATOS,

TOSen peera, edo escuetara, Judu gogorrac eraman zatenean! Cer videz ote, ta cer eratan ote ceramaten JESUS, ara Judu gogorrac? ETA nondic ote?

JERUSALENgo calez cale, ta escambil andia-requin.

Ambat guizonen oinsoñac, orien beren escambillac, eta marmariac aguer-eracico cituen atari-etara batzuec, eta besteac beren eche-etaco loio-etara; eta, ichura, edo era hartan JESUS ecustea-requin, galdetuco zuten guciac, cer cen hura, ta cer gatic, edo nora ceramaten, erama- guiro ain ichura charrecoan, ta cer gatic, len ambat gauz andi, ta ecusteco eguin izandu cituen, guizon hura?

ETA nola, Jesus ala ceramatenac etzeuden Jesusen alde hitz-eguiteco, eranzunen zuten; MIlla blasfemietan, ta gauza gaistotan arquitu zutela JESUS; ta, illtzeco sentecia-requin ceramatela PILATOS-en escu-etara, lembaitlen quen-eraci cezon PILATOSec bere odol vicitza, ta bucaraci citzan guizon haren GAISTA-queriac; edo cerbait orrelaco. Eta videnabar Jesus maita-garriari erran ciozcaten, nore--daqui, cembat hitz gaisto, ta baldanqueri.

ORRA, bada, gure Jesus maita-garria, orra, zure barco gavari dagocan, eguna-ren atiera! IBILL-era ederra da, bai, goizetic gaur zuri Judu gogorrac eraguiten dizutena!

NERE zorrac artu cituen zuc cere gain? ORRA bada JESUS maita-garria, orra cembat costatzen zaizquitzun zuri nere cale-etaco beguiratze ariñac, eta asmo ciquiñac; nere carric-etaco, ta placeta-co ibillera liquits loi-galduac, eta nere atarietaco, leio-etaco, ta barren-campo-etaco hitzqueta galgarri lizunac, bada oriec gatic, edo nere era orretaco gaista-querien alde dira, bai, oraingo zure ibillera gogorrac, alquequizun andiac, eta neque guciac!

ISILL isillic zoaz zu gaur, nere JESUS maita-garria, ta nere vide-gabetic, eta oben-culparic ecusten ez-pa-cenu, bezain baque tasun andia requin; baña, ni gaurco zure ibill-era neca-garriaz ez valiatzera, eta nere damuzco urarequin nic ez quentzera orain-dañoco nere culpen loiac, eguiñen dezu zuc egunen batez nerequin Judu gogorrei bart erran ceniena; jaitsico zara zu cere Cerutic ongui gogor, ta zucen, nere

nere zor arri-garrien, edo becatu ciquiñen contu zucenac artzera; ta etorrico zara, contu gaiſtoei dagozten, neque andiac ematera.

Ez arren, ez, Jeſus maita-garria.

ERA izugarri onetan, bada; mill alque-quizunequin, ta, norc-daqui, cembat, JERUSALENgo, ta campoco gende beguira cegozcala (BAZCOAC ciran alabaña, horduco egunac, eta anitz milla guizaqui, ta andre campotic etorriac, an arquitzē ciran egun hartan, Legue zarrac ciona eguitera etorriac), eraman zuten JESUS, Batzarreco, edo Concilioco gende ándi, ta chiqui guciac PILATOSen echera; ta an utzi cioten JESUS PILATOSI, Apizpicuac, edo Obiſpo Jaùnac noiz-bait Eliz-guizon, ſacrilegioz, ta becatu arrigarriz beteric dagoena, Alcateen, edo Juecen eſcuetan utzi oi duten bezala; ta an utzi cioten utzle gogor gaiſto berac bereci, edo bota dioten, eriotz-modua emateco.

§. II.

BERA BERE ESCUZ URCAtzen da Judas.

ETZUEN Judaſec uſtezo, ez, JESUSen ſaltzeco demboran, edo JESUS Judu gogorrei ſaltzean, cein ere gogorrac ciran Juduac, Juduac eguiñen zutela, eguin zutenaren laurdenic ere JESUS maita-garria-requiu. Eta, ecuſi zuenean Juduac JESUS equin eguiten zutena, bere lan eſquer-gabeco gaiſto-eguiaz aguitz damutu citzaion Judaſ-ſaltzalle galgarriari: ta bere gaizqui hau, ta igual cirtzilla, edo JESUSen — ſaltzea gal-eraztea gatic, eta ez-eguintzat gueldi cedin, Judaſec berac, eta Judu Apaizac eguinicaco diru iguala, eguin izandu zuen Judaſec al-eguiña.

BA-doa bada, igual hau harequin eguin zuten Apezetara. BILLAtzen ditu, Apez gucien artean, eſcuiric gueiena zuten APEZAC, eta erreſpetuzco ZARRAC; eta, oriec arquitu horduco, erraten die Judaſec: ONA ni emen, leneco nere macurrac zucentzera, ta nere uts guciac atera naiez, zuen billan etorria.

ORRA non dituzuen, ceren oguei—ta-amar diruac. ORIEC artu nituen nic, Jangoico-guizon JESUS maita-garria zuen eſcu-etaratzea gatic. BART nic zuen eſcuetara nuen nere Jangoico-guizon hau, baña ala gaizqui, ta zori gaiſtoan, ta guztiz al-ere; bada ecin eguin nezaquen nic, eguin

nuen

nuen, hau baño, gauza gaiſtoagoric.

EGUIñAZ damutu zait gueroz niri eunetan, ta mil-etan-ta mill-etan ere; ta nere damu onec nacar ni gaur zuen artera, nere lan macur hau emen zucentzera.

ORIE (erraten die guero Apez Naguſi berei): anitz da, ta gueiegui oraingotz-ere zuec JESUSi eracutſia, edo, ar-eraci diozuten, nequeria, edo neque ſalla: baña eracuſten, edo ar-erazten diozue zuec JESUS maita-garriari ori gucia, JESUSec orretaraco videric bat-ere zuei ematen ez dizutela; ecin eman dezaque alabaña; ain on-zucen-ecin-obea da, Jaungoico-guizon, JESUS maita-garria.

ITSUTU ninduen ni nere diru-naiac, edo ſulecceo Satanas gaiſto-galgarri-madaricatuac; eta onec eraguin cidan niri, nic ecin neguiquen, lan gaiſto hau, edo nic zuei JESUS ſaltzea; ta ba-daquizue zuec, guizon jaquintſuac bezala, ez dutela valio tratu-contratu, ta ſaltz-eroſte macur-gaiſtoac.

EGUIZUE bada bertatic contu, Apez Jaunac, ez nizuela nic ſaldu JESUS maita-garria, etzenidatela eroſi zuec, guc gueren igual errebes-macur hau eguin guenuenean.

ONA, nic arturicaco, dirua; ta betor, PILATOSen eſcuetan zuec utzi dezuten, JESUS maita-garria.

AH Judas, Judas! ſaſi gaiſtoan ſarturic arquitzen zaran, Judas! ANITZ, eta andi-zorrotzac dira, or zu urratzen zaituzten, elorriac! BELDUR naz ni gaur, etzarala ortic ateraco zu, bacarric bazabiltza beintzat, eta baldin ba--zabiltza, zabiltzan, aldetic, edo eran.

ERRAZU zuc orain, Judas; ta etzen aguitz obea, JESUSec bart zuri, zuen afaritacoan, ta guero cere oñac zuri JESUSec berac garbitzean ar-eraci nai cizun, era, ta videa?

ERA, ta vide hau hordutic zuc artzera, damutuco cequitzun zuri, zuc hordu-rañocoan JESUSen gain cenecazquien, aſmo galduez: guelduco ciñan zu gau hartan, ta guerozco demboretan JESUS maita-garria requin, ta JESUSen Apoſtolu, cere lagun onequin: etzenuen zuc eguiñen, eguin dituzun, char-queri-etatic bat ere; etziñan zu gaur arquituco, arquitzen zaran, quez-

quezquetan, ta estu-tasunean; ta etziñan arquituco orrembat nai gabe-requin, ez eta, arquitzen zaran, trancean ere.

HAU berau erraten dizu zuri ere, becatari char-Judasen laguna, gure Jangoico maita--garriac. ETZENITUEN izain, zuc ere, ez, izandu dituzun adiña naigabe, alque-quizun, arazo gaisto, ta quezca, aditu izandu ba-cenitu zuc cere Jangoicoaren ambat barrengo dei mee, libruen hitz on, edo Predicarien oju.

BAñA eguin cenuen zuc ere Judasena, edo ez-aditu: ta eguin cenuen zuc dembora berean, gogoac eman oi cizuna, edo cere becatuz JESUS saltzea, ta cere passione galgarriei JESUS ar-eraztea.

ETA orain? QUEZCA, ta naigabea cere barren cirtzill-dollorrean! ALQUEA, ta lotsa orain zuc, cere gaizqui eguiñac, eta becatu lizunac confessatzeco, ta ez jaquin zuc orain, quenduco dituzun, edo ez dembora datozenetan, orain zu zulatzen, ta urratzen, zaituzten, cere becatu ciquiñen arantzac, eta elorri oñacetiac!

QUENTZEN ba-dituzu zuc bein cere gandic oriec, ez arren berriz zu orietara: ta, oriec orain zuc quentzeco, ez artu, ez arren Judasen videac.

JUDASen aldi onetaco eguin-al guciac, etzuten deus eguin izandu, Apez-Nagusiac, eta Judu gogorrac beratzeco.

JUDASec oriei erran cienean, gaistoa cela, ta ez-zucena, harc oriequin, oriei JESUS saltzearen gain eguinicaco igual-charra, ta ajustea; ta gaizqui, ta becatuz saldu ciela on, zucen, edo justo baten odola, edo Guizon-Jangoico JESUS maita-garria-rena: Or-compon, ta guri cer zaicuc, eranzun cioten, otz-otzean Apez Juduac: *quid ad nos? tu videris.*

AH, gogor tzar arrituac zuec, ISRAEL-dar Apezac! CER zaitzuen zuei Judasec JESUS zuei gaizqui saltzeaz? ONGUI erosten dezue zuec, zuei gaizqui saltzen zaitzutena? ETA cillegui da, oben--duntzat zuec erosten dezuter, oben bagueco Jangoico-guizon bat, eun milla neque requin urratu zuec bein, ta guero zuec ceroc nai dezuten, eran, ta ecin gaizquiago bucaratzea?

BAñA alferric da: passionez dabiltzan, guizonac ez dute aditu naico, aditu behar dutenic; eta, bihotzez bein-

tzat, errain dute: NAI duena daguiela ni gatic nere JESUS maita-garriac, nere gogoac niri ematen didana nic eguin ARtean: ta ori bera da beren aldarte onetan Juduac Judasi adiraci ciotena.

HAU orien ahotic aditzen duenean Judas guizajoac; eta, ecusiric, demoora berean, ecusi zuen bezala, etzutela Judu gogorrac utzi nai libre JEsus maita-garria, ez eta artu-nai ere oriec Judasi JESUS saltzea gatic eman izandu cioten, diru zatia, artu hau, ta tiratzen die Eliza berean, berac ceuden, toquira, ta badoa andic, naigabez, illuntasunez, ta triſturaz betea. NORA, uſte dezu? SATANASec nai zuen, toquira, edo urcabera.

LEN eraguin ciozcan Satanas amurratuac, ecusi ditugun, adiña gauza gaisto; ta gucien ondoren eraguiten dio hau ere.

BERE buru char galduan sartu cion horduco SATANASec Judasi, andieguia cela, JESUS saltzea-requin eguinic ceducan, becatua, harc bere becatuaren barcamentua bere Jauna gandic erdisteco. Sartu cion bere buru berean, guizonac ere beguitan emain ciotela, vici cen artean, aldi artaco bera gaizquia-requin, ta obe cela bere burua lembaitlen, berac bere escuz ba-cen ere, iltzea.

ASMO char galdu onequin artzen du soca bat bere lepotic, lotzen du soca muturra, an arquitzen duen, zur baten adar--era, ta guelditzen da ill otz urcatua; anditzen da andic laster, den, gucia; ta, lerturic guero erortzen zaizca bere errai, ta barren guciac.

ORRA Judas diru-zale gaisto saltzallearen bucaera! ORRA certara den azqueneraco JESUSen amabi Apostoluetatic bata! ORRA Satanasec guizon bati, hau bein harc bere escuratzera, eraguin dezoquena!

NOR ez da bada beldurtuco, ta nor ez da icara beti ibillico, mundu onetan arquitzen den artean? ETSAI gaisto amurratuz ingurutuac gabiltza gu, emen garaño. VIDE gaistoac, eta gaistoac dira, edocein toquitan emen aguertzen diran, videac. GUEREZ gu gueren gazte-tasun-etic gaitz aldera aguitz macurtuac gaude; ta gaitzez gaitz ibilli gara gu, guc gueroc daquigun adiña demboraz.

ETA

ETA ez ote gabiliza era berean gu guerozco demboretan ere?

AH nere JESUS maitagarria, nic ba-daquit, bai, Judas bat eguiñic vicitu nazala ni, becatuz becatu, ta gaizquiz gaizqui ibilli nazan, dembora guci-gucian; ta dembora berean ba-daquit, bai, ſaldu zaitudala nic zu, Judaſec baño ere, aguitz gutiagotan; bada ſaldu izandu zaitut nic nere atſeguin char loi ciquin batean, edo era bereco beſte edocein circil-queritan!

JABETU ote da Satanas ni-taz ere, Judaſez bezala? Eguin behar ote ditut nic, emendic aitziña, nere aſtura gaiſtoac eſcatzen dituzten, gauza galduac, edo SATANASec ni gandic nai dituen, era-queriac?

BETETZIN, ta betetzen harico naz ni beti nere becatuen neuria? Galdu behar ote dut nic ere, Judas galgarriareñ eran, nere Ceruraco uſtea, urcatzeco guero nic ere nere burua, edo emen Judaſen eran, edo guero ſulecean, ango guciac niri beguira dagozquidala, ta, hiſtaz, ta irriz?

EZ arren, JESUS maita-garria, ez! ARTU nazazu ni zuc cere aldamenean, ta lagun zaquizquit niri, nere eriai gal-garri gaiſtoac garaitzen.

NIC eguin uſte dudana gaurguero da, zuc ni gandic nai dezuna; ta eguin uſte dut hau, zuc cerorrec nai dezun, eran. Lenagotic nic hau ez eguiñaz ongui damuturic arquitzen naz ni, ta, ori nic eguin baguez, eguin ditudan, uri-eguite gucien barcamentu eſque. EZ ucatu hau zuc niri, nere JESUS maita-garria: ez arren, ez.

1.

MANIFESTAVI NOMEN TUUM hominibus. Ioann. 17. 6.

LURRECO bere vicitzaren azquen aldean, aguertu cituen bein gure JESUS maita-garriac anitz gauz andi gorde, mundu gucico guizonen on andi bat-eraco ciranac, eta, oriec guri guztiz ederqui aguertu ondoan, aſi cen JESUS bera, bere burubeguiac bere Aita gana goitituric otoitz garbi-zucen emeecin obe bat berari eguiten; ta, eſcatzen ciozcan, gauzac emen cetzazcon, aguertu ciozcan JESUSec bere Aita berari, beraren amorez JESUSec berac eguin-icaco, gauzac; eta, bertzeen artean, banatu zuela, edo aguertu munduan Aita be-

beraren berria, ta Izate andi bazter baguecoa.

HAU berau erran dezoque Aita berari JESUSec gaur ere: BAI, Aita (erran dezaque gaur JESUSec, aldi artan bezain ederqui, ta garbiro): bai, Aita nerea, bai: aguertu diet nic lurreco guizonei nor zaran zu; bai ta ni nerau nor nazan ere; ta aguertu diet nic hau bein, ta berriz ere; eta aguertu diet nic oriei hau, ongui nequiela nere aguertze ontatic cetorquidana; edo aguertu diet nic hau, nequiela, nic hau oriei guertzetic artuco zutela nere etsai galgarriac, ni galerazteco, videa.

BA-naquien nic horduan hau, bai; bai ta zuri cere izatearen, ta zaran-tasunaren alde zor zaitzun erresperua ere: ta, zure erresperuan ez utseguin naiez, aguertu dut nic, gaur hau gucia. ETA ona non orre gatic oriec utzi nauten ni, iltzeco sentencia guztiz gogorra-requin!

Baña pozic emain dut nic nere vici hau zure ICEN Santuan, zuri ZOR zaitzuna zucen eguitea gatic, eta GAL ez ditecen, zuc niri emanicaco, guizonac.

AMOREAren arri-garria! JESUSec bere Aitari naidiona! ETA JESUSen beraren gu ganaco ongui naia! BADA bere Aita maita-garriaren amoreac gatic, eta guri ongui naiez, ta videnabar guri gueiago baño, gueiago bere Aita bera maitaraztea gatic, ez dio JESUSec bere buruari bat ere beguiratzen; ta bere vici-odolhondrac uzten ditu gure JESUS maita-garriac beraren escuetan!

ESQUERRAC zuri gure JESUS maita-garria, ta milletan, ta milletan esquerrac zuri onembat zure ontart-aldi, ta favore ondasun-dunac gatic.

EZ daquit cer eguiñen nuque nic, nere JESUS maita-garria, nol-ere-bait nic zure bazterric bagueco amore eder oni erantzutea gatic! MAITATU nai cinduzquet nic, vici nazaño, guztiz viciro, ta alic, eta cinquiena. Eman behar didazu zuc orretaraco, behar den, laguntza, ta graci-gucia. Bai, JESUS maitea; bai arren, bai,

2

NON ENIM MISIT DEUS FILIUM suum in mundum, ut iudicet mundum, sed ut salvetur mundus per ipsum. Ioan. 3. 17.

EZAGUN da, bai, gure JESUS maita-garria, eguia dela, S. JUAN Evangelariac diona

ña, erraten digunean, etzarala zu, guizon eguiñic, etorri guiz-artera, orain guizonen contuac artzera!

GUIZON galduac, edo Judu gogorrac zu galdu naiez dabiltza: ta gaizqui baño ere, aguitz gaizquiago zu gal-eraci naiez, PILATOS, Juez gentilaren escura zaramazte oriec zu; ta haren escura zaramazte zu, eriotzeco bi sentencia gogor zure gain berac eman ezquero; ta isillic zaude zu, al ere, ta hitz bat cere alde ateratzen ez dezula!

ORRELA zarabilzten, Judu gogorren, ta gañeraco guizon gucien oneraco, etorria zara zu, gure JESUS maitagarria; ta orien beren, ta gure gucien on hau billatzen dezu zuc, oriec zuri eguiten dizuten, vide galgarri berez, edo oriec eman nai dizuten, eriotza-requin!

HAU onela den ezquero, (den bezala), nere JESUS maita-garria, eguizu zuc deritzazuna, ta zure Aita eternoac nai duena. NIC ba-daquit orain, bai, nere becatu gal-garriac dirala, era char ne ça-garri orretan zu zarabilztenac! NERE becatu gal-garriac gatic da, zuri Juduac eman dizuten, iltzeco sentencia! NERE becatu galgarriac zaramazte zu, batzarrez batzarre, ta Juduen escu gogorrez PILATOSen escu-etara; ta nere becatuac berac dira, zuri eraguiu behar dizqui-tzutenac, cere vicia quendu artean, zuc daquizun, adiña jorrada, ta ibillera latz.

BESTERIC ecin daguiquet orain nic, nere JESUS oneguia; eguiñen dut, daguique-dana: ibillico naz ni gogoz, ta damuz zure ondoren; ta zure ibillera humil, mindura-ric ez duen, ta beazun-baguecotic icasico dut nic, nola humilqui, ta behar den, eran artzen diran, eguiten dizquiguten, vide-gabeac, eta charqueri guciac.

ALA nic guciac artzeco; ta guci-guciac ar ditzadan nic, leneco nere utsen alde, ta zuc orain, guri ongui naiez. daramazun neque arri-garriaren icenean, indazu zuc, nere JESUS maita-garria, cere laguntza, ta gracia: bai arren, bai.

3.

SI AUTEM IMPIUS EGERIT PEnitentiam ab omnibus peccatis suis... & custodierit omnia præcepta mea... vita vivet, & non morietur. Ezech. 18. 21.

AH Judas, Judas, len, ta guero Satanasec itsutu zai-

zaituen, guizon zori gaistoan jaioa.

ITSUTU cinduen len zu Satanasec, Juduei JESUS ecer-ez batean sal--erazteo; ta itsuturic iduqui zaitu zu guerozco cere dembora gucian, orien escuetan ori zuc loturic utzi artean.

GUEROZ utzi dizu zuri Satanas berac, zuc nai bezain ongui ecusten cere lan itsusi maradicatu hau; baña quendu dizu zuri cere beguietatic, lan gaisto hau urratzeco, videa; ta cere becatuaren itsusi-tasuna-requin arritu zaitu zu ecin gueiagoraño Satanas amurratuac; eta quendu dizu, cere gaista-queriaren barcamentua erdits dezaquezulaco uste gucia; ta eraman zaitu zu, cere escuz zuc cere burua urcatzera; ta guelditu zara zu cere socaz itoric urcabean: ta guelditu zara anduituric, zaran, gucia, ta, lerturic, cere barren gucia, ta, erraiac darizquitzula!

ATOZEA zu Judas; ta etzenequien zuc cein onguille beracha den gure JESUS maita-garria! ETZEnequien zuc cein aisa, ta cein laster barcatzen cituen JESUSec, beren gaizquien damuturic guelditzen ciranen becatu guciac? ETZENEQUIEN zuc gaistaguin beren gaizqui guciac barcatu naiez, bera ibilli oi cela gaistaguin beren billan, ta ondoren; ta bere gaizquien barcamentua nai zuen, gaistaguin, edo becatari bat arquitu-horduco, barcatzen ciozcala bere oben-culpa guciac; eta JESUSen aldi ori etaco hitzic gogorrena izan oi cela; *ea, zoaz; ez birriz orrelaccric?*

CER gatic bada etziñan urbildu zu JESUS bera gana, barca citzan JESUSec zureac ere, beste becatarien zorrac, edo becatuac barcatu oi cituen, eran? bada jaquin cenezaqueã zuc, barcatuco cizquiquitzula guciac, gucien barcamentua humilqui zuc berari escatu-horduco?

ETA lotsatzen, edo alquetzen ba-cinduen zu, zuc orre-taraco JESUSen beguietan aguertu beharrac, cer gatic etzenuen billatu zuc JESUS berarenAma maita-garria, erditsi cezan onec bere Seme ona gandic, zuc billatzen cenuen, cere obenen barcamentua?

POZIC eguiñen zuen, bai, lan hau zure oneraco, ta utzico cinduen damuz, ta atseguin-contentuz betea JESUSen Ama maita-garriac, zuc hura billatu, ta hau hari escatu ezquero,

BA-

BAñA itsutu cinduen zu Satanasec, vide onelacoric ez ecusteco; ta itsu-itsuan bezala eraguin cizun zuri cere lan madaricatu hau; ta, hau zuri harc eraguin horduco, ondatu zaitu zu berequin batean Satanasec bere sulecean.

ETA eraguiñen ote dit niri ere Satanas gaistoac, era bereco lan galgarrien bat? LOTUCO ote dit niri alquez, ta lotsaz Satanasec nere mihi hau, nere becatu ciquiñac nic ez confessatzeco? GOGORTUCO ote dit niri nere bihotz hau, nere asmo galduac ez uzteco nic bein ere, vici nazaño? IBILLI behar ote dut nic nere ill artean becatuz becatu, ta gaizquiz gaizqui, era orretan galtzeco nic, nere Jangoicoac barcatuco didalaco ustea, ta esperantza?

EZ baldin-bere! Anitz dira, bai, ba-daquit nic, nere orain-dañoco -gaizquiac, eta oben-culpac: baña nere gaizqui guciez ongui damuturic arquitzen naz ni gaur; ta arquitzen naz bein ere berriz gaizqui berriric ez eguiteco asmoan: ta oraingo nere asmo on onec diona eguin ezquero, ez naz ni berriz becatuz illen bein ere; vicico naz ni Ceruco graciaren vicitzan; ta guero beti-ta beti Geru berean. ORI gucia da, orain nic nai dudana; ta, nai dudalaco siñutan, ciñez erratera noa, ta bihotz oso-osoa-requin: *NIRE JESU-CLRISTO JAUNA, &c.*



LVI.

LVI-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN JUEZEZ JUEZEZCO IBILL-ERA ALQUEgarria.

§. I.

ECUSIRIC PILATOSEC JUDUAC CIOTENA, IGORtzen du JESUS Herodes gaiſtoa gana.

JESUS preſo ceramaten, Apez Jaunac guelditu ciran PILATOSen echeco ate-etan, edo atarian; ta ſar-eraci zuten JESUS, Pilatoſ-Jueza jarriric cegoen, lecura.

SARTU cen ara JESUS, ta guelditu cen an zutic, eta, cijoan, eran, edo loturic, eta gaiſta-guin arri-garri bat bai-liz bezala.

CEIN ere necatua, ucaldicatua, edo golpatua, ta ciquindua cijoan Jeſus, Jangoico guizona cen, JESUS maitagarria; ta an cegoen PILATOS Juezaren atzin hartan, JESUSi begiari, cegocan bezala, edo bere begietan, ta bere egoera gucian adirazten zuela, etzuela obenic bat-ere, ta, videric gabe, cecartela Judu gogor galduac, cecarten, eran.

HAU ecuſi, ta ezagutu-horduco, ateratzen da PILATOS bere leiora, edo Apezac, eta gañeraco genda-guiro gaiſtoac ceuden, aldeco balcoien batera; ta oriei harc beguiratu horduco, ecuſten ditu guciac, edo gueienac beintzat, JESUS ez-bezala, edo becoqui illun-equin, aſaldatuac, eta erdi-ſutuac; eta onetan ere ezaguntzen du berriro JESUSen oben-gabea, ta inocencia.

BAñA bere lan hau, Juduac nai zuten, eran, edo behar bezala eguiten aſteco, erraten die guciei: ONgui, gen-

gendeac; eta cer diozue zuec, emen preso dacartzuen, guizon onen gain? CER guertatu da JERUSALENgo Erri andi onetan guizon onequin, edo cer gauz-arrigarri eguin du onec, zuec hau PAZCOZ, onen goizic, eta ceroc orrembat APEZEC, GUIZON andic, eta JAQUINtsuc, loturic, eta guis-onetan onara ecartzeco? *Quam accusationem affertis adversus hominem hunc?*

EZAGUTU zuten an bertan, edo bere-bereala Judu gogorrac, PILATOSen gald-era onec adirazten ciena (adirazten cien, passione, ta JESUS galdu-nai gueiegui eracusten zutela, zucen ibiltzeco); ta guelditu ciran ongui minduac; eta, sutuen eran erantzun cioten PILATOS Juez galdeguillean: DEN, bezain gaistaguin andia ori ez izatera, ez guiñan gu, ez, emen aguertuco gaur zure beguietan, ta ecarrico ez guenizun guc, ez, dacargun, egunean, dacargun, horduz, ta dacagun, eran.

ARQUI ditequen, gaista-guinic andiena da, guc gaur ecarri dizugun, guiza-guiro ori; ta orre gatic dacargu gaur, adin onetan, ta datorren bezala, illeraci dezazun zuc bertan, ta tricatu, edo bat ere luzatu GAbe.

EGUIAZ, Apez Jaunac? ORREN gaistaguin andia da gure JESUS maita-garria? GUC daquiguna, ta zuec ceroc ere ecin uca dezaquezuten, gauza da, JESUSec ascotan eman diela eriei osasuna, gorrei adiera, itsuei ecustea, mutnei hizqueta, ta illei vicitza; ta ez dugu aditu guc bein ere, JESUSec bati-ere eguiñicaco gaizquicho, edo vide gabecho bacar-bacar bat ere; ez, eta zuec ere; bada zuec ceroc, egun goiceco, ta barco ceren Batzarreetã eguin dezue al-eguinic asco, bat bad-ere aguererazteco; ta etzaitzue aguertu zuei, erdi baten aguertzalleric ere: ta era orretaco gauzaric ecin arquituz, eguin dituzue zuec ceren sallac, eta eman dezue zuec JESUSen gain bein, ta berriz ceren vide-bagueco sentencia.

AH languille gaistoac, zuec, Judu gogorrac! BESTE sustraiezcoa da, bai, zuen gain, zuen JESUS ona ganaco gorrotu andi, ta sentenci macurra gatic, erortzeco dagoen, azquen sentencia!

ETA norc gorde zuec, hau emateco, dagoen, Jangoico altsu zucenaren escu-indartsu necatzalle-etatic? ETA norc ni, baldin ba-nabill ni ere,

zuen eran, ta gaizquiz gaizqui?

BAñA orren gaistoa bada guizon hau, erraten die Judu gogorrei PILATOSec, cer gatic ez dezue zuec ceroc ill-eraci; edo certara dacartzue zuec nere escuetara?

NAI ba-dezue zuec, daguidan nic gaur, gaur nic ongui deritzadana, errazue zuec guizon onen gain, errateco dezutena; bada nic ecin daguiquet deus ere, zuena bein, ta guero berarena ongui-ongui aditu artean.

JAUNA, eranzuten diote Judu gogorrac PILATOSti, guiza-tzar gaista-guin orrec eracusten ditu dotrina gaistoac; orrec eragozten du gueren Erregueari, edo Romaco Emperadoreari guc ematea, oni gu gandic dagocan, edo guc oni zor diogun, tributua; ta azquenean eguin da bera gure Erregue, edo artu du, Erregueren ez dagocan, icena.

SARTZEN da onequin, edo hau aditu-horduco, PILATOS, gure Jesus maita-garria arquitzen cen toquira, edo guelara: eguiten diozca JESUS maita-garriari bere galdemoduac; eta ecusten du, guezurra dela, Juduac dioten guci-gucia.

ARTZEN du guero berequin JESUS BERA Pilatosec; eta ateratzen du Judu gogorrac ecus dezaquen, leiora, edo lecura; ta erraten die Juduei: CER-taco, Jaunac, orrembat joan etorri, arazo, guezur, ta naspilla? NIC ez dut onegan, edo onen baitan arquitzen, zuec darausta zuten, gauz-etatic bat-ere. *Ego nullam in eo invenio causam.* ADITU dut nic, bai, zuec diozuena: aditu dut nic, onec eranzuten duena; ta ez dut nic funtsic, edo pitsic arquitzen, guizon oni gaitzic eguiteco.

ORRA non, JESUSen humeac; orra non azqueneco aguertu oi den eguia. EZ da, ez cer zuec atsecabetu, zuec ceren gauzac ongui eguiñic ere asmatzen ba-dizute, zu-equin dabiltzanac, ez den, cer, edo cer. ETZAITZUE orretan, ez, zuei guertatuco, gure JESUS maita-garriari aldi onetan guertatu gabeco gauzaric.

GUERTATZEN zaitzuenean, era bereco cerbait zuei ere, eguizue horduan zuec, aldi onetan JESUSec eguin izandu zuena. ERAMAzue zuec isill-isilchoric, eta ceren Jaunaren icenean, hordu hartaco ceren naigabea; eta zuen Jāgoicoac len, edo guero aguer-

tu-

tuco du, dena, den bezala; ta, aguertzen ez-pa-du beste munduraño, zuen ona gatic izain da, eguiaren emengo gordetzea; ta izain da, hondra, ta gloria gueiago zuei guero ceren Jangoicoac eman naiez.

CER? (ERraten dute Judu gogorrac, PILATOSen hitzqueta zucen hau aditu-horduco) CER? EZ duela guizon orrec ili-gairic bat ere? ETA, GALILEAtic asi, ta JUDAco azquen bazter-eraño, nastuac daduzca alde guciac bere erausi-equin; bai ta gure Erri-JERUSALEN hau ere: *Commovet populum, docens per universam Iudæam, incipiens à Galilea usque huc.*

ETA, háu erran-ondoan, beren oji, marmaria, ta furrustada-tzar latz-equin, bazterrac urratu behar cituztela, ciudien Judu gogorrac.

BELDURTU bide cen PILATOS, onembat oji, onembat ecin-egon; ta onembat Judu gogorren escambil ecusi izandu zuenean; ta JESUSen predicu contua, ta GALILEA aditu zuenean, gald-eguin zuen PILATOSec, GALILE-tarra cen, edo nongoa, gure JESUS maita-garria? ta, icasi zuen, Galile-tarra cela, ta HERODES pecoa. DEMBORA berean JERUSALENen arquitzen cen Herodes hau; ta, bururic ez aurti naiez Judu gogor-equin, ta oben bagueco bat ez gal-eraztea gatic, asmatu zuen PILATOSec, JESUSen Juez HERODES eguitea; ta igorri cion JESUS bera HERODES berari, ecus cezan harc, bere ordez, JESUS ona-requin eguin citequena.

§. II.

HERODESEN ECHERA DAramate JESUS, alquequizun andia-requin; ta andic berriz PILATOSen escuetara, aguitz andiagoa-requin.

ATERAtzen dute Juduac JESUS PILATOSEN echetic, an sartu-raci zuten, eran, edo escuac loturic; eta guiza-tzar cembaitec itsasten ciotela.

CEMBAT, eta gueiago cebillen JESUS, ambat arquitzen cen necatuagoa, ta flaquia gueiago-requin: ta, PILATOSen echean sartu cenean ere baño, indar gutiago-requin arquitzen cen JESUS, eta colore aguitz galduagoa-requin, andic atera cenean.

ATERAtzen da, bada, JE-

JESUS PILATOS-enetic, al duen bezala, ta, beraren Etsaigogorrac nai duten, eran. HORDUcotz aitziña cijoan goiza. JERUSALEN-darrac jaiquiac arquituco ciran, garai, edo aduintz hartaraco; jaquinen zuten; leneco arratsetic hordurañoco dembora gucian JESUSi guertatu-ricacoa: ta, aditu zutenean, nora cijoan JESUS, gendez beteco ciran, PILATOS-enetic HERODESen echerañoco caleac, eta leio guciac.

ONEMBAT genderen begui artean igaro cen JESUS, bat dabilquen, eraric alque-garrienean. ADITUCO zuen batzuetan JESUS maita-garriac, edo leio-etatic, edo bera cebillen, carrica ber-etan: TA cer? hau da, Legue berri bat banatzen cebillen, guizon hura? Ona vide cen, cecarren, Leguea, guis-onetan bera dacartenean!

ADITUco zuen guero; CER EGUIN DIRA guizon onen indarrac, eta escu, miracullu-guilleac? ILLAC ere vizten cituela, cioten len, guizon onec; eta orra non daramaten loturic preso, ta, ill bat eraman oi den, bezain aisa.

EMEN adituco zuen JESUSec bat bere lagunei erraten: ORRA, orra certan guelditu den, zuen Predicariri tzar andi hau! ZABILzte, bai, zabilzte orren ondoren, orain-dañocoan ibilli zarazten bezala; ta ecusico dezue cein hondratuac guelditzen zarazten ori, ta zuec gucioc!

AN errain cion norbaitec Jesus necatu-maita-garriari berari: AH guiza-gaisoa; lan onetan sarturic ecusten dezu zuc gaur cere burua, ta vide zucenac daramazquitzu zuc, bucaera onac izateco.

ETA eztiran nosqui faltaco, ez, blasfemiaz, ta hizqueta gaistoz bere beharriac JESUSi aldi hartan ongui beteco ciozten, guiza-tzarrac ere.

ETA nola ote cebillen gure JESUS maita-garria, onembat escambillen, ta vide-gaberen artean?

CENA bezala; edo issill-issillic, eta bere adiera gogor hau, ta videco bere neque guciac bere Aita eternoaren icenean, ta gure oneraco ceramaz-quiela.

AH nere JESUS, milletan ta milletan maita-garria; ta nic zuri zor dizudan, ontartea, ta favorea! NOIZ oni erantzun nic, nola-ere-bait bada ere!

JESUS ara bitartean, billatuco zuten HERODES Apez

an-

andiac guizon jaquintusuac, eta JESUSen Etsai guciac.

BA-cequiten oriec, bai, nor cen HERODES, ta nola cebillen HERODES orien beren Erregue izan naiez; ta usteco zuten, oriei atseguin eguitea gatic, aisa ill-eracico zuela JESUS HERODESec; bada, anitz dembora etzela, dantzari char Neseach bati atseguin eguitea gatic, ill-eraci zuen, JESUSen vide guille on, S. JUAN BAUTISTA.

USTE onequin errain ciosen Judu gogorrac HERODESi, nola igortzen cion PILATOSec JESUS; ta certaraco: ta errain ciozcaten videnabar, norc daqui, cembat gauza, ta guezur JESUSen gain, edo JESUSen contra.

SARTZEN dute Judu gogorrac JESUS Herodesen guelara. ETZEN atsecabetu, ez, Herodes-tzarra JESUS an bere guelan, ta bere beguietan ecustez; bada dembora cen, JESUS ecusi-nai andia--requin arquitzen cela HERODES Erregue hau.

CER gatic, uste dezu?

CEREN aditzea zuen Herodes onec, eguiten cituela JESUSec anitz gauz-arrigarri, ta milagro; ta ecusi nai zuquen orietatic bat, edo bestc.

AVIAtzen zaio JESUSi Herodes bere ongui-etorriequin, ta JESUS-equin hizqueta andiluceac nai citu-quenaren eran.

BAñA ba-cequien JESUSec Herodesen gogoco berria. BA-cequien, cein guizon gaisto-ciquiña cen Herodes Erregue hau; bai ta, HERODESec bere Anaiaren vici-quidea-requin, edo emaztea-requin cecarren, vicitza loi galdua ere; ta etzion JESUSec hitz bat erantzun HERODESi, ez ta beguiratu ere.

HORDUAN an arquitzen ciran, APEZ Nagusiac, ESCRIBAC, eta JESUSen Etsai guciac ecusten zuten hau gucia; ta, ecusi zutenean, JESUSec an artu zuen, berariazco mutu-tasuna, ta isilera, beldurtu ciran guciac, utz cezan viciric Herodesec gure JESUS maita-garria; ta aviatu ciran JESUSen gain, edo contra erausi-ta-erausi, ta isiltzen etzirala.

EGUIA da, etziela-beguiratze andiric eguin izandu Herodesec orien erausi gu-ciei; ez eta HERODESen gendeac, eta Zaldunac ere; bada azquenean HERODESec, eta bere Zaldunac eguin izandu zutena izandu cen, soñeco zuriz JESUS maita-garria jauntz-

eraz-

eraztea, soñeco-era onequin Juduei, ta PILATOSi adirazteco bezala, JESUS maita-garria, obenic ecin zuquen, ta adimentu laburrezco guizonen bat bide cela, edo guizon eroa cela Jangoico-guizon JESUS maita-garria. Eta era orretan jauntziric itzuli zuen JESUS Herodesec Erromatier PILATOS beraren escu-etara; ta beren artu eman onetan adisquidetu ciran, edo bat eguiñic guelditu ciran, len aserre cebiltzan, Pilatos, ta Herodes.

NOR-nai arritzecoa den gauza, aldi onetan JESUSec daraman, alque-quizuna! JESUS izaqui, daquigun bezala, Aita eternoaren JAQUIundea, ta gauza guciac daquizquien, Jangoico-guizona; ta eroa dela HERODESec, eta Herodesen gende, ta Zaldun guciac! ETA, berac hau asmatzea, ta erratea deus ez bat bai-liz bezala, eroz jauntziric JESUS JERUSALENgo caleetan, JERUSALENdar guciac erotzat artu dezaten JESUS jaquintsu guztiz maita-garria!

ORRA cein andia, JESUSec guri digun, amorea! BERE amore onec JESUSi eraguiten derozcan, gauzac eraqueriac dira, amore andi onen berriric ez dutenentzat.

ETA neretzat cer ote dira JESUS maitariaren gauzac borac?

ECER-ez bat adiña; edo beintzat ez anitz gueiago; bada gueiagotan ba-neduzca nic nere JESUSen gauzac, eguiñen nituque nic, orici erantzuteco, eguiten ez ditudan, anitz gauza, ta lan.

GUCIA gatic ere, atziña daramatzi JESUSec bere amorearen eguitecoac, eta ez da guelditueo JESUS, ez, bere gauza guciac eguin artean, naiz izan ditecela gañeraco guizon guciac, JESUS beraren, ni bezain, maitatzalle charrac.

HORDU gaistoan bezala, bota zuen bere begui-etatic JESUS maita-garria Herodesec; eta loturic, ecarri zuten bezala, eraman zuten berriro Judu gogorrac calez cale PILATOSen ichera.

LEN ichura charrean JESUS ecusi zutenac, orain ichura aguitz charragoan bera ecusten zutenean, cer ote cioten?

LEN ciotena nosqui, ta anitz gueiago.

ETA cer ote cion JESUS maita-garriac, ori orien ahotic aditzen zuenean?

GURE becatuei cegoten, alquequizuna cela, berac bere bihotzean ceraman, naiga-

gabe gucia: ta pozic ceramala gucia, gure ona gatic, eta guc alqueric ecus ez guenezan JESUS beraren beguietan, gu mundutic atera ondoan, ta azquen egunean.

ETA cer ote diozu zuc, becatari char esquer-gabea? ETZAITZU zuri lotsi-andiz, ta alque-quitzun izu garriz estaltzen cere arpeguia? ZU gatic alquez, ta lotsaz betea gure JESUS, ta dembora berean eroaren soñecoz jauntzia; ta al-ere zu alqueric gabe, ta ero baten lan-etan, edo alquequizuna alquequizunen gain ematen diozula zuc JESUS berari cere vicitza macur galdua-requin?

LOTSAturic, edo alqueturic JESUS, zuri ongui naiez, calez cale, ta echez eche; ta zu echez eche, ta calez-cale JESUS maita-garriaren alquequizun-eraco onac diran, gauzac eguiten! ZU certan guelditu beharra ote zara, guelditzen ez pa-dituzu zuc cere lotsagabe--queriac; eta ibillera macurrac?

EZ onetan, JESUS maita-garria, ez! ORI ezaguntzen dezu zuc, becatari charra; ta al-ere uzten ez dituzu zuc cere lotsagabe-queriac, eta pausu gaiztoac? ETA al-ere vici nai dezu zuc, eroaren eran, ta cere buruaren galgarri eguiñic!

ORI da, bai; nere JESUS maita-garria, orain-dañocoan nic zu gatic eguin izardu dudana! BAñA, ezaguturic orain nic nere gaur-arteco ibill-era macurren esquer-gabetasuna; ta, ezaguturic videnabar zuri nic nere vide-gabean ar-eraci dizquitzudan, alquequizun illun gogorrac, ongui damuturic arquitzen naz gaur, ta beguitan guztiz artuac daduzcadala orain--dañoco nere eraqueriac; eta dembora berean arquitzen naz ni, oriec guciac uzteco, ta vici modu berri on bat artzeco, asmoan; ta negarrez, ta ciñezco urriquiz zuri cere nequeac gaur al-eguinean ariadu-nai guztiz andia-requin.

IRAUN ba-lezate, nere ill-arteco demboran, oraingo nere asmoac! ALA guerta dedilla gure JESUS maita-garria; bai arren, bai.

1.

EGO AUTEM CONSTITUTUS SUM Rex ab eo super Sion montem sanctum eius; prædicans præceptum eius. Ps. 2. 6.

NERE humeac, erraten digu guri gure JESUS maita-

ta-garriac: nere humeac, Erregue naz ni, bai; baña ez naz ni, ez Erregue, munduco Erregueen erara. ORIEN escābillac, orien Soldadescac, orien guerrac, diruac, eta gañeraco orien gauzac ez dute nerequin cer ecusi, nere etsai-Judu-gogorrac nai dutena erran-arren nere Erregue---tasunaren gain, edo contra.

ERREGUE naz ni, bai, nere humeac; baña bihotzen Erregue. ELIZAco gendeac, bataiatur c arquitzen diran, humillac dira nere Erresumaren bazterrac, nere Erresumaren, edo nere Erreinuco ondasunac, Soldaduac, eta gauza guciac. ORIEN beren Erregue naz ni; ta nere nai andia-requin ala ere. ORIEI eracusten diet nic, eta pozic al-ere, nere Erreinuco Leguea, ta Ceru-videa.

VIDE on zucen onez ongui necatzen diranac dira nere soldadu maiteac. Oriec guciac, nere ondoren dabiltza beren gurutzea-requin, edo beren aztura--gaistoac garaituz, passione sutuac escuratzen dituztela, ta beren anitz hilduraren, ta, nere icenean artuicaco, nequeren artean.

NAI dezu izan zuc ere, nere soldadu maite orietatic bat? ORI bada: virtutezco peleac dira nere guerra guciac. BERE humill-erac, bere alquequizunac, bere vide-gabeac, eta gaistoen escu-etatic etortzen zaizcan, bere charqueriac emequiena eramaten dituena da nere soldaduric onena.

BERAG eguin-ala baicic, ez diot escatzen bati-ere nic. EGUITEN duen, gucigucian laguntzen diot nic nere soldadu-etatic edoceini, izan dedilla hau errumes beharsun, edo aberats ondasun-duna.

ONGUI eguiten baditu nere soldadu batec bere gauzac, iltzen denean hau, nerequin daramat nic nere Ceruco Erresumara, ango nere glorian, nere senide ona bezala, Principe izatera. ORRA nere soldadu onen pagua. NAI dezu hau zuc, edo ez?

AH, Jauna! bai-etz errain dut nic, len ascotan bezala; baña beldur naz ni, izan nadin emendic aitziña, orain-dañocoan bezain minberea, ta izucorra, edo beldurtia; ta utzico zaitudala nic zuc beharren-beharren den demboran; edo, nere gogoari atseguin eguitea gatic, ez natzaiela gogoituco ni, nere ARAguiari, aragui hau gaitzera macurtzen denean; SUlececoari gaitz-videren bat onec nini aguertzen

tzen didanean, edo nere lagun gaiſtoei, gauz on-etatic ater-eraci ni, ta macur-gaiſtoetara oriec eraman nai nautenean!

HAU guerta ez daquidan niri, orain-dañocoan bezala, ſendortu nazazu zuc, nere JESUS maita-garria, cere gracia-requin; ta pozic izain naz ni guerozcoan zure ſoldadu humill on, gogor etatic. Bai arren, JESUS maitea, bai.

2.

OBMUTUI, ET NON APERUI os meum; quoniam tu feciſti. Pſ. 30. 10.

MUTUTU nintzan ni, nere Aita eternoa, erran cezaquen, bai, JESUSec egungo eguna-requin; mututu nintzan ni, ta ez nuen ezpañic erabilli nic, hitz bat ateratzeco, nere alde, edo nere oneraco, nai zuten, gucia nere gain Judu gogorrac cerauſten, aldietan; ez eta HERODES Erreguec, ongui-naiez bezala, anitz gauza gald-eguin cizquidanean ere; ba-nequien alabaña, orre gatic cetorquidan, eriotza, zure naiez cetorquidala, ta munduco galduen oneraco.

MUTUTU nintzan, bada, munduco guciei ongui-naiez, ta ceren zu, ecin-guei-ago-raño, maite zaitudan nic, nere Aita maita-garria: ta mututuco nintzaque ni berriz, ta berriz ere, zuc ala nai izatera.

BAI, Aita maitea, bai: hau ba-daquizu zuc cerorrec ere, nic bezain ongui; ta ba-daquizu orain berriro ez-ecic, lenagoco cere eternidade guci-gucian ere.

ETA ote nequien nic becatari charrac, gure JESUSen mututze hau; ta bere mututze onequin JESUSec guri eracutſi nai ciguna?

NERE erauſiac, nere hitzontzi-queriac, nere mintzatze beroac, nere erantzute charrac EZ-ETZ, diote: bada JESUSen mututzeac eracuſten cidan niri, behar etziran, hitzei nic ez aditu eguitea; ta mintzen ba-ninduten ere, nerequin cebiltzan, lagunac, edo beſteren batzuec, nereJauna gana nic bihotza goituric, nere horduco mindue-rac, JESUEen mindue-requin batean Aita eterno berari nic ematea: videnabar nic Aita berari eſcatzen niola, era orretaco aldietan eme-emequi, ta guztiz isſill guelditzeco gracia.

BAñA ez nic ori eguiten!

ten! ORRE gatic galdu ditut nic anitz irabaci, ta merecimentu!

GAUR--guero irabaci andiac eguin naiez nago; ta behar den aldietan, zu bezala, gure JESUS maita-garria, nere al-eguin gucian mututzeco asmoan. Indazu arren, orretaraco nic beharco dudan, cere laguntza, ta gracia. ALA biz; bai arren, bai.

3

ERGO VOS ESTIS SOLI HOMINES, & vobiscum morietur sapientia? Iob 12. 2.

ONGUI, HERODES Erregue, ta Jaun andia; ta ongui! ORREla zu, ta zure Zaldunac zarazte, gauzac aditzen zaizten, guizonac? ZUEC ez izatera, ez lizaque nolqui arquituco gaur mundu guci-gucian lequiquenic bat ere, jaquin behar diran, gauz-etatic; eta ill-otza legoque guizonen arteco jaquinde guci-gucia?

ORRA, Herodes Jauna; orra zuriz jauntziric uzten dezu gaur zuc gure JESUS maita-garria! Era orretan vidaltzen dezu gaur zuc gure JESUS JERUSALENgo calez cale PILATOS-baitara, edo Pilatosen echera! Zuc orretan adiraci dezuna gatic, ero bat dela, uste dute JESUS ISRAELdarrac, eta JERUSALENgo gendeac; eta histaz, ta irriz dagozca, alqueric bat-ere gabe.

EROA da berez JESUS, Herodes jaquintsua? ALA diozu! Zuc diozu? Zuc? Cere Anaiaren emaztea-requin, bazter guciac daquitela, vicitza loi-lizun bat dacartzun, guizon, arrica ill, ta erre beharrac? ZUC, S. JOAN BAPTISTARI burua quen-eraci cenion, guizonac, vici-modu liquits hau ceren utz-eraci nai cizun, besteric bague? ZUC, antustez betericaco guiza--tzarrac, eta JUDAco ERREINUA ceretu naiez zabiltzan, arro-tzarrac; zuc diozu; hitzez, ta siñuz, eroa dela gure JESUS maita-garria?

EROA JESUS? Aita eternoaren JAquiundea? Aita eternoaren SEME bacar Jangoico-guizona; ta Jangoico-guizon, gauza guciac daquizquiena? HAU da Herodesen ustez guizon ecer-ez ero choratu bat?

BAI bada! NORAñocoa den guizonen itsu-tasuna, ta era-queria! ETA noraño-coa gure JESUSen gu ganaco nai-amorea; bada amore nai onec

onec eraguin diozcan, lanac gatic, eman diote JESUSi eroareu icena, ta ſoñecoa!

ETA, Herodes illa gatic, bucatu ote dira ICEN-GOITI onen emalleac?

EZ eguiaqui? ANITZ dira oraindic ere, eroaren icena eman oi dietenac JESUSen ondoren dabiltzanei; munduco eraqueri-etatic, jan-edan galgarri-etatic, ſartu-atera, ta joſtatze arin-liquitſ-etatic bereiſten diranei; bai ta oriec orietatic urrun-erazten dituztenei ere.

ZORI onecoac; icen onen ſoñeco zuria-requin beren buruac ecuſia gatic, JESUSen videric uzten ez dutenac! bada oriec dira, JESUSen eran, edo zucen gauzac daquiztenac; eta oriec, guero Ceruan jaquiundez beteric, JESUS berarequin vicico diranac.

AH! ni ere izaten banintz orietatic bat! EZ-panaz izandu ni orien eracoa, nere oben culpac gatic izandu da; ta, lenago ni ori-etatic ez izanduaz ongui damuturic, gaurdanic ba-da ere izaten aſteco, eguin uſte dut, bai, nic eguin ala. Orretaraco aſmoan erratera noa orain nere hitzez ta nai oſoz: *NERE JESU-CHISTO, &c.*

LVII-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN, TA BARRABASen BERDIñERA, TA BEREISTEA.

§. I.

EMATEN DIE PILATOSEC JUDUEI, BITATIC BAT, JESUS, edo BARRABAS.

I

DAMUTUCO citzaion PILATOSi, edo nai gabetuco cen Pilatos, berriz JESUS bere eſcuetan, HERODES Erreguec itzuliric, ecuſi zuenean; bada igorri çion JESUS

Herodesi, JESUSen eguitecoan deus ez ebaraqui naiez; ta naita-ez ebaraqui beharrean guelditzen cen, JESUS ona berriz haren escu-etaratzea-requin.

ARTZEN du bada berequin Pilatosec JESUS maitagarria; artzen du, cetorren eran, edo zuriz jauntzia, ta eroaren idurian, ta aintzura charrean. ATERAtzen du, berequin berriz leneco lecu, edo ecustegui berera. DEitzen die, bein, beste Judu gucien iceneean hitz eguiten zuten, Apaizei, oriequin batean, an arquitzen ciran, Cargu-dunei, ta azquenean gañeraco Judu guciei: ta erraten die Pilatosec: ONA non dezuten, zuec ceroc ecarri didazuten, guizon hau. ZUEC erran izandu didazue niri, guizon onec nastuac daduzcatziela bazter guciac, eta, ez daquit, beste cembat, ceren gogoac eman dizuten, gauza: ta orra, nic eguin diozcat oni, zuec ceroc beguira zaudeztela, nere carguac, edo niri cegozquidan, galdetze guciac: eta ecusi dezue zuec ceroc, ez dela eguiaren pitsic ere, zuec esan didazuten, guci-gucian. Luc. 23. 13. & 14.

HERODES Erregue zuen erritarra da, edo bazter ebetacoa. BA-du, bai, HERODES Erreguec zuen usantzen zuen, Legueen, ta gaurzen, behar den, adiñaco berria: orre gatic igorri zaituztet nic zuec Herodes Erreguea gana guizon onequin bera-requin, ecusi cezan Herodesec, eguia cen, edo ez, zuec emen ceniotena; ta, ala celaric, eman cezon, cegocan, sentencia.

ETA cer eguin du guizon onequin guizon andi Erregue Herodesec? ONEN soñeco onéc adirazten duena: edo zuei ceroi beguitan ematea ceren aser-era, ta passione sutua-requin; ta zuei ceroi adiraztea, oben baguecoa dela, zuen iduriz, munduco obendun andi-ena den, guizon hau.

CER nai dezue, badazuec daguidan nic, era oneta, co guizona-requin? IL-eraci obendun-daco, obenen pitsic ere ez duela? II

ORIE: Bazcoetan arquitzen gara, zuec ceroc daquizuen bezala; ta, aldi onetaco Bazcoz eman oi dizuet nic, Preson-deguian arquitzen diran, gaistaguin guci-etatic bat, edo ori-etatic edocein, ceroc escatzen dezutena.

EZ dut nic ez zuen usantza galdu nai, niola ere. BAñA aurtengo zuen Bazco andi onetan laburtu nai dizuet

cer-

cerbaitcho ceren usantza. Preson-deguian arquitzen da gaur, anitz beste gaistoren artean, BARRABAS deritzan, guizon guztiz errebes galgarri bat.

HAU da, zuec ceroc daquizuen bezala, lapúr-eri andiac eguin izandu dituen, guizon, echeen nas-garri bat. HAU da, gau, ta egun bazterrac asaldatzen dabillen, guizon bat, eta norequin-nai, ta guciequin noiz-nai gaizqui datorren, guizona. ETA hau berau da, oraindic anitz ez-dela, bere aser-aldi batean bati vicia quendu cion, guiza-tzarra.

GUIZON, onen gaisto hau, bada, ta, zuec emen ecusten dezuten, Jesus dira aurtengo Bazcoan zuen escuetan guelditzen diranac. BI-etatic bat emain dizuet nic, bai, baña ez besteric. Cer diozue Jerusalengo gendeac? Cer diozue, Juda-tarrac? CEIN nai dezue, eman daquizuen, ceren aurtengo Bazcoan Jesus, edo Barrabas? *Quem vultis dimittam vobis, Barrabam, an Iesum?* Matt. 27. 17.

EDERqui, Pilatos Jauna; ta ederqui al ere! Obenic ez duela, diozu zuc, gure Jesus maita--garriac; eta obendun gaistoen gaistoenaren aldean ezartzen diezu Judu-tarrei, ta Jerusalengo guciei! BA-daquizu zuc, Juez Jauna, nai-gabe utiez, Jesusi gaizqui-iritzic, eta ecin ecusiz Jesus maita-garria, dirala Juduen erausi guciac. Ibid. v. 18.

ETA eguia ba liz ere, oriec dioten, guci-gucia, eguin cenezaque zuc Jesus maita-garria-requin, eguiten dezuna baño, gauz-itiusia-goric? Bada, Bozcoz Preson-deguitic ateratzẽ diranen arteã ezartzen dezu zuc Jesus maita-garria; ta orien artean ez-ecic, gucien arteco gaistoenaren aldamenean: ta Juduac artzen ba-dut-ere, Barrabas uzten dutela, mundu guciac usteco du, gaistoa cela Jesus; ta, Juduac Jesus bere catepetic ez ateratzera, Preson-deguian usteldu beharra, urcabera beharra, edo nequez, ta castiguz cenzaraci beharra cela Jesus; ta, uste onetan guelditzen ba-dira munduco gendeac ez dira Munduçoac egoin ez, Jesusen Legue on guztiz garbi-zucena artzeco: ta orra zu gatic, Pilatos Jauna, galduric bezala betico gure Jesus maita-garria!

LAN ona, PILATOS, bai segurqui, zuc gaur JESUS onari eguiten diozuna! LAN ona, bai, onic izandu ba-da mundua mundu den-etatic!

III.

III.

BALDIN ba-cequien PILATOSec (errain didazu zuc) Juda-tarrena;baldin ba-cequien, etzutela aguertu Judaco Apezac beren erausi guciequin eguiazco gaizquiric JESUSen gain, edo contra; ta, eguia ba-cen (cen bezala), PILATOSec berac erran ciena Judatar gogorrei, harc, eguiazco gaizquiac baicic, ecin castiga citzaquela; nola orain sartzen du PILATOSec gaistaguin arri-garrien artean, orietatic bat bai-liz bezala, gure JESUS maita garria;

JUez beldurti char, behar ez bezalacoa izanez PILATOS; ta ceren PILATOSec obequi beguiratzen cien guizon aberatsi-erausteei, isillic cegoen, JESUS behartsuari baño.

ETA ez ote dira arquitzen egungo egunean ere gure artean cembait orrelaco guizachar beldurti? EZ ote naz ni nerau ere orietatic bat? BIC billatzen ba-naute ni; ta oriec ba-dira, aberatsa bata, ta besteа ondasun-gabea, edo ez orrelacoa, ceiñi beguiratu oi diot nic guei-enic? BEHARtsuari? EZ-aberatsari?

ORIEC bioc ba-diote, edo batzarrean, edo lagun artean, batac bat, eta besteac bertzea, eguia izana gatic aberatsi-ezac esaten duena: ori bera erran oi dut nic ere; edo erran oi dut nic, beste aberatsac nai duena.

ARTU—emanetan badabiltza oriec berac, edo besteren bi; edo aucitan, ta pleitotan ba-dabiltza, era bereco besteren batzuec, behartsuari nic eman oi diot escua, batetan, edo banaca niri hau oriec escatu ezquero?

AH! nolqui nic behartsu orri escuric ez ematea gatic, besteric ecin dudanean, iguesiari ematen diot, edo, aberatsari atsecaberic ez eguitea gatic, guelditzen naz ni guztiz mututua, edo ez dut aguertu nai nic, aguer nezaquen, gauzaric bat ere, naiz atera dedilla nai bezala, ta gaizqui errumes behartsua, edo gutiena dazaquena!

AH Pilatos gaistoa ni ere! bada, JESUSen hume behartsua-requin onembat eguitea, JESUS bera gaistoen artean uztea bezala da.

§.II.

§. II.

JUDUAC, EDO JUDA-TARrac JESUS utziric, artzen dute BARRABAS.

CER eguin ote zuten Judatar gogorrac, bitatic bat; Barrabas, edo JESUS maitagarria artzeco escua PILATOSec Bazcoz oriei eman cienean? EDO cein artu ote zuten bi-etatic Juda-tar gogorrac, beren Jangoicoari esquerrac emateco, ceren lenago atera cituen Judatar beren aitziñeco Israel-darrac Igyto gogorren escuetatic?

CEIN? Barrabas, edo Jesus?

GAUZ arri-garria cen, Jesus utzi, ta Barrabas artzea. Ba-cequiten Juda-tar Apezac, necazariac, arrantzaleac, languilleac, eta, gañeraco, antustez, jaquiundez, diruz, ta arrotasunez beteric vici etziran, guciac ongui-nai izandu ciotela beti Jesus maita-garriari; pozic aditzen cituztela Jesusen hitz onac; eta, oriec aditu-naiez, ibilli oi cirala gaisoac erriz erri, edo toquiz toqui.

BA-cequiten 'Apez berac, bai, Jesusec eguin oi cituen, sendatze, ta gañeraco gauz andiac, begui onez ecusi oi cituztela, ta ciran bezala Jangoico-guizon baten miracullotzat genda-era oriec berac, eta beldurtu ciran, Barrabas utziric, esca cezaten oriec beren Jesus maita-garria; ta gueldi citecen Apezac berac, eta beste, Jesus gurea galeraci naiez cebiltzan, guciac, len-ere baño, aguitz gaizquiago, ta atsecabe, ta damu gueiago-requin.

BELDUR onequin, bada, ta cequitenac bezala, artuzuten Apez berac beren videa, JESUSi ongui nai cioten, oriei, JESUS utziric, Barrabas arerazteco.

SARtzen dira, bada, orien gucien artean; ta batzuec batzuei, ta besteac bertzeei adirazten die JESUSen gain, berac asmatu ala; ta nosqui, beste cembait gauzaren artean; beguira zutela cer eguitera cidoa cen; bal-din, Barrabas utzi, ta artzen ba-zuten JESUS maitagarria. ASIco cela JESUS berriz ere bere predicuz, ta milagroz bazter guciac nasten; gogan-behartuco cirala Erromatarrac; eta, orien petic Judatarrac atera citecen, beldurrarequin, beteco cituztela armaz, ta Soldaduz Juda tar beren, ta Israel-dar gucien Erriac, eta baz-

bazterrac; eta galduac izan behar zutela batac, ta besteac.

ORIEC guciac, bada, ta era bereco beste anitz asmacio, ta gauza sarten diotzate buruan gende gaisoari, an cebiltzan, APEZAC, errespetuzco GENdeac, eta CARGUdunac; eta eraguiten diote gende berari, berac nai dutena, edo esca-razten diote Barrabas, alde-bat utziric gure JESUS maita-garria.

ORObat eguin oi dute gurequin ere gure etsai sutugalgarriac.

ERRAten digu guri gucioi gure Jangoico maita-garriac, cer gauza den, guc nai duguna? NAI dugun guc gure JESUS bere Legue zucengarbia-requin, edo nai ote dugun guc JESUSen Legue berac debecatzen digun, cer, edo cer? VICI nai dugun guc, besteren gauzaric artzen ez dugula, edo lapur-erietan? IZAN nai dugun guc hitzez, gogoz escuz, ta lanez garbiac, edo nai dugun ibilli arin, ta aisa, loiez loi, hitz-ciquiñez ciquin, asmo gaistoz gaisto, ta atseguin lizunez lizun, ta liquits?

IBILLI nai dugun guc videgaberic bague; edo videgabez vide-gabe, ta charqueriz charqueri? BARcatu nai ditugun guc gueren atsecabe, ta naigabe miñac: edo arquitzen garan gu, gaizquiren bat eguiten digutenei ordañez erantzuteco asmoan? IZAN nai dugun guc JESUSen hume humillac, eta behar bezalacoac; edo arro-tzar errebes, gogoac ematen digun, eran vici nai dugunac?

OTZ-otzean galdetzen ba-zaicu guri hau gucia, edo era bereco cer, edo cer, gure Jaunaren alde jarrico gara gu; ta erantzunen dugu, guc gure JESUS maita-garria bere Legue garbi ona-requin nai dugula.

BAñA sartzen ba-dira gure artean, bein sulececo etsai amurratuac, guero mundu eroa bere gauz-equin, ta azquenean naicunde macurrac, eta aragui gaistoaren su viciac; eta bein bacoitzac bere videtic, eta guero, guciac elcar artzen dutela, ta tentatzen gaituztela, ascotan ar-erazten digute, lembician guc gueroc nai ez guenuena; edo, gure Jaun maita-garria bere Legue garbiarequin alde bat utz-eracirie, ar-erazten digute, gure Jaunaren Legue berac debecatua, ta Jaun beraren etsai galgarria, edo becatua.

ANITZ necatzen ote dira,

dira, beren lan gaisto hau guri eraguiteco, gure etsai-era oriec?

EZ, beintzat batzuetan!

EZ da hau ala? ERRAzu ezperen: NAI-etzenuen, hitz bat aditu-horduco, etziñan sutu zu, hitz hura zuri erran cizuna gana?

VIDE gaistoac, edo ocasio charrac escura cizuneco, etzenuen artu zuc, eta an bertan gorde, besteren, era onetaco, edo hartaco, gauza hura?

HITZquetan zu asi bezain laster, zuc cerorrec daquizuna-requin, etzebiltzan an zure ezpañaz, eta zure escuac, behar ez bezala, ta aguitz lizunqui?

SARtzen ciñan zu, zuc cerorrec daquizun, jostaquetan, cere bihotza, edo besterena an zuc erre-eraci gabe?

ETZEN ascoran asqui zure beguiratze arin char bat, atseguin loi batez ciquintzeco zuc zure barren gucia?

ASERREtzen ciñan zu noiz-bait, edo aldiren batzuetan?

ECIN errazago!

BAQUEtzen ciñan guero zu?

BAI; baña, norc daqui noiz? GOGORtzen ciñan zu cere guraso-equin? MUQUERtzen ciñan zu gañeraco-equin?

AISA, ta maiz!

ORRA bada cein neque guti-requin eraguiten cizuten zuri cere etsaiac, berac nai zutena, ta JERUSALENgo Apez Nagusiac, Guizon adituac, eta Cargu-dunac ISRAEL-dar gaisoei eraguin izandu ciena.

II.

NOLA beren lan gaisto orretara ote ciran ISRAEL-dar gaisoac, edo, JESUS utziric, Barrabas artzera?

LEMbicico aldian etziran trebe izandu; ez eta saiatu ere beren lan char galdu hau eguitera; ta PILATOS Juezac erran cienean, cein nai zuten berac, aguertzen ciezten, bietatic, edo JESUS, edo BARRABAS? APEZ gaistoac, eta gañeraco orien Lagunac ba-cerausaten ere, JESUSen' gain, edo contra, mututuric guelditu ciran gañeraco gendeac; baña Apez orieri, ta orien lagunen hitzontzi-queriari behar-nac eman ciezteneco, asi ciran beren gaitz-aldera macurtzen; ta PILATOSec guero bigarren aldian erran horduco, cein nai dezue-zuec, orain ni gandic aditzen dezuten, bietatic, JESUS, edo Barrabas? Bertan

tan, ta batetan eranzun izandu cioten, BARRABAS: hau da hau, guc orain nai duguna, ez beste ori, ez JESUS: *Quem vultis de duobus vobis dimitti? At illi dixerunt: Barabam.* Ibid. v. 21.

AH zuec APEZ gaistoac! AH zuec Escriba-tzar galdu-galgarriac! ISRAEL dar centzu gabeac eguin dute, bai, zuec nai cenuzten, eguitecoa; baña, oriec beren ezpañez escatua gatic, zuec zarazte ceren Jangoicoa-requico lembicicoric BARRABAS escatzen dezutenac! ON daguizuela, bai; bada emen bezala, Barrabas izain da guero ere seculaco zuen lagun, ta adisquide!

ZORI gaistoan jaioac nombait zuec, erran daquiquezue zuei orrembat anima gaiforen gal-garri gaistoei: bada oraingo zuen lanari dagocan, bucaera da betico sua, ta beti ta beti lerturic sulece arri-garrian erretzen egotea.

EZ dezue zuec anitz urricari, ez, orain zuec neque-petan darabiltzuen, JESUS maita-garria, orrembat JESUS-en neque-requin aspertu gabez, ceren aldean ori utziric, Barrabas artzen dezutenean: ez eta ceren buru gaisoa ere; bada, nequetan zuec JESUS uztea-requin, zucen-zucen zoazte ceroc beti-betico ceren buruac galtzera.

CER eguiten dezue zuec, ISRAEL dar gaistoac? BARRABAS bate gatic, galdu betico Jesus maita-garria? GALtzearen andia!

AY ene! ta ez ote da galtze aguitz itsusiagoa, nic bein, ta ascotan ere eguin izandu dudan, JESUS beraren galtzea? EZ dut galdu izandu nic ere nere JESUS, becatu larriren bat eguin izandu dudan, aldi oro? EZ dut galdu izandu nic, ongui-ongui, ta aguitz garbiro nequiela, cer cen, ta norañocoa nic orretan galdu oi nuena?

ISRAEL--darrac jaquin ba-lute, nic daquidan eran, nor cen JESUS, utzico zuten gure JESUS maita-garria BARRABAS gaistoa-gatic? EZ dut uste.

ETA ez nequien nic, ni nerau becaturatzeu nintzanen aldi-etan, gure JESUS maita-garria cela Jangoico-guizon, nere amorez, orrembat nequetan ibilli-ondoan, gurutze batean illic guelditu-ricacoa?

ETA hau gucia nic nequiela, utzi dut nic nere JESUS maita garria ecer-ez bate gatic, arseguin char lizun loi

bate

bate gatic, edo edocein beste becatu mortale gatic?

ETA utzi dut nic nere JESUS maita-garria, bein ezecic, berriz, ta birretan, ta nic neronec daquidan, aldi gucietan?

HAU ba-daquit nic, eta al-ere etzait damuz lertzen nere bihotza, ta barren guciguci hau?

I.

QUI IUXTA ME ERANT, DE longe steterunt; & vim faciebant, qui quaerebant animam meam. Ps. 37. 13.

CER eguin ote dira, gure JESUS maita-garria, zure Apostoluac? CER, zu-requin cebiltzan, gañeraco gendeac, eta guizonac?

IGUESI joanac dira ni gandic, eta guztiz urrun dabiltza, dio JESUS maita-garriac. ONGUI: ta ez da hau berau nic ere, beti-beti ez-izan-arren, ascotan beintzat, eguin izandu dudan, lan charra, ta eguiteco esquer-gabecoa? Ez nembillen ni ere, edo gueienean, edo maiz asqui beintzat nere erara, nere gogara; ta zure Passioneco nequeez, zure ibill-era penatuez, ta egote gogorraz oroitu ere gabe, nere JESUS maita-garria? ETA-ez da hau, zure iguesi ni, ta zu gandic urrun ibiltzea?

BAñA nor naz ni, era onetan, orain-dañoco demboran ibilli nazan, guiza charra? Ez naz ni, nere JESUS maita-garria, guizon gucien artean zure alde-rena vici diran-etatic bat?

EZ naz ni, gueien-gueiena zuri zor dizuten cere hume-etatic? ETA orietatic nazala ni, ni naz orain-dañocoan onen esquer-gabecoa? ONEN itzurtia? ta onen galgarri galdua?

ETA al-ere isillic arquitzen zara, zu, nere JESUS maita-garria? ta al-ere zu ni, cere gogoan naducazula, arquitzen zara beti? ta arquitzen zara beti, niri ongui-naiez, ta nere oneraco, orrembat nequeren, ta etsai galduren artean, lagun bat bad-ere cere alde ecusten ez dezula. Ah nere JESUS maita-garri-eguia! ta noiz erantzun nic zure amore bazter-baguecoari?

ONGUI beintzat, ez-eta etarnidade gucian orretan ni haria gatic ere!

GAUR-danic ba-dere banegui nic nere lan on onetan nere al-eguina!

BAñA zure Apostoluac,

eta ni, nere JESUS maita-garria era onetan, ta zure iguesi gabiltzan artean, nola dabiltza, ta cer lecutan zure etsai, JUDAtar gogorrac?

ZURE orpoetan dabiltza ori-etatic batzuec, zuc iguesseguin dezazun beldurrez bezala; ta zure beguietan arquitzen dira gañeracoac, eta inguruan, zu, gaizqui illic, lembaitlen ecusi naiac, eta guciac dabiltza zuri cere vicía era gogorren batean galerazteco videac billatzen bezala: ta, orretaraco, or dabiltza guciac ojuz, matmariz, guezurrac asmatuz, PILATOS beldurtu naiez, ta ISRAERdar gaisoei engañioz, ta filuracioz beren beguiac betetzen dieztela.

ETA ez ote nabil orien eran ni ere! Ez ote dut nic ascotan nastu (ta aguitz al-ere) nere adimentua, ecus-ez cezan onec nere gaista-querien itsustasuna, ta nere gaista-querie-quin nic JESUSi emanicaco, atsecabea, ta damu izu-garria?

ETZEN hau, nic nere aldetic al-eguina eguitea, nere JESUSi quen cezoten Borrero gogorrac bere vicitza?

ONEtan ibilli naz ni, bai, Judatar gogor itsuen eran, ta ero galdu bat cebilquen bezala; ta hartan ibilli naz ni; certan nembillen ohartzen ez nintzala?

ETA hau gucia orain, nic ezaguturic ere, onen damu labur-epela-requin arquitzen naz ni; ta arquitzen naz ni, arquitzen nazan, bezain otz, eta atsecabe guti-requin?

2.

EGO AUTEM TANQUAM SURdus non audiebam, & sicut mutus non aperiens os suum. Ps. 37. 14.

NIri gaizqui nai eidatenac, dio JESUS maita-garriac, erraten zuten nere gain, gogoac ematen cien, edocein eraqueri, ta guezur. BA-cerausaten, bai berac nai zutena, ta etziran erausiz aspertzen bein ere genda-guiro char galdu oriec; eta oriec izan naiez cer erausi, nere gain, beren gogara ni berac gal-eraci artean, goicetic asi, ta gau-eco berandu-raño asmatzen ceuden beti erausi berrien gaiac, eta nere gal-videac: eta al-ere ni guztiz gor-eguiñic, edo deus aditzen ez-duen, edocein guizon gorren eran.

CER gatic hau zuc onela gure JESUS maita-garria?

ZU-

ZURI ongui naiez, dio, becatari charra, ta zuri zucen eracustea gatic, nola egon beharco dezun zuc, ongui egoteco zu, era bereco erausiz, ta vide-gabez cere beharriac zuri betetzen dizquitzu-tenetan.

PILATOSec etzequien, ez onelacoric, zuc ederqui daquizun bezala, gure JESUS maita-garria; ta ala ere PILATOSec ecusi horduco, ecusi zuen, eran, zure mutu-tasuna, ta Judatar galduen erausi-tacrausia: ta Judatar berac zure gain asmatzen zutena, ta bazter gucietan cerausten a, erran izandu cion JESUS maita-garriari arituaren eran, ta Judatar gogorrac bera-raci naiez: Ez dituzu aditzen zure etsaiac emen zuri gaur asmatzen dizquitzuten, gauzac? *Non audis quanta adversus te dicunt testimonia?*

CERtan zaude bada zu gaur emen orren mututuric? CER gatic urratzen ez dituzu zuc, cere egui garbi zucenequin orien guezurrac? CER gatic isill-erazten ez dituzu zuc emen bertan hitz-ontzi guezurti oriec?

ORRA Jesus maita-garriari gaur PILATOSec erraten diona.

BAÑA cer ote dio Pilatos onen erran-etara, berari az, edo bere naiez mututuric arquitzen den, gure JESUS maita-garriac?

HITzic ere!

ETA cer ote deritza Pilatosec era onetaco JESUS-en isill-erari?

HARC deritzana da, hau dela mundu gucian arquitzen den, gauzaric berriena, ta arri-garriena: *Ita ut mirarentur Praeses vehementer.*

AL-ere da, ta: da alabaña, utsic ez duen, Jangoico guizon baten egusteco, edo lan ecin zucenagoa; ta Jangoico-guizon, bere Aitaren icenean, hitz bat atera nai ezduenaren isillera, dembora berean ecusten ba-du ere, beren hitz galdu-char guezurtiequin Judatar gogorrac ciquintzen diotela, beren naiez, ta ustez, bere honra ecin-garbiagoas ta hau oni alec ciquindu ondoan, quendu-nai diotela, duen, odola, ta vicitza; ta quendu nai diotela, Barrabas bezain guizon gaisto bati barcatzen diotela bad-ere.

IZAN behar ote dut nic gaurguero, hau gucia nic nere JESUS ona gandic icasi, ta ere, orain-dañocoan izandu nazan, bezain mimberea, edo izucorra? NAI ez nuquen hitz

hitz bat nic aditu-horduco, erian uste dut, nic bertze bat, aditzen dudana bezain gaistoa, edo aguian gaistoagoa? EZ ote dut artu behar emequicho nic, eta hitzic ere atera bague, nere JESUSen icenean, era orretaco edocein hitz, nic daquidan ezquero, orain daquidan bezala, cembat, eta cembat era berean artuac daduzcan ni gatic nere JESUS maita-garriac? BAI baldin bere! BAI berac laguntzen didala, bai.

3.

CONVENERUNT... ADVERSUS... *Jesum Herodes, & Pontius cum gentibus, & populis Israel facere, quæ manus tua, & consilium tuum decreverunt fieri.* Act. 4. 27.

GAIStoac ba--daguiquee, cembait aldiz beintzat, berac nai dutena; baña, guc ala nai izatera, gure onetaco dira gaistoen gaizqui, ta gaistaqueri guciac. EZ dugu guc orretaraco, JESUS maita-garriari beguiratzea, ta JESUSen eran ibiltzea besteric behar.

ISRAEL-darrac, eta Judu gogorrac ibilli ciran JESUS ill-eraci naiez; ta azquenean eraguin zuten oriec, berac nai zutera, irabazten cituztela, beren lan gal-garri onetaraco, PILATOS, HERODES, ta, harataraco ciran, guizon guciac.

EGUIN cezaqueen Israel-darrac, beren lan hau baño gauza gaistoa-goric? ETA cer ote cion, orretan oriec cebiltzan demboran, gure JESUS maita-garriac?

ISRAEL-darrac, eta Juduac, gaizqui naiez billatzen ciotela, berac guero izandu zuen, eriotza: baña, oriec ematen cioten, eriotz beretic atera nai zuela Aita eternoac bere gloria, ta munduco galduen ona; ta Aitaren nai onari beguiraturic, nai zuela JESUSec berac ere JUDA-tar galduac, gaizqui naiez ematen cioten, eriotza.

ORREtaraco gucindu cituen bere beguiac JESUSec Juduen gaizqui-etatic, Judu gaisto-etara mindu etzequion bat ere bere BIOTZA, ta Aita eternoac nai zuen, eriotza gogoan arturic, erditsi zuen JESUS maita-garriac, beraren Aitac berac nai zuena; bai ta, icen guciac garbitzen dituen, icen andi bat ere, ta, guero Ceruratzen ceneco, Aita beraren escoi-aldza.

NAI diozu zuc ere atseguin andi bat eguin cere Jangoico Aita maita-garriari, charqueriac, vide-gabeac, gaizquiac, edo nequeac cere gain ecusten

ten dituzun aldietan? NAI dezu zuc videnabar irabaci icen andi bat, eta anitz gloria beste munduraco?

EGUIZU bada, JESUS maita-garriac zuri gaur eracusten dizun, eguitecoa.

EZ beguiratu, bada, bat ere zuc, zuretzat HEROBES, PILATOS, edo orien pecoa dirudien, guiza-guiro orri; ez beguiratu, zuc bat ere, Judu gogor gaistoac baño, gogorragoa, edo gaistoagoa dirudien, guiza charrari, edo emacumeari: beguira zagozu zuc cere Jangoicoari: eta ezaguturic dena, den bezala, edo zure Jangoicoac ala nai izanduric, dela, zuc Jangoico beraren icenean, ta zure animaren oneraco eraman behar dezun, quezca gogor, edo naigabe ori, eramazu zuc alic emequiena, ta Jangoico berari escatuz, cere lan hau zuc ongui eguiteco, beharco dezun, Jangoico beraren laguntza, ta gracia.

AH, nere Jangoico maita-garria! NIC nere lan hau era onetan eguin izandu banu nere orain-dañoco demboran, gaur Ceruraco milla ondasun-equin arquitzen nintzan ni, ta nere orain arteco, ta gaur bertaco nequeac ere, eraman oi ditudan, baño, arin tasun gueiago requin, ta aguitz aisa naramatziela!

BAñA galdu dut nic hau gucia; ta, Ceruco nere vide zucena galduric, ibilli izandu naz ni, nore daqui, cembat becaturen artean?

EZ al-dut berriz nic eguiñen, era bereco ibill-eraric? Ez baldin bere, ez,!

Eguiñen al ditut nic, orien lecuan, bere aldi onetan JESUSec niri eracutsi dizquidanac?

NAI nuque beintzat bai, ta orain--dañoco nere utsen barcamentua ere. Ori escatzen diot nere Jangoico maita-garriari, hitzez, ta bihotzez erraten diodala: *NERE JESUCHRISTO JAUNA, &c.*



LVIII.

LVIII-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSEN AZOTEAC.

§. I.

EMATEN DU PILATOSEC JESUS AZOTAtatzeco sentencia.

I.

ARRIturic guelditu cen PILATOS, ecusi zuenean, Judatarrac, JESUS utziric, artu zutela Barrabas, lapur gaisto, guizon ilguillea; ta cer guertatzen zaion, ez daquien, guizon baten eran, galdetzen die Judatar berei: ongui Jaunac, eta cer eguin behar ote ditugu guc gaur, CHRISTO deritzan, onaco JESUSez?

CEER? eranzuten diote Judatar gogor galduac: gurutze batean vicirie josi, ta an, milla nequeren artean, iltzen utzi.

ORRA ceren billan dabiltzan JUDAtar gogorrac, ambat arazo, gau-galtze, erausi, ta asmacio guezurrezco-requin; ta, hau gucia berac erditsi artean, ez dute uste, onic izan behar dutela.

BEREbat neritzan nic ere, nere Jaunaz oroitzen ez nintzala, nere atseguin loien ondoren, ta videgabeco gauzetan nembillen demboran. BAñA niri aldi orietan guertatua, guertatuco zaie Judatarrei ere.

DAMUtzen cequidan niri, nic neronec eguin-icaco, gaizquiez, oriec nic eguin-ondoan, cerbait ni centzatu horduco; ta bere-bat guertatuco zaie Judu gogorrei ere, gure JESUS maita-garria berac illeraci horduco.

EZ dute oriec ori uste; ta orre gatic orain escatzen diote Pilatosi JESUS maita-garri beraren gurutzeco eriotza.

II.

II.

PILATOS etzen arquitzen, ez, Judatar gogorren eran, edo etzen orien eran ſu viciz, paſſione galduz, ta aſaldacioz beteric arquitzen Pilatos; ta PILATOSec ecuſten cituen gauza guciac, gauzac arquitzen ciran, eran, ta bat ere anditu bague; ta, Judatar gogorren ezpañ-etatic aditu-horduco, ill-eraci cezala JESUS gurutze batean, iltze ſendorrez joſ-eraciric, eman izandu cien PILATOSec, Judatar berei beren gaizquia bertan ezagutzeco lecua; ta erran izandu cien guero, vide zucenic utzi nai-etzuen, Juez onac bezala: Eta ceri dagocala, eguin behar dut nic, zuec ni gandic orain orren gaizqui eſcatzen dezutena?

CER gatic ill-eraci behar dut nic, ez gurutze batean, ta ez beſtela ere, obenic ez duen, onen eraco guizon bat?

BEIN, ta berriz adiraci dizuet len nic, eta orain irur-garren aldian diot, ez dutela guizon onec eman izandu, zuec eſcatzen dezuten, eriotz gogor orre-taraco, videric bat ere; ta oben bagueco guizona dela guizon hau; ta guizon culparic ez duena.

BADA nola nai dezue zuec, zuei atſeguin eguitea gatic, daguidan nic ecin daguiquedan, gauza bat; eta gauza, zuec nai dezuten, hau bezain gogor itſuſia?

NIC daguiquedan gueien-gueiena da, caſtigu cerbait guizon oni ematea: baña eriotza? ez da Legueric, ez; ecin daguiquet nic niola ere, ez.

AH Pilatos, Pilatos guizajoa! BERAtu zaituzte cerbait zu cere JUDAtar gogorrac! LASTER eguiñen dezu zuc, bai, oriec nai dutena.

ETZIRAN aſe bat-ere JUDAtar gogorrac, aldi onetan PILATOSec eſcañi cienaz: ta aditu-horduco, Judu berei atſeguin eguitea gatic ema in ciola JESUSi cerbait caſtiguera edo cearacico zuela gure JESUS maita-garria, bazter guciac ojuz urratu naiez cebiltzan JUDAtar gogorrac; eta EZETZ, erraten cioten PILATOSi: etzirala content JESUSen azote-equin: ill-eraci cezala JESUS erraten cioten, ta gurutze batean al-ere. *At illi magis clamabant, dicentes, crucifigatur.*

ORI bera da, gure paſioneac gueroztic eguiten dutena, tentuz, ta tentuz dabiltzan, aldietan, gu guztiz orien gain ez gogortzera, edo guc ori-

ei gueren gogoraco far--vide cerbait eman ezquero; bada, oi guc oriei eman ezquero, garaitzen gaituzte gu, ta eguiten dute gutaz, berac nai duten, edocein gauza; ta Juduen oju latzac, eta gure lan-gaiftoac efcatzen dute JESUS berarendaco gurutzeco criotza.

BEGUIRA bada afierari; beguira! BERE lan onenari beguiratu baguez, afi izandu zuen PILATOSec ez-ongui JESUSen bere lan hau; ta, afi bezala, bucatu zuen, bere lan gaizqui afiricacoa.

III.

ETA cein izugarria Jefus maita-garriaren-daco lan char onen afiera!

BELDURtu zuten PILATOS Juduen aldi onetaco ibill-era arazozcoac, eta oju latz gogorrac; eta oriec ifillleraci uftean, artu izandu zuen Pilatosec, ecin ar cezaquen, vide macur galgarri bat; eta, bein, ta berriz, ta irur-garren aldian aitortu ezquero, etzuela JESUSec obenic batere, bere etfai Judatar galduac aguertzen cituzten, gauza guci-etan, JESUSi, berac-nai zuen, alde-tara joateco efcua eman lecuan, eman izandu cion, obendun Barrabas lapur-iltzallearen gain eman cezaquen, fentencia bezain, fentencia gogor izu-garri bat; bada manatu zuen, an bertan azotez cea-cezatela JESUS maita-garria; ta, ori baicic, ecin mana cezaquen lembicico aldian, Barrabafen gain, ere, guero gurutze batean ill beharra izan ba-cen ere Barrabas izu-garria.

ETA cer ote da, JESUSec diona, Pilatofen vide-bagueco manu hau adirazten zaionean?

Ezpañez ez du JESUSec erraten hitz bat ere; baña bihotzez erraten dio bere Aita maita-garriari, beraren icenean len DAVIDec erranic ceducan gauza bat: *Quoniam ego in flagella paratus fum.* (Pf. 37 18.): ONA ni, nere Aita maita-garria; ona ni bertatic preftzuc ni gandic nai dezun, guci-gucia eguiteco.

NERE gain artuac ditut nic munduco becatu guciac, eta preft arquitzen naz ni, nere Aita maita-garria, becatu berac efcatzen dituzten, azote guciac artzeco.

UTZI diozu zuc, nere Aita, Pilatofi, berac nai duena nere gain manatzeco efcu gucia: manatu ditu azoteac: izan ditecela bada zure icenean, ta munduco becatu guclen alde, oraingo nere azoteac.

HAU

HAU da, gaur JESUSec diona, nere becatu guciac ere gogoan daduzcatziela; ta, oriec ere, gañeraco becatu guciequin batean bertatic urratu naiez da, era onetaco JESUSen erratea: ta nereac beintzat urratuco dira, nic nere ez-naia-requin ez eragoztera.

BAñA cembat JESUSen oñace neque--requin? GOACEN ecustera.

§. II.

SOñECOAC QUENDUtic, LOtzen dute JESUS Borreroac azot-ucaldi-etaraco.

I

PILATOSec bere manu, edo sentenci gogor hau eman zuenean, an orretaraco prest ceuden, guizonac artuco zuten JESUS bere besoetatic, eta eramain zuten, azoteac artzeco toquira.

ARAco videan bein, ta guero an bertan cer gauzac erran etziozcaten JESUS maita--garriari, ta cer elcarri Borrero gogorrac?

GUCIAC aditzen cituen Jesus mimbere maita-garriac; eta adituco cituen, lors, edo alque guztiz andia-requin: baña ezpañic ere erabilli bague; ta ontzat artzen cituelà bere Aita maita--garriaren icenean, ta gure becatu guciguicien alde.

ERRAN ciotenean Borrero gogorrac gure JESUS maita-garriari, quen citzala bere soñecoac, era aguer cezala bere gorputza, artzera cetorren, azote-etaraco, alquez nosqui, ta nai-gabez itotzear citzaion bere BIHOTZ guztiz maitaria: ta GETSEMANIco odolicerdiac, eta guerozco hondra-ezac, eta neque guciac baño, atsecabetuagoa urzico cion hau eguin-beharrac bere barrena.

BAñA al-ere eguin zuen JESUS maita-garria (eta bat ere luzatu gabe), Borrero gogorrac erran ciotena: ta beràc bere aldetic al--eguina eguiten zuela, ta, azoteac eman naiez, berandetsiac ceuden, Borreroac tiraca laguntzen ciotela, guelditu cen lasser soñecoric gabe, lumaz egaztiac, illez laur-oñecoac, azalez zurac, eta printzez loreac estaltzen dituen, gure Jangoicogaizon JESUS maita-garria; ta ala guelditu cen JESUS, berac cequiela, nola cegozcan beguira Ceruco Aingueruac, Erromaco Soldaduac, eta Judatarren arteco bere etsairic gogor-enac; eta orien beguiratze onec

onéc alquetzen zuen guztiz JESUS maita-garria, ta nai-gabetzen cion bere BIHOTZA, ecin gueiagoraño.

II.

SOñECOric gabe, ta billusiric ecusi zutenean, lotu zuten JESUS pillare batean Borrero gogorrac.

EGOIN cen, bai, gueldiric JESUS maita-garria, lotu ezpa-lute ere; ta eramain cituen gure becatuen alde, Borreroac eman nai adiña azote, ta gueiago ere: baña etzuten Borreroac, JESUSen gu ganaco amorearen berriric bat-ere; ta, iguesca cebilquen, bat bailiz bezala, lotu zuten JESUS escu-mutur-etatic; eta aguian bai oñetatic ere: eta lotuco zuten, alic-ere segurquiena; ta orre gatic ecin gogorquiago.

BEGUIRA-eguiozu zuc emen, beste ecusquizun guciac apur batez alde bat utziric, cere JESUS maita-garriari. SOñECOric bague dago, ta bere escu-oñac sendorqui lotuac daduzcala, gure JESUS maita-garria!

LENECO gau gucian ecusi ditu JESUSec, batec ecus ditzaquen, vide-gaberic, charqueriric, eta nequeric andienac!

GOIZ gucian erabilldute gure JESUS maita-garria, alquez alque, calez cale, Tribunal gaistoz gaisto, ta ucaldiz ucaldi!

GOIZ otza da ostiral santu-goiz hau! Lecu aguerian daducate, gure JESUS maita-garria, ta, aicea nondic nai sartzen den, lecuan!

CER alque--quizunac, bada, cer oñaceac, eta cer otzac ez ditu JESUSec ecusten guis-onetaco eran, ta lecuan?

CER gatic dago gaur soñecoric gabe gure JESUS maita-garria?

CEREN zuc eta nic galdu guenuen graciaren gueren soñeco ederra; ta ori gu gana itzul-eraci naiez.

CER gatic lotu ote diozcate Borrero gogorrac JESUSi bere oñac?

GUREen ibillera ariñac gatic, eta ceren sartu guinduzten gu gueren oñac jostatze arin galgarrietan, ta iche, ta toqui gaistoetan.

CER gatic escuac?

Gureen luzatze gaisto, uquitze ciquin, artze char labur, ta gañeraco ligereciac gatic.

ETA cer gatic dago JESUS onembat alque-requin, ta onen otz-icara?

Ce-

Ceren guc urratu ditugun, alqueric gabe gure JESUSen manuac; eta gure vendecuzco, ta gañeraco ibillera bero ciquiñac gatic.

ORRELA, gu gara JESUSen Borreroac, edo guisorretan JESUS ezar-eraci dutenac?

BAI, bai! gure becatu ciquiñac gatic ez-pa-cen, etzuten Jesus, ez Judatarren Borrero gogorrac orretaraco!

ETA, hau nic jaquiñic ere, orain daquidan bezala, ni onetaz oroitzen nazan, aldietan etzait niri alquez, ta lotsaz betetzen nere aurpegui hau guciac?

Baña ez da, ez hau, izanic ere den, bezain gauza ciquin itsusia, guc aldi hartan Borrero gogorrei eraguin guenien gucia; ez eta gauzaric gogor-ena ere. Goacen ecustera.

§. III.

URRATZEN DUTE JESUS bost milla azot-ucaldi, ta gueiago requin.

I.

ERA hartan JESUS ecusi-horduco, asi ciran Borrero gogorrac JESUS ceatzen.

OMEN ciran beintzat sei-etaraño, orretan haritu ciranac; eta bata, bestea bezain gogor amurratua. HARITU ciran aldizca; ta aldian gogoticago. BA-zuen norc bere azote-modua; ta guciac ciran arrigarriac; bada batzuec omen ciran elorrizcoac, eta arantcez beteac: besteac idi-zañezcoac, eta burdin-pusca zorrotzez josiac; eta gañeracoac cate meezcoac.

ASMA zazu zuc, al badaguiquezu, Borrero gogorren azote oriequico lembico ucalditic azqueneco--raño Jesus mimbere maita-garriac an eraman, ta ecusi izandu zuena!

JESUSen gorputza cen gorputz odol garbien garbienezcoa; ta gorputz, oraindic aguertu den, mimbereena.

JESUSen gorputz hau arquitzen cen horduraco aguitz odol-ustua; ta guztiz nec atua

BEREz gogorrac ciran, ta sendor indartsuac, JESUSen gorputz mimbere hau ceatzen zuten, Borreroac; etzeuden oriec, ez, bat ere necatuac.

PILATOSec, igorri cituenean JESUS ceatzera, errain cien, Borrero indartsu sendorrei, cea cezatela JESUS maita-garria, cupide-bague, ta ichura charrean uzten zutela, aguertzen cienean guero, aguertu uste cien bezala, ta ecusten zutenean Judatar gogorrac JESUS era, ain urrical-

gar-

garrian, erdi-urratua, ta illa cirudiela, urrical cequiozcan JESUS maita-garriari; ta utz cezaten, ala ba-cen ere, viciric, eta gurutze-ratu bague.

SUlececo Etsai gaistoac barrendic, eta Judatarrac hitzez, (ta ag tian bai diruz ere), sutuco cituzten JESUSen Borreroac, Jesusen ceatze hau eguin cezaten ecin gogorquiago; PILATOSec gurutze ratzen ezpa-zuen ere, horduco ceatze onetatic egun anitz igaro bague, ill-otza arqui cezaten, billatzen zutenac beren JESUS maita-garria.

ECUSI zazu cer-nolacoa izan citequen orien horduco azot-ucaldia? Cembait azot-ucaldiren buruco guelduco cen JESUSen gorputza odola ceriola. ANdic laster aico ciran Borreroac, azot-ucaldiz quentzen Jesus maita-garriari, bere gorgutzeco araguiaren zatiac?

ETA bein alde batean, ta bein bestean ematen ciotela, nola urzico cioten JESUSi bere gorputz gucia, burutic oñetaraño?

EZURRAC ere agueriran ceduzcala nosqui, ta eraietaraño co zulo-equin: bada JESUSec artzen cituen, azot-ucaldiac guztiz arri-garriac ciran; ta izandu ciran oriec bost milla, ta bost eun bezala, gueroz Cerutic Anim-onei adiraci zaienaz.

ETA nai-ta-ez anitz izan behar zuten oriec, eta guztiz izugarriac; bada ciran gure atseguin loien, ta munduco becatu gucien alde JESUSec artu-ricacoac; eta munduco becatuac andi-itsusi-arrigarriac dira, ta guc cont-alac, baño, anitz gueiago: ta denbora berean ciran, guc ezagu-al baño, aguitz beltzagoac, itsusiagoac, eta gaistoagoac.

NIC nere gorputzari eman diozcadan, atseguin char, ta gusto loiac gatic, onembat JESUSen azote, odoltze, urratze, ta neque!

Amurratuac ote daude Judatar gogorren oraingo Borreroac? AZOT-ucaldica atera nai ote diote JESUSi, JESUSec duen, odola, JESUSen odolez berac aserzeco? AN bertan JESUS illic utzi--naiez hari ote dira Borrero-tzar oriec, edo cer?

EZA ez dut cer nic ez, oriei galdetu, eguiteco onen gain jaquin nai dudana; galdetu behar diet ori nic nere oben-culpei, ta nere becatu galgarriei; oriec gatic da alabaña, gure JESUSec aldi one

onetan daraman azot-ucaldia, ta neque arrigarria.

NERE becatuac, bada, ta nere oben-culpac, noiz-artean harico zarazte zuec ceren azotez urratzen gure JESUS maita-garria? NOIZ artean iduquico dezue zuec JESUS maita-garria bere gorputzeco bazter guci etatic odola dariola, ta urratce berriz, neque izu garriz, ta oñacez betetzen dezuela?

AH becatu madaricatuac, nere orain-dañoco becatuac! ZORI gaiftoan aguertu ciñazten becatuac! bada zuec-zuec zarazte gure JESUSen gaurco Borreroric gogorren-gogor-enac! ETOR-quizunac ba-ciñazte zuec, etortzen zuei utzi baño, len milleta illa pozic guelldituco nintzaque ni!

BERANDU bad-ere damutu zait orain, nere Aita eternoa, oriei len nic nere bihotzean lecu eguinaz: lagun zaquizquit orain, zure graciazco urriqui onez guciac iltzen; ta buca-bitez lembait-len, nere becatu oriec gatic diran, JESUSen azot-ucaldiac; eta ez dezotela gaurguero eman bat ere Juda-tarren Borrero indartsu-gogorrac; ez arren, ez.

II.

NOIZbait guelditu ciran oriec; eta quendu ciozcaten bere locarriac gure JESUS maita garriari. ORIEC beren locarriac JESUSi quendu-horduco, flaquiaz, ta indarric gabez, eronco cen gure JESUS maita-garria bere odolezco iftillean: baña, ecuftiric JESUSec bere horduco egoera; ta alqueac, eta lotfac vicirazten zutela, joain cen erdi-ibilliz, erdi-arraftan, bere foñecoac ceduzcan, toquira; ta, nequez ba-cen ere, jauncico cituen JESUS maita-garriac; eta, hitzic atera gabe, guelditu cen preft, Borrero berac, eta gañeraco an arquitzen ciran, guciac egun nai ciozcaten, videgabe guci-etaraco.

AY! hau ecufcaria! ta Jangaico-guizon-JESUS maita-garriari guerta cequiqueola, orain guc aditzen dugun, alque-quizun, ta neque ecin andiago hau?

HAU ecuften Coruco Ainguerac, eta isfillic al-ere!

HAU ecuften JESUSen Aita eternoac berac, eta uzten al-ere fulecoei, Juda-tar gogorrei, ta Borrero gaiftoei, daguitela guciac, bere Seme JESUS maita-garria-requin, beren

ren gogo amurratuac ematen diena! ta daguitela gure oben-culpac gatic, eta gure becatu ciquin loi gaisto galgarrien alde!

ANDIAC dira nombait gure oben-culpen, ta becatu galduen zorrac! ETA andiac dembora berean gu becatarien ganaco Aita eternoaren aserreac, orrembat escatzen duenean Aita eterno berac, beraren, ta gure arteco baque-etaraco!

AH, nere JESUS maita-garria! ta an arquitu banintz ni, zuri cere Borrero gogorrac emanicaco azot-ucaldiac bucatu, ta erori ciñanean! CEIN ciñez horduan nic? cein negar beroequin escatuco nizun zuri nere becatu irsusien, ta nere oben-culpequin cere neque arri-garri-etaraco eman izandu nizquitzun, videen barcamentua! Pozic apatuco nizun nic horduan, bai, ta humilqui al-ere, odolez beteric arquitzen ciran, cere escu on-eder-etan.

CERORREC hartan niri uzten cenidala, artuco cindudan nic zu horduan cere besotic lagunduco nizun nic zuri, cere odoletic ateratzen: ecarrico nizquitzun nic zuri cere soñecoac; eta ori-equin estalico cindudan nic zu alic laster-ena.

ETA, nai ba-cenuen zuc, gueldi cedin an, ni gatic isuri cenuen, cere odol gucia, utzico nuen nic hau, artuco nituen, odol bera isureraci cizuten, Borreroen azote gogorrac; apatuco nien guztiz devozqui, ceren nere oneraco uquitu cinduzten zu; ta gordeco nituen nic guero, egun hartaco zure nequeez beti, ta beti ni oroitzeco, ta, ecusten cituzten, gucien oneraco!

EZ nintzan ni, ez an arquitu, ta ecin neguiquen nic, orain erraten ditudan, gauz-etatic bat ere. NIC! gaurguero daguiquedana da, horduco zure gauzac, eta neque gogorrac maiz gogoratzeac ta, oriec nic nere gogora ecartzen ditudan, aldi oro nere naiez, ta gogoz, an eguin gogo nuena emen bertan eguitea: ta eguin uste dut, bai, zuc cerorrec niri, nere Jesus maita-garria, nere lan on hau eguiten laguntzen didazula. ALA guerta dedilla, bada, bai arren, bai.

I.

QUONIAM PROPTER TE SUSTINUI OPPROBRIUM, OPERUIT CONFUSIO FACIEM MEAM. Pſ. 68. 8.

BA-daquizu zuc, bai, nere Aita eternoa (erran cezaquen aldi onetan JESUS maita-garriac): ba-daquizu zuc, bai, cein irri-garri eguiñic erabilli nauten ni gaur nere etſai ſutu-galduac! ORAIN-dañoco orien eſcucac, liſtucac, illetiracac, eta gañeraco, nic daramazquidan, nequeac, neque ariñac dira neretaco, gaurco nere alque-quizunaren aldean!

CERU-lurrac, eta lurreco-etatic anitz beguira dagoz-quidala, quendu dizquidate niri nere ſoñecoac; eta utzi naute ni, nere burutic oñeta-rañocoan alquez, ta lotſaz, nazan hau bete-betea.

BA-daquizu zuc, nere Aita maita-garria, hau gucia dela zuri nic ecin-gueiago-raño naiez, ta barca daguiezun zuc becatari gaiſoei, berac, ohartu-cabean bezala, edo beren gaiſta-queriz eguin izandu duten, gaizqui guci-gucia.

IZAN bitez nere gaurco alque-nequeac orien beren zorren alde, ta zure hondretan. URRICAL zaquizte gaiſoei gaur bertan, ta bat-ere luzatu bague; bada orien zorraren diña ba-da, nic daramadan, oraingo nere lotſa, te alque-quizuna.

GURE JESUSen amorearen arri-garria! LOTSAric bague ni ambat demboraz nere lan loi-etan, ta eguiteco ciquin-etan; ta orain onembat-eraño lotſaturic nere JESUS maita-garria, nere lotſa bague-queri ciquin galduac gatic.

IRRiz, ta farraz ni nere anima becatuaren loiez beteric, eta Ceruco graciaren ſoñecoric bague arquitzen nintzan-etan ere; ta alquez ambat-eraño illunduric nere JESUS maita-garria, ſoñecoric ere bague nere orain arteco eraqueri charrac gatic!

BEGUltan arturic ni nere Aita eternoac, ceren, virtutezco ſoñecoac utziric, nic jauntzi ditudan nere becatu-queri urrata ciquiñarenac; eta ceren berariaz eguin nazan ni, Aita betarren etſai itſu galgarri amurtzuac; ta nere JESUS maita-garria alquez, ta nequez beteric, den gucia, nri nere ſoñeco loiac utz eraztea gatic, eta, bere Aita palacaturic, haren, ta gure artean baque on batzuec eraguin naiez!

ETA al-ere gueldiric ni,

ta JESUS maita-garriari hitz on bat erraten ez diodala, onembat ontarteren esquerrac emateco: ta dembora berean nere becatuen loiqueriac, eta graciaren soñeco bagueac ez lotsaric niri, eta ez damuric ematen didatela?

AY hau centza-gabequeria! UTZIco al dut orain bad-ere? BAI arren, JESUS maitea, bai.

2

QUÆ NON RAPUI, TUNC exolvebam: & fui flagellatus tota die; & castigatio mea in matutinis. Ps. 68. 5.

GUre JESUS maita-garria, pillare batean sendorqui loturic, eta Borrero indartsu gogorren atzapar-etan, oriei JESUSec berac uzten diela, berac nai duten, gucia beraren gain eguiten nere zorren alde, ta nere eraqueri lizunac gatic: eta dembora berean ni nere buruari atseguin eguiten; nere etsai galgarri amurratuen, ta passione sutuen escuetan ni; ta loiez loi, ta becatuz becatu ni, orien gogara!

JESUSen bizcarrean, ta JESUS beraren burutic oñeta-rañoco bazter gucietan azotucaldica Borrero gogorrac, ceren nic eguin izandu niozcan nere gorputz char atseguincorrari, behar etziran, ta JESUSen Legueac debecatzen dituen, nai lizunac; eta al ere ni nere beguiei, nere beharriei, nere gogoari, ta nere gorputz berari atseguin berac, eta-beste anitz debecatu eguiten dieztedala?

JESUSen gorputz mimbereco ezurrac araguiric bat ere bague, ta, ori orrela izanic, nere araguizco becatu liquitsac gatic, ni, asmo ciquiñez, gogoeta galduz, ta becatu gal-garriz asetzen, ta asetzen nere aragui loitsu hau, ta nere gorputz gaistoco ezurmuñac!

NEQUEZ, damuz, ta tristuraz betteric gaur, obenic bagueco, gure JESUSen BIHOtz maitari ecin maita-garriagoa; ta dembora berean nere bihotz obendun loi ciquina damuric bat-ere bague bere becatu gal-garrien artean, ta becatu ciquiñen atseguin berrietan?

NERE zorrac atera naiez, gure JRSUS azotez urratua, ta soñecoric bague; ta ni apaindur-etan, ta zor berriac eguiten, ta eraguiten echean, Elizan, calean, videan, plazan, ta non-nai! HAU

HAU cer da, nere anima? HAU cer da, nere bihotza?

CER izain da? MUNDUan den, eraqueiric andiena: ta, ecusi dezun, centzagabe-tasunic eroen-eroena!

NERE Aita maite, JEJUS maitari-maita-garria, ni gal-ez nadin, galduric gaur gucia nequez, ta penaz; ta dembora berean ni nere eraquerietan, neque-vide berriac JESUSi eguiten, ta nere burua gaizquiz, ta videgabez galtzen-ta galtzen!

NOIZ artean iratu behar ote dute, orain-dañocoan onen gaizqui narabilten, nere eraqueriac?

NOIZ artean izain naz ni nere buruaren onen galgarri galdua?

ZUC ni, daguiquezunac beza la centzaraci artean, nere JESUS maita-garria!

EGUIZU arren zuc hau gaur bertatic, eta bat ere luzatu gabe. Escatzen dizut nic cere ontarte berri andi hau, lenecoer nic guztiz gaizqui errantzun diedalaco damuz ongui beteric, eta lenaz damuturic, eta ondu nai ciñezco bat nere bihotzaren erdi-erdiraño sarturic daducadala. ADI nazazu, bada, nere Jangoicoa maita-garria. Bai'arren, bai.

3.

NON EST SPECIES EI, NEQUE decor. Isai. 53. 2.

GU gucioc, Ceruco videtic atereac, eta galduric guembiltzan, dio ISAIAS Profetac. GUtatic bacoitzac artu izandu zuen bere cearra; ta, bere cearrez jaitsiz, ta malcortuz, edo amilduz cebillen lembaitlen sulecean guelditu nai znenaren eran; ta an erortzear cen, ta an erortzen guiñan gu gucioc, guri gure JESUSec ez laguntzera, edo bere gain JESUSec ez artzera gure becatuen carga tzar asluna.

CER carga dela, deritzazu zuc, zure becatuen cargatzar hau?

HAU zuc ezagutzeco, ez dezu beguiratzea baicic, nola dabillen onequin Jangoicoguizon JESUS maita-garria, izanic JESUS, daquizun, bezain sendor-indartsua.

AZOTU-etaco bere pausu hau eman horduco, guelditu cen JESUS, ecin-necatugalduagoa, dio ISAIsec: bada etzuen horduan JESUSec edertasunic bat ere; ta galdu zuela, cirudien, guizonareu ichura, edo amtzura ere.

BEGUIratu guenion, dio

Profetac, eta etzuen JESUSec, triſturaz bateric guelditu gabe, beguiratzen cionac ecuſcezaquen, gauzaric bat ere.

OIN-pean bezala cecarten guciac, gure JESUS maita-garria, ta etzen orien gucien artean bat, ongui beguiratzen cionic JESUS maita-garriari.

NEQUEZ, ta trabajuz eguiña cirudien, ta dolore-etaco retablo latz urrical-garri bat gure Jangoico maita-garriac.

LOTS andiz, ta alque izu-garriz eſtalia cecarren horduan JESUSec bere aurpeguia; ta ez guenion beguiratu ere nai guc, era hartan guc hura ez ecuſtea gatic, edo ez utzi-naiez JESUS hartaratzen, zuten gure becatuac.

AGUERI cen, bai; ta ongui al-ere, bere gain artuac ceduzcala JESUS mata-garriac gure animaco eri-taſunac, eta oriec gatic, guc eraman behar guenituen, neque-oñaceac: baña ez guenuen orretara anitz beguiratzen guc; eta beguiratzen guenion guc gure JESUS maita-garriari, leprazuari, ta gure Jangoicoac berariaz, ta bere obenac gatic ala daducan, guizon galdu, edo lotſatu bati bezala.

AH! baña gure becàtuac gatic cen, aldi artan JESUSec ceraman guci-gucia! GURE becatuac gatic cegoen JESUS, bai, azot-ucaldiz ain urratua, ta, ezur oſoric ez daducanaren, eran! ETA, gure becatuei cegozten, neque oriec horduan bere gain gure JESUSec ez artzera, etzen arquitzen baqueric guretaco nion ere; ez guiñan ſendatzen gu, gueren animaco eritaſun-etatic; eta ondatzen guiñan gu beti-beticco ſülece arri-garrian!

ECUSten dezu, ISAIAS Profetac hitz bian, aldi onetaco nequeen gain adirazten diguna? ECUSten dezu gaur gure JESUSec Pilatos baitan ecuſten duena, edo daraman, nequea?

ETA cer diozu zuc, JESUSen onembat neque, ta amore ecuſi ondoan?

CER erran dezaquet nic gaur, nere JESUS maita-garria! Arrituric nagoela ni, ta mututuric bezala; ta, cerbait errateco, nondic aſi ez daquienaren eran.

EZ da bihotzic, ez, gure JESUS maita-garria, zu era orretan ecuſi ezquero, damuz lertu bague guelditu behar luquenic! Baña anitz gogortu dídate niri nere hau nere becatuac, eta ecin eraguin diot nic,

nai

nai nuquenaren erdiric, edo laurdenic ere.

AL-ere illundu da cerbait, zu era orretan ecustearequin, nere bihotz char loitu gogortu hau. DAMUtu zaio bere becatuez. ARtu dut, becatu berriric ez eguiteco asmoa; ta bera gatic zuc aldi onetan daramaz-quitzun, nequeac gatic, esquerrac, eta esquerrac eman ondoan, dio alic cinquiena: *NERE JESU-CHRISTO, &c.*

LIX-GARREN OTOITZGAIA.

JESUSI, IRRIZCO, EDO HISTAZCO ERREGUERI BEZALA, Soldaduac eguin ciotena.

§. I.

QUENTZEN DIOZCATE JESUSI, OñACE, TA ALQUEquizun andia-requin bere soñecoac.

I.

AMBAT milla, azot-ucaldiren ondoan, etzuen JESUSec izandu odol-garbitzalleric; eta, bere soñecoac jauncia gatic, guelditu cen gure JESUS maita-garria odola ceriola.

CERION, odola sartuco cen JESUS maita-garri beraren soñecoetan; ta, JESUSI cerion, odol hau an soñeco artean guelditua, ta oztuz cijoanean, JESUSen soñecoac guelditu ciran JESUS beraren zauriei, edo aragui urratuari lotuac, edo itsasiac.

ERA onetan, ta aice otzac ematen ciola JESUS maita-garriari, nola guelduituco cen JESUS?

ILLAren idurian, odolez betea, ta urrical-tasunez nor-nai beteric utz-cezaquen bezala.

BAñA anitz urricaldu cequiozcan, Pilatosen echea

zaitzen ceuden, Soldaduac?

Gauz--arrigarria! bat ere! ta, urricaldu beharrean, histaz, ta burlaz aviatu cequiozcan, ala cegoen, JESUS maita-garriari. ETA beren lan gogor arri-garri hau obequi eguitea gatic, deitu cien, JESUS an zaitzen ceuden, soldadu berac beren lagunei.

CEMBATI ote?

COHORTE ceritzan, pillari, S. MATTHEOC, eta S. MARCOS Evangelariac diotenaz: ta soldadu pill-onec bacituen, gutienean, eun ta oguei ta bost soldadu. Eta, guciac an ez egona gatic, sall-ona arquituco cen, bai, an, lan hau ecusten; histazcoa cen alabaña, orien aldi hartaco lan-egoera; ta era orretaco egoerac pozic billatu oi dituzte, soldadu tzarren eraco gendaguirac.

AH nere JESUS maita-garria! ta bataiaturen artean ere ez ote dira arquitzen gaur anitz, damutzco, negarrezco, ta devociozco gauzetara baño, orrelaco-etara lasterrago, ta pozic-ago urbiltzen diranac?

ERRAN bequie bataiatu gueienei, entzun dezatela egun-oroco beren MEZA: DOAZquiola JESUSi noicean bein bere ecuste modrac Elizan eguitera; EGUIN ditzatela Aldare-etaco beren otoitzac: EZ dezatela galdu MEZA nagusiric; EZ eta Predicuric ere: CONFESSA COmeca ditecela, alic maicena; ARQUI ditecela VEZperetan, ERROfirioan, CALvarioan, ta bertze orrelaco GAUZetan; cembat aitzaqui, ori-etatic gueienac, era orretaco gauzatic ez-eguitea gatic?

ETA, eguiten dituztenetan ere, cer naigabeac, cer motel-tasunac, cer andic egues-eguin-naiac, oriec hordu-orietan aguertzen dituztenac?

BAñA erran bequie oriei berei, emen dirala cecenac, an dantzac, an jocoac, an jan-edanac, an jostaquetac, an aur-queriac, ta an gauza farra-garriac, arintzen zaie bertan oriei beren bihotza, ta ara-naiez daude, ta ara doaz, ascotan beintzat, an JESUSi eguin oi zaizcan, irri-etara, ta hist etara, edo becatu-etara anitz begiratzen ez dutela. AH Pilatosen soldadu gentilen eraco bataiatuac!

II.

PILATOSen Soldadu oriec an bildu-horduco, oriec ara deitu cituztenac, eta lena-

go-

gotic an JESUS-equin arquitzen ciranac, asi ciran JESUSi eguiten bere hista, ta itri gogorrac.

LEMbicico aldian quendu ciozcaten JESUSi Soldadu oriec bere soñecoac, eta eman ciozcaten beren lan onetan JESUSi bi neca-guiro guztiz arri-garriac: bata cen bere soñecoac JESUSi quentzea: ta bestea, soñeco berac quentzea-requin JESUSi emanicaco oñace--videa.

ANDI--arrigarria cen, bai, JESUSen azqueneco neca-guiro hau; JESUSen gorputzeco araguiari itsatsiac ceuden alabaña JESUSen soñecoac; eta itsatsiac aragui, bostmill-azot-ucaldi, ta gueiago-requin urratu berriari: ta ecin quen citezqueen, orrela ceuden soñecoac, JESUSen zauriac, edo gorputzaren urratzeac berritu-gabe; ta, bere soñeco--equin batean JESUS maita-garriari odol, ta aragui zatiac quentzen etziozcatela.

ECUSI zazu cer oñace-nequeac, Jesusen aldi hartaco neque-oñaceac!

BAI? Bada, cein ere andi-arrigarriac ciran JESUSen neque oñace oriec, aguitz-eta aguitz andiagoac ciran, ta aguitz latzagoac, soñecoen quentze ursa-requin JESUSec eraman cituen, neque-miñac.

CER neque-miñac ote ciran, JESUSen neque-miñ orren arri-garri latz oriec?

ORIEC ciran, JESUS maita-garriari, bere billusitzeac, edo soñecoric gabe guelditzeac; eta ala guelditzeac, ambat Soldadu-tzar, ta gañeraco genda-guiro gaisto beguira cegozquiola, berritu ciozcan, alque-quizunac, eta lotsa arri-garriac; hau cen alabaña, JESUS bezain guizon lotsatiari, ta alquetiari guerta cequiqueon, nequeric arri-garrietetatic bat.

CER gatic ote dira, JESUS maita-garria, zure oraingo neque-modu bi berri oriec?

CER gatic izain dira? CEREN nic, lenac asqui etzirala, eguin ditudan becatu berriac! CEREN nic ni gandic quendu ditudan Ceruco graciaren nere soñeco ederrac, becatu loiaren zar ciquiñac jauntzi naiez: ta ceren alqueric bague, nabillen ni becatuz becatu, edo ceren eguiten ditudan nic, eguin oi ditudan, adiña becatu, ohartu cabean bezala, edo beguiratu bague, beguira dagoquidala niri nere Jangoicoa, edo ez-paliz baño gueiago, nere Jangoicoaz ni oroitzen

itzen ez nazala ; ez eta nic nere ibillera galdu-equin galerazten ditudan, Animez ere.

ALQUE-nequeen gogorrac, azquen juicioco egun-eraco nere beguira dauden, neque-alqueac, nic emen ez quentzera, JESUSen alque-nequez ni valiatzen nazala, nere orain-dañoco lotsagabe-queriac eraguin dizquidan, gaizqui guciac!

§. II.

EZARTZEN DIOZCATE JESUS maita-garriari soñeco-tzar gorri bat, arantzezco coroa, ta cañaberazco cetroa.

I.

SOLDADUen bigarren hista, edo JESUSi Soldaduac eguin cioten gauz--irri--garria izandu cen, soñeco gorri-tzar bat lepotic ematea.

ADITU zuten Soldaduac JESUSen gain Judatar gogorrac ciotena ; ta, beste anitz gauzaren artean, aditu izandu zuten, Erregue eguin naiez, ta Erroma-tarren contra armac artzeco asmoan, ibilli cela JESUS maita-garria : ta bere Erregue-asm onequin JESUSi beguitan eman naiez, gogoac eman cien an JERUSALENen arquitzen ciran, Soldadu-tzar Erroma-tarrei, JESUS eguitea Yote-etaco, edo burlazco Erregue ; ta, nola cequiten Soldaduac, Erromaco Erregueac ecarri oi zutela granazco mantoa, ezarri cioten JESUS maita-garriari oial-tzar gorri erdi urratu bat ; eta ezarri cioten ecin molda-caitzagoan, ta guztiz baldanqui, beguira cegozcanei, ta ecusten zuten, guciei obequi eraguin naiez irri, ta farra.

BAñA, cein ere andia cen, era onetan bere burua ecustetic JESUSec izandu zuen damu atsecabea, Soldaduen oial tzarrac, eta irriac baño, atsecabe, ta damu aguitz andiagoa eman izandu cioten JESUSi bere beguietan ceducan, beste gauza tzar batec?

CERC ote!

BATAIATU anitzen guerozco vicitza gaistoac. Vicitz hau da alabaña JESUS maita-garriaren-daco bataiatuen becatuz eguiñicaco oial-tzar itsusi, ciquin-erraien nas garri bat ; ta bere soñean hau ecusteac, aldi hartan JESUS maita-garriac ecusi izandu zuen bezala, alquetu behar zuen, ta illundu gure JESUS maita-garria, soldadu gucien irrizco soñeconc baño, milletan, ta anitz gueiago.

Hau daquizun ezquero zuc, becatari char bataiatua,

tua, ez ote dituzu utzico orain-dañoco cere oialquetac, edo becatu-videac? Leneco vide galgarri berez ibilli uste dezu, ta JERUSALENgo soldadu-tzar galduen ondoren, datocen, demboretan ere? EGUNen batez damutuco zaitzu, bai segurqui! ETA izain ez ote da berandu-egui?

II.

ERROmatar soldaduac atziña doaz beren eguitecoan, edo gure JESUS maita-garriaren alque-quizun-vide-etan. BILLAtzen dituzte cembait elorri-adar, arrantz luce gogorrez ongui beteac. EGUIten dute arantz oriez JESUSen bururaco coro-tzar gogor izugarri bat.

CORO hau oriec eguitean, cupide cituzten beren escuac, eta zula cequizten beldurrez, cebiltzan; baña, hau oriec eguin-horduco, batere beldurric gabe, ta, cupide-tasun guciac alde-bat uzten cituztela, ezarri cioten JESUS maita-garriari (ta gogorqui alere) bere buru necatu guztiz mimberean; ta utzi cioten JESUSi bere buru gucia oñacez beteric, eta odola-ta-odola ceriola.

ANDIA da nombait gure JESUS maita-garria, zure odola-requin zure etsaiac duten tirria, orrembat aldetara ta orren bortizqui oriec ori zuri issur-erazten dizutenean!

BAI: baña; ta ez ote da izandu JESUSen etsai gogor orienaren eracoa, ta aguian, oriena baño ere, aguitz andiagoa, gueroztic nic nere JESUS maita-garri bera-requin izandu dudana?

EZ ote dira, JESUS maita-garriaren buru bera zulatzen duten, arantzac nere orain-dañoco antusteac, nere arro-tasunac, eta nere asmacio gaisto, ta oroitzapenac, edo pensamentu liquis galduac?

BAI; ta, PILATOSen soldaduenac, eta JESUSen etsai gogor gucienac baño ere, aguitz gogorragoac: bada soldaduac etzequiten, nor cen JESUS, nic daquidan bezala; ez eta JESUSen etsaiac ere; ta, ez-jaquiñean eguiten den, charqueria baño, aguitz gaistoagoa da, jaquiñaren gañean eguin-icacoa: ta orre gatic ni nere JESUS ona-requico, arantzez burua zulatu cioten, soldaduac, eta beraren etsaiac baño, gogorragoa izandu naz, ta odoltiagoa. AH cer bataiatua ni! AH cer gure JESUS maita-garriaren humea!

III.

Escuan ere ba-dute Erregueac, Erregueac diralaco beren siñua. SiñU hau da urrezco, edo cillarrezco, CETROA deitzen den, bastoimodu eder polit bat. Bastoi, edo Erregueen Cetro onen ordez eman cioten JESUS maita-garriari Erromatar soldaduac cañabera pusca-tzar uts bat; eta hau ere, len ezarri ciozcaten, Coroaren, ta Erreguemantuaren eraco bastoia, edo Cetroa cen.

CETRO, bastoi, edo cañaber uts hau bere escuan ceramala; bere buruco loac, eta bazterrac urratzen ciozcan, arantzezco Coro latza bere buru berean ongui-ongui, edo aguitz sarturic ceducala, ta, erdizca baicic, estaltzen etzuen, oial-tzar gorri hau lepotic zuela, Erregue, cein irri-garria Jesus Erromatar soldadu arroen-daco!

ETA neretzat cerErregue ote da gure JESUS maita-garria?

NERE oraingo naiez beintzat, guztiz maita-garria; bada nere oneraco dira, ta ceren guztiz maite naven ni, aldi onetan gure JESUSec ecusten dituen, edo daramatzien, irri, ta hista, charqueri, neque, ta vide-gabe guciac.

GURE JESUS maita-garriac nai izatera, hitz bian (bai ta bat-equin ere) illotzac, elbarrituac, edo, escuric ecin darabilqueen, eran utz litzaque, an bertan ecusten dituen, ta munduco soldadu guciac; baña ez die deusic JESUSec eguiten, ta uzten die soldu-tzar berei, daguitela berac Jesus bera-requin, gogoac berei ematen diena; ta, guc, gueren escuz, buruz, ta gorputzaren zati bacoitza-requin eguin ditugun, zor gucien alde, artzen du JESUS maita-garriac bere soñean, ematen dioten, oial-tzar alque-garria; artzen du bere buruan, buru gucia urratzen, ta odoltzen dion, arantzazco coro--tzar odolti-urratzallea; bai ta bere escuan ere Erregue eroaren cetroa, edo, aicez beterica-co, cañabera.

NI gatic onembat eguiten duen, Erreguea, nola neretzat izain, ez da Erregue guztiz maita-garria?

BAñA maitatu dut nic, Erregue, onen maita-garri hau, edo nere JESUS on-eguia?

EZ anitz, gueienetan beintzat?

ETA maitatuco dut nic gaurdanic asi, ta nere ill arteco demboran!

BAI

BAI baldin bere ! bai, nere Jangoico maita-garria ; bai arren, bai.

§. III.

EGUITEN DIOZCATE JESUS maitagarriari Soldadu gogorrac beste anitz hista, ta gauzarri-garri.

I.

ERROMAco Soldadu gentil--eroentzat Erregue irrigarria cen gure JESUS maita-garria ; ta, JESUSi cegozcan, cembait histequin-irriz, ta farraz ase naiez, eguin ciozcaten JESUSi beren agur charrac, eta agurren eraco gauzac.

ERREGUEZ jauntziric ecusi zutenean, gure JESUS Soldadu-tzar oriec, joan izandu ciran JESUSen oñetara; ta, belaun bana lurrean zutela, asi cequiozcan histaz erraten;HORdu onean, Erregue jauna; vici lucea dizusa cere Jangoicoac, Juduen Erregue andia; bai ta, Judatar gucien bazterrac zucen erabiltzeco, behar den, jaquiundea, dirua, ta gañeraco guci-gucia ere.

HAU oriec JESUSi erran ondoan, listu ciquiñez bete cioten bere aurpeguia : ta orietatic batzuec escuz bere aurpeguian, eta besteac bere escuco cañabera-requin, buruan horduco sarturic ceducan, arantzazco coroaren gañetic eman izandu ciozcaten ucaldi arri-garriac.

ORRA Munduarena, bai! MUNduan arquitzen diran-etatic anitzec eguiten dute, Judasec eguin izandua; edo, edocein ondasun, atseguin char, edo hondra-aice irabaztea gatic, JESUS saltzea, edo beren Jangoicoaren Legue ona urratzea : ta beste anitzec oraingo Soldaduena.

SOLDADUAC eguin cioten JESUS maita-garriari irri, ta hista : ta eguin cioten ori, an beguira ceuden, guciac ecusten zutela : ta berebat eguiten dute anitz munducoc ere ; bada beren gaizquiac eguiten dituzte, nornai oriei beguira egona gatic.

ETZUEN, ez, era orretan eguin izandu Judasec berea : gordean, agur onaren idurian, adisquide-tasunaren siñua-requin, ta JESUS maita-garriari erraten ciola : *Jauna laguna daquizula, nere Maisua*, eguin izandu zuen Judasec berea. Orra Judasen agurrac izurriz beteac, eta JESUS onaren-daco listuca ciquiñac, eta ucaldi gogorrac !

ERA berecoac dira ani-

tzec JESUS maita-garriari eguiten diozcatenac ; eta dira listuca ciquiñac , eta hista guztiz arrigarriac.

BELAUNIcatzen dira anitz confessariaren oñetan, ta aitortzen dute anitzec gure JESUSen Jangoico-tasuna ; baña Judasen eran, edo hitzez, bai, ta bihotzez ez.

HITZEZ an anitzez diote, becatariac dirala berac;eta, gucia daquien , Jangoico berari erraten diozcatela , haren ordez dagoen , confessariaren belarrian beren obenac ; eta erraten diozcatela, diranac , diran bezala , ta bat bacarric ere uzten ez dutela ; ta erraten diozcatela , becatu berriric ez eguiteco asmo osoa-requin ; ta , len eguin cituzten , gucien barcamentua erditsi-naiez.

BAñA hitz utsez diote oriec hau gucia ; ez bihotzez : ta, diarducatela , dirudi, oriec orretan hari diranean , Jangoico-tasunic ez duen, Jangoicoa-requin ; edo munduan guertatzen denaren , berriric ez duen , Jangoicoren batequin.

NOLA bada ?

CEREN , era orretan confessatzen diran-etatic batzuec gordetzen diozcaten confessariari , eguin dituzten, becatu-etatic cembait , edo bat edo bertze ; edo, guciac hari oriec erran arren , erraten ez diozcaten , diran eran, ta beren saiets guciequin.

CEREN besteac erraten dituzten berenac , osoro, bai, ta behar bezala ; baña eguin cituztelaco urriquimenturic gabe ; edo ceren oriec , dituzten, oben guciac errana gatic , erraten dituzten , uzteco asmoric bague.

ORIEC guciac , bada, agur andiac JESUSi confessateguian hitzez, ta buruz eguiña gatic , eta damuz bularrac urratu nai dituztelaco idurian, an egona gatic , ecusten ditugun , Soldadu-tzarren , ta Judasen eraco agur-guilleac dira, ta orien hitzac , eta confessione guciac JESUSen aurpeguiraco listuca ciquiñac.

ERA orretaco confessione bat-eguin ondoan , oriec guero comunioratzen ba-dira, aratzen dira , comunione utsgaistoaren çañabera-requin JESUS maita-garriari ucaldi gogor gaistoac ematera.

BAñA , hau gucia, ala ¡zan-arren, edo izana gatic,lurrecoen beguietan belaunicatze, ta agur eder ona da orien era orretaco confessa-comecatzea; ta orre gatic da Judas galduaren

aren languiro gaiſtoaren eracoa.

BESTE anitzec eguiten diote JESUSi cerbait agur, MEZA enzutean, BAZCOetaco comunionean, ta era orretaco beſte gauzaren batzuetan; baña oriec, ori eguin horduco, hiſtaca dagozca JESUS maita-garriari, ta irrizca, ta ucaldica, oraingo Soldadu gaiſtoen eran, ta agueri-agueri-an; bada aguerian eguiten dituzte oriec, norc daqui, cembat juramentu, ta maldicione, norc daqui, cembat lotſagabe-queria, aſſerretze, ta gaizqui.

ETA, berenei guti eritziric bezala, billatzen dituzte oriec, beren eraco lagunac, oriei ere beren irri-abarretan hiſtetan, ta lan-gai gaiſto-etan eman-naiez zatiren bat.

ATOzea zu; ta era onetaco genda-guiro-etatic ez dira arquitzen egun anitz-eta anitz? ETA ez dira arquitzen beſte anitz, len aguertu ditugun-etatic ere? ETA atozea: ez dira oriec, egun hartan JESUSi, Pilatoſen Soldaduac baño ere, atſecabe, ta damu gueiago ematen dioten, gendeac?

ETA ez ote naz izandu noizbait ni ere genda-guiro gaiſto ori-etatic ber-etatic? EZ ote diet lagundu nic oriei noiz, edo noiz beren hiſta, ta irri ciquin-etan; ta beren cañabera ucaldi, edo becatu gaiſto-etan?

AY nere JESUS maita-garria; bai ta, bein edo berriz ez-ecic, zuc daquizun adinetan ere!

ETA cer daquit nic egungo egunean ere nola, ta certan nabillen ni, edo nolacoac ote diran, oraingo nere confeſſioneac, oraingo nere comunioneac, eta gañeraco nere gauzac! BEHAR bada leneco nere confeſsione gucien confeſſione oſo general bat eſcatzen dutenac!

EGUIN behar den, gucia eguin naiez nago ni gaur, ta leneco nere eguin gaiſtoen damu arri-garria-equin. BARCAtu behar dizquidatzu gaur niri guciac, nere JESUS maita-garria: ta videnabar adiraci zadazu, nol-ere bait nere zorren alde, ta zuri atſeguin eguiteco, eguin dezaquedana: bai arren, JESUS maitea, bai.

1.

SUPER DOLOREM VULNERUM meorum addiderunt. Pſ.68.27.

ORAIN, bai, orain erran dezaquezu zuc gure JESUS maita-garria, zure icenean,

nean, aspaldi dela, DAVID-ec erranic daducan, gauza guztiz eguiazco bat; edo: OñAce berriac billatu dituzte neretzat nere etsai gogorrac, eta Erromaco Soldaduac. URRAtzez, zauriz, ta oñace viciz beteric naducate ni nere etsai gogor oriec, oriec berac beren azot-ucaldiz illtzear nindutenetc, orain arteco demboran!

NERE zauriei, edo nere aragui, orien azot-ucaldiz urratuari itsasiac daude orain nere soñecoac; eta oriec niri quendu naiez dabiltza nere etsaiac; eta quentzen ere dizquidate, tiraca, ta, nai duten, bezala, ta oñace berriz ni ler-eraci naiez dabiltzanen eran. ETA cembat nere neque-requin! Cembat nere min berri, ta oñace-requin? ECUSten dezu!

BAñA hau gucia daramat nic nere Aita Eterno maita-garriaren icenean, ta hondretan, ta guci-gucia daramat nic dembora berean, beren becatuequin onen gaizqui narabilten, becatari gaistoen oneraco: ta orien oneraco guerta dedilla nere oraingo neque hau gucia, nere Aita Eternoaren hondretan BEzala. ORRA oraingo JESUSen hitzqueta.

ETA zurea? CER erraten ote diozu zu cere aldetic, eta ordañez cere JESUS necatu maita garriari?

CER erran dezoquet nic becatari char centzu gutizco esquer-gabeac? ERDI-mututuric naducala ni, nic hau ecustean, nere oraingo lotsac, eta alque-quizun izu-garriac.

NI gatic, eta nere becatuac gatic gure JESUS maita--garriac onembat enoju, onembat neque, ta onembat oñace! NI bezain becatari char errebesa gatic gure JESUS maita-garria, soñecoric ere bague gaur, ta lotsaz erdiratua bezala! NI bezain becatari char cirtzilla gatic, gure JESUS maita-garriac gaur oñaceac oñaceen gain, ta odol-issurtze berriac!

ETA al-ere, ero bat bezala ni, JESUSi beguiratu bague ni, JESUSec niri didan, amorea gatic, eta, onec areraci derozcan, neque gogorren esquerrac emateco?

EZ al da gaur--guero onelacoric guertatuco berriz bein ere? GOGOango al dut nic, aldi onetan, ta beti JESUS maita-garriari zor diodan, bazterric bagueco bere amorea? EGUIñen al dut gaurguero beti nic nere al-eguiña,

enre

nere requeac artuz nic JESUS beraren icenean, ta zucen zucen, ta viciro narraicola ni, vici-nazaño, lengo nere utſac ateratzéco?

BEHAR nuque beintzat; eta naiez nago, ta ori gucia zucen eguiteco aſmoan, laguntzen didazula zuc cerorrec, nere JESUS maita-garria. EGUIZU ambat; bai arren, bai.

2.

QUID EST HOMO, QUOD MEmor es eius.... gloria, & honore coronaſti eum... omnia ſubiecisti ſub pedibus eius. Pſ. 8. 5.

CER da gaur, JESUS maita-garria? CER da gaur nic dacuſadana, ecuſten zaitudanean nic zu mendico coroarequin, ta irrizco Erregue baten eran?

ZURE buruac bere edertaſun guztiz andia-requin liluratzen ditu Aingueru-Serafinen beguiac, eta Aingueru-Serafinac alquez, ta lotſaz daude, zu gana oriec jatſotzeco; baña Erromatier PILATOSen Soldadu-tzar arroac alqueric bat ere bague beguiratzen diote zure buru berari; ta munduco gaiſtaguin andienaren buru bat bai-liz bezala, ezartzen diote arantz zorrotzezco coro-tzar arri-garri bat, eta uzten dute oñace litzez dena, ta odolez ongui betea!

GUIZONEN gogor-eguiac, era orretaco Soldadu-tzarrac; eta zuec eguin dezutena! ECUSTEN dezute zuec, dagoeneco ere, certara den, zuen lan-tzar izu-garri gogor orre gatic, JESUSen buru necatu mimbere hau? BAZTER gucietatic odola dariola dago, dagoeneco ere! AIN zorrotzac dira, ta ambat dira izatez, zuen eſcu-tzar baldanez ſartu zaizcan arantza luceac!

BEGUIRA! Beguira ITURRI andiac dirudite, JESUSen buruco bi loac; eta, orietatic, eta bere bi beguien gañetic darion, odolac itſuturic bezala daduca, ta aurpegui guztiz buſti-buſtia-requin gure JESUS maita-garria! ECUSTEN dezue? ETA al ere etzaizcate cerbait urricaltzen Jangoico guizon orren necatuari? CEER? BURUtic atera behar diozue Jangoico-guizon oni, Borrero gogorren azot-ucaldiei guelditu zaien, odol zatia?

QUEN eguiozue lembaitlen, ezarri diozuen, arantzezco ceren coro-tzar gogoregui ori.

EZETZ, diote Soldadu-tzar gogorrac!

ETA

ETA cer ote da orren gain gure JESUSec diona ?

ONGUI dagoela, dio JESUS maita-garriac : eta eraman nai duela, guizonen oneraco, arantz oriec ematen dioten, neque gucia, ta odol issurtzea.

BAñA nor gara gu, gure JESUS maita-garria, orrembat zure nequeren artean orren gogoan gu zuc iduquitzeco ?

GU gara gu, DAVIDec dionaz, gañeraco gucia gueren oneraco zuri, gure JESUS maneguia, eraguin guenizun, gauza ; ta gu gara, nor bagara gu ; ta, gu ongui vici ezquero, hondrazco, ta gloriazco coro-equin Ceruan beti ta beti egon behar dugun, zure zori oneco humeac.

HAU gucia irabazten, guri lagundu-naiez, darama gaur gure JESUS maita-garriac bere arantzezco coroaren neque, ta odol-issurtze guci-gucia !

ETA cer eraman behar ote dezu zuc, onembat amoreri nol-ere bait zuc erantzuteco ?

NIC neronec eraman alà, ta gure JESUSec nai duena.

ALA behar cenuque ; bai, baña beldur naz ni, asalda zaitzan zu, zuc uste etzenuen, lembicico hitzac, edo videgabeac. EZ arren, ez, nere JESUS maita-garria, ez.

3.

TRADENT EUM GENTIBUS, ET illudent ei, & conspuent eum. Marc. 10. 34.

CEIN izu-garriac, aldi onetan soldadu-tzar gogorrac JESUSi eguinicaco hiztac! ONGUI gogoan artuac erabilli cituen oriec, bai, gure JESUSec bere vicitzan ; eta aguertu ere ciezten nola-ere-bait (bai ta, bein baño, gueiagotan ere) bere Apostolu maiteei ; BAI, erraten ciela, bai: azot-ucaldiz ni Borrero gogorrac urratu-ondoan, utzi behar naute ni nere Etsai sutu-galduac soldadu gentilen escuetan : ta niri soldadu-tzar oriec eguin behar didatena !

EPIñICO, edo utzico naute oriec ni, norc daqui, nola ! ETA, ongui urricalgarria egona gatic nerez ni, oriec ni artzen nautenean, etzaizquit, ez urricalduco bat ere.

ZAR rez jauntziric, eta, ez dagozquidan, gauzac ematen dizquidatela, utzico naute oriec ni, artzen nautenean baño

ño ere, milletan urrical-garriagoa. ETA cembat ere nere egotez horduan ni urrical-garriagoa, ambat irri, ta hista ciquiñagoac orien escutic artu beharra naz ni.

HAU gucia, ta anitz gueiago adiraci nai cien bere Apostoluei JESUS maita-garriac, erran cienean: *Israel-darrac utzico naute gentilen escuetan ni, ta oriec eguñen didate niri hista, ta irri; ta baricoz zaizquit listu, ta listu.*

ETA ez ote dut eguin nic ere era onetaco cerbait guiza itsusi gure JESUS maita-garria-requin? BECATUAren azot-icaldiz urratu ondoan, ez diet utzi nic nere JESUS maita-garria beren escu ciquinetan nere aztura, ta pasione galduei? ETA nere pasione galdu-loiac, eta aztura ciquin liquitsac eguin ez diote JESUS berari bein, ta berriz, ta ascotan, ta ascotan ere hista, ta irri?

ETA cer da hau gucia baicic, oriec ni erabilli nauten, eran. ibiltzea, gaizquiz guizqui, becatuz becatu, ta loiez loi? ETA hau ez da hista, ta irri nic nere JESUSez eguitea? HAU ez da, JESUSen Leguean vici nai dudala, nic erran, ta Legue bera ni loitzen, ciquintzen, ta urratzen ibiltzea?

HISTA da, bai: irria da, bai; ta hist-irri, soldadu gentilenac baño, aguitz guiago JESUSi beguitan ematen diona!

ETA ez ote diot nic, nere hist-irrien ondoren, listuca ere eman izandu nere JESUS maita-garriari?

CER ote ciran JESUS onarentzat nere erdizcaco confesioneac; nere damuric bagueco confesioneac; eta nere ontzeco asmoric etzecarten confesioneac?

CER, baicic ni nere JESUSi bere beharrietan ematen niozcan, listucac!

ETA cer ote ciran, behar bezala ni confessatu-bague, ta ni becatutic confessiora, ta confessiotic becatura nembillela nic eguin oi nituen, comunioneac?

CER, baicic nic nere JESUSi bere begui ecusle ederetara tiratzen niozcan, listuca ciquinac!

ONELA vicitu naz ni; ta al-ere onen aitola-cabean? HAU ezaguntzen dut orain nic, berandu ba d-ere; ta etzait damuz lertzen niri nere bihotz char galgarri hau?

Ez eguiazqui! baña

urriquituric nago nere gaizqui eguiñaz; ta berriz ez eguiteco asmoan. Eta, asm-onen señaleren bat eman naiez, diot; era alic cinquiena: *NIRE JESU-CHRISTO JAUNA, &c.*

LIX-GARREN OTOITZGAIA.

PILATOSEN, TA JUDA-TARREN, BI JARDUQUI alditan gure JESUSec ecusten duena.

§. I.

AGUERTZEN DIE JUDA-TARREI JESUS PILATOSEC ERA guztiz urrical-garrian; ta hitz-eguiten die onen alde; baña alferric.

PILATOSec ecusi zuenean, JESUS maita garria-requin soldadu-tzarrac eguin izandu zutena, illundu citzaion bere bihotz--barren gucia; ta berari idurituric, era hartan JESUS ecusi ezquero, berebat guertatuco citzaiela Judatar gogorrei: ta, onen guerta-er hau ecusi naiez, aguertu cen beren beguietán Pilatos Jueza; ta aguertu cen an JESUS urrical-garria bere ondoren ceramala.

BEGUIRAtzen die bada PILATOSec Judatar guciei; ta, cegoen, era urrical-garrian JESUS aguertzen diela, erraten die PILATOSec: ONA non dacaidan, ta ona cer eran, ta cer ichuran onaco zuen guizon hau; ecus dezazuen zuec, ez dudala nic oben-dun arquitzen hau, zuec escatzen dezutena nic onequin eguiteco.

PILATOSec JESUSan oriei aguertu cieneau, arquitzen cen JESUS maita-garria erdi-aguerian, zauriz, edo heridaz cen gucia guztiz betea; ta odoletan sartua cirudiela, odola odolaren gain ceriola; oial-tar gorri irri-garri bat lepo-

potic zuela; ta bere buru mimberean arantz zorrotzezco coro izugarri bat aguitz farturic ceramala.

ESCUAC loturic eramain cituen JESUS maita garriac, presondeguico guizonac bezala; ta escuan eramain zuen, soldaduac irriz ezarri cioten, cañabera.

BEGUI--etatic ateraco ciozcaten aguian JESUS maitagarriari cembait negar-malco, bere buruan farturic ceduzcan, ta oñacez betetzen zuten, arantza zorrotz gogorrac; eta negar-malcoac jartsico ciran JESUSen aurpeguitic, berari bere burutic cetorquion, odola-requin nasteca.

AURPEGUICO colorea horduco galduric ceducan, eta illarena ciudiela gure JESUS maita garriac. BEGUIAC andituac eramain cituen, ta, zuen, oñace andia-requin erdi-estaliac; ambat izandu ciran, ta alacoac, JESUSec horduco arturic ceduzean, escu-ucaldiac: eta bere arpegui gucia iduquico zuen JESUS maita garriac odolez, ta listuz, ta ucaldiz ecin galduagoa.

BELAUNeran ecin izan cezaquen JESUSec orrembat indar, ta gozo. NAI--ta-ez otzez igaroa arquitzen cen JESUS bera, ta erdi galdua; otz dembora cen alabaña, JESUSen neca--dembora amitz cen JESUSi horducotz atera cioten odola; luzaro iduqui zuten JESUS soñecoric bague; ta horduan ere etzeducan JESUSec oial-tzar urratu, lepotic cerion, bat beste soñecoric.

ERA onetan, bada, ta, ecin bestez bezala; erdi macurtua, ta oñac nequez cerabiltziela, aguertu cien Judatar gogorrei JESUS Pilatosec; eta erran cien, lenen gain: *Ecce homo*: ECUSten dezue zuec guizon hau. NIC lenago ere ambat aldiz adiraci dizutedan bezala, ez dut guizon onen baitan arquitzen obenic bat ere, ecusi ba-ditut ere bein, ta berriz, ta guenagotan, zuec onen gain erraten, ta ezartzen dituzuen, gauzac; eta ecusi ditut zuec ceroc beguira zaudeztela, ta, cen gucia aditzen cenuztela: *Et ecce ego coram vobis interrogans nullam causam inveni in homine isto ex his, in quibus eum accusatis.*

ALA ere, erran nizuen nic, emain niola cembait castigu, escuetatic nic hau utzi baño len: *Emendatum ergo illum dimittam*; ta ecusten dezue, cein andiac, ta cem arri-garriac diran, nic oni eman izandu

diozcadan, castigu-nequeac.

ETA nola-ere, PILATOS Jaun, Juez gaistoa, nola ere! OBENIC ez duela, diozu zuc orrembat bider, ta aldiz gure JESUS maita-garriac; eta cearazten dezu zuc JESUS maita--garri bera, munduco oben-dunic andiena cearaci litequen baño ere, aguitz gogorquiago!

EZ dela, diozu zuc cer gatic eman castiguric bat ere JESUS maita-garriari; ta emaneraci diozcatzu zuc cerorrec, norc--daqui,cembat, guztiac gogorrac, eta, bata baño ere, bestea aguitz gogorragoa!

BEguira eguiozu zuc hastiz, ta burutic onetaraño, or daducazun, Jangoico-guizon JESUS maita--garriari; ta ecusico dezu nola daducaten ori zure castiguac! BA-du gueiagoren beharric Jangoico-guizon orrec or beitan, edo anitz luzatu bague, guztiz odolez ustua, ta ill-otza guelditzeco? bada, guelditu zaion, odol-apurra bere buru gucitic, eta azot-ucaldiz eguin zaizcan, ambat zulotatic, dariola, ta dariola dago!

CER ichura, dembora berean, PILATOS gogoreguia, zure castigu luce baldanac gure JESUSi utzi diotena?

ORAINche, bai, orainche ecusten dut nic, nere JESUS maita-garria, eguin ciola Profeta DAVIDec, zuri urrutitic beguira cegoquizula, zure icenean aldi batez erran izandu zuenean.

EZ naz ni, ez, cion DAVIDec guiz-idurian, edo aintzuran arquitzen nazan, guizona; bada, guciac oinpean dacarten, arra bezala, erabilli naute ni bait, eta gaur nere etsaiac; eguin dute nitaz oriec, gogo zutena; ta utzi naute ni, dacusazun, eran, ta, guiza-charren arteco charrena baño, aguitz charragoa dirudidala: *& abiectio plebis.* Ps. 21. 7.

ETzara zu, gure JESUS maita garria, DAVID Profeta berac dion bezala, *speciosus forma præ filiis hominum* (Ps. 44. 3.), edo lurrean aguertu den, guizonic ederrena, ta bere gauza guciac ichuraric onenean, edo ecin-obequi ceduzquiena! NOLA guelditu zara, bada, orain zu, zu orain zauden eran? ta nola orrembat cinquin-tasunez ingurutua, ta orren urricalquia?

ASM-al adiña baño, humiltasun aguitz andiagoa cen, zu, Jangoico izanic (zaran bezala) guizon eguitea: eguiña gatic zu guizonic ederrena: ta gui-

guizon, naturalezaren, ta graciaren doai guciac dituzuna, dituzun bezala. BADA cer erataco humil-tasuna izain da, zu, guizon eguin-ondoan, guelditzea, guelditu zaran, eran, edo guizonaren icena utzi, ta arrarena ar dezaquezun, eran? *ego sum vermis, & non homo.*

ORRA, Pilatos: orra certara duten ſgaur zure castiguac, obenic bagueco gure Jangoico-guizon JESUS maita-garria!

CER gatic ori?

URRIcal daquiozcan Judatar gogorrac, dio, era orretan ori ecusten dutenean.

BAI! on daguizula, bai, Juèz ez-zucen PILATOS! LASTER ecusico dezu zuc, bai, Juda-tarrena!

ECUSI zuen, bai; ta bere atsecabe andia-requin alere.

JUDA-tarrac, ala JESUS ecustean, etziran, ez urriçaldu bat-ere JESUS maita-garriaz; ta, JESUSez urricaldu lecuan, asi ciran an bertan, guizon amurratuen eran, bazterrac ojuz urratzen; erraten zutela: *crucifige, crucifige eum*: bai, ongui dago, PILATOS, ta guztiz ongui, guizon orrequin zuc orain-dañocoan eguin izandu dezun, guci-gucia; baña cere ongui asi hau lembaitlen buca zazu zuc. EZ dezu cer guelditu, eguin-quizun arquitzen zaitzun, gucia zuc eguin artean: edo guizon-gaistaguin ceatu orri, gurutze batean, itlzez josiric, bere vicia quendu artean: *crucifige, crucifige.*

AH cer musica, JESUS maita-garria, zuri cerbait arintzeco, cere bututic oñetaraño zuc orain dituzun, cere min-oñace arrigarriac!

AL ere zure oraingo neque-oñace guciac baño, oñace-min gueiago ematen dizute zuri cereBIHOTZ maitari mimbere orretan, zu era orrelacora zaituzten, Judatar gogorrac; bada ecusten dezu zuc, oriec orain zurequin duten gogortasuna; ta ecusten dezu, oriec beren gogor-tasun orre gatic, demboraz ecusi behar dutena: edo ecusten dezu zuc, uzten zaituztela orain oriec zu Erromaco Emperadorea gatic; eta al ere laster oriec galduco dituztela Erromatar Emperadore beràc JERUSALENgo beren Erria-requin, ta Erri eder orretaco gauz-equin.

HAU gucia JESUSec ecusten duen, dembora berean ecusten dago, ecusten duen, hau baño, gauza gogorragoric ere; bada ecusten dago, bera-

ra-requico Judatar beren gogor-tasunac eramain dituela Judatar berac (garai onez oriec oraingo macurrac ez zucentzera) eternidade bateco, sulecera: ta betico Judatar gal-garrien galtze hau da, bere BIHOTZA, bere neque guciac baño, gueiago, ta gueiago JESUS maita--garriari illuntzen, diona.

BAñA ez dute hau Judatar gogorrac siñisten: uste dute Judatartac, berei, berac zuten, Erreinua, quendu naiez, dabillela JESUS maita-garria; ta orre gatic escatzen diote PILATOSi, quen dezala lembaitlen JESUS maita-garria lur-gañetic; eta illeraci dezala, gurutze bateco neque guciequin.

ASERREtu cen PILATOS Juda-tarren onembat gogor-tasunequin: ta erran izandu cien: CER da orain zuec daransa-zutena! ILL-dezadala nic onàco guizon hau?

GUEIEgui da orain-dañocoan ere, zuec gatic onec eraman duena. ILL-eraci nic hau? ILL-ezazue ceroc, nai ba-dezue, ceren gurutzean, edo ceren gogo gaistoac ematen dizuten, eran, ta ez deza-dazuela niri eguiteco onetan bururic gueiago aurti: bada ez dut nic guizon one gan arquitzen obenen pitific ere.

BADA, Jauna, badituu franco ere (erantzun cioten Judatar gogorrac) eta bere oben, ta gaistaqueri oriequin aguitz, ta maiz urratuac daduzca gure Legueco gauzac; eta urratuac daduzca, bere eriotza irabazteco, punturaño.

ETA ezaguzu dezazun cein eguiazcoa den, orain guc esaten dizugun, hau; eta ezagu dezazun, norañocoac diran guizon orren obenac, edo culpac, ERREGUE eguiteco asmoari guti eritziric, gure JANGOICO izannaiez dabill, ta Jangoico-SEMEA delaco erausiz bazterrac betetzen dituela.

ECUSTEN dezu, PILATOS Jauna, cer blasfemia! ETA hau beste obenic ez-palu ere, ez du orrec obenic asqui, vicia galtzeco?

§. II.

ECUSTEN DU PILATOSEC berriz, ta berriz ere JESUSen oben-gabea; ta ez du alere gurutzeco eriotzetic libratzen JESUS.

BEREN era onetaco erausiequin nastu cioten bere burua, Judatar gogorrac PILATOS Juez Erroma-tarrari, ta utzi zuten, cen gucia, cer eguin etzequienaren eran.

Sartzen da PILATOS berriz.

tiz bere Salara, ta galdetzen dio JESUS maita-garriari: NONgoa zara zu, guizona, edo noren humea; edo cer da, or dauden Apez, ta gañeraco Judatar oriec DARAUStena?

BA-cequien JESUS maita-garriac, batetic ongui ezagutua ceducala PILATOSec beraren oben-baguea, edo inocencia; ta bestetic, etzegoela PILATOS siñisteco, galdetu cionaren gain eranzun behar cionа (erantzutecoan); bada erantzun behar cion JESUSec Pilatosi, erantzuten asi ezquero, aguertuz TRINItateco, ta ENCARNAcioco, gure bi Misterioric andienac: eta orrequin etzuen JESUSec hitzic atera.

BERAriazco JESUSen mutu-tasun, edo issillera hau ecusten duenean, erraten dio JESUS berari Pilatosec; ETA cer? EZ didazu niri zuc ERANtzuten? EZ daquizu zuc, nic orain zurequin daguiquedana? EZ daquizu zuc nai ba-dut nic, ill-eraci zaguizquedala, edo gurutze batean, edo beste, nic deritzadan, edocein videz, ta eran; ta nai ba-dut, utzico zaitudala nic, ill bague, edo viciric, orain zu arquitzen zaran, eran?

ALA da, bai, erantzuten dio JESUSec Pilatosi; baña beguira, cer eguiten dezun, PILATOS; bada zure Jangoicoac zuri emanicacoa da, zuc orretaraco dezun, ahala, ta escu gucia; ta, zucen ez-padarabiltzu zuc, orain zuc dezun, cere ahal, edo escu ori, contu gogorrac eman beharra zara zu: gaizqui, edo becatu eguiñen dezu zuc cere escuaren erabill-era ez-zucen orretan: ta gaizqui, ta becatu, nere etsai Judatar gogorrac eguiten dutena bezain, andia, ta arrigarria ez izana gatic, ongui beltz itsusia, ta eternidade bateco neque izu-garrien gaia.

HAU berau da JESUSec gaur guri gucioi erraten diguna: bada bere errate onetan berean erraten digu guri gure JESUS maita-garriac: zuen Jangoicoac zuei emanicacoa da, zuec gucioc dezuten ala, ta escua gucia.

EMAN dizquitzue zuei ceren Jangoico maita-garriac, zuec ceroc nai dezutela, cere gauz onac eguiteco, zuec behar dezuten, bere escua, laguntza, ta indar gucia; ta oriec zuec eguiñaz, ta eguinaz, gracia, ta glori anitz irabazteco videa: baña, oriec egun beharrean, edo eguin lecuan, gauza gaistoac zuec egui-

eguitera, Jangoico emalle bera izain da zuen contu-artzalle zucen zorrotza; ta Jangoico berac zuei azquenean emain dizue, lan char oriei dagotena, edo eternidade bateco fulecea.

BEGUIRA, bada, dio JESUS maita-garriac: beguira cer eguiten dezuten, PILATOS bera bezala, gaista zaitezqueen, guizonac!

ETZARA beldurtzen zu, becatari charra, JESUSen era onetaco erran orrequin? EZ? BERAZ ongui gogorra zara zu: ta, dirudienaz, PILATOS bera baño ere aguitz gogorragoa: bada beldurtu cen PILATOS zuri orain adiraci zaitzuna-requin; ta asi cen PILATOS bazter gucietan vide billa, gaizquric ez eguiteco, ta gure JESUS maitagarria Judatar gaistoen atzapar-etatic atera naiez.

BA-zuen orretaraco PILATOSec besteric ere. EZCONdua cen Pilatos; ta, Judatar gogorren atzapar-etatic JESUS atera naiean cebillen, demboran, gaztigatu cion bere emazteac PILATOS berari: BEGUIRA, guizona, beguira, certara zoazen! Beguira cere buruari; ta beguira, ta contu, cere escuetan daducazun, oben bagueco guizon orrequin: bada aguitz izugarriac dira, gaur niri adiraci zaizquidan, gauzac, eta guciac dira orri dagozcanac, ta orren ontzalleac.

BERE emaztearen mandatu onec adiraci cion Pilatosi, oni beroni len JESUSec adiracia; bada, orain bezala, len ere adiraci citzaion Pilatosi, eguiten ba-zuen JESUSen gain, eguin behar etzuena; ta ill--erazten ba--zuen, obenic etzuen, gure JESUS maitagarria, atiecabe, ta neque arri-garri-etan sartuco zuela berac bere burua; ta, JESUS ona gatic ez-pa-cen ere, eguin cezala zucen, eguin behar zuena, bere ona gatic, eta eternidade gucico gaitzaren beldurrez ba-cen ere.

BAñA bere beldur hau quendu cioten Judatar gogorrac PILATOSi, edo bere beldur gucia-requin eraguin izandu cioten, berac nai zutena.

BELDUR hau hari quen erazteco; ta naiz beldur, ta naiz ez, hari eraguin naiez, berac nai zutena, asten dira Judatar gogorrac ojica, ta beren beste guisaco beldur bat PILATOS berari ar eraci naiez, esaten diore: ONgui da, PILATOS Jauna, bai, ongui

da:

da: ori viciric zuc uztera (etzioten JESUS maira-garriari bein ere deitzen bere icena-requin: ain gogorqui beguiratzen cioten Judatar galduac): ori viciric zuc uztera ez diozu ongui nai zuc, ez cere Erromaco Emperadoreari, edo cere Nagusiari; bada adisquidetzen zara zu, zure Nagusi-Emperadore--aren etsai orrequin, edo, hari emengo Erreinua quendu-nai dion, orraco guizon gaistaguin orrequin. EGUIzu, ba-deritzazu, PILATOS Jauna; eguizu zuc lan orisse; ta adiracico diogu guc Erromaco zure Nagusiari cembat zor dizun zuri, bere ordez emen zaduzcanari.

HAU Judatar gogorren ezpañ--etatic aditu--horduco, beldurtu cen Pilatos guizajoa; ta Erromaco bere Nagusiarequin, gaizqui gueldítzeco beldurrez, etzion casoric eguin izandu bere emaztearen mandatuari, ez, eta beste munduco etor-quizunari ere; ta, itsu-itsuan bezala, eman izandu zuen, gurutze batean iltzez josiric JESUS ill-erazteco sentenci gogor ecin macurragoa: ta, guizon baten ongui naia ez galdu--naiez, galdu izandu zuen Pilatos guizajoac bere Jangoicoarena, galdu izandu cen PILATOS bera beti, ta betico; ta leitzen, ta erretzen dago orain, ta era berean egon beharra da eternidade guci-gucian.

BELDURtzen ote nau ni, PILATOS ez-bezala, gaizqui vici diranen eternidade bateco sulecean egon beharrac; eta beldur onec eragozten ote derezquit niri, ara daramaten, obeu culpac, eta becatuac?

AY ene! Cembait aldiz bai nosqui; baña ez behar bezala, beti, ta uts eguin bague! BADA ascotan, ta ascotan ere ez nintzan oroitzen ni etor-quizunaz; ta bein aragui gaistoac, bere oroitzapen lizun, naicunde loi, ta atseguin ciquin-equin, era beste cembairetan, nere lagun galduac beren erran-equin, ta etsai gordeac sutuz, ta sutuz ni, eraguin izandu derozquidate anitz gaizqui, ta becatu: ta, orietan nic uste nuen, ona gatic, galdu izandu dut nic nere Jaunaren gracia; galdu izandu dut nic eternidade bateco gloria, ta galdu izandu dut azquenean nic nere burua.

BAÑA beti-betico?

BAY, vide on bat artu ez-pa-dut nic, guerozco nere demboretan, edo ori orain nic ez artzera. BAY, go-

goitzen ez-pa-nazaie ni nere sulececo etsai galgarriei, oriec dioten, gaizquiric ez eguiteco: ta bai, baldin, gogoan arturic nic gure JESUSec diona, edo bai dela, emendic atera ondoco contu-artzalle jaquintsu zucen zorrotz-zorrotz bat, eguiten ez pa-ditut nic nere Legueco gauzac, eta nere Jangoico maita-garriac adirazten dizquidan, beste guciac.

NERE Jangoico berac didala, artaraco behar den, bere laguntza, ta gracia. BAY, ta anitz gueiago, ta gueiago ere. BAY arren, bai.

1.

Ecce homo. Ioan. 19. 5.

BEGUIRA zagozu, guizon centzu gabea; beguira zagozu, arantzazco bere coroarequin, oial-tzar gorri batez ingurutua, ta cañabera bat escuan duela, Pilatosec eracusten dizun, Jangoico-guizon oni.

GUIZONA dela, dio PILATOSec: *Ecce homo*; ta ala da; baña ez da, ez, PILATOSec uste zuen, guizon utsa gure JESUS maita-garria; JESUS da alabaña Aita eternoaren Seme bacar-Jangoico, gure amorez, guizon eguiñ-icacoa; ta orre gatic da guizonen, ta Aingueru gucien BURU maita-garria. JESUS da, gure becatuac bere gain arturic, orien alde orrembat neque daramatzien Jangoico-guizon ecin altsuagoa. JESUS da, gure gucien oneraco daramatzien, bere neque equin guizonaren aintzura ere erdigaldua daducan, guizon-Jangoicoa.

BEGUIRA ezperen, zuc hau siñisten ez pa-dezu: negarrez, ta odolez illunduac daduzca JESUSec gaur bere bi beguiac! NIRI ongui naiez, edo ongui-nai onec ar-eraci diozcan, nequeac gatic dago JESUS gaur bere aurpeguico coloreac galduric, eta, den, gucia, escucaldiz, lituz, ta odolez bete-betea!

BEGUIRA; burutic odola dariola dago gure JESUS maita-garria; ta bere gorputz gucia daduca zauri, urratze, ta odol uts eguiña!

ORRA cer guizonaren aintzura, guri gaur gure amoreac gatic gure JESUSec aguertzen diguna! BADA cein ere iduri galduzcoa den, Jangoico-guizon ecin-ederrago batena da; ta, nere amorez era onetan arquitzen den, Jangoico-guizonarena.

ON-

ONGUI : ta cer ez diot hic zor, ni gatic onela dagoen Jangoico-guizon, nere JESUS maita-garriari?

ETA cer ez diot nic zorco emendic aitziña, norbanaz ni, ta nic JESUS berari escatzera, aldian aldiacoa; baldin ori nic escatzen ba-diot, hume onaren eran, leneco bere ontarte guciac gatic esquerrac emanaz, orain-dañoco nere zorrac ongui ezaguturic, eta orien, edo nere uts gucien-damu andia-requin? ORI norc, ongui beintzat, adiraci?

ETA ez ote dut gaurguero nic, nere Jangoico-guizon, onen onguillea, ta niri ongui eguin nai-utsez onembat neque, ta pena daramana, ciñez, ta ciñez maitatu behar?

EZ ote ditut nic artu behar, alic emequiena, ta Jangoico-guizon beraren icenean, nondic--nai niri datozquidan neque, ta naigabe guciac?

NAI nuque beintzat, Jangoico-guizon berac niri laguntzen didala. LAGUN zaquizquit bada, nere Jangoico-guizon JESUS maita--garria: bai arren, bai.

2.

ECCE HOMO.

ORRA, erraten dizu JESUSen Aita eternoac; orra Jangoico--guizon--JESUS nere Seme maita-garria. ORRA nola daducaten gaur nere Seme maite ori bere etsaiac; eta orra nola, ta certan hari den dembora berean nere Seme Jangoico JESUS bera.

Andiac dira, bai, bere etsaiac nere Seme maite JESUSi eguin izandu derozten, histac, eta charqueriac: baña aguitz, eta aguitz andiagoa da, JESUSec berac hista, ta charqueri orien artean daducan, humil-tasuna.

ORRA cein behartsu eguiñic utzi didaten aldi onetan bere etsaiac nere JESUS maita-garria! ESTALtzeco diña ez den, oial-tzar bat besteric ez diote Jesusi utzi bere soñeraco bere etsai-tzarrac: eta nere Seme JESUS bera soñecoez gain, bere vicia eman naiez dago zure, ta munduco guizon gucien oneraco!

ORRA, oñacez beteric daducate burutic oñetaraño nere Seme JESUS maita-garria; ta arrizcoa bai-liz, bezala dago, ta hitzic atera gabe JESUS bere oñace gucien artean!

ORRA nere Seme on ori ecin ecusi dutela daude orren etsaiac, eta, lembaitlen orri vicía quendu-naiez, ojuz, ta ibilliz bazterrac urratzen dituztela: ta JESUS dembora berean oriei ongui naiez dago, ta orien, ta nai duten, munduco gucien oneraco pozic daramala, daraman, guci-gucia, ta or bertatic eman naiez dago JESUS bere zañ-etan, ta bihotz-maitarian guelditu zaion, odol gucia!

ORRA bada non dagoen, dio azquenic Aita eternoac; orra zuei eracusten, dago nere Seme-Jangoico JESUS maita-garria, zuec nerequíco, ta ceren etsaiequico gaur danic eguin behar dezutena.

BEGUIRA eguiozue, bada, bein, ta berriz, ta maiz, ta maiz ere, ta eguizue zuec zucen, nere Seme maitari maita-garriac gaur eracusten dizuten, guci-gucia.

ONGUI da, Aita eternoa; beguiratuco diot nic beintzat, bai, zure Seme Jangoico guizon, ongui necatu oni; baña beguiratu behar diozu zuc ere cerbait zu beraz urricaltzeco: bada JESUSen humiltasunac, JESUSen gabeac, (eta gabe, JESUSec berac bere naiez daramanac), JESUSen isfill-erac, eta pacienciac, eta JESUSec zuri dizun, ta bere etsaiei ere dien, nai andi, ta amore bazterric gabecoac diote, obenic bague daramala, berac daraman, gucia: ta, ongui dirudien, gauza da, era orretan necatzen denaz no nai urricaltzea.

ETA, erraten ba-didazu zuc, niri, nere Aita maita-garria, JESUSec berez obenic ez izana gatic, oben-dun arquitzen dela JESUS, eta gure gucien obenac bere gain artuac daduzcala; aitortuco dut atseguin andia-requin, zuc orretan diozun, gucia; baña orre gatic diot berriz; ta berriz ere, beguira dezozula zuc, zure Seme JESUSec gure obenen beren alde eguiten duenari: beguira dezozula zuc guero JESUSi bere barren aldera, baldin ecusi nai ba-dezu zuc, nola gaduzcan gu gucioc, naiez, ta amorez ongui sartuac bere BIHOTZcraño; ta JESUSen gu ganaco amore, ta nai andi one gatic artu zazu zuc, Aita eternoa, orain-dañoco gure zorren alde, oriec gatic JESUSec daramadan, neque guci-gucia; iguzuzu zuc bera berriz gueren becatu berriequin

ez

ez necarazteco gracia. BAI arren, Aita eternoa, bai.

3.

ECCE REX VESTER. Ioan. 19. 14.

ORRA non dezuten, erran cien gure Jangoicoric len Judatar gogorrei PILATOSen ez-pañez; ORRA non dezuten zuec ceren Erreguea. ORRA, zuec aspaldi gucian uste cenuzten, ceren MESIAS, DAVIDen echetic dator-quizuena.

DATOR-quizue ceren oneraco, ta zuec, ceren neque galgarrien artetic atera naiez. EZ dezozutela quendu zuec ceren Erregue MESIASi bere vicia, zuec ceroc escatzen dezuten bezala.

ARTU zazue zuec gaur danic ceren Erreguetaco MESIAS hau, manatu, edo aguindu dezan emen bertatic zuen bihotz-etan. NAI dezue?

EZ-ETZ, eranzun zuten Judatar galduac; etzutela nai cioten, Erromaco Erreguea, beste Erregueric. ILLeraci cezala. PILATOSec, cioten, JESUS; ta lembaitlen alere; ta ill-eraci cezala gurutze bateco eriotz gaztiz gogorrarequin.

AH, Judatar ero gaistoac! EGUNen batez damutuco zaitzue bai, orain zuec ez artuaz, ceren Profetac eracutsiricaco ceren MESIAS, ceren Erregue hau!

MESIAS Erregue hau, zuen Erreguea da orain bertan; ta zuen beren Erregue izan da eternidade guci-gucian ere: ta zuec ceren Erregue onen escutic artu beharco dezue, naita-ez, eternidade gucico ceren nequea, edo arteguin-contentua: ta ez da eternidadeco arteguin-contenturic, bere Erreguetzat MESIAS hau artzen ez duenaren-daco.

BEGUIRA, bada, cer diozuen, Judatar gaistoac: beguira ongui, ta beguira berriz, ta berriz ere! CER diozue, bada, Judatar eroac, cer diozue? EZETZ?

EZETZ diote: ta beren ezetz orretan gogortuac guelditzen dira Judatar galduac!

ETA certan ote zaude zu, edo cer ote diozu zuc, JESUS maita-garriaren hume becatariac?

ORRA (Aita eternoac erraten dizu zuri ere): ORRA non dezun zuc, orra cere Erregue MESIAS, Jangoicozon JESUS maita-garria. ICHURA charrean orain egona gatic zure MESIAS Erregue ori, Erregue jaquintsua da; Erre-

gue berach urricaltia da; Erregue aberats guztiz emallea da; ta Erregue bereei, ecin gueiagoraño, nai diena: ta, ez dagocan, oraingo ichura ori ere, bereei ongui naiez daduca zuen MESIAS Erregue maita-garriac; bada Erregue orrec berac artu-nai izandu ez-pa-lu, etzion ar-eracico bere, guztiz galdua dirudien, ichura ori mundu guciac ere: hau da alabaña, Ceru gucian, ta lurreco edocein bazter-etan, nai duen edocein gauza eguiten duen, Erreguea; bada da nere Seme bacar-maite Jangoico-guizon JESUS maita-garria. ECUSI zazu bada, nai dezun, edo ez hau zuc cere Erreguetaco?

Baña beguira, dio Aita eternoac berac; beguira: JESUSen soldadu onac ibilli beharco dute JESUSen beraren eran. ARTU beharco dituzte, JESUSec berac bezala, ta nere icenean, edocein aldetatic eguiten zaizten, videgabeac, eta charqueri guciac: ònez erantzun beharco die gaistoen gaizquiei, ta errebeltasunei: maitatu beharco dituzte beren etsaiac, eta gaizqui-guilleac: garaitu beharco dituzte beren pasioneac, eta aztura gaistoac; eta eguin beharco dituzte, JESUSen Legue garbiac escatzen dituen, gauza guciac.

ORI gucia eguin nai dutenac dira, Erregue maitagarri hau beretzat artzen duten, soldadu onac.

NAI dezu, bada, artu, zuc ere; ta nai dezu eguin orre-taraco escatzen zaitzun, hau gucia?

BAI, Aita eterno maitea, bai; ta pozic al-ere. LENAGO hau ez eguiñaz dut orain aguitz damu; bai ta, len, nere lan on hau eguin baguez, eguin ditudan, orain-dañoco nere becatu guciez ere: ta asi nai dut orain nic nere lan on hau nere becatu orien barcamentutic, onen esquean ciñez esaten dizudala; *NERE JESUCHRISTO, &c.*



ARQUI-VIDEA.

XXVIII. OTOITZ-GAIA.
JESUSen igues-eguitea, ta IGYT-arteraco videa. Pag. 3
§. 1. JESUSec eracusten digu lagun gaistoen artetic igues eguitea. 003
XXIX. OTOITZ GAIA.
§. 1. JESUSen IGYT-arteco beharra, ta onequin eracusten diguna. 015
§. 2. JESUSenEgyptoco naigabeac; eta bere naigabe oriequin guri gaur eracusten diguna. 017
XXX. OTOITZ-GAIA.
JESUS-EN BAZCOA.
§. 1. JESUSen berezco Elizaratzea; ta Gurasó humeei an harc hordnan eracutsia. 025
§. 2. JESUSec berezquiro Elizan eguiña, ta guri eracutsia. 030
XXXI. OTOITZ-GAIA.
§. 1. JESUSen humil-tasun humilla, ta bere echeco eracustea. 037
§. 2. Dembora berean eguiten du JESUSec, icasle onac eguin behar dutena. 041

IRUR-GARREN LIBRUA.
Hitzezco JESUSen eracustea.
XXXII. OTOITZ-GAIA.
§. 1. Beharric bague artzen du JESUSec bere batazoa: ta artzen du, behar ditugun, Animaco gueren garbi-eracguri eraguitea gatic. 049
§. 2. Honra, ta gloria da gure Jaunaren iceneco humillerac dacarrena. 052
XXXIII. OTOITZ-GAIA.
JESUSen BARUR-OTOITZAC, edo peleac.
§. 1. Bere baruz eracusten du Jesusec, nola garaitzen den jan-edan gura, edo jan edanen nai gaistoa. 060
§. 2. Baztertuz otoitz-eguitera eracusten du JESUSec ANTUSTE-tentuac garaitzen. 064
§. 3. Lurreco gauzen ecer-eza aguertuz, eracusten digu gaur JESUSec gueren ONDASUN-gurac garaitzen. 068
XXXIV. OTOITZ-GAIA.
JESUSen Leguea, ta Legueco nequeac. 077
§. 1. Aguertzen digu gure JESUS maita-garriac bere Legue berria, ta Legueco ibillera. 077
§. 2. Gorputzaren necagarria da gure Jaunaren Legueco ibillera zucena. 081
§. 3. Animaren neca-garria da gure Jaunaren Legueco ibillera zucena. 085
XXXV. OTOITZ-GAIA.

Le-

Legue videraco JESUSen deiac; eta videco ondasunac.

§. 1. *Leguico nequeac guri arceraci naiez, eguiten dizquigu guri gure JESUSec amitz amoriozco deitze.* 094

§. 2. *Ona, bandra garria, ta sofeguzio videa da gure Leguecо videa.* 096

§. 3. *Ondasun, ta atseguin andizco videa da, gure Leguecо videa.* 099

XXXVI.

Gure Leguecо nequeac, behar bezala, daramaztenen Doatasuna. 111

§. 1. *Lembiticо Doatasuna: Jaunaren amorezco BEHARRA.* 112

XXXVII.

Bigarren Doatasuna: MANSOTASUN humtlla. 122

XXXVIII.

Irur-gar.NEGAR atseguin duna. 131

XXXIX.

Laur-garren Doatasuna: ZUCENtasunaren gose-egarria. 140

XL.

Bost-garren Doatasuna: URRICALtasuna. 149

XLI.

Sei garren Doatasuna: Bihotzaren GARBI tasun zucena. 159

XLII.

Zazpi-garren Doatasuna: BAQUEdia. 169

XLIII.

Zortzi-garren Doatasuna: VIDEonezco nequea. 179

XLIV.

Becatariac eguin behar dutena, DOAtasunac, eta CERUA itabazteco. 188

AUR ili berri baten viztea; ta indar gutizco becatarien gracia ratzea. 189

XLV.

GAZTE ill obira ceramaten, baten viztea, ta pasionezco becatarien gracia ratzea. 198

XLVI.

Ill ORTZITU usteltzen asiaren viztea, ta aztura guiztizco becatarien gracia ratzea. 207

XLVII.

MAIZCO OTOITZA.

§. 1. *Atseden toqui, ta indar-vide guztiz ona Elizaco otoitza.* 217

§. 2. *Era berecoa da bacar-tasuneco otoitza.* 221

XLVIII.

§. 1. *Cein diran gurutze videtic iguesi-eguiten dutenac?* 229

§. 2. *Cein caltearrac oriec?* 239

LAUR-GARREN-LIBRUA.

Jesusen nequeac, eta eriotza.

XLIX

§. 1. *Saltzen du Judasec Jesus* 241

§. 2. *Judasen calteen asiera.* 245

L.

§. 1. *Ostegun Santuco asalteguian Jesusec Judasi erraca.* 251

§. 2. *Au bertan Judas-equin Jesusec eguiña.* 256

LI.

LI.

§. 1. *Jesusen Getsemanico odolezco icerdia.* 263

§. 2. *Nondic cen icerdì hau?* 266

LII.

§. 1. *Artzen dute Jesus preso.* 275

§. 2. *Igues-eguiten dute Apostoluac.* 280

LIII.

§. 1. *Jesusen Getsemanitic Jerusalenaco ibillera.* 286

§. 2. *Caifasen echean Jesusi emanicaco esc-ucaldia.* 290

LIV.

§. 1. *Juduac Jesusen gain ematen duten, lembicico sentencia.* 298

§. 2. *Hau eman ondoco Juduen char-queriac.* 300

§. 3. *Beste Judu beren charqueriac.* 303

LV.

§. 1. *Juduen bigarren sentencia.* 311

§. 2. *Bera bere escuz urcatzen da Judas.* 315

LVI.

§. 1. *Igortzen du Jesus Pilatosec Herodes gana.* 324

§. 2. *Itzultzen dio Jesus Herodesec Pilatosi.* 327

LVII.

§. 1. *Ematen die Pilatosec Jesus, edo Barrabas Judatar gogorrei.* 335

§. 2. *Jesus utziric, artzen dute Barrabas Judatarrac* 339

LVIII.

§. 1. *Pilatosec ematen du Jesus ceatzeco, edo azotatzeco sentencia.* 348

§. 2. *Soñecoac quenduric lotzen dute Jesus Borreroac azot-ucaldi-etaraco.* 351

§. 3. *Ceatzen dute Jesus Borrero gogorrac.* 353

LIX.

§. 1. *Quentzen diozcate berriz Jesusi bere señecoac.* 361

§. 2. *Ematen diozcate Jesusi oialtzar gorri bat, arantzazco COROA, ta cañaberazco CETROA.* 364

§. 3. *Eguiten diozcate Soldadutzarrac Jesusi bista berriac.* 367

LX.

§. 1. *Era urrical-garrian Jesus ecusia gatic, etzaizca urricaltzen Judatarrac Jesusi.* 374

§. 2. *Ezagutzen du berriz ere Pilatosec Jesusen oben gabea; ta al-ere ill-erazten du.* 378



upna

upna
Universidad Pública de Navarra

upna
Universidad Pública de Navarra

upna
Universidad Pública de Navarra